

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1999, 2
44. liburukia
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
e.maila: euskalbilbo@jet.es

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua:	Jean Haritschelhar
Kideak:	Henrike Knörr Patxi Goenaga Jose Antonio Arana Martija Miren Azkarate Beñat Oihartzabal Patxi Altuna
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposizioa: Rali. Particular de Costa, 8-10, 48010 BILBO

Publimail 2000. Bilbo-Galdakao errepidea, 18, Arzubi etxea, 4. solairua,
48004 BILBO

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.
Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

VICTORIANO HUIZI-REN GRAMATICA BASCONGADA ETA AINGERU YRIGARAI-REN MENDEURRENAK

Fernando Flores Lazkoz, herriko alkatea, <i>Victoriano Huizi eta Aingeru Irigarairen mendeurrenak</i>	813
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Victoriano Huizi eta Aingeru Irigarairen mendeurrenak</i>	815
Andres Iñigo, euskaltzaina eta Nafarroako ordezkaria, <i>1923an Etxarri-Aranatzen egin ziren Euskal Jaien oroimenean</i>	817
Joxemiel Bidador, <i>Biktoriano Huiziri buruzko berri laburra (1860-1938)</i>	821
Jose Angel Irigaray, <i>Aingeru Irigaray, gizarte zibilean barna</i>	831
J.M. Satrustegi, <i>Aingeru Irigaray euskararen sustatzaile</i>	835

GRAMATIKA JARDUNALDIAK

Juan Carlos Odriozola, Euskal Herriko Unibertsitatea. Zientzia Fakultatea, <i>Postposizioak EGLUn: Egitura motak eta gramatika-kategoriak</i>	841
Igone Zabala, (EHU), <i>Gramatika-kategoriak eta EGLU</i>	865

ONOMASTIKA JARDUNALDIAK

EUDEL-EUSKALTZAINDIA

Angel Iturbe, EUDEL-eko euskara arduraduna, <i>Herrietako toponimia normalizazioari buruzko jardunaldia</i>	901
Angel Iturbe, <i>Jornada sobre Toponimia y Normalización de las denominaciones de entidades locales, barrios y calles de la Comunidad Autónoma Vasca</i>	903
Henrike Knörr, euskaltzain oso eta Euskaltzaindiko Onomastika batzordeburua, <i>I. Toponimia ikastaroa</i>	905
Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzaile eta Onomastika batzordekidea, <i>Toponimoen ofizialtasunaz eta administrazio arteko aplikazio arazoez (I)</i>	907
Mikel Gorrotxategi, euskaltzain urgazlea eta Onomastika batzordeko idazkaria, <i>EUDEL-ekiko hitzarmena dela eta euskaltzaindiaren toponimia lantaldearen plangintza</i>	911
Patxi Salaberri Zaratiegi, euskaltzain urgazlea eta Onomastika batzordekidea, <i>Toponimia nagusia normalizatzeko irizpideak mintzagai</i>	921

ONOMASTIKA JARDUNALDIAK

Jose Luis Lizundia, Onomastika batzordekidea, <i>Toponimoen ofizialtasunaz eta administrazio arteko aplikazio arazoez (II)</i>	933
Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkaria, <i>Euskaltzaindiaren toponimia lantaldearen plangintza eta izendegian normalizatzeko arauak</i>	935

JAGON SAILA

1899-1999: EUSKAL JAIEN MENDEURRENA DELA ETA IV. JAGON JARDUNALDIAK ARAMAION

Miren Azkarate, <i>IV. Jagon Jardunaldiak, Euskaltzaindiaren araugintza (IV)</i>	949
Andres Urrutia, <i>Euskararen sustapenerako ahaleginetan</i>	969

Juan San Martin, euskaltzaina, <i>Hizkuntza, hiztunen giza eskubideen arabera</i>	979
Jose Ramón Zubimendi, <i>Jagonet egitasmoaren aurkezpena euskalgintzako profesionalei</i>	985
Erramun Baxok, <i>Euskara elez eta legez Ipar Euskal Herrian</i>	987
Andres Iñigo, euskaltzaina eta Nafarroako ordezkaria, <i>Nafarroa: Euskara bermatzeko bide berrien beharra</i>	997

1899-1999: EUSKAL JAIEN MENDEURRENA

Iñaki Nafarrate, Aramaioko alkatea, <i>Lore jokoak 1899-1999</i>	1005
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Euskal jaien mendeurrenean</i>	1013
Pedro Pujana oletarrak, <i>Pedro Pujanari Aramaioko herriak herriko seme kuttun eta Aramaioko urrezko domina emon</i>	1015

EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK ETA ADIERAZPENAK

Euskaltzaindiaren ARAUAK:

98.—Hiztegi Batua: <i>pikante-postu</i>	1047
99.—Zuberoako herri eta herritarren izenak	1054
100.—Hiztegi Batua: <i>postura-santu</i>	1056
101.—Hiztegi Batua: <i>santugile-soprano</i>	1067
102.—Hiztegi Batua: <i>sor-suziri</i>	1078

BATZAR AGIRIAK

Donostian, 1999ko apirilaren 23an	1087
Donostian, 1999ko apirilaren 23an	1095
Bilbon, 1999ko maiatzaren 28an	1097
Ageriko batzarra	1102
Etxarrin, 1999ko ekainaren 24an	1104

Donostian, 1999ko uztailaren 23an	1110
Aramaion, 1999ko irailaren 24an	1118

* * *

Euskaltzaindiaren adierazpena: <i>Europar Batasuna</i>	1125
<i>Ingurumen</i> hitzaz	1127

JASOTAKO TXOSTENAK

GRAMATIKA

Juan Luis Goikoetxea Arrieta, <i>Noiz eta non erabili ere eta noiz eta non ere bai</i>	1133
Jose Antonio Mujika, <i>Erlatibo arrunta zehaztaile? teoriak eta datuak</i>	1139

GRAMATIKA EREMUKO ZALANTZEI ERANTZUNEZ

<i>Gramatika Batzordearen erantzuna 'Lander Arrasate jaunak (Lizardi euskaltegia-AEK), Merezi izan aditzaren erabileraz eginiko galderari'</i>	1161
--	------

ONOMASTIKA

Patxi Salaberri Zaratiegi, Onomastika batzordekidea, <i>Santu, San, Done eta ingurukoak</i>	1169
Jose M. Satrustegi, <i>Santutegiko done forma Hegoaldeko tradizioan</i> ..	1177
Jesús M. ^a Sasía, <i>Más sobre toponimia euskérica en las Encartaciones de Bizkaia</i>	1183

HERRI-IZENDEGIA: DIKTAMENAK

Dictamen sobre <i>Arbulu</i>	1199
Dictamen sobre <i>Ordoñana / Erdoñana</i>	1203
<i>Enkarterri / Encartaciones</i>	1205

<i>Izendegia / Diccionario de nombres vascos / Dictionnaire des prénoms basques</i>	1207
---	------

HIZTEGIGINTZA

Michel Morvan, <i>Commentaire critique sur les "materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca"</i>	1213
--	------

BERRIAK

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Euskaltzaindiko Donostiako ordezkari-tza eraberritzean</i>	1227
Koruko Aizarna, Gipuzkoako euskara eta kulturako diputatua, <i>Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkari-tzaren berriztatzeaz</i>	1229
Henrike Knörr, <i>Les nostres llengües</i>	1231
Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea, <i>Errose Bustintza "Mañariko"-ren mendeurreneko ospakizunak</i>	1233

AURKEZPENAK

Jose Angel Cuerda, Gasteizko alkatea, <i>Presentación del libro Voces Alavesas de Gerardo López de Guereñu</i>	1237
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Voces alavesas liburua aurkez-tean</i>	1239
Henrike Knörr, Onomastika batzordeburua, <i>Voces alavesas bigarren argitaraldia</i>	1241
Elena Mtz. de Madina Salazar, <i>Voces alavesas, aurkeztapena</i>	1243

EUSKAL GRAMATIKA LEHEN URRATSAK-V

Euskaltzaindiko Gramatika batzordea, <i>Euskal Gramatika lehen Urratsak - V</i>	1245
---	------

**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:
1988.eko LITERATURAN SARITURIKO
LIBURUKIEN AURKEZPENA**

Jean Haritschelhar, euskaltzainbura, <i>Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia: literatura-sariketak</i>	1257
Karlos del Olmo, <i>Jon Gurea Parisen Hatzana</i>	1259
Karlos del Olmo, <i>Jon Gurea Parisen Hatzana, (Jon nuestro, que yaces en París)</i>	1261
José Luis Padrón, <i>Ibaia euri-erasotan bezala. Premio poesia Felipe Arrese Beitia saria</i>	1263
Jon Sudupe, <i>Euskaldunak, liberalak eta komunitatezaleak. Premio ensayo Mikel Zarate saio saria</i>	1265

HIL BERRIAK

Serafin Basauri, <i>Imanol Laspiur (1929-1998)</i>	1269
Mikel Atxaga, <i>Anbrosio Zatarain Etxebeste (1912-1999)</i>	1273
Juan San Martín, <i>Jose Antonio Loidi-ren oroitzaz (1916-1999)</i>	1277
Jose Mari Satrustegi, <i>Bernardo Estornes Lasa (1907-1999)</i>	1283

**Victoriano Huizi-ren *Gramática*
Bascongada eta Aingeru
Yrigarai-ren mendeurrenak**

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-24/25

Antolakizun batzordea:

Andres Iñigo, Jose Luis Lizundia, Gema Insausti, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta.

Gramatikako batzordea:

— *Burua*: Patxi Altuna; *Idazkaria*: Jesus M. Makazaga; *Kideak*: Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Piarres Charritton, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose M. Larrarte, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Francisco Ondarra, Kar-mele Rotaetxe eta Pello Salaburu.

Onomastikako batzordea:

— *Burua*: Henrike Knörr; *Idazkaria*: Mikel Gorrotxategi; *Kideak*: Andrés Iñigo, Jose Luis Lizundia, Jean-Baptiste Orpustan, Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan San Martin eta Jose Mari Satrustegi.

Exonomastikako batzordea:

Gidor Bilbao, Andolin Eguzkitza, Iñaki Irazabalbeitia eta Xabier Kintana.

VICTORIANO HUIZI ETA AINGERU IRIGARAIEN MENDEURRENAK

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-24

*Fernando Flores Lazkoz,
herriko alkate/udalburua*

Hasiko gara gaurko ekitaldi honekin: lehenengoa, denoi ongi etorria ematea izango litzateke. Ongi etorria, bai Euskaltzaindiari, gonbidatu guztiei eta etorri zareten herritar guztioi. Gaurko egunean ospatzen ditugu Victoriano Huizi eta Aingeru Irigaraien mendeurrenak. Bi egun hauetan izango dugu aukera ezagutzeko bi pertsona hauek, euskararen alde egin zuten lanaren gaiak eta bereziki etxarriarra izan zen Victoriano Huiziren lana *Gramática Bascongada* delakoa. Horrek frogatzen du urteetan zehar izan direla pertsonak euskararen alde lan egin dutenak eta ere euskararen defentsan jardun dutenak. Bestaldetik, horrek frogatzen du euskarak beharrezkoa duela pertsona guztion lana aurrera atera ahal izateko. Hau dena, bi egun hauetako ospakizun hauek egiteko, Ziriketzen taldeak eskaini zion Udalari Euskaltzaindia gonbidatzeko eta Udalak osoko bilkura batean, denon oniritziarekin, gonbidapen hori luzatu genion Euskaltzaindiari. Euskaltzaindia, hemen ikusten dugun bezala, etorri da hona, Etxarrira eta ari da jardunaldi hauek burutzen. Horregatik nahi nuke nabarmendu Euskaltzaindia egiten ari den lana, euskararen normalkuntzaren alde. Denok beharrezko dugulako, euskara gero eta tresna inportanteago eta aberatsago izatea gure arteko harremanetan. Atera behar duela nolabaiteko bazterketa horretatik eta horregatik eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari egiten duen lanagatik. Esan behar dut etxarriar guztion arteko elementu inportantea izan behar duela euskara eta Euskal Herri osoko euskaldunon arteko harremanetan, euskarak ere lagundu gaitu etorkizuneko Euskal Herria euskaldun osoa izaten eta bestaldetik ere, Euskal Herria aske bat egiten. Horregatik, denon artean landu behar dugu euskara eta euskararen inguruko kultura.

Besterik gabe, nik bukatuko nuke eta berriz eskerrak eman nahi dizkizuet eta baita ere apatu ahalegin hau gauzatu dutenak.

Orduan, orain, pasatuko nioke hitza Jean Haritschelhar euskaltzainburuari. Berak izango du hitza.



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

VICTORIANO HUIZIREN
GRAMÁTICA BASCONGADA
eta
AINGERU IRIGARAIEN MENDEURRENAK

Etxarri-Aranatzeko 1999ko ekainaren 24an eta 25ean.

Udaltzean eta Kultur Etxean



ETXARRI-ARANAZKO UDALA

VICTORIANO HUIZI ETA AINGERU IRIGARAIEN MENDEURRENAK

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-24

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Etxarri Aranatzeko alkate jauna,
Sakanako alkate eta agintariak,
Euskaltzainkideak,
andereak eta jaunak, agur.

Eskerrak ukan ditugu zuregandik, alkate jauna; nik ere, orain, Euskaltzaindiaren izenean, eskerrak bihurtzen dizkizut.

Eskerrak harrera paregabekoa hartu dugulakotz herri honetan. Egun eta bihar, bi egun iragaiten ditugu Nafarroako eremu pollitean. Goiz honetan zuzendaritza bildu da Kultur etxean, arratsaldean hileroko bilkura egin dugu udal-etxean hiztegi batua aztertuz eta, halaber, Zuberoako herritarren izenak. Bihar, goizez eta aratsaldez, Gramatika batzordea, Onomastika batzordea eta Jagon Saileko Sustapen batzordea ariko dira lanean, Euskaltzaindiak lan egiten baitu bereziki batzordeei esker.

Hain zuzen, berriz ere gaur, zuen aitzinean errepikatuko ditut Euskaltzaindiak Euskal Herri osoari egiten dion emaitza. Hor daude lekuko Orotariko Euskal Hiztegiaren 11 liburukiak, hamabigarrena agertuko delarik datorren abenduan Durangoko azokarako; Gramatika batzordeak argitaratu dituen bortz liburukiak, seigarren bat aurten, murgildua delarik euskal joskeran; Hizkuntz atlasaren lehen liburukia hiruehun bat mapekin prest dago argitaratzeko; Onomastika batzordeak ez du denborarik galtzen jakinik *Onomasticon Vasconiae* sortan hamasei liburu kaleratuak direla; Literatura batzordea lantzen ari da estilstika hiztegi bat, beharrezkoa erakaskuntzan, eta denbora berean biltzen ditu jardunaldi edo kongresoetan euskaldun ikerleak euskal literaturak dauzkan idazle ospetsuak ohoratuz, hala nola Oihenart edo Lizardi eta, duela bi urte Antoine d'Abbadie, euskal letretako mezenas handia XIX. mendean.

Gaur, areto nagusi honetan bilduak gara euskararen bi zerbitzariren ohoratzeke. Aipa dezadan lehenik Aingeru Irigarai nafartar euskaltzaina. Duela berrogei urte hain zuzen, Aingeru Irigaraiaren ezagutza egin nuen. Orduan ene

tesiareen lantzen ari nintzen eta, egunero, banindoan Gipuzkoako diputazioko bibliotekara. Harat hurbiltzen ziren Koldo Mitxelena, Fausto Arocena, Artetxe eta Aingeru Irigarai. Zer plazera haiekin mintzatzea! Zer ez dut ikasi batzuekin eta bertzeekin! Gogoan ditut oraindik haiekin iragan ditudan denbora goxoak. Aingeru Irigarai izan da gure kidea Euskaltzaindian, haren lanak ezagutuak dira eta badakigu denek euskal kulturari egin dion emaitza. Larreko, nafatar idazle famatuaren semea zen eta aitak ideki zuen ildotik joan da bere bizi guzian. Agurtu nahi ditut mahain honetan dagoen Aingeru Irigarai-ren semea José Angel eta aretoan diren seme eta ahaideak.

Duela ehun urte sortu zelarik Aingeru Irigarai, zendu zen Victoriano Huizi, herri honetako semea "Gramatika Bascongada" baten egilea. Ene ondoan dagoen euskaltzain batek aipatuko du Victoriano Huizi-ren lana, aztertuz sakonki gramatikariaren emaitza.

Ohar bat egin nahi nuke. Gazteleraz idatzia da Gramatika Bascongada de-ritzan liburua. Garai hartan 1895ean, Iparraldean, Iturrik agertarazi zuen gramatika bat, frantsesez idatzia dudarik gabe. Halakoa zen orduko giroa ikerketa lanak idazten zirela gazteleraz edo frantsesez. Giro hori osoki aldatua da. Azken mende laurden honetan agertu diren gramatikak euskara hutsean idatziak dira, Euskaltzaindiarena ere, erran gabe doa. Zerbait erran nahi du aldatze horrek. Erakusten du gure euskara gai dela edozein gairen erabiltzeko, lekuko direlarik Euskal Herrian ditugun unibertsitateak eta lehen eta bigarren mailako ikastetxeak. Euskara sartua da eskoletan, ikastoletan, unibertsitateetan, euskaraz emaiten dira klaseak, euskaraz egiten dira ikerketak, euskalduntzen ari da hezkuntza. Giro pozgarria dudarik gabe, erakusten duena euskara sartzen ari dela eremu guzietan, zilegi den bezala.

Horretan uzten dut ene mintzalditxo hau, berriz ere bihotz bihotzetikako eskerrak bihurtzen dizkiedala Etxarri-Aranatzeko eta Sakanako alkate eta agintari guztiei.

1923an ETXARRI-ARANATZEN EGIN ZIREN EUSKAL JAIEN OROIMENEAN

Andres Iñigo,
euskaltzaina eta Nafarroako ordezkaria

1. SARRERA

Iaz ospatu genuen Donezteben bertan 1923an egindako Euskalegunen 75. urteurrena.

Ospakizun haren berri ematerakoan esan nuena gogoraraztea ongi etorriko zaigu Etxarrin urte hartan berean, baina lau hilabete lehenago, egin ziren Euskal Jaien garrantzia ulertzeko.

Euskaltzaindia lau urte lehenago sortu zen, 1919an alegia, eta hasiera hartan hartutako erabakietako bat bi urtetik behin eta eskualde desberdinetan Euskalegunak ospatzekoa izan zen, honako helburu honekin: galtzen ari zen euskarari eustea eta, aldi berean, gure hizkuntza indarberritu eta hedatzea. Lehendabiziko Euskalegunak Durangon egin ziren 1921ean. Haien ondoren, Euskaltzaindiak Nafarroako Diputazioari eskaera hau egin zion: Nafarroan euskal jairen bat edo gehiago egiteko dirua eman zezala arren, “*galtzen ari zaigun euskarari eusteko*” (1). Bigarren Euskalegunak Donezteben egin ziren, bada, 1923ko irailean. Baina Euskalegun horien erabakiaren oinarri Etxarri-Aranatzen lau hilabete lehenago, urte hartako maiatzean hain zuzen, egindako Euskal Jaiak izan ziren. Azkue euskaltzainburuak honela zioen: “*Etxari-Aranatz'en egin zen jai ura ain ederki atera zela ikustean, Aldundiak egun berean jakitera eman zigun Doneztebe'n egitea naiko zukela*” eta hartarako laguntza ere eskaini zuen (2).

2. ZER IZAN ZIREN ETXARRIKO EUSKAL JAIAK?

Euskal Jaiak Euskaltzaindiak antolatzen zituen jardunaldiak ziren, besteak beste, hiru helburu hauek lortzeko: 1) euskarari eutsi, 2) behar bezala balioetsi, 3) bere erabilera gizartean sustatu. Jardunaldi horiek antolatzeko beharrezkoa

(1) *Bigarren Euskalegunetarako Itzaldiak Doneztebe-n*, Gaubeka inprimategia, Bermeo, 1926.

(2) *Ibid.*

zuen herri agintarien babesa, eta Etxarrikoek izan zuten bai Nafarroako Diputazioarena baita Etxarriko Udalarena ere.

Etxarrin egiteko arrazoia garaiko prentsak nahiko argi adierazten digu, hots, inguruko ibar eta herrietan euskararen erabileraren galera oso nabaria zela eta galera horren mugak bertarutzen ari zirela (3).

Etxarri puntu estrategikotzat jo zuten egoera hari aurre egiteko (4). Ekitaldien balorazioa egiterakoan ere helburu nagusia hori zela argi adierazten du prentsak (5).

Jaiaren ekitaldi publikoak maiatzaren 21ean izan ziren, goizeko 9etan hasi eta arratsaldeko 7ak arte. Beraz, ekintza ugari sartu zuten egitarauan eta, laburbilduz, honako hauek izan ziren garrantzitsuenak:

— Abestiak: Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Unanu eta Lizarragako haur, gazte eta helduek euren herrietako kantak abestu zituzten.

— Bertsolariak eta irrintzilariak.

— Zenbait haurrek buruz esandako olerkiak (Margarita Mauleón aipatzen da horien artean).

— Hitzaldiak: Marzelo Garziarena, Irañetako erretorea, Arturo Campiñón eta Damaso Intza euskaltzainak izan ziren hizlariak.

— Azterketak: inguruko herrietako neska-mutikoez euskaraz nola irakurtzen eta idazten zuten neurtzeko. Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Ergoiena eta Bakaikukoek hartu zuten parte. Hoberenei sariak banatu zitzaizkien: liburuak eta Nafarroako Aurrezki Kutxako kartilla bana. Arbizuarrak izan omen ziren herrien artean mailarik altuena agertu zutenak.

(3) Jaiak ospatu ondoren, *El Pensamiento Navarro* egunkariaren lehenengo orrialdean POR EL EUSKERA titulupeko editorialak honela zioen: "Acaban de tener lugar en esta villa las fiestas y actos de propaganda del Euskera organizados por la benemérita Academia de la Lengua Vasca. Eran ya, indudablemente, necesarios para que no se amortiguase —como se iba amortiguando— el uso de nuestra lengua nativa, tanto en este pueblo como en los de los alrededores. La fábrica de Olazagutia, la estación de Alsasua, el Valle de Araquil donde —vergüenza es confesarlo— en pocos años ha desaparecido casi por completo el Euskera, y por otro lado, las Améscoas, Goñi y Yerri, venían cercando a la propiamente Burunda, hasta tal punto que parecía que no podía tardar mucho en ahogar el vascuence que por fortuna en sus pueblos se habla todavía". *El Pensamiento Navarro*, 1923ko maiatzaren 23koa.

(4) "... vinieron muchas personas atraídas por el interés que había despertado este homenaje que se hacía al vascuence en esta villa, donde es fama entre los entendidos que se habla con gran corrección y pureza. *Diario de Navarra*, 1923ko maiatzaren 23koa.

(5) El día de hoy ha sido para Echarri-Aranaz y para toda la Burunda un día íntimo y de puro regocijo [...] y servirá indudablemente para que la Burunda que hasta ahora ha sido el primer baluarte montañés en donde se ha detenido la invasión antieuskérica se convierta en foco potente desde donde irradiará el amor a la lengua nativa [...] y en definitiva el amor a todo lo que sea navarro, a lo que sea tradicional, en una palabra, a sus fueros venerados". Urbasa (sinatua). *El Pensamiento Navarro*, 1923ko maiatzaren 23koa.

Hasieran aipatu dut Jai haiek babes ofiziala izan zutela. Nafarroako Diputazioak diru laguntza emateaz gain, bere presentziarekin babestu eta bultzatu nahi izan zituen, bertaraino etorritz, hemen egon baitziren egun osoa Lorenzo Oroz eta Ignacio Baleztena diputatuak. Damaso Intza euskaltzain eta jai haien prestatzailerik sutsuenak —bera izan zen eskoletako haurrak euskaraz irakurtzera eta idaztera bultzatzen ibili zena, bai Etxarriko Euskal Jaietarako eta baita Doneztebeko Euskalegunetarako ere— ongi adierazten du garai hartako Diputazioaren babesa idatzirik utzi zizkigun honako hitz hauetan: “*Aldundian giñeuzkan zorionez Irujo'tar Manuel eta Baleztena'tar Ignacio jaun ospetsu eta euskaltzaleak. Oiengandik iritsi nuan gure errietako eskoletan euskeraz irakurri eta idatzgi egiten erakusteko baimena. Baita, ikasten zuten aurrei «Aurrezki Kutxa»ko libretaz diru-sariak emateko eskubidea ere*” (6).

Prentsak ere aintzat hartu zuen diputatuen presentzia hori (7), eta Euskaltzaindiak berak jaien ondoren egindako adierazpen ofizialean goraipamena eskaini zien, alde batetik Nafarroako agintariei (8) eta bestetik Etxarriko udalari (9). Madriliko Euzko-Etxeak ere Etxarriko alkateari igorritako eskutitz batean zera zioen “... *nai datzugu erakutsi gure atsegiña Euskal-jai artan artu duzun parteagandik, zeren jai orretan goraltzen zen dakusgun gauzarik obereña Euskera. Artu zazu Euskalerri alde guzietako anai-erriarren batzuen agur miñenak. Madri'n 6'an, 1923n garagarrilla. Lendakaria Arospide tar Jon*” (10).

Victoriano Huizik bere gramatika Nafarroako Diputazioari eta Iruñeko Seminarioari eskaini zien. Diputazioa zoriondu egiten du, gramatika argitaratu baino bi urte lehenago, 1897an alegia, Iruñean euskal katedra sortu zuelako. Apezpikua, ordea —bere izena aipatzen ez badu ere— gogor salatzen du, Nafarroan euskaraz bertzerik egiten ez zuten herrietara euskararik ez zekiten apezak igortzen zituelako. Horregatik, gramatikaren helburua “*apez erdaldunak euskararen ikasbidean abiaraztea*” zela adierazten du.

Urte batzuk geroago, 24 pasatu baziren ere, Huizi apezak ikusi ahal izan zituen bere helburuaren fruituak. Etxarrin Euskal Jaiak egin ziren ikasturte be-

(6) Patxi ZABALETA: “Euskaltzaindian sartzea”, *Euskera* XXXIII (2. aldia), 1988, 1, 19. orr.

(7) “...hemos tenido el placer de saludar a los dignos Diputados forales don Lorenzo Oróz y don Ignacio Baleztena”. *El Pensamiento Navarro*, 1923ko maiatzaren 23koa.

(8) “Satisfechos pueden estar los navarros con sus autoridades que con tanto entusiasmo velan por la conservación de las notas peculiares de su pueblo”. *El Pensamiento Navarro*, 1923ko ekainaren 7koa.

(9) La Academia “acordó un expresivo voto de gracias para este Ayuntamiento por el apoyo que prestó para la celebración de las fiestas vascas [...] y por los agasajos y distinciones con que acogió a los representantes de la Academia y demás autoridades, terminando por ofrecer su concurso en todo lo relacionado con la cultura vasca. Enterada la Corporación, acordó por unanimidad participar que este Ayuntamiento agradece la distinción de que ha sido objeto”. Etxarri-Aranazko udaleko akta, 1923-6-30ekoa.

(10) Udal artxibategiko korrespondentzia, 1923ko ekainekoa.

rean, Euskaltzaindiak hala eskatuta, Nafarroako Diputazioak euskal katedra hornitu zuen Seminarioan. Filosofiako 1. eta 2. mailako ikasketak egiten ari ziren apezgai guztiek euskara derrigorrezko asignatura izan zuten. Ikasturtearen bukaeran lortutako maila egiaztatzeko, Euskaltzaindiak, Etxarriko Jaiak ospatu eta hurrengo astean, Arturo Campi3n eta Damaso Intza izendatu zituen aztertzaille (11). Eta garaiko prentsak dioenez, apezgai haiek lortu zuten maila oso altua izan zen (12).

Dirudienez, gaur egungo apezgaiak ez daude horrelako emaitzak lortzeko bidean. Esan didatenez, Seminarioko ikasketa plangintzan euskararen presentzia gutxienekora murriztua dago.

Euskaltzaindiak antolatu duen Victoriano Huiziren euskal gramatika eta Aingeru Irigarairen mendeurrenaren ospakizun honetan, 1923an Euskaltzaindiak antolatuta hemen egin ziren Euskal Jaiei oroimenari bukaera emateko hiru gauza aipatu nahi nituzke:

— Lehenik, Etxarriko Udalari eskerrak eman. Garai hartakoak bezalaxe, euskararen aldeko ospakizunak egiteko adierazi duen interesagatik eta eskaini digun babesa eta laguntzagatik.

— Ondoren, oraingo ikastola eta eskoletan ikasketa prozesua euskaraz egin duten eta egiten ari diren neska-mutikoez eta herriar guztiek eutsi diezaiotela, eta ahal den neurrian aberastu, etxarriarren euskara mailari, hasieran aipatu dudana bezala, garai hartan “*con gran correcci3n y pureza*” hitz egiten zutela esaten baitigute.

— Eta azkenik, Nafarroako gizartea azken urte hauetan egiten ari den euskararen aldeko ahaleginaren alde, garai hartako Diputazioak erakutsi zuen euskararekiko hurbiltasuna, laguntza eta bultzada bera ager dezatela, egungo Gobernuak, Elizbarrutiko arduradunek eta herri agentari guztiek.

(11) Euskaltzaindiaren 1923ko maiatzaren 28ko akta, *Euskera* VI urtea, II-III zenbakiak, 1925, 68 orr.

(12) “El resultado de los exámenes ha sido en extremo satisfactorio, habiéndose podido apreciar la labor grandiosa llevada a cabo por el celoso profesor vasco don Esteban Irañeta. También puede verse la aplicaci3n y entusiasmo de todos los alumnos por el estudio de la hermosa lengua, pues hasta los que son hijos de los pueblos en donde por desgracia no es conocida, han conseguido traducir en solo cinco meses de estudio el vascuence con gran facilidad. ¿No es esto verdaderamente encantador?...” *El Pensamiento Navarro*, 1923ko ekainaren 7koa.

BIKTORIANO HUIZIRI BURUZKO BERRI LABURRA (1860-1938) (1)

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-24

Joxemiel Bidador

Justo Huizi eta Anastasia González de Villazón senar-emazteren seme bararra zen Biktoriano 1860.eko irailaren 6an jaio eta 1938.eko irailaren 19an izenkidea zuen Biktoriano Irurtzun iloba apezak lagundurik zendu zen Etxarri-Aranatzen (2). Apaiz izateko ikasketak Iruñeko San Migelgo apezgaitegian burutu zituen, hau da, hiru urteko humanitateak, bi urteko filosofia, eta sei urteko teologia, honen ostean, 1885. urte inguruan apeztu zelararik. Behin apeztez gerroz, hamalau urtez izan genuen erretore eta beste zazpi urtez ari izan zen apaizlaguntzaile Nafarroako hainbat tokitan. Apez moduan burutu zuen lehenbiziko lanak Aezkoara eta Itzara eraman zuten, Abaurrepera eta Larunbera hain zuzen ere; halaz guztiz, ez zen luzaroei joko sorterritik hurbilera joanarazi zuten arte,

(1) Ezin esan Biktoriano Huizik ez duela ikerlarien arreta bereganatu. Gutxi dirateke etxarriar honi buruz izkiriatu dutenak, baina euskal letretan labandu diren egile txikiez usuenan ditugun berri-iturri eskasei erreparatuz, gure Biktorianoren gainekoak nahikoa eskuragarri ditugula onartu behar. Arazoa, ordea, ditugun datu horiek batu eta Huiziren biografia zehatza osatzera abiatzerakoan hasiko zaigu, izan ere, dauden berri-iturri guztietan jasotzen direnak batera ez baitatoz, eta bete gabe dirauten hutsune nabarmenak baitituzte. Biktoriano Huiziz bereziki kezkatu zen lehenbizikoetakoa José María SAN SEBASTIAN, *LATXAGA*, izan genuen. Honek "Biktoriano Huizi Etxarriko seme ospetsua" artikulua eman zuen argitara behialako Príncipe de Viana aldizkariaren euskarazko gehigarrian, 1974.eko maiatzean, non argazki eta guzti eskeini zigun; Huiziri buruzko berri bila zuzen-zuzenean etxarriararen sortetxera jo zuten. Georoagokoak dira, oro har, Huiziri buruz ditugun bestelako iturri bibliografikoak: Antonio PEREZ GOIENA: *Ensayo de Bibliografía Navarra*, IX, 1964, 265-266 or.; Fernando PEREZ OLLO: "Huizi González de Villazón, Victoriano", *Gran Enciclopedia Navarra*, Iruñea, Nafarroako Aurrezki Kutxa, 1990; Rafael CARASATORRE BIDAURRE, Eugenio ULAIAR eta José Luis HERDOZIA: *Etxarri Aranatzko euskera eta Arañaz Elkarteko hiztegia*, Iruñea, 1991, 105-110 or.; Rafael CARASATORRE BIDAURRE: *Barranca Burunda*, Etxarri-Aranatz, 1993; Joxemiel BIDADOR: "Biktoriano Huizi etxarriar gramatikagilea", *Nafarkaria*, 1996-IX-20; Blanca URMENTA PURROY: *Navarra ante el vasconce: actitudes y actuaciones (1876-1919)*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 1996, 256 or.; ZIRIKETZEN Euskara Taldea: "Victoriano Huici (1860-1938): Etxarriko apaiz euskalzalea", *Guaixe*, 1996.eko abendua, 25. zenbakia, 25 or.

(2) Ez zen Krisostomorenean jaio, esan ohi den bezala, bada, orduan ez baitzen horrela deitzen Huizitarren etxea. Biktorianoren hirugarren arrebarekin, hau da, Inozentziarekin ezkondukatu Krisostomo Irurtzun Iraheta lakuntzarrak eman zion izen berria etxeari —beste bi arrebak Narzisa eta Maria Kruz ziren—. Biktorianoren jaiotze dataren inguruan Carasatorre-Ulaiar-Herdozia hirukoteak, 1868.eko apirilaren 27koa, eman ziguten.

eta 90.eko hamarkadarako Unanun eta Arakil-Uharten izan genuen erretore; Ergoienako herrian, bestalde, eta zituen beste zereginen artean ere, latin eta humanitate irakasle ihardun zuen, zeramatzan ikasleen artean, Lakuntzako Blas Alegria euskal idazlea zegoelarik (3).

Nafarroan euskararentzako zegoen egoera itogarriaren lekukoa izan zen Huizi, eta urte bertsuetan hainbat euskaltzaleen ekimenei esker ekintza itxaropentsuak aurrera atera baziren ere, haiek ez zizkioten Huiziri begiak lausotu. Hemezortzi urteko apezgai gaztea genuen Biktoriano Nafarroako Euskara Elkartek bere ibilbideari ekin zionean bizitza laburreko aldizkari kulta bezain berritzailearen lehenbiziko alea argitaratuz, eta oraino, Bonapartek Sakanan barrera eginiko ibilbidearen orotzapenak itzaltzeke ziraukeen, alabaina, zailegia dateke Nafarroako puntako euskaltzaleek, hots, Campiónen eta Iturralderen lagunartekoek Huizirengan une hauetan izan zuten eragina zehaztea, orobat, printzearena. Campiónen *Orreaga* 1880.ean atera zen argira, eta lau euskalki literarioen gramatika, berri, 1884.ean, Tolosako Lopez-Mendizabalenean. Puri-purian biziko zituen, ordea, 1897.ean Nafarroako euskarako katedrarako oposaketaren ingurukoak, gramatikaren erdarazko sarreran jaso zuen bezala:

“Por cuyas razones comprendo bien lo acertada que estuvo la Exma. Diputación cuando hace dos años resolvió crear una cátedra en baskuén en Pamplona, no con el solo objeto de tenerle conmiseración, como se tiene a otros monumentos antiguos, sino con el noble y doble fin de que sea estudiado y se extienda por toda esta provincia de Navarra, como lo hacen sus hermanas en las suyas; en la seguridad de que es el mejor tipo que puede presentar para la felicidad de sus administrados.”

Ez zen aurkeztu, agidanez, baina ezin jakin zergatia, bada, aurkeztu izana ez zatekeen gauza harrigarriegia gertatu handik bi urtetara bere gramatika argitaratzeko gauza izan bazen; edozein modutan ere, oposaketan gailendu Iñarra oiaztuarra handik gutxira hil zen, ezagun denez, aldundikoek ezer gutxi egin zutelarik kostata ateratako postua arrabetetzeko.

Gotzainarekin Huizik ukan zituen arazoak euskara zela bide, eta Carasatorre-Ulaiar-Herdozia lan-taldeak zioskunaren arabera, ez ziren, ordea, aparteko kontua, nahiz onartu behar den, Biktoriano koxkorreko pertsona bazela, genio txarrekoa ez esatearren; 1901.ean estatuko *Boletín Oficial*-ean Nafarroako eskoletatik euskara kentzeko agindua xedatu zuen Benito Valencia gobernadore zibilak, hainbat tokitan jada egiten ari zenaren aurka, eta ber urtekoak dira, Bilboko lore jokoetan, Unamunok esandako mamukeriak. Gutxiz gehien euskararen aurkakoa zen giro honetan, eta euskararen alde zeuden Campión eta abarren aparteko ghettoan sartzeke, bada, atera zuen Huizik bere gramatika.

Iruñeko gotzaiak ez zukeen begi onez hartuko Huiziren ekintza. Bestela ere, ordurako nahikoa higatua zegokeen, eta handik gutxira, urtea amaitu aitzin,

(3) Eugenio ULAIAR: “Blas Alegria euskal idazlearen bizitza eta lanak”, *Euskera*, 1983, XXXVIII-2, 316-317 or.

dimisioa aurkeztu zuen. Antonio Ruiz-Cabal Rodríguez (Cádizko Villamartín, 1835-Sevilla, 1908) 1886.ean iritsi zen Iruñera, eta hagitz langilea bazen ere, berekin zeraman eite harrosko eta mesfidatiak apezpikute giko eliztar gehienen mesprezu hotza erakarri zion, eliz kargurik garrantzitsuenak kanpotarren eskutan utzi izanak ere emendatu zuen gauza. Diabetek jota zegoelako aitzakiaz alde egin zuen Iruñetik 1899.eko abenduan, ohiko adio ofizialik gabe, bere agintaldiaren porrotaren erakusgarri. Biktorianoren liburua, berriz, abuztuan atera zen karrikara, bere poltsikotik ordainduta, eta lehenbiziko orrialdeetako ohiko baimen eta zentsura eklesiastikoak bertan ezarri gabe. Liburuan ezarri sarreteran ere, nahiz esplizitoki gotzainaren jarrera ez aipatu, bai inplizitoki iger daitekeela gotzain andaluziarrari eginiko salaketa, nola euskarazko sarreteran, nola erderazkoan:

“Geruagoko eunkadetan berriro indarra artu bearrian, artian izan zittuben kontrario denak baño aundiagokua sortu zitzaion erdera edo gaztela, eta onek beiti eta gaur geiago, bere desafio eta kastiguaki nei dau debekatu ez bakarrik erakuslekutan baita suondotan ere aztu daien gutzias; ontarako erdaldun denak elkartzen dira eta gutxi billatuko dira oni ongi begiratzen diotenetatik, zeñi aundia ote da gaztelak euskerari dion gorrotua! Eztau adittu eta entzun nai bere buresua duela, nei lauke au ondatu lurretik. Gendu dizkigu gure ainziñako usuario, lege, eta bizi modu gastu gutxikuak: izkuntzau eziñ digu gendu oraindik bintzet gure erri batzuetan, au dau kontrario aundia, onek iraunten deben artian, guk euskaldunak ez gera fiatuko Gaztelareki eta bere agindu falsueki, onek iraunten deben bitartian Euskaldunak beti euskaldun: erak, gu ola ezaguturik, egiñen dittuzte alegiñak gentzera guri ere geren izate pare gabiau, gure biotz animetan dagon izkuntza eta biziau, zergatik ongi dakite gendurik erri bati bere asmo eta barrunbeko pentsamentuak ezagutzera emateko modua, gentzen zaiola bere izatia bere bizitza: nei gaitu bereganatu ez gure onagatik baizik daukaguna kendu eta eztaukienaki berdintziagatik, goarturik ongi, gureki obeki biziko dala. ¡Ah aparte bagaunde zeñi ederki elkartuko giñake euskaldunok denok! (...)

(...) ¿Qué diré del baskuenz respecto al ministerio sacerdotal? En Nabarra hay muchos pueblos y mucha gente que no sabe más lengua que el baskuenz, por consiguiente, para esa, la explicación de la doctrina cristiana, del Santo Evangelio, corrección de los vicios y administración de los Santos Sacramentos, debe ser en baskuenz; y a nadie se le oculta que para esto es preciso saber leer, escribir, entender y hablar el baskuenz, sino queremos conocer, como hasta ahora, casos de ver a sacerdotes que, solos y sin saber palabra de él, han tenido que habérselas con feligresías en donde no había más que dos o tres empleados públicos que entendieran su castellano (y esto a sucedido con cabildantes míos), siendo consiguiente en las mismas la indiferencia religiosa. Y no basta que el sacerdote haya nacido de padres bascongados y en pueblo bascongado, pues muchos de estos no pueden cumplir, como se debe desear, con sus obligaciones, sin mas que esto.”

Apezpiku berria iritsi zenean, hau da, José López-Mendoza y García (Burgosko Frías, 1848-Iruñea, 1928) agustindarra, berriz, ez zen egoera ezertan ere

aldatu. Agintego hasieran bertan Lacorten *El Porvenir Navarro* astekaria debekatu zuela eta (4), bazirudien gotzain berriak herri nafar osoaren oniritzia jasoko zuela, 1900.eko urriaren 9an manifestaldi erraldoiak aditzera eman zue-
nez, baina geroagoko hainbat gora-beherek aurreko egoera bera bersortu zuten. 1902.eko kalonje doktora izateko oposaketetan Juan Gómez izenekoa gertatu zen irabazlea, ia segurutzat Hilario Ihaben apez nafarra gailenduko zela jotzen zenean; honetan gotzainaren esku-sartzea ikusi eta salatu zuten Legaz, Garnika, Irujo, Hernan eta Tirapu kalonjeek, baina nahi zutena lortu beharrean, gotzainak apaiz lizentziak kendu zizkien hauei, eta sorturiko iskanbila laxatzeko Zaragozako gotzainak egin behar izan zuen bake egilearena. Handik gutxira, 1905.ean hain zuzen ere, Baztan eta Ilundain apaiz nafarrak Iruñean apezpiku sagaratu zituztenean, eliz ofizialaren ordezkariarik ez zen elizkizun horretara bertaratu, Nafarroako apezgoa bereziki sumindu zuena; ondoko egunetan esandakoagatik, apezgaitegiko zazpi irakasle kendu egin zituen bere kargutik apezpikuak; aferak gori-gorian iraun zuen *Diario de Navarra* egunkariaren orrietatik bereziki, eta ez zen jabaldu apezpikuak Zapateria karrikakoa “rebelde a la autoridad y colocado en la pendiente del cisma” hitzekin mehatxatuz, Eustakio Etxauri zuzendariak atzera egin zuen arte.

Burgostik etorritako agustindar honekin, bada, ez zitzaion Huiziri bere lana goxotu, ez eta aisatu ere, eta hasiera batean Etxarrin geratzeko emandako hi-

(4) Basilio Antonio Lacort Laralde (Bera, 1851-Iruñea, 1908) militarra eta kazetariak, Ruiz Zorrillak Madrilén sortu *El País* eguneroko errepublikazalean ekin zion idazteari estrainekoz, horrezkero lagako ez zuen iharduera. 1898.eko maiatzean *El Porvenir Navarro* izeneko astekaria agertu zuen, bertan botatakoengatik Iruñeko gotzaiak kazetaren irakurtzea debekatu zuen heretikoa, sorginkeriatik hurbil-hurbilekoa, eskandalagarria, erorbidea eta gaitz guztien iturria bazelako. Arrazoiak arrazoi, esandako guztien azpian, Eskolapioetan agituriko hainbat haragikeria lizun salatzea bide zegoen. Lacorten jarrera guztiz zorrotza izan zen beti, eta dotrina kontuetan ez sartu arren, apezgo nafarraren zurikeria petrala agerian uzten ahalegindu zen ahal guztietan. Erlijio gizon eta emakumeen moral zikoitzak bortizki asaldatzen zuen Berakoa, batik bat joku berotik ateratako dirua aisaki onartzen zutelako. Kritikak aurtikitzerakoan ez zituen lazkaturen izenak berekiko gordetzen, eta behin baino gehiagotan frai Arcangel Lizarrakoa buruñurduna edo frai Gilberto Blanco agustindarra izan zituen ikusmiran, hurrengo apezpikuaren gogaitasuna areago hantu zuena, bada, José López Mendoza-García gotzaia agustindarra ere bazelako. Azken honek aurrekoak xedatua orobat berrestez gainera Lacort *nominatim* eskomikatu zuen, baita astekaria sustatzen zuen oro, berdin kazetari, harpidedun, inprimatzaile, saltzaile, erosle, edota irakurlea zen. Bestaldetik Jenaro Pérez Moso gobernadore zibilak bere egin zuen elizaren epaia, eta astekaria galerazi zuen. Esan ere egin behar da aitzinetik Lacortek berak gobernadore ustelak Tafallan zuen isilpeko joku-etxearena agerian utzi zuela. Iruñeko agintariek, zibilek nahiz erlijiosoei, Lakorten paperak zukurturik, manifestaldi erraldoia antolatu zuten 1900.eko abenduaren 9rako, liberalismoari aitziko ekin-tza garbia gertatu zena. Halaz guztiz Madrilgo biltzarretan, Senatu nahiz Gorteetan, *El Porvenir Navarro* astekariaren debekaldiak sortu iskanbila lakarrak Nafarroako gobernadore zibilarengandik Lacortek beste argitalpen bat kaleratzeko baimena lor zezala erraztu zuen, *La Nueva Navarra* deituko zena hots. Alabaina, honakoak ere gotzaiaren erasoak jasan zuen, eta 1901.eko otsailaren 25eko dekretuaren bitartez eskomikua atezatu zuen, bigarren astekari honen irakurtzea heriozko pekatu zela ezin argiago utzirik, erresuma zaharreko eliza guztietan irakurtzeko zein ateetan jartzeko agindu zuela. Lacorten lanen irakurle fermua eta harpideduna Urdiango idazkaria zen Andres Agirre genuen, Biktorianok seguroenik ere ezagutuko zuena.

tzari men egin gabe, Altsasura igorri zuen apaiz-laguntzaile 1900.eko irailaren 27an, Carasatorrek eta jaso zigutenez:

“Obedeciendo a órdenes de mi superior jerárquico, me veo obligado a pasar a la parroquia de Alsasua en calidad de coadjutor y contra lo que me prometía...” (5).

Altsasutik Urdiainera aldatu zuten, eta azken honetan parrokoiko ekonomilari zegoela, “Elizaguindeen zuzenguin kontuskua” izenburupekoa eman zuen argitara Iruñeko apezpikutegiaren aldizkaria. Honakoa Urdiaingo misioen erreseina dugu, laburra izanagatik ere, interesekoa dena, non bi orrialde eskasetan, 1903.eko bukaeraldean Orkin eta Erbiti aita erredentoristek Urdiainen eginiko misioaldien aipua ekarri baitzigun:

“Ama Birjiñ zortzes Garbiaren bederatzi-urrienian izan zan jentil erriontan (kupidegabiak izendatzen gaituztenes) Aita Erbiti ta Orkin erredentoristak euskera eman ziguten bidalde edo misio santua, zeifñetan gure ongi etorriya zutenetik agertu ziguten lenbizi amorio aundiyareki eren biotza, urrena eza-guturik Jaungoikuaren gloriaganako aien deseia ta gure salbaziuaganako zela; danak zein lenago ta peleyan bezela juaten giñan Eleizara itzaldi santutara. Aspaldi nuan aditzera oso moduskuak zirala bidal premilieztarako, ala erakusi ere digute, zergati guretake bakarrik ongi eldu ziran ordutan, goizian eta arratsian irakatsi ta oroitu dizkigute amorios, baita ere diadarka San Pablok bezela, jainkuaren aginduak, gure animak ainbeste premia dituen birtudiak eta beraren salbaziuari dogozkion otoitzak. Aien itzaldiak izan dira umillak eta santuak, baya ain zorrotzak eta zeloskuak, bekatu, eriotz, juizio, infernu, euskaldunak erderas egiten duen bekatuaren gaiñian eta geñiarako oituer a geiztuen gaiñian, nun mugiarazi gaituzte (pozes negarra darigula) konfesatzera ta Jauna errezibitzera gozaro kantatuas: atoz bekatariya, Jesus gure Jaun maite, bekatariok Ama, agur Maria, etc., beste batzueki. Misio urren egunian erregutu giñuen denok gure erri ta sukaldetatik beste mundura jua ziran anima geizto ta gure biotzeko aietas. Orain gaude bizirik dagonak ezagutu ez duen pozes beterik. Urdiango abadiak, abendubaren 10, 1903 urtian” (6).

Apezpikutegiko *Boletín Oficial Eclesiástico* aldizkaria Uriz Labairu gozaiaren agintegoan sortu zen 1862.eko maiatzaren 10ez geroz. Karrikan izan zen lehenbiziko 40 urteetan ez zen testurik euskaraz ageri, harik eta 1903.eko ekainaren 2an Arruitzen erretore zegoen Joxe Fermin Argiñarenak “Mayatceco illa Euskal-Errian” izenburuko laburra igorri zuen arte. Baraibartar harekek ireki ildotik, beraz, etorri zen Huiziren lana, tamalez, ezagutzen dugun azkena ere izan zena (7).

(5) Biktorianoren oharra Etxarriko udalari; CARASATORRE, ULAIAR, HERDOZIA: Op.cit., 106 or.

(6) “Elizaguindeen zuzenguin kontuskua”, *Boletín Oficial Eclesiástico del Obispado de Pamplona*, 1904-I-2, 964. zbk., 12-13 or.

(7) José María SATRUSTEGI: “Miscelánea: El euskera en el B.O. Eclesiástico de Pamplona”, *Fontes Linguae Vasconum*, 70 zbk., 1995, 545-548 or.

Urdiaindik 1904.ean atera zen Iraizotzera erretore joateko, baina Ultzaman ere arras denbora laburra eman zuen (8), izan ere, Lesakara aldatu baitzuten apez-laguntzaile lanetan berriz ere aritzeko (9). Apezpikutegiko agintariekin, beraz, zituen arazoak zirela bide, hau da, bere Sakana maitetik urruntzea, bi apezpikuek euskararekiko erakutsitako jarrera, edota aipatu 1902. eta 1905.eko aferek etsirik, 1906.eko otsailaren 23an Josulagunen ordenean sartu zen josulagungai moduan Loiolako etxean, honekin bere bizitzaren lehenbiziko aroa itxiz.

Ia hogeit urte eman zituen Biktoriano Huizik Lagundian. Apaiza bazen ere, josulaguna izateko prestakuntza ikasketak burutu behar izan zituen; lehenbizi, eta lehenengo zinitzak egin aurretik, josulagungai bezalako hiru urte igaro zituen Loiolan; handik, Burgosko La Merced ikastetxera joan zitzaigun 1909.eko ikasturtean erretorika ikasle moduan; hurrengo bi ikasturteetan, berriz, teologia dogmatikoa eta morala ikasi behar izan zuen Oñako ikastetxean, eta azkenik, josulaguna izateko faltatzen zitzaion hirugarren probanda 1912.ean egin zuen Loiolan. Ordur geroz, apaiz lanetan ihardun zuen Lagundiaren zenbait etxetan: 1913.ean Loiolakoan, 1914.etik 1918.erako laurtekoan Bilbokoan, 1919.etik 1922.erako hirurtekoan berriz ere Loiolakoan, eta azkenik, 1923.etik 1924.era Durangokoan. 1925.erako jada ez da Biktorianoren izena Lagundiaren katalogoetan agertzen. Azken urte hauetan gerizpetu zuen ordena uzteko izan zitzaizkeen arrazoiak ez dira ezagunak, alabaina gauza jakina da etxarriarra ari zailekoa zela, koxkorreko pertsona, eta batekin eta besteekin muturka ibili izanaren ondorioa zatekeen. Edozein arrazoi delarik ere, Huizik Loiolako ordena largatu zuenean, urrutira jo zuen, ausaz ahantzbidea harturik, eta Kuba aldera joan zitzaigun berriz ere apez soil moduan. Karibeko uhartean, ordea, ez bide zuen denboraldi luzeegia eman, eta handik gutxira Etxarriara itzuli zen, non zendu arte sortetxean geratu zen.

Gure asmoetatik at geratzen da Huiziren liburuari buruzko iruzkin sakonik egitea, halaz guztiz, honen gaineko hitz bi esatea haizu bekit. Ezaguna zaigu jada, *Manual de gramática bascongada dedicado a la excelentísima Diputación de Navarra y al Seminario Conciliar de Pamplona* izenburukoa alegia, Nafarroako hiriburuko Estafeta karrikako 31. zenbakian zegoen Erizeren moldiztegiaren 1899.ean atera zena, berauek bere poltsikotik ordaindua izan zena, esan bezala. Ez zen makala ere atera orduko garaiko prentsa idatzian jaso oniritzia; honela zioen, esaterako, *El Eco de Navarra* egunkariaren kazetariak:

“Podemos asegurar que es obra sumamente apreciable por su sencillez y claridad, con abundantes ejemplos en castellano y vascuence. Está la obra basada en el estudio de los ocho dialectos vascongados, la de los mejores vascófilos

(8) Ez dakigu, beraz, urte haietan Ultzamako apezten artean zegoen mugimendu euskaltzalean zein neurritan hartu zuen parte gure Huizik —Justo Albisu, Serapio Navarro...—, nahiz tamalez, etxarriarraren ekarpena Ultzama aldean ezer gutxitan nabaritutako zela pentsatzeko arrazoiak badauden.

(9) Bortziriko hiri honetan sei ziren erretoreari laguntzen zitoen apez-laguntzaileak.

pero no es la de ninguno de ellos, viene a llenar un gran vacío pues se ocupa del dialecto navarro septentrional, por componer esta parte la mayoría de los vasco-navarros y no haberse escrito gramática paralela, y con el fin de que se tenga un guía seguro a quién seguir. Por todo lo cual recomendamos a todos los vascongados y a los que quieran aprender el vascuence tan útil libro" (10).

Alabaina, erraldoi bakan baten antzera, isolaturik, ohiartzun haundirik gabe igaro zitzaigun Huizirena. Ezaguna da *Euskara* aldizkariaren bitartez Bonaparte eta Campiónen arteko komunikazioa Nafarroako hainbat hizkeren inguruan, tartean Sakanakoak. Berri iturri ezin baliagarriagoa zukeen Campiónek Huiziren idazkia, ordea, ez zuen, dirudienez, behar bezala aprobetxatu, eta horren frogara dugu iruñarrak 1908.ean argitara eman zuen gramatika txikia, bere aurreko lan potoloaren laburpena baizik ez dena, eta gipuzkeratik abiatuta gainera, Huizik bere gramatikan iparraldeko goi-nafarrera abiapuntu hartzeko gomendioari zaputuz eginez; ber urtean López-Mendizabalek atera zuen bere gaztelera-euskara hitz egiteko esku-liburua, Campiónen beraren sarrerarekin, non Huiziren lanaren aipamen mendrenik ere ez baitzen. Biktorianori ez zion laguntza haundiegirik ekarriko bere ideologiaren biluzte saioa, nonbait, edonon eta edonoren aurrean egiteko enbarazurik sortzen ez ziona. Karlista amorratua izanik, bere liburuaren sarreran liberalentzako hitz gogorrak izan zituen, gramatika den neurrian oso gauza aproposa ez datekeena:

"Erdaldunak ia denak baldin badiote euskeldunari gorrotua, aparteko modu batian gorrotatzen dau liberalak; liberalak eztaue izan eta ez izan ere kontrario aundiagokorik: zergatik euskaldunak eztaue Jaun bakar bat eta erreligio bakar bat besterik sinistatzen, eta nois nai utziko dau bizia oien alde, ez tittu ikusi nei oien edozin gauza pentsatzeko, eskribatzeko erakusteko eta estimatzeko libertade galgarri zorigeiztoko oiek, jakiñik oiek baño obeki egiasko Elizak erakusten deben dotriña, umill gordetzen dau bere bizi moduan. Nun izan da erreligio geiago? Nun projimo lagunari amorio geiago? Nun bake obia eta geiago euskaldunartian baño? ¡Nork pentsatu olako geiztankeririk! Libertadioki beraki anparaturik, nei dizkigute kendu, geren euskera, fueruak, edo geren serbizio andien saritzat dauzkagun legiak, nei dau guk ere ongi etorria eman dezagun, eta agur onareki bestiak bezela burua makurtu dezagun bizio guzien burasu eta gure Jaun Dibinoaren etsairik aundirenak asmatutako geizterako baimenoni."

Idazki honen hezurdura zehaztearren, gaingiroki izanik ere, liburukiari goiburua emateko bi hizkuntzatan egin sarrera guritsua datorkigu, bata bestearen itzulpen zuzena naski ez dena, eta elkarri osagarri argi litezkeen arren, aski argi da Huizik bi irakurle mota zuela gogoan, alfabetaturik gabeko euskaldun hura eta euskaraz ezertxo ere ez zekien erdalduna alegia, eta norbederarengandik emaitza ezberdin erdiestea zukeen helburu etxarriarrak. Sarreraren ostean jarraian dakarren gramatika gaika banandurik dugu: alfabetoa, artikulak, izenak, dek-

(10) "Un libro útil", *El Eco de Navarra*, 1899-VIII-13, 6760 zbk.; Blanca Urmeneta Purroyen liburutik harturiko aipua, op.cit., 256 or.

linabidea, izenordeak, izenondoak eta aditza. Ahitzeko, benetan interesgarriak diren Aranatz aldeko hiztegi laburra eta hainbat esaldi nahiz elkarrietzeta eskaini zizkigun, azken orrialdeetan agertzen diren dotrina kontuak, zenbait ipuin eta Aralarko San Migelen omenezko kantekin batera.

Ez dira asko Etxarrikoak ondu liburuaz arduratu eta kezkatu direnak, baina baten batek horren berri eman zuen:

“Oso gutxik ezagutzen dute gizon argi onen lana. Aita Villasantek ez du aipatzen, ezta ere Mitxelenak. Intxaurrondok berriez, Iruñako apaizgaitegian egindako itzaldi batean agertzen digu Bitoriano Huiziren lana.”

Latxagak esan bezala, Migel Intxaurrondo Arriaranek 1926.eko bere *La iglesia y el euskara* liburuan bazekarren honen aipamena. Ezin da ahanzi Arribeko apez honek Iruñeko apezgaitegian ihardun zuela euskara irakasle, eta Huizik, azken buruan, erakunde berberari eskeini ziola bere liburua, beraz ez da harritzekoa Araizkoak Sakanakoarena ezagutu izana. Areago, sakandarrak zein arazitarrak euskara zela eta kezka berberak zituztela ezin da ukatu. Ia 30 urte geroago, arrazoi berberak zeuden Intxaurrondok *La iglesia y el euskara* salaketa entseguia kexu argitara emateko; honek ere, Huizik bezala, ez zuen salaketa soil eta antzu eman nahi izan, eta 1928.ean euskara ikasteko gramatika ere ondu zigun. Bestalde ere, Huizik aurretik eginiko salaketari ez zion gramatikaren bitartez soilik aurre egin, eta euskaraz ere izkiriatu zuen Iruñeko apezpikutegiaren aldizkari ofizialean, ordurako, nahikoa gauza berritzailetzat jo dezakeguna; komunikazio bakarra izan zen aipatu argitarapenean atera zuena, baina gehiago ateratzeko zailtasunak arnasten zen orduko giroan zeuden, ez ordea Huiziren eskuetan, hori gauza segurua da.

Huiziren ostean Intxaurrondok eginiko salaketak ezer gutxirako balio izan zuen; tartean gerratea iritsirik, gauza jakina da zein neurritan kaltegarri agitu ziren gudaldia zein ondoko urteak; Santiago Ezkerra Beltzak, Etxarri-Aranazko Aurelio kaputxinoa zenak alegia, bere 1958.eko *Bederatzi-urrien bearrezkoenak eta eliz otoitz batzuk* eliz lanaren sarreran honela mintzo zitzaigun:

“Liburu onen zegatia?: Askotan entzun oi diet errietan apaizei: ez degu iñun euskerazko bederatzi urrenak dakartzkien liburu bat ere arkitzen. Eta bateonbat sakabanaturik arkitzen bada, euskara itsusian egiña dago. Ainbeste aldiz entzun ditut itz aukeratuak, alako egun batean lanari lotu nintzala. Negargarria da, alegia, Euskalerriko elizetan euskerazko bederatzi urrenik ez dalakoz erderaz egitera bearturik egotea. Jaungoikoaren naia da bakoitzari bere izkeran itz egiñtea. Eta gañera elisetan euzkeraz itz egiten ezipada, eta euskeraz otoitz egin, alperrik izango da gure izkuntza goxo ta garbia gordetzeko egingo dan alegiña” (11),

(11) Santiago Ezkerra Beltza euskal idazlea ere badugu. Etxarri-Aranatz 1925.eko maiatzaren 6an sorturik, kaputxinoen gerizpean ondu zuen bere idazlan ia guztiak Aureli Etxarri-Aranazkoa erlijioso izenpean edota *Lizarrusti* ezizen literarioarekin. Hiru izan ziren agertu zituen liburu txikiak: *Migel goiaingeruari bedratzi-urrena*, Iruñea, 1956; *Bederatzi-urrien bearrezkoenak*

eta askozaz froga garbiago bezain hurbilekoa dukegu *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarrian 1971.eko maiatzean Anko Sendoa ezizenaren azpian bere grazia izkutatzen zuen Jose Angel Irigaraik argitara eman zuen “Eliza eta euskara” artikulua. Hartan nafar elizak euskararekiko zuen jarrera saminki deitoratzen zuen, eta adibideen artean Dorrauko kasua ekarri zigun:

“Ergoieneko Dorraun, denek euskaldun arrontak, eta elizan erderaz; gainerat altaboz batzuk herrian barrena paratuz, jendea erdaldunduaz, eta erotuaz, obe-ki kristau dadin, nonbait.”

Dorrauko apeza ez zen ixilik geratu, eta urte bereko azaroan igorri zuen bere erantzuna, “Anko-sendoari erantzun idekia Beriain petik” izenburupean, baina Irigarai ez zen ezta erantzuten kezkatu ere egin, eta Dorrauko erretoreak igorritako testuari ohar laburra erantsiz, egoeraren etsigarria azalean utzi zigun:

“Berant bada berant, erantzun hau agertzen da. Nere iduriko, auzia nahiko garbia gelditzen da, eta ez du merezi gehiegi luzatzea.”

eta eliz otoitz batzuk, Zarautz, 1958; eta *Meza saildua*, Iruñea, 1958. Denbora laburrez ere *Zeruko argia*-ko zuzendari lanetan aritu zen, eta ugariak dira *Goiz Argi* aldizkarian zein *Príncipe de Viana* euskarazko gehigarrian atera zituen kolaborazioak. 1961.ean ordena utzi zuenetik, Madrilén bizi da.

AINGERU IRIGARAY, GIZARTE ZIBILEAN BARNA

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-24

Jose Angel Irigaray

Gizartearen zinezko bizigarritasuna eta kultura sormena askatasunean loratzen dira; bertan, botere zibila eta militar edota erlisioneazkoa bereizirik izateaz gain, alderdi politiko eta suerte guztiko erakundeen dogmapean artalde gisa ez diharduen gizartegintza baitezpadakoa da.

Gizarte zibil eta askaturako gizartegintzan barna bizi eta ibili direnetarikoa genuen Aingeru Irigaray; eta bidaide izanikako anitz ere gogaide ziren.

Berezkoa zatekeen jite hori garatzen eta mamitzen zoakiokkeen medikuntza ikasketak egiten hasi zenean; bereziki Bartzelonan eman zituen urteetan (1917-21). Catalunyako hiriburuko giro aitzinatu eta liberalak, sustraitua bezenbat zabala, zirrara berezia zion eragin, baita beti iraunen zion hatz sakona utzi ere. Arras laketu zen han, eta oso maite zuen katalandarren hiritar giroa. Bertan, aipagarri eta esanguratsua da, gizartearekiko jarrera hori txertatzen bide zitzaion denbora berean, errotik eman zen euskal literatura ezagutzerat, lapurtar klasikoarenganako atxekimendua hastapenetik loratu eta sendotzen zitzaiolarik. Haren gizarte jarrerarekin batera, beraz, literatur isuri eta zaletasunak finkatzen joan ziren. Euskara ardatz zeukan abertzaletasun errotu eta zabalean, herrikoia bezenbat kultoan, ez zatekeen ttipia aitaren eragina (“... *nik ezin dut sinetsi; aberria maite eta euskaraz egin ahalak egiten ez tuena*”, edota “*euskaldun jakintsun eta letradunek euskaraz behar dute...*”, Larrekoren funtsezko zutabeak baitziren). Barcelonan bilduriko lagunen artean ere jarrera eta literatur zaletasun horiek ereiten joan zen. Justo Garatek berak behin baino gehiagotan aitortzen duen bezala (“...*enaiz aspertzen erraiten zenbat zor dizudan Eusko Jakintzari buruz.*” dio 1920ko hamarkadako gutun batean).

Giro eta jarrera hori sendotzen joanen zaio, bizitza pertsonalean barna bezenbat euskalgintzari zetxekion jardueran. Bizitza pertsonalaz denaz bezenbatean, Bilboko egonaldia aipatu beharra dago. Bartzelonako zenbait lagunaz gain, Viar, Atutxa eta Usandizaga sendakinak, Hernandorena, Belaustegigoitia, Mañeruko Lasterra arte kritikaria eta oraino beste batzurekiko laguntzan trabatzen joan zen. Diman ere denbora labur batez eman zuen osagile gisa. Arratiako ahozkotatasunaren aberastasuna (eta Bizkaikoa oro har) beti idurituko zaio bihotz altxagarria; Zuberokoarekin baterat, profanoa izateaz gain, bizi-gatz eta

piperra duena. Horren gatik, agian, beti ibili zen gisa horrelako testu eta lekukotasunen biltzen.

Parisen eta Freiburgen ere ibili zen espezialitate ikasketen egiten, eta han gizarte jarrera hori sendotu baizik ez bide zitzaion egin lehengo ildotik beretik: bertakoa bezenbat kosmopolita, kultur egarritz eta jakintza maila zabalez hornitua.

Hori dena Iruñean, eta oro har euskalgintzan, gauzatzea ez zen aisa. Indarrean zeuden jarduera eta moldeak makurragoak izan zitezkeen (1936. urteaz geroztikakoak, konparazione), baina ez ziren aipatu hiri eta herrialdeetakoak bezalakoak. Hala ere, Iruñeko giroa, bereziki euskal kulturaren ingurukoa, ez zen usu uste ohi den bezain hertsia eta lanputsa; ez horixe. Gizarte zibilaren ildotik jende interesgarri asko zebilen eta ekimen frango garatu zen. A. Campion, Iturralde y Suit, H. Oloriz eta enparauen uzta ez zen nahi beste jori eta gauzatua, baina ez zen ttipia, ez murrizta. Haien Nafarroako "Asociación Euskara" elkartearen ondotik, XX. mendeko 2. eta 3. hamarkadetan "Euskeraren adiskideak" elkarteak jardun zuen Iruñean eta Nafarroa osoan. Bertan, apez euskalzale andanaz gain, artean B. Alegria, B. Fagoaga edota D. Intza, Iruñeko zibil jiteko jende baliosa (agian, zegoen baliosena) bildu eta ibili zen: J. Agerre (preziki, aurtun 110 urte betetzen dira Iruñean sortu zela), E. Zubiri "Manezaundi", L. Olivier, P. Roch, M^a Paz Ziganda, J. Larretxe Iruñeko alkatea bera, B. Tirapu sendakina, I. Baleztena eta J. Irujo deputatuak, Aranzaditarrak... Iri-garaitar aita eta semea ere hor ibili ziren. Ez urruti Alexander Tapia-Perurena, irunseme olerkari fin eta isila. Aingeru eta Tapia-Perurena adiskideak ziren, bi zentzuetan: lagunak eta adin-kideak, urte berean sortuak (bidenabar, 1923. urtean Etxarri Aranatz huntan bertan Euskaltzaindiak antolaturiko Euskal Jaian Tapia-Perurenaren "Miren Josune" olerkia sariztatua izan zen. Sortu zeneko mendeurrenean izanki, beraz, bego haren aldeko gure gorazarrea).

Giro hori gerlak zuen erroitik zapuztu, Iruñeko eta Nafarroako euskalgintza sakonki kordokatu, gizartegintza osoa hertsiki lotuz eta okupatuz.

Lehendik ere Donostiara joan ohi bazen ere, Eusko Ikaskuntzako egin-beharrak zirela-ta (arteana, J. Urquijo, A. Campión bera, Donostian eta Iruñean, Apraiztarrak, J. Elorza, J. Miguel Sansinenea, A. Labayen eta beste zenbaitekilako harremanetan tratatua baitzen), eta bestela (emazte izanen zena ere han ezagutu zuen), gerla ondoren, urte gutiren buruan bertara joan zen bizitzera, Bidasoako Hondarribian hiruzpalau urte eman ondoren. Han berriz hasiko zen harremanetan gelditzen zen euskaldungoarekin. Euskaltzaindian sartuagoa, J. Urquijorekin berarekin (H. Schuchardten "Primitiae Linguae Vasconum" lanaren espainierazko itzulpena egitera 1942. urteaz geroztik jada animatzen zuen), eta beste zenbait euskaltzain eta euskalarirekin. Diputazioko Artxiboko gunean eta Seminario Julio Urquijo delakoaren inguruan loratzen zolan giroa. "Egan" aldizkaria ere hortik sortu eta abiatu zen.

Nafarroari datxekionez, nahiz gerla aitzineko mailatik urrun egon, euskal kulturaren aldeko giro xumea loratzen hasi zen berriz. Tenore hartan baitezpadakoa zen ofizialdegiaren abegi gizartekoia M. J. Urmenetak eskaini zuen; gainerat, nahiz erakundearen babesean sortua izan, giroak laster bere zibil izari eta izaera propioa zuen hartu (ikastolen aldeko mugimendua, literaturaren bide berriak, kazetagitza, bertsolarigoa...). Gaur eguneko giroa, funtsean, haren kumea da. Nafarroako Artxiboko gunean ere, F. Idoate eta beste zenbaitekin maiz bildu ohi zen. Bidasoako Berara, bestalde, usu hurbiltzen zen, Barojatarrak, Larunbe eta giroa zirela kausa. Orobat, ahal zuelarik, Lapurdira.

Nafarroan oroz gain kezka nagusia Euskararenganako jarrera duintzea eta ondoko gizarte jarduera gauzatzea zen. Erranikakoaz landarat, beste anitz ere antzeko ildotan barna zebiltzalarik, sobera ezagutzerat eman ez zen bidetik ibili zen 70ko hamarkadan J. Caro Baroja (babesa ematen baino ez bazen) eta J. M^a Sanchez Carriónekin baterat. Saioaren helburu orokorra, azken ahalegina baititzen (eta zendu ziren bientzat hala izan zen), Euskararekiko jarrera ofiziala aldaraztea zen, baita etorkizunerako ildo zenbait finkatzea ere; ingurumen horretan, besteak beste, hezkuntzarako material berri bat apailatzen hastea. Hark egin zuen bere lana, J. M^a Sanchez Carriónek ere egintsurik zuen berea. Baina mediokritate eta sentiberatasunik ezaren isla zen Diputazioan ez zen deus ere erdietsi ahal izan. Gaur egun ere, pairatzen ari garenez, larri dugun auzia da.

Orobat dugu larri hastapenean aipatu gizarte zibilarena, iragan denborak eta burokrazia politikoaren alimaleko emendatzeak areagotu baizik egin ez dutena. Lehen aipatu lagun artean, 20 eta 30. hamarkadetan jada, horretan zeuden. K. Garmendia nafar adiskideak 1925eko gutun batean alderdikoei buruz erraten dionak laburbiltzen du haien sentimendua: *“Yakintza edo cultura sobera aundi eldu zaiote. Oyentzat politicak baizik ez du balio eta bertze gauza guziak astokeriak dira. Penagarria da holako jendea ikustea. Oyekin gure mintzaira eta gure jakintasuna zakurraren ipurdira guanen da”*.

Eta hori, funtsean, ez printzipio moral abstraktoen karietarat edota politika, orokorrean, arbuaitzen zutelakotz, indarrean zegoen abertzalegoaren kultur politika, eta politika kultura, gero eta gehiago eskas eta ikuspegi laburrekoa ziztaielakotz baizik; zenbaitetan, are jasangaitza. Gaur egun ere, mendearen hiru laurdenak iragan direlarik, areagotu den auzia dugu. Bego, beraz, gudan, holako gizarte zibilean barna, eta alde, garaikide moldean bizitu ziren haien oroitza; orobat gure omena.

AINGERU IRIGARAY EUSKARAREN SUSTATZAILE

Etzarri Aranatz, 1999-VI-24

J.M. Satrustegi

Orain dela ehun urte etorri zen mundura Berako Altzate auzoan Aingeru Irigaray, sendagile, euskaltzain eta idazlea. Urte berekoa zen Iruñeko olerkari Alexander Tapia Perurena berreskuratu berria. Orduan idatzi zuen bere euskal gramatika Etzarri Aranazko Bitoriano Huizi apaizak, eta 1899 aipagarri hartan iritsi ziren Iruñera pertsonen garraiorako estatuan lehenak ziren “zaldi gabeko gurdiak”.

Gertakizun hauen guztien ehunurteurrena izateaz bestalde, mende biren arteko muga ere bazen, eta Nafarroako euskal kulturaren arloan belaunaldi berri baten txanda zekarren berekin. Hemeretzigarren mendearen azken laurdenean abiatu zen euskal pizkundea Iruñean. 1876an foruek nozitutako azken erasoarekin batera piztu zen euskararen aldeko mugimendua. Iturralde y Suit historialari handiaren etxean bildurik 1877ko udazkenean, hamahiru gizon ospetsuk sortu zuten *Asociación euskara* izeneko euskal elkargoa. Horrek esan nahi du, ordu arte baserritarren hizkuntza izandako euskara apala, hiritartua izan zela eta denbora berriei begira hiriburutik zetorkiokeela handik aurrera jende ikasien bultzada astingarria.

Gertakizunak badu XX. mendearen atari aurrean sortutako gizaldi harekin loturarik, alde batetik, euskaltzale haiek herri kultura eta hizkuntzaganako kontzientzia esnatzen lehen urratsak emanak baitzituzten ondokoei giroa prestatuz, eta bestetik, Aingeru Irigaray zenaren kasuan bere aita “Larreko” euskal idazlearen lekuko distiranta jaso baitzuen, bi zutabetan eraikitako gizarte giroz eta familiako loturaz zetorkiolarik euskararenganako atxikimendu fermua.

Ereintza gordina izan zen aurreko gizaldian egindako saioa; euskarari buzur ordu arte inoiz emandako urrats garrantzitsuena, baina ereintza. Negu iluneko lozorroa igaro behar zuen haziak lurpean *Euskara Elkargo* hura desagertu eta hurrengo loratzea ikusi orduko, eta horrela gertatu zen erromantiko ospetsu haiekin.

Orain gogoratzen dugun 1899ko belaunaldiari egokitu zitzaion euskararen Nafarroako udaberrian pizkundearen lorategia ureztatu eta zaintzea. Zorionez gidaritzaren eskualdatzean ez zen inolako etendurarik gertatu eta Aingeru Irigaray, Intza, Tapia Perurena, Agerre edo Tirapu bezalako izen berrien ondoan,

kementsu jarraitu zuten itzal handiko Campion, Larreko eta Manezaundi bezalako idazle ezagunek gerra aurreko gazteekin elkar-lanean.

Lehenbiziko elkargo haren ia berrogeita hamargarren urtemugan, *Euskararen Adiskideak* izeneko elkarte berria sortu zen 1925ean helburu berdinekin. Ekintza erakargarriak antolatu zituzten euskararen estimua herriko jendeak berreskura zezan, eta hiritik at hasi ziren Euskal festa alai astingarriak egiten. Baziren bertsolariak, pilota, musika eta dantzak. Herriz herri euskara zekiten haurrei sariak banatu zitzaizkien, eta 1930ean Iruñeko haurrentzat lehen eskola euskalduna ireki zuten baimen guztiekin Eskolapioetan.

Aingeru Irigaray kanpotik zebilen une hartan, Zaragozan eta Barzelonan zehar medikuntza ikastaroak egiten. 1924an Paris eta Friburgon egonalditxo egin ondoren itzuli zen Euskal Herrira berehala euskaltzaleekin loturak eginez. 1924an bertan *Eusko Ikaskuntzako* bazkide egin zen, eta hurrengo urtean sortutako *Euskararen Adiskideak* elkartean azaltzen da gero. Lehen izkribu eza-guna 1926ko bat izan daiteke. Baina bere lanbidean aurrera aterako bazen sendagile lanpostua lortu behar zuen eta ondorengo hamar urteak medikuntzako arduraz gehien bat markaturik egon arren, bere izena euskal mugimendu guztietan agertzen hasten da. Euskaltzaindiak 1929an urgazle izendatu zuen geroago hain eskuartze nabarmena izango zuen elkargoan lehen urratsa emanez. 1933an *Eusko Ikaskuntzako* batzar-iraunkorreko partaide zen eta hurrengo urtean elkarte horren idazkariorde bezala agertzen da.

Medikuntzak uzten zion neurrian zenbait euskal aldizkaritan nabarmentzen hasten da bere izena, hala nola *Gure Herria*, *Yakintza*, *RIEV* eta abar luze batean. *Irular* ezizena zerabilen orduko idazlanetan.

Gerra aurreko urteak dira, noski, eta onerako ala txarrerako ezaguna zen agintarien aurrean bere euskaltzaletasuna ondore guztiekin. Garai hartan oinarritu zuen bere familia Maria Rosa Imaz donostiarrarekin ezkontzean 1924ko udazkenean. Hiru seme izan zituen eta laugarren alaba bat. Gertakizun traketzen aurretik familia eta euskara amodio biek bete zuten bere bizia laneko burohauste eta zalantza askorekin lanpostu zehatza lortu zuen arte.

Latza izan zen gero hogeita hamaseiko eztanda beldurgarria euskal munduan murgildutako jendearentzat, eta Iruñeko lanpostua galduta Gipuzkoan aurkitu zuen ogibide berria Irigaray sendagile gazteak. Udaberriko jorra, nekazariaren eginkizun gogor eskergabea, ez da balio gutxieneko lana uzta oparoa lortu nahi duen nekazariaren helburuan. Gerra aurreko euskaltzaleen belaunaldiak nozitu zituen eraso, saiheste, gutxiespen eta edozein unetan bizia galtzeko arrisku babesgabe hura inauسته mingarriaren ildotik, beren biziko aitorpenik hoberena izan zen herriaren zapalkuntza beltzaren garaian. Noiznahi liburu politikak idatzi edo hitzaldi arrakastatsuak ematea baino txalogarriagoa. Esker onez bakarrik mintza gaitezke eten hartaz.

Gorrotoak erail ditzake harmekin gorputzak eta papera ofizialdu hutsalak nornahiri ken diezaioke bere ogibidea, baina ezin du hil konzientzian erroto-tako espiritua. Aingeru Irigarayk bere larruan nozitu bazuen ere gerraren ezten mingarria, ez zion inoiz uko egin odolez eta konbentzimentuz zetorkion arbasoenganako atxikimenduari.

Ekaitz guztien ondotik gerra osteko laino nabarrak igarota, uzta aroko oskarbia ikusi zuen, eta orduan hasten da "Apat-Etchebarne" adoretsua Nafarroan euskararen sustatzaile lan oparoa egiten. Bere igitaldi berezian 1941ean euskaltzain izendatua izan zenetik elkargo honen ordezkari eta akuilari aspergaitza bihurtu zen. Zuzendaritzako karguetan behin baino gehiagotan egonik ekimen baliotsuen aurkezle eta jarraile zen Alfabetatze taldearen arduradun izan zenean bezala. Eragozpen asko zela medio, kopuru gutxiko batzarreak egiten ziren une hartan, baina han zen beti zintzo euskaltzain nafarra. Euskal Akademiaren pizkunde lanbrotsuan zutabe sendoenetakoa izan zen bera.

Julio Urkixo Mintegiko bazkide 1954an izendatua izan ondoren *EGAN* literatura aldizkaria eta Euskalerriko Adiskideen Elkarteko *Boletina* bultzatu zituen zuzendaritza hirukoitzeko partaide baitzen Mitxelena eta Arrue jaunekin batera. Emankorra gertatzen da handik aurrera Apat-Etchebarne izengoitia euskal aldizkari eta egunkarien orrietan.

Nafarroari dagokionez, ezin bereziak dira elkarrengandik Aingeru Irigaray eta bere erro sakonen Erresuma zaharra. *Diario de Navarra* egunkariak atera zuen urte haietan hamabost egunetik *Nafar-Hizkuntzan orria* bera zelarik sortzaileetako bat, eta 1977tik aurrera zuzendari eta zutabe ia bakarra. Diputazioaren babesean ateratako *Principe de Viana* euskarazkoan ere ez zuten bere izkribuek inoiz hutsegín elkarrekin lanean aritu ginen denboran. Liburuetan jasorik daude, bestalde, hark erdaraz idatzitako hainbat lan.

Euskal kultura eta sentimentu guztien eragile zorrotz bezala ikusi nuen nik gehien bat gerra ondorengo egoera zailean. Herriz herri haur euskaldunei sariak emateko hamar urtez egin genituen ibilaldi amesgarri haietako irudi gardena dut nik Aingeruren oroitzapenik hoberena. Buru uzkur antzean, ele apal eta begiratze zorrotzarekin zihoan beti harira. Irribarrez euskaltzaleak agurtu, hitz samurrez epelak zirikatu eta kupida gabeko ausardiaz zabarkeriaren hutsak salatzea zen bere jarrera ohikoa.

Geroago *Fontes Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkariak sortu genituelarik 1969an hizkuntza eta historia gaiei buruzko aurkipenak eta iker saioak bidaltzen zituen. Horrela eman zuen ezagutzero bere izena lehen mailako hizkuntzalarien artean. Euskal testu zaharren lortzaile izkutu, aztertzaile sakon eta eztabaidatzaile zorrotz ere bazen, denbora berean eguneroko berri aipagarrienei euskararen zabalkundeko izkribuetan uko egin gabe. Hori guztia aski ez balitz, Nafarroan euskarak mendez mendez izandako atzerakada mugatuen mapa oso baliagarria argitaratu zuen gerra aurrean eta geroago berriro zehaztu.

Balegoke geure hartu-eman luze eta emankor haien garaiko pasarte jakin-garri asko aipatzerik, baina ez da hau une eta toki egokiena.

Hitzaldi laburra egiteko agindu didate enziklopedia baten moduko gai desberdinak landu zituen gizon erne eta langile porrokatuaren aipamena zuei eskaintzean. Motz gelditzeko arriskuarekin antolatzaileen esanera makurtuz, Aingeru Irigaray euskaltzale sutsu eta adiskide onaren goratarrea hitz gutxitan egin behar banu, hau esan nezake:

Lehia guztietako zaldun adoretsua izan zen euskararen aldeko borroka latzean. Itaurreko eta akuilari golde aurrean, atzean edo behar zen edozein tokitan, denetara iristen baitzen. Langile aspergaitza eta eginarazle setatsua. Alfer egoterik ez zegoen bere ondoan.

GRAMATIKA JARDUNALDIAK

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-25

POSTPOSIZIOAK EGLUn: EGITURA MOTAK ETA GRAMATIKA-KATEGORIAK ⁽¹⁾

*Juan Carlos Odriozola,
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Zientzia Fakultatea.*

0. SARRERA

Euskaltzaindiak (1985) postposizio hitza erabili du euskal egitura jakin batzen berri eman nahi izan duenean. Lan honetan, horrelako egiturek azterketa sakonagoa behar dutela eta haien inguruko terminologia ere zehazteko behar-rean gaudela erakusteko saio bat egingo dugu.

Lehenik, postposizio delako berba hori, gramatika-kategoria baten berri emateko erabili beharko litzatekeela aldarrikatuko dugu, beti ere kategorien, sintagmen, egitura-harremanen eta funtzioen arteko aldeaz Zabala & Odriozolaren (1994) eta bereziki Zabalaren (1999) lanetan esan denaren ildotik.

Bigarrenik, munduko hizkuntzetan barrena ageri diren sintaxi-gertaera ugari era bakar batera azalduko ditugu, batzuetako preposizioak eta besteetako postposizioak baliokide direla onartuz. Postposizioei dagokienez, joskera-harremanak adierazten dituzten kideak direla irakurri izan dugu (Azkarate 1990, Euskaltzaindia 1991), baina hemen, Odriozolaren (1999) lanaren ildotik, agerian jarriko dugu irizpide gehiagoren beharra.

Hirugarrenik, postposizioa delako gramatika-kategoriaren barruan, bi postposizio mota bereiziko ditugu, Artiagoitiari (1990, 1992) eta Eguzkitzari (1993, 1997) jarraiki. Alde batetik, postposizio atzizkiak izango ditugu (1): beren osa-garri izango diren hitzei eskuinaldetik eransten zaizkien postposizioak hain zuzen.

(1) Lan hau, PB/96-0457-C03-03, UPV 033.310-HA 081/97 eta UPV 033.310-HB 194/98 ikerkuntza-egitasmoen bidez lorturiko dirulaguntzei esker egin da neurri batean. Bestalde, eskerrak ematerakoan, Igone Zabalak merezi du aipurik bereziena: bera da Zabala eta Odriozola (1994) eta Zabala (1999) lanen egile (nagusi)a, eta lan horiek dira, alde batean behintzat, kontu hauetan sartzeko grina piztu zidatenak; horretaz gain, hizkuntzalari honek parte zuzena hartu du hau bukaerara eramateko egin behar izan ditudan hausnarketetan, nonbait egilekide ere izan dudalarik. Halaber, Miren Azkarate eta Xabier Artiagoitiaren iruzkin ezin baliagarriagoak eskertzeko behar-rean nago. Ez dago esan beharrik behin betiko idatzi honetan egon daitezkeen oker guztiak neuri dagozkidala.

- (1) a) ohean
- b) etxetik
- c) lanagatik

Postposizio atzizki hauek bada, euskal deklinabidearen atzizkien artean aditzarekiko komunztadurarik ez duten guztiak dira nonbait. Horietatik abiatuturik eratzen diren egiturak, gainera, postposizio-sintagma bakunak dira, eta izen hori emango diegu aurrerantzean. Horrelako sintagmetako bigarren osagaia, hau da, atzizkia (-n inesiboa adibidez), egituraren burua da, eta lehenengo osagaia (*ohe* esate baterako) buruaren osagarria dela onartuko dugu. Beste alde batetik, postposizio beregainak izango ditugu (2): beren osagarriaren atzetik erantsi gabe doazen postposizioak, zehazkiago.

- (2) a) gogorik gabe
- b) zelaitik zehar
- c) likido erara
- d) Europaz landara
- e) Hauteskunde atzetik (ala aurretiaz sarri agertu ohi den alorta) (OEH) ⁽²⁾

Azken hauek, bi osagaiko postposizio-sintagmak ditugu, eta izen hori emango diegu aurrerantzean; bestalde, ikusiko dugunez, sintagma hauek eratzea da postposizio beregainen sintaxi-ezaugarri nagusietako bat. Horrela, sintagma hauetako bigarren osagaia (*gabe* kasu) egituraren burua izango da, eta lehenengo osagaia (*gogorik* kasu) buruaren osagarria dela onartuko dugu. Bi osagaiko postposizio-sintagma hauek aztertu ditu Euskaltzaindiak (1985) postposizio izenaren pean, aipu arin batean deklinabideko atzizkiak ere postposizioztat har daitezkeela esan halaber badu ere. Edonola EGLU-I horretan nolabaiteko fonetika-irizpidea ere eman zaigu, egitura hauek zein diren finkatu ahal izateko: hitz-andana bakar batez ahoskatzen dira.

Laugarrenik, beraz, zehaztu egingo dugu, lan honen helburua: bi osagaiko postposizio-sintagmak aztertuko ditugu, beti ere postposizio atzizkiek eratzen dituzten postposizio-sintagma bakunekiko baliokidetza gogoan izango dugularik. Izan ere, azpimarratu beharrekoa da bai postposizio-sintagma bakunek bai bi osagaiko postposizio-sintagmek ere postposizio kategoriako buru bat izango dutela: postposizio atzizki bat lehenengo taldekoek eta postposizio beregaina bigarren taldekoek. Horrela, hizkuntzalaritza-korronteetan zehar onar-

(2) Hona hemen lan honetan zehar erabiliko ditugun bibliografia-laburdurei dagozkien lanak:
 AZ: AZKARATE, M. (1990).
 3000: Bostak bat (1996).
 EHE: Elhuyar (1993).
 EGLU-I: Euskaltzaindia (1991).
 OEH: Euskaltzaindia. Orotariko Euskal Hiztegia.
 SHE: Sarasola (1996).
 ZA: Zabala (1993).

tua den ideia bati eta zehazki Bosqueri (1989) jarraituz, kategoria jakin bateko buru batek kategoria bera duen edota ezaugarri berak dituen sintagma bat osatu behar duela onartuko dugu. Honek, euskal hiztegigintzan kontuan hartzeko moduko kategoria berri batzuk esleitzera bultzatuko gaitu zenbaitetan.

Bosgarrenik, bi osagaiko postposizio-sintagmen sintaxi-zeregina, oro har aditza laguntzea izango da, eta hortaz, adizlagun esan ohi zaion funtzioa betetzen dute edo bestela izenki-predikatuak eratzen dituzte (Zabala 1993). Hemen ere, Zabalaren (1999) lanean bezala, adizlagun delakoa funtzio bat izanik hiztegi-sarrera baten berri emateko oso hitz egokia ez dela gogoratuko dugu. Azkenik, inesibo atzizkia duten guztietan bezala, *-ko* leku-genitiboa ere, eskuragarri dago bi osagaiko postposizio-sintagmetan, eta horrelako kasuetan izenlagun betekizuna dute egiturek. *-Rako*, *-tiko* eta abarreko aukerak ere go-
goan izan behar dira hemen.

Seigarrenik, bi osagaiko postposizio-sintagma hauei begira Euskaltzaindiak (1985) eman duen morfositaxi-irizpide bat izan behar dugu gogoan: bigarren osagaiak lehenengo osagaiari deklinabideko atzizki jakin bat ezartzen dio. Zehazkiago, bai bi osagaiko postposizio-sintagmen buru beregainen kasuan, bai postposizio-sintagma bakunen buru den atzizkiarenean ere, izen-sintagma, determinatzaile-sintagma edo (beste) postposizio-sintagma bakun batek joka dezake osagarri modura. Aukera horien arabera antolatuko dugu lan hau, bost ataletan. Horrela ba, bi postposizio moten arteko baliokidetzat gogoan izanik baina gure jakinmina beti bi osagaiko postposizio-sintagmetan kokatuz ekingo diogu gure zereginari.

Lehenengo sailean, postposizio beregainaren osagarri modura izen-sintagma duten postposizio-sintagmak aztertuko ditugu (3a): *bezala* eta antzeko postposizioek, *irakasle* bezalako izen-sintagmak hartzen dituzte osagarri modura. Ikus bedi prolatiboa bezalako postposizio atzizkiek eratzen dituzten postposizio-sintagma bakunek ere badutela osagarriaren gunean izen-sintagma bat hartzeko aukera (3b) ⁽³⁾.

- (3) a) $[[irakasle]_{IS} [bezala]_P]_{PS}$
 b) $[[lagun]_{IS} [tzat]_P]_{PS}$

(3) Hona hemen lanean erabilitako sintaxi-laburdurak.

I, iz: izen kategoria. IS: izen-sintagma. P-izena: postposizio-izena.

P, postp: postposizio kategoria. P beregaina: postposizio beregaina. P atzizkia: postposizio atzizkia. P konplexua: postposizio konplexua.

PS: postposizio-sintagma. PS bakuna: postposizio-sintagma bakuna. Bi osagaiko PS: bi osagaiko postposizio-sintagma.

D: determinatzaile kategoria. DS: determinatzaile-sintagma.

adb: adberbioa.

adond: aditzondoa.

junt: juntagailua.

partik: partikula.

adlag: adizlaguna.

Bigarren sailean, burua beti postposizio beregain bat delarik, lehenengo osagai modura beste postposizio-sintagma bakun bat duten postposizio-sintagmak ikusiko ditugu (4a): *zehir* bezalako postposizioen osagarriak, *basoan* bezalako postposizio-sintagma bakunak dira. Ezaguna dugu, bestalde, euskal deklinabidearen atzizkietako bat daramaten postposizio-sintagma bakunek, bere aldetik, *-ko* postposizioaren osagarri modura joka dezaketela (4b).

- (4) a) [[basoan]_{PS} [zehir]_P]_{PS}
 b) [[eguzkitik]_{PS} [ko]_P]_{PS}

Hirugarren sailean, izen-sintagma dugu osagarriaren gunean, baina egituraren burua bera izango da hemen aztergai nagusia (5a).

- (5) a) [[emakume]_{IS} [moduan]_P]_{PS}
 a) [[ibai]_{IS} [gora]_P]_{PS}

Izan ere, horrelako buruek bi azterbide dituzte nonbait. Alde batetik, dagoeneko aipatu ditugun postposizio atzizkiak har genitzake burutzat, hasiera batean bederen. Hau bat letorke sintagma osoaren izaerak postposizioarena izan behar duelako ideiarekin, baina gauzak horrela ulertuz gero, *-n* edo *-ra* horiek osagarri modura *modu* edo *goi* bezalakoak hartuko litzukete. Analisi hau, senaren aurka doala uste dugu, euskal hiztunak azken finean *modura* eta *gora* oso-osorik ikasten baititu, bi osagaiko postposizio-sintagma hauen kasuan behintzat. Horrela ba, 2. sail horretan, egituron burua *moduan* edo *gora* postposizio beregain baina konplexuak direla aldarrikatuko dugu.

Laugarren sailean, postposizio-sintagma bakunak azalduko zaizkigu osagarri erara. Hemen ere azaleko burua postposizio atzizki bat da (6a). Hala eta guzti, buru beregain konplexua dagoela onartuko dugu berriz.

- (6) [[[teilat]u]_{DS} [tik]_P]_{PS} [behera]_P]_{PS}

Bosgarren sailean, azkenik, antzerako postposizio beregain konplexua izango dugu buruaren lekuan, baina osagarriak zer hausnartu handiagoa eman-gu digu. (7c-d)koetan, *-(r)en* genitiboko sintagma⁽⁴⁾ daramaten izen-sintagma

(4) Artiagoitiak (1990, 1992) genitiboak postposizioen antzekoak direla esan du baina jakina, horrelakoa onartzeko dauden oztopoak gaineratuz. Eguzkitzak (1993, 1997) genitiboa postposizioa izan gabe ergatibo, datibo eta absolutibo bezalako kasu-marka bat dela aldarrikatu du. Lanean zehir aipu arin batean esango dugunez, lan honen helburuetatik kanpo utziko ditugu genitibodun egitura guztiak. Hala ere, *etxearen aurrean* bezalakoak aipatuko ditugu 5. sailean. Bertan, besterik gabe genitiboduna postposizio-sintagmatzat hartu dugu, bestelako kontu batzuetara bideratu nahi baitugu gure ahalegina. Zabalak (1993) bere aldetik, bi datibo mota bereizi ditu: batek aditzarekiko komuntadura du eta postposizio atzizkia izan gabe kasuaren gauzaketa izango litzateke; besteak, adibidez Euskaltzaindiak (1991) postposizio-sintagmatzat jo dituztenen datiboak, ez dauka aditzarekiko komuntadurarik eta postposizio atzizkitzat har liteke. Zabalaen (1999) lanean ere, *-(r)i buruz* aztertu da gure aztergai izango diren bi osagaiko postposizio-sintagmetako bat delakoan. *-(R)i* horrek sor ditzakeen zalantzak direla eta, datibodun guztiak gure helburuetatik kanpo uztea nahiago izan dugu hemengo lan honetan. Dena dela, ikus bedi 12. oharra.

arruntak ditugu. Beste alde batetik, nahiz eta *aurre* bezalakoak oso izen ohi-koak ez izan, nekez esan dezakegu (7a-b) beste gauza bat direnik.

- (7) a) epailearen aurrean
- b) etxearen aurrean
- c) etxearen ertzean
- d) etxearen egiturean

(8)ko sortan bestalde, mendekotasunezko izen elkartuak ditugu.

- (8) a) etxe-ertzean, etxe-egiturean
- b) etxe-ertza, etxe-egitura
- c) [[[[etxe]_I] [ertz/egitura]_I]_{IS} [-a]_D]_{DS} [-n]_P]_{PS}

Aurre horrek ordea, bi ondorio ditu agerian. *Etxaurrean*, batetik (9), *etxe-ertzean* edo *etxe-egiturean* bezalakoak da (Azkarate 1990), eta egon ere badago *etxaurre* izen elkartua.

- (9) a) etxe aurrean/etxaurrean
- b) etxe aurrea/etxaurrea
- c) [[[[etxe]_I] [aurre]_I]_{IS} [-a]_D]_{DS} [-n]_P]_{PS}

Epaile aurrean horri (10) legokiokeen hitz elkartua dela eta, ordea, oraingoz hiztegian ez egoteaz gain, ez da hain erraza bere sorrera eskatuko lukeen adigai bat asmatzea. Ezinezkoa ez bada ere, ez dugu zertan hitz elkarturik atera (10b), eta beraz, beste egitura bat dugula onartu behar da: osagarri modura izen-sintagma soila hartzen duen postposizioa, (5a) bezalakoak hain zuzen. Hala ere, (9/10) aukera bikoitz hori duten izenei postposizio-izenei esango diegu Odriozolaren (1999) proposamena geureganatuz.

- (10) a) epaile aurrean (OEH)
- b) °epaile aurrea
- b') ??epaile aurre gogorra/luzea/zabala
- c) *[[[epaile]_I] [aurre]_I]_{IS} [-a]_D]_{DS}[-n]_P]_{PS} (dator)
- c') [[epaile]_{IS} [aurrean]_P]_{PS} dator

1. IZEN-SINTAGMA/DETERMINATZAILE-SINTAGMA⁽⁵⁾ + POST-POSIZIO BEREAINA

Bi osagaiko postposizio-sintagma hauen burua, eskuinaldean kokatzen den postposizio kategoriako kide beregain bat da. Bere ezkerraldean kokatzen den

(5) Ez da lan hau euskal determinatzailearen gora-beherak aztertzeko eta haien inguruko teoria-hausnarketak egiteko lekua. Edozelan, hona galdera nagusia, maila deskriptibo hutsetik urrunegi joan gabe: euskararen hiru deklinabideak hiru determinatzaile motari ote dagozkio, ala mugatu singularrak eta pluralak bakarrik daramate determinatzailea, eta mugagabea izen-sintagma soilari egokituko ote litzaioke? Hasiera batean behintzat lehenengo hipotesiak adostasun handiagoa du hizkuntzetarako egin izan diren onarpenekin (ikus Artiagoitia 1998). Xabier Artiagoitiak berak,

osagarria, izen-sintagma bat dela esango dugu. Ikusi (11)koan horrelako batzuk.

(11)

	EGLU	ZA	SEH	EH	3000	Geure proposamena	
						Bi osagaiko postposizio-sintagmetan	Bestelakoetan
-ø barru	postp	—	adlag	postp	adlag	postposizioa	P-izena
-ø bezala ⁽⁶⁾	postp	—	—	partik	adond	postposizioa	—
-ø gisa	postp	postp	adlag	postp	adond	postposizioa	izena ⁽⁷⁾
-ø inguru	postp	—	iz/adlag	postp	postp	postposizioa	P-izena
-ø orde	postp	—	adlag	postp	postp	postposizioa	izena ⁽⁸⁾
-ø truke	postp	—	adlag	iz	postp	postposizioa	izena

Honelakoek duten betekizuna, adizlagunarena da. Edonola, Zabalaren (1993) beraren analisia ekar dezakegu hona, popostposizio hauetarako guztietarako baliogarria izango baita, funtzioak gora-behera. (12a)koa, bi osagaiko postposizio-sintagmaren analisia da, eta (12b), osagarri modura izen-sintagma hartzen duen postposizio atzizkiak eraturiko postposizio-sintagma bakunarena. Areago, ohiko euskal gramatiketan mugatzaile izena hartu ohi duen *-a* atzizkia

bestalde, elkarriketa batean haxe iradoki digu *gabe* bezalakoei buruz: *-ø/rik/-a* aukerak daudelarik, DP bat legoke beti, lehenengo eta bigarren kasuan D huts bat izango bagenu ere. Dena dela, *indar gabe*, *emakume bezala* eta *kanpandorre gainetik* bezalakoetan dagoen sintagma goren, ez da determinatzaile- edo izen-sintagma; postposizio-sintagma bat dugu eta sintagma horietako osagarriari begira, izen-sintagma soilaren zein determinatzaile-sintagmaren onarpenak ezer gutxi aldatuko du gure oraingo zereginetan. Ikus era berean 13. oharrean, postposizio konplexuen kontua.

Bestalde, gogoratu beharrekoa da izen soila ez dagokiola beti D huts bati: Gure oraingo eremutik kanpo, predikatuen esparruko *hitz egin* bezalako aditz-esapideetako lehenengo osagai hori izen-sintagma soila zela esan da (Laka 1993), morfologia hutsean oinarritu gabe, sintaxi-froga batzuetan oinarriturik. Gure lan honetako 3. saileko batzuek ere (*emakume modura* kasu), izen-sintagma soila dute osagarri modura. Azpimarratu beharrekoa da batzuetan zein besteetan izen soila jartzekoa aukera bakarra dela, *gabe* delakoaren osagarrien kasuan ez bezala.


(6) Ez ditugu lan honetan partizipioa daramaten egiturak aztertuko.

(7) *Gisa* berez, izen modura ikus dezakegu hiztegietan. Gainera, *gisara* eta *gisan* izango ditugu 4. sailean. *Gisa lgisara*, *gisan* bikoiztasun horren aldamenean, *modura*, *moduan* eta *erara*, *eran* baizik ez ditugu 4. sailean aurkituko: izan ere, *gisa* postposizio beregain soila dugu. *Modu* eta *era*, jakina, ez dira postposizioak.

(8) *Orde* delakoak, egitura anitzetan hartzen du esku, postposizio beregain edo postposizio konplexu modura: *ardo orde* (2. sail honetan), *-(r)en orde* (2. sail honetan hau ere, baina ikus 4. oharrean genitiboaren inguruko hausnarketa), *-ø orde* (ikus 3. sailean, eta 5. saileko *aurre* bezalakoan *-ø aurrean* aukera ere) eta *-(r)en orde* (ikus 4. oharra eta 5. saila). *Truke* egoera berean dago, hiztegiek postposizio kategoria onartu ez badiote ere.

determinatzaile kategoriakotzat har dezakegu (Artiagoitia 1998) eta izen-sintagma determinatzailearen osagarria dela onarturik, esan daiteke postposizio atzizkiek determinatzaile-sintagmak ere hartzen dituztela osagarri modura (12c).

(12)




Sail honi bukaera emateko, esan beharrekoa da zenbaitetan izen-sintagma soila ez ezik, determinatzaile-sintagma ere azaltzen dela bi osagaiko postposizio-sintagmen lehenengo osagai gisan (13-14): (12c)ko postposizio bakunetan bezala beraz. Ikus dena dela *gabe Ibarik* postposizioek izenki-predikatuak ere era ditzaketela, Zabalak (1993) aditzera eman duen bezala.

(13)

	EGLU	ZA	SEH	EH	3000	Geure proposamena Bi osagaiko postposizio- Bestelakoetan sintagmetan	
-a arte	postp	—	postp	postp ⁽⁹⁾	postp	postposizioa	P-izena
-(r)ik/-a/-ø barik	postp	—	—	postp	junt	postposizioa	—
-(r)ik/-a/-ø gabe	postp	postp	—	postp	junt	postposizioa	—
-a bitarte	postp	—	postp	postp	iz	postposizioa	izena

(9) *Arte, barru, bitarte, kanpo* eta *inguru*, oro har, izen modura azaltzen dira hiztegieta eta hala jaso ditugu hemen ere. Ikus edonola 5. saileko *artean, barrura, bitartean, kanpotik, inguruan...*, han postposizio-izentzat hartuko baititugu *arte* bezalako kide soilak.

(14)




(11) eta (13)ko guztiok gure lanean aztergai diren sintagmen ezaugarriak betetzen dituzte: lehenengo osagai modura izen-sintagma edo postposizio-sintagma, bigarren osagai modura atzizkirik gabeko kide bat, eta funtzioa, adizlaguna. Ikus daitekeenez, guztiak ez dira hiztegietan postposizio modura azaldu, baina bi osagaiko postposizio-sintagmen buruek postposizio izan behar dutela kontuan harturik, (11) eta (13)ko guztiak postposizio kategoriakoak direla aldarrikatu nahi dugu. Beraz, honelakoak jaso beharko lirateke hiztegietan: a) *Gabe* edo *zehar*, postposizioa. b) *Truke* bezalakoak, batetik izena eta bestetik postposizioa. c) *Arte* batetik postposizioa, eta bestetik, geroago ikusiko dugun morfosintaxi-banaketa dela bide, postposizio-izena.

Laburtuz bada, postposizio kategoria egotzi diegu inolako atzizkirik gabe eta osagarri modura izen-sintagma edo determinatzaile-sintagma harturik bi osagaiko postposizio-sintagmen buru modura jotzen duten zenbait kideri. Hauetako batzuk horrelaxe azaldu dira hiztegietan, baina beste batzuei, izena bezalako kategoria ohikoetako bat besterik ez diete egotzi hiztegi berberak.

2. POSTPOSIZIO-SINTAGMA BAKUNA + POSTPOSIZIO BERE-GAINA

Bi osagaiko postposizio-sintagma hauen burua, eskuinaldean kokatzen den postposizio beregain bat da. Oraingo egitura honetan, ordea, postposizio-sintagma bakun bat dugu osagarri modura: ikus (15a). *-Ko* postposizio atzizkiak ere (15b) postposizio-sintagma bakunak hartzen ditu osagarri modura, baina ez halabeharrez adizlagun funtzioa betetzeko, izenlagun zeregina har baitezake bere bizkar.

(15)



Hona hemen honelako buruen inguruan suma daitezkeen zenbait zehaztasun:

a) Lehenengo azpiatal batean, buruek ez dute postposizio izaeraren inguruko zalantzarik sortzen (16).

(16)

	EGLU	ZA	SEH	EH	3000	Geure proposamena Bi osagaiko postposizio- sintagmetan	Bestelakoetan
-tik at	postp	—	—	adlag	adond	postposizioa	—
-tik/-n barrena ⁽¹⁰⁾	—	—	—	postp	postp	postposizioa	—
-z bestalde	postp	—	—	postp	postp	postposizioa	lokailua
-n gairi	postp	—	adlag	adb	lok	postposizioa	izena
-tik landa ⁽¹¹⁾	postp	—	iz	iz/postp	postp	postposizioa	izena
-tik/-n zehar	postp	—	postp	—	postp	postposizioa	izena

(10) Euskaltzaindiak (1991) *-n barren* aipatu du. Pentsatzekoa da adibideetan azaldu duen *barrena* horretan *-ra* adlatiboa ikusi izan duela, izen nagusien deklinabidearen antzera. Ikuspegi sinkroniko batetik ez bide dago gauzak horrela ulertzeko ziorik, eta Elhuyarren hitzegian bertan ere postposizio modura azaltzen da *barrena*. Dena dela ikus bedi guk geuk ere *gainera* bezalako batzuk postposizio konplexutzat hartuko ditugula lan honetan zehar. Kontu hau guztia, azken finean postposizio-izentzat hartuko ditugun denboran zeharreko kategoria-aldaketaren adierazle-tzat har genitzake. *Barrena* hori gaurko ikuspegitik azter daitezkeen neurrian, lan honetako 4. sailera eraman behar genuke.

(11) *Landara* /*landatik* /*landara* eta *zeharreko* 4. sailean ikusiko dugu postposizio konplexu modura.

b) Talde berezi batean sartu nahi izan ditugu hurrengo hauek:

(17)

	EGLU	ZA	SEH	EH	3000	Geure proposamena	
						Bi osagaiko postposizio- sintagmetan	Bestelakoetan
- ra arte	postp	—	postp	postp	postp	postposizioa	P-izena
-ra bitarte	postp	—	adlag	postp	postp	postposizioa	P-izena
-z gain	postp	—	iz	iz	adond	postposizioa	P-izena
-tik/-z kanpo	postp	—	iz	iz	postp	postposizioa	P-izena

Hauek guztiok gure lanean aztergai diren sintagmaren ezaugarriak betetzen dituzte: lehenengo osagai modura postposizio bakuna, bigarren osagai modura atzizkirik gabeko kide bat, eta funtzioa, adizlaguna. Horrela izanik ere, buru hauek ez dira beti azaldu postposizio modura hiztegieta. Buruen eta sintagmen arteko adostasun horri eutsirik, (17)ko guztiak postposizio kategoriakoak direla aldarrikatu nahi dugu hemen ere, eta beraz, honelakoak jaso beharko lirateke hiztegieta: a) *At* postposizioa. b) *Gain* batetik postposizioa, eta bestetik, badakigunez, postposizio-izena.

Sail hau laburtuz bada, postposizio kategoria egotzi diegu postposizio-sintagma bakuna hartu eta bi osagaiko postposizio-sintagmak atzizkirik gabe eratzeko gai diren zenbait kideri. Haietako batzuk, postposizio gisan azaltzen dira gramatiketan eta hiztegieta behintzat postposizio-sintagmak eraten dituztela esan ohi da. Bestelako batzuek, oro har izen kategoria besterik ez dute jaso.


Bukatzeko, esan behar da 5. sailean ikusiko duguna gora-behera, lan honetatik kanpo utziko ditugula Euskaltzaindiak (1985) postposizio-sintagmatzat jo arren lehenengo osagai modura genitiboa edo datiboa daramaten guztiak ⁽¹²⁾.

(12) Gure lanaren helburua mugatzeko morfologia-irizpide hori, zer esanik ez, erabat garbia eta eroso da, baina tartean badaude askoz ere korapilatsuagoak diren sintaxi-kontuak. 4. oharrean genitiboaz eta datiboaz esan dugunaz gain, EGLU-I horren egileek sen ona izan dute postposizio-sintagmatzat jo dituzten batzuk, aditz jakin batzuekiko harreman esua dutelarik, lokuziotzat har daitezkeela esan dutenean. Berez, horrelako postposizio-sintagmek *(-r)en jabe (egin)* kasu), adizlagun zereginari eutsi beharrean, lehen mailako izenki-predikatua eraten dituzte. Zabalaren (1999) lanean ederki ikus daiteke predikatueta buruen gramatika-kategoria finkatzea ez dela edonolako beharra, eta lan honen helburu xumeetatik kanpo utziko dugu. Areago, Euskaltzaindiak aipatu dituen lokuzio direlako horien arteko batzuek *(-r)i begira* delakoak adibidez ez dute beti izenki-predikaturik eraten. Gainera, lehen mailako izenki-predikatu horietaz gain, bigarren mailakoak ere, hau da aditzari ezinbesteko gertatzen ez zaizkionak *(-r)en esku utzi* esate baterako), kontuan hartu beharko lirateke uesteko postposizio-sintagma hauek aztertzerakoan. Bukatzeko, lehenengo zein bigarren mailako izenki-predikatu batzuen kasuan, munduko hizkuntzetan zehar berantolaketa modura izendatu den elkartzeko prozesu berezi bat gertatzen da (postposizio-sintagmen bigarren kidea den) izenaren eta aditzaren artean: hori izan liteke adibidez *bila ibili* edo *(-r)en bazter* utzi direlakoen kasuan. Honek areago zailtzen du sintagmaren azterketa eta bereziki sin-

3. IZEN-SINTAGMA + IZENA + POSTPOSIZIO ATZIZKIA

Bi osagaiko postposizio-sintagma hauen burua, eskuinaldean kokatzen den postposizio bat dela onartuko dugu. Oraingo egitura hauen osagarria, izen-sintagma bat da. Burua ez da hala ere, hain erraza aztertzen. Hasiera batean behintzat, (18) bezalako zeezer izan genezake ikusmiran.

(18)




tagma-buruaren kategoria finkatzea, beti ere predikatuen buruak kategoria askotakoak izan daitezkeela kontuan hartzen badugu behinik behin. Bukatzeko *alde /aurka egin* bezalako aditz-esapideen kontua ere, aztertzekoa da esparru honetan, *-(r)en alde /aurka* bezalako aldamenen. Izan ere, denak ditugu Euskaltzaindiak (1992) deskribaturiko aditz-esapideetako arteen, Odriozolak (1999) azaldu dituen *aurre egin*, *gibel egin* edo *inguru egin* eta are *hitz egin* edo *min hartu* bezalakoekin batera. Edonola, hona hemen lan honetatik kanpo utzi ditugun arteen 2. sailean sar litezkeenak:

- (i) a) *-(r)en aurka*, bizkar, esku, esker, mende, menpe
- b) *-(r)en/-ø orde*, truke (ikus 1. saila)
- b) *-(r)en/-ø alde*, inguru
- (ii) a) *-(r)i/-ra beha*
- b) *-(r)i begira*, so
- c) *-(r)en/-ø bila*, eske
- d) *-(r)en zain*, jabe, zale

Beraz, berezi samarra izango litzatekeen analisi honen arabera, postposizio atzizki bat izango genuke bi osagaiko postposizio-sintagma hauen buru. Atzizki horrek bere aldetik, izen-sintagma edo determinatzaile-sintagma bat ⁽¹³⁾ hartuko luke osagarri modura. Ez da hau ordea hitun-senak adieraziko ligukeena: berez, horrelako egituretan *moduan* edo *gora* ikasi dugu oso-osorik, eta horren arabera, (19) aldarrikatuko dugu. Beraz, burua izen batek eta postposizio atzizki batek osatzen bide dute hiztegitik bertatik. Edonola, bi osagaiko postposizio-sintagmetatik kanpo, postposizio atzizkiek ere hartzen dute izen-sintagma bat osagarri modura —ikusi 1.saileko (12b)—.

(19)



Bi osagaiko sintagmetara itzulirik, 3. sail honetatik aurrera, ez dugu hiztegiek jasotakoaren berri zehatzik emango, bereziki korapilatsua den kasuistika baitugu eskutartean. Hona hemen, dena dela, sail honetako kasu batzuk, hiztegieta dauden-daudenean jasotzen direnak edota jaso beharko liratekeenak.

(20) -ø artean, beheara, bidez, erara, eran, gisan, gisara, gora, legez, modura, moduan, ordez

Hauen artean, *gora* edo *behera* bezalakoak adberbio modura jaso dira hiztegieta. Euskaltzaindiaren (1985) terminologia kontuan harturik, egokia izango litzateke hitz hori, baina Zabalaen (1999) lanari jarraiki, adizlaguna delako

(13) 5. oharren ildotik, (18a) eta (21)eko analisisietan, postposizio atzizkiek osagarri modura determinatzaile-sintagma hartzen dutela onartu dugu. Morfologia-ikuspegi huts batetik, dena dela, horrelakoan artean baditugu mugatu singularrari egokituko litzazkiokkeen artean, *behera*, *erara*, *gisara*, *modura* bezalakoak, baina baita mugagabeari zor zaizkion *bidez*, *legez*, *ordez* bezalakoak ere.

berba atera egin beharko genuke kategoriak adierazten dituzten hitzen multzotik, eta beraz, bi hitz izango genituzke aukeran, kategoria bakar bati esleitzeko. Gure lan honetan ez dugu adberbio eta aditzondo direlako hitzen arteko hautaketa egingo eta aurrerantzean, adberbio/aditzondo zehaztasun bikoitza erabiliko dugu hemen. Horrela, 4. eta 5. sailetan emango ditugun arrazoi batzuenatik eta sail hau laburtzeko, guk geuk honelakoak jasoko genituzke hiztegieta: a) *Behe* postposizio-izena batetik, bestetik $-\emptyset$ *behera* postposizio-sintagma ematen duen *behera* postposizio beregain konplexua, eta azkenik *behera* adberbio edo aditzondoa. b) *Modu* izena batetik, eta bestetik *modura* postposizio beregain konplexua, $-\emptyset$ *modura* postposizio-sintagma ematen duena.

Laburtuz bada, postposizio kategoria egotzi diegu bi osagaiko postposizio-sintagmetan osagarri modura izen-sintagma hartzen duten eta postposizio atzizkiaz eta postposizio-izenaz eraturik dauden hitz konplexu batzuei. Hitz hauek, bi osagaiko postposizio-sintagmen osagarri modura azaltzen dira, baina ez dute oro har postposizio kategoria jaso hiztegieta.

4. POSTPOSIZIO-SINTAGMA BAKUNA + IZENA + POSTPOSIZIO ATZIZKIA

Bi osagaiko postposizio-sintagma hauen burua, eskuinaldean kokatzen den postposizio bat izango da beti ere ⁽¹⁴⁾. Oraingo egitura honetan, postposizio-sintagma bakuna dugu osagarri. Buruak, bere aldetik, izaera konplexua du, 3. sailean bezala (21a) baztertu eta (25b) analisia geureganatuko dugularik.

(14) Hemen ere, genitiboa daramaten kideen talde mardul bat utziko dugu aztertzeke:


- (i) a) $-(r)en$ *aurkara*, *arabera*, *arauaz*, *buruan*, *lepora/lepotik*
- b) $-(r)en$ *modura*, *moduan* (baina ikus 3. saileko $-\emptyset$ *modura*, *moduan*)
- c) $-(r)en$ *erara*, *eran* (baina ikus 3. saileko $-\emptyset$ *eran*, *erara*)
- d) $-(r)en$ *gisara*, *gisán* (baina ikus 2. saileko $-\emptyset$ *gisa* eta 3. saileko $-\emptyset$ *gisán*, *gisara*)
- e) $-(r)en$ *ordez* (baina ikus 1. saileko $-\emptyset$ *orde* eta 3. saileko $-\emptyset$ *ordez*)
- f) $-(r)en$ *partez*
- g) $-(r)en$ *trukean* (baina ikus 1. saileko $-\emptyset$ *truke*)
- h) $-(r)en$ *bidez* (baina ikus 3. saileko $-\emptyset$ *bidez*)

$-\emptyset$ $/(r)en$ txandakaketa ohikoa da postposizioen esparruan. Leku- edo denbora-zehaztasuna daramaten *aurre* bezalakoek ere, 5. sailean ikusiko dugunez, badituzte oro har bi aukera horiek. Hain zuzen ere, aukera bikoitz hori eta semantika-esparruaren berezitasuna dira izenen artean talde berezi batean sartzera eramango gaituztenak.


Bestalde, datiboa daraman $-(r)i$ *buruz* ere, alde batera utziko dugu.

(21)

a)



b)



Oro har, bestelako testuinguruetan postposizio-izentzat hartuko ditugunek jokatzan dute horrela, hiztegieta jasotzen diren buru konplexuak eta bi osagaiko postposizio-sintagmak emateko unean ⁽¹⁵⁾.

- (22) a) -tik gora
 b) -z gora
 b) -z landara
 c) -tik behera
 d) -tik kanpoan
 e) -z behera
 f) -z gainera

Bestalde, hiztegieta postposizio gisan jaso ez diren batzuk ere aipatu nahi ditugu, oraingo honetan aztertzeak aldeztu aurretik hemen edo bestelako sail batean kokatu behar denik jakintzat eman nahi ez badugu ere.

(15) Hauekin guztiekin batera, *-ko* daramatenak ere aintzat hartzekoak dira (*gorako*, *kanpoko*...). Areago, buru konplexuaren postposizio atzizkia *-ko* delarik, berarekin batera azal daitekeen bakarra ez da postposizio-izen bat, eta postposizio arruntak ere baditugu eskuragarri (*-tik landako* esate baterako). Areago, postposizio-sintagmaren osagarria izen-sintagma denean ere baditugu horrelakoak (*zeharreko*). Aintzat hartzekoa da azkenik *-z bestaldean* /*bestaldeko*, postposizio-izen batez eratua ez dagoena. Edonola, hemen gogoan izan behar da *-ko* atzizkiak izen-sintagma, determinatzaile-sintagma eta postposizio-sintagma har dezakeela osagarri modura, oro har izenlagun funtzioko egitura bat edo beste eratzekeo.

- (23) a) -n/-tik/-ø beheiti
b) -n/-tik/-ø goiti

Euskaltzaindiak (1985) postposiziotzat hartu ditu, postposizio-sintagmatzat alegia, baina bestelako hiztegiek aditzondo edo adberbio kategoria sumatu dute. Euskaltzaindiak emandako fonetika-irizpidera jo dezakegu: hasiera batean bi osagaiko egitura edo egitura bi azaltzen direla pentsa baliteke ere hitz-an-dana bakar batez ahoskatzen dira bi osagai horiek (24).

- (24) a) Malda beheiti joan behar duzu
b) *Malda /beheiti joan behar duzu

Bistan da ordea, hiztegiek (25)ekoa hartu dutela kontuan aditzondo kategoria esleitzeko uanean: *goiti* eta *beheiti* soilik azal daitezke, beti ere adizlagunaren betekizuna dutelarik.

- (25) Behiti egin behar duzu

(25)ekoan aditzondoa edo adberbioa dugula onar dezakegu, baina (24a)koan postposizio-sintagma bakun bat ageri da osagarri gisa eta beraz bertan betiko bi osagaiko postposizio-sintagma dugula azpimarratu behar da. Izan ere, aditza ustez beregainki laguntzen duten bi kide horiek ez daukate hurren-kera aldatzeko aukerarik, eta garbi dago goragoko sintagma konplexurik osatzen ez duten bi kidek, testuinguru pragmatikoa gora-behera, askoz ere hitz-hurrenkera malguagoa dutela, edo zehazkiago esan, banandurik azal daitezkeela (26b-b').

- (26) a) *Beheiti joan behar duzu malda
b) Oinez, beheiti joan behar duzu, baina autoz, goiti joan beharko zenuke
b') Beheiti joan behar duzu oinez

Horrela ba, bi osagaiko postposizio-sintagmak osatzeko ahalmena dute hauek, eta beraz, postposizio ditugu. Hasiera batean behintzat, erraz ondoriozta daiteke adizlagun funtzioa duten bestelako kide batzuk ere egoera horretan egon litezkeela. Halaxe da hiztegi-tan bertan ematen zaizkigun zehaztasunetarik uler daitekeenaren arabera: esana dugunez, gutxienez *artean*, *aurrera*, *atzera*, *behera* eta *gora* bezalako kide soilak, hau da, (22) egituretan buru izan litezkeen batzuk, adberbio edota aditzondo gisan ageri dira. Hori dela eta, hona hemen bi zehaztasun:

a) Dakigunez, *behera* bezalakoak postposizio-sintagmak dira eta adizlagun funtzioa dute. Esana dugu adberbio edo aditzondo kategoria onartzeko delako. Honelakoek badute, dakigunez, beste esparru batean hiztegi-tan jasoak izateko eskubide osoa: bi osagaiko postposizio-sintagmen buru konplexu modura. Beraz, hiztegi-tan hauek jaso beharko lirateke: *behe* postposizio-izena batetik, bestetik adberbio edo aditzondo izatera heldu den postposizio-sintag-

ma, eta azkenik *behera* postposizio beregain (konplexu)a izatera heldu den postposizio-sintagma bera, 3. saileko *-ø behera* edo hemengo-*tik behera* bezalako postposizio-sintagmak ematen dituen.

b) *-Ti* hori zein motatako atzizkia den orain finkatzen hasiko ez garelarik, *beheiti* eta *goiti* egoera berean leudeke. Hala ere, Euskaltzaindiak (1985) *aurre* edo *zehar* bezalakoeekin batera aipatu ditu *beheiti* eta *goiti*, bi osagaiko postposizio-sintagmen bigarren osagai gisan; buru modura *behera* ez baina *behe* aipatu duela kontuan harturik, agian *-n /-tik /-ø goiti* eta *beheiti* 2. saileko *-tik zehar* bezalakoeekin batera jartzeko aukera suma daiteke hemen ⁽¹⁶⁾.

Edonola, eskutartearen erabili ditugun eta erabiliko ditugun hiztegi-sarrera guztiak, adberbioak edo aditzondoak zein postposizio beregainak, deklinabideko atzizkirik gabe aditza laguntzeko betekizuna hiztegitik zehazturik dakarten hitzak dira, zatikatzerik ez bide duten postposizio beregain konplexuak barne.

Laburtuz bada, postposizio kategoria egotzi diegu postposizio atzizkiaz eta batez ere postposizio-izenez eraturiko hitz konplexu batzuei. Hitz hauek, bi osagaiko postposizio-sintagmetan osagarri modura postposizio-sintagma bakunak hartzen dituzte, baina ez zaie beti postposizio kategoria egotzi hiztegitan.

5. IZEN-SINTAGMA/GENITIBODUN SINTAGMA + IZENA + POSTPOSIZIO ATZIZKIA

Lan honen bukaerako sailean, kontuan hartu behar ditugu azkenik genitiboaren daramaten egitura batzuk (ikus 4. oharra).

(27) *-(r)en* bidez, erara, eran, gisan, gisara, gora, legez, modura, moduan, ordez ⁽¹⁷⁾


(28) *-(r)en* aitzin, alde, arte, atze, aurre, azpi, gain, barne, barren, barru, gibel, inguru, ondo, oste, pe + *-n, -tik, -ra, -raino, -rantz*

(16) Gaurko hiztegiek bezala, Lafittek (1943) *goiti, beheiti* eta *urruti* besterik ez zuen aipatu. Guk dakigula, azken horrek ez du bi osagaiko postposizio-sintagmarik eratzen, eta Euskaltzaindiak (1985) ere, ez du jaso. *Urruti* horrek badu gainera oro har postposizioetatik kanpo egon ohi den ezaugarri bat: izenondoa da, hiztegiaren esleitu zaion adberbio edo aditzondo kategoriaz gain. Bestalde, aipatzekoa da Azkuek (1905) *-ti* ohiko *-tik* elatiboaren aldaeratzat hartu zuela eta adierak ere, *-ra* adlatiboarenak eman gabe elatiboarenak eman zituela.

(17) Ikus era berean 12. oharreko *bila* eta *eske* genitiborik gabe ere joan daitezkeela predikatuak eratzerakoan. Era berean gogora bitez 1. sailean ikusi ditugun *-ø /orde, truke*. Azken hauek behintzat, 5. sailekoak ez bezala, postposizio beregaineko buruak dauzkate. Ikus era berean 12. ohar osoa.

Edozelan, hasiera batean behintzat, izen guztien esku dagoen zerbait da aurretik *-(r)en* genitiboduna hartu eta atzetik postposizio atzizki bat eramatea, eta horrelakoetan izen-sintagmaren sintaxian ohikoa den analisiari uko egiteko aukerarik ez dago: analisi bera egingo genuke beraz, *aurrean*, *ertzean* zein *egituran* dugularik ere (29).

(29) ⁽¹⁸⁾



Badakigu (27)koan genitibo gabeko aukera ere badagoela.

(30) -ø bidez, erara, eran, gisan, gisara, gora, legez, modura, moduan, ordez


Era berean, (28)ko postposizio-izen hauek, bestelako izenek bezala mendekotasunezko izen elkartuak eratzen dituzte (31) mugakizun modura jokatu (Azkarate 1990).

(31) -ø aitzin, alde, arte, atze, aurre, azpi, barne, barren, barru, gain, gibel, inguru, ondo, oste, pe + -n, -tik, -ra, -rantz, -raino

Horrela, postposizio-atzizkiak izen (elkartu) bat hartuko luke osagarri modura, beti ere izenen ohiko sintaxiaren pean (32)

(18) Genitiboaren izaera dela eta, ikus berriro 4. oharra.

(32)



Hala ere, (31)ko sortatik ateratzen diren batzuk ezin azal daitezke (32)ko bidetik. Ikus bedi (33-35), bibliografian aurkituriko batzuen moldapenak direnak.

- (33) a) Buztanikarak ez du zubi atzetik alde egin ⁽¹⁹⁾
 b) ??Buztanikarak zubi atzeak maite ditu
- (34) a) Epaile aurrean
 b) ??epaile aurrea gogorra/luzea/zabala (izan) da
- (35) a) Diru atzean dabil
 b) *Diru atzea

(b) aldakietan ikus daitekeenaren arabera, zenbaitetan izen elkartuak ez daude hiztegieta eta areago, nekez asma daiteke batzuetan izen elkartuari le-gokiokkeen adigai. Nabarmendu beharrekoa da beraz, (33a-34a-35a) horietan

(19) Honelakoak hiztun arrunten ahoetan nahiko ugari dira gaur egun, eta hona hemen ida-tiziko bat ere:

- (i) a) Adiskide artean Kornuallesen (Euskaldunon Egunkaria, 1999ko abuztuak 12, argaz-kian aurreko egunean gertaturiko eklipseari begira dauden batzuk ikus daitezkeelarik).
 b) °Adiskide artea


Hala ere, lan honen egileak eta lan honi buruz iruzkinak egin dituzten hizkuntzalariek, azken hauek behintzat hiztun kultuek, oso badaezpada kotzat jo ditugu sail honetako guztiak. Hori dela eta, honelako kasu guztien jatorria emango dugu hemen:

- (i) a) zubi atzetik (SEH)
 b) Juez aurrian, ta mundubaren aotan darabilrelako, gorroto deutsa (OEH)
 c) Ludi zoroan makina txo bat ba-yabilk diru atzian (AZ)

Begi bistakoa da beraz euskal senak nola edo hala sortu eta sortzen dituela horrelakoak.

ez dagoela izen elkaturik. Izan ere, bi osagaiko postposizio-egiturak ditugu berriro, beste batzuetan bezala lehenengo osagaia izen-sintagma soila bada ere. Hau bestalde, eztabidaezina da (30)ekoetan ere. Badakigu era berean postposizio-izen horiek postposizio atzizkiarekin batera eratzen dituzten *atzetik*, *gainean* edo *atzean* bezalako buru konplexuak direla benetan postposizio-sintagma hauen buru (36), 3. eta 4. sailekoetan ikusi dugunaren arabera.

(36)



Bestalde, hona hemen izen hauen ezaugarri bereziak laburbildurik:

a) Leku- eta denbora-zehaztasunak daramatzate eta bereziki emankorrak dira menpekotasunezko izen elkartuak emateko, mugatzaile zein mugakizun modura jokatzuz (Azkarate 1990, Odriozola 1999).

b) *Modu* edo *truke* bezalakoan antzera jokatzan dute bi osagaiko postposizio-sintagmen burua postposizio atzizki batekin batera osatzerakoan, baina beren taldea askoz ere oparoagoa da, eta hamabost bat kide ditugu hemen, izen modura behintzat.

c) *Modura* bezalakoak baino askoz ere emankorragoak dira postposizio konplexu modura jokatzuz bi osagaiko postposizio-sintagmak emateko unean. Izan ere, *modura* bezalakoetan *-ra*, *-z* eta *-n* baizik ez dugu eskuragarri, eta hemengo hauen artean, hasiera batean bederen erabat arruntak diren *-n* eta *-tik* postposizio atzizki horietaz gain, *-ra*, *-rantz* eta *-raino* ere bideragarri gerta daitezkeela dirudi. Hori dela eta, hiztegigintzan ez da hain erraza izango ihartu direnak edo besterik gabe horrela jokatzan dutenak zehazki finkatzea, baina gauzak garbi dauden neurrian, esan dugun bezala, postposizio konplexua jaso beharko da, bi osagaiko postposizio-egituraren berri ere emanez. Gogora bitez edonola hiztegieta eta adberbio edo aditzondo modura ikusi ditugun *artean*, *atzera*, *aurrera*, *behera* eta *gora*. Bestalde, *gain* bezalakoak izen delako kategoriaren gainean aipaturiko postposizio-izena delako zehaztasuna ere ezarri

beharko litzateke nonbait, azken finean *gainean* bezalako hiztegi sarrerak sortzeko aukera dagoela adierazteko.

Horrela ba, hauek jasoko genituzke hiztegieta: a) *Aurre* postposizio-izena, izen elkartuak emateko dituen ahalmenak eta guzti. b) *Aurrean* eta abarreko postposizio beregain konplexuak, *-ø aurrera* eta abarreko postposizio-sintagmak ematen dituztenak. c) 2. sailean ikusi ditugun *gain* edo *kanpo* bezalako postposizio beregainen agerpenaren berri eman behar da, horrelakoak eskuragarri dauden kasuetan, jakina.

Sail hau laburtuz, izenen artean *aurre* bezalakoek talde berezi bat osatzen dutela aldarrikatu dugu: izen elkartuak eratzeaz gain, modu egonkor batean bi osagaiko postposizio-sintagmak eratzen dituztelarik, postposizio atzizki batekin batera postposizio beregain konplexuak ematen dituzte; gainera, horrelako egituren lehenengo osagaiak, izen-sintagmak zein postposizio-sintagma bakunak izan daitezke, izen arrunten aurrean bezala genituboko sintagma bat ere azal daitekeelarik.

6. BI OSAGAIKO POSTPOSIZIO-SINTAGMA GUZTIEN BERRIKUSTAPENA, AZKEN ZEHAZTASUN BATEN ARABERA

Lan honetan Euskaltzaindiak (1985) postposizio izenaren pean azterturiko egitura batzuk berrikusi ditugu. Lehenengo eta behin, postposizio delako gramatika-kategoria mugatzen saiatu gara. Bigarrenik, bi postposizio mota bereizi ditugu: postposizio atzizkiak eta postposizio beregainak. Batzuek zein besteek, izen-sintagma, determinatzaile-sintagma edo beste postposizio-sintagma bakun bat har dezakete osagarri modura, eta aukera horien arabera antolatu dugu lana.

Hasteko, postposizioek oro har adizlagun funtzioko postposizio-sintagmak eratzen dituztela ikusi dugu; areago, postposizio beregainek bi osagaiko postposizio-sintagmak eratzen dituzte, eta haiek izan ditugu aztergai nagusi. Haien lehenengo osagaiak, sintagmaren buru den bigarren osagaiaren osagarri modura jokatzeko du, eta buru horren arabera, postposizio-sintagma bakunetako bat edo beste behar da gehienetan osagarri modura; lehenengo osagai gisan azaltzen den postposizio-sintagma bakun hori, postposizio atzizki batez, hau da, gramatika-kasuetatik kanpoko deklinabide-atzizki batez eta bere osagarriaz osaturik dago. Era berean, izen-sintagma soilak eta areago, determinatzaile-sintagmak ere azal daitezke bi osagaiko postposizio-sintagma hauen lehenengo osagai modura. Burua den bigarren osagaia, postposizio kategoriako hitz bat izango dela onartu dugu hizkuntzalaritza-korronteetan zehar nagusi den ideari jarraiki. Hala ere, zenbaitetan, postposizio beregainak izango ditugu, eta beste zenbaitetan, azalean behintzat, postposizio atzizkiak. Lehenengokoan artean postposizio kategoria aldarrikatu dugu beti, zenbaitetan hiztegiek oraingoz horren islarik jaso ez badute ere. Bigarren kasuan, alde batera utzi dugu atzizki

soila egituraren burua delako ideia, eta hiltun-senarekin bat eginez, atzizkiaz eta bere osagarriaz osaturiko postposizio konplexuak daudela aldarrikatu dugu. Hala ere, postposizio atzizkiaren osagarri eran izenen artean bereizi ditugun postposizio-izenetako bat egon daitekeela nabarmendu dugu. Edonola, bi osagaiko postposizio-sintagmen buruak beti ere postposizio beregain (soil edo konplexu)ak izango direla ikusi dugu.

Amaitu baino lehen, azken berrikustapen honetaz baliatuko gara bi osagaiko postposizio-sintagma hauek orain arte ez bezalako bi taldetan antolatuko dituen zehaztasun baten berri emateko: lehenengo osagaiaren ezabaketa ezarriko dugu egitura hauetan guztietan. Izan ere, buru modura postposizio beregain bat dutenek, ez dute onartzen horrelakorik (37-38).

- (37) a) Bost egun barru joango naiz
b) *Barru joango naiz
- (38) a) Ez du etxea hemendik kanpo erosi nahi
b) *Ez du etxea kanpo erosi nahi

Buru modura postposizio atzizkia edota postposizio konplexua dutenek al-diz, zenbaitetan onartzen dute lehenengo osagaiaren ezabaketa (ikus 4. sailean *behera lbeheiti* direlakoez esandakoa).

- (39) a) Kolean gora joan zen
b) Gora joan zen

Osagarri modura izen-sintagma edo determinatzaile-sintagma hartzen duten buru konplexuen artean, genitiboaren aukerarik ez dutenek, postposizio beregainak bezala jokatzeko dute, eta nekez onar dezakete osagarriaren ezabaketa (40). Genitiboaren aukera dutenen artean, *ordez* zenbait testuingurutan gutxienez, soilik azal daiteke (41b). Postpostposizio-izenez osaturikoek oro har eskuragarri dute bide hori (42).

- (40) a) Abeslari modura ona da
b) *Modura ona da
- (41) a) Hizkuntzalaritzaren ordez, musika hartu du lanbide
b) Ordez emango digu betiko zerua (SEH)
- (42) a) Prozesio aurretik datoz
b) Aurretik datoz

Honek ezinbestez garmatza bi osagaiko postposizio-sintagmetako buruen artean egin izan ditugun bi talde nagusiei zehaztasun garrantzitsu bat gaineratzera edota berrantolaketa bat egitera. Alde batetik baditugu postposizio beregainak (*zehir*) eta sinkronikoki postposizio beregain modura jokatzeko dutenak (*modura*); osagarri modura jokatzeko duen lehenengo osagaiaren ezabaketa onartzen ez duten hauek, ondo mugatuko lukete postposizio beregain baten berezko sintaxi-banaketa. Beste alde batetik baditugu postposizio atzizkia dute-

nak eta, nolabait esatearren, bere osagarriarekin postposizio beregaina erabat osatu ez dutenak (*artean, aurretik*). Azken hauek, postposizio beregainek bezala, bi osagaiko postposizio-sintagmak osatzen dituzte batzuetan, baina, postposizio beregain garbiak ez bezala, postposizio-sintagma bakun modura ere azaltzen dira. Hori dela eta, hona hemen azpimarratzeko azken kontua: postposizio-izen batzuk postposizio beregain (bakun) modura, hau da, postposizio atzizkirik gabe azaltzen dira eta horrelakoetan, espero zitekeenez, osagarriaren ezabaketa ezinezkoa da (37b). Ikusi, beraz lan osoaren ekarpena bilduko duen hau:

(43)

Adibidea	1. osagaia (egituraren osagarria)	2. osagaia (egituraren burua)	Sintagma gorena	Osaga- riaren ezabaketa
laguntzat	IS	P atzizkia	PS bakuna	*-tzat
kalean	IS	P atzizkia	PS bakuna	*-n
indar gabe	IS	P beregaina	bi osagaiko PS	*gabe
astebete barru	IS	P beregaina	bi osagaiko PS	*barru
asteburua arte	DS	P beregaina	bi osagaiko PS	*arte
basoan zehar	PS bakuna	P beregaina	bi osagaiko PS	*zehar
diruaz gain	PS bakuna	P beregaina	bi osagaiko PS	*gain
emakume modura	IS	P konplexua: I + P atzizkia	bi osagaiko PS	*modura
aldapa gora	DS	P konplexua: P-izena + P atzizkia	bi osagaiko PS	gora
teilatutik behera	PS bakuna	P konplexua: P-izena + P atzizkia	bi osagaiko PS	behera
epaile aurrean	IS	P konplexua: P-izena + P atzizkia	bi osagaiko PS	aurrean

Lantxo honi bukaera emateko esan dezagun, azken batean sintagmak, kategoriak, funtzioak eta egitura-harremanak bereizten saiatu garela orain arte zehaztasun handirik gabe postposizio delako hitzaren pean aipatu izen den sintaxi-esparru horretan.

BIBLIOGRAFIA

- ARTIAGOITIA, X. (1990): *A unified approach to relativization in Basque*. University of Wasington.
- ARTIAGOITIA, X. (1992): "Why Basque doesn't Relativize Everything". *Syntactic Theory and Basque*. *Syntax Supplements of the International Journal of Basque Linguistics and Philology*, XXVII.
- ARTIAGOITIA, X. (1998): "Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan". *Uztaro* 27.
- AZKARATE, M. (1990): *Hitz elkartuak euskaraz*. Mundaiz. Donostia.
- AZKUE, R.M. (1905): *Diccionario vasco-español-francés*. Euskaltzaindia. Bilbo, 1984.

- BOSQUE, I. (1989): *Las categorías gramaticales*. Editorial Síntesis. Madrid, 1998.
- BOSTAK BAT (1996): *Hiztegia. Euskara-Gaztelania /Gaztelania-Euskara*. Adorez 7. Bilbo.
- EGUZKITZA, A. (1993): "Adnominals in the grammar of Basque". *Generative Studies in Basque Linguistics*.
- EGUZKITZA, A. (1997): "Kasuak eta postposizioak: deklinabidea eta postposiziobidea". *Hizpide* 40: 39-52.
- ELHUYAR (1993): *Hiztegi entziklopedikoa*. Donostia.
- ELHUYAR (1996): *Euskara-gaztelania, castellano-vasco. Hiztegia*. Donostia.
- EUSKALTZAINDIA (1985): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (I)*. Bilbo, 1991.
- EUSKALTZAINDIA (1992): *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA: *Orotariko Euskal Hiztegia*. Ediciones Mensajero. Bilbo.
- LAFITTE, R. (1943): *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire)*. Elkar. Donostia, 1979.
- LAKA, I. (1993): "Unergatives that assign Ergative". Bobaljik, J.: Philips, C. (eds). *Papers on Case & Agreement 1. MIT Working Papers in Linguistics*, 18: 149-172.
- ODRIOZOLA, J.C. (1999): *Postposizio-izenak* (eskuizkribua).
- SARASOLA, I. (1996): *Euskal Hiztegia*. Kutxa fundazioa. Donostia.
- ZABALA, I. (1993): *Predikazioaren teoriak gramatika sortzailean. (Euskararen kasua)*. Doktorego-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ZABALA, I & J.C. ODRIOZOLA (1994): "Adjektiboen eta adberbioen arteko muga zehatzik eza". *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* 28 (2): 525-541.
- ZABALA, I. (1999): *Gramatika-kategoriak eta EGLU* (eskuizkribua).

GRAMATIKA-KATEGORIAK ETA EGLU ⁽¹⁾

*Igone Zabala
(EHU)*

1. SARRERA

Aditza, izena, adjektiboa eta preposizioa/postposizioa bezalako gramatika-kategoriek hizkuntzen hiztegieta aurki ditzakegun osagaiak sailkatzeko bidea ematen digute. Alde batetik, hizkuntza bakoitzaren jokaera ulertzeko balio digute analisi-unitate hauek, hizkuntza baten gramatika azken batean hizkuntza horren osagaiak elkarren artean nola konbinatzen diren eta ezinezkoak diren konbinazioak zein diren finkatzean baitatza. Hainbat hizkuntzaren jokaera erkatzeko ere balio digute hauek, azken batean sail bereko osagaiek hizkuntza desberdinetan berdin edo desberdin jokatzeko ote duten aztertzean baitatza eraketa hori. Hizkuntza bakoitzean zein sailtako osagaiak dauden eta zein sailtako osagirik ez dagoen ikusteko ere balio digute, esate baterako, hizkuntza batzuetan adjektiboaren kategoriako osagaien bidez adierazten direnak beste hizkuntza batean aditzaren bidez edo preposizio-sintagmen bidez adierazten direla ikusteko. Azken batean, hizkuntza guztien oinarria litzatekeen Gramatika Unibertsala deritzon abstrakzio batera hurbiltzeko ere balio digute gramatika-kategoriek.

Hortaz, hizkuntza jakin baten gramatika deskribatu nahi dugunean, berebiziko garrantzia du zenbat hitz klase bereizten ditugun eta horiei zein izen ematen diegun finkatzeak. Terminologiaz haruntzago doan zerbait da kontu hau, gramatikari begiratzeko modua bera baldintzatzen baitu erabaki horrek.

Eremu praktikoago batera joanda, gramatika-kategoriek hiztegien erabil-tzaileei hiztegi-sarrerak nola erabili behar dituzten era laburrean jakinarazteko bidea ematen diete hiztegi-gileei. Hiztegi batean *irabazi* sarrerari buruzko informazioaren bila ari dena, hitz hori 'izena' zein 'aditza' izan daitekeela ikusten duenean, berehala jabetuko da (1a) eta (1b) bezalako testuinguruetan erabil dezakeela hitz hori.

(1) Lan honek Euskal Herriko Unibertsitateko dirulaguntza jaso du UPV 033.310-HA081/97 ikerkuntza-egitasmoaren barruan eta DGICYTrena PB96-0457-CO3-03 ikerkuntza-egitasmoaren barruan. Mila esker beren iruzkinengatik Juan Carlos Odriozolari, Xabier Artiagoitiari eta Asier Larrinagari. Halaber, eskerrak eman behar dizkiet Alang King, Beñat Oyharçabal eta Patxi Goe-nagari Etxarri-Aranatzen egindako Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordearen bileran lan hau aurkeztu nuenean piztu zuten eztabaidagatik.

- (1) a) Jonek sari bat *irabazi* du.
- b) Lantegi honetan *irabazi* handiak lortu dituzte.

Hiztegigileak, idazleak, zuzentzaileak eta, agian arauemaileak ere, gramatikariak hizkuntza bat deskribatzekotan idazten dituzten gramatiketan oinarritzen dira beren lanerako. Euskararen kasuan, jakina, EGLU gramatika da eredu modura erabili ohi dena. Egia da EGLU ez dela hizkuntzalariei zuzendutako gramatika eta alde horretatik ezin murgil daitekeela eztabaida teorikoe-tan eta ezin azter ditzakeela gaiak lan teorikoek aztertzen dituzten sakontasun-mailarekin. Hizkuntzaren jokaeraren deskripzio hutsa da baina edonola, deskripzio horren abiapuntuan dauden gramatika-kategorien zedarritzatzea bezalako aukera teorikoek berebiziko garrantzia dute deskripzio horren ondorioetarako.

Lan honetan, EGLU gramatikan hitzen kategoriak zedarritzatzeko eta horiei izen bat esleitzeko egindako zenbait aukerak hiztegien sarrerak gauzatzeko orduan eta (gramatika horren berri duten) hizkuntzaren erabiltzaileen artean zabaldu diren zenbait iritziren ganean izan dituzten eraginak aztertuko ditut.

Lehendabizi, gramatika-kategoria, sintaxi-funtzioa eta egitura-harremana adigaiak laburki definitzen saiatuko naiz. Bigarrenik, 'aditz izen' terminoaren erabilerari buruz mintzatuko naiz. Hirugarrenik, EGLUn egiten den 'adjektibo', 'izenondo' eta 'izenlagun' terminoen definizioak izanen ditut hizpide eta hiztegigileek definizio horiek nola ulertu dituzten edota nola erabili dituzten aztertuko dut. Laugarrenik, 'adberbio', 'adizlagun' eta 'aditzondo' terminoen erabilera aztertzeari ekingo diot. Eta azkenik, zenbait kasutan gertatzen diren moduzko adberbioen eta adjektiboen arteko muga finkatzeko zailtasunak agerian uzten saiatuko naiz.

2. GRAMATIKA-KATEGORIAK, GRAMATIKA-FUNTZIOAK ETA EGITURAZKO HARREMANAK

Hizkuntzak deskribatzeko edota aztertzeako orduan, lau gramatika-kategoria nagusi erabili ohi dira: 'aditza', 'izena', 'adjektiboa' eta 'preposizioa/postposizioa'. Categoria nagusi horietaz gain, beste zenbait categoria aurki daitezke hizkuntza gehienetan: 'determinatzaileak', 'adberbioak', 'zenbatzaileak', 'konplementatzaileak' eta 'juntagailuak'.

Kategoria hauek hizkuntza gehienetan aurki daitezke, zenbait hizkuntzatan kategoriaren bat ez egotea edota categoria batek gainerako hizkuntzetan baino hiztegi-sarrera gehiago edo gutxiago izatea ere gerta badaiteke ere. Egia da, bestetik, semantika mailan parekagarriak diren unitateak categoria desberdinen bidez adieraz ditzaketela askotan hizkuntza desberdinekin baina hizkuntzen artean dauden alde komunak eta desberdintasunak antzemateko funtsezkoa da edozein hizkuntzaren azterketa egiterakoan categoria batean sartzen diren hiz-

tegi-sarrerak beste hizkuntza batean kategoria berean sartzen direnekin erkatzeko modukoak izatea.

Kategoriak definitzeko erabili ohi diren irizpideak lau ataletan bil daitezke ⁽²⁾: fonologia-, morfologia-, semantika- eta sintaxi-irizpideak. Edonola, mota bateko baino gehiagoko irizpideak erabiltzen ditugu hitzak kategoria batean edo beste batean sartzeko orduan eta batzuetan mota bakoitzeko irizpideei ematen diegun garrantziaren arabera, mota jakin bateko sailkapena erdietsiko dugu.

Fonologia-irizpideak baliagarriak zaizkigu batzuetan hitzen kategoria erabakitzeko. Esate baterako, *zoro* edo *oso* hurrenez hurren adjektibo eta zenbaitzailearen kategoriakoak dira eta *zoratu* eta *osatu* aldiz, oinarri horietatik eratorritako aditzak. Hortaz, *zora dadin* edo *osa dezake* ikusten dugunean, arazorik gabe identifikatzen ditugu aditz-erroak eta era berean, badakigu *zoragarri* edo *osagarri* adjektiboak *zoratu* eta *osatu* aditzetatik eratorri direla eta ez *zoro* eta *oso* hitzetatik. Bestetik, azentua euskaraz kasu asko eta askotan zalantzagarria bada ere, zenbaitetan baliagarria zaigu segida batean duguna hiztegi-sarrera bakarra eta ez sintagma dela jakiteko. Esate baterako *sudúr luzéa dauka* eta *gizon sudurlúzea* da segidak desberdinak dira: lehen adibidean IS osatzen dute *sudur* eta *luze* osagaiek eta bigarren segidan aldiz, *sudurluze* hiztegi-sarreratzat hartu behar dugun adjektibo elkartua da.

Morfologia-irizpideen artean sar daitezke hitzek flexio-atzizkiak hartzeko aukera izatea ala ez izatea, hartzen dituzten flexio-atzizkiak numeroari (eta zenbait hizkuntzatan generoari) edota kasuari dagozkionak izatea adota pertsonari, aspektuari, aldiari dagozkionak izatea. Adibidez, *ekarri* aditza da eta badakigu *dakar*, *zekarten*, *zekarkidaten*, *ekar dezakete*... bezalako aldaerak izan ditzakeela baina *liburu* aldiz, izena da eta *liburua*, *liburuak*, *liburuari*... bezalako aldaerak aurki ditzakegu. Hitz eratorriak direnean, mota bateko edo beste mota bateko atzizki eratorlea eramatea ere, hitza kategoria batean sartzeko irizpidea izan daiteke. Adibidez, badakigu *-tu* atzizkiak aditzak ematen dituela *-keta* atzizkiak, izenak eta *-kor* atzizkiak aldiz, adjektiboak. Hitz beregainak izatea edota hitz bati lotu behar zaizkion morfema lotuak (atzizkiak, aurrizkiak edo artizkiak) izatea ere har daiteke kategoriak mugatzeko orduan kontuan hartu ohi den morfologia-ezaugarritzat. Euskal ohiko determinatzailea esate baterako determinatzaile lotua da (*liburua*) baina erakusleak determinatzaile beregainak dira (*liburu hori*).

Semantikak ere eragina du hitzak kategoria batean edo beste batean sartzeko orduan. Izakiak adierazten dituzten hiztegi-sarrerak (*liburu*, *gizon*, *zuhaitz*...) 'izentzat' hartu ohi ditugu, ezaugarriak edo egoerak adierazten dituztenak adjektiboen sailean (*handi*, *haurdun*, *itsusi*...), ekintzak, jarduerak edo gertaerak adierazten dituzten hitzak aditz modura sailkatzen ditugu (*egin*, *dan*-

(2) Irizpide hauei buruz eta zehazkiago gaztelaniaren kategorien zedarriztatzeari buruz ikusi Bosque (1989).

tzatu, erori...) eta ekintza, jarduera edo gertaera horien inguruan dauden baldintzak adierazten dituztenak adberbioen artean (*atzo, ondo, berriro...*). Edonola, irizpide hauek ez dira behar bezain bereizgarriak gertatzen; izan ere, ekintzak, gertaerak, egoerak edo ezaugarriak adierazten dituzten izenak ere aurkitzen ditugu (*apurketa, istripu, beldur, edertasun...*) eta, era berean, izakiei erreferentzia egiten dieten adjektiboak (*darwindar, itsastar...*), egoerak edo kualitateak adierazten dituzten aditzak (*jakin, iraun...*), eta egoerak edo kualitateak adierazten dituzten adberbioak ere (*ondo, txarto...*).

Azkenik, sintaxi-irizpideak erabiltzen ditugu hiztegi-sarrerren kategoria erabakitzeke, alegia, osagai bakoitzak gainerako osagaiekin konbinatzeko dituen moduei begiratzen diegu. Edonola, badakigu perpaus batean ditugun osagaien artean harreman hierarkikoak daudela. Hau da, ezaguna da (2) perpausaren egitura ez dela (2a) adibidean ageri dena, (2b) adibidean ageri denaren antzeko zerbait baizik.

- (2) a) [Haur] [txikiak] [Jonen] [liburua] [dakar] [eskuan]
 b) [Haur [txikiak]] [[[Jonen] liburua] dakar] eskuan]

Perpaus horretan, bi osagai nagusi bereizten ditugu: *Haur txikiak* batetik eta *liburua dakar eskuan* bestetik. Lehenengoari 'subjektua' esaten diogu eta bigarrenari 'predikatua'.

Areago, predikatuaren barruan, *dakar* aditzaz gain ditugun osagaiek, hau da, *Jonen liburua* eta *eskuan*, harreman desberdina dute *dakar* aditzarekiko: haur txikiak ZER dakarren zehaztea ezinbestekoa da gauzatzen dugun perpausa onargarria izan dadin; liburua NON dakarren zehaztea aldiz, ez da ezinbestekoa. Subjektuari dagokionez, beste horrenbeste esan dezakegu, ezinbestekoa da edozein predikatuk subjektu bat izan behar baitu.

Aditza da azken batean zer-nolako perpausak izan ditzakegun erabakitzen duena: *ekarri* aditzaren ordeaz, *erori* aditza bagenu, esate baterako, subjektua litzateke ezinbesteko osagai bakarra eta *ekin* aditza bagenu, beharrezkoa litzateke ZERI osagai bat edukitzea. Hortaz, predikatuak eratzen dituzten hiztegi-sarrerek hiztegitik zehazturik daramate lagundu behar dituzten osagaiak zenbat eta nolakoak diren. Osagai hauei 'argumentuak' deritze eta subjektua, osagarri zuzena eta zeharkako osagarria bezalako etiketak argumentu horiek bete ditzaketen sintaxi-funtzioak dira. Lehenago esan dugunez, (2) adibidean *eskuan* osagaia ez da ezinbestekoa, egiten duena da aditzaren ekintza zehaztu. Honelako osagaiei 'modifikatzaileak' deritze.

Predikatu, argumentu edo modifikatzaile modura jokatzen duten osagaiak ez dira hiztegi-sarrerak ordea: hiztegietan *haur, txiki, liburu, ekarri* eta *esku* bezalako sarrerak aurkitzen ditugu eta ez *haur txikiak, Jonen liburua, dakar* eta *eskuan* bezalakoak. Eskuarki onarturik dagoena da hiztegi-sarreratzat hartzen ditugunek sintaxian 'sintagma' islatzen dituztela eta sintagma horien 'buruak' direla. Sintagma, buru modura duten kategoria berekoak dira. (2) adi-

bidean, esate baterako, badakigu *ekarri* aditza dela predikatu modura jokatzeko duen aditz-sintagmaren burua, eta *haur* eta *liburu* izenak direla hurrenez hurren subjektu eta osagarri zuzen modura jokatzeko duen sintagmen buruak.


Sintagma baten barruan ezinbestekotzat hartzen ditugun osagaiek sintagmaren buruarekiko 'osagarri' harremana dutela onartu ohi da eta aukerakoak diren osagaiei, 'adjunktu' esaten zaie. Hortaz, 'osagarri' eta 'adjunktu' terminoek egiturazko harremanak adierazten dituzte. (2) esaldian esate baterako *Jonen liburua* aditzaren osagarria dela esaten dugu baina (2c) adibidean parentesi artean jarri ditugunak adjunktuak direla onartzen dugu, aukerakoak baitira:

(2) c) Haur (txiki)ak (Jonen) liburua dakar (eskuan).

Edonola, sintagma desberdinen parte dira horiek eta, beraz, bakoitza sintagma batean adjuntaturik dagoela onartu behar dugu: *txiki* adjunktuak *haur* modifikatzen du, *Jonen* adjunktuak *liburu* eta *eskuan* adjunktuak *dakar* aditza. Euskaraz, 'izenlagun' deritze *Jonen* bezalako osagaiei eta 'adizlagun' *eskuan* bezalako osagaiei. Termino horiek adierazten dutena da osagai horiek kategoria jakin baten (hurrenez hurren, izenaren eta aditzaren) modifikatzaile modura jokatzeko dutela.

Azkenik, (2) adibidean ageri diren zenbait osagai ez ditugu hiztegiaren aurkitzen, *-a*, *-k*, *-en* eta *-n* bezalako morfemak ari gara. Hauen funtzioa buruen, sintagmen eta abarren arteko harremanak ezartzea da. 'Determinatzailea' eta 'postposizioa' bezalako terminoak erabiltzen dira osagai horien gramatika-kategoriaren berri emateko. Mota honetako kategoriei ere, sintagma-egitura onartzen zaie analisi endozentrikoak erabiltzen dituzten esparru teorikoetan⁽³⁾. Esparru hauetan, beraz, *eskuan* bezalako sintagma baten analisia ondokoa litzateke:

(3)



(3) Gramatika Sortzailean determinatzaile-sintagmei ematen zaien analisi endozentrikoari buruzko informazioa nahi duenak Artiagoitiaren (1998) lana ikus dezake. Artiagoitiak analisi hori bikainki eta argi aurkeztu eta euskarari buruzko datuez hornitu duela irakurle erraz uler dezake.

Laburbilduz, hona hemen hizkuntzen gramatika egiten dugunean erabiltzen ditugun terminoen sailkapena:

- a) Gramatika-kategoriak: izena, adjektiboa, aditza, preposizioa/ postposizioa, adberbioa, determinatzailea, ...
- b) Sintaxi-funtzioa: Argumentua (subjektua, osagarri zuzena, zeharkako osagarria), predikatua, modifikatzailea (izenlaguna, adizlaguna,...).
- c) Egiturazko harremana: osagarria, adjunktua...

3. ADITZ IZENAK

Ondorengo (4) adibide-sortan *norberaren datu zehatzak* eta *norberak datuak ondo idaztea* segidek banaketa bera dute, biak dira *beharrezkoa izan* predikatuaren subjektuak baina, edonola, (4a) segidako burua (*datu*), izena da eta (4b) segidako burua (*idatzi*) aldiz, aditza. Bereizketa hau neurri handian buru horiek laguntzen dituzten osagaiei esker egin dezakegu. Aditza laguntzen duten osagaiek ergatiboa, absolutiboa eta datiboa bezalako kasu-atzizkiak daramatzate eta aditzondoan artean sartu ohi diren *ondo* bezalakoak ere eraman ditzakete. Izena laguntzen duten osagaiek, aldiz, *-ren* eta *-ko* genitiboak eraman ohi dituzte eta adjektiboak ere ager daitezke izen horiek laguntzen.

- (4) a) Oso beharrezkoak dira [norberaren datu zuzenak].
- b) Oso beharrezkoa da [norberak datuak ondo idaztea].

Morfologia beraren azpian bi gramatika-kategoria ezkuta daitezke. *Irabazi*, esate baterako, aditza da (5a) adibidean eta (5b) adibidean aldiz, izena. Hiztegietan zehazturik datozkigu sarrera honen bi kategoriak.

- (5) a) Jonek sari bat *irabazi* du.
- b) Lantegi honetan *irabazi* handiak atera dituzte.

Bada atzizki bat, buru modura izenak zein aditzak dituzten eraikuntzetan ager dakigukeena, *-tze* atzizkia alegia: ondoko bi adibideetan *jaiste* hitza ageri bada ere, (6a) adibidean aditza da eta (6b) adibidean aldiz, izena.

- (6) a) Espero izatekoa da [berehala diruaren prezioa nabariki *jaiste*a].
- b) Espero izatekoa da [diruaren prezioaren berehalako *jaiste* nabaria].

Kortxete arteko segida horiek banaketa bera badute ere, islatzen dituzten egiturak oso desberdinak dira: (6a) segidan osagai guztiak ohiko perpausetan bezala gauzatu dira eta (6b) segidan ageri direnak aldiz, ohiko izen-sintagmetan bezala. Erkatu adibide horiek buru modura inolako zalantzarik ez duten kategoriak dituzten (7)ko adibideekin:

- (7) a) Diruaren prezioa nabariki *jaitsi*ko dute berehala.
- b) Diruaren prezioaren berehalako *jaitsiera* nabaria.

Edonola, hona hemen EGLU-IIren 29.orrian 'aditz izenci' buruz irakur dezakeguna:


“Izen bihurturiko aditz hauek, edo izenaren itxura duten aditz hauek, bestelako izen guztiak bezala izen sintagma osatuz ager daitezke eta, horregatik, gainerakoekin gertatzen den bezalaxe, kasu markak ere hartu. Ergatiboan beti artikulua behar du aditz izenak: (23) *Hori irakurtzeak buruko mina ematen dit.*”

Euskaltzaindiak eskaintzen digun (23) perpausari begiratzen badiogu, *irakurtze* delakoak *-a* determinatzaileari eta ergatibo kasuari lotuta ageri bada ere, aditza dela dakigu osagarri zuzenaren itxuran oinarriturik (*hori*): (6a) eta (4b) adibideen kasu berean gaude. Hortaz, aditz hauek ez dira izen bihurtu, islatzen dituzten sintagma argi eta garbi aditz-sintagma baitira eta areago, aditz-sintagma horiek mendeko perpausak eratzen baitituzte. (6b) perpausaren ageri den *jaiste* hori aldiz, izena da, islatzen duen sintagma argi eta garbi izen-sintagma baita (*-ko* eta *-ren* daramaten modifikatzaileak eta adjektiboa daramatza). Hortaz, (6a) eta (6b) adibideetan ageri den *-tze* atzizkiaren azpian izaera desberdina duten bi atzizki ezkutaturik daude: (6b) adibidean duguna, atzizki eratorle izen-sortzailea da, *-keta*, *-era*, *-pen* atzizkiak bezala. (6a) adibidean duguna aldiz, flexio-atzizkia da eta izan ere, aspektu-atzizkitzat har dezakegu partizipioaren atzizkiaz ordezkia dezaiegula kontuan hartuta (8a, b):

- (8) a) Pozgarria da [diruaren prezioa nabariki jaiste].
 b) Pozgarria da [diruaren prezioa nabariki jaitsi (izan)a].

Nola azal daiteke orduan (6)ko eraikuntza biek banaketa bera edukitzea? Hain zuzen ere *-a* determinatzailea da banaketa hori eragiten duena: bai ISaren kasuan bai eta perpausaren kasuan ere, egitura osoaren geruzarik kanpokoena buru modura *-a* determinatzailea duen determinatzaile-sintagma baita ⁽⁴⁾.

(9)



(4) Mota honetako eraikuntzei buruzko analisi zehatzagoa eta sakonagoa nahi duenak ondoko lanetara jo dezake: Artiagoitia (1994), Zabala (1995) eta Zabala eta Odriozola (1996).

Esan dugunez, hiztegieta zehazten direnak dira buru modura jokatzeko duten kategoriak: (9a) eraikuntzaren burua *jaiste* da eta horren kategoria 'izena' da, *jaitsiera* delakoaren kategoria 'izena' den bezala. (9b) eraikuntzaren burua aldiz, *jaitsi* aditza da eta beraz, hiztegiaren badugu aditz modura etiketatutik. Aditz horrek testuinguru desberdinetan izan ditzakeen aldaerak ere, hots, flexio-atzizki desberdinak hartzen dituenean dituen itxura desberdinak, zehaztuta datozkigu Sarasolaren *Euskal Hiztegi*an (*jaitsi*, *jaits*, *jaisten*). Informazio hau aditzaren sarreran bertan eskaintzen zaigu jakina, ez baitagokio kategoria- edota esangura-aldaketa bati, aditz berak aspektu-ñabardura desberdinak emateko eta sintaxi-testuinguru desberdinetan azaltzeko dituen flexio-atzizkiei baizik ⁽⁵⁾.

Edonola, Sarasolaren *Euskal Hiztegi*an, aditz guztien ondoan *A + -tze* moduko hiztegi-sarrerara ematen zaigularik, ondoan "A aditzaren aditz izena" zehaztuta datorkigu. Zer esan nahi du baina esapide horrek? Hiztegi-sarrerara bat ezin izan daiteke batera izena eta aditza. Aditz kategoriako *jaitsi* hiztegi-sarrerara badugu hiztegiaren eta euskal hitzun guztiok dakigu aditz horren *jaiste* morfologia-aldaera badagoela, aditz guztiek baitute morfologia-aldaera hori. Hiztegiaren erabiltzaileentzat oso baliagarria da, ordea, izen kategoriako *jaiste* hitzik ba ote dagoen eta horren esangura zein den, *jaitsiera* izenaren sinonimoa ote den e.a. jakitea.

-Tze atzizkia daramaten bi motatako sarrerak aurki ditzakegu Sarasolaren hiztegiaren: batetik, 'aditz izen' zehaztapena ez ezik, *iz.* zehaztapena daramatenak (*jaiste* esate baterako) eta bestetik, 'aditz izen' zehaztapena baizik ez daramatenak (*apurtze* esate baterako). Honek esan nahi duena da Sarasolak erabili duen corpusean ez duela aurkitu *apurtze* hitza izen modura erabilita eta izan ere, *Orotariko Euskal Hiztegi*an ere ez dago honelako hiztegi-sarrerarik. *Jaiste* aldiz, *jaitsi* aditzaren morfologia-aldaera ez ezik, izena ere bada eta horrexegatik agertu behar du hiztegi-sarrerara modura.

jaiste, *jaitsi* ad.-aren aditz izena. // *iz.* (1696). *Nola agitu zen Espiritu Santuaren jaiste hura?*

jaitsiera. *iz.* (1977). *Jaistea. Jaitsiera gogorragoa gertatu zen igoera baino.*

(5) -Tze atzizkia daramaten eraikuntzen arazoa hemen deskribatu dudana baino korapilatsuagoa da. Izan ere, badira izen-sintagmatzat hartzea eramaten gaituzten ezaugarriak aditz-sintagmatzat hartzea eramaten gaituzten ezaugarriekin batera dituzten segidak: *Zure egunero berandu heltze hori parkaezina da.* (Zabala eta Odriozola, 1996); *Aitaren ikustera joango gara.* (EGLU-II: 30or) *Jesusen zerutik jaistea. Belarraren moztara joan da* (Euskaltzaindia, 1993: 230-231).

Erdibidean dauden mota honetako eraikuntzak gaztelaniazko infinitiboaren kasuan eta ingelesaren gerundioaren kasuan ere aurkitzen dira: *Ese andarse por las ramas de Juan. Aquel continuo masticar chicle de los niños. John's smoking cigarettes surprised me.* Edonola, honelako eraikuntzen azterketaren gakoa izaten da buru modura jokatzeko duenaren kategoria finkatzea, ezin izan baitaiteke batera izena eta aditza. Zer esanik ez dago eraikuntza osoaren burua determinatzailea izateak eragina duela egitura hauen jokaera harrigarrian baina baita -tze atzizki bereziak ere (ikus Artiagaotia, 1994).

apurtze, *apurtu* ad.-aren aditz izena.

apurketa. iz. (*1905, 1977). Apurtzea.

Flexio-atzizkien eta eratorpen-atzizkien artean dagoen desberdintasun nabari bat, emankortasuna da hain zuzen ere, *-tze* flexio-atzizkia edozein aditzari lot dakioke eta hortaz, ez du zentzurik aditz guztien ondoan gaineratzeak, izen guztien ondoan mugatzaile edo datibo markadun aldaera gaineratzeak zentzurik ez duen bezala. Bestetik, espero daitekeena da *-tze* atzizki eratorleak erabateko emankortasuna ez izatea, *-keta*, *-pen* edo *-era* atzizki eratorleak erabateko emankortasuna ez duten bezala eta izan ere, ez dira horrenbeste iz. kategoria daramaten *-tze* atzizkidun hiztegi-sarrerak.

Euskaltzaindiak, 'aditz izen' terminoa bi gauzatarako erabiltzen du. Batetik, aditz-sarrera bati, flexio-atzizki desberdinak lotuz lortzen diren morfologia-aldaeretak bati izena emateko erabiltzen du. *Arauk* segidako *Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma* izeneko 85. arauan, esate baterako, 'aditz oina', 'partizipioa', 'etorkizunekoa' eta 'aditz izena' terminoak erabiltzen ditu Euskaltzaindiak, hurrenez hurren, *apur*, *apurtu*, *apurtuko* eta *apurtzen* bezalako morfologia-aldaerei erreferentzia egiteko. Termino hauek ez dituzte gramatika-kategoriak adierazten, 'aditza' izeneko gramatika-kategoriak hiztegi-sarrera orok dituen morfologia-aldaerak baizik eta beraz, gaztelaniaren gramatiketan erabiltzen diren 'participio', 'infinitivo' eta 'gerundio' terminoen parekoak dira.

Bestetik, *jaiste* eta *erortze* bezalakoek aditzen eta izenen arteko jokaera dutela adierazteko erabiltzen du Euskaltzaindiak ⁽⁶⁾ 'aditz izen' terminoa. Edozein modutan ere, 'aditz izen' terminoa beste zerbaiteko ere erabil liteke, aditzetik eratorritako izenak adierazteko alegia. Hau da, gaztelaniaz esate baterako 'nombre de verbal' izenaz adierazten den adigaiari erreferentzia egiteko erabil liteke. Komenigarria litzateke, orduan, 'aditz-izen' marradun idazkera, oso desberdina den beste erabileratik bereizteko. Esan gabe doa, *apurketa* eta *irabazi*, *jaiste* bezain 'aditz-izenak' liratekeela orduan, denak baitira (atzizki eratorle baten bidez) aditzetik eratorritako izenak:

(6) *Gramatika Laburrean* (1993: 231), EGLU-II gramatikan eskainiriko ikuspegia zuzendu du Euskaltzaindiak baina agian, gramatika honek ez du aurrekoek eduki duten oihartzuna eta hiztun gehienek aurreko ikuspegia bereganatu dute. Hona hemen *Gramatika Laburrean* esaten zai-guna:

"Aditz izenaz ari garelarik, jokatu gabeko perpaus baten aditzaz ari gara, aditz hori izen baten itxurarekin agertzen bazaigu ere. Ez ditugu hemen kontuan hartzen, hala ere, aditz izenaren itxura duten benetako izenak: (100) *Liburuaren hastean orri bat falta da*....

Hor, argi ikus daitekeenez, ez dira aditzak, izen garbiak baizik (*hasiera*, *sarrera* eta *fede* izenen balio bera baitute). Dena dela, aditz izenek ... duten izaera bikoitz honek arazo larriak sortzen ditu, ber denboran aditzen eta izenen ezaugarriak erakusten baitituzte horrelako formek...."

- (10) [jaitsi]_A + -tze → [jaiste]_I
 [apurtu]_A + -keta → [apurketa]_I
 [irabazi]_A + Ø → [irabazi]_I

Hiztegietan eskaintzen diren sarrerak korapilatuko lituzke honek eta errazena dirudi *jaiste* bezalako sarreretan 'izena' besterik ez zehazteak, aditz-izenak izenen barruko azpisail bat baino ez baitira eta izan ere, *hilgarri* edo *hauskor* bezalako sarreretan ere ez dugu aditz-adjektibo etiketa erabiltzen, nahiz eta adjektibo hauek ere aditzetik eratortzen diren. Edonola, hiztegietan ez du zentzurik 'aditz izen' zehaztapena daraman sarrerarik ipintzeak, aditz guztiek baitute -tze daraman morfologia-aldaera.

4. ADJEKTIBOAK, IZENONDOAK ETA IZENLAGUNAK

Euskaltzaindiak (EGLU-I: 241-248) izena laguntzen agertzen diren osagaiak 'adjektiboak' direla esaten digu eta horien artean bi azpimultzo bereizten ditu: 'izenondoak', izenaren eskuinaldean joan ohi direnak, eta 'izenlagunak', izenaren ezkerrean kokatzen direnak. Ondoko segidetan, esate baterako, *handi* eta *beldurgarri*, izenondoak dirateke, eta *lurrezko* eta *irakaslearen* aldiz, izenlagunak.

- (11) a) liburu *handia*
 b) gizon *beldurgarria*
 c) *lurrezko* ontzia
 d) *irakaslearen* liburua

Edonola, beste zerbait ere esaten digu Euskaltzaindiak, alegia, izenlagunak, izenaren ezkerrean agertzeaz gain -ko eta -ren atzizkiak daramatzatela. Izan ere, inori ez litzaioke bururatuko *lurrezko* edo *irakaslearen* bezalakoak hiztegi batean bilatzea, *handi* edo *beldurgarri* aldiz, hiztegi-sarrerak dira eta hiztegi guztietan aurkitzen ditugu. Honek agerian uzten diguna da -ko eta -ren atzizkiak ez direla -garri atzizkia bezalakoak: -garri, atzizki eratorlea da, eta -ko eta -ren aldiz, sintaxi-testuinguru jakin batean izenaren (edo postposizioaren) kategoriako hiztegi-sarrerei lotuta ageri zaizkigun atzizkiak dira, postposiziotzat hartu ohi direnak ⁽⁷⁾.

Hortaz, izenlagunak postposizio-sintagmatzat har daitezkeen sintaxi-islapen (konplexuak) dira eta Euskaltzaindiak 'izenondo' esaten dienak aldiz, oi-

(7) Bereziki korapilatsua da -(r)en atzizkia, DSek har dezaketen genitibo kasuaren agerpen morfologikoa eta beraz, absolutiboa, ergatiboa eta datiboa bezalako zerbait ote den ala benetako postposizioa ote den, hau da, inesiboa, elatiboa, e.a. bezalakoak ote den eztabaida baitaiteke. Esate baterako, lehenengo ikuspegiaren alde egin du Eguzkitzak (1993, 1997) eta bigarrenaren alde, Arriagoitiak (1990, 1992). Guk postposiziotzat hartuko ditugu bi atzizkiak, eztabaida errazteagatik. Beste ikuspegi bat aldarrikatu du Mitxelenak (1986), bai -ren eta bai -ko atzizki eratorletzat hartu baititu.

narrizko gramatika-kategoriak. Izenondoek eta izenlagunek duten ezaugarri komuna izena laguntzeko eginkizuna da baina ez gramatika-kategoria. Izena laguntzearen sintaxi-funtzio horretarako erabiltzen du Euskaltzaindiak ‘adjektibo’ terminoa, hain zuzen ere bestelako hizkuntzei buruz hitz egiten denean oinarritzko ‘gramatika-kategoria’ bat adierazteko erabiltzen dena.

Areago, haxe esaten digu Euskaltzaindiak (EGLU-I: 242):

“Baina adjetiboa izen sintagmaren barnean ez ezik, predikatu osagarri modura ere ager daiteke: (507) (a) *Liburu hori ederra da benetan*. ... Hortaz, esan dezakegu adjetiboa bi lekutan ager daitekeela perpausean: izen sintagma baten barnean izen bati lagunduz, nahiz predikatuaren barruan, osagarri predikatiboa osatuz.”

Paragrafo honetan gramatikaren egileek ‘adjektibo’ terminoa erabiltzen badute ere, ez dirudi izenlagunak eta izenondoak barruan dituen kategoriari buruz ari direnik, *handi*, *eder* eta *beldurgarri* bezalako sarrerei buruz ari dira. Hortaz, uler genezakeena da ‘adjektiboek’ bi funtzio bete ditzaketela: izenaren modifikatzaileak edo predikatuak izan daitezke. Izan ere, badira predikatu funtzioa baino ezin bete dezaketen adjektiboak, hala nola, *sendakizun*. Horiei ere izenondo esan beharko al genieke? Nola izan dezake hitzunak jokaera hauen guztien berri hiztegi batera jotzen duenean? Hona hemen hiru hiztegitan ⁽⁸⁾ *handi*, *beldurgarri* eta *sendakizun* sarrerei egotzi zaien kategoria:

(12)

Hiztegi-sarrera	EEG	3000H	SEH
handi	izond.	izond.	izond.
beldurgarri	izond.	izond.	izond.
sendakizun	izond.	izond.	pred.

Hortaz, hiztegitigile batzuek ‘izenondo’ terminoa hitzak bete ditzakeen funtzioak kontuan hartu gabe erabili dute eta Sarasolak aldiz, ‘izenaren modifikatzaile’ eta ‘predikatu’ modura joka dezaketen hitzetarako erabili du eta azken funtzio hori baizik ez dutenetarako, ‘predikatu’ etiketa erabili du.

Edonola, Euskaltzaindiaren sailkapenak badu beste arazo bat: izenaren modifikatzaileak sailkatzeko orduan izenarekiko kokapenean oinarritu denez, sailkatu gabe geratzen dira izenaren ezker zein eskuinaldean joan daitezkeen hiztegi-sarrerak. Izan ere, EGLU-I gramatikan ere (243, 244or.), ‘adjektibo’ terminoa erabili dute *-dun* eta *-tar* daramaten izenaren modifikatzaileez hitz egiteko. Ikus dezagun nola ulertu duten kontu hau hiztegitigileek:

(8) Eskemetan erabiliko ditugun laburtzapenen esangura ondoko hau da:

EEG: *Elhuyar Euskara-Gaztelania, Gaztelania-Euskara Hiztegia*.

3000H: *Hiru Mila Hiztegia: euskara-gaztelania, gaztelania-euskara*. Adorez.

SEH: *Sarasolaren Euskal Hiztegia*.

Bibliografian ikus daitekeenez, hirurak dira 1996. urtean argitaraturiko hiztegiak.

(13)


Hiztegi-sarrera	EEG	3000H	SEH
europar dirudun oinarrizko	adj. adj. izlg.	izlg. eta izond. izlg. eta izond. izlg.	izlg. izond. izlg. (az- pisarrera)

Bi kokaguneak aintzat hartu dituzten hiztegi-gileek bi modutara islatu dute aukera bikoitza: *3.000 Hiztegiaren* egileek 'izenlagunak' eta 'izenondoak' dira zehaztu dute eta Elhuyarrek aldiz, 'adjektibo' etiketa hautatu du, hots, Euskaltzaindiaren arabera izenondoak eta izenlagunak biltzen dituen gainkategoria. Sarasolak aldiz, aintzat hartu du tradizio handieneko erabilera: izenaren eskui-nean tradizio handiagoa dutenei (*dirudun* bezalakoei) izenondo kategoria egotzi die eta izenaren ezker aldean tradizio handiagoa dutenei (*europar* bezalakoei) izenlagun kategoria. *Oinarritzko* bezalakoei denek egotzi diete 'izenlagun' kategoria, *-ko* atzizkia daramatelako. Edonola, Sarasolak ez du hiztegi-sarreratzat hartu, *oinarri* izenaren sarreraren barruan sartu du.

Laburbilduz, Euskaltzaindiaren sailkapena nahasgarria gertatzen da, gramatika-kategoriak, funtzioak eta banaketa bereizten ez baititu eta hori hiztegi-gileek zenbait sarrerari kategoria egotzeko orduan erakusten duten adostasunik ezean ikus daiteke. Hona hemen zenbait hausnarketa adigai horiek bereizten lagunduko digutenak:

a) 'Lurrezko' eta 'irakaslearen' bezalakoak sintagma-eraikuntzak dira, gramatika-kategoria bat baino gehiago biltzen dituztenak. Horrexegatik ez dira azaltzen hiztegi-tan.

(14)



b) 'Oinarritzko' zalantzarik da. Hiztegi elebidunek hiztegi-sarreratzat hartu dute eta Sarasolak aldiz, *oinarri* izenaren azpisarrera modura sartu du.

Egia da gaztelaniaz adjektibo baten ordaina izateak eragin nabaria duela hiztegi elebidunetan hiztegi-sarreratzat hartzeko. Edonola, honen esangura ezin on-doriozta daiteke zuzenean osagaien esanguraren bilkuratik: “Besteren oinarri gertatzen dena; garrantzizkoena”. Hortaz, inoiz, (14) analisiaren antzeko egitura bazuen ere, gaur egun hiztegi-sarreratzat ere har genezake eta agian lexisalizazio horretatik datorkio izenaren ezker zein eskuinaldean erraz agertzeko ahalmena.

Hiztegi-sarreratzat hartzeak postposizio-sintagma ez dela eta beraz, Euskaltzaindiaren terminologian izenlaguna ere ez dela onartzea dakar. Hortaz, bi aukera ditugu: (i) *oinarrizko* sarrera aintzat hartzea eta *adj.* kategoria egoztekoa edo (ii) *oinarri* izen kategoriako sarreraren barruan *oinarrizko* postposizio-sintagma berezia aipatzea.

c) Ikusi ditugun gainerako osagaiak (*handi*, *beldurgarri*, *eginkizun*, *europar* eta *dirudun*) hiztegi-sarreratzat hartu behar ditugu argi eta garbi. Gehienak izenaren modifikatzaileak zein predikatuak izan daitezke baina *sendakizun* bezalakoek ‘predikatu’ funtzioa baizik ezin bete dezakete. Izena lagun deza- ketenen artean, *handi* eta *beldurgarri* bezalakoak eskuinaldean kokatu behar dira ezinbestean eta *europar* eta *dirudun* bezalakoak, eskuin zein ezkerraldean joan daitezke.

d) Bestetik, *handi*, *beldurgarri* eta *dirudun* izakiak nolakoak diren adierazten duten bitartean, *europar* bezalakoek izakiei erreferentzia egiten diete, kasu honetan Europa kontinenteari hain zuzen ere ⁽⁹⁾.

Hortaz, honelako proposamen bat argigarriagoa litzateke gramatika-kategoriari eta sintaxi-eginkizunei begira:

1. Sintaxian sortzen diren izenaren modifikatzaileak, *lurrezko* eta *irakaslearen* bezalakoak alegia, postposizio-sintagmak dira kategoriaren aldetik; edonola, ‘izenlagun’ terminoa ere erabil liteke horrek duen tradizioa kontuan hartuta. Hiztegiaren ez dira agertzen, sintaxi-egiturak baitira. *Oinarrizko*, *benetako*, *ohiko*... bezalakoak ere postposizio-sintagmatzat hartuz gero, ez dira hiztegi-sarrerak izango.

2. ‘Adjektibo’ terminoa hobe litzateke, beste hizkuntzetan bezala, hiztegiaren kategoria jakin batekin sortzen diren hitzak biltzeko erabiltzea ⁽¹⁰⁾. Edo-

(9) Adjektiboen motei buruz ikus Zabala (1997, 1999).

(10) Adjektibo esango diegun hauek guztiak sintaxi-erakuntzak diren izenlagunetatik bereizteko erabil daitezkeen hurrenkeraren frogari buruz ikus Zabala (1999). Adjektiboek beti egon behar dute izenetik hurbilago izenlagunek baino eta horrexegatik jokatzan dute desberdin esanguraren aldetik berdintsuak diren *bilbotar* eta *Bilboko* osagaiek. *Bilbotar* adjektiboa da, erreferentziatzakoa gainera, eta horrexegatik *dirudun* tasunezko adjektiboa baino hurbilago egon behar du izenetik. *Bilboko* aldiz, izenlaguna da eta urrunago egon behar du izenetik edozein adjektibok baino.

(i) bilbotar jende diruduna
jende bilbotar diruduna

nola, ez du inolako zentzurik sintaxi-eraikuntzak diren izenlagunak eta hiztegitik 'adjektibo' modura sortzen direnak biltzeko erabiltzea. Predikatu modura soilik joka dezaketen adjektiboak (*eginkizun* bezalakoak) zehazteko 'adjektibo predikatu' erabil liteke gainerakoek jokaera biak dituztela aintzat hartuta. 'Izenondo' etiketa eskuinean baizik ezin ager daitezkeenetarako erabil liteke; *handi* eta *beldurgarri* bezalakoei 'adjektibo izenondo' esan lekieke eta *dirudun* eta *europar* bezalakoei, 'adjektibo' inolako zehaztapenik gabe. *Oinarrizko* hiztegi-sarreratzat hartuz gero, 'adjektibo' kategoriakoa litzateke hau ere.

3. Banaketa semantikoari begira, 'erreferentziazko adjektiboak' (*euro-par*) eta 'tasunezko adjektiboak' edo 'adjektibo kalifikatzaileak' (*handi*, *beldurgarri*, *dirudun*, eta hiztegi-sarreratzat hartuz gero *oinarrizko* ere) bereiz gemitzake.

4. Izenaren modifikatzaile modura jokatzten duten adjektiboei, azkenik, 'adjektibo izenlagun' esan lekieke eta beraz, 'adjektibo izenlagun' eta 'postposizio-sintagma izenlagun' bereiz litezke. Etiketa hauek ez lirateke hiztegieta erabiliko: esan dugunez, izenlagun modura jokatzten duten postposizio-sintagmak sintaxi-egiturak dira, hiztegieta sekula ere azaltzen ez direnak eta izenlagun modura joka dezaketen adjektiboek predikatu modura ere joka dezakete eta beraz, hiztegieta 'adjektibo' modura etorriko dira zehazturik; gehienez ere, 'adjektibo izenondo' zehaztapena egin liteke eskuinean baizik ezin ager daitezkeenak bereizteko.

5. ADBERBIOAK, ADIZLAGUNAK ETA ADITZONDOAK

EGLU-I gramatika (453or.) aditza laguntzen duten osagaien sailkapena egiten zaigu. Eginkizun hori duten osagai guztiak 'adberbio' izeneko gainkategoria biltu ditu Euskaltzaindiak eta bi kategoria bereizi ditu: batetik, aditza laguntzeko deklinabide-marka bat behar duten osagaiei 'adizlagun' esaten die eta soil soilik inolako deklinabide-markarik gabe aditzari lagun diezaioketen osagaiei, 'aditzondo'.

dirudun bilbotar jendea

*bilbotar dirudun jendea

(ii) Bilboko dirudun jendea

Bilboko jende diruduna

*dirudun Bilboko jendea

Oinarrizko bezalakoek *-ko* daramaten gainerako izenlagunek baino hurbilago egon behar dute izenetik eta horrexegatik hartu ditu Zabalak (1999) adjektibotzat. Ikusi, bestetik, *oinarrizko* errazago joan daitekeela izenaren eskuinaldean *Bilboko* baino.

(iii) a) Bilboko oinarrizko azpiegitura

b) *Oinarrizko Bilboko azpiegitura


c) ??Oinarrizko azpiegitura Bilbokoa

d) Bilboko azpiegitura oinarrizkoa


Kasu honetan izenaren modifikatzaileen kasuan aipatu dugun arazo bera-
ren aurrean gaude: inolako markarik gabe aditza lagun dezaketen osagaiak, ka-
tegoria jakin bati dagozkio eta hiztegietan aurki ditzakegun hiztegi-sarrerak
dira, beste hizkuntzetan ‘adberbio’ izenaz ezagutzen direnak. ‘Adizlagun’ eti-
ketak aldiz, funtzio bat adierazten du eta ez gramatika-kategoria bat. Izan ere,
adizlagunak (sintaxian eratzen diren) ‘postposizio-sintagma’ dira. Areago,
Euskaltzaindiak bi adizlagun-mota bereizten ditu: batetik, “izen-sintagma de-
klinatuaren bidezkoak (*zurekin, etxera, herritik*)” eta bestetik, “postposizioaren
bidezkoak (*txostenari buruz, mendian barna, kaleetan zehar, argirik gabe*
etab.)”. Biak dira postposizio bidez eraturikoak, gertatzen dena da euskaraz
badirela atzizkiak diren postposizioak (deklinabide-atzizkiak) eta hitz beregai-
nak diren postposizioak, osagarri modura mota jakin bateko postposizio-sin-
tagma hautatzen dutenak ⁽¹¹⁾.

(15)

a)



b)



Hortaz, aditza laguntzen duten kategoriak biltzen dituen etiketa sintaxi-
eginkizun bati dagokio eta beraz, ‘adizlagun’ izan liteke. Eginkizun hori duten
osagaien artean bi kategoria daude: ‘postposizio-sintagma’ (konplexu)ak, hau
da buru modura postposizio bat duten eta sintaxian eratzen diren osagaiak eta
hiztegitik bertatik aditza laguntzearen eginkizun hori zehazturik daramaten hiz-
tegi-sarrerak, horiei ‘adberbio’ esan diezaiekegu inguruko hizkuntzetan bezala,

(11) Gai hau Odriozolak (1999) garatu du (eskuizkribua).

edo 'aditzondo' euskal hitza erabil dezakegu horiek adierazteko. Ikus dezagun nola islatu diren aditza laguntzen duten hiztegi-sarrerak hiru hiztegitan.

(16)	EEG	3.000 Hiztegia	SEH
atzo	adb.	adond.	adlg.
ondo	adb.	adond.	adlg.
zehar	postp.	iz., izond. (postposizio gisa)	adlg.
buruz	adb.	adlg.	adlg.
erruz	adb.	adond.	adlg.

Hasteko, inolako hiztegitan ez dituzte hartu hiztegi-sarreratzat *-tik* eta *-ra* bezalako atzizkiak. Honen arrazoia izan daiteke hitz beregainak ez izatea. Edo nola, gaztelaniaren akademiaren hiztegian ageri diren *a* eta *de* bezalakoak 'preposizioak' diren bezala, euskarazko atzizki hauek 'postposizioak' dira kategoriaz ⁽¹²⁾.

Bestetik, argi eta garbi aditza laguntzeko betebeharrak duten eta hitzak diren bost hiztegi-sarrera hautatu ditut, hiztegitan zein kategoria egotzi zaien ikusteko asmotan. Lau hiztegi-sarrera horiek aditza lagun badezakete ere, oso joaera desberdina dute sintaxian. *Atzo*, *ondo* eta *erruz* bezalakoek ez dute inolako laguntzarik behar aditza modifikatzeko (17a, b), baina *zehar* eta *buruz* direlakoek aldiz, postposizio-sintagma bat eratu behar dute eginkizun hori betetzeko (17c). Areago, postposizio beregaina laguntzen duen postposizio-sintagma horrek mota jakin batekoa izan behar du ezinbestean (17d).

- (17) a) [Atzo] Jonek [ondo] egin zuen bere lana.
 b) Dirua [erruz] irabazi dute.
 c) [Lanari buruz] mintzatu zaigu [parkean zehar] paseatzen genuen bitartean.
 d) [*Lanean/*aren buruz] mintzatu zaigu [*parkearen/*ri zehar] paseatzen genuen bitartean.

Bestetik, postposizio beregainak eskuinean onartzen duten postposizio bakarra *-ko* da (18a, b, c), zenbait adberbiok bestelako postposizioak onartzen dituzten bitartean (18d, e). *Ondo* bezalako moduzko adberbioek, gainera, graduazioa ere onartzen dute (18f):

- (18) a) *Mendian zehar**retik** dator.
 b) Araban zehar**reko** bidaia.
 c) liburuari buruz**ko** iritzia.
 d) Atzot**ik** ari da kontu honen inguruan hitz egiten.

(12) Ikus esate baterako Zabala (1993: 278, 279) eta Eguzkitza (1993, 1997).

e) atzoko bidaia.

f) Jonek [oso ondo] egin du bere lana.

Sarasolak bere hiztegiaren hitzaurrean bertan esaten du aditza laguntzen duten osagai guztiei ‘adizlagun’ “gramatika-kategoria” esleitu diela. Hona hemen *Euskal Hiztegiaren* sarrerako ‘Gramatika kategoriak’ izeneko atalean irakur daitekeena:

“...*Adizlagunak*. Hiztegi honen lehen prestaeran egiten zen *adizlagun/adberbio* bereizketa bazterrerara utzi dut, alferrekoa gertatu baitzait ezer argitzeko. Denak adizlagun (adlg.) gisa adierazi ditut...”

Edonola, hiru hiztegietakako bakoitzean, kategoria bat egotzi diete *atzo*, *ondo* eta *erruz* sarrerei, *adb.*, *adond.* eta *adlg.* kategoriak aurki baitaitezke. Lehenago esan bezala, ‘adizlagun’ etiketak funtzio bat adierazten du gramatika-kategoria bat baino areago. Hortaz, nazioartekoagoa den ‘adberbio’ edo euskaraz sorturiko ‘aditzondo’ terminoen artean hautatu beharko genuke. Edonola, ‘aditzondo’ hautatzeak euskaraz ‘adberbio’ baztertzea ekarri beharko luke ondorio modura ⁽¹³⁾.

Zehar eta *buruz* hiztegi-sarrerei begiratzen badiegu, askoz ere, nahaste handiagoa ikusten dugu, Elhuyar da ‘postposizio’ gramatika-kategoria aintzat hartu duen bakarra eta *zehar* hiztegi-sarrerari egotzi dio kategoria hori. Sarasolak, *-(e)n zehar* delakoaren ondoan *posp.* jartzen du baina ematen du segida osoari egotzi diola kategoria hori.

Bestetik, *3000 Hiztegiaren* egileek *zehar* hiztegi-sarrerari hainbat gramatika-kategoria egotz dakizkiokeela islatu dute hiztegian baina ‘postposizioa’ ez dute gramatika-kategoriatzat hartu oso garbi ez dagoen kategoria baten erabileratzat baizik. Hona hemen, nola gauzatu duten hiztegi-sarrera:

“**zehar**: 1 *iz.* costado; **zeharreko mina**: dolor de costado. 2 *iz.* ladera; **zehar hartatik dago tontorrerako bidea**: la senda para la cima va por esa ladera. 3 *izond.* llano, na; plano, na; **leku zeharra**: sitio plano 4 *izond.* horizontal; **hari zutak eta hari zeharrak**: hilos verticales e hilos horizontales. 5 (postposizio gisa **-n zehar**, **-tik zehar** formak erabiltzen dira) por, a través de; **kalean zehar**: a través de la calle.”

Hiztegi-sarrera honetan nahiko ondo deskribatu digute *zehar* horren erabilera. Edonola, “postposizio gisa” ageri den tokian (5 adieran hain zuzen) nahikoa litzateke *posp.* jartzea, *postposizioa*, *izena* eta *izenondoa* bezain gramatika-kategoria baita.

Buruz hiztegi-sarrera izan daiteke agian korapilatsuena, hiztegi-gileek itxuraz honen inguruan aurrekoetan baino adostasun handiagoa erakutsi badute ere: *adberbio* eta *adizlagun* kategoriak egotzi dizkiote. Edonola, kategoria hori ego-

(13) Kasu honetan, ez du zentzurik kokapenarekin zerikusia duen bereizketarik egiteak eta beraz, ez dago bi etiketa erabiltzerik.

tzi diotenean ez dira (17c) edo (19c) adibideetako erabileraz, (19a) adibideko erabileraz baizik.

- (19) a) Jonek [buruz] ikasi du ikasgaia.
- b) Jonek [ondo] ikasi du ikasgaia.
- c) Jon [lanari buruz] mintzatu zaigu.

(19a) adibidean *buruz* horrek duen erabilerak antz handiagoa du (19b) adibidean *ondo* duenarekiko, (19c) adibidean ageri den *-ri buruz* delakoarekiko baino. *Buruz* (19c) adibidean postposizioa da argi eta garbi: datiboa eskatzen dio bere osagarriari eta gainera, duen esangura ikasi egin behar dugu, hau da, esangura hori ez da *-ri + buru + -z* osagaien esangura elkartetik lortzen. Hor-taz, hiztegian *postp.* kategoriako hiztegi-sarrera bat beharko litzateke, osagarriari *-ri* eskatzen diola eta esangura berezia duela zehaztuko lukeena. Hiru hiztegi-tan jaso dute *-ri buruz* delakoaren erabilera baina kategoria zehaztu gabe.

(19a) delako erabilera bi modutara azter liteke. Pentsa genezake egitura horretan [[[buru]_{IS} Ø]_{DS} -z]_{PS} sintaxi-egitura dugula eta orduan bi aukera genituzke: bata, hiztegian ez jasotzea eta bestea, *buru* (iz.) sarreraren sartzea agertzen den testuinguruak eta hartzen duen esangura berezia zehaztuz. *Adlg.* etiketa esleitzeak ez luke zentzu handirik gramatika-kategoria ez baita.

Beste aukera bat litzateke *buruz* horrek lexikalizazio-prozesu berezia jasan duela eta horrekin batera kategoria ere aldatu zaiola ulertzea, hau da, hiztunek *buru + z* zatien analisisa egiten ez dutela eta *ondo* erabiltzen dutenean adberbio-kategoriako hiztegi-sarrera bat hautatzen ari diren bezala, *buruz* hautatzen dutenean ere 'adberbio' kategoriako hiztegi-sarrera bat hautatzen ari direla ulertzea. Orduan, ulergarria litzateke hiztegian *buruz* agertzea baina ez *eskuz* edo *autobusez*. Horixe da hain zuzen ere, *Elhuyar* hiztegian ikus daitekeena: *buruz* hiztegi-sarrera da eta *adb.* kategoria egotzi diote baina *eskuz* ez da hiztegi-sarrera, *esku* izen kategoriako sarreraren erabileren artean ageri da, izen horrek ematen duen sintaxi-egitura berezitzat hartuta. Edonola, lexikalizazio hori ez da horren garbia; izan ere, *eskuz* eta (19a) adibideko *buruz* berdin isla litezke hiztegi-tan, alegia, *esku* eta *buru* hiztegi-sarreraren erabilera berezi gisa.

Buruz hori *buru* izenaren erabilera berezi modura islatzeko egokitasuna ere nabariagoa da antzekoa den *erruz* sarrerarekin erkatzen badugu: kasu honetan *erruz* hitzaren esangura argi eta garbi ikasi behar dugu hiztunok eta ezin on-doriozta dezakegu *erru + -z* segidako osagaien esangura elkartetik. Beraz, *adb.* kategoriako hiztegi-sarrera baten aurrean gaude argi eta garbi.

6. MODUZKO ADBERBIOAK ETA ADJEKTIBOAK

Bada esparru bat, zeinean nahasirik agertzen baitzaizkigu moduzko adberbioak eta adjektiboak; izan ere, batzuetan zail samarra gertatzen zaigu erai-

kuntza jakin batean kategoria batek predikatu modura ala adizlagun modura jokatzeko duen ikustea ⁽¹⁴⁾. *Lodi* eta *urduri* bezalako hiztegi-sarrerak 'adjektiboak' dira eta kategoria honen bi erabilera nagusiak azaltzen dituzte, izenaren modifikatzaileak, zehazkiago izenondoak (20a), edo predikatuak izan baitaitezke (20b, c, e).

- (20) a) haur {*lodia/ urduria*}.
 b) Haur hau {*lodia/ urduria*} da.
 c) Haur hau {*lodi(a)/ urduri*} dago.
 d) *Haur hau *urduria* dago.
 e) Haur hau {*lodi/ urduri*} da.

Edonola, bi motatako predikatuak era ditzakete adjektibo hauek: izakien ezaugarri iraunkorrak adierazten dituzten 'izaki mailako predikatuak' (20b) edo behin-behineko ezaugarriak adierazten dituzten 'egoera mailako predikatuak' (20c, e) ⁽¹⁵⁾. 'Izaki mailako predikatuak' *izan* aditzarekin gauzatzen dira euskalki guztietan eta *-a(k)* mugatzailea azaltzen dute (20b). 'Egoera mailako predikatuak' aldiz, *egon* aditzarekin gauzatzen dira lotura-aditz hau duten euskalkietan eta gehienetan ez dute mugatzailerik agertzen (20c). Edonola, zenbait adjektibori dagokienez (*lodi* adjektiboaren kasuan esate baterako) eta zenbait euskalkitan mugatzailea aukeran badago ere, zenbait adjektiboren kasuan, ezinezkoa da mugatzailea 'egoera mailako predikatu' kasuan (20d). Azkenik, *izan* lotura-aditza baino ez duten euskalkietan 'egoera mailako predikatuak' bereizten dituen ezaugarri bakarra mugatzailerik eza da (20e).

Edonola, predikatuak aditzaren osagarriak ez ezik, adjuntuak ere izan daitezke. Orduan, zail samar gerta dakiguke beti ere adjuntuak diren aditzaren modifikatzaileetatik bereiztea. (21) adibide-sortan, esate baterako, bai *oso urduri* eta bai *oinez* adjuntuak dira; izan ere, arazorik gabe isil daitezke funtsezko esangura-aldaketa edo gramatikaltasun ezarik eragin gabe. Edonola, *oso lodia* haurrari buruz predikatzen da eta *oinez* modifikatzaileak aldiz, itzultzearen ekintzaren modua adierazten du. Bestetik, 'egoera mailako predikatuak' mugatzailerik gabe agertu ohi zaizkigu euskaraz. Hortaz, adberbioak eta adjektiboak bereizteko erabil litekeen ezaugarri bat, mugatzailea hartzeko aukera alegia, erabilezin bihurtzen zaigu kasu honetan ⁽¹⁶⁾.

- (21) a) Haurra (*oso urduri*) itzuli zen udalekuetatik.

(14) Gai honetaz ikus Zabala eta Odriozola (1994).

(15) Predikatuak buruz ikus Zabala (1993) eta Artiagoitia (1997).

(16) Gaztelaniaz, esate baterako, berebiziko garrantzia du komunizadurak adberbioak eta adjektiboak bereizteko (Hernanz eta Brucart, 1987: 227):

- (i) a) El niño duerme tranquilo.
 b) Las niñas duermen tranquilas. → adj.
 (ii) a) El disco suena horrible.
 b) *Los discos suenan horribles. → adb.
 (iii) a) Juan habló claro.
 b) *Las mujeres hablaron claras. → adb.

b) Haurra (*oinez*) itzuli zen udalekuetatik.

Predikatu adjunktua, hots, 'bigarren mailako predikatuak' hiru motatakoak izan daitezke: batetik, perpausaren subjektuari buruz predikatzen direnak ditugu (22a) eta bestetik, objektuari buruz predikatzen direnak (22b, c); bestalde, objektuari zuzendutakoen artean, 'predikatu deskribatzaileak' esaten zaie objektua aditzaren ekintza pairatzen duenean dagoen egoera adierazten dutenei (22b) eta 'ondoriozko predikatuak' deritze objektuak aditzaren ekintzaren eraginez erdiesten duen egoera adierazten dutenei (22c) ⁽¹⁷⁾.

- (22) a) Peruk_i kafea lasai_i hartu du.
 b) Peruk kafea_i hotz_i hartzen du.
 c) Peruk kafea_i gogor_i prestatzen du.

Arazoa korapilatu egiten zaigu, argi eta garbi 'adberbiotzat' hartzen ditugun zenbait hiztegi-sarrera ere predikatu modura erabil ditzakegulako ⁽¹⁸⁾:

- (23) a) Nire laguna *hala* da.
 b) Lagunak *ondo* daude.

Izan ere, (24) bezalako perpaus bat anbiguoia izan daiteke, *honela* adberbioak aditzaren ekintza modifika baitezake edo bestela, ekintzaren partehartzaileetako bati buruz predika baitaiteke ⁽¹⁹⁾.

- (24) Gorpua *honela* aurkitu zuten.
 (i) 'Gorpua hau eta hau eginez aurkitu zuten'. → aditzaren ekintza modifikatzen du.
 (ii) 'Gorpua honela kokaturik zegoen aurkitu zutenean'. → predikatua da.

Badira EGLU-I gramatikak 'aditzondotzat' hartzen dituen zenbait hiztegi-sarrera predikatu funtzioa baizik ezin bete dezaketena, alegia, *isilik*, *onik*, *bakarririk*, *zutik*, *pozik*, *biluzik*, *hutsik*. Horietako batzuek *-ik* bukaera dutenean 'egoera mailako predikatuak' baizik ez dituzte ematen baina badituzte muga-tzailea hartzen dutenean 'izaki mailako' predikatuak eratzen dituzten edota ize-na modifika dezaketen ordainak.

(17) Adibide hauetan ageri diren azpiindizeek predikatuaren eta dagokion argumentuaren arteko lotura adierazten dute. (22b) adibidean ulertzen duguna da kafea hotz dagoela Peruk hartzen duenean eta (22c) adibidean aldiz, Peruk hala prestatzearen ondorioz dagoela gogor kafea. Subjektuari zuzendutako predikatuak beti dira deskribatzaileen motakoak; hortaz, (22a) adibideak esan nahi duena da Peru lasai zegoela kafea hartzen zuen bitartean.

(18) Gaztelaniaz ere, badira predikatu modura joka dezaketen adberbioak. Ikus Bosque (1989):

- (i) a) Juan está estupendamente.
 b) *Juan está lentamente.

(19) Ikus daitekeenez, irakurketa biak izan litezke *Nola aurkitu dute gorpua?* galderaren erantzuna eta beraz, galdera horrek ez du balio moduzko adberbioak bestelako kategorietatik bereizteko. Aurrerago ikus daitekeen bezala, EGLU-I gramatikari galdera honen frogaraz erabiltzen dute *zintzo jokatu* bezalako segidetan duguna adberbioa dela agerian uztearren.

- (25) a) Jon orain {*isilik /isil*} dago baina ez da inola ere haur *isila*.
 b) Haurra oso *alaia* da, beti egoten da *pozik*.
 c) Haurra {*biluzik/ biluzil/ biluz*} dago.
 d) Ezpata *biluzia* eskuan hartuta. (SEH)
 e) Behartsu *biluz*, gose, hotzak igaro bat. (SEH)

Isila/isil; isilik hiztegi-sarrerak berak izaki mailako eta egoera mailako predikatuak gauzatzeko dituen moduak direla dirudi. *Pozik* hiztegi-sarrerak aldiz, egoera mailako predikatuak baizik eratzen ez dituela dirudi, pareko izaki mailako predikatua eratzekeo *alai* hiztegi-sarrera hautatu behar da ezinbestean ⁽²⁰⁾. Azkenik, *biluzik* sarrerak egoera mailako predikatuak baizik ez ditu eratzen eta ez dago 'izaki mailako predikatuak' eratzen dituen pareko hiztegi-sarrerarik; badaude, ordea, 'egoera mailako predikatuak' eratzeaz gain (25c) izena lagun dezaketen aldaerak (25d,c), *biluzi*, *biluz* alegia.

Hortaz, *isilik*, *pozik* eta *biluzik* bezalakoen gramatika-kategoria erabakitze-ko orduan, morfologian oinarritu gaitezke eta, mugatzailerik sekula ere hartzen ez dutenez, 'adberbio' kategoria egotz diezaiekegu edo predikatuak eratzen dituztela eta aditza inoiz ere modifikatzen ez dutela kontuan hartuta, 'adjektibotzat' har ditzakegu. Gehienez ere, *eginkizun* sarreran bezala, 'adjektibo predikatu' zehaztapena gainera diezaiekegu izena inoiz ere laguntzen ez duten adjektiboak direla agerian uzteko. Hona hemen aztertutako hiztegi-sarrei orain arte erabili ditugun hiru hiztegietan egotzi zaien kategoria.

(26)	EEG	3.000 Hiztegia	SEH
urduri	izond...adb.	izond.	izond... (adlg. gisa)
lodi	izond...adb.	izond...adond.	izond... (adlg. gisa)
isilik	adb.	adond.	adlg.
pozik	adb.	adond.	adlg.
biluzik	adb.	adlg.	adlg.

Hasteko, hiztegien arteko ezadostasun handia egon da hauei kategoria egotzeko orduan, hiztegi bakoitzak termino bat erabili baitu (adb., adond., adlg.). Termino horien artean ezegokiena deritzogu 'adizlagun' erabiltzeari: lehenago ikusi dugunez, funtzio bat adierazten du kategoria bat baino areago. 'Adberbio', nazioartekoa da eta 'aditzondo' euskararako asmatu-termino berezia da baina, kategoria bera adieraziko lukete biek. Edonola, 'izenondo' terminoari erabilera murrizten bazaio, bere zentzuaren zati bat galtzen du 'aditzondo' terminoak eta agian egokiagoa izan liteke 'adberbio' erabiltzea ⁽²¹⁾.

(20) Era berean, *haurra poz da* edo *haurra pozak dago* esan daiteke baina 'egoera-mailako predikatuak' dira hauek ere.

(21) Aditza modifikatzen duten hiztegi-sarrerak ez ezik, perpaus osoari dagozkionak edota adjektiboak eta beste adberbio batzuk kuantifikatzen dituztenak ere kategoria berean sartu nahi ba-

Bigarrenik, *lodi* eta *urduri* hiztegi-sarrerei *izond.* kategoria ez ezik, *adb.* edo *adlg.* kategoria ere egotzi diete. *Lodi* sarreran, *elurra lodi da, negar egin zuen lodi* eta *graziaren hazia lodi hedatzeko* bezalako erabileretan aditza modifikatzen duen kategoria dugula esan dezakegu eta beraz, egoki deritzogu *adb.* kategoria egotzeari. *Urduri* sarreran aldiz, *urduri jarri nau* eta *urduri hitz egi ten du* bezalako esaldietan duguna oraindik ere adjektibo predikatua dela azpimarratu behar dugu. Hortaz, *adb.* kategoriak ez du zentzurik.

Hirugarrenik, *pozik*, *isilik* eta *biluzik* bezalako hiztegi-sarrerek, ez dute inoiz aditza modifikatzen, predikatuak eratzen baitituzte beti. Predikatuarena ez da adverbioen ohiko funtzioa eta adverbioztat hartu gabe agian 'adjektibo (edo izen) predikatutzat' har litezke hauek lehenago esan dugun bezala. Aukera bat litzateke *poz*, *biluz*, *isil*, ... bezalako sarreretan *pozik*, *biluzik*, *isilik dago* bezalako predikatu-erabilerak gaineratzea eta aparteko sarrerarik ez egotea. Izan ere, *poz da/dago* parekagarria da *pozik da/dago* eta *pozak dago* eraikuntzekin eta besterik gabe predikatu hori gauzatzeko aukeran ditugun moduak baino ez lirateke izango. Era berean, *beldur da*, *berdurrik dago* eta *beldurak dago* erabilerak ere *beldur* hiztegi-sarreran sar litezke.

Edonola, badira EGLU-I gramatikaren arabera (465.or.), inolako marka berezirik gabe adjektibo zein adverbio modura joka dezaketen hiztegi-sarrerak.

"... Badira, ordea, bestelako adverbializatze bide batzuk ere. Zenbaitetan izenondoa inolako atzizkirik gabe, ez mugatzaile ez kasu marka, aditzondo gisa erabiltzen da bestelako adverbioen zereginetan. Testuinguru soilak agintzen du aldaketa hori, beste inolako markarik gabe:

- (282) (a) Argi mintzatu zaigu
adl:adb
(b) «Gogor ari da»
adl:adb
(Izeta, 75)
(c) «Zorrotz jokatu bearra zeukaten»
adl:adb
(Garmendia, 32)

Esaldi horietan «argi», «gogor» eta «zorrotz» nola galdekariari erantzuten diote eta «ondo», «ederki» edo beste moduzko adverbioek bete dezaketen lekua betetzen dute. Hona, nahi izanez gero, horrelako erabilera ager dezaketen izenondoen zerrenda laburra:

ALFER: alfer bizi
APAL: apal etorri

ditugu, egokiago dirudi horren gardena ez den 'adverbio' terminoak. Esate baterako, egokiago dirudi 'perpaus-adverbioez' hitz egiteak 'perpaus-aditzondoez' hitz egiteak baino. Zer esanik ez, adjektiboa modifikatzen duten adverbioez hitz egiteak egokiago dirudi adjektiboa modifikatzen duten aditzondoez hitz egiteak baino. Azkenik, badira predikatuak ere era ditzaketen eta beraz zenbaitetan aditza laguntzen ez duten adverbioak.

ARGI: argi esan
 ARIN: arin ibili
 BIKAIN: bikain jokatu
 EROSO: eroso ibili
 ERRAZ: erraz egin
 GARBI: garbi mintzatu
 JATOR: jator jokatu
 MAKUR: makur atera
 ZINTZO: zintzo ibili
 ZUZEN: zuzen jokatu
 e.a.: ...”

Sarasola are kategorikoagoa da *Euskal Hiztegiaren* sarreran:

“Bestalde, jakina da edozein adjektibo adizlagun bezala erabil daitekeela euskaraz. Ez legoke, hortaz, *izond.* laburduraren ondoan *adlg.* jarri beharrik. Hala ere, adizlagun gisako erabilera maiz edo nabarmen agertzen den kasuetan adiztera eman dut erabilera hori...”

Hasteko, moduzko adberbioek nola galdekariari erantzuten diote baina galdera horri erantzuten dioten guztiak ez dira moduzko adberbioak, ‘egoera-mailako predikatuak’ ere erantzuten diote galdera horri.

(27) Nola dago Mikel?

lodi, zahar, urduri, lasai, pozik, zutik, harrituta, ondo,...

Bestetik, mugatzailerik gabe erabiltzeak ez du esan nahi *adj.* kategoriako hiztegi-sarrera bati kategorია aldatu diogunik. Izan ere, ‘egoera mailako predikatuak’ ezaugarrietako bat da mugatzailerik gabe azaltzea: (28a) adibideetan Mikelen ezaugarri iraunkorrak adierazi ditugu eta horrexegatik daramate mugatzailea izen eta adjektibo kategorietako ‘izaki mailako predikatu’ horiek; gainerako adibideetan aldiz, ‘egoera mailako predikatuak’ ditugu eta horrexegatik gertatzen da ezinezkoa mugatzailea. Edonola, (28b, c, d) adibideetan ageri diren *irakasle*, *zuzendari* eta *artzain* adibide horietan ere ‘izentzat’ hartzen ditugun bezala, ez dago inolako arrazoirik (28e) adibideetan ageri den *lasai* adjektibotzat ez hartzeko, adjektiboen ohikoa den betebeharra baitu, predikatuarena alegia.

(28) a) Mikel {artzaina/irakaslea/zuzendaria/ lasaia} da.

b) Mikel irakasle dago unibertsitatean.

c) Mikel Ameriketara artzain joan zen.

d) Mikel zuzendari izendatu dute.

e) Mikel lasai {dago/ etorri da/ mintzatu da}.

Begira diezaiegun berriro hiztegiei, sarrera hauetako dieten kategorია ikusteko (ikus 29 eskema). Izenak diren hiztegi-sarreretan hiztegiek ez dute bestelako kategoriarik aipatu eta izan ere, (28) sortako predikatu-erabilera berezia ez dute kontuan hartu. Erabiltzaileei lagungarria gertatuko litzaieke, edonola, lanbideak edo karguak adierazten dituzten izen horiek *artzain joan* eta

irakasle egon bezalako predikatu-erabilera bereziak dituztela jakitea eta agian interesgarria litzateke hiztegieta horien adibideak eskaintzea. *Lasai* sarrerari aldiz, *adlg.* kategoria ere egotzi dio Sarasolak eta *Elhuyar* hiztegian *relajadamente* bezalako ordainak egotzi dizkiote; edonola, honek ez du esan nahi hiztegi honetan euskaraz *adb.* kategoria egotzen diotenik. Ikusi dugun bezala, ez dirudi *lasai* sarrerari ere *izond.* kategoriaz gain besteren bat egotzi behar zaionik.

(29)		EEG	3.000 Hiztegia	SEH
	lasai	izond.... ...relajadamente	izond.	izond...adlg.
	artzain	iz.	iz.	iz.
	irakasle	iz.	iz.	iz.
	zuzendari	iz.	iz.	iz.

Euskaltzaindiak eskainiriko zerrenda horretan badira batzuk argi eta garbi predikatu funtzioa betetzen dutenak; hortaz, ez dago arrazoirik 'aditzondo' edota 'adberbio' bihurtzen direla esateko: *alfer bizi*, *apal etorri*, *eroso ibili*, *makur atera*...

- (30) a) Peru alfer bizi izan da azken urte hauetan.
= Peru alfer egon da azken urte hauetan gure artean bizi izan den bitartean.
- b) Jon apal etorri da guregana.
= Jon apal zegoen guregana etorri denean.
- c) Ane eroso ibili da gure artean.
= Ane eroso zegoen gure artean ibili den bitartean.
- d) Peru makur atera da arazo horretatik.
= Peru makur zegoen arazo horretatik atera zenean.

Edonola, mota honetako eraikuntzak sor ditzaketen adjektiboak izakien behin-behineko ezaugarriak adieraz ditzaketenak baizik ez dira, hau da, 'egoera mailako predikatuak' sor ditzaketenak. Hortaz, Sarasolak esaten duenaren kontra, honelako testuinguruetan ezin aurki dezakegu edozein adjektibo; esate baterako, nekez aurkituko dugu 'izaki mailako predikatuak' baizik ezin eman ditzakeen *handi* bezalako adjektiborik.

- (31) a) Sagar hauek {handiak/merkeak/ berdeak} dira.
b) Sagarrak {*handi/ merke/ berde} daude.
c) Sagarrak {*handi/ merke/ berde} erosi ditugu.

'Ondoriozko predikatuak' bereziak dira alde honetik; izan ere, euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, esapideak eratzen dituzte eta harreman estua dago aditzaren eta izenki-predikatuaren artean. Ondoko adibideetan ditugun *la-*

bur, *zuri* eta *txiki-txiki* predikatuek zalantzarik gabe, *moztu* edo *margotu* ondoren hurrenez hurren *ilea*, *etxea* eta *tipula* nola geratzen diren adierazten dituzte eta beraz, oraindik ere adjektibotzat har ditzakegu:

- (32) a) *Ilea* {zikin/*labur/*kizkur} dago.
b) *Ilea* {zikin/labur/*kizkur} moztu diote.
- (33) a) *Etxea* {zikin/ apurtuta/*zuri} dago.
b) *Etxea* {zikin/ *apurtuta/zuri} margotu dute.
- (34) a) **Tipula* txiki dago.
b) *Tipula* txiki-txiki moztu behar da.

Badira antzeko esapideak eratzen dituzten zenbait 'adjektibo' eta zenbait aditz. Hasteko, *egon* aditza dugu zalantzarik gabe predikatuak eskatzen dituztenetakoa. (35a) adibidean *zer egin behar dugun* perpausari buruz predikatzen dira *garbi* eta *argi*, (35b) adibidean aldiz, subjektuari buruz predikatzen dira *zuzen* eta *oker*.

- (35) a) {Garbi/argi} dago zer egin behar dugun.
b) {Zuzen/oker} zaude.

Subjektuari buruzko predikatuak sartzen dizkigute era berean, *ibili* eta *jokatu* aditzek:

- (36) a) {Zintzo/azkar/argi} ibili dira.
b) {Zintzo/azkar/garbi/zuzen/oker/zorrotz/bikain/makur} jokatu dute.

Era berean, *bete*, *egin*, *mintzatu*, *hitz egin* aditzak ditugu, izenari zuzendutako predikatuak onar ditzaketanak:

- (37) a) Agindua {zintzo/zorrotz} bete dute.
b) Lana {zintzo/zorrotz} egin dute.
c) {Argi/garbi/ zintzo/zorrotz/bikain/zuzen/oker/makur/apal} {mintzatu zaigu/ hitz egin digu}.

Zailagoa da subjektuari edo objektuari zuzendutako predikatuak ikustea (38)ko esapideetan. Izan ere, *erraz* ez da bateragarria subjektuari zuzendutako predikatuak hartu ohi dituzten *egon* eta *ibili* aditzekin (38b) eta gainera, lana erraz egiteak ez du esan nahi lana erraza denik (38c). Hortaz, *erraz* aditzaren ekintzari dagokion modifikatzailea, hots, adberbioa dela dirudi. *Azkar* sarre-raren kasuan, posible da *azkar ibili* esapidea (38d) baina kasu honetan ere, lana azkar egiteak esan nahi duena da laster bukatzea eta ez ezinbestean azkar aritzea (38e). Ondorioz, bai *erraz* bai eta *azkar* sarreerek ere, *adj.* kategoria ez ezik, *adb.* kategoria ere azaldu beharko lukete hiztegieta (38a) bezalako adibideen berri emateko.

- (38) a) {Erraz/azkar} egin du lana.

- b) *Erraz {egon/ibili} da lana egiteko.
- c) Lana benetan zaila zen baina Mirenek oso erraz egin du.
- d) Azkar ibili da lana egiteko.
- e) Astiro aritu da baina lana azkar bukatu du.

Begira diezaiegun berriro ere hiztegiei azken zati honetan aipaturiko sarrerei egotzi dizkieten kategoriak aztertzeke (39 eskema) ⁽²²⁾. 3000 Hiztegia da nire hausnarketatik ateratako ondorioetatik hurbilen ibili dena: *erraz* eta *azkar* sarreretan ez ezik, *eroso* eta *bikain* sarreretan baino ez du *adond*. zehaztapena gaineratu. Bi hauetan *adond*. kendu beharko litzateke nire iritziz apalean. Bestetik, *zuzen* eta *oker* sarreretan, *zuzen egon* eta *oker egin* predikatu-erabilera bereziak zehaztu ditu, erabiltzaileei oso lagungarriak gerta dakizkiekeenak. *El-huyar Hiztegian azkar* sarrerari *adb.* kategoria gaineratu beharko litzaioke eta kendu beharko litzaike, *apal*, *eroso*, *makur*, *garbi*, *argi*, *oker*, *bikain* eta *zintzo* sarrerei. Azkenik, Sarasolaren hiztegian *erraz* eta *azkar* sarreretan *adlg.* → *adb.* aldaketa egin beharko litzateke nire hausnarketaren arabera. Gainerako sarre-retatik nire iritziz *adlg.* zehaztapena kendu beharko litzatekeelarik, egokiagoa litzateke, *oker* sarreran bezala, *oker egin*, *oker egon* eta *oker ibili* bezalako predikatu-erabilera berezien adibide argigarriak ematea.

(39)	EGE	3.000 Hiztegia	SEH
alfer	izond.	izond.	izond...adlg.
apal	izond...adb.	izond.	izond...adlg.
eroso	izond...adb.	izond...adond.	izond...adlg.
makur	izond...adb.	izond.	izond...adlg.
garbi	izond...adb.	izond.	izond...adlg.
argi	izond...adb.	izond.	izond...adlg.
zuzen	izond...	izond./	izond...adlg.
	correctamente	zuzen egon	
oker	izond...adb.	izond./	izond...oker egin;
		oker egin	oker egon; oker ibili
zorrotz	izond...	izond.	izond...adizlg.
	rigurosamente		gisa
bikain	izond...adlg.	izond...adond.	izond...adlg.
zintzo	izond...adb.	izond.	izond...adlg. gisa
erraz	izond...adb.	izond...adond.	izond...adlg.
azkar	izond...	izond...adond.	izond...adlg.
	rápídamente		

(22) Garbi dago (39) eskemako zenbait hitzek *iz.* kategoria ere badutela baina atal honetan, aztertzen ari garen mugarekin zerikusia duten kategoriak baizik ez ditugu sartu eskeman, azalpena ez korapilatzearren.

7. ONDORIOAK

Lan honetan, EGLU gramatiketan kategoriak eta azpikategoriak mugatzeko orduan erabiliriko irizpideek eta terminologiak hiztegien sarrerak antolatze-ko eta definitzeko orduan izan dituzten zenbait ondorio aztertu ditut eta hitzen sintaxi-jokaeraren berri argigarriagoa izan litekeen banaketa eta terminologia proposatzen ausartu naiz. Hona hemen ondorioarik aipagarrienak:

a) ‘Aditz izena’ ez da kategoria bat, aditz kategoriako hiztegi-sarrera guztiek duten morfologia-aldaera baizik. Aditz izen morfologia-aldaera hori, partizipioa eta aditz-erroa bezala, aditz kategoriako hiztegi-sarreretan ageri da zehazturik. Hortaz, hiztegian ez litzateke agertu beharko *apurtze* edo *irabazte* bezalako hiztegi-sarrerarik, izen erabilerarik ez baitute. *Jaiste* aldiz, *iz.* kategoriako hiztegi-sarrera da *jaitsiera* eta *apurketa* bezala. Azkenik, *irabazi* hitzak bi kategoria ditu eta beraz, hiztegian *ad.* eta *iz.* kategoriak zehaztu behar dira. Hona hemen nire proposamena.

(40)

apurtu	apur edo apurtu , apurtzen da/du <i>ad.</i>
apurketa	<i>iz.</i> : Harremanen apurketa.
jaitsi	jaits , jaisten da <i>ad.</i>
jaiste	<i>iz.</i> : Nola agitu zen Espiritu Santuaren jaiste hura?
jaitsiera	<i>iz.</i> : Jaitsiera gogorragoa gertatu zen igoera baino.
irabazi	irabaz , irabazten du <i>ad.</i> .. <i>iz.</i> : Irabazi handiak atera dituzte.

b) ‘Adizlagun’ eta ‘izenlagun’ terminoek ez dute gramatika-kategoriarik adierazten gramatika-funtzioak baizik. Izen horren bidez adieraz daitezkeenak, ‘postposizio-sintagma’ dira kategoriaz eta beraz, sintaxi-egitura konplexuak dira hiztegitan agertu behar ez dutenak.

c) Edonola, badira jatorriz postposizio-sintagma izanik ere, lexikalizatu diren segidak, hiztegitan *postp.* edo *adb.* kategoriarekin zehazturik joan beharko luketenak. Esate baterako, *buruz* hiztegi-sarrerak *postp.* kategoria eraman beharko luke *lanari buruz* bezalako segidetan dugunaren berri emateko eta *erruz* hiztegi-sarrerak *adb.* kategoria *dirua erruz irabazi dute* segidan duguna islatzeko. *Lana buruz ikasi* bezalakoetan *buruz* hori analizatzeko bi modu ditugula ikusi dugu: batetik, *buru* izenaren erabilera berezitat har genezake eta beraz, sarrera horren barruan sartuko genuke gehienez ere edo *buru+z* segidak nolabaiteko lexikalizazioa jasan duela uler genezake eta orduan, *adb.* katego-

riako *buruz* hiztegi-sarrera gaineratuko genuke. Lan honetan, lehen aukeraren alde egin dut, *erruz* sarrerarekin erkatu dudanean.

d) Euskaraz, atzizkiak diren *-n*, *-tik*, *-ra*, *-ko* eta abar bezalako postposizioez gain, baditugu beregainak diren postposizioak ere, *buruz* eta *zehar* bezalakoak alegia. Hiztegietan hiztegi-sarrerak izan beharko lukete eta bereziki laguntzen duen sintagmak ezinbestean hartu behar duen postposizio-atzizkiaren berri eman beharko lukete hiztegi horiek. Hau da, erabiltzaileak garbi eduki behar du *buruz* eta *zehar* postposizioak direla eta hurrenez hurren datiboa eta inesiboa edo elatiboa eskatzen dutela.

(41)

atzo	<i>adb.</i> : Atzo etorri ziren.
ondo	<i>adb.</i> : Lana oso ondo egin dute.
zehar	<i>postp.</i> (-an, -tik zehar) Parkean zehar dabil. <i>adj.</i> : Begi zehar bat zuen. <i>iz.</i> : Zeharreko mina du.
buruz	<i>postp.</i> (-ri buruz) Lanari buruz mintzatu dira.
buru	<i>iz.</i> ... Lana buruz ikasi.
erruz	<i>adb.</i> : Dirua erruz irabazi dute.

e) Agerian utzi dut 'izenondoak' eta 'izenlagunak' 'adjektibo' ginkategorian biltzeak eta 'adizlagunak' eta 'aditzondoak' 'adberbio' ginkategorian biltzeak ez duela zentzu handirik funtzioak eta kategoriak elkarrekin jartzen baititu sailkapen horrek eta bestetik, 'adjektibo' eta 'adberbio' nazioarteko terminoak beste hizkuntzetan ez bezala erabiltzen baititu. Sailkapen hau nahasgarria da eta froga modura aurkeztu dut urte berean argitaraturiko hiru hiztegi-tan hiztegi-sarrera bererako kategoria bana agertzea: *adj.*, *izond.*, *izlg.* / *adb.*, *adond.*, *adlg.*

f) Bereziki nahasgarria da *izlg.* eta *izond.* bereizteko EGLU gramatikak erabiltzen duen irizpidea, alegia, izenarekiko kokagunea. Izan ere, irizpide horrek zehaztu gabe uzten du *europar* eta *dirudun* bezalakoen kategoria. Hiztegi-sarrerak diren eta izena lagun dezaketan edota izenki-predikatuak era ditza- keten kategoria guztietarako *adj.* etiketa erabiltzea proposatu dut. Izenaren eskuinean baizik ezin joan daitezkeen hiztegi-sarretan (*handi*, *beldurgarri*...) *adj.* *izond.* (adjektibo izenondo) zehaztapena egin liteke eta predikatuak baizik ezin era ditza keten *sendakizun* bezalako hiztegi-sarretetan, jokaera berezi honen berri eman liteke, *adj. pred.* (adjektibo predikatu) zehaztapena eginez. *Europar*

bezalako adjektiboetan erreferentziazkoak direla ere gainera liteke ⁽²³⁾. Azkenik, *oinarrizko* bezalakoei bi modutara begira dakieke: hiztegi-sarreratzat hartuz gero, *adj.* kategoriakoak lirateke baina postposizio-sintagmatzat ere har litezke eta orduan, ez lirateke hiztegi-sarrerak, barruan daramaten hitzaren sarreraren barruan agertuko lirateke.

(42)	handi	<i>adj. (izondo.)</i>
	beldurgarri	<i>adj. (izond.)</i>
	sendakizun	<i>adj. (pred.)</i>
	europar	<i>adj. (erref.)</i>
	dirudun	<i>adj.</i>
	EDO (oinarrizko) EDO (oinarri)	<i>adj.</i> <i>iz...</i> oinarrizko : Oinarrizko baliabideak)

g) 'Adjektibo' termino nazioartekoa berreskuratzeko eta 'izenondo' terminoari esangura berezia emateko egin berri dudan proposamenak, zentzu handirik gabe uzten du 'adberbio'/'aditzondo' bikotea mantentzea. Horietako bat hautatu beharko litzatekeela aldarrikatu dut eta 'adberbio' nazioarteko terminoaren alde egin dut aditza laguntzen duten 'adberbioez' gain perpaus osoari dagozkion 'perpaus-adberbioak', adjektiboa edota beste adberbio batzuk laguntzen duten adberbioak eta 'adberbio predikatuak' ere badirelako.

h) Ezinbestekotzat ez izateagatik adjunktutzat hartzen ditugun eta numero-aldaketarik azaltzen ez duten osagaiak, ezinbestean 'adberbiotzat' hartu behar ez direla ikusi dugu. Adberbioek aditza laguntzeaz gain, predikatuak era ditzakete (*Miren hala da*). Adjektiboek aldiz, izena lagun dezakete edo predikatuak era ditzakete baina ezin lagun dezakete aditza. Gainera, badira predikatuak baizik ezin era ditzaketen adjektiboak ⁽²⁴⁾.

(23) Azpimarratu beharrekoa da parentesi artean jarri ditudan zehaztapenak ez direla maila berekoak. *Izond.* zehaztapenak hitz-hurrenkerarekin zerikusia du, *pred.* zehaztapenak, sintaxi-funtzioarekin eta *erref.* delakoak, adjektiboan artean semantikaren ikuspuntutik bereiz daitezkeen azpitaldeekin.

(24) Euskaraz adjektiboek ezin eman dezakete argumenturik baina beste hizkuntza batzuetan bai. Esate baterako, gaztelaniazko *visita presidencial* edo *explotación maderera* segidetan adierazten duguna da presidenteak bisita bat egin duela eta nonbait egurra ustiatzen dela. Hortaz, *presidencial* eta *maderera* erreferentziazko adjektiboak argumentutzat hartu ohi dira. Euskaraz, honelakoak *-ren* daraman postposizio-sintagma baten bidez edo izen elkartu baten bidez adierazten ditugu (*Lehendakariaren bisita*; *egur-ustiapena*). Ikus Zabala (1997, 1999).

(43)

	argumentuak	iz.-modif.	pred.	ad.- modif.	mug. gabe
iz.	+	—	+	—	artzain joan
adj.	—	+	+	—	lasai egon
adj. pred.	—	—	+	—	eginkizun izan
adb.	—	—	+	+	ondo/erraz egin

Hortaz, batzuetan adberbiotzat hartzen diren zenbait hiztegi-sarrerara, adjektiboen predikatu moduko erabilerari dagozkiola ikusi dugu esate baterako, *alfer bizi*, *apal etorri* edo *jator jokatu* horietan duguna adjektiboen predikatu moduko erabilera da eta ez adberbioak. Argi eta garbi aditza laguntzen duten osagaiak eratzen dituztenak aldiz, adberbiotzat hartu ditut; esate baterako, *erraz egin* segidan *erraz* adberbiotzat hartu dut. Edonola, inolako atzizkirik gabe adberbioak eman ahal izate hau salbuespena da araua baino gehiago, Ø atzizkiaren bidezko edozein eratorpenetatik espero daitekeen bezala ⁽²⁵⁾. (44) eskeman, zalantzarik izan daitezkeen zenbait hiztegi-sarreraren kategoria zehazteko proposamena ikus daiteke.

(44)

artzain	<i>iz.</i> ...Predikatu gisa: artzain joan.
zahar	<i>adj. (izond.):</i> gizon zaharra... Pred. gisa: zaharra da/ zahar da; zahar dago.
lasai	<i>adj. (izond.):</i> gizon lasaia... Pred. gisa: lasaia da/ lasai da; lasai dago.
eginkizun	<i>iz.:</i> eginkizuna bete ... <i>adj. (pred.):</i> eginkizun da/ ?? eginkizun dago.
sendakizun	<i>adj. (pred.):</i> gaixotasun hori sendakizun da.
isil	<i>adj. (izond.):</i> gizon isila... Pred. gisa: isila da/ ? isil da; isilik dago.
poz	<i>iz.:</i> hau poza! // Aditz-esapideak: poz hartu; poz eman... Pred. gisa: poz da; poz dago; pozik dago; pozak dago.

(25) Eratorpen-atzizkiek ez dute % 100eko emankortasuna eta are gutxiago Ø atzizkiak, normalean oso emankortasun txikia izan ohi duena. Harrigarria litzateke, hortaz, euskaraz edozein adjektibok Ø atzizkiaren bidez adberbio bat eman ahal izatea.

biluzi	<i>adj. (izond.):</i> gizon biluzi bat... Pred. gisa: biluzi dago; biluz dago; biluzik dago; ? biluzi/biluz/biluzik da.
argi	<i>iz.:</i> argi bizia... <i>adj. (izond.):</i> gizon argia... Pred. gisa: argia da/ argi dago/ argi ibili; argi jokatu.
zuzen	<i>adj. (izond.):</i> bide zuzena... Pred. gisa: zuzena da/ zuzen da; zuzen dago/ zuzen jokatu... <i>iz.:</i> bakea eta zuzena...
zorrotz	<i>adj. (izond.):</i> Aizkorra zorrotza... Pred. gisa: zorrotza da/ zorrotz jokatu, bete...
erraz	<i>adj. (izond.):</i> Ariketa erraza... Pred. gisa: erraza da; <i>adb.:</i> erraz egin du.
azkar	<i>adj. (izond.):</i> gizon azkarra... Pred. gisa: azkarra da; <i>adb.:</i> azkar bukatu du.
txarto	<i>adb.:</i> txarto hasi gara... (Pred. gisa: txarto dago).

BIBLIOGRAFIA

- ARTIAGOITIA, X. (1990): *A Unified Approach to Relativization in Basque*. Master's thesis University of Washington.
- ARTIAGOITIA, X. (1992): "Why Basque doesn't Relativize Everything". Joseba Lakarra eta Jon Ortiz de Urbina (ed.). *Syntactic Theory and Basque Linguistics*. ASJUren Gehigarriak: 11-35.
- ARTIAGOITIA, X. (1994): "Verbal Projections in Basque and Minimal Structure". *ASJU* 1994 (2).
- ARTIAGOITIA, X. (1997): "DP predicates in Basque". *Working Papers in Linguistics*. University of Washington. 5. lib. 1997: 161-198.
- ARTIAGOITIA, X. (1998): "Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan". *Uztaro* 27.
- BOSQUE, I. (1989): *Las categorías gramaticales*. Síntesis. Madrid.
- BOSTAK BAT (1996): *Hiru Mila Hiztegia*. Euskara-Gaztelania/Gaztelania-Euskara. Adorez. Bilbao, 1996.
- EGUZKITZA, A. (1993): "Adnominals in the Grammar of Basque". José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (ed.). *Generative Studies in Basque Linguistics*, John Benjamins. Amsterdam 163-188.

- EGUZKITZA, A. (1997): "Kasuak eta postposizioak: deklinabidea eta postposiziobi-dea". *Hizpide*, 40zbk.: 39-52.
- ELHUYAR (1996): *Euskara-Gaztelania/Gaztelania-Euskara Hiztegia*. Usurbil.
- EUSKALTZAINDIA (1985): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-I (EGLU-I)*. Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1987): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-II (EGLU-II)*. Bilbao.
- EUSKALTZAINDIA (1993): *Gramatika laburra*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1998): "Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma". *Arauak* (85. araua).
- HERNANZ, M.LI. eta BRUCART, J.M.* (1987): *La sintaxis. I. Principios teóricos. La oración simple*. Editorial Crítica. Barcelona.
- MITXELENA, K. (1986): "Eratorbidea eta deklinabidea". *Euskera* 1986 (2): 535-543.
- ODRIOZOLA, J.C. (1999): "Postposizioak EGLUn: egitura motak eta gramatika-kategoriak". *Euskera* (liburuki honetan).
- SARASOLA, I. (1996): *Euskal Hiztegia*. Kutxa Fundazioa. Donostia.
- ZABALA, I. (1993): *Predikazioaren teoriak Gramatika Sortzailean: euskararen kasua*. EHUKo doktoretza-tesia (argitaratu gabea).
- ZABALA, I. (1995): "Infinitivos, tiempo y ergatividad". *Quinto Coloquio de Gramática Generativa*, Coruña, abril 1995 (eskuizkribua).
- ZABALA, I. (1997): "Argumentu-harremana/ eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila". *Nazioarteko Terminologia Biltzarraren aktak*. UZEI-IVAP.
- ZABALA, I. (1999): "Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak". J.C. Odriozola (ed.). *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- ZABALA, I. eta ODRIOSOLA, J.C. (1994): "Adjektiboen eta adberbioen arteko muga zehatzik eza". *ASJU*, XXVIII-2. 1994: 525-541.
- ZABALA, I. eta ODRIOSOLA, J.C. (1996): "On the Relation between DP and TP. The Structure of Basque Infinitivals". *Catalan Working Papers in Linguistics*. 5/2, 1996: 231-281.

ONOMASTIKA JARDUNALDIAK

EUDEL-EUSKALTZAINDIA

**TOPONIMIA IKASTAROA:
HIRITOPONIMIAREN NORMALIZAZIOA**

Bilbo, 1999-VI-04

HERRIETAKO TOPONIMIA NORMALIZAZIOARI BURUZKO JARDUNALDIA

Bilbo, 1999-VI-04

*Angel Iturbe,
EUDEL-eko euskara arduraduna*

Egun on guztioi:

Dakizuenez, gaur bildu gaituen hitzaldia, Euskadiko Udalen Elkartek eta Euskaltzaindiak elkarrekin egindako kolaborazio-akordioaren emaitza da. Hitzarmen honek, Euskal Autonomia Erkidegoko herri, auzo eta kaleen izenen normalizazioa izango du helburu nagusi.

Lehen aipatutako hitzarmenaren helburua, datu-base bat eratzea zen, haren bidez gure herrien izenak, auzoenak, kaleenak... normalizatzeko, beti ere, euren jatorrizko izenen historiari eta tradizioari begira.

Lehendik Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak bide beretik gauzatutako beste batzuei gehitu beharreko ekimena dugu hau ere, eta lan hura eguneratu eta osatzea du helburu.

EUDELen ikuspegitik, hitzarmen hau, horren ondoriozko ikerketa-lana eta gaurko jardunaldi hau egitea bera, gure herriei eskaintzen diegun zerbitzua da.

Hizkuntza baten normalizazio bideak, euskarak egiten diharduenak bezala, lan eremu ugari ditu. Gaur aztertzen dugun hau, garrantzitsuenetakoa bat dela esan behar.

Hizkuntzak legearen aldetik eta gizarte mailan jasan izan duen diskriminazioak eragin du luzaroan bazterturik egotea, eta horren ondorioz, toponimia ere, kultur ondare garrantzitsua izan arren, erabat lausotuta egon den esparrua dugu.

EUDELen ustez, altxor hori berreskuratu eta eguneratzeko aukera paregabea dugu, gizarte moderno honen baitan euskarak merezi duen tokia izan dezan.

Gaurko Jardunaldi honek asko lagunduko digu herrietako, auzo eta kaleen lekuizenak finkatzen. Udal guztien eskura egongo da datu-base berritu hau.

Zalantzarik gabe, gure iraganarekin, gure herri eta hiriekiko memoria goxo eta kutunenarekin dugun zorra dugu hau, baina batez ere, etorkizunari begira dugun betebeharrak morala: gure ondorengoei historiaren eta tradizio zaharrenen erreferente garbiak utzi beharra.

Eskerrik asko!

JORNADA SOBRE TOPONIMIA Y NORMALIZACIÓN DE LAS DENOMINACIONES DE ENTIDADES LOCALES, BARRIOS Y CALLES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA

*Salón de Actos de EUEDEL.
4 de junio, 1999, Bilbao*

Angel Iturbe

Egun on guztioi:

El objeto de este *Convenio* —entre Euskaltzaindia y EUEDEL— era la creación de una base de datos que permitiera regularizar y normalizar los nombres de todos nuestros municipios, barrios y calles, atendiendo a la historia y tradición que dieron lugar a sus respectivas denominaciones.

Esta iniciativa viene a sumarse a anteriores acciones en el mismo sentido, llevadas a cabo por la Secretaría General de Política Lingüística del Gobierno Vasco, y pretende actualizar y completar ese trabajo.

Desde la perspectiva de EUEDEL, dicho *Convenio*, la labor de investigación subsiguiente, y la propia celebración de esta Jornada supone un servicio más a nuestros municipios.

El proceso de normalización de una lengua, como el que el euskera está experimentando, mantiene múltiples vertientes de trabajo. Y ésta es una de las más importantes.

La discriminación legal y social de una lengua, que hasta la llegada de la democracia no contaba con el reconocimiento de los poderes públicos, representó durante largo tiempo una oportunidad para el olvido, y facilitó que se difuminara, también desde el punto de vista toponímico, esa valiosa herencia cultural.

Desde el punto de vista de EUEDEL, es ésta una oportunidad para la recuperación de ese legado y para su actualización dentro de una sociedad moderna donde al fin la lengua vasca ve reconocido el lugar que se merece en el seno de su propia tierra.

Jornadas como la de hoy permiten proporcionar a nuestros Ayuntamientos un instrumento para la fijación definitiva de las denominaciones de sus mu-

nicipios, de sus barrios y de sus calles más tradicionales. La nueva base de datos se encontrará a disposición de las entidades locales.

Se trata, sin duda, de una deuda que tenemos con nuestro propio pasado, con la memoria, íntima y entrañable, de nuestros pueblos y ciudades, pero también, y quizás sobre todo, una obligación moral de cara al futuro: la necesidad de entregar a las futuras generaciones el referente claro de su historia y de sus más antiguas tradiciones.

Eskerrik asko.

I. TOPONIMIA IKASTAROA

Bilbo, EUDEL, 1999-VI-04

*Henrike Knörr,
euskaltzain oso eta
Euskaltzaindiko Onomastika batzordeburua*

Dakizuen bezala zientzia eta zatiketa hori ez dator gaizki bereizteko antroponimia eta toponimia. Oso eroso da bereizketa, baina horrek ez du beti ongi funtzionatzen, zeren eta, dakigun bezala, alde batetik dira pertsona izenak eta bestaldetik, leku izenak eta gero eguneroko bizitzak erakusten digu zenbat zalan-tza dauden. Eta gehiago agian gure hizkuntzan. Beraz, toponimia ez da noski matematika, eta euskarak bizi izan duen, eta oraindik ere zoritxarrez bizi duen, egoeran gauzak ez dira bat ere argi eta zalan-tza gabe. Gero, bestalde, aipatu nahi nuke nire hitz labur hauetan euskaldun askok badituztela konple-xuak, beraz, dakizuen bezala, askok uste dute munduan badirela hizkuntza se-rioak eta gero badirela hizkuntza ez hain serioak edo serio ez direnak eta, zer esanik ez, askorentzat euskara ez da oraindik serioa. Ba gure nahia da hain zuzen ere, euskarak izatea besteek duten duintasuna eta seriotasuna nahi ba-duzue eta ofizialtasunak ematen dio neurri handi baten seriotasuna. Euskal-tzaindian kezkatuak gaude eta zuek ere noski askok gutxienez kezka hori ba-duzue guk bezalaxe. Beraz, ikusten dugu bai, badaudela legeak, baina gero legeak ez dira behar bezala finkatzen. Erakundeen artean ez dagoela behar bes-teko loturarik eta horrek orok bultzatu gintuen zenbait urrats egitera eta EU-DELi esker egiten da lehenbiziko saio hau eta zinez espero dut denontzako emankorra gertatuko dela.

Gero, bestalde, eta hau ere esan behar dut, legeak ez dira nazionalistak edo ez nazionalistak edo espāñolistak, legeak gure gainetik daude eta hori zenbaitek beharko lukete ulertu. Orduan, Angel Iturbe jaunak esan duen bezala, gure as-moa, Euskaltzaindiarena, EUDELekin batera, datu base bat egitea, datu base hori egiten hasi gara honezkero, ahalik eta zerbitzu hobeak eskeintzeko Euskal Herriko udal guztiei eta Euskal Herriko udal esaten dudanean da, noski, Euskal Herria zentzu zabalean. Beraz, berriro ere EUDELi eskerrak eta orain, besterik gabe, hasiko naiz hizlariak aurkeztzen. Eskatu didatenez gero, erdaraz sarreratxo honen laburpena egingo dut.

* * *

Quiero dar la bienvenida a todos. Francamente la Comisión de Onomástica, que empezó a caminar en 1984, aunque las cuestiones de toponimia y onomástica están presentes desde la fundación de la Academia en 1918, ha hecho, como digo, su trabajo. Nosotros comprendemos nuestra Comisión como un seminario en el que vamos a aprender, recibimos cantidad de sugerencias, aprendemos y ofrecemos nuestros servicios y naturalmente este contacto con los ayuntamientos y con los poderes públicos es de lo más importante, máxime cuando, como he dicho antes, estamos francamente preocupados porque desde que el euskara es oficial, por lo menos en las cuatro provincias, sin embargo suceden algunas cosas que no nos gustan, por decirlo así de claro. Hay una cierta desconexión interinstitucional, hay también el caso omiso que se hace en el sector público, lo cual es gravísimo, y también en el sector privado, que también creo que es grave, con respecto a la legislación y esto también tiene que ver con la toponimia y la onomástica en general.

Por consiguiente es el momento de dar unos pasos en este sentido, es el momento de ofrecer con nuestros medios modestos y gracias al amparo de EUDEL, unos servicios "on line" que se dice en un plazo corto, para que en todos los puntos de Euskal Herria se tenga un acceso fácil a una base de datos que estamos construyendo. Yo espero que esto sea el inicio de una labor útil para todos. Dentro de unas semanas habrá una continuación de las jornadas de hoy en Etxarri-Aranaz y espero que nos veamos con alguna frecuencia. Y reitero, y esto no es falsa moneda, la actitud totalmente abierta de Euskaltzaindia, para recibir toda clase de sugerencias y críticas, también, en favor de nuestra lengua, esta lengua que contrariamente a lo que piensan algunos, no es una lengua no seria, sino que quiere ser una lengua seria con la misma dignidad de otras lenguas de nuestra Autonomía. Gracias a todos y que todo resulte bien y paso a presentar a los oradores sin más.

TOPONIMOEN OFIZIALITASUNAZ ETA ADMINISTRAZIO ARTEKO APLIKAZIO ARAZOEZ (I)

Bilbo, 1999-VI-04

*Jose Luis Lizundia,
idazkariorde-kudeatzaile
eta Onomastika batzordekidea*

- Toponimoen legeriaz.
- Aginte desberdinen eskumenez.
- Toponimia Batzordea.
- Euskararen Zerbitzu Teknikoak.
- Udal Legea eta bere garapena.

Euskal toponimoen ofizialtasunak ez ditu toki gehienetan izan dituen eta oraindik dituen aukerak baliatu. Lehendabizi, transizio garaian, Ekonomia Ministerioaren 1978ko urriaren 18ko Agindua (1. eranskina) izan zen. Horrekin baliatu ziren, lehen udal demokratiko zenbait “entidad de población” maila zeukaten herri eta auzo nagusien izenak euskaraz jartzeko. Egia esan, zoritxarrez, udal gutxi baliatu zen Euskal Herrian, askoz gehiago Katalunian, gaztelaniazko grafia edo eratik, euskaldun erara jartzeko.

Geroztik, Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Erabilerako Oinarrizko Legearen 10. artikulua baliatu dira lehendabizikoz gure historia garai-kidean, euskaraz ganoraz izena jartzeko. Gehienok jakingo duzue, baina komenigarria da, uste dut, azpimarratzea denontzat artikulua horrek zer dion: (2. eranskina).

Horrez gain, udalen eta kontzejuen izenak euskaraz jartzeko, Javier Caño Lehendakaritza Saileko aholkulariak eta biok adostutako 1982.eko abenduaren 12ko 271/1983 Dekretua, zeinetan Euskal Autonomia Erkidegoko udal izenak aldatzeko prozedura finkatu baitzen (3. eranskina). Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko udal gehienek, Gipuzkoan bat izan ezik, 4 Bizkaian, Araban gehiago, udal izen gehienak euskal toponomastikaren arauen arabera ofizialdu dira. Geroago, Bizkaiko Batzar Nagusiek lege eta dekretu hori garatu dute eta beraren bidez ofizialdu dira zenbait izen eta baita ere Araban kontzeju mordo bat. Esan behar da Araban eta Nafarroan udal azpiko kontzeju izeneko erakundeak bizirik dirautela; Gipuzkoan ez da bat ere gelditzen eta Bizkaian 3 bakarrik eta hirurak Urduñan. Une honetan Euskaltzaindiaren Onomastika ba-

tzordea, hilerok-hilerok ari da bere irizpen ofizialak ematen Arabako kontzeju izenak euskalduntzeko. Nafarroan legeria beste era batera dago, euskararen ofizialtasuna hiru era desberdinetan dagoen bezalaxe. Hala eta guztiz ere Nafarroako ekialdean ia udal izen guztiak euskaldundu dira eta baita kontzejuenak ere.

Zer gertatzen da herri izen ez direnekin? Alde batetik, errepideen eskumena (konpetentzia) Foru administrazioena, Diputazioena, dela jakin behar da. Horregatik bada, komenigarria da kontuan izatea Bizkaian bederen, Batzar Nagusiak onartuta, foru errepideen 1993/2 Foru Araua indarrean dagoela (4. eranskina). Ondorioz, Bizkaiko errepide guztiek euskal izena daukate ezbairik gabe. Jakingarria da, bestalde, Bizkaiko Diputazioaren Euskara Zerbitzu Atalak Euskaltzaindiarekin hitzarmen bat daukala eginda, alegia, aholkularitza bat zuzenki Diputazioari dagozkion izenetarako emateko.

Zer gertatzen da udalaren eskumenean dauden izenekin? Bistakoa da Euskararen Legearen 10. artikuluan arabera, hiribideak, kale eta auzoen izenen eskumena ez dela Euskal Jaurilaritzarena, ez Foru Diputazioena, gutxiago Madrilgo Gobernu Zentralarena, baizik eta udalena. Beraz, hemen udalek daukate kale eta auzategi baten izena jartzeko ahala. Besterik da, horretaz baliatzea izenak euskalduntzeko eta nolatan. Ez naiz sartuko lantaldearen euskal toponimia normalizatzeko irizpideetan, hori Mikel Gorrotxategiri eta Patxi Salaberriri dagokie. Dena dela, gero elkarriketetan aterako da, seguru asko, gai hau. Euskaltzaindiak luzaroan dihardu behin-behingo edo erabateko irizpenak ematen, kasuan kasuko eta orokorrak ere. Udalbatzak edo dagokien batzorde edo udal zerbitzuek, era desberdinetan jokatu dute arazo honetan. Batzuetan, zorionez, euskal sena izan dute, konturatu baitira hizkuntzaren arazo zientifiko eta tekniko bat dela, eta beraz, adituak esku utzi behar dela. Bestetik, euskal toponimia berriaren eta udal bakoitzaren ondare galduezina dela. Ondorioz, neurri zehatzak hartu eta garatu behar direla.

Hala eta guztiz ere, toponimoen ofizialtasunaz administrazio arteko irizpide eta arazo zenbait sortu dira. Gaia agortzeko asmorik gabe: udal askotan toponimo berberak errepikatzen dira, bereziki, hagiotoponimoak, alegia, santu izenenak, pertsonaia famatuak eta beste zenbait izen entzutetsu, hala nola, *Askatasunaren* gisakoak; pertsonaia historikoetan: *Jose Migel Barandiaran* eta abar. Orduan nola jokatu? Informazioa eskuratu beharko litzateke irizpide orokor eta antzerakoetan jokatzeke. Hagiotoponimoetan kontutuan izan beharko litzateke duela zenbait urte Euskaltzaindiaren hileroko batzar baten Jose Maria Jimeno Jurio euskaltzain ohorezko eta nafar historiagileak egindako txostena (5. eranskina). Beraz, hagiotoponimo batek, leku izena, toponimoa, galduarazi du Santu izenaren ondoren, eta ia-ia beti dago toponimoa. Komenigarria da horregatik toponimoa berreskuratzea, besteak beste, *San Roke*, *San Pedro* eta antzerakoak Euskal Herrian zientia bat tokitan daudelako eta, atzekoak, bigarren toponimoak, adierazten du nongoa den zehatz eta garbi.

Aginte desberdinen eskumenak administrazio arteko barne komunikaziorik eza agertzen du maizegi, alegia, foru administrazioak erabakitako errepide izen baten berri ez jakitea udal administrazioak, edo udal eta foru administrazioek jarritakoa nahiz eta Euskl Jaurlaritzak ez erabili. Beste horrenbeste Administrazio Zentralaren eskumen dauden toponimoen kasuetan, hala nola, portu, aireportu, RENFE eta antzerakoetan. Esan behar da, zorionez, bai RENFE eta bai FEVE Estatuaren enpresa publikoak saiatu direla beraien geltokiak euskal toponimoz zuzenki jartzen. Enpresa publikoak aipatukeran, gure kasuan ere, bai Eusko Trenbideak, Metroa eta beste ere hor ditugu eta horien arta ere izan beharko lukete beste mailetako administrazioek, hala nola, udal mailekoek.

Ikusi dugu nola Eusko Jaurlaritzaren EUSTATEk, Estatistikaren Erakundeak oraindik erabiltzen dituen auzo eta kaleategiak erdal erara. Ezagutzen ditut kasu ugari. Udal administrazioak euskaratuko dituela, ongi edo ez, besterik da, eta foru administrazioak behin baino gehiagotan errepidea beste era baten jarri duela, auzo batera doan foru errepide batetan.

Hau bideratzeko aspaldi Euskararen Aholku Batzordean geundela proposatu genuen Quebec-eko "Comision de Toponimie"ren antzera Toponimia Batzorde Ofizial bat sortzea, zeinek izango lukeen ez bakarrik eskumena, baizik eta Zuzendaritza Zerbitzu Tekniko bat erakunde desberdinen artean izenak ondo jartzeko. Gainera, aipatu ditudan administrazioez kanpo, badira beste erabiltzaile batzuk, hala nola, Hezkuntza Sailean dauden institutu, herri eskola edo ikastetxeak; liburugintza, zeinetan mapa eta testuetan herri izen eta auzo izenak oso era desberdinetan, batzuetan okerrean, ikusten baitira. Beraz, hori ere hausnartzekoa litzateke. Askok usteko du oraindik ezkor garena. Ez naiz ezkor, sekula santan ez baitugu izan hainbeste aukera euskal toponimoak ofizialtzeko. Besterik da administrazio arteko anabasa bat izatea edo aplikazioan arazoak egotea, edota, Euskararen Zerbitzu Teknikoak behar adinako itzala eta aitormena ez izatea. Oraindik udal askotan, gainontzeko zerbitzuak, hirigintzakoak eta beste batzuk adinako, bederen. Horiek urteetako legeria eta ibilbidea dute eta euskararen ofizialtasunak ez hainbeste. Badago beste arazo bat ere eta hau da: batzuek uste dute, agintariak errezenera jota, berehala, mendez-mendetan ofizialtasuna izan duen hizkuntza batek normalizatzea besterik gabe, eta euskal teknikariari edo aitortze gutxiko eta zerbitzu urriko itzultzaile bati eskatzea, berehala, euskal era jatorrean jartzeko eskatzea, eta honek ez duela besterik liburu bat kontsultatu edo Euskaltzaindira deitzea eta berehalako erantzuna eman ahal duela pentsatzea. Jendeak, agintariek aurrenik, jakin beharko lukete oraindik ikerketa asko egin beharra dagoela eta udalik udal *Onomasticon Vasconiae* gisako lanak gutxi direla. Esan behar dut horretan eredu izan direla kronologikoki hasita: Pasaia, Andoain, Eibar, Arrasate, Zumarraga-Urretxu eta laster Bergara eta Galdakao.

1996an Euskaltzaindiak Gasteizen antolatutako **I. Toponimia Jardunaldietan**, honako txostena aurkeztu nuen: "Euskal Komunitate Autonoman eta Nafarroan toponimoen ofizialtasun eta seinalizazioaz legeria eta beronen apli-

kazioa". Egia esan, zorionez, asko aurreratu da handik geroztik, hala nola, administrazioen arteko aplikazio arazo zenbaitek jarraitzen dute; besteak beste, sare bateratu bat, administrazio artekoa, alegia, beste zenbait zerbitzutan bezalaxe, bata bestearekin kateaturik dagoela ohartu behar gara. Beste zerbitzu publiko gehienek bezala harreman hestuekin lotuak daudela bata bestearekin eta euskasraren ofizialtasun eta normalizazioaren bideak elkarren jakinean egin behar direla. Hori da orain falta zaigun erronka nagusia. Gainera, aipatu diren erakundeez gain, EITB-k eta komunikabide publiko nahiz pribatuek ere badute zertan lagundu edo parte hartu. Hiritarrak ere, azken baten, erabiltzaileak dira eta horiek ere jakitun egon behar baitira. Irakaskuntza mundua ere hor dago, berez testu liburu eta besterekin, eta hedatzaile aparta da. Eginkizun honek, badu, oraindik, urteetarako lana, jende asko konturatzen ez bada ere. Administrazio maila desberdinei dagozkien ikerketarako baliabideak ematea, lehenik, eta, ondorioz, irizpenak eta izendegiak ematea dagokion batzorde edo lantalde akademikoari. "Do ut des" argi bat, beraz.

Badirudi Eusko Legebiltzarraren lehen legegintza honetan onar daitekeela, Euskadiko Udal Legea. Espero dut, eta horretaz zerbait idatzi dut, ez dadila gertatu Nafarroako "Ley Foral Municipal" delakoaz gertatu dena, alegia, bere bostehun eta ez dakit zenbat artikulutan, hitz bat ere ez agertzea udal mailako euskararen ofizialtasun edo normalkuntzaz. Lotsagarriago oraindik, kontutan badugu Nafarroako Foruak, indarrean dagoena bestalde, bere 48. artikuluan (6. eranskina) aipatzen duela etxearen izena zaintzea ugazabeei/jabeei dagokiela, kasu honetan jabeak/ugazabak gehienetan udalak izanik, badirudi hori ahantzi zaiela nafar legegileei. Ez dadila gauza bere gertatu hemengo mendebaldeko hiru herrialdetako Udal Legea egiten denean, euskararekiko kapitulurik ezaz gure auzo, kale izen eta gainontzeko toponimiaren arta ez izatea.

Uste dut, bestalde, gaurko Ikastaro honek izango duela jarraipenik, Nafarroan, baita geroago ere. Ikastaro hauen fruituetariko bat lehen aipatu dudan administrazio arteko sare eta kate bat sortzea, ez bakarrik teknikoek, zuok, elkarrekin harremanak izateko, baizik eta administrazioen arteko arazoak bide-ratzeko. Horretarako, agintari berriak haintzakotzat hartu beharko dute Euskara Zerbitzuei aitormen oparo bat emanez, ikerketa bultzatuz eta lege garapena zehatz alor guztietan eginaz. Ez bakarrik, Legebiltzarrean, baita Batzar Nagusietan eta, ondorioz, Udal Ordenantzetan ere. Ez horrenbeste deklarazio eta adierazpen hitz handikoetan, baizik eta zehaztapen teknikoetan.

EUDEL-EKIKO HITZARMENA DELA ETA EUSKALTZAIN- DIAREN TOPONIMIA LANTALDEAREN PLANGINTZA

Bilbo, 1999-VI-04

*Mikel Gorrotxategi,
euskaltzain urgazlea eta
Onomastika batzordeko idazkaria*

EUDELek eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu dute aurten hiru lan nagusi gauzatzeko:

— Autonomia Erkidego biztanle entitateen izenak finkatzea (udal, kontzeju eta auzo).

— Kale izendegietako arazo nagusiak aztertu eta irtenbideak proposatzea.

— Erkidegoko toponimia txikia normalizatzeko irizpideak finkatzea.

1986an HPSrekin batera argitaratutako izendegia (*Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herri Izenak*) eguneratu beharra ikusi zen, batetik izen berriak gehitu direlako, eta bestetik azken urteotan egindako ikerketa eta finkatutako irizpideen arabera orduko izen batzuk berraztertu behar direlako.

Kasu batzuetan orduan ez zegoen informazioa lortu dugu, esaterako *Gal-damezko La Aceña* auzoan, *n.t.e.e.c./e.d.e.b.e.* agertzen zen, geroago jakin baitugu izen zahara *Atxuriaga* dela.

Besteetan zaharkituriko informazioa geneukan eta geroago egindako ikerketek euskarazko izen egokia argitu digute: *Egilatz*, *Txintxetru* edo *Subilla*, proposaturiko *Egiraz*, *Intxetru* edo *Subilana* izenen ordez.

Azkenik zenbait kasutan badirudi egindako proposamen batzuk berraztertu beharko liratekeela, hara hor *Batxikabo*, *Artzentaless* edo *La Puebla de Labarka*.

Bigarren lana kale izenak normalizatzean antzeman daitezkeen arazo nagusiak, baina inongo udalerriko kaletegia aztertu gabe (horretarako tokian tokiko udalbatzarrekin egin behar da hitzarmena), zerrendatzea eta irtenbideak proposatzea izango da.

Azkenik, toponimia txikia finkatzeko erabili beharreko irizpideak finkatzeko proposamena gauzatuko du eta proposamen horiek Onomastika batzordeari aurkeztu onikusia eman diezaizkien.

Helburua, azken finean, erakunde guztietan irizpide beretsuak erabiltzea izango da, tokian tokiko berezitasunekin, noski. Horretarako irizpideak ez ezik, trebatzea ere nahitaezko ikusten du batzordeak eta hori da ikastaro honen helburua.

IZENAK NORMALIZATZEKO URRATSAK

Izenak normalizatzean segitu beharreko irizpide linguistikoak Patxi Salaberrik jorratuko ditu eta ez naiz horretaz arituko, finkatzeko proposamena egin aurretik egin beharreko lanaz baizik.

Euskal Herrian etxegintza dela eta etangabe ari dira kale eta auzune berriak eraikitzen, edota industrialde, kiroldegi edo horrelakoak, eta egoera honek izen batzuk toponimo txiki eta ezezagun izatetik handi eta ezagun izatera eramaten ditu. Horrela, *Bidezabal*, Getxoko kale izen berri eta ezezaguna zen Metrobilbaok bertan geltokia, eta bi urtez bidaia amaiera, jarri zuen arte. Era berean, pentsatzekoa da *Bagatza* izena, aipatu lurpeko horren bigarren lineako geltokia eta Barakaldoko auzoa, ezagun egingo dela laster. Donostian, *Garbera* edo *Illunbe* izenak aipatu ahal dira, oso denbora gutxian berebiziko garrantzia hartu dute eta.

Izendapen berrian antzineko leku izena gorde nai bada, eta badirudi hori dela zentzuzkoena, ikertu beharko da, zein den izen egokia eta bere idazkera jakiteko.

Lehenengo eta behin jakin behar dugu zein den (edo diren) gaur egun erabiltzen den izena. Horretarako fidagarrienak, nola ez, adineko pertsonak izaten dira, ahal dela auzokoak noski. Dermio hori mendian baldin bada artzainak egokiagoak izango dira nekazariak baino eta azken hauek baserrietxeetan bizi baina kanpoan lan egiten dutenak baino.

Zein den egungo izena eta ebakera dakigula leku hori historian zehar izendatzeko erabilitako izen edo izenak bilduko ditugu. Bizkaiko kasuan lehen-dabiziko urratsa XVIII. mendeko Bizkaiko Fogerazioak aztertzea da. Gipuzkoan XIX. mendeko *Nomenclator de la Provincia de Guipúzcoa*, nahiz eta bizkaieraz egiten den eskualdean arazoak eman, gipuzkera batuan burutu baitzuten, besteak beste, *barri* guztiak *berri* bihurtuz. Araben G. Lopez de Gureñuren *Toponimia Alavesa* liburu bikaina erabili beharko da. Bigarren ikerketa lekua Katastroa da, ahal dela mende hasierakoa eta azkenik lur eremu horietako jabetza eskriturak, inportanteenak, baina askotan irakurtzeko arazoak izaten dira. Zer esanik ez, ikerketa monografikorik egotekotan bere biziko laguntza izango dira.

Baina egungo izenek arazo bi izan ditzakete, batetik jatorrizko izenaren aldaera laburtu eta desitxuratuak izatea; *bisku*, *Iratzegibeaskoa* mendez mende, edo azken urteotako ordezkapenak, maiz Jose Luis Lizundiak aipatu duen be-

zala, santuen izenez ordezkatuak. Hor ditugu esaterako: *Santa Eufemi(a)*, *San Donato* edo *San Pedro*, mendiak jatorriz *Urregarai*, *Beriain* eta *Beratz*.

Ordezkapen hauek askotan mende honetan gauzatu dira, eta askotan gauzatzen ari dira eta euskaldunek jatorrizko izenari eusten dioten bitartean erdaldunen artean izen berria zabaltzen den bitartean. Adibide ezagunak dira Bizkaiko *Urgoiti* edo *Beteluri* izenak, azken urteotan *El Gallo* eta *Venta Alta* eta inoiz *Goiko Benta* izenez ezagutuzak, nahiz eta inguruko euskaldun askok izen zaharra erabili.

Egungo forma laburtuak erabiltzea ez da gomendagarria eta *Artia*, *Akar-teixa* eta *Iturtze* moduko idazkerak ez dira egokiak, osoagoak diren *Arteaga*, *Akartegieta* eta *Iturritza* baizik. Beraz, egungo izena eta historian zehar erabilitakoa erabili beharko ditugu euskarazko izen egokia hautatzeko. Zentzuzkoena, zer esanik ez, ikerketa hori burututakoan ebazpen proposamena eta zergatiak Euskaltzaindiko Onomastika batzordeara igortzea da, azken honek erabakia har dezan.

Adibide praktikoa emateko *Isusquíza* edo *Isúsquiza* aipatu ahal dugu. Bizkaian hiru lekutan agertzen da, Gordexolan, Plentzian eta Arratzun. Badirudi *itsuski*, landare bat, gehi -tza ugaritasun atzizkia dugula eta *Itsuskitzea* izan beharko dela. Gordexolan euskara galduta dagoenez, ezin jakin nola ebasten zuten, azentua salbu, egun *isúskiza* (/i;ú'sa/) baita. Plentziakoari dagokionez egun erabiltzen den izena *Abanico* dugu, bertan egindako txalet-hiria izendatzeko erabilia, euskaldun askok *Abanikue* bihurtua. Zorionez, banaka batzuek jatorrizko izena darabilte: *Isúkitze* (/i;úkice/). Honek argi adierazten du *Isuskitzea* dela ofizialdu beharreko aldakia eta ez udalak jarritako *Isuskiza*. Arratzuakoa berriz, egun *Itxuskitzea* (/i'čú'ca/) esaten dute, jatorrizko *Itsuskitzaren* aldakia. Gordexolakoa Plentziakoaren arabera normalizatu beharko dugu, hurbilago baitago azpieuskalki horretatik.

KALE IZENAK NORMALIZATZEKO ARAZO NAGUSIAK

Egoera desberdinak badaude ere, kale izenen izendapenak direla eta zein izan behar den prozedura egokiena azaltzen saiatuko naiz. Zenbait kasutan, egokia izan liteke udal prozedura bakar bat finkatzea, aurrerantzean egingo diren izendapenak arautzeko. Tamalez, badakit zenbait lekutan euskara zerbitzua aintzat hartzen bada, askotan etxegintza saileko tenkokrata ez jakin baten eskuetan dagoela auzia.

IRIZPIDEAK

Lehentasuna eman beharko zaie tokian tokiko leku izenei, batetik Euskal herriko ondare kulturala direlako eta bestetik izen neutroak diren aldetik ez dutelako zeharkako arazorik sortzen.

Leku izenak, Euskararen legean agertzen denari jarraiki jatorrizko hizkuntzaren idazkeran emango dira, izen bikoitzak tradizio bikoitza dagoen kasuetara utziz, *Areeta/Las Arenas* esaterako, baina ez *Retuerto* edo *Bagatza* izenen kasuetan.

Bitasuna saihesteko aurreko irizpide hori, ahal dela, izendapen guztietara zabaldu behar dugu, batetik erabilterrezagoak direlako, eta gure eginkizunetako bat jendeari erreztasunak ematea izan behar baita, eta bestetik izen bikoitzak emateak bere biziko arazoak eman ditzakeelako. Batzuetan egoera diglosikoa dela medio izen bat baztertuko da, euskarazkoa ea beti, arazoak emanez, batzuek euskarazkoa erabiliko baitute eta beste batzuek gaztelaniazkoa. Adibide bat ematearren Getxoko Elexalde inguruko kale berriena da, non txori izenak hizkuntza bietan eman dituzten; *Calle del Tordo/Zozo kalea*. Inoiz izenaren zati bat amankomuneko baldin bada eta generikoa itzultzen denean, erdipurdikako izen bitxiak sortzen dira: *Avenida Algortako*, *La calle del Bertsolari*, etab.

1. KALEAK, PLAZAK ETA PARKEAK

Toponimia finkatzeko arau nagusiak Eusko Legebiltzarreko 1982.eko azaroaren 24ko legeak arautzen ditu. Lege horren arabera Euskaltzaindia da toponimia finkatzean erakunde aholkulari bakarra Autonomi Erkidegoan eta izenak jatorrizko hizkuntzaren idazkeran eman behar dira. Hori da izendegi hau gauzatzean erabili den irizpide nagusia.

Aurrekoari lotua eta kaleizendegien erabilera ikusirik, erabiltzaileari erreztasunak ematea ere badenez gero, izenak finkatzean erabilgarritasuna bilatzen saiatu gara. Hori dela eta, izenak bortxatu gabe, hizkuntza bietan ahalik eta hurbilenekoak aukeratzen ahalegindu gara. Arrazoi beragatik inoiz azaltzen diren izen luzeak eta erabilgaitzak, bereziki generikoa baduten izenekin, erraztera jo dugu. Generikoa dutenek arazo bi sortzen dituzte: batetik izenak bikoizten dira, generikoak desberdinak izateaz gain joskeraren dela-eta lekune bana hartzen dutelako (*Calle del Doctor Begiristain/Begiristain Doktoarearen kalea*); bestetik generiko horiek gehienetan eguneroko jardueran desagertu egiten dira, jendeak izen berezia baino ez baitu erabiltzen. Hori dela-eta, nahiz eta proposamenean azaldu, izen ofiziala aldatzea erakunde honi ez, baizik udal agintariei baitagokio, izen generikoa kentzea proposatzen da, hortaz *Begiristain kalea/Calle (de) Begiristain*.

1.1. Izen bereziekin

Egitura orokorra honako hau da: [*Izen berezia + kalea*]. Adibidez: *Aizkorri kalea*, *Ibaeta plaza*, *Julio Urkixo kalea*, *Toribio Altzaga kalea*, *Txurruka*

kalea, etab. eta ez **Aizkorriren kalea*, **Ibaetako kalea* edo **Julio Urkixoren kalea*, etab. Beraz ez da gaztelaniaz agertzen den *de* preposizioa itzuliko: *Calle de Cervantes/Cervantes kalea*.

1.2. Izen aurruntekin

1.2.1. Izen elkartu gisa

Kale edo plaza izenaren lehen osagaia izen arrunt bat izan daiteke. Gaztelaniazko deituran, batzuetan singularra eta plurala bereizten badira ere, euskaraz, oso ongi dokumentaturiko usadio jator baten arabera, izen elkartu gisa ematearen aldeko gara, hots, inolako artikulua ez kasu markarik gabe: *Konstituzio plaza*, *Foru pasealekua*, *Soldadu plaza*, *Merkatari plaza*, *Portu kalea*, etab. Eta ez **Konstituzioaren plaza*, **Foruen pasealekua*, **Merkatarien plaza* edo **Portuko kalea*.

1.2.2. Genitibo markarekin

Hala ere, zenbaitetan, ez zaigu iruditu bidezko artikulua ezabatzea. Izan ere, batzuetan, sintaxiak hala eskaturik, genitiboaren hondarkia nahitaezko gertatzen da: *Etxebarritarren plaza/Plaza de los Etxebarri*, *Euskal Kortsarioen kalea/Calle de los Corsarios vascos*, esaterako.

Genitiboaren hondarkia ezin ezaba daiteke, bestalde, deizioaren mugatutasunak artikulua azaltzea eskatzen duenean. Hori gertatzen da, adibidez, izen bereziaren ondoan izen generikoa azaltzen denean, bereziki pertsona izenaren ondoren lanbidea edo gainerako izen edo adjektibo deskribatzaileraren bat dugunean. Adibidez: *Arbos Musikariaren pasealekua*, *Jose Elosegi Alkatearen kalea*, *Marañon Doktorearen kalea*, *Jauregi Jeneralaren plaza*, e.a.

Hala ere, erabilerak generikoa desagertarazi duenean hobe da izen berezia soilik ematea: *Jose Elosegi kalea*, *Marañon kalea*, etab. Ez da horrelakorik proposatzen generikoa kentzea nahasgarria izan daitekeenean, izen berezia errepikatzen den kasuetan esaterako.

Genitibo marka ezin ezabatua gertatzen da, orobat, artikulua nahitaezkoa dugunean: *Abuztuaren Hogeita Hamaikako kalea* (1), *Alfontso VIII.aren kalea*, *Ternuako Arrantzaleen kalea*.

(1) *Abuztuaren Hamaika kalea* ere egokia bada ere, gaur egun usadio zabalduena denbora marka erebiltzea denez horrela proposatzen da.

1.2.3. *Leku-genitiboarekin*

Batzuetan —kasu gutxitan, egia esan— deizioak leku bati erreferentzia egiten dionez gero, *-en* genitiboaren ordez, *-ko* leku-genitiboa izango dugu *Ategorrietako galtzada zaharra*, *Urdinzubiko kalea*, *Amaragañeko kalea*, *Narros Etxeko kalea*, etab. Nongo kasua erabiliko da bestalde zubi edo tunel izendatzean, hori baita erabilera jatorra.

1.3. **Kale izena toponimo zahar bat denean**

Horrelakoetan izena bere horretan errespetatzen da, forma ihartutzat emanez. Horrek esan nahi du batzuetan artikuluaekin agertuko dela eta beste batzuetan artikulurik gabe. Nolanahi ere, kasu batean eta bestean hitza oso-osorik gordeko da, izen berezia balitz bezala. Horrela, *ABandoibarra* edo *Aranbizkarra*, alde batetik, eta *Illunbe* bestetik. Hala ere, artikulua agertzen bada deklinatzean Bizkaia moduan egingo da: *Abandoibarra*, *Abandoibarreko*, *Abandoibarretik*, e.a.

1.4. **Bide osagaia duten kaleak**

Hauetan, bide osagaiak aski informazio ematen duenez, kale hitza ez idaztea gomendatzen da. Batzuetan artikuluaekin emango da: *Amezketabidea*, *Agitibidea*, etab., eta beste batzuetan artikulurik gabe: *Aldapabide*, adibidez. Horren arazoa berezko erabilera da, bide-dun toponimoak horrela ibiltzen direlako. Oro har, toponimoa berria denean artikuluaekin emango da.

Bide osagaia aurreko hitzari itsatsia idatzi behar da, *Altxuenebidea*, *Errotazarbidea*, *Murgilbidea*, salbu ezkerreko elemento hori bi hitzez edo gehiagoz osatua egon edo gaztelaniazkoa denean. Adibidez: *Elbira Zipitria Andereñoaren bidea* edo *Aingeru Zaindarien bidea*.

2. **PERTSONA IZEN-DEITUREN GRAFIA**

Dudarik ez dago arlo hau dela korapilatsuen eta zailena ebazteko. Bidezkoena hizkuntza bakoitzari berea ematea denez deiturak jatorrizko hizkuntzaren idazkeran emango dira. Hala ere Espainia edo eta Ameriketako euskal deitura dutenak ugariak izanik gogorra litzateke haiei ere aldatzea, *Bolivar askatzailea*, esaterako, eta horrelakoetan bere horretan uztea proposatzen da. Gauza bera gertatzen da garaikideak izan eta deitura euskalduntzeko aukera edukirik ere

euskaldundu ez dutenekin (*Gabriel Celaya* edo *Pio Baroja* modukoak). Ponte izenen kasuan berriz jabeek erabili zuten moduan jartzea erabaki zen, izen bikoitza, hala erabili zutenentzat gordez.

Euskal Herriko zenbait pertsonaia historikoren kasuan bidezkoa da euskaraz ematea, *Bernat Etxepare*, konparaziorako. Ez da gomendatzen mende honen hasierako idazkera. Beraz, *Uriarte'tar Joseba Andoni*-ren ordainez, *Jose Antonio Uriarte* emanen da.

2.1. Erdal izenak

Oro har, erdal izen-deiturak, dauden-daudenean utziko dira: *Calle Arturo Campion/Arturo Campion kalea*.

Dena dela, azentuari dagozkion seinu diakritikoak, hots tilde ikurrak ezabatzea proposatzen dugu.

2.2. Euskal izen-deiturak

Gorago esan bezala euskal deiturak euskal ortografiarekin eman dira, soil soilik. Ponte izenak, berriz, bere horretan utzi dira, idazkera bikoitza pertsonaia historikoa izan edo hala erabili zutenentzat utziz. Beraz: *Calle Isidro Antso-rena/Isidro Antsoarena kalea*, *Calle Javier Barkaiztegi/Javier Barkaiztegi kalea*, baina *Calle Bernat Etxepare/Bernat Etxepare kalea*, *Calle Juana de Albret/Joana Albret kalea*, etab.

3. EUSKAL LEKU IZENEN IDAZKERA ETA ERDARAZKO KALE IZENEN ITZULPENEA

Euskal toponimo batez osatutako izenak, euskal grafiara egokitu dira, izen bakarra emanez: *Zarautz*, *Zuhatzu*, *Munaitz*, etab. Hala ere, hizkuntza bietan tradizioa desberdinak daudenean izen bikoitza proposatzen da: *Donostia/San Sebastián* esaterako.

Erdal izen arruntak (*Ferrerias*, *Los Pinos*, *Astilleros*, etab.) ihartu gabe daudenean, euskarara itzuliko dira: *Oletak*, *Pinueta*, *Ontzitegiak*, etab.

Badira, ordea, beste deitura berriagoak, erakunderen bati dagozkionak, *Jabonera de Deusto* esaterako, hauek izen berezizat har daitezke eta, horrenbestez, tradiziorik ez den bitartean, ez dugu ukitu beharrik ikusi.

4. SANTU IZENA DUTEN KALEAK

Gure tradizioan, bai literaturan, bai onomastikan eta bereziki hagiotoponimian horrela agertzen diren santu izen zaharrek, aposizio honetaz horniturik azaltzen direnekin (2), *Done*, *Dona* erabiltzea gomendatzen da, *San*, *Santa* adjektiboak gainontzekoentzat utziz. Hortaz, *Done Bladi kalea*, *Done Bikendi kalea*, *Done Joan kalea*, baino *San Frantzisko kalea*. Kristoren ama izendatzeko *Andre/a Maria* hobesten da.

5. KALE EDO PLAZA HITZA AIPATU GABE ARITU BEHAR DE-NEAN NOLA JOKA?

Errotulaziotik aparte, “kale” hitza eman gabe hitzegin nahi denean, toponimoak, izen sintagma normalizat deklinatu beharko lirateke: baldin artikulua badute, artikularekin (*Harrian*, *Harriko*, *Harritik*, etab.) eta ez badute, gabe, izen propio gisa: *Gaztelubiden*, *Gaztelubidetik*, etab.

Pertsona izena duten kaleetan ere, izen hori osorik hartuko da: *Antonio Gaztañetan*, *Nemesio Otañotik*, etab.

Baina izen elkartu modura eratutako izenetan (*Konstituzio plaza*, *Foru pasealekua*, *Bake plaza*, etab.) arazoa sortzen da. Izan ere, kasu batzuetan pluralean eman beharko litzateke: *Foruetan*, beste batzuetan berriz singularrean *Konstituzioan*. Beste zenbaitetan, azkenik zentzugabekeria litzateke generikoa kentzea: *Bakean*, *Geltokian* edo *Eskolan* esaterako. Hortaz, izen elkartu disa emandako kale izenetan ezin da generikoa (*kale*, *plaza*, etab.) kendu: *Posta kalea*, *Foru plaza*, *Iturri kalea*, etab.

Bestalde, eta hau inportantea da, sarritan helbideak jartzerakoan, ez da “kale” hitza agertzen. Orduan, absolutiboan emango da kalean: *Done Bladi*, 4; *Joan XXIII.a*, 3; etab. *Baina Konstituzio plaza*, 5; *Foru pasealekua*, 12, etab.

6. AZKEN OHARRAK. XAFLEN DISEINUA BIDERATZEKO IRIZ-PIDEAK

Euskara eta gaztelania, hitz ordenari begira, aski desberdinak direnez, biderik egokiena hizkuntza bakoitzari bere xafila eskaintzea da. Leku askotan plaka bakar batean eta sarritan elkarren hurren eman dira kale izenak *Avenida de*

(2) **Dona**: Alodia, Gracia/Garazi, Julia, Maria, Mariana, Pia. **Done**: Agustin, Bikendi/Bizente, Blas/Bladi, Emiliano/Millan, Erroman, Eztebe, Felix, Fruktuoso/Murtuts, Jakue (Donejakue bidea Compostelara zihoan bidea izendatzeko), Joane (Donibane), Julio, Jurgi, Kosme, Kristobal/Kristobare, Laurendi, Leon, Martie/Martin, Martzelo, Meteri, Mikel, Paulo, Pelaio, Petri, Salvatore, Saturdi, Sebastian, Tomas eta Zipriano.

Algortako etorbidea, esaterako, erabilera okerrak (batez ere gaztelaniaz) sortuz: “*vivo en la calle Algortako*”. Beraz egokiena holakoetan xafla bitan ematea da.

Bestalde, euskaraz artikulua eta kasu marka hondarkian bat eginik azaltzen baitira, ezin daitezke bi osagaiak berezirik idatzi, gaztelaniazko *de* preposizioarekin gertatzen denaren kontra. Hori dela-eta *Antso Jakituna-ren kalea* moduko idazkerak okertzat aitortuko ditugu. Holakoetan bereiz liteke *Antso Jakitunaren kalea* moduko idazkerak erabiliz, baina sistema honek ez luke balioko pluralerako, pluralean artikulua eta genitibo marka bat eginda agertzen baitira. *Nafarroako Errege-erreginen kalea*-ren kasuan, adibidez. Aurrekoa ikusita bereizketarik ez egitea prosatzen da.

TOPONIMIA NAGUSIA NORMALIZATZEKO IRIZPIDEAK MINTZAGAI

Bilbo, 1999-VI-04

*Patxi Salaberri Zaratiegi,
euskaltzain urgazlea
eta Onomastika batzordekidea*

1. IKERKETA EGIN BEHARRA

Toponimo nagusiak finkatzeko orduan maiz ikerketa egin behar izaten dugu, anitzetan datuak ez baitaude irispidean. Hemen oraindik euskaldunak diren alderdiak eta hizkuntza galdu dutenak bereizi beharko ditugu lehenik, ez baita gauza bera, adibidez, Nafarroako Erdialdeko edo Araba Lauko —gaurdainoko “Lautada” da hau— ibar batez edo herri izen batez mintzatzea, irizpena ematea eta Gipuzkoako Goierri aldeko edo Bizkaiko Durangaldeko beste batez mintzatzea. Orobat erran daiteke Iparraldeaz

Eremu euskaldunaz ari bagara, datuak usu eskumenean izanen ditugu eta konponbidea, hein batean, jendearengana joan, galdetu, eta finkatu irizpide zenbaiten arabera erabakiak hartzea izanen da. Nolanahi ere, euskarak bizitu duen eta oraindik ere neurri batean —eskualdeen araberrako kontua da hau, hein batez— bizi duen egoera ez-ofizialarengatik, bilakaera azkarra izan du, irakaskuntzako, administrazioko, komunikabideetako hizkuntza izatearen galga izan ez duelako, eta beraz, informatzaileek eman diezazkiguketuen datuak aintzakotzat hartu behar badira ere, ezin dira beti lege izan.

Izenek maiz bukaerako *-a* berezkoa galdu dute, hizkera arrunteko hainbat hitzek bezala (*gauz bat*, *gauz bet/Donosti*), eta bortizki laburtu dira, aldameanean erdarazko izen oro har kontserbatzaileagoa baldin bazuten ere. Erraterako, *Olazti* edo *Otsagi* erraten zaie Nafarroan erdaraz *Olazagutia* edo *Ochagavía* deitzen diren herriei, eta ez bakarrik deitu; euskaldunok ere, mintzatzerakoan, *Oláztí* eta *Otsági* —edo *Otxági*— ibiltzen ditugu normalean eta lehena oraindik eremu euskaldunean egonik, erabat natural gertatzen zaie inguruetako euskaldunei. Bigarrenaren kasua bestelakoa da, euskaraz bakarrik zaharren batzuek egiten baitute. Baina honetaz aitzinago mintzatuko gara.

Hortaz, ahozko bilketa egin beharra dago, baina hau ez da aski. Honetaz gainera literaturaz baliatu behar gara, hemen maiz datu erabilgarri asko azal-

tzen direnez gero. Adibidez, Zaldibia eta inguru horretako herri izenen gaineko zalantza sortu zelarik Iztuetaren lanetara jo genuen, eta Nafarroan ere *Iruñea/Iruña* pareak edo *Artzibar*-en izaerak sortzen zuten zalantza argitzeko Elkanoko Lizarragaren, Larrekoren eta besteren lanak baliatu genituen. Zernahi gisaz, literatura, edo zehazkiago erran, testu idatziak ere *cum mica salis* hartu beharrak dira, aitzinxeago ikusiko dugun moldean.

Ikerketa egiteko orduan beti interesgarria da, eta Euskal Herriko alderdi deseuskaldundu zabalean ezinbestekoa, artxibo lana egitea. Lan hau mantsoa, aspergarria, gogorra eta anitzetan eskertzarrekoa da, ordu asko sartu bai baina fruitua, emaitza, segurtaturik ez dagoelako. Ateratzen diren ondorioak, ordea, literaturatikakoak baino aise fidagarriagoak izaten dira, tartean kontuz tratatzeko diren datuak ere egonagatik. Konparazione, Oibar aldean jatorra zen *Zarebidea*-ekin batera *Sadabidea* odonimoa ere agertzen da, eta honelakoetan ikertzaileak bere buruari egiten dion galdera da *Sada* ere —erdarazko izena, izen ofizial bakarra— ez ote genuen euskaldunok erabiltzen garai batean, *Zare*-ekin batera. Hemen erabilera irizpidea ezarri nahi izaten dute batzuek, praktikoa izatearena, hau da, euskaldunok hori —*Sada*— ere erabiltzen genuenez, eta bide batez erdarazko izenarekin bat datorrenez, aukera dezagun *Sada* eta bazter dezagun *Zare*, zeren, irabazi, zer irabazten ote du euskarak bigarren forma hau erabiliaz? Hau gure ustez praktikotasuna gabe, “praktikokeria” da, mendetan euskaldunok erabilitako aldaerak baztertzea dakarrelako berekin.

Praktikotasuna aipatu baitugu, beharrezkoa da ikerketa egiteko orduan diruaz mintzatzea. Izan ere, normahik ezin du ikertzaile izan; horretarako presakuntza behar da lehenik eta astia, astia franko, gero. Horregatik bekak ateratzea, bekadunen bat hartzea oso komenigarria dela iruditzen zaigu, baina honetarako, jakina, sosa behar da. Gu orain toponimia nagusiaren normalizazioaz ari gara, baina oikonimoen kasua ere iruditsua da. Kontu egin dezagun, erraterako, herri batean etxe izenak normalizatu nahi direla. Hau egiteko lehenik bizirik dauden aldaerak bildu beharko dira —hau ez dateke sobera zaila, oikonimo biziak gehientsuenek ezagutzen baitituzte, neurri batean edo bestean—. Halere, artxiboak ere aztertu behar dira, adibidez, eta Iturengo oikonimoak dakartzagu hona (Iñigo, 1996: 534, 542), ezin baitira *Máixtamátiá* edo *Xixtérnia* bere horretan eman. Hauen ordainez paper zaharretan aurkitzen ditugun *Mariestebanbaita* eta *Sastrearena*, *Sastrerena* edo *Sastrene*a aukeratu beharko dugu, finkatutako irizpide batzuen arabera. Beraz, dirua behar dela garbi dago; besterik da ordea diru hori nondik aterako den zehaztea.

2. NORMALIZAZIORAKO IRIZPIDEAK

Orain arte bi arazo inportante aipatu ditugu irizpideei dagokienez:

2.1. Aldaera herrikoi (arinki edo bortizki) laburtuen tratamendua.

2.2. “Praktikokeria” deitu duguna, erdarazko izenak euskararako proposatzea, jokabide hau praktikoago delakoan.

Arazo gehiago ere badira, baina ikus ditzagun bi hauek lehenbizi.

2.1. “Aldaera herrikoi” diot eta ez “izen herrikoi” normalean euskarazko izenak eta erdarazkoak toki beretik atera direlako, etimo beretik, bestelako kasuak ere badiren arren (cf. *Pamplona/Iruñea*, bigarren maila batean *San Sebastián/Donostia*, eta hirugarrenean *Vitoria/Gasteiz*). Hots, euskarazko izena erdarazko “bera” ohi da, baina eboluzionatuago egoten da, gorago erran bezala euskara hizkuntza ofiziala izan ez delako. Lehen aipatu ditugu *Olazti* (*Olazagutía* erdaraz) eta *Otsagi*, *Otxagi* (*Ochagavía* erdaraz), baina berdin aipa liteke, adibidez, Markinako auzoa den *Ziortza* (*Zenarruza*) edo beste edozein, izan aukeran baititugu honelakoak.

Gure iritzia garbi azalduko dugu: gu ez gara, maila ofizialean, aldaera laburtu horiek proposatzearen eta erabiltzearen aldekoak. Uste dugu kontserbatzaile jokatu behar dugula honelakoetan, pasatu gabe jakina, hau da, Erdi Aroko formetara itzuli gabe, baina azken orduko berrikeriak ere onartu gabe. Erraterako, guk uste dugu *Goizueta* izan behar duela Urumearen ertzeko herriaren izena, ez *Goizubieta* zaharkitua ez eta *Goizuta* herrikoia ere. Hemen, jakina hizkuntz mailaz mintzatu beharra dago, erregistroz, guri ez baitzaigu batere gaizki iruditzen goizuetarrek berek *Goizuta* ibiltzea etxean, lagun artean, herrian, eguneroko hizketan. Besterik da, ordea, inprimaki ofizialetan, bide seinaleetan eta abarretan zerk agertu behar duen zehaztea. Gure ustez, errana dugu, *Goizueta* da egokiena.

Olazti, *Otsagi* eta *Ziortza*-ren kasuak antzekoak dira. Hiru hauek jakina denez *Olazagutia*, *Otsagabia* eta *Zenarrutza* (> *Zearrutza*)-tik atera dira, alegia, ez erdarazko formatik, baina bai honetatik hurbilago dagoen aldaeratik. Forma osoak aukeratzeko arrazoiak bi dira:

a) Forma laburtuak maiz ez zaizkio inongo arau fonologikori jarraiki, libreki eboluzionatu dute, halabeharreko bilakaera izan dute, maiz silaba bat baino gehiago galdu dutelarik: *Beute*, *Elgorgia*, *Ibizta*, *laurta*, *Sauta*... Hots, ez dago legerik aldaera hauen garapenean, anarkia da nagusi, azentuaren eragina alde batera uzten badugu behinik behin.

Guztiz ere, laburketa prozesua zenbaitetan euskara mintzatuan ohikoak diren gertakarien ondorio da: *Beskoitze* edo *Sohüta*, konparazio batera, bokal arteko dardarkari bakunaren galtzearena lehen kasuan eta dardarkaria + aspiratua taldearen bilakaeraren emaitza dira, aldakuntza horien ondoko edo aldi bereko bokal bategitea ahortzi gabe. Borroka, gudua, galdua dugula badakigu, baina errateko aiherrak egon eta erran gabe ezin pasatu: gure ustean *Beraskoitz* eta *Sorhoeta* dira proposatu beharreko formak, hots, Leizarragak 1571n (*Beraskoizko* dio) eta Belapeirek ehun eta hogeita bost urte berantago zerabiltzaten formak. Bigarren honek darabilen *Zuberoa* forma, grafiak grafia, da hain zuzen

ere egun batuan onartzen dena, eta hau horrela bada —arrazoi gehiago ere badirateke, autoreen lekukotasun beranduagokoak eta— ez da garbi ikusten zergatik hautetsi behar den, beste aldetik, *Sohiuta* eboluzionatua.

Badakigu toponimoen normalizazioa eta matematikak jakite desberdinak direla, baina ahal delarik irizpide bera ezarri beharko dugu kasu batean eta bestean. Bestalde, eta ohartzen gara hau galdera delikatu dela, Hegoaldean zentzuzko iruditzen zaizkigun irizpideak —ez formak— Iparraldean ez dira baliagarriak? Alegia, Hegoaldean gero eta gehiago forma osoen alde egiten bada, Iparraldean zergatik hobetsi behar ditugu aldaera laburtu tradizio handirik gabeak? Erantzuna ezaguna dugu: Iparraldeko euskararen egoera tamalgarria da, hiztunek ez lukete jasanen horrelako normalizazio bortitza, aski baitute orain dituzten gaitzekin, etab. Nafarroako euskararen egoera ere ez da kontent egoteko modukoa, baina onartu da forma osoaren irizpidea eta orain arte ez da deus berezirik gertatu.

b) Euskarazko forma osotuagoak erdarazko aldaeratik hurbilago egoten dira, Hegoaldean bederen, eta hau, praktikotasunari begira, mesedegarria da beti. *Olazti/Olatzagutia*-ren kasuan zalantzan egon gaitzeko Vascuencearen legeko “formas sensiblemente diferentes” ote diren, baina euskarazko aldaeratzat *Olatzagutia* -a hartzen bada garbi dago forma bakarra eman behar dela, ez bi, hots, ez dago dudarako tokirik.

Kontua da orain arte egin diren normalizazio saioetan *Olazti* eta *Otsagi*-ren tankerakoak proposatu direla, bigarren mailan besterik ez bada ere (*NHI*-n, erraterako), eta estatus berezia dutela pentsatzen dela, *Beute*-k, *Elgorgia*-k edo *Ibizta*-k ez bezala. Guk ez dugu batzuen eta besteen alderik ikusten, eta *Otsagi* onartzen bada, zergatik ez da ibar bereko *Ibizta* onartu behar, adibidez?, eta *Olazti* ontzat hartzen bada, zergatik ez *Altsu* (*Altsasu*-ren partez) edo *Urdin* (*Urdiain*-en ordez)? *Otsagabia* -a eta *Olatzagutia* -a forma osoek duketen arazoa bukaerako -a hori izan daiteke, Mitxelenak erraten duen bezala, euskarazko aldaerek -a eskas ohi baitute, erdarazkoek -a agertzen duten bitartean. Honela zioen errenteriarrek *Iruñea*, *Iruñe* pareaz ari zelarik:

“Bai *Iruñea* eta bai *Iruñe* zabalduak badira, eta nolazpait ere elkarren kideak, bada bide aski eroso bat besteari lotzeko eta uztartzeko. Gauza jakina baita Euskal herriko izen propioak maiz agertu ohi direla noiz artikulatu itxurako -a itsatsirik daramatela, noiz hori gabe. Erdal formek sarritan dute euskarazkoek ez duten -a: esate baterako *Altsasu* (*Alisu* Urdiainen, Satrustegi adiskideak esan zidanez eta cf. *freyre Semeno de Alsasso*, 1288): *Alsasua*, *Bakaiku* (cf. *don S. Remiriz de Vacaicu*, 1226, Utergan): *Bacaicoa*, *Olazti*: *Olatzagutia* (*Olaçagutia* XIV mendean, ez -goitia!), *Otsagi*: *Ochagavia* (*Oxssagauia* eta horren gisakoak XI. mendean geroz), eta abar. Baztanen *Eluete* (*Eluate* lehen) eta *Elbetea* (...)” (Mitxelena, 1987 [1983], 192).

Guk uste dugu Mitxelenak hor aipatzen dituen izen guztiak ez direla maila berekoak, batzuk (*Bakaiku*, *Elbete*) “artikulu itxurako -a”-rik gabe azaltzen baitira dokumentazioan —badira salbuespen diren lekukotasunak, alabaina—, eta

beste batzuk berriz *-a*-rekin (*Otsagabia*, *Olatzagutia*). Beraz, bi izen hauek kendu-utizizko *-a*-rekin normalizatzea dokumentazioan azaltzen denarekin bat egitea da, *Bakaiku* eta *Elbete*-ren kasuan bezala. Hemen pixka bat aparte geditzen zaiguna *Altsasu* da, agiritan ia beti, Mitxelenaren lekukoa gora-behera, *-a*-rekin aurkitzen baitugu (ikus *NHI*). Nolanahi ere, kontuan hartu beharra dago errenteriarrek *Iruñea/Iruña* aztertzen ari delarik dioen bezala, ditugun testigantza horiek erdal testuingurukoak direla, eta oro har euskal usadioarekin bat heldu eta fidagarriak direla irudi badu ere, ez dutela beti nahitaez horrela izan behar.

Hauetatik bereizi behar dira, eta erabat bereizi gainera, Euskal Herrian oso zabaldua egon den arau fonologiko bati jarraikiz gertatu diren aldaketen fruituak. Errate baterako, bokal arteko sudurkariaren galera, *Galdakao*, *Laukiz*, *Lazkao* edo *Dorrao*-n duguna, ezin da desitxuraketatzat jo, ez eta bilakaera anarkikotzat ere. Kasu berean dago lehen aipatu dugun *Ziortza* —hau da izen ofiziala— sudurkaria galtzen duen aldetik, dudarik gabe *Zearrutza*-ren itxuragabetzea besterik ez baita, baina oraingoan —desegokiro gure ustean— forma desitxuratuxea eman da ontzat. Berdin erran daiteke, bukaerako-bokalak ixteko edo itxi mantentzeko euskaraz dagoen joeraz, diptongoen tratamenduaz, bokal protetikoen galtzeaz eta bestez (cf. *Atallu/Atallo*, *Errezu/Riezu*, *Erri-pa/Ripa*, *Erronkari/Ronkal*, *Galoze/Gallués*, *Irunberri/Lumbier*...). Alegia, alde batean ezarri behar dira legerik gabeko laburtze(bortitz)ak eta beste aldean hizkuntzaren joera zabalduta eta zahar baten ondorio diren aldakuntzak.

2.2. Honekin loturik dago bigarren irizpidea, praktikokeriarena deitu duguna. Zenbaitek gorago aipatu forma eboluzionatu horiek —edo horietako batzuk, hobeki erran— onartzen dituzte, baina gero galdegiten dute ea zer delata ontzat hartu behar dituzten bokal arteko sudurkaririk gabeko formak edo bukaeran *-tz* dutenak, erdarazko aldaeratik urruntzen direnak, askoz praktikoa-goa litzatekeelarik *Taxoare* edo *Olkotz*-en partez erdaraz ere —itxurak itxura— ibiltzen diren *Tajonar* eta *Olkoz* erabiltzea. Galdera hau beste batekin osatzen dute: zer irabazten du euskarak *Tajonar* eta *Olkoz* erabiltzeko partez *Taxoare* eta *Olkotz* erabiltzearekin? Lehen galderari erantzuna eman diogula uste dugu; bigarrenari berriz beste galdera batekin erantzun dakiok: eta zer irabazten du euskarak *Pamplona* edo *San Sebastian* erabili ordez *Iruñea* edo *Donostia* erabiltzearekin? Erantzuna bistakoa da: euskaldunok tradizioz, menderik mende, erabili ditugun aldaerak erabili behar ditugu, eta ez ditugu, praktikokeria gaizki ulertu batengatik, erdarazko aldaerak onetsi behar.

Hemen zalantza batez ere euskara galdu duten alderdietako herrien ize-netan sortzen zaie, ez hainbeste euskara bizirik dagoen eskualdekoetan, baina ulertu behar da hainbat tokitan gure hizkuntzaren galera azkarra izan dela, eta testuetan eta artxiboatzen gero eta gehiago azaltzen ari direla eremu deseuskaldunduan bokal arteko sudurkaria galdu eta txistukaridun afrikariak dituzten formak. Erraterako, guk orain hamar urte *NHI*-n *Ardanatz* normalizatu genuen

herri izena (Eguesibarkoa) *Ardach* moduan dokumentatu da gero Ardachbidea mikrotoponimo historikoan. Honetan hiru gauza interesgarri azaltzen zaizkigu:

a) Bokal arteko sudurkariaren galtzea. Hau erran gisa, arau orokorra da, eta euskara galdu duen —berriki samar galdu du, Elkano 1904an herri euskalduna zelako artean— Nafarroako alderdi batean kausitzen dugu. Beraz, beste alderdietan ageri den arau fonologikoa hemen ere indarrean egon zela dakusagu.

b) Bukaerako txistukaria afrikaria zela garbi erakusten digu *-ch* digrafoak. Hortaz, *NHI*-n analogiaz baliatu izana ez zen txorakeria izan, kasu honetan bederik.

c) Nafarroako eta bestetako hainbat lekutan oraindik egiten den moduan, adlatiboaren hondarkia, kontsonantez bukatutako izen berezietan, *-a* zen —edo izan zitekeen— Eguesibarren.

2.3. Tokian tokiko euskararen sarrera, toponimia normalizatzerakoan.

Gai delikatua da hau Nafarroa bezalako eremu zabal “nabar” batean, eta seguraski beste herrialdeetan ere antzeko zerbait izanen dugu, beste maila batean baldin bada ere. Nafarroako herrien normalizazioan (*NHI*-n) Erronkari eta Zaraitzuko herri izenei lehenik, eta Baztangoei gero, zuten bereztasuna aitortu zitzaizen, alegia, bertako ebakeraren arabera aldakerak onartu ziren, pittin bat osaturik zenbaitetan, baina bukaerak —hau ohi da gatazkatsuen— tokian tokikoak hartu ziren: *Almandoz*, *Arraioz*, *Orontze*, *Uztarroze*... baina *Alkotz*, *Iraizotz*, *Madotz*... Berdin bukaeratik kanpo ere: *Bidankoze* (ez *Bidangoze*), *Erronkari* (ez *Errongari*), baina *Esparza* halere, ez *Espartza* (Iruñerrian badago beste bat, eta hau izanen zen erabakigarria).

Aipatutako hiru ibar horietatik kanpo ere onartu dira tokiko zenbait ezaugarri, gehienbat herri horiek euskaldunak izan eta izenak euskaldunon artean franko erabiltzen direlako: *Arribe* (ez *Arriba*, hemen semantikak ere izan du zerikusia. Ikus beheitiago dioguna), *Arantza* (ez *Aranatz*) baina ez beti: *Aurtitz*, *Oitz*, ez bertan egiten den bezala *Aurtiz*, *Oiz*... Hemen hartu beharreko erabakia hau da: analogiari bide eman behar zaio ala tokian tokiko ezaugarriak lehenetsi behar dira? Soluzioa ez da beti begien bistakoa, eta normalizazio lanetan hautetsi ziren formek, egokienak ez izanagatik ere, bide egin dutela aintzat hartu beharra dago.

2.4. Gizarte kontuak: *Estella/Lizarra*, *Vitoria/Gasteiz*...

Herri izenen normalizazioa egiterakoan eskuarki irizpide linguistikoak erabiltzen ditugu, baina hizkuntzaz kanpoko kontuak ere aintzakotzat hartzekoak dira maiz, eta inoiz hizkuntz irizpideak eta bestelakoak elkarrekin errietan badabilta ere, ez dugu beste aterabiderik egina dagoena onartzea baizik, arestian erran bezala. Konparazione, *Lizarra* zabaldu da *Estella*-ren euskarazko izentzat, nahiz Nafarroako euskaldunok —eta Arabakoek ere berdin, garai batean,

seguru aski— beti *Estella* (eta *Estellerria*) erran izan dugun. Berdin gertatzen da *Atarrabia/Villava* parearekin eta antzeko zerbait *Gasteiz/Vitoria* eta *Agurain/Salvatierra*-rekin. Aurreneko bi kasuetan euskarazko izenak —*Lizarra*, *Atarrabia*— bertako auzo baten eta etxe baten izena besterik ez dira, baina *Estella* eta *Villaba* erdaratikakoak direnez gero, herriaren zati bat, modu batera edo bestera, eta ez osotasuna izendatzen zuen izena hobetsi da.

Villaba-ren kasua Gipuzkoako *Billabona*-renaren antzekoa da: etimoa erdalduna da bi kasuetan, baina izenok jaso duten tratamendua, izan duten bilakaera euskarazkoa da, eta ez guke inolako beldurrik izan behar ontzat hartu eta euskal grafiaz idazteko. *Vitoria/Gasteiz* eta *Salvatierra/Agurain*-en kasuan izen zaharra —Gasteizen ondoko despoblaturen batena, oker ez bagabiltza— eta aspaldiko izena, Donemiliagako “reja”-n azaltzen dena (*Hagurahin*, 1025. Ikus TAV, 25 eta hurr.) dira. Azken honen euskarazko aldaera Lopez de Gereñuren lanean ageri den *Salbaterra* zen, *Billaba* eta *Billabona*-ren tankera berekoa. Orain, alabaina, berantegi da *Billaba*, *Billabona*, *Bitoria*, *Estella* edo *Salbaterra* erraten eta idazten hasteko, baina ez da berantegi *Errenteria/Orereta* parearen kasuan. Hemen *Orereta* berpiztu nahian dabilta batzuk, herriaren aspaldiko izena, euskarazkoa zelako, baina azken mendeotan *Errenteria* —aldaerekin— ibili izan da, eta guk ez dugu uste *Orereta* berpiztu behar denik, egun inork ezagutzen ez duelako, *Errenteria*-k euskararen marka kopetuzurrean iltzatua daraman bitartean.

Bakarren batek erranen digu ea zergatik proposatzen dugun oraingo izena kasu honetan, baina *Labio*, *Taxoare*, *Zolia* eta lehengo mendeko edo lehenagoko beste batzuk beste kasu batzuetan. Hemen lehenik bada muga kronologikoa: *Orereta*, oker ez banago, aspaldikoa da, Erdi Arokoa, ez geroagokoa, eta *Labio*, *Taxoare*, *Zolia* eta abar, berriz, askoz berriagoak dira, XX. menderaino iritsi diratekeenak. Gainera, *Errenteria* eremu euskaldunean dago, eta izen honen transmisioa euskararen barrenekoa izan da, hots, erdal jatorriko etimo baten euskal bilakaeraren fruitu da, euskaldunek ibiltzen dutena, ez *Labiano*, *Tajonar*, *Zolina* eta beste bezala, hauek, etorkiak etorki, erdal aldaerak baitira, erdaldunek —ez euskaldunek— erabilitakoak. Beraz, eta ondorioz, etimoari garrantzi gutxiago eta euskarazko erabilerari garrantzi gehiago eman behar genioke.

Gizarte kontuei, faktore soziologikoei eman behar zaien garrantzia dela eta, ezin aipatu gabe *Bilbo*-ren kasua. Aldaera hau, jatorriz, Bizkaiko eta beharbada Bizkaitik kanpoko euskaldunek erabilia da eta oso oker ez bagaude badu aspaldidaniko tradizio idatzia. Forma laburtuxea da halere, *Bilbao*-tik atera dena, eta goian azaldu irizpidearen arabera balirudike txarrestekoa dela, *Bilbao*-ren mesederako, honela, bide batez, arazo franko baztertzen baititugu, euskarazko eta erdarazko izenak, edo aldaerak, berdinak —bera— izatearekin (*Bilbao-Bizkaia Kutxa*-n adibidez). Guztiaz ere, guk ez dugu uste kasu honetan atzeranzko martxa sartu beharra dagoenik, hain zuzen ere *Bilbo* euskarazko izentzat erabilia zen eremutik kanpo erabat zabaldua delako, telebistan, irratan,

testuetan, liburuetan... eta abarretan. Gure irudiz ordaindu beharrekoa gehiegi da irabaziko genukeenaren aldean.

Beste puntutxo bat arazo semantikoei dagokiena da. Hau gutxitan eskue-taratuko zaigu, baina behin edo beste aterako zaigu. Ezaguna da *Porquerizas de la Sierra* izena, itsusi iritzi eta aldatu zuen herriaren kasua. Nafarroan an-tzeko zerbait agitzen da erdaraz *Allo* deitzen den herriaren euskarazko aldae-rarekin. Azken urteotan ikasi dugu, eta segurua da, herri honi euskaraz, Otei-tzan eta, *Alu* erraten ziotela, euskal fonetikari dagokionez. Jakina, aldaera hau hilik dago, inork ez du erabiltzen alderdia aspalditik dagoelako erdaldunduta, eta orain ez dirudi arrunt itsusia den izena berpiztea egokia denik. *Alura noa*, *Alutik nator*, *Alukoa naiz*, *alutarra da halakoa*... eta beste erratea gogortxo egiten da, eta kasu honetan badirudi zuhurrena *Allo*-n gelditzea dela.

Iruditsua da, baina ez berdina, euskaraz normalak izan arren, ez baitira esanguratsuak, erdaraz parregarri samar gelditzen diren herri izenen kasua. He-men Nafarroako *Adios* eta erdarazko *Labiano*-ren euskal aldaera den *Labio* sar ditzakegu, eta agian *Arribe*-ren erdal forma (eta izenaren jatorri hurbila) den *Arriba*. Jakina, erdaraz ez bageneki arazorik ez legoke, baina badakigunez gero *Adios*, *Labio* eta *Arriba* onartzekoak ote diren planteat daiteke. Nafarroan *Adios* eta *Arribe* onartu —maila diferentetakoak dira— ziren, baina *Labio* ez da Arangurengo udalaren gustokoa izan. Ez dakigu, ordea, azken kasu honetan arrazoiak semantikoak bakarrik izan diren, zeren *Zolia* ere ez da udalekoen gogokoa izan, baina bai ibar bereko *Taxoare*, agian lehenagotik (1990az ge-zortzik) honela normalizaturik zegoelako.

2.5. Neologismoak: *Azkoien* alde batetik / *Ameskoabarren*, *Tafallerria*, *Debabarrena*, *Bidasoa Beherea* bestetik.

Inoiz edo behin urte batzuk dituen neologismoa onartu da, *Azkoien* adi-bidez, nolabaiteko hedadura bazuelako. Honelakoak oso bakanak dira, guk da-kigula, eta ez gara horien oso zale. Besterik da toponimo zahar, ohiko bati atzean zerbait eranstea, halako kontzeptu bat adierazteko izenaren beharrean gertatzen garenean. Honelakoa da, adibidez, *Tafallerria* Nafarroan, erdarazko *Comarca de Tafalla* izendatzeko (hondar bilketa Tafallerri osoan bakarra da eta kontenedoreetan bertan erdarazko izena azaltzen da, eta honen ondoan, nahi bada, euskarazkoa ere ager liteke), edo *Debabarrena* eta *Bidasoa Beherea* Gi-puzkoan. Ibarren arloan ere bada zenbaitetan “neologismo partzial” haueta-koren bat, Nafarroako *Ameskoabarren* eta *Ameskoagoien*, adibidez.

Mota honetako izenak sortzeko orduan uste dugu inportantea dela beti ere-du zahar eta finkatueta oinarritzea, hots, euskararen bidetik ibiltzea, eta gero, eta aurreko puntuarekin lotuaz, alderdi bakoitzeko berezko ezaugarriei ahal den neurrian eustea (hemendik *Debabarrena* baina *Bidasoa Beherea*).

2.6. Ordena kontuak, ibarren normalizazioan.

Maiz arazo hau eskuetaratzen zaigu: euskal elkarketaren arauen arabera lehenik ibarraren izena eman behar da eta gero herriarena ala alderantziz? Euskal elkarketaren arauen arabera badirudi lehenik ibarraren izena paratu behar dela (*Larraun-Etxarri*), baina hau bide seinaleetarako eta bestelako testuetarako eta ez da zeharo egokia, eskuarki herri izena lehenesten delako, ez ibarrarena. Hortaz, eta bigarren irizpide honen arabera, *Etxarri-Larraun* behar genuke. Kontua da ibar baten barrenean normalean ez dela ibarraren izena erabiltzen herria izendatzeko: *Uharte* Arakilen, *Donibane* Garazi aldean, *Hiriberri* Aezkoan... Kanpotik ikusita, alabaina, izen bera duten bi herriak bereizteko premia izaten da, Iruñean konparazio *Hiriberri* erran edo idatziz gero batek ez baitaki zein *Hiriberri*-z ari den mintzatzailea, testuinguru konkretu batean ez bada.

Arazoa, hortaz, *Larraun-Etxarri* edo *Etxarri-Larraun*-en moduko hurrenkeren artean bat aukeratzea da. Onomastika batzordean zalantzan izan ginen garai batez, baina azkenean bigarren ordenaketa aukeratu genuen eta geroztik, hautetsi beharra egokitzen zaigunean, lehenik herri izena ematen dugu eta gero ibarrarena. Egia da *Larraun-Etxarri*-ren moduko lekukotasunen bat badela, baina egia da, halaber, *Uharte-Arakil* eta *Donibane-Garazi*, *Donibane-Lohizune* sartuak ditugula euskaraz, hurrenkera hauen etorkia zein baita ere, eta beraz hizkuntzaren aldetik debeku gogorrik ez dugula. Praktikotasunaren aldetik, bestalde, egokiago dela irudi du aurren-aurrena herri izena ematea eta gero ibarrarena.

2.7. Bailara vs. harana, ibarra.

Beste gai irristakorra, ibar izenen normalizazioan erdarazko *val*, *valle*-ren euskarazko kidea hautatzea izan da. Hemen, jakina, tokian tokiko aldaera erabiltzen da, hots, Nafarroan *Valle de Erro* edo *Valle de Arce* errateko *Erroibar* eta *Artzibar* hautetsi ziren, bertan edo inguru euskaldunetan horrela erraten delako, eta *Deierri* euskaraz *Yerri* deitzen den harana izendatzeko (< *Deio* + *herri*). Beste batzuetan, berriz, ez da ez *herri* ez *ibar* eta ez *haran* ibiltzen ibarra izendatzeko; hau da, erraterako, *Baztan*-en kasuan.

Guztiz ere, zenbaitetan honelakoetan erdarazko *valle*-ren kide den izen bat sartu beharra izaten dugu, adibidez orain gutxi Nafarroako ordezkariartzara iritsi zen *Ayuntamiento de la muy noble universidad del valle de Baztan* deizioan —itzuli beharrekoa ez zen erabat guk hemen ezarri duguna, baina bai honen antzeko zerbait—. Honelakoetan Onomastika batzordeak, gure tradizioa azterturik, izen egokienak *ibarra* edo *harana* zirela ikusi zuen (*bailara*-k ez du tradizio handirik), biak azaltzen baitira hainbat ibar izenetan. Bien artean bat aukeratu behar eta *ibarra* aukeratu zen. *Harana*, hala ere, egokiagoa izan daiteke espezifikoa bere baitan *ibar* biltzen duenean, *Oibar harana*-ren kasuan adibidez, errepikapen itsusiak saihesteko, baina ez bestela.

2.8. *Ibarra*-ren deklinabideaz.

Ibarra-ren erabilerak arazoak sor ditzake, ez baita gauza bera *ibarra* izen arrunta eta gorago aipatu *Erroibar* toponimoan aurkitzen duguna. Lehen kasuan *ibarrean*, *ibarretik*... deklinatzen da, baina bigarrenean *Erroibarren*, *Erroibartik*... ditugu. Zalantza guk moldatu elkarketa eta erabilera berrietan sortzen zaigu edo sor dakiguke, nahiz gure ustez jarraiki beharreko bidea aski garbi dagoen: *Eguesibar*-en tankerako toponimo "berrietan" *Erroibar*-en eredu erabil dadila, eta *Baztan ibarra*-ren modukoetan, berriz, *ibarrak* generikotzat hartu ea halakotzat erabil dadila.

BIBLIOGRAFIA

- EUSKALTZAINDIA: *Nafarroako Herri Izendegia (NHI)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1999.
- MITXELENA (1987 [1983]): "Iruñea", *Palabras y Textos*, 187-193, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.
- ONOMASTIKA batzordea: "Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak", *Euskera*, 42, 1997-3, 653-666.
- SALABERRI ZARATIEGI, Patxi: "Criterios para la normalización de la toponimia mayor de Navarra", *FLV*, 79, 1998, 363-376.

ONOMASTIKA JARDUNALDIAK

Etxarri-Aranatz, 1999-VI-25

TOPONIMOEN OFIZIALITASUNAZ ETA ADMINISTRAZIO ARTEKO APLIKAZIO ARAZOEZ (II)

Etxarri Aranatzen, 1999-VI-25

*Jose Luis Lizundia,
Onomastika batzordekidea*

Hemen Etxarri Aranatzen aurkeztu behar dudan txostenak, ezinbestean ia hil honen 4ko berbera izan behar du, zeren eta gehienbat herrialde honetako euskara teknikarientzat edota aurrekoa entzun ez zutenentzat baita. Dena dela, sarrera gisa zenbait desberdintasun aipatu nahi nituzke.

Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan ez bezala, administrazio arteko maila arazo gutxiago dago, Nafarroako agintaritza eraberean, foru eta autonomi administrazioa baita, alegia, Diputazio eta Gobernu era berean, probintzia bakarreko erkidegoa delako, besteak beste. Gainera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan bezala, Nafarroako errepideak Diputazioarenak dira.

Hemengo legeria kontutan izateko “Ley Foral del Vascuence” delakoaren artikulua hauek kontuan izan behar dira: art. 21. 2.: “La utilización del vascuence en la denominación de los municipios se sujetará a lo dispuesto en la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre” eta 29.: “Los municipios de Navarra tienen las competencias, potestades y prerrogativas que la legislación general reconoce a todos los del Estado. Tendrán asimismo las competencias que, en materias que corresponden a Navarra, les atribuyan las leyes de la Comunidad Foral”.

“Ley Foral Municipal” delakoa onerako, txarrerako edo eskasiarako, begi bistan izan behar dugu, zeren eta bere 379 artikuluetan lerro bat bakarrik agertzen baita udal mailako euskararen ofizialtasunaz. Hala eta guztiz ere, 29. artikuluan kale izendegiaz eta toponimiaz orohar badago nolabaiteko kolisio bat, foru administrazio eta udal administrazioen artean. Diputazio/Gobernuaren agindupean gelditzen bada, botere abusu bat egiten delako da, udal autonomiaren kaltetan.

“Ley de Bases de Régimen Local” delakoa oinarritzko lege bat izanda, han artikuluan esaten duenak, udalbatzari, udal korporazioari, alegia, ahala ematen dio. Besterik da, udal izena edo kontzeju izena denean, baina auzo edo kale izena denean, kale industrial edo poligonoak barne, ene ustez, Nafarroako “Fe-

deración Navarra de Municipios y Concejos” hain Diputazioaren menpeko ez balitz, udal autonomiaren alde atera beharko litzateke zenbait kasutan. Eta ez naiz ari politikaz, gutxiago ideologiaz, baizik eta toponimiaz, udalaren esku edozein agintaritzak administrazioetan izan ohi duen ahalez baliatzeaz baizik.

Ondorioz, udalari dagokiola uste dut, kale, auzo, kontzeju ez direnetan, toponimia erabakitzeko ahala. Besterik da, ondo edo gaizki hartzen duen, baita ere euskal toponimiaren arau akademikoak, ikerketa eta beste zaintzen dituen, hala ortografiaz nahiz bestetako errakuntzez finkatzen. Hori, ordea, irizpen akademikoaren baitan egon beharko luke edozein hizkuntza arautu edo normalizatueta dagoen bezalaxe. Hori argi dago, bai Kataluñan: “Article 18. La toponimia. 1. Els topònims de Catalunya tenen com a única forma oficial la catalana, d’acord amb la normativa lingüística de l’Institut d’Estudis Catalans, excepte els de la Vall d’Aran, que tenen l’aranesa. 2. La determinació de la denominació dels municipis i les comarques es regeix per la legislació de règimen local. 3. La determinació del nom de les vies urbanes i els nuclis de població de tota mena correspon als ajuntaments, i la dels altres topònims de Catalunya correspon al Govern de la Generalitat, incloses les vies interurbanes, sigui quina en sigui la dependència” eta bai Galizian: “Artículo 10. 1. Los topónimos de Galicia tendrán como única forma oficial la gallega. 2. El nombre de la vías urbanas será determinado por el Ayuntamiento correspondiente. Disposición adicional. En las cuestiones relativas a la normativa, actualización y uso correcto de la lengua gallega, se estimará como criterio de autoridad el establecido por la Real Academia Gallega”.

Beste arazo bat erabaki “konkurrente” direnean, alegia, foru administrazioak kudeaketa bat duenean, nahiz eta herriarena izan, hala nola, Nekazaritza Sailak kudeatzen dituen herribaso, partzuergo eta besteren izendapenak. Seguru asko, foru lege, arau edo dekreturen bat egongo da horretaz, baina bertan euskarari buruz edo toponimiari buruz hobeto esan, ezer aurreikusi gabe. Nekazaritza Foru Saila da agian, Herrilan Sailaz landa zaindu beharko lukeena, kontzeju, udal, nahiz ibarrek menpekotasun historiko badaukatela ere.

EUSKALTZAINDIAREN TOPONIMIA LANTALDEAREN PLANGINTZA ETA IZENDEGIAN NORMALIZATZEKO ARAUAK

Ettxarri-Aranatz, 1999-VI-25

*Mikel Gorrotxategi,
Onomastika batzordeko idazkaria*

EUDELeK eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu dute aurten hiru lan nagusi gauzatzeko:

- Autonomia Erkitegoko biztanle entitateen izenak finkatu (udal, kontzeju eta auzo).
- Kale izendegietako arazo nagusiak aztertu eta irtenbideak proposatu.
- Erkidegoko toponimia txikia normalizatzeko irizpideak finkatu.

1986an HPSrekin batera argitaratutako izendegia (*Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herri Izenak*) eguneratu beharra ikusi zen, batetik izen berriak gehitu direlako, eta bestetik azken urteotan egindako ikerketa eta finkatutako irizpideen arabera orduko izen batzuk berraztertu behar direlako.

Kasu batzuetan orduan ez zegoen informazioa lortu dugu, esate baterako Galdamesko *La Aceña* auzoan, *n.t.e.e.c./e.d.e.b.e.* agertzen zen. Geroago jakin dugu izen zaharra *Atxuriaga* dela.

Beste kasu batzuetan zaharkituriko informazioa geneukan eta azken urteotan egindako ikerketek euskarazko izen egokia argitu digute: *Egilatz*, *Txintxertru* edo *Subilla*, proposaturiko *Egiroz*, *Intxertru* edo *Subilana* izenen ordeaz.

Inoiz, badirudi egindako proposamen batzuk berraztertu beharko liratekeela, har hor *Batxikabo* edo *Uriona / Villabuena*.

Bigarren lana, kale izenak normalizatzean antzeman daitezkeen arazo nagusiak, baina inongo udalerriko kaletgia aztertu gabe (horretarako tokian tokiko udalbatzarekin egin behar da hitzarmena), zerrendatzea eta irtenbideak proposatzea izango da.

Azkenik, toponimia txikia finkatzeko erabili beharreko irizpideak zehazteko proposamena gauzatuko du eta proposamen horiek Onomastika batzordeari aurkeztu onikusia eman diezaizkien. Erabilitako irizpideak Nafarroako to-

ponimia normalizatzeko erabilitakoak izango dira, tokian tokiko berezitasunak errespetatuz, amaierako afrikari/frikari kontua esaterako eta egin beharreko zuzenketak eginda.

Helburua, azken finean, Euskal Herriko erakunde guztietan irizpide bere-tsuak erabiltzea izango da, tokian tokiko berezitasunekin, noski. Horretarako irizpideak ez ezik, trebatzea ere nahitaezko ikusten du batzordeak eta hori da ikastaro honen helburua.

IZENAK NORMALIZATZEKO URRATSOK

Izenak normalizatzean segitu beharreko irizpide linguistikoak Patxi Sala-berrik jorratu ditu eta ez naiz horretaz arituko, finkatzeko proposamena egin aurretik egin beharreko lanaz baizik.

Euskal Herrian etxegintza dela eta etengabe ari dira kale eta auzune berriak eraikitzen, edota industrialde, kiroldegi edo horrelakoak, eta egoera honek izen batzuk toponimo txiki eta ezezagun izatetik handi eta ezagun izatera eramaten ditu. Horrela, *Bidezabal*, *Getxoko* kale izen berri eta ezezaguna zen Metrobil-baok bertan geltokia, eta bi urtez bidaia amaiera, jarri zuen arte. *Donostian*, *Garbera* edo *Illunbe* izenak aipatu ahal dira, oso denbora gutxian bereziko ga-rrantzia hartu dute eta. Iruñean *Arrosadia* aipatu ahal da, NUPa egin zutenetik askoz ere ezaguuna bihurtu zaigun izena, bereziki irunsemak ez gineontzat. Beste horenbeste esan daiteke *Mendillorri* auzoaz.

Izendapen berrian antzineko leku izenak gorde nahi badira, eta badirudi hori dela zentzuzkoena, ikertu beharko da, zein den izen egokia, eta bere idaz-kerak jakiteko.

Lehenengo eta behin jakin behar dugu zein den (edo diren) gaur egun era-biltzen diren izenak. Horretarako fidagarrienak, nola ez, adineko pertsonak iza-ten dira, ahal dela auzokoak noski. Dermio hori mendian baldin bada artzainak egokiagoak izango dira nekazariak baino eta azken hauek baserrietxeetan bizi baina kanpoan lan egiten dutenak baino.

Zein den egungogo izena eta ebakera dakigula leku hori historian zehar izendatzeko erabilitako izen edo izenak bilduko ditugu. Bizkaiko kasuan le-hendabiziko urratsa XVIII. mendeko *Bizkoiko Fogeraioak* aztertzea da. Gi-puzkoak XIX. mendeko *Nomenclátor de la Provincia de Guipuzcoa*, nahiz eta bizkaieraz egiten den eskualdean arazoak eman, gipuzkera batuan burutu bai-tzuten, besteak beste, *barri* guztiak *berri* bihurtuz. Araban G. Lopez de Gue-reñuren *Toponimio Alavesa* liburu bikaina aipatu ahal da.

Nafarroan *Onomastica Vosconiae* bilduman J.M. Jimeno Juriok eta P. Sa-laberrik argitaraturiko liburuak dira aintzindariak eta nahitaezko erreferentzia. Bertan agertzen ez diren herriko izenak aztertzeke, eta ez dagoenez Nafarroa

osoa hartzen duen lanik tokian tokiko ikerketak egin beharko dira, egindako monografiak erabiliz, Malerrekaren kasuan A. Iñigo euskaltzainarena esatera-ko. Horretaz gain Onomastika Batzordeak baditu zenbait herritako XVIII. mendeko baserrietxeen zerrendak eta eskatuez gero erabil litezke. Ezin aipatu gabe utzi *Nafarrooko Toponimia eta Mapagintza* liburu bilduma.

Bigarren ikerketa lekua Katastroa da, ahal dela mende hasierakoa, eta azkenik lur eremu horietako jabetza eskriturak, inportanteenak, baina askotan irakurtzeko arazoak izaten dira.

Baina egungo izenek arazo bi izan ditzakete, batetik jatorrizko izenaren aldaera laburtu eta desitxuratuak izatea: *Bisku*, *Iratzegibeoskoa* mendez mende, edo azken urteotako ordezkapenak, maiz Jose Luis Lizundiak aipatu duen bezala, satuen izenez ordezkatuak. Hor ditugu esaterako: *Santa Eufemi(a)*, *San Donato* edo *San Pedro*, mendiak jatorriz *Urregarai*, *Beriain* eta *Beratza*.

Ordezkapene hauek askotan mende honetan gauzatu dira, eta askotan gauzatzen ari dira eta euskaldunek jatorrizko izenari eusten diote erdaldunen artean izen berria zabaltzen den bitartean. Adibide ezagunak dira Bizkaiko *Urgoiti* eta *Beteluri* izenak, azken urteotan *El Gallo* eta *Venta Alta* eta inoiz *Goiko Benta* izenez ezagutuak, nahiz eta inguruko euskaldun askok izen zaharra oraingoz erabili.

Beraz, argi dago, egungo forma laburtuak erabiltzea ez dela gomendagarria eta *Artia*, *Akarteixa* eta *Iturtze* moduko idazkerak ez dira egokiak, osoagoak diren *Arteaga*, *Akartegieta* eta *Iturritza* baizik. Egungo izenak, historian zehar agertzen denarekin batera lagunduko digu izen egokia hautatzeko. Zentzuzkoena, zer esanik ez, ikerketa hori burututakoan ebazpen proposamena eta zergatiak Euskaltzaindiko Onomastika batzordera igortzea da, azken honek erabakia har dezan.

Adibide praktikoa emateko *Isusquíza* edo *Isúsquiza* aipatu ahal dugu. Bizkaian hiru lekutan agertzen da, Gordexolan, Plentzian eta Arratzun. Badirudi *itsuski*, landare bat, gehi *-tza* ugaritasun atzizkia dugula eta *Itsukitza* izan beharko duela. Gordexolan euskara galduta dagoenez ezin jakin nola ebasten zuten, azentua salbu, egun *Isúskiza* (/i;ú'sa/) baita. Plentziakoari dagokionez egun erabiltzen den izena *Abanico* dugu, bertan egindako txalet-hiria izendatzeko erabilia, euskaldun askok *Abanikue* bihurtua. Zorionez, banaka batzuek jatorrizko izena darbilte: *Isúskitze* (/i;ú'kice/). Honek argi adierazten du *Isuskitza* dela ofizialdu beharreko aldakia eta ez udalak jarritako *Isuskiza*. Arratzukoa berriz, egun *Itxuskitza* (/iú'ca/) esaten dute, jatorrizko *Itsuskitzaren* aldakia. Gordexolakoa Plentziakoaren arabera normalizatu beharko dugu, hurbilago baitago azpieuskalki horretatik, Arratzukotik baino.

KALE IZENAK

KALE IZENAK NORMALIZATZEKO ORAZO NAGUSIAK

Egoera desberdinak badaude ere, kale izenen izendapenak direla eta zein izan behar den prozedura egokiena azaltzen saiatuko naiz. Zenbait kasutan, egokia izan liteke udaletxean prozedura bakar bat finkatzea, aurrerantzean egingo diren izendapenak arautzeko. Tamalez, badakit zenbait lekutan euskara zerbitzua haintzat hartzen bada, askotan etxegintza saileko teknokrata ez jakin baten eskuetan dagoela auzia, eta kasu gehienetan euskara zerbitzura heltzen denan beranduegi dela gauzak bideratzeko.

IRIZPIDEAK

Lehentasuna eman beharko zaie tokian tokiko leku izenei, batetik Euskal Herriko ondare kulturala direlako eta bestetik izen neutroak diren aldetik ez dutelako zeharkako arazorik sortzen. Arazo horiek linguistikoak izan daitezke, izena itzultzeko beharra eta soziopolitikoak.

Badirudi, egokiena neri berea ematea dela, eta ondorioz, jatorrizko hizkuntzaren idazkeran emango dira, izen bikoitzak tradizio bikoitza dagoen kasuetara utziz, *Areeta / Las Arenas* edo *Villanueva / Hiriberri*, esaterako, baina ez *Retuerto* edo *Obekuri* izenen kasuetan. Gogoratu bestaldetik hori dela zenbait lekutan segitu beharreko legearen agindua.

Bitasuna saihesteko aurreko irizpide hori, ahal dela, izendapen guztietara zabaltzeko behar dugu, batetik erabilerrazagoak direlako, eta gure eginkizunetako bat jendeari erreztasunak ematea izan behar, eta bestetik izen bikoitzak ematea bere biziko arazoak eman ditzakeelako. Batzuetan egoera diglosikoa dela medio izen bat baztertuko da, euskarazkoa ea beti, arazoak emanez, batzuek euskarazkoa erabiliko baitute eta beste batzuek gaztelaniazkoak. Adibide argia dugu Getxoko *Elexalde* inguruan, non kaleak izendatzeko txori izenak hizkuntza bietan eman dituzten: *Calle del Tordo / Zozo kalea*. Adibideekin jarraitzeko sortu diren erdipurdiko izen bitxiak aipa daitezke: *Avenida Algortoko*, *La calle del Bertsolari*, etab.

1. KALEAK, PLAZAK ETA PARKEAK

Bai *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* liburuetan, baita EAEan, Euskararen Legearen aginduz, oinarrizko irizpidea toponimoak jatorrizko hizkuntzaren idazkeran ematea da.

Aurrekoari lotua eta kale izendegien erabilera ikusirik, erabiltzaileari errez-tasunak ematea ere badenez gero, izenak finkatzean erabilgarritasuna bilatzen saiatu beharko du. Hori dela eta, izenak bortxatu gabe, hizkuntza bietan ahalik eta hurbilenekoak aukeratzen ahaleginduko gara. Arrazoi beragatik inoiz azal-tzen diren izen luze eta erabilgaitzak, bereziki generikoa baduten izenekin, erraztera joko dugu.

Generikoa dutenek arazo bi sortzen dituzte: batetik izenak bikoizten dira, generikoak desberdinak izatez gain jostera dela-eta lekune bana hartzen du-telako (*Calle del Doctor Begiristain / Begiristain Doktorearen kalea*); besterik generikoa horiek gehienetan eguneroko jardueran desagertu egiten dira, jen-deak izen berezia baino ez baitu erabiltzen. Hori dela eta, izen ofiziala aldatzea erakunde honi ez, baizik agintari politikoei baitagokie, izen generikoa kentzea proposatzen da, hortaz *Begiristain kalea/Calle, Iparragirre kalea/Calle, Lan-dazuri kalea/Calle* edo *Gaiarre kalea/Calle*, eta ez *Calle del Doctor Begiristain / Begiristain Doktorearen kalea, Calle del Bardo Iparragirre / Iparragirre Ko-blalariaren kalea, Calle del Historiador Landazuri / Landazuri Historialaria-ren kalea* edo *Calle del Tenor Gayarre / Gaiarre Tenorearen kalea*.

1.1. Izen bereziekin

Egitura orokorra honako hau da: [Izen berezia + kalea]. Adibidez: *Aiz-korri kalea, Ibaeta plaza, Julio Urkixo kalea, Toribio Altzaga kalea, Txurruka kalea*, etab. eta ez **Aizkorriren kalea, *Ibaetoko kalea* edo **Julio Urkixoren kalea*, etab. Beraz ez da gaztelaniaz agertzen den depreposizioa ituzliko: *Calle de Cervantes / Cervantes kalea*.

1.2. Izen arruntekin

1.2.1. Izen elkartu gisa

Kale edo *plaza* izenaren lehen osagaia izen arrunt bat izan daiteke. Gaz-telaniazko deituran, batzuetan singularra eta plurala bereizten badira ere, eus-karaz, oso ongi dokumentaturiko usadio jator baten arabera, izen elkartu gisa ematearen aldeko gara, hots, inolako artikulua ez kasu markarik gabe: Konsti-tuzio plaza, Foru kalea, Komedia kalea, Soldadu plaza, Merkataria plaza, Portu kalea, etab. Eta ez **Konstituzioaren plaza, *Komediaren kalea, *Foruen kalea, *Merkatarien plaza* edo **Portuko kalea*. Bereziki aipagarria da Iruñeko kasua bertan dinda eta ez kale erabili izan delako, aurrek ohitzari lotua: *Urredinda, Zakudinda*.

1.2.2. *Genitibo markarekin*

Hala ere, zenbaitetan, ez zaigu iruditu bidezko artikulua ezabatzea. Izan ere, batzuetan, sitnaxiak hala eskaturik genitiboaren hondarkia nahitaezko gertatzen da: *Etxebarritarren plaza / Plaza de los Etxebarri, Euskal Kortsarioen kalea / Calle de los Corsarios Vascos*, esaterako.

Genitiboaren hondarkia ezin ezaba daiteke, bestalde, deizioaren mugatutasunak artikulua azaltzea eskatzen duenean. Hori gertatzen da, adibidez, izen bereziaren ondoan izen generikoa azaltzen denean, bereziki pertsona izenaren ondoren lanbidea edo gainerkao izen edo adjektibo deskribatzaileraren bat dugunean. Adibidez: *Arbos Musikariaren pasealekua, Iratxeko Monasterioaren kalea, Atxukarro doktorearen kalea, Los Arcos Jeneralaren plaza*, etab.

Hala ere, erabilerak generikoa desagertarazi duenean hobe da izen berezia soilik ematea: Jose Elozegi kalea, Atxukarro kalea, etab. Ez da horrelakorik proposatzen generikoa kentzea nahasgarria izan daitekeenean, izen berezia errepikatzen den kasuetan esaterako.

Genetibo marka ezin ezabatw gertatzen da, orobat, artikulua nahitaezkoa dugunean: Abuztuaren Hogeita Hamaikako kalea (1), *Alfontso VIII.aren kalea, Ternuako Arrantzaleen kalea*.

1.2.3. *Leku-genitiboarekin*

Batzueta —kasu gutxitan, egia esan— deizioak leku bati erreferentzia egiten dienez gero, *-en* genitiboaren ordeez, *-ko* leku genitiboa izango dugu *Ategorrietako galtzada zaharra, Urdinzubiko kalea, Solokoetxeko igogailua, Narros Etxeko kalea*, etab. Nongo kasua erabiliko da bestalde leku batean kokaturiko eraikuntza bat izendatzean (*zubi, tunel, ate, zoko, bastioai, e.o.*) izendatzean, hori baita erabilera jatorra *Deustuko zubia, Telleriako portalea*, kasu.

1.3. **Kale izena toponimo zahar bat denean**

Horrelakoetan izena bere horretan errespetatuko da, forma ihartutzat emanez. Horrek esan nahi du batzuetan artikuluekin agertuko dela eta beste batzuetan artikulurik gabe. Nolanahi ere, kasu batean eta bestean hitza oso-osorik gordeko da, izen berezia balitz bezala. Horrela, *Abandoibarra* edo *Aranbizkarra*, alde batetik, eta *Illunbe* bestetik. Hala ere, artikulua agertzen bada dek-

(1) Abuztuaren Hamaika kalea egokia bada ere, gaur egungo usadio zabaldunea denbora marka erabiltzea denez horrela proposatzen da.

linatzea Bizkaia moduan egingo da: *Abandoibarra*, *Abandoibarrkeo*, *Abandoibarretik*, etab.

1.4. BIDE osagaia duten kaleak

Hauetan, bide osagaiak aski informazio ematen duenez, *kale* hitza ez idaztea gomendatzen da. Batzuetan artikularekin emango da; *Amezketobidea*, *Arbotantxabidea*, etab., eta beste batzuetan artikulurik gabe: *Aldapabide* edo *Iturribide*, adibidez. Horren arrazoia berezko erabilera da, *bide*-dun toponimoak horrela ibiltzen direlako. Orohar, toponimoa berria denean artikularekin emango da.

Bide osagaia aurreko hitzari itsatsia idatzi behar da, *Altxuenebidea*, *Errotazarbidea*, *Murgilbidea*, salbu ezkerreko elementu hori bi hitzez edo gehiagoz osatua egon, edo gaztelaniaikoa denean. Adibidez: *Elbira Zipitria Andereñoaren bidea* edo *Aingeru Zaindariaren bidea*.

Compostelara joateko erabilitako bidea dela eta gogoratu behar da Euskaltzaindiak aspaldi hobetsi zuela Dobejakue bidea izena, eta ez *Santiago bidea* edo horrelakorik.

2. PERTSONA IZEN-DEITUREN GRAFIA

Dudarik ez dago arlo hau dela korapilotsuena eta zailea ebazteko. Bidezkoena hizkuntza bakoitzari berea ematea denez deiturak jatorrizko hizkuntzaren idazkeran emango dira. Hala ere Espainia edo eta Ameriketako euskal deitura dutenak ugariak izanik gogorra litzateke haiei ere aldatzea, *Bolivar askatzailea*, esaterako, eta horrelakoetan bere horretan uztea proposatzen da. Gauza bera gertatzen da garaikideak izan eta deitura euskalduntzeko aukera edukirik ere euskaldun ez dutenekin (*Gabriel Celaya* edo *Pio Baroja* modukoak). Ponte izenen kasuan berriz jabeek erabili zuten moduan jartzea erabaki zen, izen bikoitza, hala erabili zutenentzat gordez.

Euskal Herriko zenbait pertsonaia historikoren kasuan bidezkoa da euskaraz ematea, *Bernat Etxepare*, konparaziorako. Ez da gomendatzen mende honen hasierako itazkera. Beraz, *Uriarte*'tar *Jose Andoni*-ren ordainez, *Jose Antonio Uriarte* emanen da.

2.1. Erdal izenak

Orohar, erdal izen-deiturak, dauden-daudenean utziko dira: *Calle Arturo Campion* / *Arturo Campion* kalea.

Dena dela, azentuari dagozkion seinu diakritikoak, hots, tilde ikurrak ezabatzea proposatzen dugu.

2.2. Euskal izen-deiturak

Gorago esan bezala euskal deiturak euskal ortografiarkein eman dira, soil soilik. Ponte izenak, berriz, bere horretan utzi dira, idazkera bikoitza pertsonaia historikoa izan edo hala erabili zutenentzat utziz. Beraz: *Calle Isidro Antsorena / Isidro Antsorena kalea, Calle Julio Urkixo / Julio Urkixo kalea, baina Calle Bernat Etxepare / Bernat Etxepare kalea, Calle Juana de Albret / Joana Albret kalea*, etab.

3. EUSKAL LEKU IZENEN IDAZKERA ETA ERDARAZKO KALE IZENEN ITZULPENA

Euskal toponimo batez osatutako izenak, euskal grafiara egokituko dira, izen bakarra emanez: *Zarautz, Zuhatzu, Deustu*, eta. Hala ere, hizkuntza bietan tradizioa desberdinak daudenean izen bakoitza proposatzen da: *Donostia/San Sebastian* esaterako.

Erdal izen arruntak (*Ferrerios, Los Pinos, Astilleros, San Juan*, etab.) ihar-tu gabe daudenean, euskara itzuliko dira: *Oleta, Pinueta, Ontzitegi*, etab.

Badira, ordea, beste deitura, askotan berriagoak, erakunderen bati dago-kionak, *Jabonera de Deusto* esaterako, hauek izen berezitzat har daitezke eta, horrenbestez, tradiziozik ez den bitartean, ez dugu ukitu beharrik ikusi.

4. SANTU IZENA DUTEN KALEAK

Gure tradizioan, baita literaturan, bai onomastikan eta bereziki hagioto-ponimian horrela agertzen diren santu izen zaharrkein aposizio honetaz hor-niturik azaltzen direnekin (2), *Done, Dona* erabiltzea gomendatzen da, *San, Santa* adjektiboak gainontzekoentzat utziz. Hortaz, *Done Bladi kalea, Done Bi-kendi kalea*, baina *San Frantzisko kalea*. Kristoren ama izendatzeko *Andre/a Maria* hobesten da, tokian tokiko erabileraren arabera.

(2) Dona. Alodia, Grazia/Garazi, Julia, Maria, Mariana, Pia. Done: Agustin, Bikendi/Bizente, Blas/Bladi, Emiliano/Millan, Erroman, Eztebe, Felix, Fruktuoso/Murtuts, Jakue (Donejakue bidea Compostelera zihoan bidea izendatzeko), Joane (Donibane), Julio, Jurgi, Kosme, Kristo-bal/Kristobare, Laurendi, Leon, Martie/Martin, Martzelo, Meteri, Mikel, Paulo, Pelaio, Petri, Sal-batore, Saturdi, Sebastian, Tomas eta Zipriano.

5. KALE EDO PLAZA HITZA AIPATU GABE ARITU BEHAR DENEAN NOLA JOKA?

Errotulazioak aparte, “kale” hitza eman gabe hitzegin nahi denean, toponimoak, izen sintagma normalizat deklinatu beharko lirateke: baldin artikulua badute, artikuluarkein (*Harrian, Harriko, Harritik*, etab.) eta ez badute, gabe, izen propio gisa: *Gaztelubiden, Gaztelubidetik*, etab.

Pertsona izena duten kaleetan ere, izen hori osorik hartuko da: *Antonio Gaztañetan, Iparragirren*, etab.

Baina izen elkartu modura eratutako izenetan (*Konstituzio plaza, Foru pasealekua, Bake plaza*, etab.) arazoa sortzen da. Izan ere, kasu batzuetan pluralean eman beharko litzateke: *Foruetan*, beste batzuetan berriz singularrean *Konstituzioan*. Beste zenbaitetan, azkenik zentzugabekeria litzateke generikoa kentzea: *Bakean, Geltokian* edo *Eskolan* esaterako. Hortaz, izen elkartu gisa emandako kale izenetan ezin da generikoa (kale, plaza, etab.) kendu: *Posta kalea, Foru plaza, Iturri kalea*, etab.

Bestalde, eta hau inportantea da, sarrietan helbideak jartzerakoan, ez da “kale” hitza agertzen. Orduan absolutiboan emango da kalea: *Done Blodi, 4, Joan XXIII.a, 3*; etab. Baina, *Konstituzio plaza, 5, Foru pasealekua, 12*, etab.

6. AZKEN OHARRAK. XAFLEN DISEINUA ADIERATZEKO IRIZPIDEAK

Euskara eta gaztelaniaz, hitz ordenari begira, aski desberdinak direnez, biderik egokiena hizkuntza bakoitzari bere xafla eskaintzea da. Leku askotan plaka bakar batenn eta sarritan elkarren hurren eman dira kale izenak *Avenida de Algortako etorbidea*, esaterako, erabilera okerrak (batez ere gaztelaniaz) sortuz: “*vivo en la calle Algortako*”. Beraz egokiena holakoetan xafla bitan ematea da.

Bestalde, euskaraz artikulw eta kasu marka hondarkian bat eginik azaltzen baitira, ezin daitezke bi osagaiak berezikirik idatzi, gaztelanizkoa *de* preposizioarkein gertatzen denaren kontra. Hori dela eta *Antso Jakituna-ren kalea* moduko idazkerak okertzat aitortu ditugu. Holakoetan berezi liteke *Antso Jakitunaren kalea* moduko idazkerak erabiliz, baina sistema honek ez luke balioko pluralerako, pluralean artikulua eta genitiboa marka bat eginda agertzen baitira. *Nafarroako Errege-erreginen kalea-ren* kasuan, adibidez. Aurrekoa ikusita bereizketarik ez egitea proposatzen da.

JAGON SAILA

Aramaio, 1999-IX-25

Sailburua: Miren Azkarate

Sustapen batzordea:

Burua: Andres Urrutia

Idazkaria: Gotzon Lobera

Kideak: Juan Mari Lekuona, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Pierre Charritton, Henrike Knörr, Juan San Martin eta Erramun Baxok.

Corpus batzordea:

Burua: Miren Azkarate

Idazkaria: Jose Ramon Zubimendi

Kideak: Dionisio Amundarain, Joseba Butron, Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Xabier Mendiguren eta Patxi Iñigo.

**1899-1999: EUSKAL JAIEN MENDEURRENA DELA ETA
IV. JAGON JARDUNALDIAK ARAMAION**

Aramaio, 1999-IX-25

Antolakizuneko batzordea:

Patxi Goenaga, Jose Luis Lizundia, Itziar Rekalde, Pello Telleria,
Juan Jose Zearreta.

EUSKALTZAINDIAREN ARAUGINTZA (IV)

Aramaio, 1999-IX-25

*Miren Azkarate,
IV. Jagon Jardunaldiak*

Aurreko urteetan bezala, euskaltegi, komunikabide, administrazio, nahiz euskalgintzan diharduten beste edozein esparrutako langileen galderei erantzuten saiatu gara. Aurreko urteetan bezala, galdera askotxo dago oraindik ere erantzunik gabe geratuko dena. Dena den, mezu orokor modura, hauxe esango nuke: galdera horien atzean, behin baino gehiagotan, “arau”aren aldeko kezka handiegia dugula iruditu zaidala. Komeni da entzuten eta erabiltzen dugun euskara zuzena ote den, egokia ote den, kezka izatea. Baina ardura horrekin batera, normalizat hartu beharko genuke aukera bat eta bestea, guztiak onargarri izatea, guztiak erabilgarri euskara batuan. Gramatikalak ez diren egiturak dira baztertzekoak; eta, ondoren, batasunerako hain gomendatzeko ez direnak, eremu urri batean baino erabiltzen ez direnak (eta hauek ere, erabil daitezke leku jakin bateko ñabardura eman nahi badiogu gure testuari). Oro har, beraz, Hiztegi Batuko irizpide berak izan beharko genituzke begien aurrean, nire iritziz, sintaxi-egituren kontuan.

Txosten honetan, aurreko urteetakoetan bezala, gaika sailkatuko ditut galderak (edo horretan ahaleginduko naiz behintzat). Puntu bakoitzaren azpian ageri diren esaldiak, askotan ondoren “(zuzen)” edo “(oker)” marka daramatenak, jaso ditugun galderak dira (eta zuzenak ala okerrak diren, galderagileen iritzia da). Batzuetan “Iruzkina” ere ageri da; hori ere galderagileek egina da. Ezkerrean azaltzen den E: letrak, nire erantzuna hor hasten dela adierazten du.

1. Auzi orokorrak

a) Arauak eten gabe aldatzen omen ditugu:

“Hainbeste aldaketarekin, dena zalantzan jartzera iritsi gara”.

“Nik somatzen dudan arazoa zera da: oraindik ez daudela arau guztiak gure esku eta zenbait kontutan oraindik azken arauak eskuratu gabe ditugunez, zalantzaz josita aurkitzen garela. Bestalde, hainbeste aldatzearen ondorioz, dena zalantzan jartzera iritsi gara”.

“Zergatik aldatzen dira arauak hainbeste? Aldatu direnak behin-betiko arauak izango dira edo berriro esan beharko diegu ikasleei ikasi dutena ahaztu egin beharko dutela beste gauza berri bat ikasteko? Honekin ez nuke arauak aldatzearen kontrakoa naizenik ulertzerik nahi. Hori ondo iruditzen zait, baina behin-betikoak izan daitezela! Uste dut ulertu behar dela ikasleak askotan haserretzen direla entzuten dutenean zerbait berriro aldatu dela. Beraien galdera hauxe da. Guk ikastaroa amaitzen dugunerako arau berri gehiago agertuko da? Nik ulertu egiten dut beraien jarrera. Askotan ez dakizu gauza bat ondo azaltzen ari zaren ala ez. Honekin batera hauxe dator ondo egin duzun ala ez dakizunean. Zurekin lan egiten duen beste irakasleekin elkartu eta ikusten duzu elkarri galdetzeko gero eta zailantza gehiago dugula. Zer gertatzen da? Gero eta gutxiago dakigu ala genekiena ez da orain jakin behar duguna?”

E: Aurreko urteetan ere jaso ditugu hauen antzeko galdera eta kexuak. Egia da ikasle eta irakasle askoren kezka ageri dela goiko lerroetan. Hala ere, kontuan izan behar dugu euskara oraindik ere estandarizazio bidean dela. Batasunerako ereduak ez da guztiz amaitua. Urtero biltzen ditugun galderek berek adierazten dute oraindik badugula zer arautua (edo honelako edo halako egitura batasunerako onargarri den ala ez erabaki beharra). Eta arauak emateko, Euskaltzaindiak literaturako erabilera hartzen du batik bat oinarri; literatura-tradizioa ezagutzeko datu-baseak ez ditugu oraintsu arte eskuratu (eta oraindik ere, gaur goizean ikusiko duzuen bezala, euskarri erosagoetan izan beharko genituzke). Horrek guztiak denbora eskatzen du. Gertatzen dena da bitartean ezin garela mutu geratu: liburuak eta egunkariak argitaratzen dira, irrati-telebistek beren eguneroko lanean jarraitzen dute... Eta forma jakin batzuk hedatzen dira. Euskaltzaindiak kontuan hartzen du zein den azken urteetan nagusitu den erabilera; baina ezin dio azken urteetakoari bakarrik begiratu. Tradizio osoa izan behar dugu kontuan arauak ematerakoan, iraganaren eta etorkizunaren artean eten handiegirik gerta ez dadin.

b) Euskalki desberdinetako hitzak nahastea zilegi al da batasunean?:

“Engoitik alferrik da eta ez dut ezer galdetu gura” (oker)

“Horrezkero alferrik da eta ez dut ezer itaundu gura” (zuzen)

“Honezkero alferrik da eta ez dut ezer galdetu nahi” (zuzen)

“Engoitik alferrik da eta ez dut deus galdetu nahi” (zuzen)

Iruzkina: apika, ur handiegitan sartu gara hemen, baina koherentzia testualak eta lexikalak ez dute euskalkiekin txukun antzean jokatzera behartzen?

E: Behin baino gehiagotan eztabaidatu da auzi hau. Euskaltzaindiak ez du ezer esan, eta euskaltzaleen iritzia bereiz dabilta. Batzuen iritziz, benetako batasuna, hango eta hemengo hitz eta egiturak nahasi erabiliaz lortzen da. Beste batzuen ustez, oster, hobe litzateke euskalkiak ez nahastea.

2. Ortografia

“ll” mantentzen al da hitz hauetan?: tortilla, pastilla, bonbilla...

E: Hiztegi Baturako *bonbilla* onartu zen, aldamenean *Heg.* marka emanaz. Era berean, oraindik argitaratu gabe dagoen arren, *pastilla* onartu du Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan. Eta, *tortilla* h. *arrautzopil* da T letrako zerrendan dagoen proposamena (oraindik onartu gabea).

3. Ahoskera

a) “Ahoskatze kontua, eta oro har, Euskara Batuaren Ortoepia arazo larria da oso. Zein eredu irakatsi behar diegu gure ikasleei? Zer gertatzen da azentua eta kontsonante multzoen ahoskerarekin? Gure ustez Euskaltzaindiak Euskara Batuaren Ortoepia Batua ere bultzatu behar luke: ahozko kodearen arautzeari ekin behar lioke euskararen irakaskuntzaren mesedetan”.

b) Ahoskera: “ez dago > eztago; ez gara > ezkara” eta “hil zen > hiltzen; omen zuen > omentzuen”?

c) “Doinuak duen garrantzia jakinda, aditzen arau fonetikoak biltzen dituen txosten bat lagungarri izango genuke”.

E: Euskaltzaindiak, 1998ko ekainaren 26ko bileran onartu zituen ahoskera zaindurako arauak, eta urte horretan bertan argitaratu. Hor aipatzen da nola ahoskatu behar genituzkeen bokalak eta kontsonanteak, bai eta kontsonante bilkurak ere. Arau horietan gomendatzen denaren arabera, hauexek lirateke ahoskera zuzenak:

<eztago> <ezkara> <hiltzen> <omentzuen>

Ahoskera lantaldeak jardun du ikastaroak ematen, eta aurrerantzean ere aztertuko du arau horiek osatu beharrik dagoen, eta horiek hedatzeko biderik egokienak zein izan litezkeen.

4. Aditzaren ingurukoak

a) *Ahal izan*:

“Oso esparru zabala duen aditza da, era ezberdinetan erabiltzen duguna gainera. Guk forma arruntenak eta erabilienak zein diren jakin nahi dugu eta nork, norekin, noiz, zertarako e.a. kontuan hartuz egokitasunez erabiltzen irakatsi ere bai”.

E: Honetaz, Gramatika batzordeak *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* liburuan, 18.4.1. puntuan (420.-423. orrialdeetan) esaten duena da gomendatuko nukeena: uste dut erabileragusiak hor aurki daitezkeela.

Ahal desirazkoa (“ez ahal da oinez etorriko!”) / *ahal* ahalezkoa (“ez da oinez etorzen ahal”).

Ahalezko balioan, aditz laguntzaile guztiekin ager daiteke, beti ere aditz nagusiaren erregimenaren arabera:

joaten ahal da
egiten ahal dugu
joan ahal naiteke
egin ahal dezake

Eta ez dirudi, *-kedun* formetan, *ahal* erabiltzeak esanahia aldatzen duenik (“egin ahal dezake”, “egin dezake”).

Aspektuari dagokionez, aspektu burutua *izan* edo *ukan* partizipioen bidez adierazten da, aditz nagusia gehienetan partizipioa izanik (euskalki batzuetan aditz izena ere bai):

aski goiz etorri ahal izan da
liburuak erosi ahal izan ditu
horri esker ikasten ahal izan dut munduaren berri

Aspektu burutugabea, *ahal*-ek berak bakarrik adierazten du, aditz nagusia, euskalkien arabera, partizipioa edo aditz izena izanik:

etorri ahal naiz
etortzen ahal naiz

Geroaldia markatzeko, ostera, forma bat baino gehiago aurki daiteke; badirudi erabilienak, geroaldiaren marka *ahal*-i zuzenean erantsi, eta aditz nagusia *-tu* edo *-izen* formak daramatenak direla:

ikusi ahalko dugu
ikusten ahalko dugu

nahiz geroaldiaren marka *izan* aditzari ere lot dakioken:

ikusi ahal izango dugu

Funtsean, gramatiketan-eta ageri diren datuak dira. Hortik aurrera, Euskaltzaindiak ez du azterketa berezirik egin, ez batasunerako araurik eman. Dena den, Gramatika batzordea ari da aditz “modal” hauen erabileraz arau-proposamena prestatzen, bai baitirudi gramatiketako forma horien artean, ez dutela guztiek pisu bera izan eta puntu batzuek —aditz nagusiaren aspektuari dagozkionak, edo geroaldiko forma nagusiak zein diren— hobeto aztertu beharrekoak direla esango nuke.

Ahal izan dela eta, beste galdera hau ere jaso dugu: “Etortzen ahal zara” Mendebaldean bultzatu behar ote dugu?

E: Ez dago bereziki bultzatu beharrik; nahikoa da jakitea (edo irakatea) egitura hori zuzena dela euskaraz, erabil daitekeela, eta batez ere ekialdeko euskalkietakoa dela.

b) Aspektuaz:

Izan dira galderak, aspektu burutugabea erabiltzea zilegi ote den zalantzan jarriaz (areago, oker dagoela esanaz) eta horren ordeztu euskaraz aspektu burutua bultzatuaz:

“Realak hogeigarren minutuan sartzen zuen lehenengo gola” (oker)

“Realak hogeigarren minutuan sartu zuen lehenengo gola” (zuzen)

E: Euskaltzaindiak ez du ezer arautu ez gomendatu kontu honen gainean. Hala ere, esango nuke goiko perpausak, biak direla zuzenak, zer esan nahi den. Lehenak adieraziko luke iraganean Realak hogeigarren minutuan gola sartzea behin baino gehiagotan gertatu zela, behin eta berriro errepikatzen zen gertaera zela. Bigarren perpausak, ostera, hogeigarren minutuan gola sartzea iraganean behin gertatu zela ematen du aditzera. Futboleko horrelako gertaerak errepikatzea zein zaila den kontuan izanik, normalena, jakina, bigarren perpausa izango litzateke.

Edo, etorkizuneko kontuez ari garela, aspektu burutugabea erabiltzea txarizat ematen dute kontsultagileek, honako bikote honetan:

“Gauean zinera joaten gara?” (oker)

“Gauean zinera joango gara?” (zuzen)

E: Lehen perpausa bezalakoak sarri entzuten ditugu azken urteetan; hala ere, badirudi, bigarrena jatorragoa dela.

Edo aspektu puntukaria gaitzetsi, eta burutugabea erabili beharko litzatekeela adieraziaz ere iritsi zaigu kontsultaren bat:

“Zergatik ez zoaz salto batean dendara ogi berria ekartzera?” (oker)

“Zergatik ez zara joaten salto batean dendara...” (zuzen)

E: Literatura tradizioa hobeto aztertu beharko litzateke lehena oker dagoela esan aurretik, nik uste.

c) *Egon / izan, ibili...*

“Asteburu honetan ziza biltzen **egon gara** Isaban” (oker)

“Asteburu honetan zizak **hartzen** izan gara Isaban” (oker)

“Asteburu honetan ziza biltzen **izan gara** Isaban” (zuzen)

“Asteburu honetan ziza biltzen **ibili gara** Isaban” (zuzen)

“Pilotan jokatzeko **egon gara** 5:00etatik 6:00etara” (oker)

“Pilotan jokatzeko **aritu gara...**” (zuzen)

“Atzo klinikan **izan nintzen**, ama bisitatzen” (zuzen)

“Hamabost egun **egon naiz** klinikan, heste-soberatik operatuta” (zuzen)
 “Telebista ikusten **egon naiz**” (zuzen)

E: Behin baino gehiagotan entzun dugu *lanean egon* dena ez zela gehiegi nekatuko. Gomendagarriagoak dira, nik uste, adibide horietan zuzentzat ematen direnak. Hala ere, ez da gomendio berezirik eman puntu honetaz (literaturako erabilera ez da berariaz aztertu), eta gerta daiteke, euskalki batzuetan eta besteetan erabilera desberdinak aurkitzea. Hobe, beraz, zorrotzegi ez jokatzeari.

5. Aditzen erregimena

a) *Jolastu*:

“Jolastuko dugu” ala “Jolastuko gara”?

E: *Da* ad. ematen da Hiztegi Batuan, *jolastu* aditzaren erregimentzat.

b) *Bihurtu*:

Aditz honekin zein da zuzena:

“Emakume eder bihurtu da” ala “Emakume ederra bihurtu da”?

E: Gai hau ere Leioako biltzarreko txostenean aztertu zen eta, literaturako erabilerak aztertu ondoren, hala zioen orduan Gramatika batzordeak: “Predikatua izen soila denean arautzat eman daiteke mugagabea dela («eguna gau bihurtu da»). Baina izena bestelako ingurukariz (hala nola, izenondo, izenlagunez, partizipioz, adjektibo superlatiboz nahiz konparatiboz, eta abar) janztean, hor goiko lehen hamaika exenpluetan bezala, araua joera hutsa gertatzen da eta mugagabearen ordezkari predikatua mugatua duten salbuespenak nahitaezkoak dira”. Hor aipatzen diren adibideetako batzuk hauek dira:

ornamentik ederrena bihurtu baita
 emakumerik ederrena bihurtu ahal banendi
 arnas huts-hutsa bihurtu banintz bezala
 zure bizi moldea guretzat damugarriagoa bihurtzeko
 bihurtu ziraden buztin kolorekoak
 bihurtu ziren demonio itsusi nazkagarriak

Beraz, biak daude zuzen, bai “Emakume eder bihurtu da” eta bai “Emakume ederra bihurtu da”.

c) *Behartu*:

“Ikustera/ikusten behartu naute”

E: Hiztegi Batuko batzordeak erantzun hau eman zuen 1996an: “*Behartu* aditzaren konplementazio hedatuena *-tzer*a da (“*lana ongi egitera behartu zuten*”; ik. *Orotariko Euskal Hiztegia*).

d) *Bakean utzi*:

“Bakean utzi”: Nor-nork? Nor-nori-nork?

“Utz nazazu bakean” (?)

“Utzidazu bakean” (zuzen)

E: *Orotariko Euskal Hiztegiko* adibideak ikusirik, oro har, Mendebaldean *zion* (hau da, nor-nori-nork), eta Ekialdean, *zuen* (hau da, nor-nork):

Agindu *zion*, bai, haren arrebari bakean uzten bazion, hark ere utziko ziola hari (Orixe)

Lehen Antiochus hark bakean utzi bazituen Juduak... (Zerbitzari)

Batasunerako ez da ezer hobetsi. Kontuan izan, lehen ere onartu direla euskalkien araberrako erregimen bikoitzak, *lagundu*, *deitu* eta beste aditz batzuekin. Beraz, biak dira onargarri, bai *utz nazazu* eta bai *utzidazu*.

e) *Berdin izan*:

“Berdin dit / zait?” Zein?

E: Tradizioko datuak ikusirik, laguntzaile batekin baino gehiagorekin erabiltzea onartu da batasunean. Hiztegi Batuan, hala ageri da:

berdin izan *da/zait/zaio* ad.; *du/diot/dio* ad.

f) *-tzera geratu / gelditu*:

“Arotxanean geratu ginen afaltzera” (oker)

“Arotxanean geratu ginen afaltzen” (zuzen)

“Arotxanean sartu ginen afaltzera” (zuzen)

“Arotxanera sartu ginen afaltzera” (zuzen)

“Ikustera/ikusten gelditu naiz”

E: Hiztegi Batuko batzordeak ez ditu sakon aztertu oraindik datuak. Gerta daiteke euskalkien artean erregimen desberdina izatea, Haranederren adibide honek erakusten duen bezala:

Behin ere gelditu gabe zuri gerla egitera (Haraneder)

g) *Ausartu*:

“Ikustera/ikusten ausartu naiz”

E: Euskalkien arabera: Ipar-Ekialdean *-tzera ausartu*, Mendebaldean *-tzen ausartu*. Batasunerako ez da aukerarik egin, bata hobetsiz. Beraz, zuzenak izateaz gain, euskara batuan biak erabil daitezke.

h) *Jarraitu*:

“Ni bideari jarraitu natzaio” / “Nik bideari jarraitu diot” Biok ondo?

E: Hiztegi Batuari arabera, “Nik bideari jarraitu diot”, *jarraitu, du/dio* aditza baita, eta “Ni bideari jarraiki natzaio”, *jarraiki* aditzaren erregimena, *da/zaio* baita.

i) *Barkatu*:

“Barka nazazu” (oker)

“Barkaidazu” (zuzen)

E: Hiztegi Batuan ez da laguntzailerik ageri sarrera honetan (osatuko dugu guztia batera argitaratu aurretik). *Orotariko Euskal Hiztegi*ko adibideak ikusirik, eta Sarasolaren *Euskal Hiztegi*ak dioena (“pertsona bati dagokionean, *dio* ad.), *barkaidazu* (edo *barka iezadazu*) da forma jatorra.

j) *Irten, igo*:

“Irten / igo du” esan daiteke?

E: Hiztegi Batuan *irten da* ad. dela esaten da; Bizkaian, eta Gipuzkoaren zati batean ere *irten (erten) du* esan arren, euskalki mailako erabileratzat hartuko genuke.

Igo aditzari ez zaio erregimena eman argitaratua dugun Hiztegi Batuko zerrendan. Sarasolaren *Euskal Hiztegi*an, bi laguntzaileak ageri dira, nahiz nagusia *da* izan.

k) *Bukatu*:

Badago esaterik:

— “Hitz egiten bukatu du”

— “Hitz egitea bukatu du”

— “Idazten bukatu dugu”

— “Idaztea bukatu dugu”?

E: *Orotariko Euskal Hiztegi*an honako adibideak aurkituko ditugu:

Amak bukatu zuenean garbitzez, hartu zuen palangana...

Esatez bukatu baino lehen

Jaten bukatu arte

Belen mintzatzen bukatu zenean...

Arrautza jatez bukatu

Horiek dira tradizioa dutenak. Ez da araurik eman, batasunerako egitura jakin bat gomendatuaz.

6. Izen sintagmaren ingurukoak

a) Mugatzailea / *bat*:

“Aitak kotxe berria erosi du” (zuzen)

“Aitak kotxe berri bat erosi du” (oker)

Iruzkina: normalean kotxe bakarra izaten dugu, beraz “bat”, sarriegitan, batere beharrik gabe erabili ohi dugu. Baina, halabeharrez, bigarren kotxea baltz, “aitak beste kotxe bat erosi du” izango litzateke esaldi zuzena.

E: Hala da. Honetaz, ikus daiteke *Euskal gramatika. Lehen Urratsak-I*, 173.-183. orrialdeak.

b) Erakuslea + mugatzaille hurbila:

“Honako erabakiekin” (oker)

“Honako erabakiokin” (zuzen)

“Honako erabaki hauekin” (zuzen)

E: Hirugarren graduako erakusletik datorren artikulua, *-a*, aspaldi gailendu zitzaizen gainerakoei, eta gogorregia da *honako erabakiekin* oker dagoela esatea. Besterik da, beste egitura batzuk ere badirela irakastea (hor ageri diren biak, esaterako), edo *honako*-rekin askotan lehen graduako erakuslea erabiltzen dela esatea. Beste hitz batzuetan esanda, *honako erabaki hauekin* hobets daiteke, lehena okerra dela esan gabe.

c) *Gure / nire*:

“Gure andreak, gure amak, gure senarrak dioenez...” (zuzen)

“Nire andreak, nire amak, nire senarrak dioenez...” (oker)

“Gure amak esan dit bazkaltzera goiz joateko” (zuzen)

Iruzkina: batzuetan, erderaren eraginez, posesibo eta determinatzaile gehiegi erabili ohi dugu.

E: Behar bada bai, askotan genitiboaren beharrik ez dugu euskaraz. Dena den, Euskaltzaindiak ez du gomendiorik eman honen gainean. Hala ere ez nintzateke ausartuko *nire andreak* edo *nire amak* oker dagoela esaten; esan daiteke, nahi bada, euskaraz hainbat lekutan, behintzat, *gure* erabiltzeko ohitura dagoela (edo egon dela).

d) Irratiko adibidea “Hiru kidezik bik jaso zituzten tratu txarrak”. Ez al da ‘Hirutik bi kidek...’ Zergatik? Zein da egokia?

E: Nik uste irratian entzundakoa guztiz zuzena dela. Hala erakusten dute, behintzat, *Orotariko Euskal Hiztegitik* hartutako adibideek:

“Bi hitzetarik bat” (Hiriart Urruty)

“Etsaien hirurogei ontzietatik hiruk baizik ez zuten ihes egin” (Mendiburu)

“Begiztatuak zeuzkaten lau zezenetarik hirurak atzemanik...” (Iztueta)

“Ehun artzainen artean laurogeita hamar gutarrak izan ohi dira” (Azkue)

Badira “hirutik bi kidek” egituraren parekoak ere, baina askoz gutxiago erabiltzen direla esango nuke:

“Hamarreti hiru bidar ez diriala etxean sartuten...” (Fray Bartolome)

Izan ere, halako egituretan, izena bi zenbatzaileei dagokie, eta badirudi errazagoa dela ulermenerako ezkerrekoarekin agertzea (hau da, lehen aipatzen den zenbatzailearekin), eta eskuinekoan uztea aipatu gabe. Oro har, joera, elementu guztiak lehen aldian azaltzea da (beraz, ezkerrean), eta gero, errepikatzen direnak, aipatu gabe utzi.

e) **-tzat (prolatiboa):**

“Bizitzari zentzua emateko, fedea hartu zuen oinarri” (zuzen)

“bizitzari zentzua emateko, fedea hartu zuen oinarritzat” (oker)

“zure erabakia ontzat eman dugu” (zuzen)

“Zu zinen, beraz! Bada, nik Olegiko Patxitzat utzi zintudan” (zuzen)

“Maisutzat hartu eta apaiza izaki” (zuzen)

“Txomin hartu dugu musika-irakasletzat” (oker)

“Txomin hartu dugu musika-irakasle” (zuzen).

Iruzkina: -TZAT prolatiboa sarri askotan oker erabiltzen ote dugun susmoa daukat. Gauza segurua eta ziurra denean, uste dut ez dela prolatiboa erabili behar, beti ez behintzat, ustea edo iritziarekin baizik.

E: Prolatiboaren erabilera arautzea, noiz bai eta noiz ez zehaztea, ez da gauza erraza. Dena den, *Euskal Gramatika Laburra* hartuz gero (491.-493. orrialdeak), prolatiboa, aditz jakin batzuei loturik doan predikatu osagarriak hartzen duen atzizkia dela esango genuke, eta ez ziurtasunari edo usteari. *Orotariko Euskal Hiztegiko* adibide hauek erakusten dute, nire ustez, EGLUko interpretazioa zuzena dela, eta ezin dela esan “Txomin hartu dugu musika-irakasletzat” edo “oinarritzat hartu” oker daudenik, *kriadu hartu / kriadutzat hartu* bikoteak kontuan hartuz:

“Nik Martin hi Joanna hartzen haut neure alarozatzat eta hik har nazan hire esposotzat”

“Bere etxean hartu legian kriadutzat” (Kapanaga)

“Zorigaiztoan hartu hindudan neure etxean kriadu” (Irazusta)

“Ni naiz erregeren andregaia, nahi banauzu maitetzat hartu, gidatuko zaitut haren ikustera” (Pouvreau)

“Esaten zuten Jesus bera (...) beren erregetzat hartu behar zutela” (Mendiburu)

“Lahirigoi-en-Garat hartu du suhitzat” (Hiribarren)

“Nogez sarjanta, gizon galanta / hartu du kontseilari” (Zerbitzari)

“Gizonaren semea hartu behar duzue exenplutzat” (Larreguy)

“Meditazioneko geitzat edo sujetzat hartu behar du bat bederak bere beharrei dagokoten egia” (Duhalde)

Egia da, hala ere, adibide batzuetan argi ikusten dela “ustezko” izaera hori:

“Badira kristinau (...) hartu daruezanak pekatutzat pekatu ez dirianak” (Mogel)

“Horrela bizi dena ez da gizon, ametsezko gaztelua egiazkotzat hartu du-eta” (Villasante)

Hain zuzen, anbiguotasuna ere gerta daiteke *zu erregetzat hartu zaitut* bezalako perpausetan, bi esanahi izan baititzakete ‘errege zarela uste izan dut (baina ez da hala)’ edo ‘errege izateko asmotan hartu zaitut’.

Hemen sartu dut hurrengo galdera ere, predikatu osagarriei baitagokie hau ere.

“Mariaje hartu dugu laguntzaile bezala” (oker)

“Mariaje hartu dugu laguntzaile” (zuzen)

E: *Euskal Gramatika Laburreko* hitzak aldatuko ditut hona: erabilera dela eta, gero eta zabaltzenago ari da *bezala*, *legez*, *gisa* eta antzeko elementuez osaturiko esapideren bat erabiltzeko joera *-tzat*-en ordeztu:

*sorgin *bezala* hartu ninduten

Askoz ere zuzenago ematen du beste honek:

sorgintzat hartu ninduten

f) *Hobe / hobeto*:

“Realak gaizki jokatu du; hobe esanda, Zaragozak ondo jokatu du” (oker)

“Realak gaizki jokatu du, hobeto esanda, Zaragozak ondo jokatu du” (zuzen)

E: *Hobe* izenondoa denez, okerra da lehen perpausa. Gramatika batzordeak Leioako biltzarreko prestatutako txostenean argitu zuen kontu hau (II.12. puntua) (1).

g) **Leku-denborazko kasuak:**

— “Bi metroko aldea dago hemendik hara”, baina: “**bi metrotara** edo **metrotara** aurkituko duzu? Era berean, hurrengo hauetatik zein aukeratu? “Handik bost urtera/urtetara”, “Handik bost kilometrora/kilometrotara”.

— Nola esan behar da: “Hiru urtetan ala hiru urtean”. “Hiru kilometrotara ala hiru kilometrora”.

— “Hiru egunetan” ala “hiru egunean”.

— “Hirutik bat”, “Hirutatik bat”, “Hiruretatik bat”. Denak erabil daitezke?

E: Ez da araurik ez gomendiorik eman oraindik gai honen gainean. Gramatika batzordeak aztertua du Areatzan 1998ko uztaillean aurkeztu zuen Arau proposamenen multzoan. Hauxe da txosten horretan esaten dena:

“Inesiboan zilegi da mugagabea nahiz singularra erabiltzea; baina denbora ezberdinetakoa adierazteko, mugagabea erabili behar da soilik: *hiru egunean*

(1) Ikus *Euskera* 39, 1994, 3.

/hiru *egunetan* egin du gramatikako txostena. Baina hiru *egunetan* etorri izan da herrira (hiru egun ezberdinetan).

Maiztasunaren kontzeptua adierazteko zilegi da ondorengo edozein forma erabiltzea: *lau urtez behin* / *lau urtetarik behin* / *lau urterik behin* / *lau urtetatik behin* / *lau urtetik behin* *elkartzen dira*. Euskalkien arabera, forma bat edo beste nagusitzen da. Bizkaieraz, *lau urterik behin*; gainerako euskalkietan *lau urtez behin*; Bizkaiko ekialdean *lau urtetik behin*; Gipuzkoan instrumentalez gain forma hau ere bai; Iparraldean instrumentala eta *lau urtetarik behin...* hala ere guztiak dira zuzenak.”

Kilometro edo *metro* bezalako izenekin, tradizioa zein den aztertu gabe dago oraindik. Baina esango nuke denbora adierazten duten sintagmetan bezalaxe, euskalkien arabera, guztiak direla onartzekoak: *bi metrora* nahiz *bi metrotara*.

Azken galderari dagokionez, *Orotariko Euskal Hiztegia* hartu eta hiru sarrean haxe aurkituko dugu:

Hiruetarik bat (L, BN, S); *hirutatik bat* (G-goi-to); *hirutik bat* (V-m-gip, G-azp-goi), Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikotik jasotakoa.

Euskalkien arabera guztiak dira tradiziodunak; batasunerako ez da orain arte ezer hobetsi.

— “Bi egunez, bi egunetan ala bi egun” egon gara?

“Astebetez, astebeetan ala astebate” egon gara?

E: Gramatika batzordeak Areatzan aurkeztutako arau-proposamenetan ikusten den bezala, guztiak dira zilegi. *Egon* aditzarekin instrumentala, inesiboa nahiz absolutiboa erabil daiteke:

zortzi orduz / zortzi orduan / zortzi ordutan / zortzi ordu egon da zure zain

h) **Ehunekoa adierazteko:**

— % 1ak ala % 1ek? Portzentaiak nola deklinatu behar dira?

— Portzentaien deklinabide markak. Mugagabeen deklinatu behar diren arren, zenbaitetan singularra dagokio: “% 25ekoa”. Hala ere, ondoko hauetan zein da araua?: “% 25etik” ala “% 25etatik” / “% 25era” ala “% 25etara”.

E: Euskaltzaindiak ez du oraindik portzentaien deklinabideaz araurik eman. Gramatika batzordeak badihardu gai hau aztertzen.

i) **Zenbakiak:**

“Bi miloi zazpiehun mila pezeta tokatu zaizkit”, koma jarri beharra dago “miloi eta milakoaren artean”?

E: Horrelako zenbakiak ematen direnean, *eta* ipini behar da: *bi milioi eta zazpiehun mila pezeta* (edo *bi milioi, zazpiehun mila eta bostehun pezeta*, etab.).

j) **Besterik:**

“Ariketak besterik ez dut egin” ala “...ditut...”? Biak dira zuzenak?

“Lau gizon besterik ez ditut ikusi”

“Zuk esan zenituenak besterik ez nituen entzun”

“Besterik” honek egin dezake komunztadura plurallean ala singularra baino ez du onartzen?

“Lau gizon ikusi ditut, besterik ez”

“Zuk esan zenituenak entzun nituen, besterik ez”

E: Ez da araurik eman auzi honen gainean. Gramatika batzordeak Areatzako txostenean aurkeztu zuen arau-proposamena:

Besterik-ek ezkerretara daraman osagaia absolutiboan bakarrik joan daiteke, ‘absolutiboa + besterik ez + aditza’ egituran.

Horrelakoetan perpauseko aditzak *besterik*-ekin egiten du komunztadura, oro har:

a) Pertsonari dagokionez, dudarik gabe (*zu besterik ez dut maite*).

b) Numeroari dagokionez ere, hori da gomendioa (*ez zegoen bakar batzuk besterik*).

Gogoan izan ‘x + beste’ bezalako egiturak kasu guztietan erabil daitezkeela eta bi sintagmak kasu berean joango direla:

zuk bestek ez dit esan

gertaturikoa ez diot zuri beste inori esango

asteburuetan ez omen zara mendira beste inora joaten

k) **Predikatu sintagmak:**

“Gaur bero dago”

“Zopa bero dago? / beroa dago?”

“Babarrunak eder daude? / ederrak daude?”

E: bietako adibideak ageri dira Orotariko Euskal Hiztegiean:

Siku dago?

Hain daude ederrak, gozoak

Motela dago ardoa

Sustraia samur dago

Erbia gozo egon zen ala?

Gazia dago zopa

Hegoaldean behintzat guztiz normalak dira predikatu sintagma mugatuak (*beroa, ederrak*).

7. Joskera

a) "Idia adar eta guzti jango nukeenean nago" (zuzen)

"Etxea salduko lukeenean dabil" (zuzen).

Iruzkina: antzeko esaldiei buruzko argibiderik ez dugu aurkitu inon.

E: Ez dut horrelako egituren berririk; *Orotariko Euskal Hiztegian*, *egon* aditzari buruzko informazio luzean ere ez dator egitura horren lekukotasunik. Ez dirudi, beraz, forma hedatuegiak direnik literaturan behintzat. Lagungarri izango litzazuke non erabiltzen diren jakitea, etorkizunean argibideren bat eman ahal izateko.

b) Gerundioaz:

"Musika entzunez ikasten da lezioa" (zuzen)

"Zigarroa errez sartu da gelan" (zuzen)

"Txurroak salduz ateratzen du bizimodua" (zuzen)

"Kolpeak hartuz ikasten da oinez" (zuzen)

"Hegazkina erori da, ehun pertsona hilez" (oker)

"Hamarna kopa hartu genituen, egundoko mozkorra harrapatuz" (oker)

"Hegazkina erori eta ehun pertsona hil dira" (zuzen)

"Hamaika kopa edan genituelarik, egundoko mozkorra harrapatu genuen" (zuzen)

Iruzkina: gure ustez aldi berean gertatzen diren bi ekintza, eta instrumentaltasuna adieraz daitezke "-z"rekin, baina ondoriorik ez.

E: Gramatika batzordeak oraindik ez ditu aztertu egitura hauek. Hala ere, argi dago galdera egin dutenek zuzentzat eman dituzten egiturak zuzenak direla; badirudi okertzat eman direnak berri samarrak direla, eta erdal gerundioaren erabileraren kalkoz-edo sortuak (2). Baina gomendio zehatzagoak eman ahal izateko, gaia berariaz aztertu behar da. Beti bezala, hobe seguruak diren egiturak erabili eta irakastea.

"2. karpeta osatuz doa" (oker)

"2. karpeta ari da/gara osatzen" (zuzen)

"2 karpeta badoa osatzen" (oker)

E: Esan bezala, egitura hauek oraindik aztertu gabe ditu Gramatika batzordeak.

c) Konparaziozkoak:

"Erlijioa norbanakoaren barruko joera izan dadila, gizartearena baino" (oker)

(2) Merez du, Juan Garciak, *Joskera Lantegi* liburuan (3.6. puntuan), honetaz zer dioten irakurtzea, erdal gerundioei euskal ordain txukunak emateko bideak aurkituko ditu hor irakurleak.

“Erljioa norbanakoaren barruko joera izan dadila, gizartearena ez baino” (zuzen)

E: Gramatika batzordeak Leioako biltzarrean aurkeztu zuen txostenean, II.19. puntua horrelako egiturei zegokien, hain zuzen ere. Han, gaitzetsi egiten ziren goiko bi perpausetatik lehena bezalakoak. Aukera zuzenen artean, berriz, hauek egongo lirатеke:

“Gizartearena baino areago, erljioa norbanakoaren barruko joera izan dadila”

“Erljioa norbanakoaren barruko joera izan dadila, eta ez gizartearena”

“Erljioa ez dadila izan gizartearena, norbanakoaren barruko joera bai- zik/baino” etab.

Galderan zuzentzat ematen den egitura zenbateraino den hedatua, hobeto aztertzeko kontua izango litzateke.

d) “Zeinen eta bizkorra zaren, ni ez nauzu zure zepo horretan harrapa- tuko” (zuzen)

“Bizkorra bazara ere, ni ez nauzu...” (zuzen)

Iruzkina: esaldiok, gure ustez, biak dira zuzenak, baina lehenengo horri buruzko aipamenik ez dugu aurkitu gramatiketan.

E: Egitura horien hedadura, zein leku duten tradizioan... aztertu gabe dugu oraindik (lehenengo egitura hori ezezaguna zait).

e) -z gero (eta baliokideak):

“Etorri zealazkoa, eamazu zeorrek” (zuzen, Goierrin)

“Etorri zarelazkora, eraman ezazu zerorrek” (zuzena, batuan)

“Etorri zarenez gero, eraman ezazu zerorrek” (aurrekoaren esanahia)

Iruzkina: “esamodu hau herriko zaharren artean sarritan entzun izan dut (Rufino Iraola). Agian, lokalismo hutsa da. Bestalde, fonetika aldetik, baliteke hiztun alfabetatu gabeen ahoan, aldaketa izatea. Beharbada, <zarenez gero> horrek eboluzio-dejenerazioa da goiko hura: zarenez gerora?... zarenezkora?... etab. Beste probabilitate bat ere badago: <zarelako>tik eratorri izana”. (Oha- rra: ez da estutzen gaituen arazo bat).

E: Eskualde batekoak diren neurrian, zaila izaten da askotan literaturan lekukotasunak aurkitzea. Areago, zaila izaten da batzuetan ahoz sarri erabiltzen ditugun egiturak nola idatzi behar diren jakitea. Baliteke horrelakoa izatea kasu hau ere. Dena den, aztertzeke dago.

— “-z gero” egitura erabiltzerakoan, noiz erabili behar da “-(e)z gero”, kontsonantez bukatzen denean bakarrik? “Hartuz gero” ala “hartuez gero”?

E: -ez gero, partizipioa kontsonantez amaitzen denean erabiliko da; beraz, *hartuz gero*.

f) -Ondoko esaldi hau: “ez gara horretara **bakarrik** etorri, **baizik** eta...”

E: Zuzena da (ikus EGLU-IV (Juntagailuak), nahiz oso erabilera urrikoa izan. Askoz gehiagotan aurkituko dugu *baizik* soila.

g) *Ezezik* ala *ez ezik*?

E: Hiztegi Batuko zerrendan *ez ezik*. EGLU-IV (Juntagailuak) liburukiak hala dio: “bi idazkera izan ditu: bereizia —*ez ezik*— eta lotua —*ezezik*—. Hala ere, azertu diren testuen arabera, idazkera bereizia izan da erabiliena” (89. orr.)

h) **Baldintzak:**

— “Ezeren okerrik ez duela, pilotari bikaina aterako da” (zuzen)

“ezeren okerrik ez baldin badu, pilotari bikaina aterako da” (zuzen)

Iruzkina: biak sinonimoak dira. Kontua da, gure eskuetatik hamaika liburu eta gramatika pasa arren, oraindik ez dugula ikusi baldintzazko “-ela”ri buruz ezertxo ere.

— “Egin behar zenuenean estudiatu izan bazenu gaur egun hobeto... “biziko zinen” ala “zinateke”?

Kasu honetan “zinen” ere onartzen da ala “zinateke” erabili behar dugu derrigorrez?

— “Joatekotan” (baldintza) eta “joango bagara” esanahi bera al dute?

— “-tzekotan” baldintza?

— “-tzekotan” =/-z gero noiz?

— “-tzekotan”: nahia ere adierazten du?

E: baldintza-egiturak EGLU-VI liburukian aztertuko dira. *Ezeren okerrik ez duela* bezalako egiturak kontuan hartuko ditu Gramatika batzordeak.

Bigarren galderari dagokionez, batasunerako gomendiorik edo araurik eman behar den azertu artean, argi dago *hobeto biziko zinen* bezalakoak bizi-bizirik egon direla, baita literaturan ere.

Hirugarren galdera-sortari erantzuna emateko ere gramatikako hurrengo liburukian datuak azertu beharko dira. Dena den, *joatekotan* eta *joango bagara* ez dira baliokideak. Bigarrena, “xedezkoa” da (*joango bada, autoa utzi beharko diozu*).

i) **Perpaus osagarriak:**

— Atariko proba batean hau agertzen da:

Behin eta berriz agindu dizut...

- a) ...

- b) *Ixilik egon zaitezen*

- c) *Ixilik egoteko*.

— Baztertzekoa al da b aukera?

E: Ez, b) aukera ez da baztertzekoa. Beste kontu bat da maizago erabiltzea perpaus jokatugabea (*-tzea*, *-tzeko*) subjuntiboko laguntzailea baino.

— “Askotan entzun dut zenbait euskalkitako tradizioan subjuntiberako esaldietan *-(e)n* forma dela nagusi, eta *-(e)la* apenas agertzen ote den. Egia da hori?”

E: Laster argitaratuko den EGLU-V liburukian, hau esaten da laburpen gisa:

“jarrera adierazten duten perpausetan eta *nahia* edo *guraria* adierazten dutenetan *-EN* da ohikoena, azken hauetako batzuetan *-eLA* ere agertzen den arren, mendebaldean batez ere.

— *eskaera* eta *agindua* adierazten dutenetan, berriz, kontuak bana dabil-tza: Hegoaldean *-eLA* da ohikoena eta Iparraldean *-eN*, azken honetan agin-duetan-eta inoiz *-eLA* ere agertzen den arren.

— aditz nagusitik bereziz bezala perpaus lokabeen antza hartzen dutene-tan, berriz, *-eLA* da ohiko menderagailua”.

j) Zenbat eta ... hainbat eta...:

“Zenbat eta gehiago ikasi orduan eta hobeto / hainbat eta hobeto / hobeto / gero eta hobeto (onartu egin behar al dugu forma hau?).

E: Hondarribiko udal euskaltegitik egindako galderari, erantzun hau eman zion Gramatika batzordeak 1997ko ekainean:

zenbat eta ... orduan eta
zenbat eta ... hainbat eta
zenbat eta ... gero eta
zenbat eta ... hainbat

Gramatika batzordearen iritziz hirugarrena izan ezik gainontzekoak ontzat jotzekoak dira. Beraz, ondorengo hau da ontzat hartzen EZ duen bakarra:

*zenbat eta ... -ago, gero eta ... -ago

8. Lexikoaz

- a) “Arantzabalek txartel gorria ikusi du” (oker)
“Arantzabali txartel gorria atera dio” (zuzen)

E: Futbol kontuetan adituegia ez izan arren, txukunagoa irizten diot bi-garrenari; behar bada, “txartel gorria erakutsi dio” ere zuzena izan daiteke.

b) *Jokatu / jostatu* (edo *jolastu*):

“Belokik oso ondo jokatu zuen” (zuzen)

“Eugik oso txarto jostatu zuen” (oker)

E: Eugi eta Beloki pilotariak izanik, eta pilota *jokoa* denez, *jokatu* egiten da, jakina, ez *jostatu*.

c) *Saiatu*:

“Bere burua hiltzen saiatu da” (oker)

“Bere burua hiltzea intentatu du” (zuzen)

“Bere burua hil nahi izan du” (zuzen)

Iruzkina: *saiatu* beti ez da *intentaturen* pareko. Gure ustez *saiatuk*, “esmerarse” eta “intentar”, bien alor semantikotik du apur bana, eta kontestuaeren arabera.

E: *Orotariko Euskal Hiztegia* hartu eta *intentatu* sarrera ikustea nahikoa da, aditz horrek euskal literaturan zein erabilera urria izan duen ikusteko. *Saiatu* sarrera oraindik egin gabe dago; hobe da zuhur jokatzeari, eta “bere burua hiltzen saiatu da” txartzat ez ematea, datuak ondo aztertu arte.

d) *Aurki*:

“Gaueko hamarrak ziren, umeak goseak akabatzen zeuden, baina aurki etorri ziren gurasoak” (oker)

“Goizeko hamarrak dira, umeak goseak akabatzen daude; baina aurki etorriko dira gurasoak” (zuzen)

Iruzkina: gure ustez, “aurki”k, beti ere, geroaldian mintzatzeko balio du, eta ez lehenaldian.

E: *Orotariko Euskal Hiztegia* hartuta, iraganaldiko aditz formekin ere ageri da *aurki*, nahiz adibide gehienak bestelakoak izan:

“Aurki azaldu ziren etxe-ateetan beste ikuszale gehiago ere” (T. Agirre)

“Aurki ipintzen zion Amari aurrean beste kalabaza batean esnea” (Arrue)

“Jainkoaren epai ikaragarria! Aurki bere madarikazioak harrapatu zuen” (Araña)

“Bi mila duro nik eman arren / ukatu zituen aurki” (Pello Errota)

e) *Topean ibili*:

“Olano topean dabil” (zuzen)

“Olano topera dabil” (oker)

E: Erdararen kalkoa den neurrian, ez da bat ere erraza zein den hobea eta zein okerragoa esatea.

f) *Zerikusia izan / zer ikustekoa izan* (?):

“Horrek ez du zer ikusirik esandakoarekin” (zuzen)

“Horrek ez du zer ikustekorik nik esandakoarekin” (oker)

E: Euskaltzaindiak ez du araurik eman honetaz. Hala ere, argi dago lehena zuzena dela; *zerikusi* guztia batera idaztea ere ohikoa da, izen kategoria hartu duen neurrian. *Ikusteko* ere izena da, eta biak (*zerikusi* eta *ikusteko*) baliokide izan daitezke:

Honek ez du horrekin zerikusirik = honek ez du horrekin ikustekorik

Dirudienez, bi egiturak nahasi dira. Kontuan izan hala ere, *zer* eta *ikusteko* perpaus berean ager daitezkeela, baina bakoitza osagai desberdina izanik:

Zer ikusteko dut nik zurekin?

Adibide honetan, *zer*, galdetzailea eta *ikusteko*, izena ditugu; beste adibide honen pareko egitura du, beraz:

Zer palazio dauka maitia zuri emateko?

g) *Gizonduarazi*:

“Gizondu zaitezte” ondo badago, “gizonduarazi” ondo dago?

E: Bitxi samarra den arren, *gizondu* aditzaren forma arazlea, *gizonarazi* nahiz *gizonduarazi* izango litzateke, bere aditzoina *gizon(du)araz* izanik.

h) *Izan / ukan / eduki*:

“Aliziak bikiak izan ditu” (zuzen)

“Aliziak bikiak ukan ditu” (zuzen)

“Aliziak bikiak eduki ditu” (oker)

E: araurik ez da eman. *Orotariko Euskal Hiztegiak* dioenez, aditz laguntzaile gisa izan ezik, *izan / ukan* erabiltzen diren testuinguru guztietan erabili da *eduki* literaturan, batez ere bizkaierazko testuetan. Beraz, tradizioari begiraturaz, ezin da esan *bikiak eduki ditu* oker dagoenik.

EUSKARAREN SUSTAPENERAKO AHALEGINETAN

Aramaio, 1999-IX-25

Andres Urrutia

1. SUSTAPENAREN ZERGATIAK ETA TRADIZIOA EUSKALTZAINDIAREN BARNEAN

Jagon Sailak, bere IV. Jardunaldietan, zuen aurrean eta, oro har, euskal munduaren aurrean agertu nahi ditu Sustapenaren inguruko bere asmo eta egin-kizunak. “Sustapen” Batzorde du izena *Jagon* Sailaren barneko batzorde berriak, eta horren eraketarako pausoak Baionan eman ziren lehenengoz, aurtengo otsailean. Izan ere, Euskaltzaindiak orduantxe ondu zituen XI. Barne Jardunaldiak eta, horietan bertan, *Jagon* Sailaren baitakoak eraberritu ziren, bi atal desberdin sortu eta atal bakoitzari egiteko apartekoak ezarri zizkiola gure Akademiak. Bati hizkuntzaren corpusa erantsi zaio eta besteari, oster, hizkuntzaren estatusa edo sustapena.

“Sustapen” hitza erabili da batzorde berri horren ponteizentzat. “Sustapena” baina ez edozelakoa, taiutua eta zehaztua baino. Ildo horretatik joan eta berehala aurkitu ditugu horren partaideok halako zera nagusiak, alegia, euskararen mesederako lanean sustatze eta bultzatze asmo eta egokiera. Baditugu, besteak bete, horretarako tresnak, batez ere gogoeta eta ekintza kontuetan. Baditugu, era berean ere, gure muga eta ezinegonak. Batzuen eta besteen azaltzea dugu, esan beharrik ez badago ere, gaurko egunaren helburu eta xede.

Anitzek galdetuko dute, dagoeneko, ea zein den mota horretako batzorde baten egitekoa. Areago, Akademiaren barruan ere, norbaitek halako baten premia zalantzan jar dezake, kontuan hartzen bada azken urteotan Euskaltzaindiak daraman bidegintza.

Halakoei euskararen corpusa ardura zaie nagusiki. Horretara lerratuta, hizkuntzaren gramatika eta hiztegia, horien gaurkotzea eta, hala nahi baldin bada ere, aurki eskura izan dezakegun etorkizunaren beharrei erantzuteko hizkuntz tresneria kontzeptuala dute horiek jomuga eta helbide.

Hori da, izan ere, akademiek ohiko izan duten zeregina. Hori ere egotzi nahi izan zaio azken aldiotan, lehen esan legez, Euskaltzaindiari. *Ekin eta Jarrai* da erakundearen goiburua. Har dezagun “erakunde” hitza eta ikus dezagun, gaingiroki bederen, Euskaltzaindiak nola azaleratu duen historian zehar kezka hori, estatutuz estatutu eta garaitik garaira.

Gizarte giroak gorabehera, Euskaltzaindiak beti nabarmendu izan du bere burua euskararen babesean. Hona hemen, esandakoaren erakusle gisa, 1920. urteko estatutuen esana:

5. *Yagokideak berena dute: Euskera edolako bizipide ta gizartekoetan azkar ta garbi eutsi ta zabaltzea, ta euskal-idazkuntza agerbide orotan pizkortzea* (Euskaltzaindiaren Sortarauak, 1920).

Yairsailaren batzorde iraunkorrek arazo auek izango dituzte: euskerazko gutunak eginarazi; euskara sendatu, zabaldu ta irakatsi-eragin; erderazko gutunik egokienak itzuli ta izkera garai bakar bat emeki-emeki atondu (Euskaltzaindiaren Barneko Araudia, 1920).

Horretarako arrazoia bazen aldi hartan eta bada gaur ere, zoritxarrez, begien bistakoa. Euskara bera, gutxitua eta gutxiengotua dugu Euskal Herrian. Alfer-alferrik finkatuko da euskararen corpusa, finkatze lan horren fruituak euskal gizartean gorpuzteko aukerarik ez badugu. Horra hor betidaniko jagote lana. Euskararen babesa eta aurrerakuntza, gizarte eta elkarbizitza mailan, arlo berriak irekiz haren mesederako. Aldian aldiko inguruabarrak ahaztu gabe, baina aldian aldiko premiei eta eskakizunei ere erantzun egokiak emanaz. Horrezegatik esan daiteke, neurri batean behinik behin, hizkuntzaren barruko sustapen lanak baldintzatu eta zedarritzatzen dituela hizkuntza horren corpusgintzarako gauza daitezkeen ahaleginak.

Halakoxeak non-nahi eta eguneroko ditugu, gaur ere, esku-eskura, lege, araudi eta aitorten guztien ginean euskarari hamaikatxo ate ixten zaizkionean.

Aipa dezagun 1976. urtea. Urte horretako 573/1976. Errege Dekretuak, otsailaren 26koak, Euskaltzaindiari aitortu zizkion nortasun juridikoa eta ofizialtasuna. Orduko estatutuetan, lehenengo artikuluan, hain zuzen ere, irakurtzekoak ziren jarraikoak:

Lehen artikulua. *Euskaltzaindia Institutio bat da, 1918. urtean, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko lau Diputazioen babespean sortua. Honako xede hauek ditu helburutzat:...*

e) *Euskararen enplegua aintzinatzea...*

f) *Hizkuntzaren eskubideak zaintzea...*

Aitorten hori ez zen hilean geratu. 1978. urtean batzorde eta sailak berregituratu eta horra hor, beste behin ere, abiada bizian, JAGON Sailaren ekina Euskaltzaindiaren baitan, Juan San Martin euskaltzain osoaren eskumenean.

Edonola ere, 1991. urteak aldaketa sakona ekarri zion JAGON Sailari. Knörr euskaltzainkidearen zuzendaritzapean Mikel Zalbidek prestatu zigun txostena zela bide, JAGON Sailak aurreratu zuen gerorako kezka nagusia izango zuena eta egun ere duena, hau da, euskararen kalitatearena eta prozesu hori gidatu beharrena. Aldi berean ere, ezinbestekotzat jotzen ziren Euskaltzaindiaren arauak gizarteratzeko bideak eta moldeak. Ordutik hona pauso batzuk

eman izan dira eta "Arauak" argitalpena arrangura horien lekuko zuzeneko izango litzateke.

Gatozen, ostera, 1999. urtera eta ikus ditzagun, ardura horien aldamenean, bestelakoak ere. Ukaezina da euskarak, oraindik ere, ez dituela hizkuntza oso bati dagozkion eremuak betetzen. Eraso eta aintzakotzat ez hartze ugaritxo dabilta gure artean euskararekiko. Hortik dator, etorri ere, arrangura berri —edo eraberitu—, eta kezka arduratsu hori. Hizkuntza bera, legez eta gizartez, non dagoen eta nora eraman dezakegun edo gaitzakeen.

2. SUSTAPENAREN NONDIK NORAKOAK EUSKALTZAINDIAREN ZEREGINETAN

2.1. Euskaltzaindia eta sustapenerako beste erakundeak

Aurreko berba horiek, seguru asko, batek baino gehiagok asaldatuta entzun ditu, berehala sumatu baitu Akademiaren eginkizun hori, latza eta mergatza, eskergaiztokoa eta gogorra dela, eta aurretiaz horretan dabilzan hainbat eta hainbat erakunde publiko zein pribaturen zereginekin ere, agian, lehiakorregia.

Munduan barrena halakorik badela ezin ezkuta. Frantzian bertan ere, aspaldiko *Académie Française* delakoarekin batera, jokoan dira *Conseil Supérieur de la Langue Française*, *Haut Comité pour la défense et l'expansion de la langue française*, *Commissariat général de la langue française*... Edonondik begira dakiela ere, Frantziako eta Euskal Herriko kasuak ez dira bateratzeko modukoak.

Horretan luzatzea ez du merezi. Goiz honetan solaskide dugun Juan San Martin euskaltzainkidea sakon eta argi mintzatuko zaigu horren inguruan. Bego bakarrik hemen hitza, zerbait argigarri esateko lehiakortasun horri buruz: Euskaltzaindiak ez du inor baztertu nahi eginkizun horretatik. Are gutxiago, Akademiari egokitzen ez zaizkion gorabeheretan bere burua, besterik gabe, murgildu. Ez dago horretarako gertu, egituraz nahiz baliabide ekonomikoez.

2.2. Sustapenerako oinarriak

Euskaltzaindiak, ostera, Euskal Herri osoan izan dezakeen ospe eta itzala euskararen babaserako jarri nahi ditu eta, orobat, horren alde jokatu, berari dagozkion ordezkaritza aurrera eramanez. Alor hori lan bertsuan aspalditik diharduten erakundeekin batera nahi du jorratu.

Ez du besterik buruan Euskaltzaindiak eginkizun horretan, hurrengoa baino:

a) Aspaldiko tradizioari eutsi eta Euskal Herri osorako duen izate eta egote horren bidez, edonongo euskaldunak batu euskararen arrimuan, Euskal Herrian bertan zein erbestean direla horiek.

b) Aspaldikoari eutsi eta aspaldikotasun horrek ematen duen eskarmen-tuaz baliatu, sinetsita langintza horretan sarri askotan isileko lana dela behar-
rren, besteetan agerikoa nagusi bada ere.

c) Hirugarrenez ere, aspaldikoari eutsi eta urteetan zehar bereganatu duen ospe, itzala eta ordezkaritzaren bitartez euskararen sustapenean jardun, betiere, euskaldunek eurek halakoa aitortu eta onuragarri irizten badiote haren egite-koari.

Entzun legez, hirutara batu ditut “Sustapen” batzorde horren oinarriak. Ho-riek dira zimentarriak ekintza apal baina, aldi berean ere, sendo baterako. Mu-gatua bada ere, ahal den neurrian behinik behin, Akademiak egiteko hori era-
gingarri oso izatea nahi du.

Badu horretarako Euskaltzaindiak beste sustrai bat, aurreko hirurokin ba-tera hona ekarri behar duguna. Izan ere, Euskaltzaindia dugu, legez, euskararen arazoetan erakunde erabakigarria. Hala gertatzen da Euskal Herriaren zatirik handienera eta hortik bidera daitezke, zinez eta benaz, sustapenerako batzorde baten lerro nagusiak.

“Sustapen”, horra hor, lehen esan legez, batzorde berri horren ponteizena. Sustapen horren ildotik ezin ulertu, inondik ere, beste batzuek (Eusko Jaurla-ritzak, Nafarroako Gobernuak, Iparraldeko hainbat erakundek) egiten dutena, diru asko zein urriekin. Ezta hizkuntz politika hutsa ere, hori, legez, beste erakunde batzuei dagokielako. Euskaltzaindiaren egitekoa zuzendua behar dugu, zehaztua, gogoetaren bidez Euskal Herriaren lurralde desberdinetan eus-
kararen egoera aztertzeke eta, horren ondorioz, proposamenak egiteko, Euskal Herri osoan euskarak izan dezakeen estatusa hobe dadin.

Labetik harako ogia izango balitz bezala, zilegi bekit 1999. urteko maia-
tzean Akademiak berak formulaturiko “Barne erregelak” hona alderatzea. Orain arte esandakoaren isla eta ispilu ezin argiagokoak, aurreko horien 1.5 eta 1.6. artikulua:

1. art.

*Euskaltzaindia Instituzioa da, nortasun eta gaitasun juridiko osoa due-
na; eta, helburuak bere Araudiak biltzen dituenak izanik, alor hauetan arituko
da bereziki:...*

*1.5. Euskararen erabilera aintzinatzen eta sustatzen, horretarako da-
gozkion gizarte eragileekin batera behar diren mota guztietako harremanak
ugalduz.*

*1.6. Hizkuntzaren eskubideak zaintzen, horretarako euskal hiztunen
hizkuntza eskubideak jagonez, bai euskara erabiltzeko tenorean, bai eta era-
bilera hori zuzena izan dadin...*

Gogoeta eta ekintza. Ekintzarako osagaietan, jakina, ez dira soil-soilean ikusten euskarari buruzko eztabaidak kokatzeko guneak, ezpada euskararen aurkako —eta legearen aurkako— egiten diren ekintza horien salaketak.

Batzuek, bistan dago, esana dute euren kautan: badator, berriro ere, eus-kara politikoen zurrunbiloan sartzea. Nora joango ote da, politikoen haize bo-lada hauek eramanda, gure Euskaltzaindia?

Ez datoz horiek zuzeneko bidetik. William Safran autoreak berrikitan ida-tzi du Frantzian hizkuntza bera dela estatu afera, esangura bikoitzean: batetik, hizkuntzaren aldeko politika bat dagoelako bertan eta, bestetik, hizkuntzaren bidez politika bat egiten delako, hau da, hizkuntza bera helburu politikoetarako erabiltzen delako:

In France, language is an affair of state in a double sense: that of a policy for the language as well as the politics and policy by means of language, that is, of using language in the service of political objectives (SAFRAN, W., "Politics and language in contemporary France: facing supranational and in-franational challenges", *International Journal of the Sociology of Language*, 137, 51. orrialdea).

Horra hor gure muga eta munarria. Euskaltzaindiak beharrena du euska-raren babesa eta horretarako egin behar duen gogo-jardunean alboratu behar du, nahitaez, euskara bera politikarako erabiltzea, alderdi politikoen arteko lis-karretan izkilu hutsa izan ez dadin.

Hizkuntzaren politika eta gobernu, horixe baietz. Deitoragarri, edonondik ere, hizkuntzaren bitarteko politika. Antzinako mezua da hori Euskaltzaindia-ren barnean. Luis Villasante, Jose Maria Satrustegi, Juan San Martin, Jose Luis Lizundia eta abarrek luze idatzi eta argi adierazi dute, urteen urteetan, egokiera hori.

Horixe da, bada, Euskaltzaindiak eginkizun izan dezakeena. Horixe dugu jomuga *Jagon* Sailaren Sustapen Batzordean, eta horixe nahi dugu gaur gizar-teratu, denon jakinbidean gera dadin.

2.3. Sustapenaren eginkizunik beharrenak

Gogoeta eta ekintza, ekintza eta gogoeta. Horretarako zailtasunak eta ajeak ere, nolanahikoak eta noranahikoak.

Lehen-lehena ofizialtasunarena da. Erramun Baxok hizlari eta batzorde-kide jakintsuak gogoratuko digu, beste behin ere, Euskal Herriko beste lurralde batzuetan euskarak bizi duen egoera urria, hango gabeziak eta deusezak aza-leratuz.

Horixe dugu, esan legez, aurrepausorik nabariena egunotan. Hala ere, ez nuke horretan agortu nahi "Sustapen" lanaren muina. Hasiera dugu hori, oi-

narrizko baldintza “sustapen” egintza baterako. Ez, ordea, egintza horren eraginaren ziurtatzaile eta bermatzaile bakarra. Edu horretako adibideak sobera ezagunak dira. Eragingarritasun horrek gizarte oso baten gogoak dakar. Nekez izango du ahala Euskaltzaindiak horretarako, bestelako erakundeekin batera jarduten ez badu.

Aurtemein plazaratu digu Euskal Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Sailordetzak “Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia”. Betoz testu horretatik hona jarraikoak, hitz horien mezuarekin guk guztiok bat egingo dugulakoan:

Horrexegatik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea. Hizkuntza komunitatearen eskubide kolektiboa ukatu gabe, herritar bakoitzaren hizkuntza-eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezzen lortzeko urratsak areagotzea, jakinik, botere publikoek eskubide hauek babesten dituztela; euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea, horrela bakarrik bermatuko baita euskararen biziraupena eta normalizazioa (49. orrialdea).

Testu horrek, bestaldetik ere, ofizialtasunaren indarra azpimarratu du. Ez ahaztu, haatik, euskarari aitortu zaion ofizialtasuna (Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan behinik behin) ez dela erabatekoa, mugatua eta, hala nola esatearren, kidetua baino. Ofizialtasun hori argi-ilun askoren iturria da. Gaztelaniarekin baterakoa bai baina, aldi berean, harekiko asimetrikoa, lurraldearen ikuspegitik Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa horretara mugatua eta, hori bai, euskararen normalkuntzaren bidetik datorkiguna. Horiek horrela, ezin baztertu, lorratz beretik ere, hizkuntzarekin zerikusirik duten gai askoren gaineko esumenek Gobernu Zentralaren esku jarraitzen dutela.

Hertsiago eta mugatuagoa da, zeresanik ez, Nafarroako Foru Erkidegoaren hizkuntz legeria. Izenak berak ere, euskararen normalkuntzarako baino, erabilera soilaren erretenera eramaten gaitu, besterik gabe. Oraindik okerragoa Iparraldeko lurraldeetan, han bertan frantses hizkuntzaren ofizialtasunak zenbait kasutan ekintza batzuen deuseztasuna ekar baitezake, frantsesaz besteko hizkuntzaz gauzatuz gero.

Euskararen ofizialtasuna, hortaz, esparru zabalekoa dugu Euskal Herrian, ukorik erabatekoenetik hasi eta, etenik gabe, beste hizkuntza batekiko ofizial-kidetasun mugatu batera garamatzalako.

Frantzia bere hizkuntzaz gero eta arduratsuagoa ikusten dugu; *francophonie* horren erakusle. Espainiak ere gaztelaniaren izatea berrindartu gurako luke munduan zehar, Cervantes Institutua dela eta. Zer egin dezakegu guk? Non dago, non egon daiteke gure *hinterland*, gure *euskalfonia*, gure *Axular* Institutua? Besteak beste, Euskal Herriko lurralde guztietan eta erbestean euskararen aldeko langintzan. Jakitun izan, euskara bera legeria desberdinen menpe bizi dela, euskalkiz euskalki bizi garela, hizkuntz egoera oso bestelakoak

direla batetik bestera... etab. Baina horien guztien gainetik —edo azpitik— Euskaltzaindiak badu egiteko bat, lurraldez lurraldeko euskararen hizkuntz politiken arteko zubilana gauzatzeko. Areago, euskaldunen arteko zubilana egiteko, “herria” egiteko, Jose Luis Lizundiak esan ohi duenez.

Euskararen ofizialtasunak dakar, besteak beste:

a) Euskaltzaindiak berak urteetan ondu eta egun ere ontzen duen euskara estandar horren zabalkunde eta hedatzea. Statusa → *corpusa*.

b) Estandar horren erabilera bertsua, lan eraberetzaille horrek bere onorioak alferri gal eta ezaba ez ditzan, batik bat, puntarengo ditugun eremuetan: komunikabide, Administrazio eta hezkuntzaren arloetan.

Euskal Herriaren bidegintzan, euskarak eta Euskaltzaindiak badute zere-sanik. Muga guztien gainetik, ardura pekoa du erakunde honek mugaz haraindiko eta honaindiko ordezkariak euskararen inguruko politika komunak zehaztu ditzaten.

Horretarako ereduak European bertan ditugu. Aipa ditzagun bi:

A) Taalunie edo Neerlanderen Batasuna.

B) Ipar Europako Herrialdeen Kontseilua.

Lehenari dagokionez, Taalunieren helburuak, estatus eta corpusen arteko autuak, egoki zerrendatzen dira Belgika eta Herbehereen arteko itunaren 3. artikuluan. Besteak beste, honako hauek:

a) Hizkuntzaren hobekuntza.

b) Neerlanderen ezagutza eta erabilera sustatzea.

c) Neerlanderen literatura bultzatzea.

d) Neerlandera hizkuntza eta literatuaren kanpo aldeko eragina bermatzea.

Horretarako, organo batzuk eratu behar eta hona hemen organo horiek:

1. *Ministroen batzorde parekidea (alde bakoitzeko, gutxienez, bi kide); batzorde horretan erabakiak aho batez hartzen dira (alde bakoitzak, boto bat).*

2. *Parlamentuen arteko batzordea, hori ere parekide; berori arduratzen da hitzarmenaren gaineko kontrolaz.*

3. *Administrazioaren esparruan, Idazkaritza Nagusia. Horrek betetzen du Ministroen Batzordean finkaturiko politika, eta berari dagokio belgikarren eta nederlandarren arteko oreka zaintzea (Ministroen batzordeak Hagan ezarri zuenez, idazkari nagusia belgikarra da eta horren ordezkoa, aldiz, holandarra).*

4. *Zientziaren esparruan, Hizkuntza eta Literaturarako Kontseilua; horrek, Ministroen Batzordeari aholkuak emateaz gain, koordinatu egiten ditu esparru horretan diharduten erakunde guztien ekintzak.*

Finantzaketa ez da erdibana egiten, lainera baino: bi heren Holandaren pen-tzuan eta herena, oster, flandestarren kontura.

Alderdien artean gatazkarik sortuz gero, gatazka hori tartekaritzako batzor-deak konponduko du. Hitzarmenaren iraupenak ez du epe mugarik, baina al-derdiek aukera dute, hamar urterik behin, hitzarmen hori salatzeko. Bestalde, hitzarmenean aldaketak egin daitezke, Ministroen Batzordeak hala proposa-tuta.

Gainerako estatuek, berebat, hitzarmenari atxikitzeko aukera dute (Marí, I. Un horitzó a la llengua (Aspects de la planificació lingüística), Empúries, Bartzelona, 1992, 57 eta 58. orrialdeak).

Horra hor, beraz, politika berri horren ondorengo nagusia: euskal lurral-deen arteko errezeloren orde, euskararen aldeko elkarkidetza eta eraginga-rritasuna.

Eta horra hor, orobat, “Sustapen” Batzorde horrek dituen eginkizun ga-rrantzitsuenetako bat: bidegintza horretan, tresna teoriko nahiz praktikoak as-matzea, horiei buruz hausnartzea, aholkuak ematea eta abar, betiere, Euskal Herriaren osotasuna aintzat hartua. Euskararen sustapen lanak halaxe behar du izan, eta Europan zehar dabilzan haize bolada berriak norabide beretik datoz (Hizkuntz Eskubideen Europako Ituna...).

Horrela jardun eta berehala konturatuko gara “Sustapen” lan horretan ba-dela bestelako ardatzik ere. Batzorde lanak badu horren inguruan gogoetatzeko aukerarik, gaia pil-pilekoa baitugu. *Hizkuntz eskubideak* dira horren mami eta euskaldunon hizkuntz eskubideak, zehatzago, horren funts. Hizkuntz eskubi-deen gaineko babesa eta defentsa, legezkota baino, hitzaren bidezkoa, agiri, iri-tzi eta abar euskal gizartearen aurrean jarrita.

Hizkuntz eskubideak. Horra hor gakoa. Horren moldaketa ez da erraza, ezta eroso ere. Euskaltzaindiak, beharrezkoa izango balitz ere, salaketa izango luke hizpide alor horretan (euskara dela-eta izan daitezkeen diskriminazio guztiak) eta, baita, buruen-buruenik, hizkuntz eskubideak hobetzeko eta babesteko go-goetak eta aholkuak ere.

Azpimarratu, besterik ez, ofizialtasuna eta hizkuntz eskubideak txanpon bateko bi aurpegiak direla eta, joko horretan, Euskaltzaindiak, berezko duen lurraldetasunaren bidez, berebiziko jokamoldea eskain dezakeela, “Sustapen” Batzorde horretan baitira, eskubide propioz, Euskaltzaindiak Euskal Herriko lurralde guztietan dituen ordezkariak. Beroriek dakite ondoen euren lurraldea-ren egoera eta berorien bitartez lor daiteke, batasunaren izenean, lurralde ba-koitzari dagokiona egoki asmatzen.

Gure Batzordeak gauzatu beharreko jardueren zerrenda ezin da bukatu, edonola ere, beste xede bat aipatu gabe. Helburu hori, batzuen ustez, bigarren mailakoa izango da aurrekoei begira; beste batzuen aburuz, aldiz, berori izan daiteke garrantzitsuena. Erakunde —publiko nahiz pribatu— desberdinen arteko lankidetzaz nabil, gure herrian halakoek lan egiten baitute euskararen garapen eta statusaren mesederako, euskararen erabilera eta aplikazioaren sustapenerako eta, oro har, euskararen aldeko hizkuntz politikak formulatzeko. Aurretiaz aipatu izan dut Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetza. Orain, berriz, Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Zuzendaritza Nagusia edo Iparraldeko Euskal Kultur Erakundea aipatu nahi ditut, Kontseiluaren garrantzia ere ahamtzi gabe, horrek bere baitan hartzen baititu molde desberdinetako hainbat erakunde.

Ez dut bat bera ere ahamtzi nahi Euskal Herri osoan. Lehen esan bezala, eurokin elkarlanean aritu nahi da Batzorde hau, lantresna, hitzaldi eta mintegiak antolatzeko. Antolatze lan horren bitartez, euskararen gaineko araubidea sakondu ahal izango dugu, bere luze-zabalean, Euskal Herriaren ikusmolde baterakoa erabiliz, eta helburu argi bat lortzeko asmotan, alegia, euskara bera sustatzea.

Ildo beretik ere, nabarmentzekoa da Batzorde honek dituen asmoetako bat. “Sustapen” Batzordeak, Azkue Bibliotekaren barruan, fondo txiki bat eratu nahi du, eremu horretan ager daitezken gai ohikoenak bertara biltzeko. Eskura izango dute fondo hori aditu eta ikertzaileek edota, besterik gabe, euskararen etorkizunari eta erabilerari buruz kezkatu agertzen diren euskaldunek, eta modu horretan lortu ahal izango da, informazioaren bidez, euskara gero eta gizarte eremu handiagoetara hedatzea.

Azkenik, eta zerrendarekin bukatu baino lehen, beste ñabardura bat egin beharra dago, Akademiako Batzorde honek bete behar dituen egitekorik garrantzitsuenak oso-osorik aipatu nahi badira. Batzuek uste dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan euskara ofizialaren *Arcadia* zorionsuan bizi direla. Halakoei gogoratu behar diegu Kataluniako legeria berriak (1997ko urtarrilaren 1eko Legeak, hain zuzen ere) erakusten duela, argiro-argiro, zer egin daitekeen legea esku artean izanez gero. Kontrara, beste batzuek irrika bizia dute, erabateko ofizialtasuna noiz etorriko. Horiei esan behar diegu oraindik bateratu gabe daudela politikak eta lurraldeak, pertsonak eta erakundeak, eta ezinbesteko zaigula bateratze hori, lortu nahi duguna eta lor dezakeguna nolabait harmonizatu ahal izateko. Arlo horretan, nahi izateak ez dakar ahal izatea. Nahi izateak, dena den, ahal izateko giltza izan beharko luke.

Gehienekoaren eta gutxinenekoaren artean, alegia, *Scillaren* eta *Caribdisen* artean, Akademiako batzordeak hausnarketaren bidetik jo eta, euskararen eta euskal gizartearen zerbitzurako, eragingarritasuna eta onuragarritasuna lantzeko ardura hartu nahi du bere gain.

3. LABUR-ZURREAN

Esandakoaren mamiz, azal ditzagun, bada, labur-labur, "Sustapen" baztorde honen balizko helburuak:

a) Hausnarketa eta jarduketa teoriko nahiz praktikoa burutzea, euskararen ofizialtasunari buruzko eremu berria bilatu nahian. Euskal hizkuntza duten lurraldeetan, horrek berarekin dakar, zehatz-mehatz, *Taalunie* moduko proposamenak aztertzea, hitzaldi, mintegi eta jardunaldien bitartez.

Halaber, legegintzazko beste ekimen batzuk ere aztertu, horiek lagungarri izan baitaitezke, batetik, euskararen ofizialtasuna bultzatzeko, halako ofizialtasunik ez duten lurraldeetan eta, era berean ere, ofizialtasuna sakontzeko, jadanik status hori errotua duten lurraldeetan.

b) Hizkuntz eskubideen inguruan hausnarketa eta jarduketak gauzatzea. Hori erdiesteko, bi bide aipatuko genituzke: aurrenik, euskararen aurkako be-reizkeria guztiak salatzea; eta, hurrenik, hizkuntz eskubideen arloan sor dai-tezkeen ekimenetan laguntzea, Espainian, Frantzian, Europan eta, oro har, na-zioarteko gorabeheretan.

c) Erakunde publiko nahiz pribatuekin elkarlanean aritzea, horiek euskararen gaineko hizkuntz plangintzaren arloan lan egiten dutenean. Lankidetz-a horren helburua da guztion artean behar den moduko koordinazioa lortzea, Euskal Herri osoaren mesederako euskararen alde aurrera egiteko.

d) Azkue Bibliotekaren baitan, arlo honetako argitalpen eta gaiekin fondo bat osatzea, fondo hori kontsultarako baliagarria izan dadin, arlo horretan in-teresa duten guztientzat.

HIZKUNTZA, HIZTUNEN GIZA ESKUBIDEEN ARABERA

Aramaio, 1999-IX-26

Juan San Martin,
euskaltzaina

ONU-k, 1948ko abenduaren 10ean agertu zuen *Giza eskubideen aitorkizuna*. Espainian lehen aldiz Coruñaako Agrupación Cultural O FACHO zeritzan erakunde hark —galegoz, gazteleraz, katalanez eta euskaraz— argitara eman zuen, Giza eskubideon aitorkizunaren XX. urteburua ospatzeko asmoz, Santiago Compostela-ko Unibertsitatean Derecho Político sailean katedradun zen J.A. González Casanova jaunaren hitzaurrearekin, Editorial Moret (1968) argitaletxean.

Han eman zen euskarazko testua Nikolas Ormaetxea “Orixe” zenak itzulia zen. Nork jarri zion izenburutzat: *Giza eskubidegai guzien aitorkizuna*. Geroztik izan dira beste zenbait testu euskaraz.

Agrupación Cultural O FACHO erakundeak argitara eman zuen liburu hura Francoren gobernuak baitua izan zen. Aitzakiatzat hartuz liburuaren hitzaurrea. Nork pentsa zezakeen Derecho Político katedradunagan holakorik? Hitzaurre hark ez zekarren legezko ez zenik, hizkuntza berez, hiztunen eskubidezkoa baita, zeren jatorra ez ezik, naturala da mendeak zehar arbaso eta gurasoengandik ikasia mintzatzen direnen artean. Baina, Francoren diktadurak ezin holakorik onar.

Orain, Amnesty International erakundeak 1984an, Joaquín Ruiz-Giménez-en aurkezpenarekin, Espainiako lau hizkuntzetan argitaratu zen hartan oinarrituko naiz. Non lasterketa batean parte hartu beharra izan nuen, hala eskatu zitzaidanez, eta Orixe eta beste euskarazko hitzulpenen laguntzaz egin nuen.

ONU-ren Giza eskubideen lehen artikulua argi eta garbi dio: “Gizon guztiak duintasun eta eskubide berdinekin jaiotzen dira, hargatik, arrazoiz eta konzientziaz jabeturik daudenez elkarren artean anaikiro jokatu behar dute”.

Bigarren artikulua lehen zatiak dioenez: “Pertsona guztiak Deklarazio honetan agertzen diren eskubide eta askatasun guzien jabe dira, inolako bereizketarik gabe, arraza, kolore, sexu, hizkera, erlijio, iritzi politiko edo beste izaera, nazio jatorriz edo ekonomi egoeraz, jaiotze edo beste edozein baldintzagatik baztertzetik ez den eskubidea”.

Eta hogeita seigarren artikuluairen hirugarren zatian dakar beste honako hau: “Gurasoek ukanen dute lehentasuna seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzekoan”.

Gero, horren ondorioz noski, Unesco arduratu zen lan sakon bat gertatzen, soziologo, hizkuntzalari eta pedagogoak bilduz eta elkarren artean hizkuntzen arazoa aztertuz, erabakiak argitara emateko. Gomendagarritzat argertuz: *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement*, 1953. urtean.

Euskaltzaindiak bere sorreratik Jagon Sailaren ardurapean dituen eginkizunetarako baliagarri ditugu UNU eta Unesco-ren arau horiek, Euskal Herriko muga guzien gainetik, naiz Ifarralde edo naiz Hegoalde, ahal denean administrazioarekin erarik hoberenean kontatuz eta lan eginaz; eta, hori ezinezko zai-gunean, horien gainetik aipaturiko bi erakundeotara edo Europa Batasuneko Parlamentura joaz.

Euskaltzaindiaren Arautegia ikustea aski zaigu, erakunde bezala duen ar-dura zertan den jakiteko. Lehen artikuluairen zenbait zati begiratu besterik ez dugu: e) Euskararen enplegua aintzinatzea. f) Hizkuntzaren eskubideak zain- tzea. g) Hizkuntza gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea.

ONU eta Unesco-ren deklarazio horiez gainera, Espainiako Estatuaren bar- nean diren eskualdeetan bestelako legez jokatu ezinik ez dugu, zeren Euskal- tzaindiaren Arautegia, 1976. urteko otsailaren 26 Dekretuz onhartua denez (*De- creto 573/1976, de 26 de febrero*).

DEKRETU horri erregeak egin zion sarrerakoan zioen: “Hoy es general la preocupación que en España se siente por asegurar el mantenimiento y la supervivencia de esta lengua conservada, hablada y transmitida por el pue- blo...”. Eta 1918. urtean Oñatin Euskaltzaindiaren sorreran bere aitona zen Al- fonso XIII.ak esan zituenak oroitzeaz gainera zioen honako hau: “Desde en- tonces la Academia viene laborando ininterrumpidamente en los fines para los que fue creada, fomentando la unidad de una lengua que hablan muchos es- pañoles y que es un elemento importante de la cultura y del acervo nacional. Por ello nada mejor para la tutela e investigación de la lengua vasca que el reconocimiento por el Estado de la labor de esta Academia que Su Majestad el Rey Juan Carlos I quiere hacer patente, de acuerdo con las memorables pa- labras de su egregio abuelo”.

ONU, Unesco eta bereziki Erret Dekretu horrek eskaintzen dizkigun ahal- menez ondo baliaturik, zuhurki jokatu beharra dugu gure Hegoaldeko herriaren aurrean eta, premiazko deritzaigunean, politikariei betearaztea eskatuz (Hor- tarako ikus: *Euskera*, XXIV, 1978, 131-132, orrialdeak).

Nafarroan, bertako Legebiltzarrak herrialdeak zatitu zituen apartheid lo- tsagarri batera eramanaz: a) inguru euskalduna, b) inguru elebiduna, d) inguru gazteleraduna. Baina, inguru euskaldunean badira euskararik ez dakiten nafa-

rrak, inguru erdaldunean antzina *Lingua Navarrorum* zeritzana mintzatzen zen alde hartan euskaldun nafarrak diren bezala. Hori, 1948an ONUk azaldu zuen Giza eskubideen kontra doa. Nafarroa osoak elebiduna izan behar luke, hizkuntzari buruzkoan bertako biztanleek eskudide berdinak izango badituzte. Bestela ezin dezakete aurrera eraman Nafarroako Gobernuak sortu zuen *Ley Foral del Vascuence* delakoa.

Hiru eskualdeetako Euskal Autonomi Herkidegoko abertzale alderdiei ere aditzera eman beharra dugu, administraritzza karguetarako baliapenez, euskara jakitearen puntuazioa, ezinezko dela lehenik ebertzale beraiek euskara goi mailako karguetarako kontutan hartu gabe. Euskara eta euskaldunei begira, guretzat ulertezinezkoa bata Jaurilaritzan zein Diputazioetako goi karguetan elebidunak ez jartzea. Txarrago oraindik euskaldun herrietako zenbait Udaletan euskararik ez dakiten alkateak jartzea. Jokaera horrek euskalduna, bere buruaz gutietsiz, etsipendurik uzten baitu. Eta benetako abertzaleek hobe dute lehenik beraiek zuzen bete besteei eskatzen dietena. Izan ere, abertzalearen lehen egin-kizuna izan behar luke euskara ikastea. Horregatik, gure gizon politikari aberzteleei aditzera eman beharko zaie: fedea ekintzaz bete beharra.

Badira bestelako alderdi batzuk pluralismoaz maiz mintzatzen direnak, aldi berean euskararen aurka era bai. Beraz, hizkuntzari buruzkoan, zer da horientzat “pluralismoa”? Elebakarduna ala elebiduna?

Gure herriak bere kultur ondarean duen edukirik garrantzitsuena euskara dela esan beharrik ez dut. Kontu horietan, bakoitzari bere izakera jatorrez datorkiona baita, berezkoena eta naturalena. Eta Euskaltzaindiaren jarrerarik egokiena hain premiagarri den hizkuntzaren sustapenean datza, bere arategiak eskatzen duen bezala beteaz. Horrez gainera beste hizkuntzak ukatu gabe errespetatuz, eta aldi berean geurea errespetaraziz. Europear jatorrak izateko ere herri bakoitzak beretiko izakeran oinarriturik lortu behar du. Hor da Europaren pluraltasuna, Europa guziok osatzen dugunez.

Gainera, argi dago haurtzarotik euskara eta erdara dakitenek, bi hizkuntzok beraien egituraz elkarregandik hain desberdinak izateaz, errazago ikasten dutela hirugarren hizkuntza. Ikastoletan aspalditik irakasten duten ingelesa dugu horren lekuko. Onuragarritasun horren esperientzia, nik neuk, etxetik bertatik ezagutzen dut, semeak hala hezi ditugunez. Gaur egun, ingeles hizkuntzak tekniketarako, zientziarako zein merkataritzarako harremanetan dituen ahalmenak uka ezinezkoak direnez, gure herriaren aurrerapenerako horretaz baliatu beharrean gaude.

Euskararen alderako argudioak erabiltzeko, uste dut, on zaigula euskarak historian zehar izan dituen gora-beherak ezagutzea. Ihaz, asmo horrekin egin nuen *Euskararen ostarteak* (1998) deritzan liburua, gure iragana era orokorrean agertuz.

Hizkuntzaren ofizialtasunari buruzkoan, ordea, kontutan hartu beharrekoa eta ezautarazgarria iruditzen zait, euskarak lehen aldiz izan zuen ofizialtasuna, Nafarroako erresumaz gainera, Ifarraldean gertatu zena, Frantziako Estatuaren barnean XVI. mende hasieran. Bazirudien bide egokia hartu zuela, baina laster aldatu ziren irizpideak eta, gerorantz, hango hertsitasuna nabarmenagoa izan da.

Gezurra badirudi ere, Frantziako Errege Luis XII.ak, 1510. urteko ekainean, ordenantza bidez agindu zuen epaiketa guziak, biztanle bakoitzari bere hizkuntzan egitea. Erabaki hori, haren ondorengo Frantzisko lehenengoak, 1531. urtean berretsi zuen. Baina zortzi urte geroago (1539an) ezabatuz suntsitu zuen, euskararekin batean Frantzia guziko hizkuntzen etorkizuna larritasun ilunetara bultzatuz.

Ikus Henriette Walter-ek André Martinet euskaltzain ohorezkoaren hitzau-rearekin argitaratu zuen tesia: *L'Aventure des Langues en Occident: leur origine, leur histoire, leur géographie*. Paris, 1994. Bere gaztelera-zko itzulpena Berta eta Mercedes Corral aizpeei zor diegu, *La aventura de las lenguas en Occidente: Su origen, su historia y su geografía* izenburuarekin 1997an Espasa Calpe, S.A. argitaletxeak Madril-en plazaratua. Eta arestian aipatu dudanak, honen 247-249 eta 265-271. orrialdeetan dioena du lekuko. Une honetan, esan beharra dut, *Euskararen ostarreak* inprimategian zela lortu nuela aipatzen dudan liburu hau eta gehigarritzko zati bat denboraz igorri nuela inprimategira, baina zoritxarrez, argitaratzailearen axolakabetasunagatik gelditu zela kanpoan.

Hala ere, Frantzia aldeko Euskal Herriak bere Ipar eta Ekialdetik gaskoina eta biarnesa zituen inguruko eta hauek irentsi arteko iraupena izan zuen euskarak frantsesarekin harreman zuzena eduki arte.

Ifar Euskal Herrian orain, aipaturiko ONU eta Unesco-k giza eskubideez eskatzen dutenaz bakarrik balia gindezke. Baina, ez da guti, zeren otoi! eta oroi, horiek mundu zabalerako gomendagarri ematean Frantzia bera ere sinatzaileen artean partaide izan zela eta hortik sortzen zaiola erantzun beharra. Eta hortarako, adibidez, Europar Batasunean bertan ereduak aurkitu ezinik ez dugu, besteak beste: Aosta, Tirol eta Txekian. Beharbada hobe eta lehenagokoa, Helbetiar federakuntzak bertako lau hizkuntzak ofizialak izan zitezen, joan zen mendearen lehen partetik, Konstituzioan jarri zituen arau egokiak oinarri direla. Beraz, Frantzian lana nolabait bideratzeko ere ez zaigu falta ez argudiorik ezta ahalmenik ere. Gainera, gogoan har, euskara dela Espainiak eta Frantziak beraien barnean duten hizkuntzarik antzinakoena eta gaur oraindik bizirik irauten duena. Eta hizkuntzen kontu honetan ezinezko dela tipiagoa edo handiagoaren indar arrazioekin jokatzea, demokratikoki, izate naturalean eta gurasoegandikoan oinarriturik baizik.

“Eurogutuna”, Europako hizkuntz gutituen alde, Estrasburgoko Kontseiluak 1992ko otsailean aurkeztu zuen lege proposamenaz. Eta gaur egun oraindik geldirik dago. Zeren Frantziako Errepublika Kontseiluak bere esku omen du

hizkuntzei dagokien arazo hau eta Europako hizkuntz gutituen aldeko gutun horri betoa jarri baitzion, arrazoi bidetzat adieraziz bere Konstituzioaren 2. artikuluaen aurkakoa dela. Artikulu horrek, horrela, Europaren izaera naturala ukatzen du eta aldi berean anaikero elkartasunean bizi ahal izateko era arriskuan jarri. Esan ditzatela nork noren menpe egon behar duen, Europak Frantziaren ala Frantzia Europaren mende? Horregatik, Frantziak aintzat hartzen ezbagaitu, Estraskurgoko Parlamentura jo ezinik ez dugu, eta horretarako biderik egokiena Europako Ombudsmanaren bidez joatea litzaiguke.

Bestalde, gure jokabideak aurrera eman baino lehen ezagutu beharrekoa iruditzen zait, ahalik egokien bide ziur bezain zehatzak eskaintzen dizkigun liburu bat, Bilbon ihaz Bakeaz deritzan Ediciones Unesco delakoak argitara eman zuen Leah Levin-en, *Derechos humanos: preguntas y respuestas*. Benetan baliagarria dena. Irakur eta bertan eskaintzen dituen jokabideak kontutan har ditzagun. Gainera, esan beharra dut, euskaldunon jakingarri, liburu honek euskarara itzuliz argitaratzea merezi duela. Eta, hortarako, Euskaltzaindia bera da erakunderik aukerakoena.

Bukatzeko, oroitu beharrekoa iruditzen zait, iragan otsailean Baionan aurkeztu nuen: "Jagon Sailaren ardurapeko lehen lanari buruz" (1) zeritzan txosten hartan azaldu nituela gure antolaketa eta ekintzetarako zenbait aburu eta kontutan hartu beharrekotzat jotzen ditudala, orain hemen azaltzen dudanari ekintzarako lotura emateko. Euskaltzaindia ezin daiteke lo egon egungo egoeraren aurrean.

(1) Ikus *Euskera*, XLIV, (1999-2), 351-354 orr.

JAGONET EGITASMOAREN AURKEZPENA EUSKALGINTZAKO PROFESIONALEI

Aramaio, 1999-IX-25

Jose Ramon Zubimendi

1999ko otsailaren 26an, Baionan, Euskaltzaindiaren Barne Jardunaldietan aurkeztutako txostenean esaten zen bezala, *Jagon* sailaren helburuetako bat, euskalgintzan dihardutenentzat Kontsulta Zerbitzua eskaintzea da. Izan ere, jendeak, urtean behingo harremanaz gain, unean uneko zalantzak argitzeko bideren bat galdegiten dio Euskaltzaindiari. Horixe da, bestalde, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian, arlo bakoitzerako helburuak zehaztean, euskararen corpusari eta kalitateari dagokion VI.3.3.a. puntuan jasotzen den kontuetako bat:

“Kezka eta zalantzak argitzeko bitartekoak jarri: telefono linguistikoa, aholku-taldeak, galdekizunak, berripaperak eta abar.”

Orain arte ere kontsulta ugari egin zaizkio Euskaltzaindiari (edo batzorde desberdinei). Horiei guztiei emandako erantzunak ordenagailuan jasota daude, baina datu-base egoki batean egituratu beharko lirateke.

Horretaz gain, hemendik aurrerako zalantzei ahalik bizkorren erantzuteko zerbitzua antolatu, eta erantzun horiek datu-basean sartu beharko lirateke. Hau da, etengabeko harremana bideratu behar da euskalgintzako jendearen eta Euskaltzaindiaren artean. Eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu *Jagonet* azpisare informatikoa sortzea, Euskaltzaindiaren sare informatiko orokorrean txertatua egongo dena.

Jagoneten bidez, oraingoz, kontsulta- eta aholku-zerbizu bateratua eta eguneratua eskainiko litzateke. Ondoren, beste informazio modu bat ere eman daiteke, hala nola:

— Trebakuntza-ikastaroetako partaidetza koordinatua

— Euskaltzaindiari buruzko albisteak (komunikabideetarako)

JAGONET

Azpisare informatikoa dugu, Euskaltzaindiaren sare orokorrean txertatua, kontsulta- eta aholku-zerbitzu bateratua eta eguneratua eskaintzeko.

GIZA BALIABIDEAK

Jagonetera heltzen diren galderei erantzun egokiak eman ahal izateko, nahitaezkoa izango da *Iker* saileko batzordekideen partaidetza, batzordeetako kide bana sartuaz *Jagonet* sarean. Hala, Jagonera iristen den kontsulta berezi bakoitza zuzenean bideratuko genuke dagokion *Iker* batzordera. Antolaketa horrek guztiz bermatuko luke erantzun bakoitzaren egokitasuna, eta bermatu ez ezik, asko arinduko luke aholku-zerbitzua bera (arina izan behar baitu, seguruaz gainera). *Jagon* sailak, bestalde, arduradun bat izendatu beharko du kontsulta-zerbitzua koordinatzeko.

INFORMATIKA BALIABIDEAK

Jagonet antolatzeko hiru gauza behar ditugu, informatikari dagokionez:

1. Zabalkunde orokorrerako datu-basea: edukiz, askotarikoa (Arauak, lexikoa, kontsultei emandako erantzunak...); mamiz, laburra (funtsezkoena bakarrik emanez, argi eta garbi); nornahiren eskurakoa (Euskaltzaindiaren gainerako datu-base osoak espezialistentzat-eta utziz); etengabe eguneratua (batez ere kontsulten erantzutegia); eta diseinuz, erabilterraza eta erakargarria.

Horrez gainera, kanpotiko galderak eta kontsultak samurki bideratzeko moduko estekaz edo "hiperbinkuloz" hornitua beharko du izan.

2. Erantzun beharraren ardura hartuko duten *Jagoneko* eta *Ikerreko* euskaltzainen arteko eguneroko harremanetarako bide bat: *Intranet*, *chat*, *IRC*, *ICQ* edo dena delakoa.
3. *Jagoneten* arduradun horiek, eta bereziki kudeatzailea, tresneriaz eta programaz hornitzea lan hori egin ahal izateko. Besteak beste, kudeatzailearen bulego "birtuala" sortu eta hornitu egin beharko da.

EUSKARA ELEZ ETA LEGEZ IPAR EUSKAL HERRIAN

Aramaio 1999-IX-25

Erramun Baxok

“Legez eta elez” 1997an Herri Urratsetako lema zen, euskararen ofizialtasuna eskatuz eta denbora berean atxikimendu gehiago euskaldunenganik beren hizkuntzarentzat. Lema beste esanahi batean hartuz, euskararen statusa aztertuko dut Iparraldean 4 pundutan:

- frantsesaren nagusitasuna legez,
- beste hizkuntzen onarpena legez,
- hizkuntz legediaren muga ezin gaindituak,
- gaur eguneko aterabideak elez.
- Euskararen onarpena.

1. FRANTSESAREN NAGUSITASUNA LEGEZ

Frantziako hizkuntz legediaren lehen ezaugarria da frantsesaren nagusitasuna. Frantsesa dela Estatuaren hizkuntza erabakia da François I. manuz geroztik (Villers-Cotterêts, 1539): “*Nous voulons d’ores en avant que tous arrêts (...) et autres quelconques actes de justice (...) soient prononcez, enregistrez et délivrez aux parties en langage maternel françois et non autrement*” (art. 110). “Hemendik goiti nahi dugu erabaki guztiak (...) eta beste zeinahi zuzenbidezko akta ahozkatuak izan ditén, idatziak eta auzikidei banatuak ama hizkuntza frantsesean eta ez bestela “ (110. atala). Bestela horrek erran nahi zuen latinez.

Frantziako iraultza denboran frantsesa zen nazioaren ikurra eta askatasunaren tresna. Gregoire abadearen ustez beste herri hizkuntzak sinesmen zaharren eta etsaien hizkuntzak ziren. Ordutik finkatu zen jakobinismoaren trilogia nazio batua, lurralde ezin zatitua eta hizkuntza bakarra.

1992an, bi legebiltzarrek Konstituzioa aldatu zuten, 2. artikuluari gehituz Toubon-Lamassoure emendakina: “*La langue de la République est le français*” “Errepublikaren hizkuntza frantsesa da”. Zergatik horrenbeste denbora eman zuten Villers-Cotterêtsko manua lege nagusian sartzeko? Orain arte ez baitzen beharrik, frantsesa Frantziaren hizkuntza izan zedin pleonasmo baten itxura

zuen. Europa batuak du aldatu hizkuntzen egoera, ingelesari emanez lehentasun praktikoa. Dena dela 2. artikulua ingelesari baino makur handiagoa egin die herri hizkuntzei.

1994: Toubon legeak erabakitzen ditu frantsesaren nahitezko eremuak. *“Art. 1: Langue de la République en vertu de la Constitution, la langue française est un élément fondamental de la personnalité et du patrimoine de la France. Elle est la langue de l’enseignement, du travail, des échanges et des services publics”* “1. art.: Konstituzioaren arabera Errepublikaren hizkuntza den frantsesak Frantziaren nortasuna eta ondarea oinarritzen ditu. Ikaskuntza-ko, laneko, harremanetako eta zerbitzu publikoetako hizkuntza da”. Jarraian legearen 24 artikuluek finkatzen dute frantsesaren erabilera iragarkietan, lan munduan, kontratuetan, publizitatean, zuzenbidezko idazkietan.

1994-1996: Legeen epaitegi gorenaren Konstituzio Kontseiluak bi erabaki hartu zituen, alde batetik Toubon legea eta bestetik Polynesiaren legea argitzeko: *“Le législateur impose l’usage du français aux personnes morales de droit public et aux personnes privées dans l’exercice d’une mission publique, ainsi qu’aux usagers dans leurs relations avec les administrations et services publics”* - “Legegileak frantsesaren erabiltzera behartzen ditu zuzenbide publikoan dauden pertsona moralak eta eginbide publiko bat betetzen duten pertsona pribatuak, bai eta baliatzaileak administrazioekin eta zerbitzu publikoekin dituzten harremanetan”. Frantsesaren erabilera nahitezkoa da administrazioetako arduradunentzat bai eta ere erabiltzaileentzat. Halere 1994eko erabakiak 3 salbuespen ezartzen ditu beste hizkuntzen alde, irakaskuntzan, komunikabideetan eta itzulpenak zerbitzuetan erabiltzeko.

Zein toki gelditzen zaie herri hizkuntzei? Toki hertsia egia erran, eta hain zuzen lerroalde honetan irekidurak erakutsi nahi nituzke, baliatu behar baititugu gure hizkuntz estrategia eragingarria izan dadin.

2. BESTE HIZKUNTZEN ONARPENA LEGEZ

1789ko Herritar eta giza ekubideen aitortpena idazki konstituzionala da. 11. artikulua komunikazioaren askatasuna aldarikatzen du: *“La libre communication des pensées et des opinions est un des droits les plus précieux de l’homme; tout citoyen peut donc parler, écrire, imprimer librement, sauf à répondre de l’abus de cette liberté dans les cas déterminés par la loi”*. “Gogoetak eta iritziak adierazteko askatasuna giza eskubideetan baliosena da. Beraz herritar orok hitzegin dezake, idatz eta inprima askatasunean, salbu erantzun beharko duela askatasun hori gaizki erabiltzen duenak legearen arabera”.

Eskubide hau Toubon-Lamassoure emendakina baino 200 urte zaharragoa da. Garrantzia handia dauka frantsesari eskusibotasuna kentzen baitio beste hizkuntza guzietan bezala. Herri hizkuntzak bi artikulua hauen artean kokatzen

dira. Maiz erraiten da 2. artikulua eginbide kolektiboa sortzen duela, frantsesa erabiltzeko zerbitzu publikoetan eta beraz zuzenbide publikoaren eremuan dagoela. Aldiz 11. artikulua askatasun indibidual bat definitzen duela, giza eskubideek pertsona bakoitza zaintzen baitute boterearen menetik, ondorioz eskubide pribatuan gabiltzala.

Egia erran, legelariak diote Frantziako zuzenbidean eremu publikoaren eta pribatuaren arteko muga ez dela ongi definitua, adibidez ikaskuntza, komunikabideetan eta gizarte zerbitzuetan medikuntza eta beste. Publikotasun kontzeptuaren malgutasuna bala dezakegu euskararen egoera hobetzeko. Eta guztenez hiru lege badira herri hizkuntzen erabilera onartzen dutenak erakunde publikoetan.

Irakaskuntza

1951: Deixonne legeak Hezkuntza Nazionalari manitzen dio herri hizkuntzen eta dialektoen irakaskuntza antola dezan. Lehen mailako errientek hizkuntza horiek erabil ditzazkete, astean oren batez, mintzatuz, irakurritz eta idatziz. Irakasle eskoletan ikastaldiak izan ditazke tokiko hizkuntzei eta kulturei buruz. Bigarren mailan eta baxoan tokiko hizkuntzak erabilgarri dira. Bordenleko unibertsitatean euskara eta euskal literatura irakatsiko dira eta diploma ofizialak banatuko. Lege hau luzaz lo egon zen, kasik Haby legea bozkatu arte (1975).

Gero sozialistak gobernuan sartu zirenean tokiko kulturak ez dira bakarrik ikasgai batzu, gainera hezkuntza tresna bilakatzen dira. Lekuko bi gutun. Savary gutunak (1982) herri kulturei "egiazko statusa" ematen die Hezkuntza Nazionalaren baitan eta hizkuntza horiek gai batzuren irakasteko baliatzen ahalko dira, ama-eskolatik unibertsitatearaino. Jospin gutunak (1983) ildo berari jarraikiz herri nortasuna sustengatzen du, sorkuntza kulturala eta ondare nazionalaren aberastasuna. Ez zuen oraino pluraltasunaren kontzeptua asmatua. Eskuin aldean hor dago Bayrou (edo Darcos) gutuna (1995) bi ikaskuntza ereduak finkatzen dituen, hastapenekoa astean 3 oren eta elebiduna denbora erdiz. Inmersioa edo murgilbidea ez du aipatzen bainan ikastolen sareekin eta beste herri eskolekin hitzarmena izenpetu zuen.

Beraz herri hizkuntzak eta kulturak hezkuntza publikoan sartuak dira. Baina ez da nehorrentzat beharrezko eginbidea. Irakaskuntza segurtatua da gurasoek, ikasleek eta irakasleek nahi badute. Zenbat baliatzen diren idazki ofizialek eskaintzen dieten ahalaz? Adibidez Iparraldeko lehen mailan % 5 eskolier ikastoletan dabilta, % 11 ikasgela elebidunetan eta % 11 hastapen kurtsoetan. Aldiz % 73 ikasle frantses elebarkarean daude, batzutan ingeles pixka batekin. Bigarren mailan eta unibertsitatean egoera oraino okerragoa da euskararentzat eta beste herri hizkuntzentzat.

Komunikabideetan

1982: Entzun-ikusgaien legeak bi eragin handi ukan zituen: alde batetik herri hizkuntzak eta kulturak sartu zituen komunikabide publikoetan. Bestalde Estatuaren monopolioa hautsi zuen, irrati pribatuak sortzeko baimena emanaz. Orduan Iparraldeko 3 herrialdetan sortu ziren 3 elkarte irratia Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xuberoko Boza, geroztik badabiltzanak. Orain legebiltzarrek hedabideen lege hau berriro nahi du gaurko komunikazio egoerari egokitzeko. Guri da herri hizkuntzen lekua zaintzea.

Administrazio publikoan

Ikusi dugu neurri handi batean administrazioa frantsesaren eremua dela. Halere konstituzioaren bikoiztasunari esker irakurketa ezberdinak posible dira. Alabainan 1992ko 2. artikulua ezin da irakurri, 1789ko 11. artikulua baztertuz, komunikazio askatasuna lehen mailako eskubidea baita.

Holaxet ulertu behar da Toubon legean (1994) agertzen den 21. artikulua: *“Les dispositons de la présente loi s’appliquent sans préjudice de la législation et de la réglementation relatives aux langues régionales et ne s’opposent à leur usage”*. “Lege honetako neurriak aplikatzen dira, herri hizkuntzei buruzko legediari eta araubideari kalterik egin gabe eta ez doaz hizkuntza horien erabileraren aurka”. Zer nolako erabilera, pribatua ala publikoa? Testuak ez du trenkatzen eta kontestu guztia komunikazio publikoarena da.

Beste irakurketa interesgarri bat Carcassonne txostenean (1996) agertzen da. Paris X unibertsitateko irakasleari gobernuak galdegin zion azter zenan Hizkuntza gutituen eurkartaren konstituzionaltasuna. Eurkarta sinagarria zela frogatu zuen administrazioaren kapitulua kendu gabe. 18 orrialdeko argudioa derama idazki juridikoen arteko koherentzia erakusteko, eta ondorio honetara heltzen da: frantsesa da administrazio hizkuntza normala baina ez dauka eskusibitaterik. Beste hizkuntzak ez dira debekatuak, beraz zilegi dira. *“Les soucis de bonne administration, de proximité ou d’efficacité peuvent légitimement inciter (...) à développer le bilinguisme”*. “Elebitasunaren erabilera bultzatzea bidezkoa da (...) administrazioa hobetzeko kezkaekin, hurbiltasuna edo eragin-kortasuna bilatuz” (63. atala).

Baina legelariak azpimarratzen du herri hizkuntzen erabiltzeko ahalmen horrek ez duela sortzen eginbiderik arduradunengan, ez eta ere hizkuntz eskubide kolektiborik herritarren alde. Gisa guziz frantsesa ezin da baztertu. “Tokiko administrazio publikoan, tokiko hizkuntza erabiltzeko ahal bat ematen delarik (maiz gertatzen den bezala de jure eta de facto), frantsesa baztertzen ez den neurrian beste hizkuntza bat inposatzeko, konstituzioaren aldetik onargarri da” (131. atala). Bi baldintza horiek betez, erabiltzaileen nahia eta frantsesaren

presentzia, daukagun konstituzioarekin, herri hizkuntzak erabilgarri dira zerbitzu publikoetan. Dena dela, Deixonnek 1951an hezkuntza nazionalaren bunterra arrailu zuen bezala, Carcassonne txostenak frantsesaren harresia doi bat urratzen du eta ateka hortarik konstituzionaltasunera pasarazten ditu Eurokartaren zati handi batzu, justiziaren eta administrazioaren artikulua kendu gabe.

3. HIZKUNTZ LEGEDIAREN MUGA EZIN GAINDITUAK

1999ko ekainaren 15ean, Konstituzio Kontseiluak erabaki hau hartu zuen: "Hizkuntza gutituen eta tokiko hizkuntzen eurokartak badauzka Konstituzioaren aurkako klausulak". Irakurketa zorrotz honen arabera, Eurokartaren aitzinsolasean eta 7. artikuluan, hiru printzipio badira onartezinak, hizkuntz eskubide kolektiboak, lurraldetasuna eta herri hizkuntzen erabilera publikoa.

Alde batetik Eurokartak aipatzen ditu "hiztun taldeak", "herri hizkuntzak erabiltzen dituzten multzoen beharrak eta nahiak konduan hartu behar direla", "agintariei aholkuak emateko erakundeak antolatuko direla" (7. art.). Hizkuntz komunitateak, mintzakidegoak edo erkidegoak onartuz, Frantziako jendetzeak legearen aitzinean duen berdintasuna hausten omen da. Alabainan Euskaldunek euskara erabiltzeko eskubidea eta eginbidea balute, bestek ez bezalako zuzenbide berezia balukete.

Bestalde 7. artikulua dio "herri hizkuntza bakoitzaren lurraldea errespetatuko dela, oraingo eta geroko administrazio zatiketak ez dezala ostopa hizkuntza horren aitzinamendua". Ez dakit Euskal departamenduaren auzia kasu horretan sartzen denetz. Dena dela Konstituzio Kontseilariaren arabera lurraldetasuna kulturaren edo hizkuntzaren arabera finkatzen balitz, jokamolde horrek Errepublika ezin zatituaren batasuna arriskuan ezar lezake.

Gainera bi tokitan Eurokartak aipatzen du herri hizkuntza bizitza publikoan erabiltzeko eskubidea. "Le droit de pratiquer une langue régionale ou minoritaire dans la vie privée et publique constitue un droit imprescriptible". "Herri hizkuntza edo hizkuntza gutitu bat bizitza pribatuan eta publikoan erabiltzeko eskubidea, ezin ukatuzko eskubidea da" Eta aitzin-solasak erreferentziak emaiten ditu nazioarteko zuzenbidean. Erabilera publikoa eskubide bezala eskatuz Konstituzioaren 2. artikulua aurka goaz: mintzatzeko askatasuna edo ahalmena bai, eskubiderik edo eginbiderik ez.

Harrigarri da Konstituzio Kontseiluaren erabakia zein fundamentalista den. Alabainan Errepublikaren barnean eskubide kolektibo bereziak hala nola sindikatentzat eta ofizio batzurenzat; lurralde administrazioak badira ezagarrak kultural berezia dutenak, Britainia, Kortsika, Kaledonia Berria; hiztunak jatorrizko hizkuntza erabiltzeko azkatasuna badu, Estatuak askatasun hori zaintzeko eginbidea du. Ondorioz Carcassonne legelariaren arabera Eurokarta sinagarria zen, ohar batean printzipio konstituzionalak oroitaraziz. Kontseiluaren

arabera, ohar batek ez dio zuzenbide idazki bati bere indarra kentzen eta jakobinismoaren trilogia, "nazio bat, lurralde bat, hizkuntza bat", Errepublikarentzat arriskugarria da, herri hizkuntzei aplikatzen delarik.

Hiru printzipio horiek ukatu ondoren, Konstituzio Kontseiluak aipatzen du komunikazio eta edierazpen askatasuna bereziki irakaskuntzan, ikerketetan eta komunikabideetan, bai eta ere itzulpenak administrazioan erabiltzeko ahalmena. Ondorioz gobernuak sinatu dituen (39) hizkuntz neurriak onargarriak dira "alabainan gehien batean Frantziak herri hizkuntzen alde egiten duena agertzen dute".

4. GAUR EGUNEKO ATERABIDEAK ELEZ

Arriskuan den hizkuntza bat salbatzeko bi baldintza beharrezkoak dira, erakundea eta atxikimendua. Edo bestela erranez, hizkuntzaren antolaketa eta erabilera, hizkuntz eskaintza eta eskaera, "legea eta elea". Eta biak elgarrekin. Lehenik aipa dezagun erakundea. Hizkuntza gizartearen tresna delakotz gizartea hizkuntzaren zaindari izanen da: akademiak corpora zaintzen du, botere politikoak hizkuntzen statusa finkatzen du eta administrazioek erabilera publikoa segurtatzen dute. Erakundea beharrezkoa da baina ez da aski. Ikus Irlandan zer gertatzen den. Hortakotz hiztunek beren atxikimendua erakutsi behar dute herri hizkuntzaren alde, familiako jarraipena segurtatuz, ikastetxeetan landuz, egunero erabiliz etxean eta gizartean.

Hizkuntz eskaera

Zertan da euskarari buruzko atxikimendua? Boluntarismo hau hizkuntz inkesta guztiek agertzen duten ezaugarria da. Galdea euskarazko ikaskuntzaz delarik edo euskararen gizarteko erabileraz erantzunak baikorrak dira neurri handian. Aldiz galdatzen delarik euskara beharrezkoa denetz hemen bizitzeko, dudazko erantzunak biltzen dira. Beraz euskaldunok behar dugun baino euskara gehiago nahi dugu. Katalunian eta beste herri askotan horrelako boluntarismorik ez da agertzen, hizkuntz errealismoa baizik.

Hain zuzen Frantziako hizkuntz legediaren oinarria gizartearen eskaera da. Guraso multzo aski handiak nahi badu, eskola batek ikasgela elebidunak irek ditzake. Beste adibide bat, komunikabide publikoen (eta pribatuen) irizpide nagusia entzulegoa da. France 3 telebistak euskal emankizunak murriztu ditu, ikuslego eskasez omen, Akitaniako erdaldunek ihes egiten zutelakoan. Estakurua: aterabidea litzateke irrati eta telebista publikoa osoki euskaraz. Ez dugu oraindik ardietsi. Guhauren irratiak sortu ditugu eta Euskal telebistak ematen digu Frantziak eskaini behar lukeen zerbitzu publikoa.

Gizarte zerbitzuen mailan ere gizarte eskaera zer bait bada: seinalakuntza elebiduna, euskarazko helbideak posta zerbitzuetan, euskarazko elkarrizketa batzu herriko etxeetan eta saltegietan, elizkizun elebidunak. 1996ko ikerketa soziolinguistikoak erakutsi digu erabilera publikoa ahul zela Iparraldean, salbu eremu tradizionaletan hala nola lagunarteak, merkatuan eta erlazio gunetan.

Zorigaitzez euskarari buruzko atxikimendua ahulduz doa. Alabainan nekagarri da beti eskale izaitea: militantismoa beharrezkoa baina ez da egoera normala, normalizazio falta frogatzen baitu. Euskal gogoa bada eta aipatu ikerketak erakusten du Iparraldeko jendeen % 49, euskaldun ala erdaldun, euskararen alde direla. Baina gogo ona ez da jokabide bilakatzen. Adibidez familiako transmisioa gutituz doa, bigurasoak euskaldunak direlarik ere haurren % 82 dira euskaldun, guraso bat erdalduna delarik haurren % 73 dira erdaldun. Eskolak ez baitezake familiaren egindidea bete, 16-24 urteko gazteetan % 11 dira euskaldun Iparraldean, Euskal Autonomia Erkidegoan adin berekoetan % 33 euskaldun direlarik. Aurtengo erroldan hizkuntz galdeak baziren. Ondorioen beha gaude, itxaropen izpi bat agertuko denetz euskal irakaskuntzari esker.

Erakundearen eginbidea

Eskaera ahulduz doa ez baita hizkuntz eskaintzarik erakundearen aldetik. Frantziar herri hizkuntzez axolatzen direnen helburu nagusia da *hizkuntz legea* ardiestea, Europarlamentuko Kililea txostenak (1994) definitzen duen “legezko izaite egokia” (“statut légal approprié”) gizarte osoa estaltzen duena: ikaskuntza, zerbitzu publikoak eta hedabideak. Bagenuke lotsatzekorik, 50 urtez 50 legegai irakurri baike nituen eta denak ilortu ziren salbu Deixonne legea. Dirudi aroa hobetuz doala. Alde batetik gobernuak aurtengo maiatzean Eurokarta izenpetu du. Konstituzio Kontseiluak 4 lerroalde ukatu baditu ere (garrantzitsuenak nonbaitik ere!) beste guztia onartua da, bereziki 3. zatian hautatuak diren 39 hizkuntz neurriak. Sinadura hau erabaki politiko indartsua da herri hizkuntzen alde. Ondorioak ikusiko ditugu neurri horiek legeztatuko direlarik.

Bestalde Carcassonne txostenak proposatzen du hizkuntz lege baliagarri baten edukia, eta bereziki ororentzat onargarri den printzipio ideologikoa: “Cet- te loi devrait formuler un principe, celui de la reconnaissance, comme élément du patrimoine culturel national, des langues de France”. “Legeak printzipio hau finkatu behar luke, Frantziako hizkuntzak ondare nazionalen kokatzen dire- lako onarpena”.

Gainera euskarak eta beste herri hizkuntzek hartzen dute *izaite konstitu- zionala* frantsesak duen bezala. Euskaltzaindiak Miarritzeko txostenean (1997) euskararentzat koofizialtasuna eskatu zuen. Aterabide optimal honek erkidegoa suposatzen du eta federalismoa, hots, iraultza kultural bat gure hautetsienganik: Bernard Poignant Kemperreko auzapezak Bordelen erraiten zigun gaur egun

ez dela ez deputatu bat ez senadore bat herri hizkuntzen ofizialtasunaren alde denik. Halere hartze dugun eskubide hori etengabe eskatuko dugu: “res clamat domino”. Anartean herri hizkuntzak konstituzioan sarrarazi behar ditugu, ofizialtasunaren ate handitik ezin bada, bederen ondare nazionalaren leihotik. Parekotasun bat agertzen da hizkuntzen artean: euskarak Frantzia bere lekua biltzen duen bezala, frantsesak Europan berea zaintzen du. Borroka berdina deramagu. Deus kendu gabe 2. artikulutik, legegilek gehi lezakete “Frantziako hizkuntzek ondare nazionala osatzen dute”.

Iparraldean euskararen sustengatzeko erakundea eraiki behar dugu, *Hizkuntz Kontseilua*. Eztabaida luzearen ondotik, hautetsien eta euskal elkartearen artean egitura eta eginbideak definitu ditugu. Euskalgintza elkarteetako arduradunekin bilduko dira botere publikoaren 4 sailetako ordezkariak: Estatuak, Akitania, Departamendua eta Herriarteko euskal sindikata. Hizkuntz Kontseiluak 3 funtzio nagusi beteko ditu: proposamen funtzioa gizarte eskaera adierazteko aholku eta abisu moldean; funtzio teknikoa euskal gogoia sustatzeko, erabakiak gauzatzeko, hizkuntz zerbitzuak eskaintzeko; beha gune edo sintesia funtzioa ere urtero euskararen aldeko programa finkatzeko eta epe definitu batzutan neurtzeko. Hots botere politikoa eta gizarte zibila bilduko dituen erakunde honek, bere gain hartuko du Ipar Euskal Herrian euskararen geroa, Euskaltzaindiarekin elkartasunean eta Hegoaldeko hizkuntz zerbitzuen lankidetzarekin. Halere jakinez faktore eragingarriena dela Euskaldunen hizkuntz atxikimendua.

5. EUSKARAREN ONARPENA

Hiztegintza hautu bat eginez, “onarpen” hitza hartzen dut latinezko “status” edo frantsesezko “reconnaissance” hitzen esanahi berdintsuetan. Zein moldeko onarpena edo statusa ardietsi behar dugu Iparraldean deramagun borroka juridiko-politikoan?

Hizkuntzaren onarpena eskatuz, “statut de la langue”, duela hogeitazko urteko tradizioari jarraitzen gira, Pizkundea federazioa sortu zuen liburuxka horiaren izenburua hau baitzen: “Pour un statut de la langue et de la culture basques”, euskara eta euskal kulturaren statusaz. Esaeraren alde ona da ororentzat ulergarri dela eta orotan erabilgarri, onarpen molde guziak har baititzake. Halere baluke adjektibo edo izenondo baten beharra. Zein izenondo?

Onarpen juridikoa? Irudiz esanahia zehatzagoa da. Baina ikusi dugu Frantzia hizkuntza guziek badutela zuzenbidezko onarpena, 11. artikuluari esker adierazpen askasunaren izenean eta zer ondorio atera daitezkeen harreman publikoetan ere. Gutiz ez utz. Halere zuzenbide indibidualean gaude eta zerbait gehiago nahi dugu. Demagun legezko onarpena. Ikusi dugu Frantzia bada goela hizkuntz legeria zerbait: Deixonne, Tubon, Polinesia, Korsika, Kaledonia

Berria ... Falta zaiguna da Kilileak definitu zuen *“izaite legal egokia”*, herri hizkuntzei sustengua emanen diona, komunikazio eremu guzietan, nola irakas-kuntzan hala administrazioan eta hedabideetan.

Onarpen publikoa? Niretzat hau esamolderik eragingarriena da, alabainan frantsesaren eta herri hizkuntzen arteko ezberdintasun konstituzionala publikotasunean dago. Berdintasuna edo gutienez parekotasuna bilatzen dugun neurrian, errepublikaren mailan publikotasun juridikoa eskatu behar dugu. Esaera honen alde ona da onarpen publikoaren borroka berehala eraman genezakeela, de facto, alor guzietan, orain arte ardietsi dugunaren jarraipenean. Hortarako ez dugu hizkuntz legearen zai egoterik. Geroke euskal departamenduarentzat ere balio du. Eurokartak ateka berri batzu ireki dizkigu, militantismoaren bidez zabal litezkeenak. Bestalde eskaintzen diguten *“ondare nazionala”* har nezake *“ad hominem”* argudiotzat, eta bakoitzak asma dezala zein den bere nazioa.

Onarpen ofiziala? Ofizialtasuna da gutartean euskarari buruz erabiltzen dugun hitzik aberatsena, sinboloz betea ikurriña bezala. Hegoaldean biziki eragingarria da Espainiako konstituzioak erkidegoari lotzen duelakotz. Ondorioz Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntz legeak (1982) dio *“Euskal Herriak euskera du berenezko hizkuntza”* eta gero *“EAEen hizkuntza ofizialak euskera eta gaztelania dira”*.

Iparraldean araberako moldean mintzatuz abertzale ez diren herritarrekin edo beste herrialdeetan, adibidez *“koofizialtasuna”* aipatuz, ez gaituzte ulertzen. Ofizialtasunak Frantzian sortzen du oinarritzko auzi konstituzionala, lurraldetasunari eta herritasunari lotua delakotz, *“komunitarismoa”* dio Carcassonnek. Politikaren alorrean borroka hori ere eramaten dugu, Korsikan edo Polinesian bezalatsu. Edo euroeskualdearen bidez. Gaur egun euskal departamendua ezin ardietsiz ari gara, hau nahitaez errepublika erakunde bat delarik.

Azkenean zer? Nire aspaldiko leloa da, *“ametsa eta urratsa”*. Iparraldean euskararentzat egin behar dugu publikotasunaren urratsa, eta ofizialtasunaren ametsa. Ez da ametsik gabeko urratsik. Baina realpolitikaren bikoiztasuna onartzen ez badugu, luzaz oraino herri birtual batean janen ditugu ametsetako lukainkak.

Espresio konstituzionala harrigarria da bere laburrean: *“Errepublikaren hizkuntza frantsesa da”*, inolako adjektiborik gabe. Guk ere, inolako adjektiborik gabe ihardetsi eta ihardoki behar diogu: *“Euskal Herriaren hizkuntza euskara da”*. Horixe idatzi genuen Euskararen Agirian (1994) eta Hizkuntz Antolaketaren Eskeman (1996). Agian, euskara Euskal Herriko hizkuntza nagusia bilakatuko delakoan, de facto, urratsez urrats.

NAFARROA: EUSKARA BERMATZEKO BIDE BERRIEN BEHARRA

Aramaio, 1999ko irailaren 25a

Andres Iñigo,
euskaltzaina eta Nafarroako ordezkaria

1. LEGEEN ERAGINA

Euskarak Nafarroan egun duen egoerak bi lege ditu oinarri.

a) 1982ko *Foruaren Hobeagotzea* legea. Bere 9. artikulua honela dio: 1) "Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala. 2) Euskarak ere hizkuntza ofizial maila izango du Nafarroako eskualde euskaldunetan. Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorraren xedearen barruan, hizkuntza horren irakaskuntza ordenatuko du". Ikus daitekeenez, lege honek euskara bigarren mailan jartzeaz gain, Nafarroako eskualde euskaldunetara zokoratzen du. Beraz, ez du gure hizkuntza nafar guztien ondare kulturaltzat hartzen eta, horren ondorioz, nafar guztiek ez dituzte eskubide berak euskarari dagokionez.

b) 1986ko *Euskarari buruzko foru legea* (Vascuenceren legea deitzen zaiona). Lege honek Nafarroa 3 zatitan banatzen du. Zatiketa honen ondorioz, hizkuntza eskubideak ez zaizkio aitortzen nafar bakoitzari nafarra izateagatik edo erkidegoko eremu batekoa edo bertzekoa izateagatik, baizik eta momentu bakoitzean, halabeharrez edo kasualitatez, bizitokia kokatzen duen lekua erabera.

Patxi Zabaletak, Euskaltzaindian sarrera hitzaldian (1), aztertu eta aski agerian utzi zituen lege honek ezarritako muga geografikoek eurekin batera dartzaten kontraesanak. Honako adibide hauetan ikus daitezke:

a) Eremu euskaldunean bizi den familia batek, Leitzako batek erraterako, Leitzan bizi den bitartean, bere seme-alabak D eremuan hezitzen ahal ditu, baina lan arazoak edo bertze edozein arrazoi dela medio bertze eremu batera joan behar badu bizitzera, Lerinera eman dezagun, seme-alaba horiek euren ikasketak erdal adarrean egitera pasatu beharko dute derrigorrez, ez dute eskubi-

(1) Patxi ZABALETA: "Euskaltzaindian sartzea", *Euskera*, XXXIII (2. aldia) (1988, 1), 17-30 or.

derik euskaraz ikasten segitzeko. Baina, alderantziz, Leringo familiak Leitzara etorri behar badu, familia horretako umeek eskubidea dute gaztelaniaz ikasten segitzeko eta Administrazioa behartua dago, eurentzat bakarrik bada ere, Leitzan erdal adarra ezartzera.

b) Nafarroako hiriburua, Iruñea, nafar guztien administrazio, ekonomia, kultura, unibertsitate, gizarte-harreman, osasun zerbitzu nagusi eta abarren zentroa dena, ez dago eremu euskaldunean kokatua. Eta gaur egun Iruñerrian bizi da Nafarroako euskaldun gehiena.

c) Orain dela 12 urte P. Zabaletak zioen, gogoan izan behar zela eremu ez euskalduneko Tafallan Imozko haranean baino euskaldun gehiago bizi zela, eta eremu mistoko Lizarran Larraunen baino gehiago. Gaur egun diferentzia hori askoz ere nabariagoa da: Imotzen 355 ditugu eta Tafallan 1283, Larraunen 1022 eta Lizarran 2041 (2).

Hau dena aski ez dela, *Vascuenceren* legeak, hizkuntza eskubudeei dagokienez, ez du ezer lotzen eta legealdi bakoitzeko Gobernuaren esku gelditzen dira legearen garapenerako hartu behar diren erabakiak. Jokabide honen adibide ditugu, bakar batzuk bertzerik ez aipatzeagatik, azken urte honetako gertakari lotsagarriak, hala nola, FM irrati lizentzien esleipena, Iruñeko Ermitagña auzoko 17 haurrei D ereduan hezitzeko egindako ukapena, edo Berako Labiaga ikastolari Bigarren Hezkuntzako ikasketen errekonozimendu ofizialaren ukapena.

2. AURRERAPAUOAK

Legeak euskara nafar guztien ondare kulturala dela ez ezagutzeaz gainera, Gobernuak 13 urte hauetan lege horren aplikaziorik estu eta zikoitzena aplikatu badu ere, aurrerapausoak eman dira, batez ere irakaskuntzan, bereziki, 3-16 urtekoen artean. Hona hemen datu adierazgarri batzuk (3).

— Nafarroa osoan, D ereduan ikasten dutenen kopurua azkeneko hamar urteetan ia ia bikoiztu da, hots, % 13tik % 21era pasatu da.

— Iaz, eremu euskaldunean, 3 urteko haurren % 84,6 D ereduan matrikulatu zen.

— Eremu mistoan D ereduko ikasle kopurua urtetik urtera gehitzen ari da: iaz 3 urteko haurren % 30,9 D ereduan matrikulatu zen eta bertze % 25 A ereduan.

(2) *Nafarroaren Populazioaren Estatistika*. 1996. *Populazioaren banaketa euskararen eza-gutzari buruz*. Nafarroako Gobernua, 1999.

(3) Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua.

— Eremu ez euskaldunearn ikastola batzuk badira eta irakaskuntza publikoan A ereduaren matrikula nabarmenki ari da igotzen: adierazgarri da ikustea 12-16 urtekoen arteko portzentaia % 5,5koa dela eta 3 urtekoena, aldiz, % 37,6koa.

Dena den, irakaskuntzaren esparru honetan, 3-16 urtekoenean alegia, ematen ari den hobekuntzak bere horretan dauka helmuga, Batxilergoa amaitzen dutenenan, euren euskara prozesua segidarik gabe, bukatua geratzen delako, honako bi arrazoi nagusi hauek direla medio:

a) Batetik, unibertsitatara sartzearekin batera, euskara ikaste-erabiltze prozesua moztu egiten delako. Selektibitatea urtero gaintitzen duten 350 ikasle inguru hizkuntzaz aldatzera behartuak izaten dira, Magisteritzako Haur Hezikuntza espezialitatea hartzen dutenak izan ezik (65en bat neska-mutil osotara). Unibertsitatea ez dago *Vascuenceren* legearen menpe eta, hortaz, Nafarroako Unibertsitate Publikoa libre da nahi duen plangintza antolatu eta martxan jartzeko, batez ere kontuan izanik Nafarroa osorako dagoen unibertsitate publikoa dela. Baina, orain dela gutxi, Goio Monrealek prentsa artikulua batean adierazi zuen bezala, ez dago hizkuntza plangintza egiteko inolako borondaterik (4).

b) Bertzetik, irakaskuntza arlotik kanpo: administrazioan, hedabideetan, kultura eta kirol munduan, giza-zerbitzuetan, lan munduan, etab. legeak deus lotzen ez duenez, ezta Gobernuak medioak jartzen ere, erran daiteke ez dela aurrerapauso nabaririk egiaztatzen ahal.

3. GIZARTEAREN JARRERA

Vascuenceren legeak eta Gobernuak ukatzen dutena gizartea ari da aldarrikatzen, *euskarari bai* erraten, batzuetan adierazpen publiko puntukarietan eta, batez ere jarreran, eguneroko bizitzan. Errandakoa argitzeko datu batzuk azalduko ditut:

a) Inkestek diotenaren arabera, euskararen alde daudenen kopurua gora egiten ari da urtetik urtera:

Urtea	Alde	Aurka	Ez alde / ez aurka
1991	% 22	% 54	% 24
1996 (5)	% 38	% 32	% 30

(4) Gregorio MONREAL ZIA: "Régimen lingüístico e irresponsabilidad académica", Diario de Navarra, 1999-6-12.

(5) *Euskal Herriko Soziolinguistikazko inkesta*. 1996. Nafarroa. Euskararen Jarraipena II, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua.

b) D eta A eredueta ikasten ari direnen kopurua, 2. atalean aipatu dudan bezala, urtez urte igotzen ari da.

c) Helduen artean ere, euskara ikasten ari direnak gero eta gehiago dira azkeneko hamar urteak konparatzen baditugu (6):

Urtea	Euskaltegi Publikoetan	Euskaltegi Pribatueta	Osotara
1989	1096	2189	3283
1999	2541	3560	6101

Kontuan hartzekoa da, bertzalde, ikasle gehienen kualifikazio profesionala. Nafarroako Gobernuaren euskaltegietan, behinik behin, ikusten ari baikara, horien artean, gero eta gehiago direla goi mailako ikasketak egin dituztenak, diplomatu eta lizentziatuak. Horretaz gain, funtzionarioen euskaltegian hamar urte horietan 171tik 517ra igo da ikasleen kopurua.

Irakaskuntza datu hauekin batera, aintzat hartzekoa da, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak jadanik 2293 (7) titulu eman dituela eta Nafarroako Gobernuak, EGA azterketa egiten hasi zenetik, 1422 (8).

d) Unibertsitate Publikoan langile, ikasle eta irakasleen kopuru handi bat, behin eta berriz, aldarrikatzen ari da euskararen normalizaziorako plangintza.

e) Hizkuntza plangintza eta euskaraz bizi ahal izateko eskubidea dira etengabe aldarrikatzen ari direna zenbait erakunde, udal eta mankomunitate, sindikatu, etab.

4. BIDE (LEGE) BERRIEN BEHARRA

Gizartea, orokorrean, hitzez eta egitez, aldarrikatzen ari denaren ildotik, azkeneko urte honetan, *Oinarriak* deitutako erakunde legeztatua osatzen duten 16ren bat taldek (Ikastolen Federazioa, Sortzen, Udaletako Euskara Teknikariak, Bertsolari elkarteak, Marmari, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, IKA, Ikasle Abertzaleak..., ELA, LAB, STEE-EILAS sindikatuak, bertzeak bertze), *Lege berri baterantz* titulupeko txosten bat kaleratu dute. Txosten horren oinarri honako dokumentu hauek hartu zituzten: 1996an Bartzelonan egindako *Hizkuntza eskubideen Deklarazio Unibertsala*, 1983ko *Llei de Normalització lingüística a Catalunya*, 1982ko *Euskal Autonomi Erkidegoko legea*, eta 1986ko Nafarroako Parlamentuaren *Vascuenceren legea*. Txostengileen ustez, Nafarroan

(6) Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua.

(7) Iturria: Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala.

(8) Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua.

euskararen normalizazioa bermatuko lukeen legeak kontuan eduki beharko litzatekeen oinarritzko printzipioak dira bertan azaltzen dituztenak. Dokumentua luzea ez bada ere, hitzalditxo hau gehiegi ez luzatzearen, laburki azalduko dizkizuet, nire ustez, aipatutako txosten horren ideia nagusiak:

Printzipio orokorrak:

— Euskara hizkuntza ofiziala da Nafarroako lurralde osoan.

— Nafarroa lurralde elebiduna denez, bi hizkuntza ofizialak erabiltzen dituzten herritarrek eskubide berak dituzte.

— Hizkuntzaren dimentsio indibiduala eta kolektiboa ezin dira berezi. Hizkuntza komunitatearena da eta komunitateko biztanleak dira erabiltzen dutenak.

— Euskara eta euskal kulturaren transmisioa izatea eskubidea da. Hortaz, euskarak hedabideetan behar adineko presentzia eduki behar du, eta komunitateak euskararen erabilera eta transmisioa bermatzen dituzten baldintzak izateko eskubidea du.

— Nafar guztiek dute ofizialak diren bi hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko eskubidea arlo publikoko jarduera guztietan.

a) Irakaskuntzan:

— 0-3 urtekoentzat: guraso eta tutoreek aukeratuko dute hizkuntza.

— 3-18 urtekoentzat: Gobernuari dagokio irakaskuntza publiko eta pribatuan biztanleen eskubideak bermatzea.

— Lanbide Heziketan: euskaraz ikastearen garrantzia azpimarratzen da, euskara lan mundura eraman eta erabili ahal izateko.

— Unibertsitatean: Ikasleek hautatzen duten hizkuntzan ikasteko aukera eman.

— Helduen euskalduntze-alfabetatzerako: Gobernuari dagokio kontzientzia kanpainak antolatzea eta eskaera guztiei aukera ematea.

b) Komunikabideetan:

Gobernua da, irratigintzan, prentsan, argitalpenetan, informatikan... hizkuntzaren normalizazio maila lortzeko, baldintzak ezarri behar dituenak.

c) Administrazioan:

Biztanleen hizkuntza eskubideak: Gobernuaren administrazio, herrietako administrazio, erregistro, notari, abokatu... izkribuetan, epaitegietan... bermatu behar dira. Gobernuak zirkuito elebidunak sortu eta martxan jartzeaz gain, urtero euskara beharrezkoa den lanpostuen iragarpenak egin behar ditu.

d) Kultura eta kiroltako zerbitzu eta gertakarietan euskararen erabilera normalizatu eta bermatu behar da.

e) Alor sozioekonomikoan:

— Merkataritza jardueretan: salerosketa, banku eragiketan, aseguruetan, lan kontratuetan...

— Publizitatean: errotuloetan, etab.

— Produktu eta zerbitzu eskaintza, idatziz nahiz ahoz, bi hizkuntzetan.

Hasieran aipatu ditudan Vascuenceren legearen mugak eta kontraesanak gaitzen hasteko bidean jar gaitzakeen dokumentu baliagarria dela iruditzen zait. Txostenaren beraren tituluak dioen bezala Lege berri baterantz abiatzeko oinarrizko puntuak dira, gutxienez eztabaida bideratzeko kontuan eduki beharreko oinarriak.

Euskaltzaindia arautzen duen 1976/573 Erret Dekretuaren 1. artikulua e) eta f) puntuen arabera, Akademiari dagokio, bere eginkizunen artean, euskararen erabilera aitzinatzea eta hizkuntza eskubideak zaintzea. Ezagunak dira, Euskaltzaindiak bere eginkizun horiek betetzearren bere historian zehar emandako pausoak eta egindako adierazpen eta salaketa publikoak ere, hala nola, 1978ko Konstituzio, 1982ko Foruaren Hobegotzea lege, 1986ko Vascuenceren lege, eta 1998ko FM irratiz lizentzien esleipenen aurrean.

Jagon Saileko Sustapen batzordean eskatu zitzaizkidan Nafarroan Vascuenceren legearen ondorioz euskararen erabilera noraino dagoen bermatua eta behar harko liratekeen aldaketen lan deskriptiboa. Hori izan da laburki azaltzen saiatu naizena eta, batez ere, aitzina begiratuz, gizartean gai honetaz kezkatutako dauden erakunde batzuek elkarlanean apuntatu dituzten nondik norakoak *Jagon* Sailak eta, finean, Euskaltzaindiak ezagut ditzan.

1899-1999: EUSKAL JAIEN MENDEURRENA

Aramaio, 1999-IX-26

Ekitaldiko omenduak:

Pedro Pujana, Jesus M.^a Elejalde, Sabin Salaberri, Patxi Uribarren,
Jose Mari Velez de Mendizabal eta Bizente Goikoetxea abesbatzari omenaldia.

LORE JOKOAK 1899-1999

Aramaio, 1999-IX-26

*Iñaki Nafarrate,
Aramaioko alkatea*

Egun on, jaun-andreok.

Lehenengo eta behin, eskerrik asko guztioi etortzeagatik: agintarioi, gonbidatuoi, senideoi eta hemen bildu zareten guztioi.

Barkatuko duzue, baina bilkura-areto hau txikia da eta, gaurkoa bezalako ospakizun handietan, ezin ditu hartu barruan egon nahi duten guztiak. Megafonia bidez dena entzungo duzue Udaletxe inguruan zaudetenok. Hala izango ote da.

* * *

Muy buenos días, señoras y señores. En primer lugar muchas gracias a todos por vuestra presencia, autoridades, invitados, familiares y público en general.

Os pido disculpas, porque el aforo de este salón de plenos no permite que en los actos de esta trascendencia puedan estar presentes todas las personas que lo desean. Espero que por medio de la megafonía se pueda seguir el acto en los alrededores de la Casa Consistorial.

* * *

Besterik gabe, Eusko Ikaskuntzako ordezkaria den Juan Garmendia jaunari hitza emango diot.

* * *

Ondoren, Euskaltzaindiko euskaltzainburu den Jean Haritschelhar jaunak hitz egingo du.

* * *

Gero, Eusko Jaurilaritzako ordezkaria den Xabier Aizpurua jaunak hitz egingo du.

Jarraian, Arabako Kultura Diputatuak hitz egingo du, Pedro de San Cristoval jaunak.

* * *

Benetan harro gaude Lore Jokoen mendeurrena, euskal jai eder hauen mendeurrena, Aramaion ospatzen ari garelako. Hainbat ekintza programatu dira iraileko asteburu guztietarako eta urriaren lehenengorako. Antoine D'Abbadiek filosofia jakin batekin sortu zituen Lore Jokoak; filosofia horri begira programatu dira gure ekintza guztiak. Jai hauek lehen ere antolatu ziren Euskal Herriko zenbait udalerritan; gure nahia da mendeurrenak ere udalerrri horietan ospatzea. Horrela, bada, Zumaia eta Azkaine izango dira hurrengoak, jaiok han ospatu ziren eta 1900ean.

Benetan harro gaudela diogu, mendeurrenaren ospakizuneko ekintzarik nagusienetakoan izan berri garelako; horrelakoa izan da-eta gaurko meza nagusia, ederra bezain hunkigarria, parte hartu dutenei esker. Bizente Goikoetxeak idatzi zuen meza 1899ko Lore Jokoetarako, baina honelako edo halako arrazoiak zirela-eta, ezin izan zuten kantatu. Gaur bai, gaur ahal izan da, Aramaioko beste seme-alaba batzuek egokitze-lana euren gain hartu eta bete egin dutelako.

Mendeurren hau ospatzeko jaietz gainera, badugu beste ospakizun bat ere, garrantzi handikoa dena: Aramaioko seme kutun izendatuko ditugu bertoko lagun eta elkarte batzuk. Egin duten lana eta jardunagatik ezagunak dira bai gure herrian bai kanpoan. Literaturan, euskaran, musikan eta beste hainbat arlotan lan eskergea egin dute eta Aramaioren izena ezagutarazi eta zabaldu. Hori dela-eta, merezia dute sari garrantzitsu hau.

Denbora da udalbatzak hartua zuela erabaki hau. Gaur beteko da.

Sinestuta nago badirela Aramaion sari hau merezi duten beste pertsona batzuk ere. Oraingo honetan bidea egiten hasi nahi dugu, merezi duten beste lagun horiek ere, aurrerantzean, omenaldi hau jasotzeko aukera izan dezaten.

Gaur ez dugu gure artean Aramaioko seme kutun den Pedro Pujana jauna. Osasunez makal dabil eta ezin izan du etorri. Gogora ekarri nahi dut gure Pedro adeitasunez eta bihotzez. Hurrengo egunen batean eramango dizkiogu Joxe Mari Abarrategi, Udaleko Kultura arduradunak eta biok beste omenduek gaur jasoko dituzten oparitxoak.

* * *

Estamos muy orgullosos de poder celebrar el centenario de los Juegos Florales, estas magníficas fiestas euskaras en Aramaio. Durante todos los fines de semana del mes de setiembre y la primera de octubre se han programado diferentes actividades, siguiendo la filosofía por la cual se crearon los Juegos Florales por Antonio Abbadie, su precursor. Es nuestro deseo que se celebren

los centenarios en los diferentes municipios de Euskal Herria, donde se organizaron estas fiestas por lo que pasamos el testigo al municipio de Zumaia y Ascain/Azkaine, donde se celebraron en el año 1900.

Y decimos que estamos muy orgullosos, porque acabamos de asistir a uno de los eventos principales de este centenario, como ha sido la magnífica y emocionante puesta en escena de la misa que Vicente Goikoetxea escribió para dicho evento, allá por el año 1899 y que no pudo ser cantada por razones de diversa índole. Hoy ha sido posible llevar a cabo, gracias a la labor y el trabajo de adaptación de otras personas, hijos también de Aramaio.

El otro evento principal de este centenario que celebramos además de las fiestas es el nombramiento de hijos predilectos de Aramaio a personas y asociaciones culturales que por su labor, trabajo y dedicación ampliamente reconocido dentro y fuera de nuestro pueblo, en diferentes facetas como la literatura, euskera, música, etc., han dado a conocer el nombre de Aramaio, siendo merecedores de esta importante distinción.

Aunque los acuerdos se tomaron en el Pleno del Ayuntamiento con anterioridad, hoy los llevamos a la práctica.

Estoy convencido de que otras personas de Aramaio son merecedoras también de esta distinción, por lo que pretendemos abrir el camino para que en el futuro este homenaje se amplíe y llegue a todas las personas que deban alcanzar este reconocimiento.

Hoy no podemos contar con la presencia de D. Pedro Pujana, hijo predilecto de Aramaio, por motivos de su precaria salud, pero quiero hacer una mención especial, cariñosa y afectuosa para Pedro, al mismo tiempo informaros que durante los próximos días se le hará entrega en su residencia por parte de D. Joxe Mari Abarrategi, responsable de Cultura del Ayuntamiento, y de un servidor de los detalles que hoy recibirán los demás homenajeados.

Ahalik eta laburren izatearren eta ez zaitezten nekatu, omenduei opariak banatzen hasiko gara. Kulturako zinegotziak euretariko bakoitzaren merezimenduak iragarriko ditu eta nik opariak eman. Hauek dira: 1.—beren-beregi omenaldi honetarako diseinatutako eskultura; 2.—Udalbatzaren erabakiaren oroitzapenezko plaka eta 3.—Aramaioko intsignia, urrezkoa. Omenduek, nahi badute, hemen bildutakoei hitz batzuk esateko aukera izango dute.

* * *

PEDRO PUJANA AGIRREGABIRIA, Aramaio 1915-06-29

Abadea (1944). Bilbon bizi da.

Euskaltzain urgazlea (1979) / Académico correspondiente.

Euskaltzain ohorezkoa (1995) / Académico de honor.

Argitalpenak:

Euskal-aditza (bizkaiera) (1970).

Aitortu... zer dala-ta? (1972).

Oletako euskal aditza (1979).

Bizkaiko Forua euskaratu eta baita Gernikako Juntetxeko Areto Nagusian dauden *esaldiak* ere.

* * *

SABIN SALABERRI URCELAY, Aramaio 1934-08-20

Musika konposagile eta zuzendaria. Gasteizen bizi da.

Txiki-txikitandik musikak erakarria, Aramaioko eliz-abesbatzan ekin zien solfeo eta piano ikasketei.

Harrez geroztik, Escuela Superior de Música Sagrada-ko ikasle izan zen. Irakasleen artean Julio Valdes, Tomas de Manzarraga, Samuel Rubio eta Karmelo Bernaola izan ditu.

Gasteizko apaiztegiko «Schola Cantorum»-eko arduradun eta zuzendaria; Araba Abesbatzako arduraduna. 1975etik Gasteizko Musika kontserbatorioko irakasle, ikasketaburu eta zuzendaria izan da.

Lanak:

«Seis canciones vascas», tenor eta orkestrarako.

«Sei euskal abesti», soprano eta orkestrarako.

«Tres cantos de Navidad», ahots eta pianorako.

Hainbat lan musika erlijiosoari buruz.

Liburu batzuetan bere ekarpena agertu du, arabar musikaren historiari buruzko ikerketa lanekin.

* * *

JESUS MARI ELEJALDE PLAZAOLA, Aramaio 1935-03-07

Apaiza. Aramaion bizi da.

Lehen urteak Aramaion eman zituen apaiz, jarraian Ameriketara joateko.

Azken urteotan, berriz Aramaioko erretorea izan da.

Hamar urtez fabrika batean ere aritu zen.

“Investigador sobre la Historia y costumbres de Aramaio”.

Argitalpenak:

Ermitas y caminos del Valle de Aramaiona (1986).

Aramaioko Udaletxea (1988).

Ayer y hoy del valle de Aramaiona (1989).

Bestalde, hainbat artikulua idatzi ditu egunkari eta aldizkarietan.

* * *

PATXI URIBARREN LETURIAGA, Aramaio 1942-10-31

Kalmeldarra. Bilbon bizi da.

Filosofia eta Letretan lizentziatua. Tesina: *Aramaioko toponomia*.

Euskaltzain urgazlea / Académico correspondiente.

Argitalpenak:

Bostak Bat lantaldearen kide modura:

- *Sinonimoen hiztegia*. Adorez 1, Bilbo 1983.
- *Euskararako hiztegia*. Adorez 2, Bilbo, 1986.
- *Sinonimoen hiztegia. Antonimoduna*. Adorez 3, Bilbo, 1988.
- *Euskararako hiztegia. Oinarritzakoa*. Adorez 4, Bilbo, 1990.
- *Eskola hiztegia. Irudiduna*. Adorez 5, Bilbo, 1991.
- *Europa hiztegia. Eskola berrirakoa*. Adorez 6, Bilbo, 1993.
- *Diccionario 3000 hiztegia*. Adorez 7, Bilbo 1996.
- *Sinonimoen hiztegia. Antonimoduna*. Adorez 8, Bilbo 1999.
- *Europa hiztegia*. CD-ROM. Bilbo, 1995.
- *Diccionario 3000 hiztegia*. CD-ROM. Bilbo, 1996.
- *Sinonimoen hiztegia. Antonimoduna*. CD-ROM. Bilbo, 1999.

Karmel eta beste aldizkarietan hainbat artikulu eta itzulpen argitaratu ditu.

Bestalde sari ere batzuk lortu ditu, besteak beste Bizkaiko eta Iruñeko Lore Jokoak (*Olerkia* 1968 eta 1969). Galería del Libroko Zilarrezko lauburua *Euskararako Hiztegia* dela eta (1987).

* * *

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL AZKARRAGA, Aramaio 1949-09-27

Enpresa Zientzietan (1972) eta Ekonomiketan (1978) lizentziatua. Arrasaten bizi da.

1981: Euskal Idazleen Elkarteko sortzaile eta lehen idazkaria.

1983-1985: Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordea.

1985-1989: Euskal idazleen Elkarteko burua.

1994tik, Eusko Ikaskuntzako Gerentea.

Euskaltzain urgazle (1983) eta Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kidea (1987).

Argitalpenak:

Sebero Altube (1979), *Iokin Zaitegi* (1981), *Pedro Ignacio de Barrutia* (1984-elkarlanean), *Zeu zara, Carmen* (1984), *Euskal Idazleen Katalogoa* (1986), *Nire aitarene etxea* (1987), *Amuarrantza* (1988), *Sixties* (1990), *Yehuda* (1992), *Nire haurtzaroko Arrasate* (1995), *Moskuko gereziak* (1996), *Gerardo Lopez de Guereñu* (1996), *Gaizka Barandiaran* (1997), *Samurai berria* (1998), *Mende laurdenean* (1999).

Bestalde, Euskal Herri osoko egunkari eta aldizkarietan, zazpiehun artikulua baino gehiago argitaratu ditu, kultura gaiez. Horretaz gain, irrati eta telebistan ere zuzendu ditu zenbait programa.

* * *

BIZENTE GOIKOETXEA KORUA

Ez dakigu noiz sortua den gure korua, izan ere, bailaran beti ezagutu izan dugu herri-jaietan kantatzen. Zaharrek diote euren aitona-amonek joan den mendeko erdialdean Aramaioko Ibarreko parrokiako koruan eta orkestran kantatzen edo musika jotzen zutela.

Berrogeiko hamarkadan, Fidel Ibargutxi organu-joleak indar berria eman zion koruari, auzoko Gesalibarko kantariak ekarri zituen eta herri-kantak kantatzera animatu zuen jendea. Lehiaketetan ere parte hartzen hasi zen korua. Gogoratzekoa da zortzikoteen arteko Euskal Herriko txapelketa hura: Gasteizen irabazi egin zuten eta, ondorioz, Arabako ordezkari izan ziren azken saioan, Bilboko Coliseo Albian.

1983an aro berri bat hasi zen. Kantariak berrogeita hamar ere baziren eta Arabako Abesbatzen Federazioan sartu zen "Aramaioko Bizente Goikoetxea Korua". Izen hori Aramaioko musikagile ospetsuaren omenez eman zitzaion. Kantu-teknikak hobetzeko eta ahoskatzen ikasteko, irakasleekin entsaiatzen hasi ziren sasoi hartan.

Korua berezia eskaintzen die Aramaioko musikagileen lanei, Goikoetxearen eta Salaberriren lanei, eta aukera duen bakoitzean kantatzen ditu.

Lanak:

Hainbat saio eta ekintzatan hartu du parte:

Tolosako Topaketetan 1984an.

Arabako Nazioarteko Abesbatzen Astean 1985, 1986 eta 1987an.

Arabatik Arabara programan, Arabako zenbait herritan.

Gipuzkoako eta Kataluniako koruekin trukean.

ETBk emititutako zenbait mezatan.

Euskal musikagileak programarako grabazioak egin ditu.

Zenbait saio Gasteizen, Bizkaian, Gipuzkoan, Toledon eta hau han-hemenka.

* * *

Nire parte hartze honetan ezin, bada, ahaztu Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Udaleko zinegotziak, batez ere Rosa Mari Kortabarria, Bizente Goikoetxea Korua, Samaniego Abesbatza, Gasteizko Musika Eskolako Orkestra Gaztea eta, jakina, aramaiotarrok. Erakunde eta pertsona horiei esker ospatu

ahal izan da Lore Jokoen mendeurrena Aramaion, ospakizunak merezitako garrantziaz. Horrela, bada, bihotz-bihotzez eskerrik asko guztioi.

* * *

No puedo olvidar en mi intervención a todas las personas y entidades como Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, concejales del Ayuntamiento, sobre todo a Rosa Mari Kortabarria, coro Vicente Goikoetxea, Coral Samaniego, Orquesta Joven del Conservatorio de Vitoria y, claro está, a todos los vecinos de Aramaio. Que sin sus valiosas aportaciones hubiera sido imposible llevar a la realidad la celebración del centenario de los Juegos Florales en Aramaio, con la trascendencia que se merece. Así pues, de todo corazón, muchísimas gracias a todos.

* * *

Amaitzeko olerki-zatitxo bat errezitatuko dut. Felipe Arrese Beitiaren “Euskaldun bioletea” izeneko olerkiaren azken estrofa da. Olerkiak saria jaso zuen Aramaion 1899an izandako Lore Jokoetan:

“Bai, Aramaio, gura badozu
Izan zorionekua
Maitetu zeure guraso zarren
Berebeta, garbi gozua;
Gordeizu, arren, ill arteraño
Euskera bedeinkatua
Nok dirudian Paradisura
Zerutik jatsitakua”

Eskerrik asko guztioi.



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

**1899ko Euskal Jaien mendeurrena
dela-eta
IV. Jagon Jardunaldiak
Aramaion**

Aramaion. 1999ko irailaren 24, 25 eta 26an.



ARAMAIOKO UDALA

EUSKAL JAIEN MENDEURRENEAN

Aramaio, 1999-IX-26

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Iñaki Nafarrate, Aramaioko alkate jauna,
Pedro Sancristoval, Arabako Kultura diputatu jauna,
Agintariak, Euskaltzainkideak
Andereak eta Jaunak, egun on!

Lehenik zuri mintzo natzaizu, alkate jauna. Badu bi egun hemen gaudela gu, euskaltzainak, eta, zinez, aitortuko dizut harrera ona ukan dugula herri honetan bai eta ere Udaletxean. Beraz, nahi dizkizut, Euskaltzaindiaren izenean, nire eskerrik beroean eman egin diguzun harrera onagatik. Bi egun oso iragan ditugu Udaletxe honetan, lan eginez hiztegitantza bereziki eta ere Jagon Sailaren IV. Jardunaldietan. Denak ongi iragan dira Udaletxeko langile eta enplegatu guziak izan direlarik gure zerbitzuko demenaren gauza falta genuelarik. Jakin ezazu, alkate jauna, herri honetarik joaitearekin gogoan atxikiko dugula zuen denon emaitza ona.

Duela mende bat biltzen ziren, beraz, hemen bertan, Arabako Aramaio honetan, lehen aldikotz Araban, Anton Abbadiak sortu zituen Lore joko famatuak. Abantzu mende erdia hasiak zirela Urruñan, 1853an, hamar bat urte han ospatuz, hortik Sarara joanez. 1879an, bigarren karlistada bukatu eta, Nafarroako herri euskaldun batek, Elizondok ongi etorri eder eta amultsua egin zion Anton Abbadiari. Geroztik urte bat Iparraldean, urte bat Hegoaldean Lore jokoei bere fama hedatu dute zazpi probintzietan. Hori zen Anton Abbadiaren ametsa lekuko dugula 1892an, Donibane Lohizunen, eskaini zaioten bazkari batean aldarrikatu zuela “Zazpiak bat” famatua. Pentsa daiteke gogoan zeukala Araba, orduan galdutzat emana zen probintzia euskara galtzera uzten zuelakotz. Pentsa daiteke gogoan zeukala euskara bizi zen tokia, Aramaio eta, nahiz ez zuen berak amets hori gauzatu, haren alarguntsak egin zuen, duela beraz ehun urte, Resurrección María Azkueren laguntzarekin.

Hemen toki zoragarri honetan gaudelarik, heldu zait gogora Garibairen erran zahar bat, haxe dioena:

“Aramaio dabenak ez lemaio”
espainol zaharrean derasarik:

“Quien oviere Aramayona no la daría”
egia handia baita.

Ehun urteren buruan ospatzen ditugularik Aramaioko Lore jokoak ene aintzinean daukadan liburu batean irakur daitezke orduan Felipe Arrese Beitiak igorri zituen bertsoak, baina hautatuko dut Artolak eginikako bertze bat:

“Zazpi seme benetakoak,
odolekoak,
gera anai;
Añamendi ingurukoak,
jaiotakoak,
gabiltz ernai;
euskalzale biotzekoak
maitatuak
ere bi;
ausardiz azaldutzen gera non nai.”

Hori kantatzen zuen Artolak duela mende bat: zazpi semeen anaitasuna, maitasuna, Anton Abbadiaren eta euskaltzaleen ametsa. Ehun urteren buruan zer gertatzen da? Deplauki erran dezaket egungo eguna ikusita, egungo giroa sendituta, sekulan baino anaiagoak garela, sekulan baino euskaldunagoak ere. Anartean aldaketa handiak izan dira. Adibidez, duela 80 urte sortu ziren, bai Eusko Ikaskuntza eta bai Euskaltzaindia, lehena euskal kulturaz arduratzen dena, bertzea gure hizkuntza zaharra zaintzen eta bultzatzen duena. Bakoitza, bere alorrean, lanean ari da, premiazko lanetan murgilduak dira biak. Baina sortu direlarik batek eta bertzeak gaingitu dute muga kideak hautatuz zazpi probintzietan. Biltzen zuten Euskal Herri osoa, eta muga ezabatuz, erakusten zuten jadanik zer izan zitekeen Europa. 80 urteren buruan Europa sortua da, mugak desegin dira, hemen gaude euskaltzainak zazpi probintzietarik etorriak, Lore Jokoen mendeurrenaren ospatzeko.

Eta hain zuen, karia horretara Aramaioko Udalak herriko bost seme ohoratu nahi ditu “seme kuttun” izendatuz eta bakoitzari Aramaioko domina eskainiz. Horien artean bada euskaltzain ohorezko bat Pedro Pujana, zorigaitzez gaixorik dagoena eta bere ezin etorria adierazi duena eta bi euskaltzain urgalez Patxi Uribarren eta Josemari Velez de Mendizabal, denbora berean Eusko Ikaskuntzako kudeatzaile dena. Nahi ditut agurtu, agurtzen ditudalarik ere bertze biak Jesus Maria Elejalde eta Sabin Salaberri eta zorionak eman Euskaltzaindiaren izenean.

Dohatsua izan dadila Aramaio, dohatsua baita bere semeak ohoratzen dituen herria ohoratzen dituelarik bereziki euskarari buruz, euskal kulturari buruz, herriari buruz eta herriaren ohoretan egin duten lanarentzat. Beraz, berriz ere, zorionak zuei bostoi eta zorionak ere Aramaioko Udalari holako egun eder bat antolatu duelako.

Eskerrik asko.

PEDRO PUJANARI ARAMAIOKO HERRIAK HERRIKO SEME KUTTUN ETA ARAMAIOKO URREZKO DOMINA EMON

Pedro Pujana
oletarrak

Aramaioko alkate jauna:
Jaun-andreok:

Aramaio dela eta, hiru minututan hiru albiste.

BAT: Arabako herrialdeari gagozkiola, euskal huts den udalerri bakarra Aramaio da eta, era batera, adituek dioskuenez, Euskal Herri guztiko naiz Hegoalde naiz Iparralde barne, euskeraz gehienik mintzatzen dena: % 84,94 hiztun dituela. Bederatzi elizate/auzo dauzka eta bederatziretan euskera bizi-bizirik daukagu.

Hau uler dezagun Kondaira/Historiatik zenbait argibide ekar dezagun.

Bi mila eta berreun urte baino lehenagotik honantza Arabako euskerak geraldiki latza, garratza eta bortitza jasan behar izan du hizkuntza arrotzen menpetik eta erpetatik ito gabe eta bizirik irtetzeko. “Erromatar Aginte-aldiaren aurretik —dio Joseba Intxausti historilariak— Araba kultur eta hizkuntza ezberdinen topaleku izan zela, eta arabarrek biziki egin ziotela aurre kulturbide eta hizkuntza arrotzei, heurenari sendo eta tinko iraun eraginik, eta gertatuta-koaren adierazgarririk esanguratsaena euskera bera dela”.

“Erromaren azken mendeetan (Kristo osteko II-IV)... euskera zenbait lekutan desagertu ez bazan, horren arriskua ez zen urrun izan” (*Euskera Araban*, 7 orr.).

“Erdi Aroan jaio zitzaion Arabako euskerari lehiakide bortitza bilakatuko zen beste hizkuntza bat: gaztelania. Lehenagoko hizkuntza indo-europarrak eta latina bezala, orain etxeko eta barneko auzolaguna eta alkarren lehiakide izan zen gaztelania Araban...ia milakada oso batean, gure egunak arte” (10 orr.).

Ondorenez, haxe: Aramaio euskera Arabako herrialdean mendetan zehar bizi izan den euskeraren hondarra dela, hots, ondasun miresgarria.

BI: Axular ospetsuak —1644garren urtean hil zen SARAn, 1643ean *Gero* bere liburu famatua argitaratua izanik— Euskal Herria *Erresuma diferent* zirala iragarri zuen, Euskal Herriaren “zer-dena” edo *izantasuna* “bat” eta “diferent” izatea dela adiarazi nahirik. Axularren esan hau bete-betean gertatzen da Aramaion: “bat” eta “diferent”.

Hau da: Aramaioko udalerria Bitan daukagu banandua: Aramaioko Ibarra, Gipuzkoarantzakoa, Leintze haranaren luzapena deitu dakiokena, urak Kantauri itxasora daramazkina, batean, eta Oletako lautada deritzaiokena, Bizkaiarantza etzina eta urak Lurrarteko itxasora daramazkina,bestean.

Ibarrako lurraldea aurberatsua/aldapatsua, trokatsu/malkartsua izanik, Oleta aldekoa lau-laua da, eta alderdi biok herri bi bestelako osatuko balituzte bezela desberdin diralarik.

Hiru: Hirugarren albiste aipagarria —oso nabarmena berau— Aramaioko euskera *bikoitza* da.

Ba ote da gero Euskal Herri osoan hizkuntzaren alorrean Aramaioko udalerririk barruan daukagun hain bereizkuntza nabarmenik bere lurretan duen beste udalerririk? Bai? Askotxo esatea izan daiteke, agian, baina jakin nahi nuke.

Besterik ez, adiskideok.

Eskerrik asko!

* * *

ARABAR BATEN EUSKAL IBILPIDEA

Jainko onak honantxe nahi izanda —edo halanbeharrak, danetara hitz egiten da gure egunotan— nik ondotxo ezagutzen dodan arabar baten jatorrizko berbetea euskera izan zan. Arabar horrentzat euskera bere amaren bularretik harako hizkuntza izan zala dirautsuet, labatik harako opilaren antzera.

Euskeraz izan ziran mundu honetan lehenengo bidez egin ebazan berbak. Euskera egiten eben beti-beti euren artean etxean gurasoak eta seme-alabak. Euskeraz berba Jaungoikoagaz ere. Euskeraz bere buruagaz bizitzaldi guztian.

Euskera ikasi, luze eta zabal ikasi ere, txiki-txikitan, ume-umetan ikasi eban, beraz. Eta haren lehenengo maixua euskera ikasteko, beraren aita izan zala esan behar dautsuet. Berau izan zan euskera irakurten eta idazten lehenengoz ikusi eban gizona mundu honetan.

Izan zan, zorionez, azken mendearen —XIX garrenaren— erdi aldera liburu bat Euskalerriko —zein Iparralde zein Hegoaldeko— etxe eta familietan eten barik irakurria izan ei zana, lehen eta orain gehien-gehienik erabilia izan ei zan euskal liburururik zabalduena, nik nunbaiten irakurri dodanez. Berorren izena haxe: Itun zar eta berriko kondaira, Frantzisko Lardizabal, Zaldibiko abadeak gipuzkoeraz idatzirikoa.

Arabar haren aitak Lardizabal abade harexen liburua irakurri ohi eban sarri-sarri bere etxeko eskaratzean, inoiz ahots zoliz, bertan ziran etxeko guztiak entzun egien. Udagoien/negu aldian, batez ere, egiten eban irakurtaldia, eguna

laburra eta gaua luzea izaten dan aldikada horretan. Oraindino ikusten dagoala bere aita —dirudio arabarrari— Lardizabalen liburu lodikotea, narruzko azal dotorez apaindua, eskuetan arturik eta zabaldurik, sutondoko sugarraren argitara —arteaz ez zan etxe haretan ez herrian argi-indarrik— irakurten eta irakurten, orain ixil-ixilik beretzako, geroxeago ozenkiro eskaratzean ziran famolikoentzako.

Bazan etxe haretan mutiko txiki-txiki bat, familiako zeiena, aitari begira-begira jarriarik, zirkinik egin barik eta belarriak ondotoxo edegirik, adi-adi, beste hizkuntza arrotzetan baino lehenago bere jatorrizko berbakuntza ederrean liburuak ekazan kontakizunak entzuten zituana.

Orduantxe erne eta garatu ekion (*ekion*: adizki zaharra = jakon) mutiko hari bere kolko barreanean euskerarenganako atxikimendua, geroago eta itsatsiago egingo jakona, “etxean zer ikusi, haxe ikasi”, esaerak dinoanez.

Arabar harek bere aita idazten ere ikusi ebala, esan dogu. Behin baino gehiagotan ikusi ere. Ixeko bi eukazan etxetik eta herritik urrun xamar, eta aitak noizik behin gutun/idazkitxoren bat egiten eutsen etxeko guztien izenean bertako barri emonez. Gutunaren buruan beti-beti eta hutsik egin barik hauxe idazten eban hizki/letra haunditan: GEURE EUSKERA EDERRIEN, eta gero dan-dana euskeraz idatzi.

Arabar haren aita ez zan kultur alorrean jakite zabaleko gizona. Ez eban inongo ikastetxetan ikastaldi berezirik burutu. Halan eta guzti ere, lehen mailako ikaskizunetan nahiko ondo jantzirik ikusten zan, euskeraren barrutian berriaz. Hau zelan uler daitekeen? Lardizabal giputz idazlearen frutu umotua izan zeitekean. Zenbat aldiz irakurri eban ITUN ZAR ETA BERRIKO KONDAIRA eritxan haren liburua? Batek badaki!!

Irakurriaren irakurriaz eta atzamarrak liburuaren orrietan erabiliaren erabiliaz orriok orituta eta nahiko zikinduta agertzen ziran. Hainbat atal buruz ere baekizan eta...

Euskalkiak oztopo dirala euskera erabilteko eta ulertzeko? Ez horrenbeste. Hemen daukagu ezezkoaren agerbide bat.

Herriko bizigiroa euskeraren aldekoa eta guztiz egokia zan elizate/auzune haretan. Halakoren baten erbestetik etorten ziran guardia zibilak izan ezik, ez eban inork han gaztelaniarik egiten. Herriko eskolan, halan ere, ez zan berbatxo bat ere euskeraz ikasten, ez entzuten. Gaztelania huts-hutsez eskolatu ginduezan. Eta hori, umekondo saldoaren lehenengo urteetako maixua euskalduna izan genduala, Axpe-Arrazolakoa semez. Eskolorduetatik kanpora euskeraz egiten euskun berba, bai berak eta bai beraren familiakoak ere. Eskolorduan, barriz, beti erderaz eta erdera hutsez. Eskerrak kristau-ikasbidea euskeraz ikasi genduelako. Arabar honek bere bizitzaldian irakurri eban lehen liburua euskeraz kristinau-ikasbidea izan zan. Elizan ere berbaldiak beti euskeraz. Abes- tiak euskeraz eta latinez, orduan ohiturea zan legez.

Adinean haundiago eta euskeraren eremuan ikastunago egiten zan gure arabarra. Gasteizko eleiz Ikastetxe Nagusi batera joateko erea izan eban, eta han izen eta ospe haundiko maixu/irakasle bategaz tril egiteko egokiera, zorionez: Manuel Lekuona jaunagaz. Beronek sutuagotu eta biztuagotu eutsan etxetik ekarren euskerarenganako grina, etorkizunean egundo gehiago ez urrituko, ez epelduko ez ekiona (*ekiona*: adizki zaharra = jakona). Ez berari soilik, ikaskide zituan hainbeste gazteri ere ez. Hori ez eban lortzen gure irakasleak hitzaldi sutsu-gartsu-luzeak gazteei eginez, ez: goxo-goxo, guztiz goxo eta bigun, lan egiten eta idazten bultz eginez baino.

Maixu oso atsegina izan genduan oiartzuarra, eta euskal esparruan jakitun-jakituna. Haregaz egiten genduan ikastaldia berehalaxe joaten ekigun (*ekigun*: adizki zaharra = jakun), labur-laburra bailitzan.

Handik laster zorigaiztoko gerrate zital/galgarria etorri jakun uste-uste barrik, eta horra gure asmo guztiak eta amets loratsuak gorengo hodei moltzo bal-tzen artean betiko galdu. Negargarria! Ez-aldiak eta izozteak jo eban gero erruririk bagarik gure euskal baratz zimela!

Aitatu dodan aurreko aldi hau, halan ere, ongarrria izan zan euskerarentzat. On-aldi eta biztu-aldi harek luzaroan iraun izan baleu, zeinen mesedegarria izan zeitekean gure berbakuntza zahar-zahar honentzat, baita Ikastetxe Nagusi harentzako ere, euskerari gagokiozala. Gogora ekarri, agergarri, 1936 garreneko Olerki-Eguna, gerrate aurre-aurretxoan Lekeition egin zana, Ikastetxe haretako hiru lagun, Manuel Lekuona jaun irakaslea, Iñazio Otamendi eta Anjel Sukia ikasleak bertan sarituak izan ziran eta.

Mendian gorantza doiana, gora eta gora egin ezker, halakoren baten mendia gailur/erpinera heldu egiten da. Gure arabarraren euskeraren ikastaldiari ere, "gailurra" deritxaken hiru urteetako gaina etorri jakon, Oñako (Burgos) jesulagunen Ikastetxe Nagusian igaro zituan urteetan.

Oñara joan aurretik, Gipuzkoako herri nahiko jendetsu baten bizi zan, euskera sustraiz ikasteko "egarri" ase-ezina eukala. Herri haretan, baina, ez eban astirik, ez ezetariko bitarterik, ez libururik helburu hori egia bihurtu zeiten. Oñara joandakoan, oster, horra biok —astia eta liburuak— uste barik aurkitu.

Ikastetxe Nagusi haretan teologiako ikasle nagusien artean bazan talde bat —hamar/hamabi ikasleez osotua— euskera apur bat sakontxo ikasi nahi ebana, eta talde ha arabarrarengana joan zan, euskal aditza azaldu/argitu egiola eskatuz. Gipuzkoerazko aditza errotik aztertu eta ikasi gura eben, danak giputzak ziran eta.

Josulagunen Ikastetxeko liburutegi aberats/oparotsuan euskeraren barrutian trebetu ahal izateko liburu egoki-egokiak aurkitu ebazan arabarrak, esate baterako, Arturo Campionen *Gramática bascongada de los cuatro dialectos literarios* izeneko liburu mardula, R.M.^a de Azkueren *Morfología vasca*, hiru hizkuntzatako hiztegi lodia, Luis de Eleizalderen *Conjugación vasca sintéti-*

ca, Seber Altuberren *Erderismos* eta *Observaciones al tratado de Morfología Vasca*, eta abar, eta abar.

Haxe bai izan zala poza eta gozamena gure arabarrarentzat!! Orduantxe ase ahal izan eban aspaldi-aspaldidanik ekarren gurari bizia euskal baratzean buruz aurre sartzeko! Nun eta Burgos-en! Holakorik!

Sei hilabetea, egun bakotzeko batez beste hamar ordu beste zereginik bari euskal aditza aztertzen lan-da-lan egin eban gure arabarrak.

Hurrengo, urte bitan jardun eban gipuzkoar talde hari euskera irakasten, aditza eta beste.

Ondorenez, haxe esan behar: Oñako josulagunen Ikastetxe Nagusi haren-tantxe lortu ebaia arabar euskaltzale ikastunak negurri medar baten euskerari buruzko zerbait jakite, zorionez.

Esan ere, horrexegaitik esan dot, gure hizkuntzaren ikastaroa dala eta, Oñako egotaldia mendi garai baten “gailurra” irudiko izan zala arabarrarentzako.

Oñako hiru urteetako ikaste/irakaste aldi harek ondoren mamintsuak ekarri zituan geroke urteetan.

Geroago egindako lanak —nabariak izan ez arren— ezin ondu ahal izango ebazan, Oñan josulagunen artean egindako hobekuntza izan ez balitz.

* * *

Zerbait idazten hasi, askoz lehenago hasi zan. Haren euskerazko lehen idazlanak —askorik ez— gerrate aldikoak ziran, Elgeta/Intxorta gudalekutik, 1937 garren urtean, Bilboko EUSKADI egunkarian argitaratua emonak.

1958-1967 urte bitartean Donostiako *Zeruko argia* eritxan aldizkarian hainbat aldiz idatzi eban, geroagoko urteetan *agur*, *karmel*, *zer*, *euskerazaintza* aldizkarietan, batez ere, idazten jarraitzeko.

1970 garren urtean, Bizkaierazko aditza zala eta, liburu bat kaleratu eban, bigarren argitaraldia ere lortu ebalarik. Liburu honetantxe dator euskal aditz osoari —iragangaitz zein iragankor, laguntzaile naiz bakun/sintetiko— NOR-NORI-NORK irakaspidea lehenengo aldiz ezarria, hurrengo urteetan aditz-irakaskuntza osora zabalduko zana.

Irakaspide honen sortzaile eta guraso Aita Isidor Baztarrika, Estibalizko bededitarra izan zan, *ADITZA* izeneko bere liburuan, 1968 garren urtean, aditz osoari ezarri ez eutsan arren.

Itzulpenak dirala eta, beste hainbat lan albora itxirik, arabar honek ondutako egintzarik garrantzikoena Bizkaiko Foru Barria edo Barritzatua, hama-seigarren mendean, 1526 garren urtean idatzia, lehenengo aldiz euskera-ra/bizkaierara itzultzea izan zan, 1981 garren urtean kaleratu zana, Jose Estornes Lasa, eronkariar zalduna, lankide edo Foru-adierazle/intarpretatzaile izan ebaia. Gauza bitxia, gero, hau ere! Bizkaiko Forua izan,

eta lehenengo bidar, nafar jakintsu bat argi-emoile izanik, arabar batek euskeratu izana!

1979 garren urtean Arabako Aldundiak argitaratu eban *Oletako euskal aditza* izenburutzat daroan liburua.

Hauxe da arabarrarentzat gogozkoena eta bihotzezkoena dauan idazte-frutua, Arabako gorengo musturrean, Oletan, mendetan eta mendetan erabili izan dan aditzaren barri —zuka eta hika— emoten dau eta.

Aramaioko elizate edo auzo horretan erabili ohi dan hikako jokaera, izan ere, guztiz berezi-berezia da euskal aditzaren barrutian, beste inon entzuten ez dan langoa, Otxandio inguruan izan ezik, ez Aramaioko Ibarran bertan, ez Leintzen (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate), ez Bizkaian, ez Gipuzkoan... Nafarroako ez dakit zein tokitan antzeko adizkiak darabilezeala dirausku Azkue haundiak.

Hendrike Knörr jaun euskaltzainak bidea urraturik etorri zan liburua kaleratu, Alfonso Irigoien euskaltzain oraintsu zenduak zuzenketa batzuk eginda gero.

Hikako jokabidea bizi-bizirik dogu Aramaioko alde horretan, zukakoa beste bai gazteen eta adinkidekoen artean.

Arabako Oletan bizirik dan hikako jokabideari buruz lan bat agertu zan 1977 garren urtean, eta idazkun haretatik adizkera batzuk ekarri dodaz orriotara, beste leku batzuetako adizkerakaz bardinkaturik/konparaturik, irakurleari argigarri izan dakiozan (*Lekuonatar Manuel jaunari omenezko idazki-bilduma*, III, Kardaberaz Bilduma-21, Tolosa, 1977, 295 orr.).

Honenbestez, lanaren lehenengo zatia amaitutzat emoten dogu.

* * *

HIKAKO JOKABIDEA OLETAN

Hoskera:	tt	= t bustia (palatal)
	dd	= d bustia (palatal)
	ts	= tz
	dx	= frantzerazko “j” gutxi gorabehera
	tx	= espainerazko “ch”
	x	= frantzerazko “ch”
	z	= s

ADITZ LAGUNTZAILE IRAGANGAITZA (aux. intran.)**Egitera: Lehen aldia (pretér. dei indic.)****OLETAKO ADIZKIAK**

(ni etorri)	NITZÁ/NITZÁ
(hi etorri)	HITZÁ/HITZÁ
(ha etorri)	ZÁ/ZÁ
(gu etorri)	GIÑÁ/GIÑÁ
(hareek etorri)	ZIÁ/ZIÁ

Oharkizunak:

— Horra joko berezi-bereziak, Oleta eta inguruan baino beste inun entzuten ez diranak. Azkuek berak ere aitatzen dau apartekotasun hau bere “Morfologia”n.

— Jokootan, lehen aldiari dagokion -N ezaugarria galdu egitenda, hikako aditz-joko guztietan horixe jazoten dalarik.

— Gizon/emakumegazko adizkia ez da aldatzen Oletako berbakeran, beste leku batzuetan egiten danez.

— Azentoa guztiz nabarmena da: ez *nitza*, *nitzá* baino.

— Ikus, argibidez eta konparabidez, beste toki batzuetan erabiltzen diran adizkiak:

LEINTZ HARANEAN (Gatzaga, Eskoriatza...)

(ni etorri)	nintzoan/nintzonan
(hi etorri)	hintzan/hintzanan
(ha etorri)	zoan/zonan
(gu etorri)	gintzoan/gintzonan
(hareek etorri)	zittuan/zittunan

Angiozarko haranean (Bergara)

(ni etorri)	nintzoan/nintzonan
(hi etorri)	hintzan/hintzanan
(ha etorri)	zuan/zonan
(gu etorri)	gintzuan/gintzonan
(hareek etorri)	zittuan/zittunan

Zeanurin

(ni etorri)	nintzoan/nintzonan
(hi etorri)	hintzan/hintzanan
(ha etorri)	zoan/zonan
(gu etorri)	gintzoazan/gintzonazan
(hareek etorri)	zoazan/zonazan

Mungia aldean

(ni etorri)	nintzoan/nintzonan
(hi etorri)	hintzan/hintzana
(ha etorri)	zoan/zoana
(gu etorri)	gintzoan/gintzoana
(hareek etorri)	zoazen/zoazena

Oharkizunak:

— Leintz haranako jokoak, Marin-en (Eskoriatzan) jaiotako Joseba Azkarate jaunak batutakoak dira.

— Angiozarkoak, Mertxe Altubek batutakoak.

— Zeanurikoak, Aita Bedita Larrakoetxeak batutakoak.

— Mungia aldekoak, barriz, Gamiz herrian jaio zan Martin Olazar jaunak batutakoak.

AHAL-ERA (modo potencial)**Lehen-aldi urruna****OLETAKO ADIZKIAK**

(ni etorri)	ñeikiá/ñeikiá
(hi etorri)	heikiá/heikiá
(ha etorri)	lleikiá/lleikiá
(gu etorri)	geinkiá/geinkiá
(hareek etorri)	lleikizá/lleikizá

Oharkizunak:

— *Edin* laguntzaile iragangaitzaren jokoak dira.

— Jatorrizko adizkiak honeek izan daitezke: *ne-DI-kean/ne-DI-kenean, he-DI-kean/he-DI-kenan, le-DI-kean/le-DI-kenan*, eta abar.

— Oletako aditzean jazoten denez, *-N* lehen-aldiko ezaugarria jausi ezkerro, *ñeikiá/ñeikiá, heikiá/heikiá*, eta abar sortzen dira.

— Jokook Oletako berbakeran *iragangaitzak* lez eta *iragankorrak* lez erabili ohi dira. *Adibidez: Ni harañegun etorri ñeikiá* (yo pude haber llegado o hubiera podido llegar anteayer), eta *nik harañegun liburua erosi ñeikiá* (yo pude haber comprado o hubiera podido comprar el libro anteayer).

Zer dala eta erabilte bikotx hau? Adizkiok *edin* laguntzale... iragangaitzetik sortu beharrean, *egin* laguntzaile iragankorretik etorri daitezkezalako, hau da: *nen-GI-kean/nen-GI-kenan, hen-GI-kean/hen-GI-kenan, le-GI-kean/le-GI-kenan*, eta abar adizkeretatik. Ez dago garbi zein aditzetik, iragangaitzetik ala iragankorretik eratorriak diran. Horixe zalantza.

— Ikus, konparabidez, beste lekuetako adizkerak.

Leintz haranean

(ni etorri)	neikean/neikenan
(hi etorri)	heikean/heikenan
(ha etorri)	leikean/leikenan
(gu etorri)	gei(n)kean/gei(n)kenan
(hareek etorri)	leikezan/leikezanan

Angiozarko haranean

(ni etorri)	neikean/neikenan
(hi etorri)	heikean/heikenan
(ha etorri)	leikian/leikenan
(gu etorri)	geinkean/geinkenana
(hareek etorri)	leikezan/leikezenan

Zeanurin

(ni etorri)	neintekean/neintekenan
(hi etorri)	heintekean/heintekenan
(ha etorri)	leitekean/leitekeana
(gu etorri)	gaientekeazan/gaientekenazan
(hareek etorri)	yeitekeazan/yeitekenazan

Mungia aldean

(ni etorri)	neintekean/neintekena
(hi etorri)	heintekean/heintekena
(ha etorri)	leitekean/leitekeana
(gu etorri)	geintekean/geintekena
(hareek etorri)	leitekezan/leitekezana

ADITZ LAGUNTZAILE IRAGANKORRA (aux. trans.)**Egitera: Lehen aldia (pret. de indic.)****Oletako aditz-jokoak**

<i>ni</i>		<i>gu</i>
niñdduan/niñdduan	(hik ekarri)	giñdduazá/giñdduazá
niñdduá/niñdduá	(harek ekarri)	giñdduzá/giñdduzá
niñdduen/niñdduen	(hareek ekarri)	giñdduzá/giñdduzá
<i>ha</i>		<i>hareek</i>
ñoá/ñoá	(nik ekarri)	ñoazá/ñoazá
(he)bá/(he)bá	(hik ekarri)a	(he)bazá/(he)bazá
dxoá/dxoá	(harek ekarri)	dxoazá/dxoazá
genduá/genduá	(guk ekarri)	genduzá/genduzá
dxoen/dxoen	(hareek ekarri)	dxuezan/dxuezan
<i>hi</i>		
(nik ekarri)	hinddudá/hinddudá	
(harek ekarri)	hinddudá/hinddudá	
(hareek ekarri)	hindduen/hindduen	
(guk ekarri)	hindduguá/hindduguá	

Oharkizunak:

— Ukan laguntzaile hiragankorraren jokoak.

— Hemen ere lehen aldiaren ezaugarria dan -N jausi egiten da eta gizonarekiko eta emakumearekiko ez da diferentzirik. Adibidez: “Ikusi bá atzo er-birik mendidxen”? —“Ez, eñoa ikusi” (“¿Viste ayer alguna liebre en el monte? —No, no la vi”. “Nok dxo hinddudá atzo?” (“¿Quién te pegó ayer?”).

— *Nebazan, ebazan, ebezan...* aditz-jokoak ez dirala herrikoiak, Azkuek berak asmatuak edo dirala behin baino gehiagotan entzun izan dot. Ez dot uste esate hori egia izan daitekenik. Azkue munduratu baino askoz lehenago (he)bá, (he)bazá... jokoak bizirik ziran Oletan.

Leintz haranean

<i>ni</i>		<i>gu</i>
niñdduan/niñdduanan	(hik ekarri)	giñdduzan/giñdduzan
niñdduan/niñdduan	(harek ekarri)	giñdduzen/giñdduzenan
nindduen/nindduen	(hareek ekarri)	gildduezen/giñdduezenan
<i>ha</i>		<i>hareek</i>
najuan/najunan	(nik ekarri)	najittuan/najittunan
heuan/heunan	(hik ekarri)	hittuan/hittunan
juan/junan	(harek ekarri)	jittuan/jittunan
genduan/gendunan	(guk ekarri)	genittuan/genittunan
juen/junen	(hareek ekarri)	jittuen/jittunen
<i>hi</i>		
(nik ekarri)	hiñddudan/hinddudanan	
(harek ekarri)	hindduan/hinddunan	
(guk ekarri)	hindduguan/hinddugunan	
(hareek ekarri)	hindduen/hindduenen	

Angiozarko haranean

<i>ni</i>		<i>gu</i>
niñdduan/niñddunan	(hik ekarri)	giñdduen/giñdduenan
niñdduan/niñddunan	(harek ekarri)	giñdduan/giñddunan
niñdduen/niñdduenan	(hareek ekarri)	giñdduen/giñdduenan

ha

najuan/najunan	(nik ekarri)
heuan/heunan	(hik ekarri)
juan/junan	(harek ekarri)
genduan/gendunan	(guk ekarri)
juen/junen	(hareek ekarri)

hareek

najittuan/najittunan
hittuan/hittunan
jittuan/jittunan
genittuan/genittunan
jittuen/jittunen

hi

(nik ekarri)	hinddudan/hinddudan
(harek ekarri)	hindduan/hinddunan
(guk ekarri)	hindduguan/hinddugunan
(hareek ekarri)	hindduen/hindduenen

Zeanurin*ni*

ninduan/nindunan	(hik ekarri)
ñinduan/ñindunan	(harek ekarri)
ñinduen/ñindunen	(hareek ekarri)

gu

ginduazan/gindunazan
gaienduazan/gaiendunazan
gaienduezan/gaienduenazan

ha

ñoan/ñonan	(nik ekarri)
heuan/heunan	(hik ekarri)
yoan/yonan	(harek ekarri)
gaienduan/gaiendunan	(guk ekarri)

hareek

ñoazan/ñonazan
heuzan/heunazan
yoazan/yonazan
gaienduazan/gaiendunazan

hi

(nik ekarri)	hindudan/hindunadan
(harek ekarri)	hinduan/hindunan
(hareek ekarri)	hinduen/hindunen

Gamizen (Mungia aldea)

<i>ni</i>		<i>gu</i>
niñdduan/niñdduanan	(hik ekarri)	giñdduzan/giñdduzanan
niñdxuan/niñdxunan	(harek ekarri)	giñdduzan/giñdduzanan
niñdxuen/niñdxuen	(hareek ekarri)	giñdduezan/giñdduezan
<i>ha</i>		<i>hareek</i>
nidxuan/	(nik ekarri)	nidxuezan/
hendun/	(hik ekarri)	henduzan/
dxuuen/	(harek ekarri)	dxuezan/
gendxuan/	(guk ekarri)	gendxuezan/
dxuen/	(hareek ekarri)	dxuezan/

NOR-NORI-NORK ALDIZKERAK (egil.-paz.-dat.-dunak)

Egitera: Lehen aldia (pret. de indic.)

Oletako jokoak

<i>niri</i>		<i>guri</i>
hustá/hustá	(hik gauza bat ekarri)	huskuá/huskuá
dxustá/dxustá	(harek gauza bat ekarri)	dxuskuá/dxuskuá
dxustén/dxusten	(hareek gauza bat ekarri)	dxuskuén/dxuskuén

<i>hari</i>		<i>harei</i>
nutxá/nutxá	(nik gauza bat ekarri)	nutxá/nutxá
hutsá/hutsá	(hik gauza bat ekarri)	hutsá/utsá
txá/txá	(harek gauza bat ekarri)	txá/txá
guntxá/guntxá	(guk gauza bat ekarri)	guntxá/gunxá
txén/txén	(hareek gauza bat ekarri)	txén/txén

hiri

(nik gauza bat ekarri)	nustá/nustá
(harek gauza bat ekarri)	hustá/hustá
(guk gauza bat ekarri)	gustá/gustá
(hareek gauza bat ekarri)	hustén/hustén

Oharkizunak:

— Agiri danez, adizkiok itxuraz aldaturik edo bestelakoturik agertzen dira, hobeto esanda, guztiz laburturik. Aldizki osoak HARI taldean, adibidez, Oletan erabilten diranez, honangoak izango litzatekez: *neutxá, heutsá, dxeutxá, geuntxá, dxeutxen*. Eta honantxe beste taldeetan.

— Hari eta HAREI taldeetan (bati edo askori ekarri), aditz-joko ber-berak entzuten dira herriko berbakeran.

— Nor/zer (osagarri zuzena) askotarakoa edo plurala egiteko, -zá hizkia erantsi beite: husta-zá, dxusta-zá, nutxa-zá, eta abar.

Leintz haranean*niri*

heustan/heustanan
jaustan/jaustanan
jausten/jaustenen

(hik gauza bat ekarri)
(harek gauza bat ekarri)
(hareek gauza bat ekarri)

guri

heuskuen/heuskunan
jauskuan/jauskunan
jauskuen/jauskunen

hari

neutsen/neutsenan
heutsan/heutsenan
jautsan/jautsanen
geuntsan/geuntsenan
jautsen/jautsenen

(nik gauza bat ekarri)
(hik gauza bat ekarri)
(harek gauza bat ekarri)
(guk gauza bat ekarri)
(hareek gauza bat ekarri)

harei

nautsen/nautsenan
heutsen/heutsenan
jautsen/jautsenen
geuntsen/geuntsenan
jautsien/jautsienan

hiri

(nik gauza bat ekarri)
(harek gauza bat ekarri)
(guk gauza bat ekarri)
(hareek gauza bat ekarri)

neustan/neustanan
heustan/heustanan
geuskuan/geuskunan
heustien/heustienan

Angiozarko haranean*niri*

hostan/hostanan
jostan/jostanan
josten/jostenen

(hik gauza bat ekarri)
(harek gauza bat ekarri)
(hareek gauza bat ekarri)

guri

hoskuan/hoskunan
joskuan/joskunan
joskuen/joskunen

hari

najotsan/najotsanan
hotsan/hotsanan
jotsan/jotsanan
jotsaun/jotsanaun
jotsen/jotsenan

(nik gauza bat ekarri)
(hik gauza bat ekarri)
(harek gauza bat ekarri)
(guk gauza bat ekarri)
(hareek gauza bat ekarri)

harei

najotsen/najotsenan
hotsen/hotsenan
jotsen/jotsenan
gentsen/gentsenan
jotsen/jotsenan

hiri

(nik gauza bat ekarri)
(harek gauza bat ekarri)
(guk gauza bat ekarri)
(hareek gauza bat ekarri)

hostan/hostanan
hostan/hostanan
hostaun/honaun
hosten/honen

Zeanurin*niri*

heustan/heustanan
yeustan/yeustanan
yeustan/yeustanan

(hik gauza bat ekarri)
(harek gauza bat ekarri)
(hareek gauza bat ekarri)

guri

heuskuan/heuskunan
yeuskuan/yeuskunan
yeuskuean/yeuskuenan

hari

ñeuntsan/ñeuntsanan
heuntsan/heuntsanan
yeutsan/yeutsanan
gaientsean/gaientsenan

(nik gauza bat ekarri)
(hik gauza bat ekarri)
(harek gauza bat ekarri)
(guk gauza bat ekarri)

harei

ñeuntsien/ñeuntsienen
heuntsien/heuntsienen
yeutsen/yeutsenan
gaientsien/gaientsienen

hiri

(nik gauza bat ekarri)
(harek gauza bat ekarri)
(hareek gauza bat ekarri)

ñeustan/ñeusnan
heustaan/heusnan
heustaien/heustaien

Mungia aldean*niri*

heustan/heustana
dxeustan/dxeustana
dxeustien/dxeustena

(hik gauza bat ekarri)
(harek gauza bat ekarri)
(hareek gauza bat ekarri)

guri

heuskuan/heuskuna
dxeuskuan/dxeuskuna
dxeuskuen/dxeuskuena

hari

neutxien/neutxiena
heutxan/heutxana
txien/txiena
geuntxan/geuntxana
dxeutxien/dxeuntsiena

(nik gauza bat ekarri)
(hik gauza bat ekarri)
(harek gauza bat ekarri)
(guk gauza bat ekarri)
(hareek gauza bat ekarri)

harei

neutxien/neutxiena
heutxien/heutxiena
dxeutsien/dxeutsiena
geuntxien/geuntxiena
dxeutxien/dxeutxiena

ADITZ BAKUNA/BILDUA (verbo sintético)**Iragangaitza (intrans.)****NOR-DUN ADIZKERAK****Oletako aditz-jokoak****Egitera: Lehen aldia (pret. de indic.)***etorri*

ñentorra/ñentorrá
hentorrá/hentorrá
dxetorrá/dxetorrá
gentozá/gentozá
dxetozá/dxetozá

(ni)
(hi)
(ha)
(gu)
(hareek)

egon

ñenguá/ñenguá
henguá/henguá
dxeguá/dxeguá
gengozá/gengozá
dxegozá/dxegozá

Oharkizunak:

— Adizkiok sarri baino sarriago entzuten dira Oletan. Izan ere, auzo horretan hikako jokabidea zukakoa beste bizirik daukagu hainbat alditan.

— Aditz laguntzailean jazoten danez, aditz bakunean ere, lehen aldiko ezaugarria dan -N galdu egiten da Oletako berbakeran, eta gizonezko/emakumegazko adizkia ere bat bera erabiltzen da herritxo honetan.

— Horra beste herri batzuetako adizkiak.

Leintz haranean

netorran/netornan	(ni)
hentorran/hentornan	(hi)
jentorran/jentornan	(ha)
gentorran/gentorranan	(gu)
jentoan/jentoan	(hareek)

Angiozarko haranean

<i>etorri</i>		<i>egon</i>
najatorran/najatonan	(ni)	nengoan/nengonan
hetorran/hetonan	(hi)	hengoan/hengonan
jetorran/jetonan	(ha)	jauan/janan
gentoan/gentoan	(gu)	gauazan/ganazanan
jetoan/jetoan	(hareek)	jazan/jazanan

Zeanurin

ñentorran/ñentornan	(ni)	ñengoan/ñengonan
hentorren/hentorren	(hi)	hengoan/hengoan
yetorran/yetornan	(ha)	yegoan/yegonan
gentorran/gentoan	(gu)	gengoazan/gengoazanan
yetoan/yetoan	(hareek)	yegoazan/yegoazanan

OLETAKO JOKOAK

<i>ibili</i>		<i>dxun</i> (joan)
nenbilá/nenbilá	(ni)	ninddoiá/ninddoiá
henbilá/henbilá	(hi)	hinddoiá/hinddoiá
dxebilá/dxebilá	(ha)	dxoiá/dxoiá
genbizá/genbizá	(gu)	ginddoiaza/ginddoiaza
dxebizá/dxebizá	(hareek)	dxoezáz/dxoezáz

Oharkizunak:

— Joko ugari-ugariak Oletako berbakeran.

— Ikus beste leku batzuetakoak.

Leintz haranean

(ni)	najoian/najoian
(hi)	hoian/hoian
(ha)	joian/joian
(gu)	goiazan/goiazan
(hareek)	joiazan/joiazan

Angiozarko haranean

nebilan/nebilenan	(ni)	najoian/najoianan
hebilan/hebilanan	(hi)	hoian/hoianan
jabilan/jabilanan	(ha)	joian/joianan
gebiltzan/gebiltzanan	(gu)	goiazan/goiazanan
jebiltzan/jebiltzenan	(hareek)	joiazan/joiazanan

Zeanurin

ñenbian/ñenbiñan	(ni)	niñbian/
henbilen/	(hi)	hiñian/
yebian/yebinan	(ha)	yoian/
genbiazan/genbinazan	(gu)	giñoiazan/
yebiazan/yebinazan	(hareek)	yoiazan/

Mungia aldean

<i>ibili</i>		<i>dxun</i> (joan)
nenbilen/nenbilena	(ni)	nitxoan/
henbilen/henbilena	(hi)	hoian/
dxebilen/dxebilena	(ha)	dxoian/
genbiltzen/genbiltzena	(gu)	goiazan/
dxebiltzen/dxebiltzena	(hareek)	dxoiazan/

IRAGANKORRA (trans.) (aditz bakuna)**NOR-NORK ADIZKERAK (egil.-paz.-dunak)****Egitera: Lehen aldia (pret. de indic.)****Oletako aditz-jokoak**

<i>ni</i>		<i>gu</i>
nenkarrá/nenkarrá	(nik)	genkazá/genkazá
ñenkarrá/ñenkarrá	(harek)	gendxakazá/gendxakazá
ñenkarren/ñenkarren	(hareek)	gendxakazá/gendxakazá
<i>ha</i>		<i>hareek</i>
ñenkarrá/ñenkarrá	(nik)	ñenkazá/ñenkazá
hekarrá/hekarrá	(hik)	hekazá/hekazá
dxekarrá/dxekarrá	(harek)	dxekazá/dxekazá
genkarrá/genkarrá	(guk)	genkazá/genkazá
dxekarren/dxekarren	(hareek)	dxekarrezá/dxekarrezá

Oharkizunak:

— HA eta HAREEK taldeetako jokoak ugari-ugariak dira gazteen eta adinekoen berbakeran, baina, NI eta GU taldeetakoak, ostera, hil aginean dagoz.

— HI taldeari dagokion adizkirik (nik hi ekarten *hinddudan*) aditz bakunean ez da ezagutzen zaharrenen artean ere.

Leintz haranean

<i>ni</i>		<i>gu</i>
nenkarran/nenkarrenan	(hik)	genkarran/genkarrenan
nenkarran/nenkarrenan	(harek)	
	(hareek)	
<i>ha</i>		<i>hareek</i>
nenkarren/nenkarrenan	(nik)	
hekarran/hekarrenan	(hik)	
jekarran/jekarnan	(harek)	
genkarran/genkarnan	(guk)	
jekarren/jekarrenan	(hareek)	

Angiozarko haranean*ni*

(hik)	nekarren/nekarrenan
(harek)	nekarren/nekarrenan
(hareek)	nekarren/nekarrenan

ha

(nik)	nekarren/nekarrenan
(hik)	hekarren/hekarrenan
(harek)	jakarren/jakarrenan
(guk)	genkarran/genkanan
(hareek)	jekarren/jekarrenan

Zeanurin*ni*

nenkarran/nenkarnan	(hik)
ñenkarran/ñenkarnan	(harek)
ñenkadien/ñenkardiedan	(hareek)

gu

genkaazan/genkazan
gaienkazan/gaienkanazan
gaienkadezan/gaienkadazen

ha

ñenkarran/ñenkarnan	(nik)
henkarran/	(hik)
yekarran/yekanan	(harek)
gaienkarran/gaienkanan	(guk)
yekadien/yekadiedan	(hareek)

*hareek**hi*

(nik)	henkadan/
(harek)	hekarran/ekarnan
(guk)	henkagun/
(hareek)	henkadien/

Gamizen (Mungia aldean)*ni*

(hik)	nenkarren/nenkarrena
(harek)	nenkarren/nenkarrena
(hareek)	nenkarren/nenkarrena

ha

(nik)	nenkarren/nenkarrena
(hik)	henkarren/henkarrena
(harek)	dexkarren/dexkarrena
(guk)	genkarren/genkarrena
(hareek)	dexkarren/dexkarrena

NOR-NORI-NORK ADIZKERAK (egil.-paz.-datib.-dunak)**Egitera: Lehen aldia (pret. de indic.)****Oletako adizkiak***niri*

hekastá/hekastá
dexkastá/dexkastá
dexkastén/dexkastén

(hik gauza bat)
(harek gauza bat)
(hareek gauza bat)

guri

hekaskuá/hekaskuá
dexkaskuá/dexkaskuá
dexkaskuén/dexkaskuén

hari

nekartxá/nekartxá
hekartsá/hekartsá
dexkartxá/dexkartxá
genkartxá/genkartxá
dexkartxén/dexkartxén

(nik gauza bat)
(hik gauza bat)
(harek gauza bat)
(guk gauza bat)
(hareek gauza bat)

harei

nekartxá/nekartxá
hekartsá/hekartsá
dexkartxá/dexkartxá
genkartxá/genkartxá
dexkartxén/dexkartxén

hiri

(nik gauza bat)
(harek gauza bat)
(guk gauza bat)
(hareek gauza bat)

nekastá/nekastá
hekastá/hekastá
genkastá/genkastá
hekastén/hekastén

Oharkizunak:

— Jokook guztiz ezagunak eta erabiliak dira adinekoentzat.

— Adizki batzuetan: *nekastá, hekastá, genkastá* eta abar, datibo-morfema edo hizkia aldaturik daukagu: -sk- = -st-.

— Askotarako adizkia egiteko -za pluralgilea erantsi bedi: (Hik niri gauza batzuk) hekasta-zá, hekaskua-zá, ...

Zeanurin*niri*

henkastan/
yekastan/yekastanan
yekastien/yekastienan

(hik gauza bat)
(harek gauza bat)
(hareek gauza bat)

guri

henkaskun/
yekaskuan/yekaskunan
yekaskuen/yekaskuenan

hari

ñenkartsoan/ñenkartsonan
henkartsoan/henkartsonan
yekartsoan/yekartsonan
gaienkartsoan/gaienkartsonan
yekartsoen/yekartsoenan

(nik gauza bat)
(hik gauza bat)
(harek gauza bat)
(guk gauza bat)
(hareek gauza bat)

harei

ñekaskien/ñekaskienan
henkaskien/
yekaskien/yekaskienan
gaienkaskien/gaienkaskienan
yekaskienen/yekaskienan

hiri

(nik gauza bat) nekastaan/nekasnan
(harek gauza bat) hekastaan/hekasnan
(guk gauza bat) genkastaan/genkasnan
(hareek gauza bat) hekastaian/hekasnian

GEHIGARRIA

OLETAKO EUSKERA BIZI-BIZIA

(herrian erabiltzen diran laburdurak agirian ezarririk)

Aitte- seme-alaben artien

Aittek Deittu heidxok, Bittor, Malentxuri, bidxoi zerbait esan biutsuet eta.

Alabiek Zer biozu, aitte?

sorleku**sor-marka:** *gazta horrek badu sor-marka***sor-mintzaira** *Ipar.* 'ama-hizkuntza'**sormen****soro****soropil****sorosle****sorospen****sorotsi,** sorots, sorosten, *du* ad. 'lagundu'**sorrazazi,** sorrazaz, sorrazazten, *du* ad.**sorrazazle****sorrera** 'sortzea': *munduaren sorrera***sorta****sortaka****sortalde** 'ekialdea'**sortatu,** sorta(tu), sortatzen, *du* ad. batez ere *Ipar. Zah.* 'zamatu'**sortegun****sorterri****sorterritar****sortetxe****sortu** 1 sor, sortzen, *da/du* ad.**sortu** 2 sor(tu), sortzen, *da/du* ad. 'sor gelditu edo utzi'**sortzaile****sortze****sos:** *hamar sosekoa***sosdun****sosegatu,** sosega, sosegatzen, *g. er., da/du* ad.**sosegu****soska****soslai****sostengatu,** sostenga, sostengatzen, *du* ad.**sostengatzaile****sostengu****sostenidu*** *Mus. e. diese***sostor*** e. **zoztor****sotana****sotil:** *gorputz sotila, mehea; haren arrazoibide sotilak***sotildu,** sotil(du), sotiltzen, *da/du* ad.**sotilki****sotiltasun****soto****sozial****sozialdemokrata****sozialdemokrazia****sozialismo****sozialista****sozializatu,** sozializa, sozializatzen, *du* ad.**sozietate** 1* e. **gizarte**; 2 'elkarte mota': *sozietateen alorreko legeria***sozio** h. **bazkide****soziolinguistika****soziolinguistiko****soziologia****soziologiko****soziologo****spaghetti*** e. **espageti****sprint*** e. **esprint****standard*** e. **estandar**

stop

stress* e. **estres**

su

su eman

su hartu

suak hartu

suan 1 *infernuko suan*; 2 *Ipar. eta Naf., behar de la artoa suan erre*

Eta hau bezala, **sura**, **sutik** eta **suko**

su(r)tan, **su(r)tara**, **su(r)tatik**, **su(r)tako**, *Heg., surtara bota papera; urrea surtan garbiago egiten da*

sutan 1 'suak harturik', *basoa sutan dago*; 2 'haserre bizian', *sutan jarri zen gure gizona*

su(-)arma

su(-)eten

su(-)leize

su eta gar

suakartu* e. **su hartu**, **suak hartu**

sualdi

suberatu, subera, suberatzten, *du ad.* 'altzairua-eta berriro berotu'

subertsibo

subertsio

subil

subilaro

subirano

subiranotasun

subjektibismo

subjektibo

subjektibotasun

subjektu

subjuntibo

substantibo

substantzia *Fil.*

sudandar

sudun batez ere *Ipar.* 'sua duena'

sudur

sudur(-)hauts

sudur(-)zapi

sudurkari

sudurreko 1 'sudurrean hartzen edo ematen den kolpea'; 2 'betaurreko-mota zaharra'

suediar

suediera

suertatu, suerta, suertatzen, *da ad.* 'gertatu, egokitu'

suerte *Ipar.* 1 'mota'; 2 *Herr.* 'zoria'

suete *Bizk.* 'sukaldea'

sufragio

sufragista

sufre

sufredun

sufretsu

sufreztatu, sufrezta, sufreztatzen, *du ad.*

sufriarazi, sufriaraz, sufriarazten, *dio ad.*

sufriarazle

sufrikario

sufrimendu

sufritu, sufri, sufritzen, *du ad.*

sugai

sugaiketa *Ipar.* 'sugai bila'

sugandila: *Podarcis* sp.

horma(-)sugandila: *Podarcis muralis*

sugar

sugartu, sugar(tu), sugartzen, *da/du* ad.

suge: *Ophidia*

suge-belar

suge-ilar a) *Fagopyrum esculentum*; b) *Nigella sativa*

sugegorri: *Viperidae*

sugekume

sugetzar

suhar

suharki

suharri

suhartasun

suhi

suhigai

suhiltzaile

suil

suiltara *Ipar.*

suin* e. **suhi**

suite 1 *Mus.:* *J. S. Bachen suiteak*; 2 (hoteleko gela-mota)

suitzar

sujet *Ipar.* 1 *Zah.* ‘mendekoa’: *Jainkoaren sujet izateko*; 2 ‘gaia’: *tobera musttraren sujet*

sujeto* e. **subjektu**

sukaldari

sukaldaritz

sukalde

sukaldezain

sukar

sukar beltz

sukar ustel

sukardun

sukarraldi

sukarti

sukartsu

sukoi

sukor: *gizon sukorra*

sukortasun

sulfato

sulfidriko

sulfito

sulfuriko

sulfuro

sulfuroso

sultan

sultanerri

suma 1 *Zah.* ‘kopurua’

suma 2 ‘usaimena’

sumaezin

sumagai

sumagaitz

sumagarri

sumarazi, *sumaraz,* *sumarazten,* *dio* ad.

sumatu, *suma(tu),* *sumatzen,* *du* ad.: *nik ez diot zinemari deus ikusgarriarik sumatzen*

sumendi

sumin

suminaldi

sumindu, **sumin**(du), **sumintzen**, *da/du* ad.
sumindura
sumingarri
suminki
suminkor
suminkortasun
suminkortu, **suminkor**(tu), **suminkortzen**, *da/du* ad.
sunda *Bizk.* 'usaina (gehienetan ez atsegina)'
suntsiarazi, **suntsiaraz**, **suntsiarazten**, *du/dio* ad.
suntsiezin
suntsigarri
suntsiketa
suntsikor
suntsipen
suntsitu, **suntsi**, **suntsitzen**, *da/du* ad.
suntsitzaille
suntsitze: *Babiloniako erresumaren suntsitzea*
suomiera
suomitar 'finlandiarra'
supazter
superlatibo
supermerkatu
supersoniko
superstizio 'sineskeria'
superstizioso
supitu *Zah.* 'bat-batekoa'
supituan
supituki *Ipar. Zah.* 'bat-batean'
supizki *Ipar.*
supizteko 'pospoloa'
suprefet *Ipar.*
surf
surmur *Gip.* 'zurrumurua'
susa* e. **ziza**
susaldi
susaldu, **susal**, **susaltzen**, *da* ad.: *behia aste honetan susaldu da*
susara adlag.
susmaezin
susmagaitz
susmagarri
susmarazi **susmaraz**, **susmarazten**, *dio* ad.
susmatu, **susma**, **susmatzen**, *du* ad.
susmo
susmo izan
suspense *Liter., Zin.*
suspergarri
susperraldi
susperrarazi, **susperraraz**, **susperrarazten**, *du* ad.
suspertu, **susper**, **suspertzen**, *da/du* ad.
suspertzaille
suspirio
sustagarri
sustantibo* e. **substantibo**
sustantzia *Herr.:* *sustantzia gutxiko gizona*
sustar* e. **zuztar**
sustatu 1, **susta**, **sustatzen**, *du* ad. 'suspertu, bultzatu'
sustatu 2, **susta**, **sustatzen**, *Heg. Herr. da/du* ad. 'ikaratu'

sustatzaille
sustengatu *Ipar. h. sostengatu*
susto *Heg. Herr. h. ikara, beldur*
sustoa eman
sustoa hartu
sustrai
sustraigabe
sustraitsu
sustraitu, **sustrai(tu)**, **sustraitzen**
sutauts 'bolbora'
sute
sutegi
sutondo
sutopil
sutsu
sutu, **su(tu)**, **sutzen**, *da/du ad.*
sutzaile
sutzar
suziri

(Euskaltzaindiak, 1999ko urriaren 29an, Bilbon, onartua)

BATZAR AGIRIAK

Donostian, 1999ko apirilaren 23an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
P. Ondarra,
B. Oihartzabal,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi eta
A. Urrutia
euskaltzainak eta
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea
(lehenengo gaietan salbu),
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea
(4. gaian) eta
A. Eguzkitza, Exonomastika batzordekidea
(1.4 gaian)

Petatxu sarrerari “Ipar.” oharra ezartzea ez du onartzen ohargileak. Sarrera hori aldatzea onartu da. *Ipar.* marka kenduko zaio hitz horri eta baita *petatxatu*-ri ere. *Pedaxu*-ren sarrera ere aldatzea onartu da: *Pedaxu*, e. **petatxu**. *Pedaxatu* eta *pedaxatzaile* sarrerak, berriz, ezabatu egingo dira. *Petatxatzaile* erantsiko zaio, gainera, eta *petatxu*-ren sarreran ‘adabakia’ azalpena emango da.

Ondoren, H. Knörren oharrak hartu dira eztabaidagai.

Paso sarreran bigarren adiera bat ematen da zerrendan *Ipar.* marka duela. Knörr jaunak zerbait eranstea eskatzen du. Hala onartu da: iz. kategoria eta ‘zartakoa’ adiera duela gehituko zaio.

Patar hitza Iparraldekoa ez ezik Nafarroakoa ere badela dio ohargileak. Hala dela ziurtatu ondoren, *Naf.* marka ezartzea onartu da.

Donostiako ordezkaritzan bildu da Euskaltzaindia 1999ko apirilaren 23an. Bileran goizeko hamarrek eta laurdenetan hasi da. Ezkerreko zutabeen biltzen dira batzarrean parte hartu duten euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi du P. Salaburu jaunak.

Aurreko batzar-agiriak onartzea

Inoren oharrak gabe onartu dira aurreko hileko bi agiriak, hileroko batzarrekoa eta barne-jardunaldien jarraipenekoak.

Hizkuntza arauak

*Hiztegi Batuko **paso-pikaldi** hitz zerrenda*

Zerrenda hau amaitzeke utzi zen aurreko batzarrean. Gaurkoan X. Kintana jaunaren oharren azterketarekin jarraitu da.

Pertsonal sarrera dela eta, zerrendan 2. adiera ematen da, izen kategoriakoa eta “Iparraldeko galdetzeko” oharrarekin. Kintana jaunak nazioartekoa dela dio eta sartzea proposatzen du. Batzordearen proposamenez, bigarren itzulirako utzi da.

Patroi hitza erlijioaren esparrura mugatzea eskatzen du Knörr jaunak. Batzordearen iritzia, hain zuzen, kontrakoa da: gaur hitz hori itsas girokoa da, batik bat. Erlijio arloan, berriz, *zaindari* erabiltzen da. Horrenbestez, ez da oharra onartu.

Pausatu-ren adierak argitzeko asmotan ohargileak sartzea proposatzen duen adibideak ez dira onartu. Nahasgarri izango litzateke.

Pauso-ren sarreran, adibide gisa, "lau pauso bidean" eransteke proposamena ez da ontzat eman, dokumentaturik ez dagoelako eta premia berezirik ikusten ez delako. Arrazoi beragatik, hurrengo itzulirako utzi da *pazifismo* hitza.

Pazko hitza letra larritz hobeto ikusten du ohargileak, *Eguberri* eta bezala. Ez da onartu, izen arrunta ere bai baita: "pazkoak egin" esaten da, adibidez.

Peitu izan-i buruz, aditz honek zernolako kasua gobernatzen duen esatea onartu da. *Gauza baten peitu naiz* erantsiko zaio, adibide gisa.

Bide batez, *peita* hitzari ere leku egingo zaio zerrendan: *peita**, e. *beita*.

Pella hitza hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Penalti sarrerari ohargileak "e. zigor" ezartzea eskatzen du. Ez da onartu, berez ez baita zigorra.

Pentsio eta *zaharsari* baliokidetzat ematea ez da onartu, *zaharsaria* pentsio mota bat izango bailitzateke.

Pentsu dut bezalakoei leku egitea ez da onartu, hurrengorako utzi da. *Aipu dut* eta horrelakoak ere ez baitira sartu zerrendan.

Pentze hitza, ohargilearen arabera, Nafarroan ere erabiltzen omen da. Oharra onartu da eta, horrenbestez, *Ipar*. marka ezabatu egingo da. Bestalde, zerrendan ageri den 'ze-laia' adiera ere ezabaturik geldituko da.

Peril hitza, *Ipar*. ez ezik Gipuzkoako testuetan ere ageri da (Agirre Asteasuakoak darabil). Marka hori ezabatzea onartu da. Horren ordez, *Zah*. marka erantsiko zaio. *Perilos* hitza, berriz, zerrendatik ezabatuko da.

Perlesiatu hitza sartzeko eskaria onartu da: **perlesiatu** *Ipar*. 'elbarria'.

Peto-ren sarrera osatzea onartu da. Lehen adierari dagokionez, honela utzi da: 'berdina, erabatekoa' *Aitaren petoa da semea*; *euskaldun petoa*; *azkoitiar petoa*. *Peto* egin eta *peto egon* eta horrelakoez ere mintzatu dira euskaltzainak baina ez dira onartu zerrendan.

Pezakatu ez da onartu, dokumentatu gabea delako. *Pezoi*-ren esanahi zehatza, ohargilearen ustearen kontra, ez litzateke 'ezponda' izango. Beraz, zerrenda lehengoan gelditu da. *Piano-jole* ere ez da sartuko: *piano-jotzaile* modukoak dira onartuak, sistema orokorraren arabera.

Hirugarren ohargilea Andres Urrutia jauna izan da.

Paso hitza jadanik ikusia da.

Pasteurizatu/pasteurizazio hitzak hurrengorako uztekoak direla uste du batzordeak eta hala onartu da. *Patata*-ren sarreran *patata(-)zomorro* bezalakoak ageri direnez, ohar-

gileak uste du badela garaia marratxoari buruzko bi aukera horien artean baten aldeko joera erakusteko. Gauzak dauden daudenean uztea erabaki da.

Patetiko eta *patriarkal/patriarkatu* hitzak bigarren itzulirako uztea erabaki da. *Pa-zientziatsu* ere bigarren itzulirako uztea erabaki da. Axularrengan bakarrik omen dago dokumentatua corpusean.

Pegartxo zerrendatik kendua izan dela eta, arrazoiak galde egiten du ohargileak. Horrelako hitzak automatikoak diren neurrian ez da beharrezko ikusten zerrendan ematea.

Pelikula sarreran ohargilearen eskaria ontzat eman da. Honela geldituko da: **pelikula** h. **film**.

Behin *pentzudan* onartuz gero, *pentzuda* izena ere agerraraztea eskatzen du ohargileak. Gauzak dauden bezala uzteari hobeto iritzi diote euskaltzainek, adibiderik gehienak *pentzudan* formarenak baitira.

Peza-ren azpisarrera gisa, *pezako* sartzea onartu da. Adiera emango da: ‘zati bakarrekoa’ eta, adibide modura, *Pezako galtzak*.

Pertsonaia hitzak zalantzak sortzen dizkio ohargileari *-aia/-aje* dela eta. Batzordearen iritziz, *-aje* amaiera izango litzateke arauzkoa. *-aia* salbuespena litzateke. *Pertsonaia* forma salbuespenetakoa da, hortaz.

Pigmentazio-ren parean *pigmentatu* sartzeko eskaria ez da onartu. Bigarren itzulian sartzekotzat eman da.

Pijo hitzarentzat azalpena ematea eskatzen du Urrutia jaunak. Onartu da: ‘trebea, behar bezalakoa’, *Andre prestu eta pijoa*; *Bautista Bazterretxe, mutiko pijoa*.

Pikada hitza sartzea ez da onartu. Bigarren itzulirako utzi da.

Idatzizko ohar hauetatik kanpo, P. Goenagak *periodo* hitza sartzea komeniko litzatekeela aipatu du. Hala onartu da, ‘batez ere Fis.’ oharraz hornitua. Eta hariari tiraka, *periodiko* sarrera ere osatu beharra ikusi da. Bigarren adiera bat jasotzea onartu da. Honela gelditu da sarrera hori: **periodiko** 1. izond. ‘aldizkakoa’ *sistema periodikoa*. 2. iz. Heg. h. **egunkari**.

Honenbestez, *paso-pikaldi* zerrenda onartutzat eman da.

Hiztegi Batuko pikante-postu zerrenda onartzea

Lehenbizi aztertu diren oharrak X. Kintanarenak izan dira.

Pikutara {*bidali, bota, joan*} eta antzekoez, ohargileak *piku* hitzetik aparte ematea eskatzen du, erlazio hori aski badaezpadakoa delakoan. Onartu da. Beraz, *pikutara* hitzari sarrera berezia eskainiko zaio.

Pipita sarrera *aho legarra* hitzarekin harremanetan jartzen da zerrendan. Baina hitz hau bere lekuan ez da agertzen eta agerraraztea eskatzen du ohargileak. Onartu da.

Zerrendan *polen* hitzaren baliokide gisa ematen den *lore hauts* ez du bidezko jotzen Kintanak. Zerrenda datorren bezala uztea erabaki da.

Polizia hitza 'kidegoa' adierazteko eta 'kidego horretako kide bakoitza' adierazteko erabiltzeki ez deritza zuzen ohargileak. Eztabaida piztu da eta batzordearen proposamenez, bi hitz bereiztea onartu da: batetik, *polizia* eta bestetik, *poliziakide*. *Polizia* hitzari ere zenbait azalpen gehitzea onartu da. Honela gelditu da, azkenean: **polizia** 1. Kidegoa; 2. Garbitasuna, ardura; 3. h. **poliziako**, **poliziakide**.

H. Knörren oharrak aztertzei ekin dio ondoren batzarrak.

Pikante hitza mailaz jaitxi nahi luke ohargileak. Dagoen bezala uztearen aldeko da, ordea, batzordea eta hala onartu da.

Pike hitzean azpisarrera bat eranstea proposatzen da ondoren. Onartu da eta honela gelditu da delako sarrera hori: **pike-1** 'oihal-mota'; **pike-2*** e. **bike**; **pike-3*** e. **piko-2**.

Pikosto hurrengo itzulirako utzi da, *pilikorte(an)* bezala, datu aski ez baita.

Pil-pilean-en adiera figuratua sartzeko proposamena egiten du ohargileak. Erabilera metaforikoa beti izango litzateke zilegi. Horrenbestez, ez da beharrezko ikusi sartzea.

Pintatzaile/pintore bikotearen aurrean bietako bati lehentasuna ematea eskatzen du Knörr jaunak. Daudenetan uztea erabaki da.

Pirata-ri aldamenen *itsaslapur* sartu beharrik ez da ikusi.

Pirka-pirka eta *pirpir* hurrengorako uztea onartu da, lekukotasun faltaz.

Pisu-ren adiera figuratua ere sartzeko eskaria ez da onartu. Izenondo gisa jasoa denez, ez da gehiagoren beharrik ikusi.

Pizkor aipatzea onartu da: **pizkor*** e. **bizkor**.

Planta hitza "herr." gisa markatzea eskatzen du ohargileak. Dagoen bezala uztea egokiago ikusi dute euskaltzainek. *Plantatu* sartzeko eskaria, berriz, ez da onartu. Hurrengo itzulirako izango litzateke.

Plazent hitza zerrendan zaharkituzat ematen da. Zalantzan jartzen du hori ohargileak. Iparraldekoiei entzun ondoren, honela markatua emango da: *Ipar*. izond. 'atsegina'. *Plazenki* hitzari ere "zah." marka kendu egingo zaio.

Pleini sarreran argitasunen bat eskatzen du Knörr jaunak. Honela ezartzea onartu da: **pleini izan-1** *Ipar*. da ad. 'kexatu', zertaz *pleini zara?* 2 du ad., *pleini dut honen langilea*. *Pleinitu*-ri, berriz, 'pleini izan' adiera duela erantsiko zaio eta baita honako adibide hau ere: *flakaturik zirela pleinitzen ziren*.

Hirugarren ohargilea Tx. Peillen izan da.

Pikarrai hitza sartzea onartu da honako azalpen hauekin: *Zub*. 'bilusik'. *Pikarrai ezarri zuten*.

Ike hitza sartzea ez da onartu.

Piko sarreran adiera gehiago ezartzea onartu da. Honela emango dira adiera horiek denak: **piko-1** *Ipar*. iz. 'goldearen hortza'. **Piko-2** izond. 'aldapatsua'. **Piko-3** 'dantzako urratsa'. **Piko-4** 'bertsogintzako neurria'. **Piko-5*** e. **piku**.

Hurrengo itzulirako utziko da *pildun* hitza.

Pintada, hegazti mota, sartzea onartu da.

Pintatu-ren ondoan *tindatu* (L.N.) aipatzen du ohargileak. T- letran ikusiko da, no-lanahi ere.

Piper-en sarreran, azpisarrera gisa, *piper igorri* eta *piper utzi* sartzea proposatzen da. Hurrengo itzulirako utzi da.

Pipita-ren bigarren adiera (*clitorisa*, nonbait), bigarren itzulirako izango litzateke, izatekotan.

Piru sarrera hornituago emango da: 'haria; izpia; zuntza' adierak eskainiz.

Pisatze, *pisuhil*, *pitotx* eta *pittika* hurrengo itzulirako utzi dira.

Pistoi sartuko da.

Pitxi ez da ohargilearen aburuz 'balio gutxiko bitxia'. Dagoenetan uztea erabaki da.

Pixa hitzaren azpisarrera zenbait eskatzen dira oharrean. Batzordearen ustez, *gernu* da maila jasoagokoa. Honi dagokion lekuan, *gernu(-)debeku* hitza ere sartua dago. Aski litzateke, hortaz, *pixaezin*, *pixadebeku* eta antzekorik gabe ere. *Pixontzi* sarreran, iz. eta izond. kategoriakoa izan daitekeela adieraziko da.

Hurrengo itzulirako utzi dira, halaber, honako proposamen hauek: *pizle*, *pizte*, *planisferio*, *plantigrado*, *plasmodio*, *plateresko*, *plazebo*, *plektro*, *pleonasmo*, *plexu*, *pluralismo*, *polistireno*, *politizatze*, *pomada*, *pomelo*, *porrokin*, *postale* eta *poster*.

Peillen jaunak *platondar* baino nahiago du *platoniar* edo *platonzale*. *Platondar* utzi da, hau baita dokumentatua dagoena.

Plebeio sartzea onartu da. *Poliester* ere bai.

Poker-2 Ipar. 'korrokada' agertzen da zerrendan. Hau orokorregia iruditzen zaio ohargileari, baina gogorarazi zaio ohar horrek ez duela esan nahi Iparralde osoan erabiltzen denik. Dagoenetan utzi da, horrenbestez, sarrera hori.

Poliza sarreran 'agiria' marka ezarriko da.

Pope sartzea onartu da, baina ez *porogatu* hitza.

Azkenik, A. Urrutiaren oharrak aztertu dira. Dena dela, oker batengatik batzordeak ez omen ditu eztabaidatu *piroteknia-plagiatu* bitarteko oharrak. Horrenbestez, eta daturik ezean, hurrengo batzarrean eztabaidatuko dira A. Urrutiaren izkribuko bigarren orrialdean jasotzen diren oharrak.

Pikardia sarreran adiera jasotzea eskatzen da. Ez da onartu, dagoena nahikoa dela eta. Gauza bera gertatu da *pikaro* hitzari buruzko eskaerarekin ere.

Aurreko zerrendan ageri zen *pikardatu* hitza oraingoan zergatik desagertu den galde egiten du ohargileak. Axularrek behin erabilia dela erantzun zaio eta zaharkitutzat jo zutelako kendu zutela zerrendatik.

Pikete hitza ere zerrenda honetan ez omen da ageri, aurrekoan bazetorren ere. Horren arrazoia galdetzen du Urrutiak. Erabilerak ikusita, hurrengorako uztea hobe delakoan dago batzordea. Hala onartu da.

Pilarri hitzaren daturik ez omen du batzordeak. Izatekotan, hurrengorako utzi beharko litzateke.

Pinakoteka sartzeari onartu da.

Piorrea bigarren itzulirako utzi da.

Plan eta *plangintza*, biak ageri direnez zerrendan, *planifikatu*-ri leku egin behar ote zaion ala *plangintza* egin erabili behar ote den galde egiten da oharretan. Bigarren itzulirako uzteari hobeki irizten dio batzordeak eta euskaltzainak bat etorri dira iritzirikin.

Planetario izena sartzeari onartu da.

Ohargilearen ustez, *plantilla* zerrendatik “erori” egin bada ere, berreskuratu beharrekoa da. *-il-* grafiaren inguruan ere Euskaltzaindiak argitasunak eman beharko lituzke. Bigarren itzulirako uztea erabaki da, ez baitu gutxienekoa ere betetzen. *Langile zerrenda* eta *barne(-)zola* (zapatena) ere, adibidez, hori dira. Hurrengorako ekar daiteke proposamenen bat honi buruz.

Plazenki sarreraren azalpenen bat eskatzen du Urrutia jaunak. ‘Atseginez’ adiera duela esango da.

Plebe sartzeari onartu da.

Hurrengo itzulirako utzi da, ordea *pleit*, erabilera urri xamarra baitu. *Popularr/popularitasun* ere bigarren itzulirako utzi dira. Baita *postal* eta *postmoderno* ere. *Poster* hitza, berriz, jadanik bigarren itzulirako uztea erabakia da.

Poloniar/poloniera gero sartuko dira, horrelakoak sistematikoki sartuko baitira argitalpen osoa egin aurretik.

Posta sarreraren onartu da *posta(-)kode* sartzeari, baina proposatzen diren gainerakoak —*posta(-)truke* eta *postan* adizlaguna— bigarren itzulirako utzi dira.

Postposizio hitzak erakusten duen *t* letrarekin ez da ados ohargilea. Hiru kontsonante elkarren segidan ageri direnean, bitarteko *t* hori galdu beharko litzatekeela dio. Batzordearen erantzuna da mailegua dela eta nazioarteko forma horixe dela, *subjektu*, *objektu* eta *adjektibo* ere horrela onartu direla. Ontzat eman da batzordearen iritzia.

Onomastika

B. Hurch-en txostenari egindako oharren aurkezpena

Hurch jaunak Euskaltzaindiaren 53. araua dela eta (*Munduko Estatuetakoko Hizkuntza Ofizialak*) euskaltzainei aspaldi helarazitako txostenari zenbait ohar egin zaizkio Exonomastika lantaldeetik eta ohar horien aurkezpena egin du A. Eguzkitza jaunak. Oharrok datorren batzarrean aztertuko dira.

“Europar Batasuna dela eta” txostenaren aurkezpena

Exonomastika lantaldeak beste txosten bat aurkeztu du, X. Kintanaren eskutik. Euskaltzaindiak Munduko estatuen euskal izenak arautu dituen bezala, sortzen ari den Europako batasun delako horri ere izen bat zor zaiola eta *Europar Batasuna* proposatzen

da, nahiz hiru boto *Europako Batasuna* izenera makurtu. Proposamen hau hurrengo batzarrean eztabaidatu eta bozkatuko da. Nolanahi ere, beti bezala, oharrak, idatziz, hilaren 20rako behar dira Euskaltzaindian.

Erregelak

Jagon Sailean ezarri nahi diren aldaketak direla medio, Erregelaren 37. artikulua aldatu beharra ikusi zen. Aldaketa xumea proposatzen da baina eztabaida pixka bat ekarri du. Azkenean, aho batez onartu da: 37. art. “Jagon Saila batzorde bakarrak edo, beharren arabera, batzorde gehiagok osatua egon daiteke” da onartu den testua. Dena dela, erregelaren testu osoaren azken idazketaz P. Goenaga, H. Knörr eta A. Urrutia arduratuko dira. Hauek izan baitira oharrak egin dituztenak. Prestatutako testu bateratua hurrengo bilkuran izango dute euskaltzainek eskuetan.

Arautegiko 5. eta 28. artikulua

5. artikulua aldaketa bozkatu da. Honako emaitza izan da: hamazazpi, alde; bat, zuri eta beste bat, ezezkoa, hau (Arana jaunarena), gramatikazko arrazoiengatik, ez baitu gustuko hainbeste ergatibo marka segidan ematea.

Hona hemen onartu den testua:

“5. art. Euskaltzaindiak Zuzendaritza bat izango du, honako kide hauek osatua: euskaltzainburuak, buruordeak, idazkariak, diruzainak, Iker sailburuak eta Jagon sailburuak. Denek euskaltzain oso beharko dute izan. Iker sailburua nahiz Jagon sailburua euskaltzainburuorde ere izan daitezke aldi berean.”

28. artikulua aldaketa proposamenak ere zenbait eztabaida sortu du. Hurrengo bileran erabakitzeke geratu da.

Eskuartekoak

Informatizatzea bideratzeko mailegua

J. J. Zearretak azaldu du zertan den kontua. Euskaltzaindiak onartua duen informatizatze plana finantzatu behar da: alde batetik, Herri Aginteez ez dute emango aurrekontuaren ehuneko 57 baino. Bestetik, dirutza hori hiru urtetan banatua etorriko da. Informatizatzea pare bat urtetan egingo denez, argi dago, finantzatze formularen bat bilatu behar dela.

Argitasun hauek eman ondoren, honako erabaki hau hartu da:

Bilbao Bizkaia Kutzarekin kreditu kontu bat hitzartzea eta sinatzea, **BERROGEITA HAMAR MILIOI PEZETAKOA (HIRUREHUN MILA ETA BOSTEHUN ETA SEI EURO ETA BOST ZENTIMO)**, hiru urteko epean eta Instituzioaren onurakotzat jotzen diren interes eta baldintzetan.

Halaber, Erakundearen Diruzain den Jose Antonio Arana Martijari ahala ematea, Euskaltzaindiaren ordezkari legez eta haren izenean, erabakia guztiz betetzeko behar diren dokumentu oro, publiko zein pribatu, sinatzeko.

Institut d'Estudis Catalans-en eta Universitat de Perpinyà-ren arteko hitzarmena

Institut d'Estudis Catalans-en eta Universitat de Perpinyà-ren artean egin duten hitzarmenaren testua eman zaie euskaltzainei bere jakinerako.

Eusko Ikaskuntzaren eta Euskadiko Kutzaren Giza, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Sarirako proposamena

Eusko Ikaskuntzaren eta Euskadiko Kutzaren Giza, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Sarirako Pedro Yrizarren hautagaitzaren aldeko proposamena aurkeztu du Zuzendaritzak. Euskaltzainek aho batez onartu dute proposamena.

Etxarri-Aranazko bilkura

Ospakizun horietako xehetasunak aurkeztu ditu J. L. Lizundia jaunak. Euskaltzain osoen bilkura ostegun arratsaldean izango litzateke, ekainaren 24an. Gramatika Jardunaldiak, berriz, hilaren 25ean izango dira, goiz eta arratsalde. Jendaurreko ekitaldia noiz egin izango litzateke arazoa, hogeita lauan ala hogeita bostean. Arbizuko jaiak direnez, agian ez omen litzateke osteguna egokiegia izango. Dena dela, A. Iñigo saiatuko da iritziak jasotzen eta horren arabera zehaztuko da agenda.

Urkixo eta Azkueren omenezko Kongresua

Bi milagarren urtean egingo bada, gauzak finkatzen hasi beharra dagoela adierazi du Lizundia jaunak. *Euskalduna* jauregian egin nahi bada, are presa handiagoa legoke. Dena dela, lehenbizi gaia finkatu beharra ikusten da eta dena abian jartzeko batzorde bat ere beharrezkoa da. Euskaltzainburuak adierazi du lehenbizi batzorde akademiko bat izendatu behar dela eta honek finkatuko dituela gaiak. Batzorde hau, hasteko, zuzendaritzako kideek eta ikersailburuak osatuko lukete. Gero, gaia finkatu ondoren, osatuko litzateke kanpoko zenbait jende prestigiodunekin.

Noiz egin ere finkatu behar da. Datarik egokiena 2.000. urtearen amaiera aldea izan liteke.

Euskaltzainburuaren dossiera Frantziako agintarientzat

Haritschelhar jaunak adierazi du dossier bat egin duela euskararen egoeraz eta Frantziako agintarien esku jarri duela.

Bilera arratsaldeko bostak eta erdietan amaitu da.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *

Donostian, 1999ko apirilaren 23an

Bost eta erdietan eman zaio hasiera arratsaldeko bilkura irekiari.

Mahaiburuan eseri dira Jean Haritschelhar euskaltzainburua, P. Goenaga idazkaria, J. A. Arana diruzaina, Koruko Aizarna Gipuzkoako Kultura eta Euskara diputatua eta Jorge Letamendia Hirigintza eta Lanetako diputatua.

Aipatuez gainera, honako euskaltzain hauek bildu dira: P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, A. Iñigo, X. Kintana, H. Knörr, E. Larre, J. M. Lekuona, P. Ondarra, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, J. San Martin, I. Sarasola, J. M. Sarustegi eta A. Urrutia.

Urgazleotarik, berriz, honako jaun-andre hauek: J. M. Aranalde, A. Aranburu, A. Arejita, Pakita Arregi, M. Atxaga, Ricardo Badiola, Serafin Basauri, J. L. Goikoetxea, M. Itzaina, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, J. A. Mujika, P. Uribarren, J. J. Zearreta eta J. R. Zubimendi.

Arrate Ibargutxi, Imanol Laspiur zenaren alarguna ere entzuleen artean izan da eta baita beste hainbat herritar ere. Gela, azkenean, txiki gertatu da.

Euskaltzainburuaren hitzak

Lehenbizi, euskaltzainburuak hartu du hitza. Donostiako ordezkaritza berritua inaurratzea dela eta, bilduak agurtu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunei eskerrak eman dizkie Euskaltzaindiaren ordezkaritza honetan egindako lanengatik. Euskaltzaindiak eskuartean dituen eginkizunak aipatu ditu. Hemendik aurrera batzordeentzat leku aproposagoa izango du Euskaltzaindiak Donostian.

Goizeko bilkuraren berri

Ondoren, idazkariak hileroko batzarrean erabilitako gaiak aipatu ditu, labur-labur: hizkuntza arauak, erregelen eta arautegiaren gaurkotzea, egiteko den kongresua, etab.

Imanol Laspiur euskaltzain urgazlearen hilberri txostena

Jarraian, Serafin Basauri jaunak adiskide eta lankide izan zuen Imanol Laspiur zenaren hilberri txostena irakurri du. Hitz batez definitu ahal balitz haren lana, hitz hori “bidegile” izango omen litzateke. Euskararen irakaskuntzari lotua, euskara batuaren defendatzaile sutsu, Eibarko euskarari zion maitasun ikaragarria ukatu gabe. Euskararekiko eta herriarekiko maitasunak nahigabeak ere ekarri zizkion, kartzela eta desterrua barne... Hizlaria poliki-poliki joan da, hitz zehatzez eta hunkigarritz, Imanol Laspiurren bizitzaren eta borroken nondik norakoak azaltzen. Haren idazlanak aipatu ditu, azkenik, *Jakin-en*, *Euskera-n* eta abarretan argitara emanak. Eskuartean zituenak ere aipatu ditu.

Ondoren, euskaltzainburuak hartu du berriro hitza hizlariari eskerrak emanaz eta Laspiur zena gogoratuz: “Jakin dezala familiak Euskaltzaindiak beti gogoan izango duela Imanol”.

Koruko Aizarnaren hitzak

Azkenik, Aizarna andreak hartu du hitza. Sudupe diputatu nagusiaren ezin etorria adierazi du. Jendea agurtu du Diputazioaren izenean eta eskerrak eman dizkio Euskaltzaindiari egiten ari den lanagatik. Eskerrak oraingoei, baina baita aurretik lanean jardun dutenei ere.

Ordezkaritzan egindako berritze lanak beharrezkotzat jo ditu eta zor zitzaiola horrenbeste Euskaltzaindiari. Dena dela, Letamendia jaunak zuzentzen duen departamentuaren lana izan dela gogorarazi du.

Eta horrenbestez, arratsaldeko seiak eta erdietan amaitutzat eman da bilera.

* * *

Bilbon, 1999ko maiatzaren 28an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna (goizean),
M. Azkarate (goizean),
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
X. Kintana,
E. Larre,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
J. M. Satrustegi (goizean)
eta A. Urrutia, euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-
tzailea,
A. Eguzkitza, Exonomastika batzordekidea
(lehenengo gaian)
eta M. Gorrotxategi, Onomastika batzor-
deko idazkaria
(2. eta 3. gaian)

Hizkuntza arauak

Onomastikako 38. eta 53. arauen aldaketa

Euskaltzainburuak A. Eguzkitza jaunari eman dio hitza. Honek adierazi du gaia aurkeztu zenean esandakoari gehi lekiokkeen ezer ez duela eta oharrik ba ote den galde egin du.

Euskara Batuko batzordearen iritziz, hizkuntza aipatzeko, *-era* atzizkia oinarrian lurralde izena dugunean erabili beharko litzateke, ez besteetan: *guarani*, adibidez.

Tx. Peillen jaunak galde egin du ea kontuan hartu den, adibidez, arabiera egiten den zenbait herri arautua duela beren herriaren izena nola behar den eman latin alfa-betoz.

B. Oihartzabalek, berriz, horrelako lanak beharrezko direla aitortu arren, bere za-lantza agertu du ongi ezagutzen ez ditugun gaietan sartu behar ote duen Euskaltzaindiak. Nolanahi ere, *malgaxe* eta *kaxmirera* behar dutela esan du.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan elkartu da Euskaltzaindia 1999ko maiatzaren 28an bere hileroko batzarra egiteko. Bilera goizeko hamarrak eta hogeian hasi da. Parte hartu duten euskaltzainen izenak ezkerreko zutabea biltzen dira. Ezin eto-rria adierazi dute A. Iñigok, J. M. Lekuo-nak, P. Salaburuk, I. Sarasolak eta P. Za-baletak.

Aurreko batzar-agiria onartzea

Inoren oharrik gabe onartu da aurreko hi-leko agiria.

Euskaltzainburuan hitzak

Euskaltzainburuak Anbrosio Zatarain euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri eman du eta dolua erakutsi. Hileta eliz-kizunean zenbait euskaltzain eta urgazle izan ziren. Mikel Atxagari galde egin zaio hilberri txostena egin dezan.

Charritton jaunak ere uste du hau ez dela Euskaltzaindiaren lana, unibertsitatearena baizik. Hala ere, irakaskuntzan ari direnek, entziklopediak idatzi behar dituztenek eta abarrek, irtenbide bat behar dutela erantzun zaio eta lan hau behar beharrezkoa dela.

Era guztietako kezak eta iritziak agertu dituzte euskaltzainek. Satrustegi jaunak hiru puntutan laburbildu du arazoa: batetik, Europako hizkuntzentzat hartu zen bideari eutsi behar zaiola. Bestetik, bere garaian onartutako zerrenda al bait gutxien aldatu behar litzateke. Eta gehiketa gisa ematen den zerrendak, berriez, ez duela Euskaltzaindia hainbeste lotzen. Beraz, horretaz geroago ere hitz egin ahaliko dela.

Azkenik, eztabaida luzearen ondoren, batzordeak proposatzen dituen aldaketak banan-banan bozkatzea onartu da. Horren arabera, honako aldaketa hauek bakarrik onartu dira: *bengalera* (*bengaliara*-ren ordez), *bislama* (*bislamera*-ren ordez), *gujaratera* (ez, *gujaratiera*), *kannada* (*kannadera*-ren ordez), *malgaxe* (ez *malgatxera*, ez *malgatxe* ere), *maratera* (*maratiera*-ren ordez), *paxtuera* (ez *paxtoera*), *punjabera* (ez *punjabiera*), *kirundi* (ez *kirundiera*), *telugu* (ez *teluguera*), *thailandiera* (*thaiera*-ren ordez) eta *sinhala* (*zingaliara*-ren ordez).

Hauek izango dira, hortaz, 53. arauari ezarriko zaizkion aldaketak. Batzordeak proposaturiko gehiketak eta kenketak, berriz, beste baterako utzi dira. Zuzenketa hauek denak onartu ondoren, araua behar bezala berridatziko da.

Europar Batasuna

Gainerako erakunde politikoen izenentzat Euskaltzaindiak proposamenak egin dituen bezala, Europan sortzen ari den batasuna izendatzeko orduan dagoen anabasari aurre egin beharra ikusi du Onomastika batzordeak. Aurkezten diren aukerak bi dira: *Europako Batasuna* eta *Europar Batasuna*. Onomastika batzordean iritzia erdibitua ageri omen da: lau kide *europar*-en alde, hiru *Europako*-ren alde. Zenbait euskaltzainek beren iritzia eman dute eta, azkenean, botoetara jo da. Hona hemen emaitza: hamar euskaltzain, *Europar Batasuna*-ren alde eta zazpi, *Europako Batasuna*-ren alde. Boto zuri bat ere izan da. Horrenbestez, *Europar Batasuna* deitura onartu da.

“Santu, san, done eta ingurukoak” izeneko txostena

H. Knörr jaunak eman du egindako lanaren berri. Agindu bezala, Onomastika batzordeko eta Euskara Batuko batzordeko bina ordezkari osatutako batzordeñoa bildu da, baina ezina gertatu omen da proposamendu bakarra ekartzea.

B. Oihartzabalek gogoratu du batzordeño bat osatzea erabaki zela eta helburua san-tuei erreferentzia egiterakoan, ez bestetan, nola jokatu behar den proposatzea zela. Bildu dira, baina ez da adostasunik lortu, ez eta lehen puntuan ere.

Satrustegi jauna ez dago ados egin nahi diren bereizketa metafisikoekin. Eztabaida luzea piztu da. Haritschelhar jauna saiatu da bi zerrendak alderatzen eta adostasunik eta desadostasunik zertan diren finkatzen. P. Goenagak, ondoren, gogorarazi du batzordeñoak ez duela eskatutako lana bete, ez baitu ekarri testu adosturik. Azkenean, batzordeñoari (P. Salaberri, H. Knörr, M. Azkarate eta B. Oihartzabal) atzera biltzeko agindua eman zaio dokumentu bakar bat presta dezan, lehenbizi ados datozen puntuak jasoz eta ondoren desadostasuna dutenak. Testu hau aldeaz aurretik emango zaie eus-

kaltzainei, aztertzeke eta oharrak egiteko astia izan dezaten. Oharrok Euskaltzaindira bidaliko dira uztailleko batzarrean eztabaidatuak izan daitezen.

Eztabaida honen amaieran Davant jaunak adierazi du Zuberoako herritarren izenak finkatzen dituen zerrenda onartzeko prest dagoela eta hurrengo batzarrean bozkatzea on litzatekeela. Euskaltzainei zerrenda banatu zaie, beti bezala hurrengo bilerarako oharrak egin ditzaten.

Hiztegi batua: Pikante-postu zerrenda onartzea

Zerrenda hau amaitzeko A. Urrutiak aurreko bilkuran aurkeztutako oharretatik orrialde bat aztertu gabe gelditu zenez, hauek aztertzeari ekin dio batzarrek:

Piroteknia sartzea onartu da.

Pitean-en sarreran ageri diren *pitean pitean* eta *txitean pitean*, marraz horniturik eman beharraz ohartarazten du Urrutiak. Hala onartu da. Beraz, *pitean-pitean*, *txitean-pitean* agertuko da.

Pitotx, *lepahori* hitzaren sinonimo gisa, hurrengo itzulirako utzi da.

Bigarren itzulirako utzi da *pizza* hitzaren ondoren etorri beharko lukeen *pizzategi* nahiz *pizzeria* hitza sartzea ere.

Piztuera hitza sartzea onartu da.

Pitrail hitzean ageri den huts tipografikoa ere zuzenduko da.

Pitxi hitzaren inguruan, berriz, eztabaida sortu da. Gauzak ez daude argi, nonbait. Datu gehiago bilduko dira eta hurrengo batzarrean erabakiko.

Ondoren, eztabaidarako markaturiko hitzak hartu dira solasgai.

Pista/pizta aukeraren aurrean botoetara jo beste biderik ez da ikusi. Hala ere, hemen prozedurako arazo bat sortu da hizkuntza arauekin zerikusirik ez duena, baina bai Euskaltzaindiaren jardunarekin: beste euskaltzain baten edo batzuen ahala(k) d(it)uen euskaltzainak alde egiten badu beste bati bere ahala emanaz, zer gertatzen da lehendik hartuak zituen ahalekin? Hain zuzen, hori gertatu baita M. Azkaratek alde egin baino lehen B. Oihartzabali ahala eman dionean. Honetaz erregelak zerbait esan beharko lukeela argi ikusi da. Dena dela, aurrerantzean erabakiko dena gorabehera, oraingo bozketarako idazkariaren proposamena onartu da: euskaltzain batek beste baten ahala badakar, ahal hori ezin dio, berearekin batera, beste bati eman.

Horrenbestez, *pista/pizta* auzia botoetara eramán da, azkenean: *pizta* formaren alde bozkatu dute hamar euskaltzainek. Beraz, hau onartu da.

Plagiatu eta *plagio* hitzak ere eztabaidagai gisa markatuak datoz zerrendan. Tradiziorik gabeko hitzak dira. Bozketak emaitza hau izan du: hamahiru euskaltzain *plagiatu* eta *plagio* formen alde. Beraz, -g-dun formak onartu dira.

Beste eztabaidagai bat *platano* sarrerari dagokiona izan da. Zerrendan, alboan *banana* hitza duela ageri da, baina “**platano-2 Heg.** h. **banana**” ala “**platano-2* Heg.** e. **banana**” argitzeko dago. Bozkatu ondoren, “h. banana” onartu da: hamahiru boto izan ditu bere alde.

Plazer hitzaren azken kontsonantea *-r* ala *-rr* den (*plazera* ala *plazerra*, alegia) bozkatu da. Aho batez onartu da *-r* bakarrekotzat ematea. Beraz, *plazera*, *plazerez*, *plazerik*, eta abar beharko du.

Honenbestez, *pikante-postu* zerrenda ontzat eman da, *pitxi* hitza hurrengoan erabakitzeko utzi bada ere.

***Postura-santu* zerrenda**

Zerrenda honi oharrak egin dizkietenak X. Kintana eta H. Knörr euskaltzainak izan dira. Kintana jaunarenak aztertu dira lehenbizi.

Postura hitzean, Kintana jaunak adiera markatzeko eskatzen du. Hala onartu da: 'apustua' dela esango da.

Prehistoria sarreran Kintanak, "h. historiaurrea" ezartzea proposatzen du bigarren hitz honi lehentasuna emanaz. Batzordea, berriz, zerrenda dagoen bezala uztearen aldeko ageri da, biak sinonimotzat emanaz. Eztabaida txiki baten ondoren, botoetara jo da. Hamaika euskaltzain agertu dira Kintanaren proposamenaren alde eta zazpi batzordearenaren alde. Beraz, "**prehistoria** h. **historiaurrea**" gisa agertuko da sarrera hori.

Sable sarreran "h. hondar, harea" jartzea proposatzen du ohargileak. Batzordearen iritzia ontzat emanaz, "*Ipar. Zah.*" erantsiko zaio sarrerari.

Sano sarreraren bi adieretan "Herr." edo "Beh." jartzeko eskatzen du Kintana jaunak. Eztabaidaren ondoren, 1.ean esanahia kendu eta adibideak jartzea onartu da, "*gizon sanoa, sagar sanoa*". 2.ean, berriz, "Bizk." eta "Herr." oharrak erantsiko zaizkio 'oso, asko' adiera duelarik.

Eztabaidaren haritik, *sano-sano* adizlaguna ere sartzea komeniko litzatekeela ikusi da. Euskara Batuko batzordeari proposamen hau helaraztea onartu da.

Honenbestez, Kintana jaunaren oharren azterketa amaitutzat eman da.

***Arautegiaren 28. artikulua*ren aldaketa**

Proposatzen den aldaketak bi zati ditu: batetik, karguen iraupena (bi, hiru ala lau urte) eta, bestetik, agintealdiak zenbat aldiz errepika daitezkeen.

Lehenbiziko bozketa artikulua aldatu behar den ala ez erabakitzeko izan da. Baiezkoaren alde, hamabost euskaltzain agertu dira; kontra, bi; eta hiruk zuri bozkatu dute.

Behin aldatzea erabakiz gero, bigarren bozketa agintealdiak hiru ala lau urtekoa izan behar duen erabakitzeko izan da. Lau urteko iraupenaren alde bozkatu dute hamahiru euskaltzainek eta bostek hiru urtekoaren alde.

Hirugarren bozketa agintealdia luzatzeari mugarik jarri behar zaion ala ez erabakitzeko izan da. Bi proposamen ziren: mugarik ez ezartzea bata, eta gehienez ere hamabi urte jarraian izatea. Bozkatu da eta hona emaitza: mugarik ez ezartzearen alde, bederatzia, eta hamabi urteko muga ezartzearen alde, sei.

Beraz, honela gelditu da artikulua hori:

“28. art. Zuzendaritzako karguak lau urtetarako izanen dira. Izendatuak berriro hautatuak izan daitezke.”

Bestalde, euskaltzainei *Barne-erregelen* testu berritua banatu zaie. Dena dela, onartutako *Arautegiaren* aldaketa hauen arabera zenbait artikuluko egokitu beharrean daudela adierazi du idazkariak.

Eskuartekoak

Etxarri Aranatzek ekainean egingo diren ekitaldien berri jasotzen duen egitaraua aurkeztu zaie euskaltzainei. Orobat, Valentzian sinatu berri den “Declaració de València sobre els drets de les llengües catalana, basca i gallega” delakoaren testua.

Batzarra arratsaldeko seietan eman da amaitutzat.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *

Ageriko batzarra

Etxarri Aranatzan, 1999ko ekainaren 24an

Etxarri Aranazko Kultura Etxean, 1999ko ekainaren 24an, arratsaldeko zazpi eta erdietan, hasi da Victoriano Huiziren *Manual de Gramática Bascongada*ren eta Aingeru Irigarai euskaltzainaren mendeurrenak ospatzeko Euskaltzaindiak deitutako ageriko batzarra.

J. Haritschelhar euskaltzainburuak, Fernando Flores, Etxarriko alkateak, P. Goenaga idazkariak, Andres Iñigo, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak, J. M. Sarrutegi euskaltzainak, Jose Angel Irigarai urgazleak eta Joxemiel Bidador jaunak osatu dute mahaia. Hauez gain, honako euskaltzain hauek bildu dira aretoan: H. Knörr, J. A. Arana, J. L. Davant, X. Diharce, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin eta A. Urrutia. Euskaltzain urgazleen artean, J. L. Lizundia eta M. Ruiz Urrestarazu. Hauez gainera, Sakanako eskualdeko zenbait alkate eta zinegotzi eta Etxarriko *Zirikatzen* elkarteko kide eta entzule andana bat. Nafarroako Diputazio/Gobernuko ordezkariak ez da azaldu.

Ekitaldiari aurreko batez eman zaio hasiera. Gero, Fernando Flores, herriko alkate jaunak hartu du hitza. Ospakizunaren nondik norakoak azaldu ditu. Historian zehar euskararen aldeko lanean nabarmendu diren pertsonak omentzea dela bileraren helburua. Bide batez, Euskaltzaindiak euskararen normalkuntzan egin duen eta egiten ari den lana goraiatu du alkateak.

Ondoren, J. Haritschlehar jaunak eskerrak bihurtu dizkio eta Euskaltzaindia bere batzordeen bidez garatzen ari den lanak aipatu ditu. Bestalde, bi omenduen garaia eta oraingoa alderatuz, gauzak zenbat aldatu diren gogorarazi du.

Andres Iñigo jaunaren hitzaldia etorri da gero: “1923an Etxarri-Aranatzan egin ziren Euskal Jaen oroimenean”. Euskal jai haien helburuak zein ziren azaldu du: euskarari eustea, euskara balioestea eta euskara sustatzea. Etxarri puntu estrategikotzat hartu zuten garai hartan euskara berpizteko.

Hitzaldi honen ondoren Etxarriko gaiteroen emanaldi labur bat entzun ahal izan dute bilduek. Eta etenaldi honen ondotik Joxemiel Bidador filologoaren hitzaldia izan da: “Bitoriano Huizi, Etxarriko semea”. Huiziren bizitzako hainbat xehetasun eman ditu: bere apaiz lana eta apezpikuarekiko erlazioak, jesuitetan sartzea, Kuba, eta abar.

Huiziren gramatikari buruzko zertzelada batzuk eman ditu gero P. Goenagak: “Huiziren *Gramática Bascongada*”. Gramatikaren ezaugarriak eta iturriak aipatu ditu bereziki.

Bigarren omenduari, Aingeru Irigarairi, bi hitzaldi eskaini zaizkio. Lehenbizi, haren seme den J. A. Irigarai euskaltzain urgazleak hitz egin du. Haren solasgaia, “Aingeru

Irigarai gizarte zibilean barna". Aitaren bizitzaren ikuspegi berri bat eman du ikasketa garaietatik hasi eta ondoren egindako urratsak aipatuz, beti ere bizirik segitzen zuen gizarte zibil horren barnean, gizarte zibil hori gauzatzen ahaleginduz.

J. M. Satrustegi "Aingeru Irigarai, euskararen sustatzailea" gaiaz mintzatu da azkenik. Irigarai aldaketa garaian sortu zen. Aldaketok euskarari ere bazegozkion: euskara hiritar bilakatzen hasten da eta giro honen barnean kokatzen da Irigarai, langile aspergaitza eta eginarazle setatsua, akuilaria, hizlariaren hitzetan.

Azkenik, herriko abesbatzaren kantaldi atsegin eta arin bat entzuteko aukera izan dute bildutakoek. *Agur Jaunak* abestuz eman zaio amaiera ekitaldiari, gaueko bederatzia eta erdiak aldera.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *

Etxarrin, 1999ko ekainaren 24an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
J. L. Davant,
X. Diharce,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
J. M. Satrustegi,
eta A. Urrutia, euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-
tzailea,
M. Gorrotxategi, Onomastika batzordeko
idazkaria (1.2. gaian)

Etxarri Aranazko udaletxean elkartu da Euskaltzaindia 1999ko ekainaren 24an bere hileroko batzarra egiteko. Bileraren arratsaldeko lauetan hasi da. Parte hartu duten euskaltzainen izenak ezkerreko zutabearen biltzen dira. Ezin etorria adierazi dute P. Altunak, M. Azkaratek eta P. Charrittonek.

Aurreko batzar-agiria onartzea

Inork ez du oharririk egin. Beraz, onartutzat eman da aurreko hileko agiria.

Euskaltzainburuaren hitzak

Euskaltzainburuak zorionak eman dizkio lehenbizi Juan San Martini bere 77 urte bete berriengatik. “Zazpiak bat” egiten omen dute oraingoan ere.

Andres Iñigori ere zorionak eman dizkio “urteko bidasotarra” izendapena jaso duelako.

Hizkuntza arauak

Pikante-postu zerrendako pitxi hitzak

Aurreko bileran agindutako informazioa ez da ekarri. Bileran ziren Euskara Batuko batzordekideek ere ez dute argitasunik eman ahal izan. Horrenbestez, hitz honetaz ez da ezer erabaki. Hurrengo bileran izan beharko.

Postura-santu hitz zerrenda

Aurreko batzarrean X. Kintanaren oharrak aztertuak gelditu zirenez, oraingoan H. Knörr jaunarenak hartu dira aztergai.

Pot sarreran, *pot* egin azpisarrerari ez ezik *pot eman*-i ere leku egitea eskatzen du Knörr jaunak. Onartu da proposamena.

Potxolo hitza erabilera adierazkorretarako gordetzea proposatzen du ohargileak. Onartu da: *Adkor*. marka erantsiko zaio.

Poxi sarrera aldatzea ez da onartu: *Ipar*. jartzeak ez du esan nahi Iparralde osoan gertatzen dela.

Ohargileak *poz*kida eta *poz* baliokidetzat dauzka. Baina gauzak ez dira horrela (cf. "Agur Jesusen Ama" kantua). Beraz, sarrera hori lehengoan utzi da.

Pozu sartzea ez da oraingoz onartu.

Prefektu sarrerari *Erromako prefektua* erantsiko zaio adibide moduan.

Premu sarrerari adibide bat eranstea proposatzen du Knörr jaunak. Ez da onartu: sarrera datorren bezala uztea erabaki da.

Preso altxatu azpisarrera gisa ematea onartu da.

Ohargileak *prest* sarreran adjektibo gisa erabil daitekeela erakusteko moduko adibideak gehitzea proposatzen du. Onartu da proposamena: *dantzara joateko borondate presta*; *prest dago zure borondatea egiteko* adibideak erantsiko zaizkio. Bestalde, *prest*-tik forma sartzea ere ongi ikusiko luke Knörr jaunak. Batzordearen ustez, *Ipar. Zah.* denez, ez dago argi merezi ote duen sartzea. Batzarrak, hala ere, sartzea onartu du, lehenaz gain *Zub.* marka ezarriz.

Prestalan hitza *plurale tantum* omen da, ohargilearen ustez. Ez da iritzi horretakoa Euskara Batuko batzordea. Aldaketarik gabe uztea onartu da, horrenbestez.

Preziagarri sartzea eskatzen du ohargileak, *prezagarri* forma hobetsiz, hala ere. Honako hau erabaki da: *preziagarri* sartu, baina * *e. prezagarri* oharrarekin.

Printza sartzea onartu da, Knörren oharraren arabera. Hala ere, batzordearen ustez 'izpia' *Eguzki printzak*, adiera eta adibidea emanaz, sartu beharko litzateke. Hau dela eta, eztabaida piztu da. Dirudienez, "eguzkiaren printzak" diogunean metafora gisa dabilgu hitz hori. *Printzak* egurra, edo beste zerbait, zartatzean saltatzen duten zatitxoak dira, adibidez. Beraz, lehenbizi jatorrizko adiera ematea onartu da eta, bigarren mailan, metaforazkoa. *Printzatu* (da/du) aditzari ere leku egitea onartu da: 'zartatu' adiera ezarriko zaio.

Proba sarreran bigarren adiera bat ('egia erakusteko bidea') ezarri nahi luke ohargileak, beti ere *froga* hitza hobetsiz. Batzordearen iritzia, hain zuzen, kontrakoa da, zen, dirudienez, gaur *froga* erabiltzen baita *proba*-ren orde. Hortaz, dagoen bezala utziko da. Gauza bera egingo da *probatu* aditzarekin ere.

Zerrendan *aprobetxatu* ematen da *probetxatu*-ren kaltetan. Honen kontrakoa da Knörr jauna. Hala ere, batzordeak, datuen arabera, lehengoari eustea proposatzen du: datuak *aprobetxatu*-ren alde dabilta, dirudienez.

Knörrek *profetizatu*-ren ondoan *profetatu* ere nahi du, Lardizabalek eta Iraizotzek erabiltzen dutela eta. Baina *profetatu* ez da forma nagusia, nonbait. Gainera, *profetizatu* nazioartekoa da, batzordearen arabera. Beraz, ez da onartu oharra.

Prolatibo hurrengo itzulirako utzi da.

Prometatu-rentzat leku bat nahi du ohargileak. Onartu da, baina *Ipar. Zah.* 'promestu, agindu' gisa emango da.

Proportzio hitzaren bigarren adieran adibide batzuk eskatzen ditu ohargileak. Gauzak dauden bezala uztea onartu da.

Protesi sartzea onartu da, nazioartekoa baita.

*Psalm*o forma sartzea ez da onartu. Gure tradizioan *salmo* forma da nagusi.

Pubertaro hitza beharrezko ote den galdetzen da oharretan. Nazioartekoa dela erantzuten du batzordeak.

Puda sartzea onartu da, *Ipar*. dela esanaz eta 'aiotz(-)mota' adiera ezarriz.

Pulamendu hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Puntu sarreran *puntuz puntu* esapidea sartzea proposatzen du H. Knörrek. Honen beharrik ez da ikusi. Horrelako esamoldeak (cf. *etxez etxe*) guztiz emankorrak dira.

Pusaka sartzea onartu da: **pusaka** *Ipar*. 'bultzaka'.

Putar hitza sartzeko proposamena ez da onartu.

Ranking hitza ez du Knörrek beharrezko ikusten. Hala ere, maileguen arauetan emana eta argitaratua dagoenez, sartu beharrekotzat ikusi da.

Zerrendan *errekor* hitzari ematen zaio bide *record* hitzaren kontra. Ohargileak ez du maite ez bata ez bestea. Hala ere, *errekor* hitza dagoeneko emana dago eta argitaratua. Beraz, zerrenda bere horretan uztea erabaki da.

Rol sarrera Knörr jaunak ez du beharrezko ikusten. Gaur nahikoa erabiltzen denez, dagoenetan uztea erabaki da.

Sabelki sarreran ageri den *okela* zuzenduko da.

Sabotaje hitzaz bere zalantzak ditu ohargileak. Nagusia, honako hau: euskarak hitz hori dagoeneko irentsia badu, zergatik ez eman *-aia* bukaerarekin? Erantzun zaio *-aje* dela araua eta *-aia* salbuespena. Beraz, arauzko forman ematen dela. Horrela onartu da.

Sabuka hitza hurrengo itzulirako uztea erabaki da. Orobat, *sain*. Hitz hau Larra mendik badakar ere, ez dago oso dokumentatua.

Sailean bere tokira eramango da.

Sala-rentzat bigarren adiera bat ('etxea') ematea eskatzen du Knörr jaunak. Ez da onartu. Dirudienez, aski da oraingoz 'aretoa' adierarekin.

Salbatore hitza maiuskulaz ezartzea onartu da.

Salo jasotzea eskatzen da oharretan. Hala ere, oraingo itzuli honetan behintzat zerrendatik kanpo uztea erabaki da.

Saltakor hitza sartzeko proposamena ez da onartu. Hau baino egokiago ikusten dira *saltokari*, *saltari*.

Salto hitza batzordeak dagoenetan uztea proposatzen badu ere, "=*jauzi*" oharraz horniturik agerraraztea onartu da.

Onoren, A. Urrutia jaunaren oharrak aztertzeari ekin dio batzarrak.

Postura hitzarena egina da jadanik.

Potka hitza dagokion lekura eramango da.

Potxingo hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Pozgabe sartzea eskatzen du Urrutiak, *pozgabetasun* hitza ere ageri dela eta. Ez-tabaida sortu da. Era guztietako argudioak entzun dira. Zenbaiten ustez adjektibo hori ez da beharrezko. Gainera, *pozgabetasun* hitzaren analisi zuzena ere ez litzateke, nahi eta ez, [pozgabe+tasun]. [Poz+gabetasun] gisako analisisa ere onartuko luke hitz horrek. Dena dela, bozkatu da eta honako emaitza hau gertatu da: *pozgabe* sartzearen alde, zazpi boto eta beste horrenbeste, ez sartzearen alde. Boto bat zuriz eman da. Emaitza hauek ikusita, gauzak dauden bezala uztea erabaki da: *pozgabe*-rik ez da sartuko, beraz, zerrendan.

Prebentzio hitza hurrengo itzulirako utzi da.

Premisa hitzari leku egitea onartu da.

Ohargileak *prenda* sarrera aldatzea eskatzen du. “h. **bahi**” oharra ezarriko zaio.

Prest-en sarreran, *prest izan* eta *prest egon* azpisarrerak erantsiko dira, *konforme* hitzaren hari beretik.

Prestuez hurrengo itzulirako utzi da, lekukotasunak urri baitira.

Probintzial hitza *Iz.* eta *Izond.* kategoria markekin ezarriko da.

Produzitu sarreran ageri den *ekoizti* zuzenduko da *ekoitzi* ezarriz.

Profitatu hitza ezabatu egingo da zerrendatik. Bide batez, *aprobetxatu* sarrera, argitaratu aurretik, zuzendu egingo da, *Heg.* ‘baliatu’ ezarriz.

Propietate sarrera dela eta, Urrutiak dio hitz hori erabilgarria gerta daitekeela zientzietan, adibidez, baina *jabetza*-ren ordain gisa ez litzatekeela ontzat eman behar. Hori argitzeko eskatzen du, zerrendan hitza bere soiltasunean ageri baita. Xehetasun hauek hurrengo itzulirako uztea erabaki da. *Propietate* hitza, hala ere, zerrendan gordeko da.

Pub hurrengo itzulirako utzi da. Orobat, *punk* ere.

Pubertaro eta *pubertasun* hitzen ondoan ohargileak *puber*-i ere leku egitea nahi luke. Baina hitz hau ez da ageri inon, antza. Beraz, izatekotan, hurrengo itzulian jasoko litzateke.

Puntual hurrengo itzulirako utzi da. Orduan aztertuko da zein testuingurutan erabil daitekeen eta abar.

Arrazionalismo eta *arrazionalista* ageri dira hitz hobetsi bezala oraingo zerrendan. Hala ere, A letran ez omen dira ageri. Batzordeak dio zerrenda osoa argitaratu aurretik eransteakoak direla hitz horiek. Kontu bera, *errifle*, *errito*, *errugby* eta *erruleta* hitzekin. Hauek ere E letran sartuko dira argitaratu aurretik.

Sagasti eta *sagu* sarreretan dauden akats tipografikoak eta hurrenkerazkoak zuzenduko dira, ohargileak eskatu bezala.

Saihets-en azpian *saihets(-)hezur* ageri dela eta, Urrutiak marraren erabilera irizpide bakararen agindupean sartzeari eskatzen du eta ez, *Hiztegi Batu* honetan ageri den bezala, *berna-hezur* baina *kaskezur*, adibidez. Irizpidea argia dela erantzun zaio: lehen osagaien aldaketaren bat dagoen neurrian (*burezur*), elkarturik idatzi behar da. Bestela, bi hitzetan, oso egina ez badago behintzat (*bizkarrezur*). Gauzak daudenetan utzi dira, hortaz.

Sailburuordetza hitza zerrendan sartuko da.

Saka egin-en ondoan *saka* hitz soilak ere bere sarrera behar lukeela dio Urrutiak. Baina, izen bezala erabiltzen ez denez, aditz esapidea bakarrik eman behar da zerrendan. Ez da onartu Urrutiaren eskaria.

Zerrendan *samaldak* ageri da. Horren ordeez, *samaldaka* behar du.

Samurbera hitza, adibiderik ezean, hurrengo itzulirako utzi da.

Eta honenbestez, eten egin da *postura-santu* zerrendari buruzko oharren azterketa. Eztabaidagai gisa markatuak datozenak hurrengo bileran aztertuko dira.

Onomastika

“Zuberoako herritarren izenak” txostena onartzea

Davant jaunak dioenez, aurreko bileran banatutako zerrendari buruzko oharrik ez da jaso. Irizpideak argi daude: 1) aldatzeko arrazoirik ezean, gauzak bere horretan utzi; 2) tokikoek darabilten deitura hobetsi; 3) tokikoen ebakera berantkorra bada, ez da baliokotzat emango. Dena dela, zalantza batzuk izan dituztela adierazi du: *lextarrar*, *züharrar* eta *zunharrar*-ekin. Forma hauek dira, azkenean, onartu direnak. Hiru deitura horiek forma horretan eramango ditu, hortaz, onartu den zerrendak.

Eskuartekoak

Literatura sariak

Aurtengo Literatura sarietarako (Txomin Agirre, T. Alzaga, F. Arrese Beitia eta Mikel Zarate sarietarako) deia egin du Euskaltzaindiak eta hauen berri eman zaie euskaltzainei.

Bide batez, joan den urtean sarituak gertatu ziren lanak ere argitaratu dira eta ale bana eman zaie euskaltzainei.

Literatur sari nazioaletarako epaimahaikideak izendatzea

Zuzendaritzaren proposamenez, honako jaun-andre hauek izendatzea erabaki du Euskaltzaindiak: “Premio Nacional de las Letras Españolas” delakorako, H. Knörr; poesiakorako, J. San Martin; narratibarako, M^a Jose Olaziregi; antzerkirako, Patri Urkizu; haur eta gazte literaturarako, Juan Kruz Igerabide; saiakerarako, Lourdes Otaegi eta itzulpengintzarako, J. R. Garcia.

P. Iraizotzen bigarren liburukia

Nafar gobernua Iraizotzen bigarren liburukia kaleratu du P. Ondarraren eskutik. Ale bana jaso dute euskaltzainek. A. Iñigok proposatzen du Perez de Viñaspre jaunari eskerrak ematea argitalpen honetarako emandako laguntzagatik.

Euskaltzaindiaren hurrengo biltzarra

Idazkariordeak azaldu du horretarako izendatu zen batzordeak dagoeneko finkatu dituela hurrengo biltzarreko gaiak. Honako hauek izango dira: a) Hizkuntzaren historia (ahaidetasun gorabeherak barne); b) Hiztegi gintza; c) Hizkuntza ereduak (estandarra eta aldaerak).

Proposamena onartu da. Horrenbestez, hauek izango dira hurrengo biltzarreko gaiak eta honen inguruan hasiko da lanean batzordea.

Datari dagokionez, oraindik finkatzeko dago. 2001. urtean izan liteke eta ez datorren urtean, hasieran uste izan zen bezala. Dena dela, hau hurrengoan erabakiko da.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *

Donostian, 1999ko uztailaren 23an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola eta
J. M. Satrustegi, euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-
tzailea,
A. Eguzkitza, Exonomastikako
batzordekidea 1.1.1. gaian eta
J. J. Zearreta ekonomi-eragilea 2. gaian.

Hizkuntza arauak

38. eta 53. Arauen zuzenketak onartzea

Andolin Eguzkitzari eman zaio lehendabizi hitza. Aurreko bileran aipatutako *afrikaans* hizkuntzaz zalantzak dituela esan du. Peillen jaunak erantzun dio esanaz mundu guztian izen horrekin ezagutzen dela hizkuntza hori.

Dena dela, gaurko lana lehen onartutako zerrendari egin zaizkion gehiketak aztertea dela gogora ekarri da. Horrenbestez, banan-banan irakurri da zerrenda hori.

Peillenek galde egin du ea *galizieraren* ondoan ez ote litzatekeen *galego* izena ere ezarri behar. Sarasolak dio *galego* hitzak baduela tradizioa. Biak ezartzea onartu da.

J. L. Lizundiaren iritziz, *groenlandieraren* ondoan *inuit* izenak ere agertu behar luke.

Valentzian ofizial den hizkuntzaren izenak ere eztabaida ekarri du. Katalana eta valentziera hizkuntza bera izanik ere, hizkuntza ofizial diren aldetik, bi izenak jaso beharko lirateke. Eguzkitzak gogorarazi du arazo bera dagoela serbokroazierarekin. J. San

1999ko uztailaren 23an, Donostiako ordezkaritza, bildu da Euskaltzaindia bere hileroko batzarra egiteko. Bilerako goizeko hamarrak eta laurdenetan hasi da. Bil-
duen izenak ezkerreko zutabea jasotzen dira. Ezin etorria adierazi dute X. Diharcek, H. Knörrek eta A. Urrutiak.

Aurreko batzar-agiriak onartzea

Onartutzat eman dira aurreko hileko bi agiriak inongo oharrik gabe.

Euskaltzainburuaren hitzak

Euskaltzainburuak hil berri diren bi euskaltzain ohorezkoren izenak aipatu ditu: J. A. Loidi, batetik, eta A. Martinet frantziar hizkuntzalaria bestetik. Euskaltzaindiak bere dolumina agertuko die senitatekoei. Hilberri txostenak ere aginduko ditu.

Martinen iritziz, zerrendak hitzaurre bat behar luke, azalduz une batean ofiziala dena ez ofizial bihur daitekeela, eta alderantziz. Ibon Sarasolaren arabera, Euskaltzaindia munduko hizkuntza ofizialen izen ofizialak finkatu nahian ari da. Hori gogoan izanik, ohar bidez azalduko dira hizkuntza berak bi izen ofizial desberdin izan ditzakeen kasuak, horrela, irizpide linguistikoa eta administratiboa ongi bereiziz. Katalanaren kasuan, esaterako, Kataluniako eta Valentziako erkideogetan ofiziala dela esango da. Eta honako ohar hau erantsiko zaio: “Valentzian *valentziera* du izen ofiziala”.

Botoetara jo da eta hamazazpi euskaltzain agertu dira alde eta batek zuriz bozkatu du. Horrela, ontzat eman da aurkeztutako zerrenda, ageri diren hutsak zuzenduz (*kreolera*, esaterako, minuskulaz emango da).

38. arauari dagokionez, hango zerrendari ere hizkuntzen izenak erantsiko zaizkio.

Hiztegi Batua

Pikante-postu hitz zerrendako pitxi hitza onartzea

Hitz honi buruzko argitasunak eskaini behar zituen batzordeak. Honen proposamena honako hau izan da: *pitxi* sarreraren 1. adiera dagoen bezala utzi. Eta honi bigarren bat erantsi: *pitxi* 2* e. **bitxi**. Eztabaida izan da ea zenbateraino den bidezko bi formak bereiztea eta abar. Azkenean bozkatu den proposamen berria honako hau izan da: *pitxi** e. **bitxi**, hitzarentzat forma bakarra emanaz inolako bereizketarik egin gabe. Bozkatu da eta honako hau izan da emaitza: hiru boto, kontra, bi zuri eta gainerako guztiak alde. Horrenbestez bereizketarik ez egiteko proposamena onartu da.

Postura-santu hitz zerrenda onartzea amaitu

Aurreko bileran hala markatuak zeuden hitzak geratu ziren eztabaida zain.

Prefet ala *prefeta* behar duen “galdetzeko” oharrarekin markatua dator zerrendan. Iparraldekoen arabera, *prefet* behar du. Hala onartu da.

Eztabaidarako markatuak datozen hurrengo hitzak *prestigio/prestijio* eta *pribilejio* dira. Euskara Batuko batzordekide gehienak *j*-ren aldeko omen dira. Hala ere, eztabaidagarri gertatzen da kontua. Hau dela eta, esan da agian iritsi dela ordua bere garaian emandako ahoskatze araua aldatzeko. Bestalde, Leioako txostenean *g/j*-ri buruz proposamenak egin ziren eta ezin du Euskaltzaindiak aldi oro honetaz eztabaidan jardun. Aldeko eta kontrako arrazoiak pisatu dira eta azken proposamena da *g-z* idaztea eta letra honen ahoskatze araua eztitzea, argiro azalduz zerk eraman duen Euskaltzaindia horretara. Honen arabera, aurreko zenbait hitz proposamen (*orijinal*, etab.) aldatu egin beharko lirateke. Hala ere, B. Oihartzabalen iritziz, tradizioa baldin bada, tradizio hori errespetatu egin behar da.

Sakrilegio hitzarekin ere arazo bera sortzen da. Arazoaren garrantzia ikusirik, hobeto aztertu beharra ikusi da. Oraingoan proposamena hitz horiek denak batera tratatzea izango litzateke. Honako hau erabaki da, azkenean: denak zerrendatik kendu eta gero ahoskera batzordeak azter dezala arazoa eta, hitz guztiak kontuan harturik, behar den bidea hartu.

Pues/puies auzia, bigarrenaren alde erabaki da, zabalduena berau baita. *Ipar*. markarekin hornitua emango da, nolanahi ere.

Puntista bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Ron sarrera dagoen bezala uztearen aldeko botoa eman dute hamaika euskaltzainek. Beste bost, berriz, *roma* hitza ere sartzearen aldeko agertu dira. Beraz, *ron* onartu da.

Sahaski, *sahasti*, *sahats* eztabaidaren aurrean, nahiz eta forma nagusia *sarats* den, *sahats* proposatzen da, 68an Euskaltzaindiak forma hau eman baitzuen. Bozkatu da eta hamaika euskaltzain agertu dira *sahats*-en alde. Bost, *-r*-dun formaren alde.

Sakaila, *sakailarazi* eta *sakailatu* bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Sakonune/sakongune auzian *sakonune* forma onetsi da.

Salbu sarreran arazoa, nonbait, da hitz horrek perpausean duen kokagunea jakitea. Hori argitzeko honako bi adibide hauek ematea onartu da: *fededun guztiak, salbu zaharrak eta eriak; horiekin denekin, hasi berri diren zenbaitekin salbu, kantatu dut askotan*.

Hiztegi Batuko santugile-soprano zerrenda onartzea

X. Kintanak aurkeztutako oharrei dagokienez, hona hemen eztabaidaren emaitza.

Sardinzar formaren grafia ez du begi onez ikusten ohargileak. Nahiago luke, izatekotan, *sardintzar*. Dagoenetan uztea erabaki da.

Sastre sarrerari h. *jostun* eranstea onartu da.

Satiriko sartzea onartu da.

Satsitu sarrera bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Sebo hitza erdarakada gordinegia iruditzen zaio Kintanari eta markaren bat eranstea ongi ikusiko luke. Hala ere, H letraren zerrendan ageri da *ziho* "seboa". Horrenbestez, sartu beharrekotzat jo da, nahiz eta *Heg*. 'bilgorra' gisa ematea onartu den.

Segitu-ren sarreran azalpen argiagoa eskatzen da oharretan. Adibidez hornitzea erabaki da: *lehengo bideari segitzen dionak; lanean segitu du 70 urte arte*.

Bestalde, *segituan* hitzari *Gip*. oharra kenduko zaio.

Seilu hitzari sinonimo onargarriagoren bat gehitzea eskatzen du ohargileak. Bozkatu ondoren, hamalau boto izan dira sarrera hori dagoenetan uztearen aldekoak.

Seinzain grafia baino egokiagotzat dauka Kintanak *seintzain*. Hau ere bozkatu da, honako emaitza honekin: zortzi boto *seinzain*-en alde eta hamar Kintanaren proposamenaren alde. Horrenbestez, zerrendan *seintzain* forma jasoko da.

Sekante hitza hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Senperrenak ikusi azpisarreraren ondoan *senperrenak esan* eta *senperrenak egin* eranstea proposatzen da oharretan. Oraingoz, dagoen bezala uztea erabaki da.

Sentidu sarreran ematen den *zentzumen* forma hobetsiarekin ez dator bat ohargilea. Eztabaida izan da eta hamar boto agertu dira batzordearen proposamenaren alde, bat kontra, eta zazpi zuri. Horrenbestez, sarrera hori dagoenetan uztea erabaki da.

Sikate hitzari adiera eranstea (=lehorte) eskatzen du Kintanak. Onartu da. *Siku* sarrerari ere adiera erantsiko zaio.

Silueta eta *soslai* ez dauzka ohargileak baliokidetzat. Onartu da oharra. Horrenbestez, bakoitzak bere sarrera izango du. Charritton jaunak, bestalde, etimologian oinarriturik, z-rekin idaztea nahiago luke. Ez da onartu.

Sindikatu, aditz gisa, hurrengo itzulirako uztea onartu da.

Sinistu sarreran h. **sinetsi** oharra ezartzea onartu da.

Soberan egon azpisarrera gehitzea eskatzen du Kintanak. Ez da onartu. Are gehiago: *sobera egon* eta *sobera izan*, biak ere sobera daudela erabaki da eta, horrenbestez, zerrendatik ezabatu egin dira.

Soberanotasun hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Sobra sarreran h. **sobera** eranstea eskatzen da. Ez da onartu. Horrezaz gainera, *sobran* azpisarrera ezabatzea onartu da.

Sonda sarreran dagoen hutsa zuzenduko da: sonda* e. **zunda**.

Solte sarreran zenbait adibide eskatzen ditu ohargileak, “suelto” eta antzekoei bidea ixteko. Hurrengorako ekarriko dira adibide horiek.

Somatu/sumatu bikotearen auzian *sumatu*-ri ematen zaio lehentasuna zerrendan. Kintanak alderantziz jokatzeari nahiago luke, *susmatu* hitzetik urruntzeko. Hala ere, datuen arabera *sumatu* da nagusi, antza, eta, horrenbestez, hau hobetsi behar da.

Azkenik, batzordeak berak gehiketa bat proposatu du: **sendi izan Ipar**. Ez *nuen holako dohainik sendi ene baitan*.

H. Knörr jaunaren oharren azterketak honako emaitza izan du.

Sapabelar falta omen da, ohargilearen arabera. Nonbait, Azkuek bakarrik dakar hitz hori. Horren ordaina izango litzateke zerrendan sartua datorren *sapelar*. Horrenbestez, ez da oharra aintzakotzat hartu.

Sapai sartzea onartu da. Honela: sapai* e. **sabai**.

Sarats sartzea onartu da, h. **sahats** oharra alboan duela.

Sardana sartzea ere onartu da, gure testuetan tradizio handirik ez badu ere.

Sarjentu-ren orde *sargentu* ezartzea ez da onartu.

Sasiletradu hitzari leku egitea onartu da, *Heg*. markarekin hala ere, *letradu* hitza ezarri zen bezala.

Zerrendan *segur* eta *seguru*, biak jasotzen dira. Ohargileak, batasunaren izenean, bata edo bestea hautatzea eskatzen du. Erabilerak ikusi behar, nolanahi ere, testuinguru eta guzti. Hurrengo bileran erabakitzeko utzi da.

Segurantza eta *aseguru*, zerrendan biak ematen direla eta, *aseguru* sartu izanaz datuak ageri da ohargilea. *Segurantza* aski izango litzateke haren aburuz, eta ustezko oker hori zuzentzeko beranduegi ote den galde egiten du. Baietz erantzun zaio, berandu dela. Hortaz, gauzak daudenetan utzi dira.

Sehi hitzean argitasun piska bat gehiago eskatzen du ohargileak. ‘etxeko zerbitzari’ adiera ezarriko zaio.

Seminario guztiak ‘mintegi’ ez direnez gero, ‘apaizgaitegia’ adiera ezarriko zaio sarrera horri, oharra ontzat emanaz.

Sendi-ren sarreran “h. familia” gehitzea eskatzen du Knörr jaunak. Ezer ez aldatzea erabaki da.

Sendor izenondo gisa jasotzeko eskariari dagoeneko jaso dagoela erantzun zaio, *sendo* hobesten bada ere.

Sendu, izatekotan, hurrengo itzulirako utziko da, lekukotasunak urri baitira.

Serio eta *serios*, biak ageri dira zerrendan. Ohargileak batasunerako bat hautatzea nahiago luke. Ez da onartu eta zerrendan datozen bezala utzi dira.

Serorago sartzeari ere ez da onartu. Hurrengo itzulirako. *Seror-lagun* ere hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Serorategi sarrerari erantsitako *Ipar*. marka ez da bidezko, ohargilearen aburuz, gipuzkeraz eta nafarreraz ere ageri baita. Horrenbestez, marka hori kentzea onartu da. Honako bi adiera hauek emango dira: 1. ‘moja komentua’; 2. ‘serora bizi zen etxea’.

Sesio hitza gipuzkerazkoa omen da. Datuak begiratu dira.

Sezesio sarreran, gutxienez “= banakuntza” oharra eskatzen du ohargileak. Oso erabilera mugatua duenez gero, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Slogan eta *smoking* sarreretan *eslogan* eta *esmokin* hitzetara bidaltzen du zerrendak, nahiz eta hitz horiek ez diren ageri. Guztia argitaratu aurretik osatu beharko da zerrenda.

Soberakin hitzaren erabilera zein den argitzeko, iz. kategoriakoa dela adieraztea onartu da.

Soinketa ezin da ‘gimnastika’ hitzaren parekotzat eman. Dena dela, zerrendatik kentzea onartu da.

Soldado gehitzea eskatzen da, “h. soldadu” ezarritz. Baina bi hitzak elkarren ondoan gertatuko lirakeenez, ez da sartu.

Soldaduska eta *soldadutza* parekotzat ematea ez da egoki, Knörren ustez. *Soldadutza* hitzari lehenasuna ematea onartu da (15 botorekin). Dena dela, *soldadugo* sarre-rari *Ipar*. marka ezabatu egingo da, benetako forma *soldadogo* baita. *Soldaduska*, berriz, *Heg*. markarekin ematea onartu da.

Solfeo barik *solfa* nahiago du Knörrek. Baina, *solfeo* denez, nonbait, formarik erabili, gauzak lehenean uztea erabaki da.

Hirugarren ohargilea A. Urrutia izan da.

Aurreko zerrendan ageri zen *sarale* hitza zergatik kendu den galdetzen du ohargileak. Gutxi erabilia omen da eta bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Sarri-ren azpian *sarri askotan* sartzeari eskatzen da. Batzordeak ongi deritza eta hala onartu da. Bestalde, *sarri* hitzaren 1. adieran hirugarren adibide bat gehitzea proposatu du batzordeak: (*Ipar*.) *Ahal bezain sarri* (= *ahal bezain laster*).

Sarriro bigarren itzulirako utzi da.

Ohargileak *saski-naski* hiz elkartua ere sartzea proposatzen du. Batzordearen ustez, ez du tokirik hiztegi honetan, berez ez baita izena.

Saskil izenondoaren parean *saskildu* hitzari leku egiteko eskaria ez da onartu. Ez dago lekukotasun handiegirik. Beraz, bigarren itzulirako.

Sast onomatopeia sartzea ez da onartu.

Sats *egin* ere hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Seguratu-ren baliokide hobetsi gisa *aseguratu* ere sartzea poposatzen du Urrutiak. Baina *seguratu*-ren adibide guztiak, antza, *segurtatu*-ren baliokide dira, ez 'aseguratu' adierakoak. Horrenbestez, ez da onartu proposamena.

Sehaskatxo ez da sartu. Izan ere, txikigarriak ez dira sartzen hiztegi honetan.

Seintzaro sartzea proposatzen da oharretan. *Seinzaro* ala *seintzaro* forma hobetsi eztabaidatu ondoren, *seintzaro* gisa sartzea onartu da.

Ohargileak *sekzio* hitzaren beharrik ez du ikusten. Hor dago *atal*, esaterako. Hala ere, EEBS-n maiztasun zerbaitekin ageri da. Datuak hurrengo bilerarako ekarriko ditu batzordeak.

Semaforo hitza sartzeko eskaria dela eta, bideetako argi-seinaleak behintzat ez dira erantzun zaio batzordetik. Ez da onartu sartzea. Ikusiko da ea bigarren itzulirako den.

Seme-ren azpian *seme premu*, *seme nagusi*, *seme-alabatasun* eta *seme-alabak* sartzea eskatzen du Urrutiak. *Seme-alabak* azpisarrerari leku egitea onartu da. Baina gai-nerakoak bigarren itzulirako utzi dira.

Senar-en azpisarrera gisa *senar-emazteak* sartzea ere onartu da.

Sendakizun eta *senge* hitzak bigarren itzulirako utzi dira.

Separata sartzea ez da onartu. Antza, espainolez bakarrik erabiltzen da. *Sepultura* ere ez da sartuko, ohargilearen eskariaren kontra.

Serbokroaziera ageri den bezala, *kroaziera* ere agertuko behar omen luke. Batzordeak erantzun du esanaz, osatzekotan, gero osatuko dela.

Serora hitzaren azpisarrera gisa ageri den *andre-serora* *andre* hitzaren azpian hobeiki ikusten du ohargileak. Hala ere, *serora* hitzetik hurbilago dagoenez, honen azpian sartzea erabaki zen eta hala uztea onartu da.

Sestra eta *sideral* hitzak bigarren itzulirako utzi dira.

Sinbiosi sartzea onartu da.

Sindikak izenondoaren beharrik ez du ikusten ohargileak. Batzordearen ustez, hala ere, utz liteke zerrendan. Botoetara jo da eta zerrendatik ezabatzearen aldeko agertu dira hamalau euskaltzain. Hala onartu da.

Sinekdoke sartzearen alde ageri da Urrutia. Batzordeak Literatura batzordekoen iritzia aintzat hartuko luke. Eztabaida txiki baten ondoren, kentzea erabaki da.

Soin sarreran *soinez soin* azpisarrera gisa sartzea ez da oraingoz onartu. Izatekotan, bigarren itzulian.

Soldatako bigarren itzulirako utzi da.

Solemne-ren alboan ageri den *hotsandiko* hitza kentzea proposatzen du ohargileak. *Solemne* bera ezabatzea onartu da azkenean.

Ondoren, eztabaidarako utziak zeuden hitzak hartu dira ahotan.

Seda/zeta auziaz, datuen arabera, forma ugariena korpusean *seda* da. Hala ere, azkenaldi honetan *zeta* ageri da nagusi. Iparraldean ere hala omen dira kontuak. Bozkatu da eta hamar euskaltzain agertu dira *zeta* formaren alde. Beraz, sarrera hori honela geratu da: *seda** e. *zeta*.

Sofritu/sufritu aukeraren aurrean, datuek *sofritu*-ren nagusitasuna erakusten omen dute. Eztabaidaren ondoren, bozkatu da eta hona emaitza: *sofritu*-ren alde, lau; *sufritu*-ren alde hamaika. Beraz, honela geratu da sarrera hori: *sofritu** e. *sufritu*.

Horrenbestez, zintzilik utzi diren "litsak" gorabehera, onartutzat eman da *santugile-soprano* hitz zerrenda.

Aramaioko bilkuraz

Hitz zerrendaren azterketa amaitu ondoren, euskaltzainburuak gogorarazi du hurrengo bileran bi zerrenda beharko direla onartu. Hain zuzen, bilera hori Aramaion izango da, ostiralean, goiz eta arratsalde. Larunbatean, berriz, goizean eta, behar bada, arratsaldean ere IV. Jagon jardunaldiak izango dira.

Aurrekontuen aurkezpena

2000. urteko aurrekontuen aurkezpena egin du J. J. Zearreta jaunak, sartu diren aldaketen berri emanaz. Atal berria eskaini zaio, adibidez, Jagon sailaren barnean, *Jagonet* egitasmoari. Hain zuzen, Miren Azkarate Jagon sailburuak egin du programa honen aurkezpena: zer den, nola egingo lukeen lan, zer onura izango dituen eta abar. Aurrekontu hau irailaren 15erako aurkeztu behar dela esan du Zearretak, baina urriaren lehen egunetan aurkezteko aukera izatea eskatuko zaio Eusko Jaurlaritzari. Horrela, euskaltzainek oharrak egin ahal izango dituzte irailaren 5a arte. Onarpen bozketa irailaren 24ko bilkuran egingo da. Aldaketaren bat gertatzen bada, aldaketa horiekin helaraziko zaio Jaurlaritzari.

Eskuartekoak

Tx. Peillen, Onomastika batzordekide

Peillen jauna Onomastika batzordekide izendatzeko proposamena aurkeztu eta onartu da.

XIV. biltzarra

Euskaltzaindiak egin nahi duen biltzarra zein urte sasoiaren egingo zen finkatzeko gelditu zen aurreko batzarrean. Zuzendaritzak proposatu du apirilaren egitea, aste santuan. Hala onartu da. Hortaz, 2001. urteko aste santu inguruan izango da.

Azken ordukoak

J. M. Satrustegiren txostena: "Santutegiko done forma Hegoaldeko tradizioan"

Satrustegi jaunari eman dio hitza, ondoren, euskaltzainburuak, azken bileretan hainbeste hizpide eman duen Santutegiko *done/deun* eta ingurukoen auziaz bere txostena irakurtzeko. Txosten hau, euskaltzainburuaren hitzetan, gai honetaz hartu behar den erabakia hartzeko orduan begien aurrean izango du Euskaltzaindiak gainerako langaiekin batera.

Eta arratsaldeko zazpi eta erdiak inguruan amaitutzat eman da bilkura.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *

Aramaion, 1999ko irailaren 24an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
P. Goenaga, idazkaria,
H. Knörr, euskaltzainburordea,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
A. Iñigo,
X. Kintana,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi
eta A. Urrutia euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-
tzailea,
A. J. J. Zearreta, ekonomi-eragilea
B. (2. gailan)
C. eta R. Badiola, argitalpen eragilea
(azken orduko gaietan)

1999ko irailaren 24an, Aramaioko uda-
letxean bildu da Euskaltzaindia bere hi-
leroko batzarra egiteko. Bilera goizeko
hamarrak eta erdietan hasi da. Bilduen
izenak ezkerreko zutabea jasotzen dira.
Ezin etorria adierazi dute E. Larrek eta J.
San Martinek.

Aurreko batzar-agiria onartzea

Onartutzat eman da uztaileko bilera-agi-
ria inongo oharrik gabe.

Hil berriak

Euskaltzainburuak Bernardo Estornes
Lasa ohorezko euskaltzainaren heriotza-
ren berri eman die bilduei. Euskaltzain-
diaren izenean doluminak helarazi zaiz-
kio familiari. Hileta elizkizunetan ere
Euskaltzaindiaren ordezkaritza bat izan
zen.

Hilberri txostenei dagokienez, B. Oihar-
tzabalek egingo du A. Martinetena eta
J.M. Satrustegik, berriz, Estornes Lasa-
rena. Ahal bada, azaroko bilkuran iraku-
rriko dira.

Hizkuntza arauak

Aurreko zerrendetan zintzilik utzitako zenbait hitz

Postura-santu zerrendan *profitatu* hitzak zein erregimen eskatzen duen finkatzeke
geratu zen. Testuetan gehienetan *du* gisa ageri da. Horrela ematea onartu da. *Ipar.* mar-
kaz gainera *Herr.* ere ezarriko zaio. Orobat egingo da *aprobetxatu* hitzarekin ere da-
gokion tokian. Kasu honetan *Heg. herr.* oharrez gainera *da/du* erregimena duela esango
da.

Santugile-soprano zerrendan ere erabaki gabe utzi ziren hitz batzuk. Horieta bat
segur/seguru auzia izan zen. Hala ere, datuak eskuetan, badirudi egoera oraindik ere ez
dagoela behar bezain umotua. *Segur*-ek ez du biderik egin Hegoaldean. Euskaltzaindiak
ez du bere burua auzi hori erabakitzeko gai ikusten eta, horrenbestez, biak atxikitzea

onartu da. Koherentziaren izenean, hala ere, *segur asko* eta *seguru aski* zerrendatik kentzea onartu da.

Eztabaida honen haritik beste bat sortu da: izenondo gisa nola behar du, *segura* ala *segurra*? Gaur bigarrena izango litzateke nagusi. Baina eztabaidaren ondoren *segura* forma onartu da. Hori adierazteko, '*gauza segura*' adibidea eskainiko da.

Sesio hitza Gipuzkoakotzat eman behar ote den ere argitzeko geratu zen. Datuen arabera, hala dela dirudi. Baina Nafarroan ere ezaguna da, A. Iñigo jaunaren arabera. Horrenbestez, *Gip.* eta *Naf.* markak ezarriko zaizkio. Adiera argitze aldera, berriz, 'lis-karra' esan nahi duela aditzera emango da.

Solte sarrerari *aldizkariaren ale solteak* adibidea erantsiko zaio.

Bestalde, *soilik* aditzondoari dagozkion datuak eskatu ditu batzordeak, perpausean dagoen kokagunea argitzeko. Gauzek aski nahaspilatua dirudite. *Bakarrik*-ekin ere arazoa dago. Gramatika batzordeari eskatuko zaio arazo hau argi dezala. Satrustegi jaunak, hala ere, argitasunen bat ematea on litzatekeela dio.

Hiztegi Batuko Sor-suspertzaile hitz-zerrenda

Xabier Kintanaren oharren azterketari ekin dio lehenbizi batzarrak. Euskara Batuko batzordeak oharrok aztertzetik ez omen du izan. Horregatik, batzarrak zuzenean aztertu beharko ditu.

Sorgin(-)orraz azpisarrera dela eta, 2. adiera gisa ematen dena, *carduus crispus*, ez omen da zuzena. Landarearen izena *sorgin(-)orrazi* da, ohargilearen iritziz. Eztabaida labur baten ondoren, gaia mahai gainean utzi da: batzordeak begiratuko ditu hurrengorako datuak. Gainera, *sorgin* sarrerako azpisarreretako adibideak hobeto begiratuko dira hurrengorako.

Sostor hitzaren esangura jartzeko eskatzen du Kintanak. *Zoztor* hitza ere bada. Horrenbestez, badirudi *sostor*, *zoztor* txikia edo izango litzatekeela, *ezpala*, alegia. Txostena eskatzea erabaki da.

Zerrendan, *suerte* hitzaren bigarren adieran *Heg.* eta *herr.* oharrak ageri dira. Ohargileak nahiago luke "*h. zori, zorte*" ezartzea. Ez da onartu. Baina *Heg.* marka ezabatzea erabaki da.

Suge-jan azpisarrerari leku egitea eskatzen du ohargileak. Hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Sujet sarrean adibideak gaizki datoz. Berririo ikusiko ditu batzordeak.

Susa sarreari, aldizkariaren izena gogoan izanik, *e. susara* gehitzeko proposamena dakar Kintanak. Honen beharrik ez da ikusi.

Zerrendatik kanpoko beste ohar bat ere egin du Kintanak. Etxarriko bileran "rito* e. *errito*" izan zen hizpide. Baina ohargileak dio 1977an onartutako irizpideen arabera, *erritu* behar lukeela. Onartu da oharra eta dagoen lekuan egingo da zuzenketa.

Ondoren, H. Knörren oharrak aztertu dira.

Sorkuntza hitza sartzea onartu da.

Bestalde, lekuz kanpo izan arren, *sor-marka* hitza sartzea eskatzen du Knörrek, *la-bel* eta enparauei lekua kentzeko egokia delakoan. Onartu da. Adibide gisa, honako hau ezarriko da: *gazta honek badu sor-marka*.

Sorotsi-ren adiera gisa 'lagundu' ez ezik 'zaindu' ere ezartzea ez da onartu.

Soseko sartzea ez da onartu. Dena dela, adibide bat emango da: *hamar sosekoa*.

Knörr jaunak *sotil* sarreran esanahia adieraztea eskatzen du, Leizarragak berak hitz hori adiera batean baino gehiagotan darabilela eta. Adibideak begiratuko dira hurrengorako.

Espageti, *estandar* eta *estres* forma onartuak zerrendan jasoak omen dira baina *es-print* falta omen da. Bakoitza bere lekuan ezarriko da.

Substantibo hitzaren kategoria finkatzeko (izen eta izenondo?) eskatzen du ohargileak. Gauzak daudenetan uztea erabaki da.

Zerrendan *soberano* forma proposaten da *subirano*-ren kaltetan. Ohargileak, hala ere, dio gaur gehien kurritzen duen forma *subirano* dela. Eztabaidaren ondoren botoera jo da. Hona emaitza: *soberano* formaren alde, zazpi; *subirano*-ren alde, sei; lau boto zuri. Gauzak horrela, ez da zuhurtzat jo forma bat hautatzea. Gainera, gauzak hobeki pentsatuz gero, gaurko usadioari ere bere balioa eman behar litzaiokeela adierazi da. Euskaltzainen batek, berriro botatu beharko balitz, botoa aldatzeko arazorik ez lukeela ere adierazi du. Datu gehiago ekarriko dira hurrengorako eta orduan berriro bozkatuko da.

Sudur-zapi hitza eranstea onartu da.

Andres Urrutia jaunaren oharrak izan dira azkenik aztergai.

Sor sarreran, ohargilearen iritziz, hobe litzateke esangurarik ez zehaztea. Ez da onartu ezer aldatzea.

Sorkura hitzari leku egitea eskatzen du Urrutiak. Dirudienez, Oihenartez aparteko lekukorik ez da. Horrenbestez, ez da onartu oharra.

Sorraldi hitza hurrengo itzulirako uztea erabaki da. Gauza bera erabaki da *sortasun* sartzeko eskariari buruz.

Soslai-ren baliokidetzat *silueta* ematea ez du ohargileak oso argigarri ikusten. Ez da, hala ere, kontuan hartu oharra, *silueta*-ren kontua lehenago ere tratatua delako.

Zerrendan *sostenidu* hitza baztertu eta ordaintzat *diese* ematen bada ere, *diese* hau ez dago bere lekuan sartua. Sartzea onartu da.

Sozietate hitzari ere lekua egitea ongi ikusiko luke ohargileak (*sozietate anonimo* eta antzekoek kurritzen dute, nonbait). Hobeto aztertuko dira datuak eta hurrengorako dagokion txostena ekarriko da.

Speed, *spray*, *sprint*, *stand*, *stock* eta antzekoak sartzeari buruz, honako hau izan da onartu dena: *esprint*, *estres*, *estandar* eta *espageti*, forma horretan onartu dira. Gainerako hitzak, berriz, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Subrogatu eta *subrogazio* hitzak bigarren itzulirako utzi dira.

Suburu, *tximini*-ren ordain gisa, ez da onartu.

Sudurkari sartzea onartu da. *Sudurpeko*, berriz, bigarren itzulirako uztekoztat jo da.

Horma(-)sugandila *sugandila*-ren sarreran ageri da, baina, Urrutiaren oharra kontuan harturik, *horma* sarreran ere sartuko da.

Suminbera hitza sartu baino lehen datuak begiratzekotan geratu da batzordea.

Superabit hitza lehen zerrendan agertzen bazen ere, orain ez da ageri. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Suposatu mailegua ez zaio ohargileari premiazkoa iruditzen, ordain egokiak bai baitira. Dena dela, datuak hobeto begiratu dira hurrengo bilerarako.

Supositorio bigarren itzulirako utzi da.

Ondoren, zerrendan aparte utzitako hitzak hartu dira aztergai.

Sunda hitzaren adiera argitu beharrekotzat jo zuen batzordeak bere garaian. Izan den elkarrizketaren ondoren, argi geratu da zerrendan ematen den azalpena egokia dela. Beraz, dagoen bezala utzi da.

Suspertu ala *zuzpertu* behar den argitzen saiatu dira ondoren euskaltzainak. Tes-tuetako datuak aski orekatuak omen dabilta. *Xuxpertu* ere ageri da. Bozkatu da eta hamabost euskaltzainek eman dute *suspertu* formaren aldeko botoa. Forma hori onartu da, horrenbestez. Erregimenari dagokionez, berriz, *da* formako aditza dela esango da.

Ondoren, Ondarra jaunak *subjuntibo* ala *subjunktibo* behar duen aipatu du. Ematen den arrazoia (hiru kontsonante batera ezin joan daitezkeelakoa, alegia) ez zaio iruditzen ez gogobetekoa ez zuzena: *eransten*, *belztu* eta antzekoak hor dira. Horrenbestez, arrazoi gisa eskaintzen den araua hobeki formulatu beharra ikusi da. Satrustegi jaunak ere esan du behin oinarriak jarritz gero, errespetatu behar direla, eta bere garaian Euskaltzaindiak onartu zuena errespeta dadila. Delako arau horrek ez luke hiru kontsonante, edozein direla, elkartzea debekatuko, *kontsonante +K+T* multzoa baizik. Multzo hau soildua gertatuko da euskaraz, *K* galdu ondoren. Beraz, *subjuntibo*, baina *subjektu*. Horrela onartu da.

Hiztegi Batuko suspirio-suziri zerrenda onartzea

Aurkeztu diren ohar bakarrak Andres Urrutiarenak izan dira.

Zerrendan *susto* hitzaren ordeaz *ikara* eta *izialdura* hitzak hobetsi direla eta, Urrutia jaunak nahiago luke, *izialdura*-ren ordeaz, Iparraldeko forma baita, besteren bat, erabilera orokorrekoa, ematea. Hala onartu da: **susto** *Heg.* Herr. h. **ikara**, **beldur** gisa emango da.

Sutargi hitzari ere leku egitea nahi luke ohargileak, hainbat hiztegitan ageri baita. Txostena prestatuko duela hitz eman du batzordeak. Gauza bera onartu da sail bereko diren *sutontzi* eta *sutantz* hitzei buruz.

Zerrenda honetan eztabaidarako utziak ziren hitzak aztertu dira ondoren:

Suspirio/zizpuru auziaz, *zizpuru* gehienbat Bizkai aldean erabiltzen omen da. Biei leku egitea onartu da. Hauei dagozkien aditzak, berriz, hurrengorako utzi dira.

Sustar/zuztar auziaz, badirudi gaurko datuak z-dunaren aldekoak direla. Gauzak aski nahasiak ageri dira, nolanahi ere. Botoetara jo da: zazpi euskaltzain *zuztar*-en alde; bost *sustar*-en alde; beste bostek zuri bozkatu dute. *Zuztar* onartu da, beraz.

2000. urteko aurrekontuak onartzea

Aurrekontu hauen testua aspaldidanik izan dute euskaltzainek. J. J. Zearreta jaunak adierazi du oharrik ez dela jaso, baina agintarien eskuetan ere ez direla jarri nahi izan bilera hau izan arte.

Aurrekontu hauen zenbait xehetasun eman dira eta, besteak beste, informatizatze planari dagozkionak aipatu dira. Plan horren zatirik handiena aurten gauzatuko bada ere, bada zati bat 2000. urterako utzia. Ildo honi jarraituz, P. Goenagak arlo honetan egin diren azken urratsen berri eman du: jadanik abian da programa eta kableatuaz eta gainerako ezarketaz (hardware eta software) eta komunikazioez arduratuko diren enpresak ere hautatu direla ODEI-ren aholkuaz: batetik ELTEC eta bestetik EUSKALTEL.

Charrittonek dio entzuna duela EUSKALTEL aski problematikoa datekeela Nafarroari eta Iparraldeari dagokionez, eta horretaz argitasunen bat eskatu du. J. J. Zearretak erantzun dio kontu hori ere izan dela hizketa gai, eta ez dela inongo arazorik.

Elkarrizketa luzearen barruan epeez ere galde egin da. Kableatuari dagokionez, urriaren 20rako edo amaitua egotea espero da. Gainerakoek, lehen fasekoek behintzat, abenduaren hasierarako ezarrita egon behar dute. Hain zuzen, egun horietan Hizkuntza Politikak antolatu duen Kongresu baterako zerbait egina eduki nahi da. Euskaltzaindiak hitz eman zuen eta hitza betetzen saiatuko da.

Eskuartekoak

Organització pel Multilingüisme delakoaren eskaria

J. L. Lizundiak aurkeztu du gaia. *Organització pel Multilingüisme* delako elkarteak Euskaltzaindiaren sinadura nahi luke egin nahi duten kanpainarako, hots, posta-zigiluetan estatu desberdinetako hizkuntza handiak ez ezik beste hizkuntza txikiagoak ere jasotzea. Xabier Kintanaren iritziz, bakoitzak bere kasa egin dezakeenaz gainera, on litzateke Akademia gisa ere zerbait egitea. Merkatu-munduan dagoen monolingüismoa hausten hasteko bide bat izan liteke. A. Urrutiak zuhurtzia eskatuko luke. Proposatzaileekin harremanetan jarri beharko litzateke, IEC-ko jendearekin, adibidez, hitz egin, eta gero hartu egoki ikusten den erabakia, Jagon sailetik pasatu ondoren. Izan ere, esku-bidea dugu kanpaina honen atzean zer mugitzen den jakiteko. Hala onartu da.

Ingurumen hitzari eman beharreko "bultzada"

H. Knörr jaunak gogorarazi du aspaldi onartu zuela Euskaltzaindiak *ingurumen* hitza eta *Hiztegi Batuan* jasoa dagoela. Hain zuzen, Euskaltzaindiak hitz hau ikusten du beste edozein baino egokiago ekologia gaietarako. Hori dela eta, komeniko omen litzateke administrazioan eta ardura dutenei erabaki hau gogoratzea, *erkidego* hitzarekin egin zen bezalatsu. Onartu da proposamena. Gutun bana egingo zaie, horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako P. Ormazabal sailburuari, Nafarroako arduradunari, Diputazioetakoei

eta, agian, Iparraldekoiei ere bai, gogoratuz *ingurumen* hitza izango litzatekeela “medio ambiente” delakoari erreferentzia egiteko hitz aproposena euskaraz.

Azken ordukoak

Ondarra jaunak Polikarpo Iraizotzen *Hitz lauuko lanak I* delako liburukian isuri diren hutsen zuzenketa-zerrenda banatu die euskaltzainei.

Ondoren, Argitalpen eragilea den R. Badiolak bere ardura pekoen berri eman du.

Angeles. Libanoren *Toponimia Medieval en País Vasco* obraren azken liburuki argitaratua banatu du (H-O bitartekoa). Hurrengo eta Pedro Yrizarrena ere laster izango omen dute euskaltzainek eskuetan.

Arauak saileko hurrengo sorta ere laster izango da. Orobat, Euskaltzaindiak onarututako *Zuberoako herri izendegiarekin* ere ale berezi bat osatu da eta laster izango da kalendar.

Bestalde, *Antologia, EGLU - V* eta *OEH*-ren XII. liburukia ere laster izango direla aurreratu du.

Krutwig zenaren omenaldia dela eta Greziara egindako ibilaldia

Greziar helenisten kongresu baten barruan Krutwig zenari omenaldi bat egin zaio joan den hilean. Hori dela eta, irailaren 3tik 8ra bitartean egindako bidaiaren kronika laburbildu die Kintanak euskaltzainei. Kronika horretan, ibilaldiaren berri xehea ematen da, bizitako esperientziak —lurrikara sortzerainokoak, nonbait— ekitaldiak, eta abar. Bera eta Juanjo Zearreta izan dira Euskaltzaindiaren ordezkari. Beste euskaltzale batzuek ere parte hartu dute omenaldian.

Eta arratsaldeko sei eta erdietan amaitu da bilera.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA

EUROPAR BATASUNA

Euskaltzaindiak, Bilbon, 1999ko maiatzaren 28an, egindako osoko Batzar Agiritik jaso:

“Europar Batasuna.

Gainerako erakunde politikoen izenentzat Euskaltzaindiak proposamenak egin dituen bezala, European sortzen ari den batasuna izendatzeko orduan dagoen anabasari aurre egin beharra ikusi du Onomastika batzordeak. Aurkezten diren aukerak bi dira: *Europako Batasuna* eta *Europar Batasuna*. Euskara Batuko batzordearen iritzia erdibitua ageri omen da: lau kide *europar*-en alde, hiru *Europako*-ren alde. Zenbait euskaltzainek beren iritzia eman dute eta, azkenean, botoetara jo da. Hona hemen emaitza: hamar euskaltzain *Europar Batasuna*-ren alde eta zazpi, *Europako Batasuna*-ren alde. Boto zuri bat ere izan da. Horrenbestez, *Europar Batasuna* deitura onartu da.”

INGURUMEN HITZAZ

Euskaltzaindiak, Aramaion, 1999ko irailaren 24an, egindako osoko Batzar Agiritik jaso:

“*Ingurumen* hitzari eman beharreko «bultzada».

H. Knörr jaunak gogorarazi du aspaldi onartu zuela Euskaltzaindiak *ingurumen* hitza eta *Hiztegi Batuan* jaso dagoela. Hain zuzen, Euskaltzaindiak hitz hau ikusten du beste edozein baino egokiago ekologia gaietarako. Hori dela eta, komeniko omen litzateke administrazioan eta ardura dutenei erabaki hau gogoratzea, *erkidego* hitzarekin egin zen bezalatsu. Onartu da proposamena. Gutun bana egingo zaie, horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako P. Ormazabal Sailburuari, Nafarroako arduradunari, Diputaziokoei eta, agian, iparraldekoei ere bai, gogoratuz *ingurumen* hitza izango litzatekeela «medio ambiente» delakoari erreferentzia egiteko hitz aproposena euskaraz.”

JASOTAKO TXOSTENAK

GRAMATIKA

NOIZ ETA NON ERABILI ERE ETA NOIZ ETA NON ERE BAI

1998-IX-25

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak Areatzan 1998ko uztailean egin ziotuen jardunaldietan ahoz zuzendu nuen oharra dakart idatzirik *Euskal Gramatika, lehen urratsak-V* liburu honetara.

Hala dio Gramatika batzordeak proposaturiko arauak:

ERE eta lagunak

7. Hegoaldean NI ERE BAI esaten dugu;

iparraldekoek eta nafarrek NI ERE, BAI gabe. (Fotokopietan banatu zizkiguten apunteetan, 10. orrialdean).

Baieztapen horren aurrean, itaun hau luzatu nuen: Iparraldean ondo dagoen forma hori Hegoaldean ere sistematikoki aldatu behar dugu euskara estandarrrera? Itaun horren bitartez, azken finean, biak batera hartuta izen propiorik ez daukaten ikerketen gaiaz arduratu nintzen, hau da, “linguistika eta pedagogiaz”. Orain, oster, orduko galderari erantzuna ematen ahaleginduko naiz. Beti ere eztabaidarako txostena izanik eta guztion ekarriak jaso ondoren modu definitiboan erredaktatzekoa, nahiko iritzi diot ildo nagusiak bideratzeari. Badakit halaber, hausnarketa honen xedea Jagon Saila dela, zeinetan praktikak erakusten digunaren arabera, gramatikako ikerketa nekeza bada, jagotea ere errezago ez den.

“Egia da hizkuntza bat sistema dela, eta sistema horren zatiak edo osagarriak ez direla deus sistemaz kanpora. Aitortu beharrean gara, ordea, mamira bagoaz, euskara ez dela oraingoz sistema bat, diasistema bat baizik, eta diasistema horren itxura batera heldu behar dugula, gero mamia batuko baldin badugu” zioen Larresorok (Larresoro, 1974:26). Ordurik hona aurrerapen itzela egin dugu. Corpusaren planifikatze haietan, normatibizatzean, hau da, batasuna egitean, euskara —edozein hizkuntza bizi bezala—, diasistema egoeran izanik, arauaren hautatzea delikatu gertatu zela bagenekien. Gaur, oster, orduko sentibiltateaz eta batasun giroaz ahazteko arriskuan aurki gintezke.

Oinarrian euskalkien arteko den gai honetan, dialektologian inoiz baino gaituago datorren uholde berria daukagun arren, “Euskalkien arteko diferentzia

zertan den oraindik azterkizun litzateke...” irakur dezakegu oraindik. (Patxi Goenagak Eusebio Osaren “Euskararen hitzordena, 1990:11) Hala ere, proposamenetan aurreratuko bada, diferentzien arteko erabakia hartu beharra egongo da. Alde honetatik, Gramatika batzordeak damaigun araua arteza da, eta zuzentasunaz ez daukat esatekorik.

Nik har baneza batzordearen erabakia bere horretan, eta espainoletik datozen neska-mutilekin euskaltegi nahiz ikastoletan jardun, erraz frogatuko nuke Patxi ERE eta Patxi ERE BAI formen artean lehena dela nagusitzen, bigarre-nean indar berezia ezarri ezik.

Orain Gramatika batzordeak onetsi duenez gero, beste barik onartuko dugu eta lehen oker zena orain arteza dela esan? Zeren guk azaldu ohi duguna hauxe baita, bigarren esaldian aditza ezabatzen denean, *bai* edo *baita*, edo *ez* edo *ezta*-ren laguntza behar duela. Niri neuri dagokidanez, idazlan jaso bakanen bat edo ikasle hartaratua, ERE eta ERE BAIren arazoaz ongi jabetua ez bada, Patxi ERE BAI irakatsi behar dut Hegoaldean, eta Patxi ERE interferentziatzat hartu.

Euskaraz jakinik erdaraz bizi den edo hizkuntzaren iturburu espainola duen gaztearentzat, ERE-k TAMBIÉN-en parekotasunean funtziona dezake (ERE, aussi, etiam). Ondorioz, “Yo también” adierazteko unean NI ERE atera dakioke interferentziaren eraginez. Egoera ezaguturik, eta Iparraldean zuzen dela jakinda, ontzat emango banu, neurri handian bigunduko litzateke irakaskuntza, ezen Patxi ERE onartzen dudana ber, onar dezaket *asko jende* eta abar, hots, erdaldunek interferentzien eraginez jasotzen dutena. Horrela jokaturik, edozein euskaldun ohartuko litzateke Hegoaldeko hiztunen tradiziozko forma eta berriaren —nahiz eta Iparraldeak tradiziozko izan— artean, erdararen antzekotasunagatik, berria, hots Patxi ERE inposatuko dela. Gainera, eragin erregresiboz, euskaldundutako irakaslegoaren gehiengo handiak jadanik, Patxi ERE irakas-ten du, nire antzerako euskaldunen ahaleginaren bizkar.

Gaztelanismoen eragina —historikoki euskarak jaso duena aztertzen hasi barik— eragozle handia da euskararen estandarizazioan. Batetik, euskaldun hegoaldekook espainolez egin ditugulako ikasketak eta, bestetik, erdara sorburu duten euskaldun berriak gaztelanismoak dakartzatelako, bai lexikoan, sintaxian edo morfologian, baina batez ere fonologian. Gainera, mediaren bidez gizarteko maila guztietara hedatzen dira. Honi gehitu behar zaio, modu batera eragiten duela espainolak eta beste batera frantsesak.

Berez, erdaratik datorren hiztunarentzat ez da arazo, aldatzen du erdarakoa euskarara eta kito. Arazoa euskaldun betikoengandik etorriko da forma linguistiko hau desagokitzat jotzean. Konponbidea, aldiz, euskaldun alfabetatuen pisu soziologikotik hel daiteke; hizkuntzaren tradizioaren kontzientzia minimoaren jabe izatetik.

Estatusak damazkigun buruminak konplexuak direla aipatzearekin, eta daktikaren eragina bera ere alde batera lagata, Patxi ERE/ Patxi ERE BAI-ren

arloa argi daiteke neurri baten, zuzentasunaren ikuspegitik baino egokitasun, koherentzia eta kohesioaren ikuspuntutik arakaturik.

Patxi ERE/ Patxi ERE BAI formen egokitasuna:

“Testua egoerara egokitzea, testua eta kontestua (testuingurua) lotzea esan nahi da izen honekin. Testuaren eta testuaz kanpotiko kontestuan dauden osagai fisiko eta sozialen lotze eta egokitze planari deritzogu horrela” (Andres Alberdi, *Eskola Gramatika*, 1996:28).

Egokitasun honetan, solaskidearen maila kultural, lagunartekotasun edo jatorri dialektalek eragina dute testuan. Ez dugu modu berean berba egiten Mungiako familian edo Donezteben, ez eta hiru urteko neskatxoaren aurrean eta hamazortzikoaarenean, zeren solaskidearen ezaugarriak desberdinak baitira.

Era berean, solaskideen arteko paper sozialak ere komunikazio modua - testua- baldintzatu egiten du. Ni irakasle rola Azpeitian betetzen banenbil, Patxi ERE BAI irakatsiko nuke. *Egunkarian* eta Erramun Baxoki erantzungo banio, egokitze hartuko nuke Patxi ERE sartzea, ezen bi kontestu desberdinetan nire paper soziala desberdina izatean, komunikazio modua, berba egiteko modua ere desberdina izango bailitzateke. *Egunkariako* artikuluetan ere, leku eta inguru sozial berean nenbilkeen arren, jokabide arruntean, neure hamabosteroko artikuluan Patxi ERE BAI perpausarekin jokatu nuke, Baxok jaunarekin Patxi ERE erabiliagatik, zeren leku bera izanda ere, funtzio sozial desberdina hartzen baitu *Egunkariak*. Alderantziz, Baxokek berak, hala *Herrian* nola *Egunkarian* astero idatz ditzakeen artikuluetan, guztiz egokiro erabil dezake Patxi ERE.

Bestalde, asmo komunikatiboari dagokionean, helburua jasotzailearen atsegin literarioa bada, eta ipuin, olerki den testua idatzi, hor estilistikak forma bietarako bide ematen du, dela ERErako, dela ERE BAIrako.

Erregistroari lotzen bagatzaizkio, hots, egoeraren ezaugarrien arabera (asmoa, gaia, formaltasun maila) igorleak hautatzen du hizketa modua. Badakigu, berbetaren jabe den hiztunak, normalean, erregistro desberdinak menderatzen dituela, eta gai dela eleketa komunikazio egoera desberdinetara egokitzen. Alde horretatik, ez genuke beldurrik ukan behar Patxi ERE edo Patxi ERE BAI proposatzean, ezen egoki jakatuz gero ez baikara hitz egiteko molde berarekin baliatuko Arrasaten, lagunaren artean, eta Nafarroan Euskal Herria Irratiko mahainguruan. Hemen, arrunt erabiltzekoak dira Iruñeko *erran*, *bertz* edo *anitz*. Arrasateko tabernan, osteran, egokitasuna galduko lukete, nahiz eta bitzuetan ahozko erregistroan jardun. Zentzu berean, desagokia da futboleko esatari profesionala, jendearen eskariak eskari, *usten detetik uste datera* ez aldatzea. Igorleak, gaiaren kanalaren eta inguru sozialaren araberrako egokitzapena egiten saiatu beharra dauka.

Ahoskerari buruz arituko bagina, ezin eskatuko nioke Gernikako euskaldunari Lapurdikoa imitatzeke edo euskara estandarrean jatorri dialektala ez

igartzeko bestean mintzatzeko —ahozko euskara batua erabakita balego ere— baina hizkuntzaren gainerako ataletan —lexikoan, morfologian, sintaxian, bes-terik ere eska daiteke. Hala ere, kodigo linguistiko argia behar dugu edo akor-dio soziolinguistikoa, euskalkikoa euskalkirako eta batua baturako noiz, non eta nola seinalatuko diguna.

Koherentzia eta kohesioa:

1.1. Edozein testuk, kohesioa eta koherentzia eskatzen du. Ezin burura dakioke nehoi paragrafo berean, orain Patxi ERE eta lerro pare bat beherago Patxi ERE BAI idaztea. Testua antolatzeke erabiltzen ditugun ERE/ERE BAI lokailuak, sakonean testu antolatzaileak dira, ideia berriak txertatzeko baliozko zaizkigunak

1.2. Entonazioa: entonazioa garrantzi handiko kohesio modua da hizkun-tza mintzatuan. Hala igartzen dugu, esate baterako, esaldia amaiturik dagoen ala ez.

Patxi ERE BAI esatera ohituak gauden euskaldunok, Patxi ERE entzuten dugunean, beheranzko tonemaz baino goranzkoaz entzuten dugu, hau da, har-tzaileok oraindik ere segida espero dugu; enuntziazio horretan zeozer gehiago erantsiko den ustean geratzen gara.

Dio Iñaki Caminok, (Nafarroako hizkerak, 1998:142) “Ikertzaile orok bere azterketetan izan ohi duen lehen arazoetarik bat, hiztunak aldameneko hizke-rarekiko desberdintasuna zein ezaugarriren arabera hautematen duen asmatzea edo ohartzea izaten da. (...) Batzuetan ematen du lehenago eta hobeki ohartzen dela hiztuna lexiko arloko desberdintasunez ahoskerazkoez baino (...) Maiz en-tonazioak balio identifikatzaile —etnikoa— edo erkidegokoa izaten du”.

LABURPENA:

Halan da ze, bide egokia izan daiteke Patxi ERE eta Patxi ERE BAI for-men erabileran Iparraldekoek eta nafarrek, bata bestearen aldakan dauden es-kualdeetako dialektoen kontaktuaren kasuan gertatu ohi den bezala aktiboki Pa-txi ERE erabiltzea eta pasiboki ezagutzea Patxi ERE BAI; Hegoaldekoek, oro har, alderantziz. Horretan, nork bere inguruko euskaldunekin identifikatzeko baliozko izateaz batera gainerakoekiko hartuemanetarako ere baliagarri gerta-tuko litzateke.

Irakaskuntzan printzipio honi jarraiturik jokatu nuke: “Azken finean euskarak aurrera egingo badu, tradizioa haurtzarotik gordetzen duten hiztune-tan oinarri harturik izango da eta euskaldun berriek horretara makurtu beharko dute guztion artean helburura abia gaitezen”. (Alfonso Irigoien, ASJU 1991:1287). Beraz, Hegoaldean erdararen indarrak dakarren Patxi ERE baino euskaldunen Patxi ERE BAI, eta alderantziz.

Literaturan, hizkuntzaren ederra bilatzen dugunean, idazlea da nor, maila jasoan diharduela jakinik, erabilera egokiaz baliatzeko.

Edozein testutan, ahozko dela nahiz idatzizko, bere koherentzia beharko luke gorde, arestian aipatu bezala, lehentxeago ERE izan dena ERE BAI bilaka ez dadin

Ahoz zein idatzizko testuetan, erregistroek, hizkuntza mailek eskaintzen digute argitasun nahikorik, jakinda euskaldunon kasuan hizkuntza estandar kultura eta herritarra izan litekeena —gaurkoz ehuneko oso altuan euskalkiek betetzen dutena— dauzkagula. Egoera normalizatuz joango zaigun heinean, izango ditugu estandar jasoak, eta arrunta, euskalkiekin batera, beti ere, batasuna proposatu zen moduan proposatu zelako, idatziak bereganatu izan duen eredu bakartasunaren ondoan, ahozko -euskalkietako- ekarri gero eta ugariagok orbiztuak. Ezen euskara estandarrak eta euskalkiak bata bestearekin iraziz joan daitezen, euskalkiek behar duten batutiko eraginaren bestekoa behar baitu euskara batuak ere ahozko tradizio bizitikoa. Azken finean, ikuspuntu kontua baizik ez da, batzuek euskara batutik beha dezakete euskalkia, besteek euskalkitik egin diezaiokete euskara batuari so.

ERLATIBO ARRUNTA ZEHAZTAILE? TEORIAK ETA DATUAK

Jose Antonio Mujika

0. Puntu eta kontu asko aipatzen ditu J. Garziak *Joskera lantegi* liburu lodian. Eta, jakina, kontu asko aipatzearekin batera eztabaidarako ere aukera handiak eskaintzen dizkie kontu horien gainean mintzakide hurbiltzen zaizkionei. Ez dut zalantzarik egiten gogo onez hartuko duela berak mintzaketatasun hori, aipamen guztiak aldeko ez baditu ere. Nik hemen, bestelakoak bestetarako edota besterentzat utziz, perpaus erlatiboei buruz ematen dituen azalpenak izango ditut eztabaidagai (367.- 402. orr.), hor esaten dituenak ez baitatoz bat euskaletatik luze eta sakoneren aztertutako gramatikariek eman dituzten azalpenekin. Eta, zergatik uka, neronek ere ez naute asebetetzen.

Euskaraz, izen ardatzaren ezkerrean doan *-en erlatiboak* balio “zehaztailea” omen du berez, Garziaren irudiko (1). Har dezagun, esate baterako, ondoko perpausa:

(1) Jauregian bizi den gizona txekiarra da.

Horko erlatiboaren izen ardatza berez zehaztugabea da: “gizon” batez ari dela esaten digu, bai, baina ez digu zehazten zein gizonenez ari den. Ezkerrean duen erlatiboak egiten du zehaztapena, gizon guztien multzotik “jauregian bizi dena” seinalatuz.

Horra, bada: izenaren ezkerrean kokatua dagoen erlatibo arruntak beti egiten omen du zehazte-lan hori, Garziak dioenez. Eta horrek, besteak beste, honako bi ondorio jakingarri hauek omen ditu, haren prosa korapilatsua zuzen ulertzeko gai izan banaiz behintzat:

a) Izan ere, perpaus bakoitzak ezin omen dute ezkerrean erlatiborik hartu. Izan ere, berez dira zehatzak izen propioak, arruntak ez bezala, eta, hortaz, ez dute zer areago zehaztu. Horrela, bada, (2) bezalako perpausak ez omen dira egokiak.

(1) Lan honetan *-en erlatiboak* ariko gara. Gauzak erraztearren, *erlatibo arrunta* deituko dugu horrela erabakitakoa. Galdetzaileen bitartez eta *bait*-en bitartez erabazten direnak geure azalpenetik kanpora uzten ditugu (horien balioaz ikus, besteak beste, Goenaga: 297 eta Villasante: 215). “Zehaztaile”, berriz, bestek “murriztaile”, “mugatzaile” edo “identifikatzaile” deitu izan dituzten erlatiboei esango diegu, Garziak bezala —gaztelaniaz *restrictivas* esaten zaienak, alegia—. “Ez zehaztaile”, berriz, azalpenekoak dira, zenbait hizkuntzatan apositiiboak direnak.

- (2) Euskararen alde hainbeste lan egin zuen Mitxelenari omenaldia egingo diote bihar bere herrian.

b) Zeregin zehaztailerik ez duenean egokiago omen doa erlatiboa izen ardatzaren eskuinean, kokapen horrek zehaztailetasuna hausteko balio baitu berriaz, ezkerrekoak ez bezala. Ikus, esate baterako, ondoko perpaus bi hauen arteko aldea:

- (3) a) [gosez bizi diren] *pobreak*
 b) *pobre* [gosez bizi diren]*ak*

Horietan, erlatiboa izenaren ezkerrean duen (3a)-k balio zehaztailea izango omen luke, pobreetan gosez bizi direnak bereizten eta zehazten baititu. Pobre batzuk gosez bizi direla eta beste batzuk ez, horra zer suposarazten duen perpaus horrek eta, hain zuzen, gosez bizi direnei egiten die erreferentzia. Aldiz, erlatiboa izenaren eskuinean duen (3b)-ko perpausak ez luke balio hori izango. Pobreen multzo osoa hartzen omen du horrek, haien artean bereizketarik egin gabe, eta guzti-guztiei dagokien zerbait gogorarazi eta azaldu besterik ez du egiten —denak bizi baitira gosez—. Lehenak egiten duena zehaztapena omen da eta bigarrenak egiten duena, berriz, azalpena.

Puntu horiek biak izango ditut, bada, mintzagai ondoko lerroetan. Garziazren ikuspegi estu hori euskararen gramatikarekin bat ez datorrela erakusten saiatuko naiz, hizkuntzaren datuak modu beteagoan erabiliz. Lehenengo atalean izen propioen gorabehera aztertuko dut (§1); bigarrenean, erlatiboaren kokapenari dagokiona (§2); eta, hirugarrenean, kontu hauen azalpen egokiago bat aurkezten saiatuko naiz, bestek esandakoaren ildotik (§3).

1. IZEN PROPIOA ERLATIBO ARRUNTAREN ARDATZ

1.1. Ikus dezagun, bada, hasteko, nolako arrazoiak ematen dituen Garziak *hainbeste lan egin zuen Mitxelenari, hainbeste zekien Einsteinek, partida guztiak irabazi dituen Barcelona* eta horrelako erlatiboak egokitaz ez izateko. Eskaintzen duen arrazoi nagusia azaltzen erraza da: horrelako erlatiboak “bere sisteman” egokiak ez direla, alegia. Izan ere, erlatibo horiek, izenaren ezkerrean daudenez, zehaztaileak omen dira eta, hortaz, ez dute lekurik jadanik zehatza den izen baten aurrean: *Mitxelena* askoren, *Einstein* askoren eta *Barcelona* askoren arteko bereizketa egingo omen lukete perpaus horiek; eta ez da hori, bistan da, egin nahi zena.

Garziak gurdia idien aurrean ipini ote duen nago; teoria datuen aurretik jarri ote duen, alegia. Hiztunengandik jaso beharreko datu guztiak bildu eta, ondoren, haiei dagokien azalpena aurkitzen saiatu beharrean, gogara harturiko datu batzuen inguruan teoria bat eraiki du —beste hizkuntza batzuen jokabidean oinarritua, seguruenera ere—, eta, gero, horren ondoren, erraz erabaki du

kontua: teoriarekin bat ez datozen datu guztiak aipaldi soil batez baliogabetu... eta kito (2)!

Baieztapen hutsa beste arrazoirik ez ote du, bada, aurkezten, bere doktrinaren alde? “Autoritate” bi ere aipatzen ditu, egia da, zeharka eta bide batez bezala bada ere, aldeko diruditenak: XVI. mendeko Leizarragarena, batetik, eta mende honetako Akesolorena, bestetik.

Horrela, Leizarragak ez omen du *erlatibo arrunta + izen propio* egitura soileko adibiderik. Erabiltzekotan, izen propioaren ondotik beste elementuren bat duela erabiltzen omen du egitura hori: izen arrunt bat, adjektibo bat... —*guztiak salbatzera etorri den Krist gure jauna*, esate baterako, eta ez *guztiak salbatzera etorri den Krist*, alegia—, eta horrela onargarriagoa omen da egitura. Egia esan, ez du gehiegi azaltzen zergatik den onargarriagoa horrela, “azalpenekoa” baita erlatiboa horretan ere, izenaren ezkerrean egon arren.

Dena dela, hori horrela izan edo ez izan, jauzi handiegia egiten du Garziak lekukotasun horren aipamenean. Leizarragak jokabide hori duenez, horrela egin “behar” dela ateratzen du ondorio. Bestela esanda, Leizarragak izen propio soileko adibiderik ez omen duenez, horrelakoak “ezinezkoak” direla ateratzen du ondorio. *Ex silentio* frogatzen da hori, bistan denez, sarritan ahul eta balio eskasekoa izan ohi dena. Usteak, gainera, ustel gertatzen dira maiz. Hara, behakoa arin baten ondoren honako kasu hauek aurkitu ditut nik Leizarragarenean:

- (4) Benedicatu *dela* Iaunaren icenean ethorten den Reguea (Lc 19, 38).
- (5) [...] nitan dagoen Aitac eguiten ditu obrác (Jo 14, 10).
- (6) a) Gure aiutá dela cerua eta lurra eguin dituen Iaunaren icenean (A i...).
- b) [...] bere Spiritu Sainduaz iabetu içan çaicun Iauna laudatu dela (ABC i).
- c) [...] dio gauça hauc guciac eguin dituen Iaunac (Act 14, 17).
- (7) a) Iauna, hi aiz ceruä eta lurra, itsassoa eta bertan diraden gauça guciac eguin dituan Iaincoa (Act 4, 24).
- b) Mundua eta hartan diraden gauça guciac eguin dituen Iaincoa (Act 17, 24).
- (8) Paulec predicatu duen Iesusen partez (Act 19, 13).
- (9) Haur da Iesus Prophetá Galilean *den* Nazareteco (Mt 21, 11).

Adibide horietako erlatiboen izen ardatzek izen propio gisa jokatzeko dute eta, hala ere, ezkerrean daramate “zehaztaile” ez den erlatiboa. Denek ez dute

(2) Espantuka mintzo da, gainera, bestela irizten diotenei “boluntarista” eta “denakbaliotulakari” bezalako loreak eskainiz (396. or.), horrelako hitzak erabiltzeak bere arrazoiak sendoago egingo dituelakoan edo.

erabide bera, egia da. Horrela, *Reguea*, *Aita*, *Iauna* eta *Iaincoa* izen arruntetik eratorriak dira, artikulatu eta guzti, eta pentsa daiteke horrek errazten duela beharbada aurretiko erlatiboaren erabilera. Erlatibo hori, ordea, berriro esan, “ez zehaztailea” da, kristautentzat ez baita, haien doktrinen berri duen edozeinek ondo dakienez, aipatu hutsarekin berehala bereizten den Errege, Aita, Jaun eta Jainko bat baizik. Are agerikoagoa da kontua (8) eta (9) perpausetako kasuan. *Iesus* izen propioa da euskaraz, ez artikulurik ez horrelakorik gabe, haren hebreoko etimologia edo grekoko erabilera gorabehera. Eta (9) perpausaren ere ez dago dudarik: *Galileako Nazareteko* itzuli astuna saihesteko erabili du hor erlatiboa Leizarragak, beharbada, baina argi dago, nolana izan ere, izen propioa dela *Nazaret*. Eta ezkerrean duen erlatiboa, “azalpenekoa” dela, kontua ez baita hor Nazaret askoren artean Galilean dagoena bereiztea eta zehaztea.

Are nabarmenagoa da Garziak espantu handiz aipatzen duen bigarren “autoritate” edo dena delakoaren kasua. Honako Akesoloren esaldi bi hauek aipatzen ditu bere teoriaren aldekotzat (389.-390. orr.; ikus Arrue: 21 eta 22):

- (10) a) [...] benetako Santa Jenobeba Parisek zaindari duenaren omenez.
- b) Eta andre gaztea an gelditu da jauregian bakarrik Golo zerbitzari leialtzat zegoenaren, baiña zital lizun saltzaille gertatu denaren mende.

Eta honako iruzkin hau eranstean du: “Akesolok bederen garbi erakutsi digu, bere idazkeran, berak badakiela bereizten erlatibo zehaztailea zehaztaile ez denetik” (390. or.). Izan ere, perpaus horietako erlatiboak zehaztaileak ez direnez, ondo omen daude *Jenobeba* eta *Golo* izen propioen eskuinean. Oker omen leudeke ezkerrean...

Herren egiten du hor ere argudioak, perpausa modu batera agertzeak ez baitu esan nahi, besterik gabe, bestela ezin ager daitekeenik. Perpaus bi horietan erlatibo ez zehaztailea izenaren eskuinean egoteak ez du esan nahi ezkerrean ezin joan daitekeenik. Eta lekukotasunak aipatzen hasita ez da zuzena norberari komeni zaizkionak bakarrik aipatzea, kontrakoak isilduz. Hona, gehiegi saiatu gabe, *Akesoloren Idazlan guztiak-1* liburuaren orriak gainbegiratzuz aurkitu ditudan bestelako kasu batzuk:

- (11) a) asieran lankide izan zan Luis Elizalde zanaren il barria zekarren (28).
- b) ona zure okerra; zurea eta zuk ontan maisutzat duzun Azkue zanarena (53).
- c) euskal-idazle andi izan dan Peru Larzabal zanaren illeta meza izan dala-ta (217).
- d) Españolako gobernuaren ordezkari zan Mazarredo jaunak (434).
- e) Euskal-idazle askoren maisu dan Mitxelena Jaunak berdintsu esan du oraintxe (185).
- f) Oraintsu betiko agur egin zigun Aita Alberto Lazkaoko beneditarrak txintxo egindako lana da (805).

- (12) a) eztoigu aintzat artuko [...] Leizarragak bere aldian [...] atera eban “Kalendrera” (17).
- b) Borbontarren erdian gelditu zan Euskalerriari ere Borbonkeri ori erantsi zaio (180).
- (13) a) Alaxe gertatu da euskerazko leen-idazletzat dugunarekin, euskerazko leen-liliak eman zituen Etxeparerekin (204).
- b) eta bati baiño geiagori oker-ulertuak ekarri deutsoz. Esaterako, gure literatura antologiak egin dabezan Lafitte eta Aita Onaindiari (235).
- c) Egutegia, Okondoko seme ta Abandoko aberesendatzaille izan zan Ulibarrik antolatu eta euskeraz jarria (416).
- d) Baiña norena izan da nekea [...] Bertsolaritzak ainbeste zor deutsan eta merezitutako eskerik izango ez dauan Aita Antonio Zabala'rena (427).
- e) Donostiko Gotzai dan J. Maria Setienek (700).

Horra, bada: horietan guztietan erlatibo “ez zehaztailea” izen propioaren ezkerrean dago. Arrazoiak bilatzen hasita esan daiteke, bai, (11) multzoko perpausetan izen propioak baduela zerbait ondotik: *zana*, *jauna*, *beneditarra*. Eta era berean, (12) multzokoak izen propioak izanik ere, artikuludunak direla eta horrek erraz dezakeela, beharbada, ezkerreko erlatiboaren erabilera. Baina (13) multzokoak izen propio soila daramatenak dira, inolako zalantzarik gabe.

Zer esan, orduan? Baietz, noski, badakiela Akesolok erlatiboa erabiltzen eta horrexegatik, hain zuzen, Garziak proposatu bide estutik libre dabilela haren erabileran: izen propioarekin ere badarabilela, alegia, haren eskuinean nahiz, are maizago, ezkerrean kokatuta.

Garbi esanda: zein ere interesgarri iruditu dakioken beharbada norbaiti Garziaren “sistema”, harena ez ezik euskararena ere badela frogatzeko leku-kotasunak ditu eskas.

1.2. Garziaren aipamenen ahultasuna erakutsi ondoan, niri dagokit orain *erlatibo arrunta + izen propioa* egituraren alde ditudan argudioak eta frogak ekartzea, nirea ere baieztapen hutsean gera ez dadin.

a) Hasteko, eta oroz gain, hiztunen onarpen zabala dago. Bati baino geiagori erakutsi diot —ez nolanahiko hiztunak haietako batzuk— goiko (2) perpausa eta inork ez dio aitzakiarik aurkitu. R. De Rijkek ere ondoko (14) perpausarekin egin omen zuen frogia eta galdetutako inork ez omen zion eragozpenik aurkitu (De Rijck: 153).

- (14) Egunero kilo erdi bat txokolate jaten duen Beobide'tar Pantxika ez da bat ere gizentzen.

Gorago aipatu ditudan adibideetako perpausak ere, batez ere (8), (9) eta (13) adibideetakoak, onarpen horren frogia dira. Horiei, besteak beste, B. Irao-laren hau ere erants dakieke, De Rijkek aipatzen duena (154. or.):

(15) [...] esan zion erdiko gelan dagoen Meltxorrek.

Edota Akesoloren (10) perpausak ageri diren liburuaren hitzaurrean K. Mixelenak idatzi zuen beste hau:

(16) [...] dio hemengo zerrendan ageri den Gregorio Arruek (Arrue: 15).

b) Gramatikarien lekukotasuna dator, bigarren. Lardizabalek zerbait eragozpen jarri zien horrelako perpausei, baina eragozpena gramatikari baino areago estiloari-edo dagokiola dirudi: izen propioa ergatiboan dutenak bestela eman behar direla dio —*hainbeste diru duen Mikelek limosna txikia eman du bezalakoen orde, esate baterako, hainbeste diru izanik limosna txikia eman du Mikelek*, alegia— (3). Estilo gorabehera da hori, esan bezala, beti-beti balio ez duena. Aurkaritza adierazten dutenetan, bai, baina ez, esate baterako, goiko (16) bezalakoetan.

Gure egunotan erlatiboen kontu hau sakonen aztertu duten gramatikariek, ordea, zalantzarik gabe onartu dituzte horrelako erlatiboak, berariaz onartu ere. Horrela, hain zuzen, R. De Rijkek (150 or.) eta B. Oyharçabalek (123 or.). Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak erlatiboei buruz prestatu eta laster argitaratzeko duen V. liburukian ere, erlatiboen balioaz ari dela, honako adibide hau aipatzen du:

(17) Aspaldi ezagutzen duzun Maddi nire arrebak esango dizu hori.

Egia da *nire arreba* aposizioa ageri dela hor izen propioaren segidan, baina ondoko azalpenak hori gabe ere egon daitekeela iradokitzen du. Izan ere, hor “izen ardatzak berezko erreferentzia du, ezen izen berezia da (*Maddi*), eta gainera *nire arreba* ere agertzen da. Perpaus erlatiboak ezin izan dezake balio mugagarririk hor, (...) sintagmako izen ardatzaren erreferentziaren bidez berez baita mugatua (izen bereziaren ezaugarri nagusia dugu hori)”.

c) Lan hau idazten ari naizen egunetan erne eduki ditut begi-belarriak ea gisa honetako erlatiboak entzun edo irakurtzen nituen eta egitura doi bat berezia izanik maiztasun handiegikoa ez den arren, aurkitu ditut han-hemen adibideak. Hona haietako batzuk:

- (18) a) Batzuek pentsatuko dute zergatik festa bat oinazetan pausatu zen Mattin zenaren alde? (Euskaldunon Egunkaria, 98-04-29, 2.or.).
- b) Sorreratik bertatik epai-mahaian jardun duen Anjel Lertxundik esan duenez [...] (Diario Vasco, 98-05-05, 70. or.).
- c) Athletic-ek, berriz, aspaldi honetan pattal dabilen Oviedo izango du aurrean (irratian entzuna).
- d) Oraindik haruntzago joan zen, 1698. urtean, Kalahorrako ipiztiku zen Pedro de Lepe (San Martin: 42).

(3) Horren antzeko zerbait dio —hari jarraiki, itxuraz— Etxaide euskaldunberriak ere.

Ez ditut adibide horiek guztiak pisu bereko lekuko gisa ekartzen, denak *le bon usage* delakoaren froga balira bezala. Erabilera hedatuaren erakusgarri ekarri ditut, gorago aipatu adibideekin bat eginik zerbait adierazten dutelakoan. Garziak berak ere egiten du erabilera horren aipamena, “euskal hiztunik trebeenetako batzuk ere hortxe” daudela dioenean (395) (4).

Eragina izan du, hala ere, Garziaren liburuak. *Euskaldunon Egunkaria*-n, esate baterako, *Donostiako alkate Odon Elorzak, Tolosa Kirol Elkarteko buru Andres Urmeneta* eta horrelakoak idazten dira sistemaz azken aldi honetan, tartean sar litekeen den erlatiboa gabe. Ez dut ezer, noski, egitura apositibo horren aurka, zuzena baita. Hori hobesteko arrazoiak, ordea, estiloari-edo dagozkiona da, ez gramatikari. Okerra izango litzateke erlatiboko egitura hori zehaztailetasuna aitzakia hartuta baztertzea. “Beharrezkoa” izatera ere irits daiteke gainera, egitura konplexuagoa egiten den heinean: *Gipuzkoako Diputatu eta Unibertsitateko irakasle Luis Badiolak [...]* edota are *Gipuzkoako Diputatu, Alderdiko buru eta Unibertsitateko irakasle Luis Badiolak [...]* egitura apositiboak onar daitezke, beharbada, zein ere pisu diren, baina *Donostiako alkate eta, hala ere, Athletic-en zale den Pedro Mendiburuk [...]* perpausari ezin ken dakioke hain erraz erlatiboko den hori.

Labur esanda: euskaldunon erabilera ez dirudi erlatibo *arrunta* + *izen propioa* gisako egitura galarazten duen debekurik dagoenik. Eta erlatibo hori gehienetan “azalpenekoa” edo “ez zehaztailea” da, bistan denez. Doi bat berezia izanik, maiztasun handi-handikoa ez bada ere, garai, euskalki eta autore askotan ageri da, eragozpen handirik gabe. Maiztasunarena, berriz, izen propioak berez duen izaera bereziaren ondorio da, aurrerago ikusiko dugun moduan, erlatiboarekin zerikusirik ez duena; ez, behintzat, honen balio zehaztaile edo ez zehaztailearekin.

2. ERLATIBO ARRUNTAREN KOKAPENA ETA BALIOA

2.1. Aurreko atalean esandakoaren ildotik, beraz, balio desberdinak egozten dizkio Garziak erlatibo arruntari kokapenaren arabera: izen ardatzaren ezkerrean doan erlatiboak balio zehaztailea omen du berez; eta eskuinean doana, berriz, posizio atributiboan omen dago eta, hortaz, berariaz baztertzen du balio zehaztailea.

Ikuspegi horren alde ekartzen ditu, besteak beste, kontu hau ondo ezagutzen omen duen Akesoloren (10) gisako adibide gorago aipatu ditugunak. Eta harekin batera Mogel ere aipatzen du, zeinek “erlatibo-perpausak ere maiztxo baitarabiltza —zehaztailetasuna hausteko, hain zuzen— adjektiboen posizioan” (388), eta haren adibide hauek ematen ditu jokabide horren erakusgarri:

(4) Gero, ordea, harrigarriro, horrek gutxi balio duela eranstean du eta hiztun “trebeenetako” horien lekukotasuna —bere teoriarekin bat ez datorrelako, beharbada— “si itz erdiak hongui idatzi dut” liokeen ikasle kaskarraren aitzakiaren pareko egiten du! Argudioak gogoak eman ahala era-biltzea ez al da hori?

- (19) a) ez dabil ... oinez, eta bai *zaldi* [berak beste urte dituban]ian.
 b) Artu zuan *galbae* [zulo asko zeukan]a.

Honako Kardaberazen hau ere aipatzen du:

- (20) *eskala* [guzizko argitasun ederrez bete, gelatik zeruraño igotzen zen] bat ikusi zuen.

Horietan guztietan, bada, erlatiboa izenaren eskuinean izateak esanahi jakina omen du. Ezkerrean joango balira, zehaztaileak izango omen lirateke: (19a)-k, esate baterako, “hainbeste urte dituen zaldi bat” adierazi beharrean, “zaldietan hainbeste urte dituen, hura eta ez bestea(k)” adieraziko omen luke. Gaztelaniara itzuliz “un caballo, que...” adierazten omen du erlatiboa eskuinean duenak eta “el caballo que...” ezkerrean duenak.

Aurkezpeneko adibidera etorritik, *pobre gosez bizi direnak* bezalako perpausak egokiak dira, balio zehaztaileak ez baitute eta, hortaz, pobre guztiei dagokien azalpena baizik ematen ez baitute. Era berean, *gizon hilko direnak* ondo dago, hiltzea denoi dagokigun ezaugarria baita; *hilko diren gizonak* esanda, berriz, adierazitako horiek bai, baina beste batzuk ez direla hilko suposatzen omen da.

Herren ikusten dut hemen ere Garziaren argudioa, aurrekoan bezalaxe. Ematen dituen adibideetako erlatiboak “eskuinekoak” eta “ez zehaztaile” izateak hori besterik ez du adierazten: horiek horrelakoak direla. Horrek ez du frogatzen, ordea, ez eskuineko guztiak, duten posizioa dutelako, “ez zehaztaile” direnik, ez eta ezkerrekoak beti eta nahitaez zehaztaileak direnik ere. Adibideak gogara aukeratzea erraza da, baina horrek ez du askorik frogatzen, bestelakoak ere aurki baitaitezke, beharbada, hartara jarritz gero.

Hona, esate baterako, Garziak hainbeste goraipatzen duen Mogelen beste adibide hau, goiko (19a) perpausaren guztiz antzekoa izanik ere erlatiboa izenaren ezkerrean duena, nahiz eta honetan ere, hartan bezala, andre kume “batentzat” ulertu behar den -a mugatzailea gorabehera:

- (21) Ze atsegiña [larogei urte urtean dituan] *andrekumearentzat* (Moguel: 46).

Ezin da, bada, esan, zehaztailetasuna hausteko erlatiboa izenaren eskuinean ipintzen duela beti Mogelek, ezker-eskuineko kokapena ez baita horretan bereizgarri.

2.2. Adibideak ugariak dira hemen ere. Izan ere, ez da zaila aurkitzea izenaren eskuinean izanik ere “zehaztaile” diren erlatiboak ez eta, alderantziz, ezkerrean egonik “ez-zehaztaile” direnak ere —Garziaren sistema gezurtatzen dutenak, horrenbestez—.

Hona erlatiboa eskuinean izanik ere zehaztaile —eta ez azalpen hutseko— diren Mogelen beraren batzuk:

- (22) a) berbarik onen esango deutsuna izango da (...) (*Ib.*: 30).
 b) errukarria da (...) gizon adiña galduten dabena (*Ib.*: 39).
 c) ta iru lauko geratuten direanak isten ditugu (...) (*Ib.*: 43).
 d) Egizu laster sangria egingo dozuna (*Ib.*: 45).
 e) azaltxu me azal lodiagoari eraatsita dagoana da mintz txito me (...) (*Ib.*: 52).
 f) Ezta, gizonaldi dakigunean, etxe onetara ezkondu (...) (*Ib.*: 57).
 g) esaizu lengo eguneko ipuiñ abadeak atera ta irakatsi eutsuna (*Ib.*: 61).
 h) emoteko (...) Jaungoikoaren deiko lenen datorkonari (*Ib.*: 68).
 i) ezteutse gillirik egiten olagizon lotan dagozanen belarriai (*Ib.*: 87).
 j) antxe dago urdai-azal, labandu eragin eutsana (*Ib.*: 135).
 k) Aguazil etorri dana, ze mutil sendoa! (*Ib.*: 136).

Horietan guztietan erlatiboa izenaren eskuinean dago, baina, hala ere, balio zehaztailea du —eta horrela ulertu zituen gaztelaniazko bertsioa egin zuen Juan C. Cortazarrek ere— eta ezin da, hortaz, eskuinean joateak zehaztailetasuna hausten duenik esan.

Honako beste hauetan, berriz, bina erlatibo ditugu perpaus bakoitzean, bat izenaren ezkerrean eta bestea eskuinean kokatuak, azken hauetan zehaztaile-tasun-ezik ez dagoelarik:

- (23) a) [txikitan guraso edo eskola maisuak irakatsi eutsuzan] *eskari* [Eleizeak artuta daukazan]*ak* (*Ib.*: 28).
 b) isildu gura ditut [aitatuten deustezan] *izen* lotsagarri [damu emoten deusteen]*ak* (*Ib.*: 41).
 c) [zuri entzuten deutsudazan] *izen* [neuk eztakidazan]*ak* (*Ib.*: 49).

Ez da zaila beste autoretan ere eskuineko erlatibo “zehaztaileak” aurkitzen:

- (24) a) Trabaiilla çaitetze ez vianda galtzen denagatic, baina vicitze eternalecotçat irauten duenagatic (Leiçarraga: Jo 6, 27).
 b) Iudu Mariagana ethorri ciradenetarie [...] anhitzec sinhets ceçaten hura baithan (*Ib.*: Jo 11, 45).
 c) Intencino eramo (sic) beardena Meza ençutera doayenean (Beriayn: 28).
 d) Artu eguisu beyñ onaco trapu iqusleac ecarri ditsusanac (Micoleta, 30).

Horiek, bada, eskuinean egon arren, balio zehaztailea duten erlatiboak dira. Txanponari buelta emanez, bestalde, aurki daitezke izenaren ezkerrean egon arren “zehaztaile” ez diren erlatiboak. Horrelakoak dira, esate baterako, izen propioa dela-eta gorago aipatu ditugun (4)-(9), (11)-(17) eta beste zenbait perpaus. Eta, berdin, Mogelen hauek ere:

- (25) a) Noz aztu iatzuz (...) ta Kristo bereberak erakutsi eban Aita geurea? (Moguel: 28).
 b) Jaungoikoak egieban lenengo gizonari emon eutsala (...) (*Ib.*: 101).
 c) Sinisten dot guztia daikean Aita Jainkoagan (*Ib.*: 112).

Azkena bizkaierazko kristau dotrinetatik hartu zuen Mogekek, baina beste biak bereak ditu; eta guztietan, oker ez banago, izen sintagma zehaztua ageri da, erlatiboa gabe ere.

Beste honako Axularren hau ere aipatzen du Garziak, haren “hankasartze” bakarra delakoan:

- (26) a) Khen zedin, hanbat kalteren eta damuren haste eta pitzgarri den alfertasuna (Axular: 24).

“Alfertasun” izena generikoa da hor eta ez dago alfertasunen artean zer zehazten ibili, “bat” baita alfertasuna. Erlatiboak alfertasunaren ezaugarriak aipatzen ditu, azalpen gisa, baina ez du horrekin ustezko alfertasun klase bat besteetatik bereizten.

Zergatik da, ordea, hori “hankasartzea”? Eta bakarra, gainera? Ez dirudi horrela denik. Beste honako hauetan ere, hain zuzen, izena generikoa da:

- (27) a) [...] penitenziaren premiarik ez-tuen iustua (*Ib.*: 552).
 b) Dembora gutiz egiten den bekhatuari, emaiten zaika gaztigu luzea eta sekulakoa (*Ib.*: 610) (5).

Perpaus horietako erlatiboa ez da zehaztailea, *justuaz* eta *bekatuaz* orokorki mintzo baitira perpausak. Penitenziaren premiarik ez izatea justu guztiei, justu diren aldetik, dagokien ezaugarria da; azalpen hutsa da hori, penitentzia kontuak ez baitu justu batzuen eta besteen artean bereizketarik egiten. Bekatua ere, bekatu oro, denbora laburrean egiten da, denbora hori eternitatearekin alderatzen badugu, behintzat. Hona, berriz, plural generikoa duen bat:

- (28) Nola traillaatcen direnec, traillaatcen eztiren alferrac eta naguiac, eztèn colpez, egotzten dituzten bere compaiñiatic (*Ib.*: 35).

“Ez traillaatzea” ez da, noski, erle alfer batzuen ezaugarria, beste alferrengandik bereizten dituen, “erle alfer” izenez ezagutzen diren guztiei dagokien kontua baizik, horietaz guztiez mintzo baita perpausa, dagokien ezaugarria —“traillaatzen ez direla”, alegia—, azalduz. Ezkerrean egon arren, beraz, hor ere ez dago zehaztailetasunik.

Ez dirudi, bada, ikusten denez, zehaztearekin zerikusi zuzena duenik kokenak, bateko zein besteko balioa izan baitezake erlatiboak, izenaren ezker nahiz eskuin egonik ere.

(5) Kapitulu honetan maiz darabil egitura bera, *bekatu* izen ustez generiko edo, bederen, zehazkai ez denarekin (608, 612, 613...).

Batean zein bestean kokatzeko aukera hori erakusten dute, halaber, azkenik, honako Leizarragaren adibide bi hauek, Oyharçabalek bere lanean aipatzen dituenak (22-23 orr.):

- (29) a) Ceren ikustera ilki çarete desertura? haiceaz erabilten den canabera baten? (Mt 11, 7).
- b) Ceren ikustera ilki içan çarete desertura? Canabera haiceaz erabilten den baten? (Lc 7, 24).

Mogelen hauek biek ere gauza bera erakusten dute, *bat* mugatzailea daraman izen sintagma erlatiboa ezkerrean nahiz eskuinean eraman dezakeela, alegia:

- (30) a) adiskide asko gura jakon bati esan bear iako nunai (...) (Moguel: 38).
- b) basoen aztarrenak ateraten (...) zeinbat burdi ikatz dagoan arlo edo saill andi baten (*Ib.*: 20).

Zehaztailetasunaren teoria horri tiraka, izenlagunetara ere luzatzen du Garziak kontua eta, horrela, haren irudiko, *Erromako Aitasantua* eta *Aitasantu Erromakoa* esaldiek balio desberdina omen dute. Lehenak, *Erromako* izenlaguna ezkerrean —hau da, zehaztaile posizioan— duenak, aitasantu bat baino gehiago dagoela iradokitzen omen du eta, hain zuzen, zein aitasantuz ari garen zehazten omen du, *Erromakoa* besteengandik bereiziz. Bigarrenak, berriz, eskuinean du izenlaguna —hau da, posizio atributiboan— eta, hortaz, ez omen du horrelakorik iradokitzen: aitasantu bakarra da eta *Erromakoa* izatea haren ezaugarrietako bat da, baina ez ezaugarri bereizgarria.

Erlatiboez esandako gauza bera esango nuke nik honi buruz ere: Garziak euskarari ikusi uste duen jokabidea izango da hori gehienaz ere; ez, ordea, zinez euskarari gertatzen dena. Ez da hau kontu horietaz modu betearen aritzeko lekua eta ez naiz hasiko autore eta lekukoen bila, hauek ugari diratekeen arren. Hala ere esan dezaket, neure oharmenean oinarrituta, erlatiboa bezala izenlaguna ere berez neutrala dela zehazte kontu horri dagokionez, nonahi kokatuta egonik ere. Zehaztasuna beste nonbaitetik datorkio izenari, ez izenlagunaren kokapenetik. Demagun egungo kazetari batek *Erromako Aitasantua Kuban izan da* esaten duela. Perpausa onargarria da, nire ustez, eta kontua argi dago: hor ez da aitasantu askoren artean zehazten. Demagun, berriz, zisma garaia aztertzen ari den historia ikerle batek honako hau dioela: *Aitasantu Erromakoa Avignongoari gutun bat bidali zion*. Hor *Erromako* izenlagunak balio zehaztailea du, eskuinean egon arren. Izenari buruz dugun ezagutzak eta suposizioak agintzen dute hor, ez izenlagunaren posizioak, gauzak direnetik nahi genukeenera behartzen egoskortzen ez bagara behintzat. Neure buruari begiratuta esan dezaket *Exteberri Ziburukoa* eta *Exteberri Sarakoa* deituraren izenlaguna, zein ere zen haien hasierako balioa, zehaztailea begitantzen zaidala gaur egun (6).

(6) Ez da hau, esan bezala, lekukotasunak pilatzen hasteko lekua, baina ikus, adibide gisa, Axularren hau: *lurreco animaliac, aireco hegaztinac, itsasoco arraiñak, eta oihaneco çuhaitzac* (24), non ezkerreko izenlagun horiek guztiak “ez zehaztaile” diren.

Gauza bera esan daiteke, posesiboa dela-eta Garziak egiten duen ohar zorrotz bezain oker bati dagokionez ere. Honela dio Garziak: "Alde honetatik, majo luzitu dira *Aita gurea* bera ere «Gure aita» modernotzeko biboteak izan dituztenak, zeren, zehaztailetasun ez batere pertinente bat ezartzeaz batera, ez baitira nonbait konturatu testu zahar eta batez ere sakratuek arkaismoa berezko eta bidezko ezaugarri jator dutela, hemen eta Pernan(do)bukon" (393).

Ederra kontua! Noiztik da, ordea, moderno *Gure Aita* forma hori? Moderno, XVI. mendean hasita Leizarragak, Materrek, Belapeirek eta Iparraldeko eliza-testurik zaharrenek darabilten forma? Ez, bereizketa ez da —"Hegozentrismo" antzuan erori nahi ez badugu, behintzat— zahar-modernoen artekoa, Iparraldeko-Hegoaldeko tradizioen artekoa baizik: haiek *Gure Aita* erabili dute beti eta *Aita gurea* hauek —aukera bikoitz horren azpian ez ote daude, hurrenez hurren, frantseseko *Notre Père* eta gaztelaniako *Padre nuestro*?—. Eta, jakina, zehaztailetasunak ez du zerikusirik hor. Izan ere, kristau otoitzetako *Aita* hori guztiz zehaztua dago berez, *gure*-rekin nahiz *gure*-rik gabe eta honen kokapenak ez du zereginik horretan.

Labur esanda: erlatiboa izenaren eskuinean koka daiteke, bai, baina arrazoi praktiko eta estilistikoei zor zaie hori seguruenera, ez zehaztasun kontuetara, posizio horretan ere, ezkerrean bezala, izenak agintzen duenera irekia baitago hura.

3. ERLATIBO ARRUNTAREN BALIOA

3.1. Zer esan daiteke, bada, kontuak horrela badira, euskarazko erlatibo arruntaren balioaz? Argi dago: goiko adibide ugariek erakusten duten moduan eta De Rijkek (156. or.), Oyharçabalek (125hh) nahiz Hídalgo (120. or.) agerian utzi duten bezala, erlatiboa berez neutroa dela balio zehaztaileari dagokionez. Egitura beti bat dela, alegia, zehaztailetasuna gorabehera. Perpaus erlatiboak zerbait atribuitzen dio izen ardatzari, hari buruzko informazio zerbait ematen du. Beti egiten du hori. Informazio horren zeregina, ordea, ez da berez izenaren erreferentzia mugatzea eta hura zeini dagokion zehatz identifikaraztea. Batzuetan egiten du hori eta beste batzuetan ez.

Inguruko hizkuntza batzuetan badira erlatibo mota bien artean aldeak, perpausaren egituraren berean islatzen direnak: erlatibo zehaztaileak izenaren sintagmaren barneko osagaiak dira, hau da, sintagma bat eratzen dute harekin; zehaztaile ez direnak, berriz, sintagma hartatik kanpo daude, harekiko aposizioan (7). Gaztelaniaz ondo bereizten dira, esate baterako, *el hombre que vive contigo* zehaztailea eta *el hombre, que viene del mono* azalpenekoa.

(7) Horregatik "aposiziozko erlatibo" esaten zaie azalpeneko erlatibo horiei. Ugaria da honi buruzko bibliografia. Ikus, besteren artean, Lujan 1980: 53hh.

Euskaraz, ordea, esan bezala, ez dago horrelako alderik erlatiboaren egitura: hau beti bat da. Izen ardatzaren izaera da erlatiboaren balioa erabakitzen duena. Hura zehazkaia baldin bada, erlatiboak zehazte lan hori beteko du:

(31) Ez da harritzekoa Maiterekin bizi den gizona pozik egotea.

Perpauk horretan *gizon* izena gizonen multzoko banako bat izendatzeko erabiltzen du hiztunak eta, beraz, zehazteko dago, [+ *zehazkizun*] ezaugarria du. Erlatiboak betetzen du zehazte lan hori.

Baina izena zehazkaia ez bada, hau da, [- *zehazkizun*] ezaugarria badu, erlatiboak ez du zehazte lan hori egiten —horretarako modurik edo aukerarik ez baitu—:

(32) Ez da harritzekoa tximuagandik sortu den gizonak abere-ezaugarri batzuk izatea.

Perpauk honetako *gizon* ez da zehazkaia, generikoa baizik, hau da, gizonen genero osoari dagokiona, eta, beraz, hortik aparteko zehazte eta identifikaziorik eskatzen ez duena. Ikusten denez, ordea, erlatiboaren egitura bat da bietan.

3.2. Noiz esan daiteke, bada, izen ardatza [- *zehazkizun*] dela eta, hortaz, erlatiboak balio zehaztailerik ez duela? Kasu bat baino gehiago dago.

a) Hasteko, gorago ikusi bezala, izen propioak daude. Hauek, berez, banakoak izendatzeko berariaz ezarritako izen bereziak direnez, guztiz zehatzak dira eta besterik gabe identifikatzen dute izendatua. Ez dute zehaztailerik hartzen, ez erlatiborik ez bestelakorik. *Axular* esaten badugu, konparazio batera, ez dugu ondoan zer besterik erantsi —normalean, bederen— nori buruz ari garen zehazteko.

Ageriko gauza da, horrenbestez, izen propioak ez duela osagarri zehaztailerik hartzen. Osagarriren bat hartzekotan, atributiboa hartzen du, azalpenekoa, izendatuari buruz informazio gehigarriren bat dakarrena. Eta hori bera ere izen arruntetan baino gutxiagotan gertatzen da, bere soilean agertzen baita maiz izen propioa, izendatze hutsaren zereginean. *Axular*, *Lenin*, *Greta Garbo*... esaten dugu maiz, eta kito. Eta azalpeneko osagarriren bat eransten dugunean, hain zuzen, izendatuaren ezaugarri bat nabarmentzeko edota agerian jartzeko egiten dugu. Horregatik ez da harritzekoa horrelakoetan maiz nolabaiteko ponderazioa agertzea: *hainbeste dakien*, *hainbeste lan egin duen*, *hain ondo jokatu duten*, *horren traketsa den*...

Maiztasuna gorabehera, ordea, ezin uka daiteke *erlatibo arrunta* + *izen propioa* egitura eginkizun dela euskaraz, erlatiboak balio “ez zehaztailea” duenlarik, noski. Horrelakoak dira gorago aurkeztu ditugun (8)-(9) eta (12)-(17) adibideetako perpausak, erlatiboa izenaren ezkerrean dutenak, eta (10)-koak, eskuinean dutenak. Horiei erants dakizkieke izen ardatza *Jaun*, *Jainko*, *Errege* eta horrelakoak dituztenak, haiek ere izen propiotzat har baitaitezke.

Asmatzen hasita, berriz, adibide asko eskain daitezke, onartzeko aitzakia-rik ez dutenak:

- (33) a) Bost Tour irabazi dituen Indurain izan da txirrindularirik onena.
- b) Amerika aurkitu zuen Coloni harrera beroa egin zioten Gazte-
lan.
- c) "El Quijote" idatzi zuen Cervantesek beste zenbait liburu ere
idatzi zuen.
- d) Hainbeste film zoragarri egin zituen Charlotten izena ez da be-
rehala ahaztuko.

Salbuespenak badira, ordea. Izan ere, erraz azal daitezkeen kasu jakin ba-
tuetan izen arruntan pare erabiltzen ditugu izen propioak [+ zehazkizun] ezaui-
garria dutela. Eta horrelakoetan, jakina, zehaztaile eta guzti ageri dira.

Jokabide estilistiko berezi bat badago, esate baterako, non izendatua nor-
tasun bat baino gehiagotan banatu bezala egiten den eta haietako bat bereizten
den erlatiboaren (34a) edo beste osagai zehaztaile baten (34b) bitartez.

- (34) a) Hori da, hori, niri gustatzen zaidan Athletic!
- b) Alde ederra dago oraingo Josefina baldar honen eta gaztetako
Josefina lirain haren artean.

Beste kontu bat da izen propioek guztiz "propio" izateko duten ezintasu-
netik datorrena. Munduan izan diren, diren eta izango diren pertsona eta leku
guztiei bere izena eman behar bagenie, bakoitzari berea eta besteena ez be-
zalakoa, milaka eta miloika izen desberdin asmatu beharko genituzke, eta hori,
bistan da, ezinezkoa da. Horregatik ditugu hainbeste *Jose* eta hainbeste *Maria*.
Eta horrexegatik, halaber, beste osagairen bat eransten zaie maiz horrela erre-
pikatzen diren izenei, "propio" izaten jarrai dezaten: *Jose Artetxe*, *Atano III.a*,
Antso Azkarra, *Etxeberri Sarakoa*... Horren antzeko zehaztea egin daiteke er-
latiboaren bidez ere, bi pertsonak edo bi lekuk izen propio "bera" dutenean:

- (35) a) Athletic-en dabilen Guerrero da selekziora eraman dutena, ez
Realean dabilena.
- b) Futbolean dabilen Nagore pilotan aritzen dena baino gazteagoa
da.
- c) Euskal Herrian dagoen Tolosaz ari naiz, ez Frantziakoaz.

Kasu jakin horietan izan ezik, ordea, azalpenekoa da, esan bezala, izen
propioarekin doan erlatiboa.

b) Ezaugarri hori bera du, bigarren, izenak balio generikoarekin erabil-
tzen denean. Orduan ere erreferentzia jakina da eta, hortaz, ez da zer ibili ze-
hatza zehazten. Azalpenekoak dira horrelako erlatiboak ere.

- (36) a) Khen zedin, hanbat kalteren eta damuren haste eta pizgarri den
alfertasuna (Axular: 24, gorago aipatua).

- b) Gaur hasi da osasunarentzat horren kaltegarri den tabakoaren aurkako kanpaina.
- c) Ez genuke sekula galdu behar giza harremanak gozatzen dituen gizalegea.
- d) Uxa dezagun gure artetik hainbeste atsekabe sorrarazten duen inbidia.

Horietan guztietan erlatiboaren ondoko izena modu generikoan erabiltzen da eta ez ditu, hortaz, balizko multzo baten banakoak bereizten. Ez da, alegia, alfertasunen arteko *alfertasun mota* jakin bat bereizten, edota *tabako mota* jakin bati erreferentzia egiten, *gizalege klase* jakin bat mugatzen...

Balio generiko bera izaten du inoiz izenak pluralean erabiltzen denean, multzoko banako guzti-guztiei egiten baitzaie erreferentzia, haien artean bereizketarik egin gabe. Honela, esate baterako, Beriainen honetan:

- (37) Eta Ayta Sanduari emoçu fauore eta gracia, ongui Eliza gouernaceco [...] eta alauer verce aren manuairen azpian dauden Perladoey [...] acertadeçatê (Beriayn: 75).

Otoitz horretan Aita Santuaz gainerako Prelado guztiak ditu gogoan Beriainek. Haren “manuairen azpian” egotea ez da, bada, Prelado batzuk besteez gandik bereizten dituen ezaugarria, guzti-guztiei dagokiena baizik: erlatiboa azalpenekoa da, ez zehaztailea. Gauza bera gertatzen da beste honako adibide honetan ere:

- (38) Zu erabat liluratuta uzten zaituzten gerra-filmak niri astunak egiten zaizkit.

Hor ere, interpretaziorik ohikoenean bederen, ez gara gerra-film banaka batzuei buruz ari —zure gustuko direnei buruz, alegia—, gerra-film guztiez baizik, denak, oro har, baitituzu gustuko. “Zu liluratuta uztea” ez da, hortaz, gerra-film batzuk besteetatik bereizten dituen ezaugarria, denei dagokien azalpena baizik. Bestelako balioa du izenak, noski, ondoko adibidean:

- (39) Aurtengo zinemaldian aurkeztu diren gerra-filmak oso itsusiak izan dira.

Ondoko adibideetan ere aski argi ikusten da balio generikoa duten izenen eta bestelakoen arteko aldea —eta, era berean, azalpeneko erlatiboen eta balio zehaztailea dutenen artekoa—. Pare bakoitzeko aurrena da generikoa.

- (40) a) Horren denboraldi luzea izaten duten txirrindulariek pozik hartzen dute neguko atsedena.
- a') Ezarritako denbora-epean iristen ez diren txirrindulariak lasterketatik kanporatuak izaten dira.
- b) Txikitatik denetik jaten ohituak dauden amerikarrek harrera ona egin diote Txinako janariari ere.

- b') Europa ezagutzen ez duten amerikarrak asko dira.
- c) Ez al da barregarria hiltzeko jaio diren gizonak mundu hone-tako kontuez hain kezkatuta bizitzea?
- c') Mende honen hondarrean jaio diren gizonen teknologia aurre-
rapen handiak ezagutuko dituzte.

Aldea, ikusten den bezala, ez dago erlatiboaren egituraren, izen ardatzak duen balioan baizik. Hiztunak hura zehazkai moduan erabiltzen duen ala ez, horixe da kontua. Eta hiztunak hura nola darabilen testuinguruak salatzen digu maiz. Erlatiboaren edukia ere testuinguru horren parte da, noski, eta bitarteko egokia izan daiteke inoiz izenak perpaus jakinean nolako erabilera duen antz emateko. Haren edukiak, alegia, ez haren egiturak edo kokapenak.

Ez da harritzekoa, gauzak horrela izanik, anbiguitatea sortzea inoiz, ez erlatiboagatik, jakina, izena batera zein bestera uler daitekeelako baizik. Hona adibide bat:

(41) Zuk hain gustuko duzun txanpaina ere eramango dugu afarira.

Bi modutara uler daiteke perpaus hori, bistan denez: "txanpaina" izen generikoa izan daiteke —eta, hortaz, afarian txanpaina izango dela adierazten da, lagunak hain gustuko duen edaria, alegia—. Zehazkaia ere izan daiteke, ordea, txanpain mota edo marka jakin bat adierazten duena —eta orduan erlatiboak zehazten du zein markaz ari garen, lagunari gustatzen zaionaz, alegia—. Kontua ez da batere bitxia. Hona bitara uler daitezkeen beste adibide batzuk:

- (42) a) Dena dakitela uste duten kazetariak nazkatuta naute.
- b) Beti seme-alabei begira bizi diren gurasoen bizimodua neketsua da.
- c) Ez da batere erraza beti etxetik urrun dabilen kamioilariaren lana.
- d) Etxean eta kanpoan nagusi izan den gizonak ez du erraz onartzen emakumearen aitzinatzea.

Testuinguru zabalak garbituko du maiz anbiguitate hori eta hark salatuko digu hiztunak nola darabilen izena. Eta horrela jakingo dugu, esate baterako, kazetari guztiez edo dena dakitelakoan dauden bakarren batzuek ari den hiztuna (42a), guraso guztiez ala bere arduran aitzinegi doazen batzuek bakarrik mintzo ote garen (42b)... Eta ingurua ez bada aski zehatza kontua argitzeko, azalpenen bat erantsita lortuko da anbiguitatea haustea, hautsi nahi bada behintzat.

Dena dela, inoizko anbiguitate horrek berak erakusten du aski argi neutroa dela euskaraz erlatibo arrunta, hau da, izen ardatzak agintzen duenaren arabera jokatzeko duela.

c) Erlatiboa, hirugarren, izena bestelako osagai baten bitartez zehaztua duen izen sintagmari erants dakioke eta orduan, bistan da, balio esplikatibo edo azalpenekoa du hark, ez zehaztailea. Hona adibide batzuk:

- (43) a) Sekula haserretzen ez den *gure aita* bere onetik aterea ikusi dugu gaur.
- b) Aurten ehun urte bete dituen *Donostiako katedralean* ospakizun bereziak egingo dira.
- c) Bruselasko bileratik etorri berria den *Ekonomia Ministroa* itxaropentsu agertu da geroari buruz.
- d) Hain ondo ezagutzen duzun *ingeles literaturaz* hitzaldiño bat egitea eskatuko genizuke.

Perpaus horietako *gure aita*, *Donostiako katedrala*, *Ekonomia Ministroa* eta *ingeles literatura* izen ardatzak guztiz zehatzak dira —testuinguruaren jabe direnentzat, behintzat, aita, katedral, ministro eta literatura jakinez mintzo baitira, hurrenez hurren—. Erlatiboak, berriz, haiei buruzko informazioa ematen du, besterik gabe, hau da, balio zehaztailerik gabe. Hain zuzen ere, erlatiboaz gabetuta ere ez dute perpaus horiek ezer galtzen zehaztasunean.

Izen soila bera ere testuinguruak egin dezake guztiz zehaztua. Alde horretatik ez da erabat zuzena, nire ustez, Garziak dioena: “Beste honetan, jakina, zentzu zehaztailea erabat nagusituko litzatekeela (lehendakaria ez bezala, bat baino gehiago baitira ministroak, besteak beste): oporretan etorri zaigun ministroaren prentsaurrean” (399). Testuingurutik landa zehaztaile gisa ulertuko da maizenik perpaus hori, beharbada, bai, baina ez da zaila bestela ulertzera eramango gintuzketen testuinguruak asmatzea. Demagun Gobernu ministro jakin bat urtero etortzen dela udan *gure* herrixkara oporrak egitera eta aurten ere haren iritsieraz mintzo dela herriko egunkaria:

- (44) Urtero bezala aurten ere oporretan etorri zaigun ministroak hitz politak esan ditu *gure* herriaren alde.

Testuinguru horren jabe denentzat izenaren erreferentzia zehatza da, erlatiborik gabe ere. *Zer, etorri al da aurten ere ministroa?*, galdegin diezioke herri horretako lagun batek beste bati, zein ministroz ari diren batere zalantzarik izan gabe. *Bai, etorri da, eta hitz politak esan ditu ostera ere gure herriaren alde* izan daiteke beste milaren arteko erantzuna.

Hiru kasu horietan, bada —eta besteren batean, beharbada—, izena zehaztua dagoenez, [- *zehazkizun*] da eta erlatiboa nahitaez azalpenekoa izango da. Hura zehaztailea izango bada, hain zuzen, izenak [+ *zehazkizun*] ezaugarria izan behar du (8).

(8) Izena mugagabearen denean ere erlatiboak ez du hura erabat zehazten, ezinezkoa baita hori definizioz. *Kanpotarra zirudien gizon batekin joan da* perpausean, esate baterako, gizonen multzo zabaleko kide bat aipatzen da eta hari buruzko informazio zerbait ematen da —“kanpotarra zirudiel”, alegia—, baina ez da erabat identifikatzen eta zehazten gizon hura zein den. Ezin da, gainera, hori egin, “bat” dela esaten baita, kontua hortik aurrera mugatu gabe. Horrelakoak, Euskaltzaindiaren *EGLU-V* gramatikaren arabera, “murrizgarriak” dira bai —hots, neurri batean zehaztaileak—, baina ez “mugagarriak”.

3.3. Erlatiboa maizenik izen ardatzaren ezkerrean joan ohi bada ere, argi dago haren eskuinean ere joan daitekeela eta ez gutxitan hala joaten dela, goiko adibideetan ikusi den bezala. Eta, esan dugun moduan, kokapen horrek balio zehaztailearekin lotura zuzena ez badu, galdegin daiteke, azkenik, noiz eta zein testuingurutan ageri den erlatiboa leku horretan.

Ez da hau, noski, eskuineko kokapenaren inguruko gorabehera guztiez mintzatzeko lekua, ez baita hori lan honen xedea (9). Zenbait azalpen eman daitezke, hala ere. Oyharçabalek dioenez, diskurtsoaren eraketarekin dago lotua. Izena agerianago jartzeko modu bat izan daiteke, batetik, edota izenaren determinatzaile guztiak aurretik “erabakiak” ez daudenean erabiltzen den baliabidea: lehenbizi izena esan eta ondotik haren determinatzaileak “pentsatu”.

Diskurtso gorabeherak, eta inoiz estilistikoak, dira, bada, horrelakoan tar-teko. Zenbaitetan erlatiboa adjektibo batzuen segidan ematen da eta, orduan, haien artean txertatua ageri da, haien posizioan, izenaren eskuinean. Hona, esate baterako, Mogelen hauek —gorago eman dugu lehena, non *lotsagarri* adjektiboa eta *damu emoten deusten* erlatiboak segidan dauden—:

- (45) a) aitatuten deustezan izen [*lotsagarri*] [*damu emoten deusteen*]ak (Moguel: 41).
- b) Daukat Jaungoikoak emonda emazte [*otzan*], [*baketsu*], [*euli bati bere gatzik egingo eleuskion*]a (Ib.: 58).
- c) da ordi [*posiga*] [*etxe guztia ondatu daben*]a (Ib.: 33).

Edota beste *gaizto*-rekin batera *zuzendu ezin diren* erlatiboa duen hau:

- (46) Aspertutik naukate mutil [*gaizto*] [*zuzendu ezin diren*] horiek!

Erdal adjektiboen ordain egokia izan daiteke erlatiboa: “incoregible” itzultzeko, adibidez, *zentzakaitz*, *zuzengaitz* eta horrelakoez gain *zuzendu ezin den* erlatiboa ere erabil daiteke; eta “inalcanzable” itzultzeko ere *lortu ezin den* perpaus erlatibora jo dezakegu. Eta, zenbaitetan, adjektiboaren oihartzun izate horrek eragiten du beharbada eskuineko kokapena. Horrela, Axularren *animalia adimendurik ez duen* itzuliaren atzean erdarazko *animal irrationnel* dago, beharbada —beste behin Axularrek berak *animalia adimengabe* esaten duena—, non, bistan da, *adimendurik ez duen* erlatiboa *irrationnel* adjektiboaren ordain baita eta horrek eragina bide duen haren kokapenean. Leizarragaren *Guïçona da [...]* *animal raçoin duembat* perpausaren atzean ere erdarazko *animal rationnel* dagoke.

Beste zenbaitetan, berriz, izenaren inguruan elementu bat baino gehiago pilatzen dira —izenlagun bat eta erlatibo bat; erlatibo bi (10)...—, eta horre-

(9) Luze ematen du Oyharçabalek eskuineko itzuli horren berri. Zenbaitentzat desegokia den arren, euskalki guztietan dago dokumentatua, hark erakusten duen bezala (18hh.). Zabal aztertzen du, halaber, kontu hau Bittor Hialgok.

(10) Zenbaitek eskuineko kokapen honen aurka dituzten iritziak leundu egiten dira maiz erlatibo biko perpausen kasuan, Oyharçabalek azaltzen duenez (21 or.).

lakoetan egokia izan daiteke erlatibo horiek izenaren alde banatan ezartzea, bide batez, ordena jarraituan “galduxea” geratuko litzatekeen izena agerianago utziz. Ikus gorago aipatu ditugun Mogelen adibide hauek:

- (47) a) *lengo eguneko ipuiñ abadeak atera ta irakatsi eutsuna* (Moguel: 61).
 b) *txikitan guraso edo eskola maisuak irakatsi eutsuzan eskari Eleizeak artuta daukazanak* (Ib.: 28).
 c) *zuri entzuten deutsudazan izen neuk eztakidazanak* (Ib.: 49).

Hala ere, ezker-eskuinetan banatze hori ez da nahitaezkoa, erlatibo biak ezkerrean dituen perpaus honek erakusten duen bezala:

- (48) orain iatort gogora [*gaztetan ikasi neban*] [*asko esan gura daben*] ipuiñ au (Ib.: 55).

4. AZKEN HITZA

Erlatibo arruntaren balioari buruz Garziak aurkeztutako teoria aztertzea zuen helburu lan honek. Erakusten saiatu naiz haren “sistemak” euskaldunon gramatikan oinarririk ez duela. Kokapenaren arabera erlatiboak balioa desberdina duelako hori haren *ustea* dela gehienaz ere, ez euskarak duen jokabidea (11).

Inguruko hizkuntzek badute, bai, erlatibo zehaztaileen eta ez-zehaztaileen arteko bereizketa hori. Hala da. Zer, ordea, hala bada ere? Oyharçabalen hitzekin esanik: “je ne crois que l’on puisse procéder de la sorte, et importer sans analyse du fonctionnement réel de la langue, des distinctions qui apparaissent dans d’autres langues, mais qui ne sont en aucune manière universelles” (126 or.).

AIPATURIKO LANAK

AKESOLO, Lino. 1989: *Idazlan guztiak I*. Larrea - Zornotza: Ediciones El Carmen.

—. 1987: Gregorio Arrueren *Santa Genovevaren vicitza*-ren edizioa eta hitzaurrea. Erein. Donostia.

AXULAR. 1643: *Guero*. Bordele: G. Milanges. [Facs. Bilbao: Euskaltzaindia. 1988].

(11) Beste kontu bat da —eta horretan zuzen dabil Garzia— itzulpenetan-eta arazoak sortzen direla erdal erlatibo luze eta konplexuen euskal ordaina ematerakoan, itzulpen literalak pisu eta ezeroso gertatzen baitira maiz. Funtzionalak izango badira, bai egiteko eta bai ulertzeko, bestelako egituraren bat eman beharko diegu sarri askotan horrelako perpausai. Baina hori, esan bezala, beste kontu bat da. Eta ez da komeni itzulpengintzarako egokiak diren ohar horiek euskal gramatikaren teoriekin nahastea.

- BERIAYN, Iuan. 1621: *Tratado de cómo se ha de oyr missa*. Pamplona. [Facs. Donostia: Hordago (Lur). 1980].
- ECHAIDE, I.M. 1912: *Sintaxis del Idioma Euskara*. San Sebastián.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V* (argitaratzeko).
- GARZIA, Juan. 1997: *Joskera lantegi*. Vitoria-Gasteiz: IVAP.
- GOENAGA, Patxi. 1978: *Gramatika bideetan*. Donostia: Erein.
- HIDALGO, Bittor. 1998-99: *Izenaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz*. Donostia. (Argitaragabea).
- LARDIZABAL, Francisco Ignacio de. 1856: *Gramática vascongada*. San Sebastián: I.R. Baroja.
- LEIZARRAGA, Joannes. 1571: *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*. Rochella. [Facs. Donostia: Hordago (Lur). 1979].
- LUJAN, Marta. 1980: *Sintaxis y semántica del adjetivo*. Madrid: Ediciones Cátedra.
- MICOLETA, Rafael de. 1635: Ikus Ibon Sarasola, "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos", *ASJU* 1983, 69-212.
- MOGUEL, Juan Antonio de. 1981⁸: *Peru Abarka*. Bilbao: Editorial La Gran Enciclopedia Vasca.
- OYHARÇABAL, Bernard. 1985: *Les relatives en basque*. Paris: Département de Recherches Linguistiques (D.R.L.) - Laboratoire de Linguistique Formelle (U. A. 04 1028).
- RIJK DE, Rudolf. 1972: *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses* (MIT).
- SAN MARTIN, Juan. 1998: *Euskararen ostarteak*. Donostia: Erein.
- VILLASANTE, Luis. 1976: *Sintaxis de la oración compuesta*. Oñate: Editorial Franciscana.

GRAMATIKA EREMUKO ZALANTZEI ERANTZUNEZ

**GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUNA LANDER
ARRASATE JAUNAK (LIZARDI EUSKALTEGIA-AEK),
MEREZI IZAN ADITZAREN ERABILERAZ EGINIKO
GALDERARI**

*Lander Arrasate
Lizardi Euskaltegia. AEK*

Merezi izan aditza dela-eta, galdera bat egin digu Arrasate jaunak. Horretarako ontzat ematen diren zenbait perpaus ematen ditu:

*Mikelek saria merezi du.
San Ferminetara joatea merezi du.
Donostiako Alde Zaharrera joatea merezi du.*

Horietatik abiatuz, galdetu digu ea ondoko perpaus hau (Euskaltzaindiaren 31. arauan esaten denaren kontra doana) ontzat eman daitekeen:

Arestian aipatutakoak, (hau da) Donostiako Alde Zaharrera joateak, merezi du.

Gramatika batzordearen iritziz perpaus hori txartzat ematekoa da. Egia da *merezi izan* aditzak ergatiboa eska dezakeela (*Mikelek saria irabazia du*), baina aditz horren bi erabilera bereizi beharrean gara:

1. Subjektu ergatiboa eta objektu absolutiboa duena:

*Mikelek saria merezi du.
Mikelek saria jasotzea merezi du.*

2. *Merezi izan* aditzaren erabilera inbertsonala, subjektu ergatiborik ez duena:

*Merezi du lan egitea.
Merezi du Euskal Herria ongi ezagutzea.*

Goian aipatzen den zalantzazko perpausa bigarren egiturakoa litzateke, subjektu agerikorik ez duena. Beraz, perpaus hori erabili nahi izanez gero, honelako zerbait gomendatuko genuke:

Arestian aipatutakoa egitea, Donostiako Alde Zaharrera joatea, merezi du.

Besterik gabe, adeitasunez.

Gasteizen, 1999ko maiatzaren 5ean.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

* * *

GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUNA ZORNOTZAKO BARNETEGITIK (AURTEN BAI) EGINIKO GALDERARI

Egia da, galderan esaten den bezala, *espero izan* aditza nominalizazioa-
rekin erabiltzen dela normalean:

Zu etortzea espero dut.

Nolanahi ere, ez da molde bakarra. *-ela*-dun perpaus osagarri bat ere lagun
duela eman baitaiteke aipatu aditza:

Etorriko zarela espero dut.

Beraz, biak erabil daitezke *espero izan* aditzaren osagarri gisa.

Erregimen berbera dute beste aditz batzuek ere:

Jaialdira joatea agindu nion.

Jaialdira joango nintzela agindu nion.

Besterik gabe, adeitasunez.

Gasteizen, 1999ko maiatzaren 5ean.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

* * *

*Miren Atutxa
Galdakaoko Udala*

GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUNA MIREN ANDEREA (GALDAKAOKO UDALA) EGINIKO GALDERARI

Galde egin digu bizkaierazko gerraurreko liburu batean aurkitu dituen adizki bitxi batzuei buruz, [aditz jokatua + *-danik* atzizkia] formei buruz (*zandantik, yakundantik, ebendantik...*). Dirudienez, denborazko perpaus mendekoen balioa dute.

Forma hauek Gramatika batzordearen ustez ez dira inondik ere arruntak eta ez dirudi euskara batuan lekurik izango luketenik gaur egun. Jakina da, bestalde, *-danik* atzizkia adberbioei atxekita erabiltzea dela ohikoena.

Besterik gabe, adeitasunez.

Gasteizen, 1999ko maiatzaren 5ean.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

* * *

*Patxi Zuluaga
Santutxuko AEK*

GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUNA PATXI ZULUAGA JAUNAK (SANTUTXUKO AEK) EGINIKO GALDERARI

Hainbat galdera egiten dizkigu Zuluaga jaunak zenbait aditzez, erregimenez, izenordainez eta mugatzailez.

1. Zilegi da esatea?

- Mendira joatea gustatuko litzaidake.
- Pastela gustatuko litzazuke.
- Mendira joatea gustatzen zait.
- Pastela gustatzen zait.

Bai, noski. Guztiak erabil daitezke, *gustatu* aditzaren erregimenak izena nahiz aditz-izena, biak, onartzen baititu.

2. *Hil* eta *hilabete* sinonimoak dira? Ez badira, zein da azalpena?

Izan litezke sinonimoak; hala ere, bi erabilera gogoratu nahi ditugu Euskal Herrian:

— Hiztun batzuek ez dute *hilabete* baizik erabiltzen (Iparraldean, adibidez).

— Beste batzuek desberdindu egiten dituzte: *hila*, urtea banatzen den hamabi zatietako bakoitza (*hilen izenak*, *neguko hiletan*, *maiatzeko hila*, eta abar.) eta *hilabetea*, denbora hedaduratzat hartzen da, hilaren hasieratik amaiera arteko denbora -tartea (*hilabetean egon naiz Grezian* = hilabete osoan).

3. Zuzenak dira?

— Nik lana egin dut: BAI.

— Nik zuk lana egitea nahi dut: BAI.

— Nik lana egin nahiago dut: BAI.

— Nik lana egitea nahaiago dut: BAI.

— Nik zuk lana egin nahiago dut: EZ.

— Nik zuk lana egitea nahiago dut: BAI.

Perpaus nagusiko subjektua eta mendeko perpausekoa erreferentzikide direnean (subjektua bietan bera denean), ohikoena partizipioa erabiltzea da (*nik lana egin nahi dut*, *nik lana egin nahiago dut*). Hala ere, zenbait hiztunek -tzea aditz-izena erabiltzen dute (*nik lana egitea nahiago dut*).

4. Noiz erabili behar da marratxoa?

— Uda oporrak.

— Uda-oporrak.

Kasu horretan bietara idatz daiteke, marratxoa aukeran legoke, Euskaltzaindiaren arauetako 25.ean adierazten den bezala (ikus *eguzki-lore* bezalako menpekotasunezko izen-elkarteak).

Edozein kasutan ere, badugu gure artean hedatuagoa eta erabiliagoa den forma bat: *udako oporrak*.

5. Arau berrietan “J” ahoskatzen dela “Y” izango balitz bezala esaten duzue, baina beti ez da horrela, zeintzuk dira arau hori betetzen ez duten hiztutak? Zerrenda bidaltzea nahi dut.

Gramatika batzordea ez da eginkizun horretarako egokiena. Ematekotan, Ahoskera batzordeak edo LEF batzordeak eman lezake horren berri guk baino zuzenago.

6. Esapide hauek zuzenak dira?

— Ana, Mikel, Jon, Carlos eta ni joan gara: BAI.

— Ana, Mikel, Jon, Carlos eta bostok joan gara: BAI.

— Ana, Mikel, Jon, Carlos eta denok joan gara: BAI.

— Ana, Mikel, Jon, Carlos eta guztiok joan gara: BAI.

— Ana, Mikel, Jon, Carlos eta orok joan gara: EZ.

Azken honetan egokiagoa litzateke hau:

— Ana, Mikel, Jon, Carlos eta ni, oro joan gara.

7. Zuzenak dira?

— Langile bera etorri da: BAI.

— Langile berak kotxea ekarri du: BAI (euskara batuan: *auto*, *automobil*, *beribil*).

— Langile beraiek etorri dira: ZALANTZAZKOA.

— Langile beraiek kotxea ekarri dute: ZALANTZAZKOA.

— Langile berak etorri dira: BAI.

— Langile berek kotxea ekarri dute: BAI.

— Langilea bera etorri da: BAI.

— Langileak berak kotxea ekarri du: BAI.

— Langileak beraiek etorri dira: BAI.

— Langileek beraiek kotxea ekarri dute: BAI.

— Langileak berak etorri dira: BAI.

— Langileek berek kotxea ekarri dute: BAI.

— Bera etorri da: BAI.

— Berak kotxea ekarri du: BAI.

— Beraiek etorri dira: BAI.

— Beraiek kotxea ekarri dute: BAI.

— Berak etorri dira: BAI.

— Berek kotxea ekarri dute: BAI.

Azken hauek denak daude ongi euskara batuan, Euskaltzaindiak oraingoz ez baitu hauturik egin izenordain hauen artean.

Azkenik, etorkizuneko kontsultetan eskertuko genizuke bidali behar dituzun egiturak testuinguru zabalagoan, luzeagoan bidaliko bazenizkigu; errazagoa izango da hartara horien gainean iritzia ematea.

Besterik gabe, adeitasunez.

Gasteizen, 1999ko maiatzaren 5ean.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

ONOMASTIKA

SANTU, SAN, DONE ETA INGURUKOAK

1999-IV-22

Patxi Salaberri Zaratiegi,
Onomastika batzordekidea

Santu izendegia onartu ondoren, beharrezkoa ikusten du Euskaltzaindiak izen horiekin joaten ohi dena, aurrean edo atzean, arautzea.

Ezaguna da euskaraz santu izen batzuek, hain zuzen ere zaharrenek, latineko *dominus / domina* hitzetatik atera diren *done / dona* dituztela aldamenean. Aebischer, Dauzat, Meyer-Lübke eta beste erromanista batzuek erakutsi duten bezala, ohitura hori oso goiztiarra izan zen Europan eta 11. mendera arte aski arrunta. Gogora bitez *Dompierre / Dampierre, Donremy, Dommarie / Dammarie* izenak, esaterako. Usadio zahar horretan, euskaraz maiz *jaun / andre* eransten zen, beste hizkuntzetan egiten zen gisa.

Zenbait autoreren erabilera ikus daiteke adibide hauetan:

Andre Dona Maria (Etxepare), *Andre Dona Maria* (Beriain).

Donalalla (Lizarraga Elkanokoa, 'Santa Eulalia').

Jandone Cue ('Jaun Done Jakue', Olaetxea).

Done Meteri Celedon (RS).

Iaundone Miquel Aynguerua (Beriain).

Iondone Petri (Axular); *Iandone Peri* (Viva Jesus).

Jaun Done Petri (1), *Jaundone Jacua* (Duhalde).

Jaun Done Joane (Duvoisin).

Done-ren aldaerak ez dira gutxi testu zahar eta berrietan: **Jandone** (Olaetxea), **Jaundone** (Beriain, Duhalde), **Iaundone** (Kapanaga), **Iuandone** (Beriain), **Ioandone** (Betolatza, Beriain), **Jaun Done**, **Jaun done** (Jauretxe, Jon Etxaide (2)), **Iandone** (Viva Jesus, Betolatza, Kapanaga), **Joandone** (Tartas), **Jondone**, **Iondone** (Béla, Axular, Pouvreau, Harizmendi, Larreko, P. Iturralde

(1) Aurrekoan Jauretxe agertu arren Duhalderi zegokion aipua.

(2) "Euskal pontizen batzuk aztarrikatuz", *Euskera*, XXX 2. Aldia, 513-525.

[Lafitte?; zuberotar baten ahotan]], **Jondane** (Pouvreau), **Dona** (Pouvreau), **laundoni** (Etxeberri Ziburukoa), **Jaun Doni** (Lapeyre), **Iondane**, **Jondane** (Belapeire, Maytie); **iondané** (*Pronus*, Belapeire?), **Iondoni** (Xurio, Baratzia, Laphitz), **Jondoni** (Lavieuvville, Haraneder, Monho, Larreko, P. Iturralde [Lafitte?], J. Hiriar-Urruti-II), **Yondoni** (Manezaundi), **Jon Doni** (Oxobi), **Yaundoni** (Bernard Larregi), **Jundene** (Añibarro), **Jundane** (A. Xaho), **Done** (RS, Añibarro, Iztueta, Txomin Agirre, Larreko, Orixe), **Doni** (*Üskara libria*), **Jaun-done** (Aresti). Orixe, gainera, *Donibane*, *Gurutzeko Donibane* edo *Donibane Gurutzeko* eta *Iban Gurutz* ibiltzen ditu.

(*Andre*) *Dona*-k aldaera gutxiago ditu: **Andredena**, **Andre Dena** (B. Etxepare, Gazteluzar, Larreko, Manezaundi, Oxobi, P. Iturralde [Lafitte?]), **Andre dona** (Beriain), **Andre-dona** (Aresti), **Andrane** (Betolatza, Kapanaga), **Dona** (Lizarraga Elkanokoa), **Done** (Txomin Agirre).

Done bakarrik ere agertzen da testu zaharretan, gutxitan izan arren:

Otu doneari ygarartean nequea, RS 545 (cf. Oihenart 662: *Othoi sainduari, deraunsano ekaizari*).

Orobat testu berriagoetan: *Done* (Iztueta, Txomin Agirre), *Jondonea* (Larreko).

Zer esanik ez, leku-izenetan oso ugariak dira *done* / *dona* (eta aldakiak), bai eta jai izenetan ere (elkarketa legeengatik, *done* > *dona* dugu maiz):

Donostia (<**Donesebastiani*).

Doneztebe (*Santesteban* erdaraz); *Joan Done Estebe* (Lareki, Urraulgoiti), *Juandone eztebe* (Eslaba).

Dona Gracia (Espartza-Galar; Orotz-Betelu; Aietxu).

Dona Julia (Deierri).

Donamaria (herria); *Andredonamarialdea* (Bidaurre), *Dona Maria* (Deierri; Leotz; Muru-Arteederreta; Narkue...).

Donaralla (Santa Eulalia, Orban eta Aranguren), *Donadalla* (Artzibarren).

Dona Pia (Iruñea).

Donamartiri (fr. Sain-Martin-d'Arberoue); *Joandonemartie* (Irurre).

Donapaleu (fr. Saint-Palais); *Donapara* (<**Done Perai*, Aberasturi); *Donelaio* (Burgi); *Joandenebelayo* (Eslaba).

Donaisti (<**Done Justi*).

Donibane; *Donineko jaiak* (Bakio).

Donacuilar (<**Done Jakue larra*, Arabako Villafrancan); *Joan done Jacue* (Aria).

Dona Loria (Santa Alodia, Eulaten).

Done Meteri (Gastiain, Larragoa).

Done Miquendi (Mañeru).

Done Miri (Arroitzén, Biurrunen eta Oletan).

Doneperuaga (Deustuko San Pedro eliza, antzina).

Done Tomo (Burgi).

Durruma (<**Done Errumane*) "la fiesta de Durruma", esaten da Arabako herrian, hots, San Roman herrian. Cf., gainera, *Juandeurruma* Maeztun.

Jandoneperi (Arrigorriaga).

Juandenurgi (Azazetan). Cf. *Sandijurgi*.

Juan Dene Marti ondoa (Ibero).

Joan done ortuxi (San Frutos, antza duenez) Orba ibarrean.

Joan done Miquel aldea (Egues); *Juandenemiguelaurrea* (Muzki).

Juandone Julio (Moriones); *Done Jurio* (Leatxe).

Joandone Salvatore (Irangote, Oibar harana).

Literaturak eskaintzen dizkigun lekokotasunak gogoan edukirik, beraz, ez da garbi ikusten zergatik hautatu behar den, zenbaitek proposatzen duten moduan, **Jondoni** aldaera batutzat, hau da, zergatik aukeratu behar den, dauden hamaika aldaeren artean, forma itxuraldatu hori. Zergatik ez, ildo beretik, Axularren eta besteren **Jondone** edo Lapeyteren **Jaun Doni**? Eta zergatik ez men-debaldeko tradiziokoa den **Jandone**? Gure ustean aldaerarik gardenena, euskaldun guztiendako ulertterazena dena, **jaun done** da dudarik gabe, eta ez dugu pisuzko arrazoirik ikusten **jondoni** proposatzeko. Era berean, femeninorako egokiago ikusten dugu **Andre dona Andre dena** edo **Andredena** baino.

Irizpidetzat literaturan erabili dena hartuz gero, badira beste aldaera batzuk hori bezain onargarriak direnak. Gainera, kontuan eduki behar da gure zenbait idazlek **Jaun Done** aposizioa eta aldaerak ohikoak, tradiziokoak diren izenekin ez ezik, horrelako osagarriak behin ere izan ez duten beste izen askorekin ere ibili dituztela. Esaterako, hor daude Larrekok ibiltzen dituen *Jondone Augustin* / *Jondoni Augustin* (3), *Jondone Atanasi*, *Jondoni Domingo*, *Jondoni Fermin*,

(3) Hagionimo honen kasuan ezin esan dezakegu inoiz erabili ez dela, Orbako toponimian honen euskarazko aldaera bide den *Juan done mustio* azaletzen baita. *Mustio*, irudiz, aurreko **Augustino* batetik aterata dateke.

Jondoni Ferrando, Jondone Frantzisko Asiskoa / Jondone Asiskoa / Jondoni Franzisko Xabier / Jondoni Frantses Xabier, Jondone Iñaki / Jondoni Ignazio, Jondoni Iñaki (Loyolakoa), Jondoni Isidore, Jondoni Isidro, Jondoni Jakes, Jondoni Joan ebanjelaria, Jondone Jose, Jondoni Juan, Jondoni Juanes, Jondoni Juani, Jondoni Joni Batista, Jondoni Martin, Jondone Mikel / Aralarko Jondone Mikel / Jondoni Mikel(Aralarkoa), Done Nikola / Jondoni Nikolas, Jondoni Satorde (4), Jondoni Tomas, Jondoni Xabier, Jondone Zernin / Jondoni Zernin, maskulinoetan eta Andre Dena Maria, Andre Dena Pilarekoa femeninoetan.

Napartarra-n (Larrekok aipatzen ditu) *Yon Done Kiril* eta *Yon Done Metodi* ere azaltzen dira; Iztuetak, lehenago, *Done Agustin, Done Bartolome, Done Inazio, Done Juan, Done Teresa* ditu. Txomin Agirrek *Done Anton, Done Antonio, Done Bizente, Done Joane, Done Paulo, Done Pedro, Done Klara, Done Saturnino, Done Tomas, Done Zizilli* ere badarabiltza, *done* apozizioa posposiziotzat duen aldaeraz —*Antonio Donea*— landa; Gabriel Arestik *Jaun-done Alexo, Jaun-done Betiri, Jaun-done Bladi, Jaun-done Eustakio, Jaun-done Eztebe, Jaun-done Jakue Nagusia, Jaun-done Joane Bataiatzailea, Jaun-done Joane Caillabit, Jaun-done Julian Antiokia-koa* eta *Jaun-done Marti* ibiltzen ditu, eta Jon Etxaidek *Jaun done Pantxiko*. Zerrenda luza daiteke, nahi izanez gero.

Hortaz, literatura —azken bi mendeotako edo literatura— irizpide hartuz gero, badirudi mintzagai dugun apozizioa, izan dadin **Iondoni**, izan dadin **Jaun Done** edo beste zeinahi, edozein izenekin erabil litekeela. Hau, gure ustean, gehiegikeria da, eta mugatu egin beharra dago. Hemendik segitzen da, bistan denez, literatura aintzat hartu behar dela, dudarik gabe, baina ezin dela inola ere irizpide bakartzat aitortu. Euskara bizia eta hagiotoponimia ere kontuan edukitzekoak dira, gure iritzian.

Euskara bizia dela-eta, norbaitek esan dezake **Iondoni** aldaera bizirik dagoela —**Jon Doni** idazten zuen Oxobik—, eta beraz hobestekoa dela. Hau uste dugu asko ñabartu behar dela: lehenik jakin behar genuke non dagoen bizirik, eta indarrik ba ote duen. Ez dakigu Iparraldean zehazki zer gertatzen den, baina Luzaideko egoera ezagutzen dugu —neurri batean balio dezakeena— eta bertan zenbaitek erabiltzen duten **Iondonáni**-z landara (“San Juan”) ez dago deus askorik; Manezaundik alabaina honela zioen bere lantxo batean:

Erran dezagun aitzinetik XVI. mendean Iruñeko paper zaharrek erakhusten daukutena. Denbora hortan oraiko San saturnino eliza deitzen zuten “Iglesia de *Jaun done Satordi*”. San gregorio-ko dorreari “la torre de *Don Gergori*”.

Ohartzekoa da Benabarren, Laphurdin eta Xuberon nola deitzen duten Santiago eguna. *Yandenaki* (Yaundone Yaki = santo señor Yako).

(4) *Moret iruindarrak bere Anales del Reino de Navarra*-n Nafarroako hiriburuko *San Saturnino*-ren (= *San Cerni(n)*) euskarazko kide-tako *Jaun Done Satordi* ematen du.

Ene sortherrian (Luzaide) galdegiten balinbaduzue noiz diren herriko bes-tak ihardetsiko dauzutue (sic): “Yandenakitan” (Santiagotan). Ikhusten dugun bezala mendiez beste aldekoek, (eta bai Iruñekoek lehengo denboretan), bethi *yaun* ezartzen zuten *done* aitzinetik.

Huna bertze eskuarazko saindu batzuen izenak oraiko egunetan deitzen dituztenerekin (sic).

Yandone Petri, San Pedro. Yandone Mikelan, San Miguel. Yandenani (yaun done Joani), San Juan (5).

Hegoaldean, bestalde, ez dugu **Iondoni**-rik aurkituko (Larrekoen lana alde bat uzten badugu), ez orain ez antzina. Bai, ordea, **Jaun Done** eta honen desitxuraketaren ondorio diren **Jandone**, **Juan Done**, **Juan Dene**... eta beste ha-maika, literaturan eta batez ere garai bateko eguneroko hizkera biziaren isla den hagiotoponimian ere.

Gehiegikeria da gure irudiko Iparraldeko alderdi batean —Zuberoan ez baita erabiltzen ez erabili— erabat indargabetua eta hil hurrari bide dena Euskal Herri osora zabaldu —inposatu— nahi izatea, jakinik-eta ez Zuberoan ez Hegoaldean horrelakorik inoiz ibili ez dela. Hegoaldean, eta esan gisan, **Jaun Done**-ren ondokoak edireten ditugu arruntan, baita egungo egunean ere, hagiotoponimian eta aztarna ihartu zenbaitetan (cf. Azkuek dakarren Aezkoako *Jaun Donaani* Batista, Larrabetzuko kanta batean Barandiaranek bildurikako *Doniane* edo Bizkai-Gipuzkoetako herri batzuetan ibiltzen den *Donienatxa* ‘Doniane-aretxa’).

Bestalde, literaturan ere Iparralde / Hegoalde zatiketa nabarmena da, **Iondoni** —nola ere idazten baita hau— ia soilik Iparraldeko idazleek erabili baitute, honetan Iparraldeko literatura tradizioari jarraituz zaion Larreko alde bat utziz gero (izan liteke besteren bat). Iparraldean, gainera, eta zuberotarrak bazter utzirik ere, ez dute denek **Iondoni**, **Yondoni**... erabili, hor baitago, adibidez eta besteak beste, Duhalderen **Jaundone**.

Hagiotoponimiak ez duela balio, zerbait zaharkitua eta igaroa dela esaten duenari esan dakioke literatura ere, orain-oraingoa ez bada, ez dela egungo normaren isla, euskara “zaharkitua”, “izoztua” edo “hormatua” dela, neurri handi batean.

Bestalde, hasiera-hasieratik *sanctus* / *sancta* parearen ondorengoak ohi-koak izan dira gure artean, literaturan eta hagiotoponimian; aposizioa izenaren aurrean zegoenean *san(t)* / *santa*, *sa(i)nda* erabili izan da, eta *sa(i)ntu*, *saindu*, *sandu* / *santa*, *sa(i)nda* bakarrik agertzen zenean. Gutxiagotan erabiliak izan dira *seint* / *seinta* (Salaberri, hiztegian) eta *sen* (gogora Iribarne zuberotarraren *Sen Grat* liburua, 1879koa). Hona adibide batzuk:

(5) *Artikulu bilduma*, R.M. Pagolak paratu argitalpena, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1990, 282-283.

San Agustin (Axular).
Santa Lucia (Axular).
San Piarrez (Etxeberri Ziburukoa).
San Bernat (Duhalde).
San Miguel (Arzadun).
Espiritu Sandua (Beriaín).
Santa Elizabeth (Arbelbide).

Hagiotoponimian, bestalde, ugariak dira *Santi* edo *Sandi* (< *Santi* < *Sanci*-ti) dutenak ere:

Sandiandore ('San Andrés'; aldaera franko ditu eta Euskal Herriko hainbat tokitan azaltzen da, Berroztegieta eta Monasteriogurenen, esaterako).

Sandiatiri(a), *Santatria*... ('San Adrián'; Askartzan, Kontrastan...)

Sandijusti, *Santijusti* ('San Justo', Galar).

Sandijurgi (*Sandúrdi* Idotzin eta Elon; = *Jaun Done Jurgi* 'San Jorge').

Santikurutz (Olaetan).

Sandilaurendi ('San Lorentzo', Agoitz, Arike, Etxalatz).

Santilari ('San Hilario', Artariain).

Santimami ('San Mamés', Leioa-Erandio; cf., gainera, Etxabarri-Allingo *San Mamia*).

Santimartzelo (Lunan).

Santitisi, *Santitis* ('San Tirso', Bernedo, Galipentzu).

Sanditume, *Santitume* (= *Done Tome* 'San Tomas')...

Mende honetako idazleen lanetan atzean paraturik ere azaltzen da *sandu*: *Mateo*, *Marko*, *Luka* ta *Yoa*n *Sanduak*... (Polikarpo Iraizozkoa).

XIX. mendearen azken aldetik gaur arte nabaria da literaturan *done* / *dona* bikotearen berpiztea, Hegoaldeko idazleetan:

Done Bizente, *Done Gregorio*, *Done Paulo*, *Done Saturnino*, *Done Tomas*... (Txomin Agirre).

Done Nikola (Larreko).

Done Peru (Azkue).

Done Baladi (Orixé; cf. Luzaideko *San Bladi* bizia)...

Bukatzeko diogun *san*, *santu* eta *santa* saihesteko *deun* / *deuna* sortu zuela S. Aranek, jatorra den *deunge*-tik aterez (*Kepa deuna*, adibidez, "done Petri" esateko). Hau, bistan denez, ezin da ontzat hartu euskara batuan.

Auzo, herri eta hirietan patroï edo zaindariaren omenez egiten diren jaiak adierazteko, Hegoaldean, izenaren aurrean *san* edo *santa* ezartzen da, eta sin-tagma mugatu pluralean erabiltzen: *sanblasak*, *sanferminak*, *santamarinak*, *sanprudentzioetan*, *sanmartzialak*, *santanetan*, *santaisabelak*, *sanjoanetatik* *sanpedroetara*...

SANTUTEGIKO DONE FORMA HEGOALDEKO TRADIZIOAN

Donostia, 1999-VII-09

*Jose M. Satrustegi,
Onomastika batzordeak onartua (*)*

Luze doa, luzeegi agian ondore onik ateratzeko, *Euskal Izendegiaren* eztabaida antzua. Egoera honek dakarkigun denbora galtze eta umore garraztea ez dira inongo elkarte seriotan onargarriak. Artean, euskal izenen hutsunea lehen bai lehen betetzeko eskez daukagu urte hauetan herria, eta zirikadak neuk nozitzen ditut gehienbat.

Egia esateko, Onomastika batzordearen proposamenei azken aldian egiten zaien eraso sistematikoaren zergatia ez dago batere garbi. Aspaldikoa da Ultzamako Iraizotzen sortutako eztabaida inprobisatu, arin eta zentzugabe hura. Geroztik ibilitako gurutze bidea ez da inorentzat atsegina. Onomastika batzordekide guztiok inkompetente hutsak gara nonbait, eta hori konpontzea oso erraza da: denoi oporrak eman eta esku hobetan ipini ardura, edo alderantziz zerbait baliagarri aurkez baleza taldeak, beronen txostenei hitzez hitz ala lerroz lerro epe barruan oharrak eginez, beste edozein batzordetan gertatzen den bezala, modu onean gaia bideratzea. Ustetsuen bat-bateko txosten gordinek denbora luzeko ausnartze lana apurtzen dute, prozedura desorekatu eta batzordeko lankideentzat gutxiespen mingarriaren itxura ematen.

Ulgarria da, bestalde, Euskara Batuko batzordearen izenean eta kide guztiek irakurtzeko eperik ere gabe aurkeztutako zirriborroa hainbeste hutsune, ga-bezia larri, herrialdekeria eta kontraesanez beterik egotea. Ez naiz horretaz mintzatuko Onomastika batzordeburu den H. Knörrek azken urtarilaren 15eko txostenean puntuz puntu erantzun baitzion izkribuari irakurri nahi duenarentzat.

Hala ere, *gauza horiek ikusiz Onomastika batzordeak ez du dudatzen ea fida daitekeen* Euskara Batuko batzordeak *erabili ohi dituen gaineratiko datuez*, guri bai leporatu zitzaigun zirikadan bezala. Eta ze ondore ekarri du auzi honek guztiak?

Oyharçabalen argudioak arretaz irakurrita, Onomastika batzordeak haste-hastetik aurkeztutako testua lehen baino gardenagoa iduritzen zait; gure arteko

(*) Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak, Etxarri-Aranatzen, 1999-VI-25ean onartua.

giroa alderantziz inoiz baino nahasiagoa. Jatorriko erabaki proposamenera itzuliz, hiru puntu xumetan laburbil daiteke gaia:

- *San / santa* hitzen erabilera orokorra.
- *Jaun done / jaun doni / done* formen eztabaida.
- Eta *deun* forma gaitzestea.

A) *San / Santa*.

“Euskara batuan *san / santa* erabiltzen dira eskuarki santu izenekin: *santa Elisabet, santa Katalina, san Simon, san Frantzisko*. Hau da, beraz, gomendio nagusia”, -zioen hitzez hitz proposamenak.

Azken finean, puntu honetan ez dago desadostasunik.

B) *Jaun done / jaun doni / done*.

Iparraldeko *Jaun done, jandone / jaun doni, jondoni / jundane* formez mintza gaitzetzke, noski, baina Zuberoa eta Lapurdi / Nafarroa Behereko tradizioaren arabera bi aldaera onartzearen alde dago Onomastika batzordea.

Done hitzarekin pizten da eztabaidaren sua. Irekia izan da Onomastika batzordearen joera eta tokian tokiko tradizioari jarraituz, Iparraldeko formekin batera Hegoalderako *Done* ere proposatu zuen. Dirudienez, Oyharçabalek Iparraldeko usadioa bakarrik ontzat ematen du, bestea arbuiauz, eta Onomastika batzordea horren aurka dago..

Iritzietan bat etortzeaz edo ez etortzeaz bestalde, gaiari eman zaion zehar bideko tratamendu zakarra izan da itsusiena. Azken maiatzeko batzarrean Miren Azkarate euskaltzain andereak idatziz aurkeztutako bere batzordearen gomendio erabakiak *jondoni / jondone* forma biak bakarrik proposatzen ditu, Onomastika batzordearen Hegoaldeko *done* olinpikoki baztertuz lurak irentsi balu bezala. Batzorde bakoitzaren eginkizunak daude hemen koloka.

Hori aski ez dela, Euskara Batuko boz-emaileak *hitzez —in voce* alegia— eta ahapetik hara non dioen, batasunaren izenean Iparraldeko formak proposatzen direla Hegoalderako ere. Portaera horrek bere izena badu euskal hiztegiaren maltzurkeria. Tranpa.

Nire bizi guztia apaiz lanetan ibili ondoren has al naiteke orain *Jondoni Joanes* edo *Jondoni Petri* bezalako formak sartzen Sakanan? *Joanes* eta *Petri* onartu ditu Euskaltzaindiak baina, otoi, aski da.

“Santutegiko izen ohikoenen” zerrendak bere ondoreak dakartza eta arazoei aurre egiten ahalegindu beharko luke nolabait elkarte arau emailea istilu berririk sortu gabe. *San Joanes*, edo *san Petri* esan behar al da, bestalde, Murrikun edo Urdiainen?

Euskara Batuko batzordeak lerratzen utzi du, badaezpada, arauz kanpoko *San Pedro* bat 1998ko abenduaren 14ko "Gomendio erabakien" bigarren le-roan. Serioa al deritzozue edozein batzordek, sakratuena izanik ere, Euskaltzaindiaren erabakietan bere kasa batuketa eta kenketak egiteari? Zerbait aldatzekotan ofizialki Euskaltzaindiak alda beza, mesedez.

Onomastika batzordeak bere garaian ikusi zuen, noski, arazoa eta zailtasun gehiegirik gabe, *done Petri* eta *Joanes donea* bezalakoak onar zitezkeela iduritu zitzaion.

Lasai egon bedi Ibon Sarasola adiskidea urtarrileko batzarrean neuri egoztitako kezka dela eta: "*Baina horren ondorioa bada «Donibaneren ebangelioa» bezalakoak esan beharra, gaizki ari gara. Mailak nahastea ez da zilegi*"-zioen, batzar-agiriak ongi jasotako hitzetan. Ez dakit 'mailak nahaste' hori nori dagokion kasu honetan. Elizgizon naiz eta euskaltzain izan ez banintz ere, ez zitzaidan sekula santan bururatuko *Donibaneren ebangelioa* bezalako esaldirik gaur eta hemen botatzea, eta hainbat gutxiago euskal izenez arduratzen den talde batean inori proposatzea. Berriri diot, bego lasai Ibon lankide porrokatua, denok dakigu milaka lan daramala eskuartean, ez dakigun beste askorekin, eta ez da aise Onomastika batzordeko txostenak ganoraz irakurtzeko astirik hartzea.

Done forma Hegoaldean:

a) *Dokumentuak.*

Argi gera bedi *done* hitza izan dela Hegoaldeko tradizioan nagusitu dena, *Jaun done* ere badelarik. Idazleetan ikus daiteke

— *Refranes y Sentencias: Done Bizen* argia (318). "*Doneaneko euria, garien galçaygarria*" (254).

— Mogel: *Done Joan* eta san Juan gauza bera dira. (*Peru Abarka*).

— Larramendi: *Done Matro*, San Bartolome. (*Dic. Tril.*).

— Aizkibel: *Done Juane, Done Matro*. (*Dic. Basco-Español*).

— Iztueta: *Done Inazio, Done Teresa* (*Gip. Dantza*, 122).

— Tx. Agirre: *Done Tomas, Done Zezili* (*Garoa*, 83, 173).

— Larreko: *Jondone Agustín, dona Nikola* (*Gerla urte, gezur urte*, 151, 159, 272; *Napartarra*, 39, 62, 110, 147).

— Orixe: *Done Baladi*, e.a.

Aipagarria da benetan puntu honi buruz Garibai, mondragoar historiagile ospetsuak, bere garaian zioena:

"Si entre los Romanos el agnomento de Don era tan alto, muy mucho mas lo fue entre los Cantabros, que a solos los santos y bienaventurados atribufan

este nombre Don, o Done, que es todo vno. Esto dura hasta nuestros tiempos constantemente, Iauon Done Petri, o Peri, que siendo vna mesma cosa, quiere dezir, el Señor san Pedro, y al Señor san Miguel, Iauon Done Mikael, y al Señor san Martin, Iauon Done Martie, y a la Virgen Maria, Andra Dona Maria, y a otros de la manera y forma" (*Compendio historial de España*, lib. IX, cap. II, p. 331).

Tradizio zaharrekoak ez diren santuen izenak alde batera utzita, autore hauetan *Done* hitzak duen harrera ohikoa garbi azaltzen da, eta gutxienez mugaz handiko joeraren errespeto bera merezi du. Iparralde eta Hegoaldeko hiztegiak hurbiltzeko modurik nonbait egotekotan, forma honi dagokionean behintzat garbi ikusi zuen Onomastika batzordeak. Horregatik izan da harrigarria, hain zuzen, euskara batuaren izenean batasun bidea baztertu nahi izana.

b) *Herri tradizioa.*

Herriak ere, autoreek bezalaxe, baliatu izan du Hegoaldean santuentzat *done* forma. Neure inguruko adibide batzuk bakarrik emango ditut txostena ez gehiegi luzatzeko. Urdiaingo paper zaharretan bada ermita bat urtero prozesioan jendea joaten zena. *Donaloria* (1688) eta *donalorio* (1709) aipatzen dira beste aldaera batzuen artean. Agiriak erdaraz egin arren, euskara zen eguneroko hizkuntza arrunta. Adibidez 1680ko diru kontuetan santa Nunilo y Alodia eguneko gastuak dakartzan agiriarekin beste papertxo bat dago zirriborro honekin: "Item mas la procesión de *dono Lorio sey reales*".

Gaurregun Urdiaingo kanposantua dagoen lurraldeari 'Sanmartinkalde' deitzen zaio, baina XVIII. mendeko agiritan *done Martin* izeneko ermita aipatzen da. Bere horma bat bakarrik gelditzen da hilarrien ekialdeko harresian.

Duela hilabete bat izan naiz Andimendian Lizarraga Ergoienakoek berriztatu duten san Adrian ermita ikusten. Oso desitxuraturik zegoen eta ia dena berria da. Obra zaharreko atea burdinezkoa zenez bertan utzi dute, eta hara non ikusten dudana berari suaz itsatsitako letra handiekin honako esaera hau: *Adrian donearen eliza*.

Euskara Batuko batzordearen aipamenetan ez dirudi herri-jakintzak sarrearik baduenik. Azkue eta Barandiaran, adibidez, bigarren edo azken maila bateko autoreak dira nonbait. Herriaren ahots garrantzitsua dakartenez euskal literaturaren lekukotzat aipatzen ditut:

— Azkue, R. M.: *Donianez* (EY, I-297), *Doniane aurreko* (Bermeo, I-303), *Donian-iruntzia*, 'rociada de San Juan' (Bizkaia eta goi-nafarreraz, I-204), *Doniane-goizean* (Lekeitio, Murelaga, I-306). "San Juan gaur dala, biar dala *Doniane*" (IV-360).

— Azkue, E.M.: *Doniane goizez. Donian goizetan* (*Parnasorako bidea*, 63).

— Barandiaran. “Bier dala *Donione*, etzi San Joan-biramune”. (Dic. Ilus. Mit. Vasca, 68).

San Martin euskaltzainak *Donielatxa*, ‘Doniane aretxa’ jaso zuen Berrizko Murgoitio auzoan. (*Anaitasuna* 1972-6-30, *Gogoz* 43-44).

Eta herri-jakintza jaso duten autoreek ez badute harrera onik Euskara Batuko batzordearentzat, hainbat gutxiago eguneroko hizkuntzaren lekukotasunak. Adibidez, ‘Gastelugatxeko *Doniene*’ esaten diote euskaraz Bermeo eta Bakioren artean bertako uharteari.

Nork ez du ikusten hor *Done* formaren oinarria?

Oyharçabalek oraingoan egin duen santu-izenen saileko luma jokua fantasmagoria guztien erreinuan sar liteke santurik balego han negar egiteko. Batzordearen izenean hark aurkeztutako testuek honela diote, besteak beste:

2. Gomendio erabakian berezi behar dira, ene aburuz, santu baten egiazko izendatzeko baliatzen diren formak, eta santu baten izena baliatuz garai desberdinetan, modu berezietan berdin, sortu diren beste deiturak (horien artean hagiotoponimoak) 1998-XI-10.

Lehen urratsa: santuak zuzenean aipatzean nola erran behar zaien. Badirudi horretarako egokiena dela finkatzea nola erranen zaien euskara batuan santuei, zuzenean haiek aipatzean, adibidez otoitzetan, edo erlijioiko liburuetan, edo historiako idazlanetan. 1998-XII-14.

Gaizki ulertu ez badut, san Fermin egunean santuari *zuzenean* otoitz egiteko balioko luke euskara batuan eman nahi zaion izenak, baina ez bere ‘*izena baliatuz*’ Iruñeko alde zaharrean barna egiten den prozesioarentzat.

Bizi guztian egin dudan apaiz lanera hurbilduz, herriko zaindariak *zuzenean* mintzatzeko izen bila omen gabiltza orain, baina santuaren *izenaz baliatzen* den aldea, parrokia, edo ermita izendatzeko ez. Nire benetako kezka da, santuaren izena daramaten elizako dokumentu ofizialen zigiluetan eta herri-festetako programetan zer ipini behar den. Ulertuko al du noizbait santuen izen-ebakuntza dialektikoa jendeak?

Nire ustez ez dago kristaurik autopsia hori onar dezakeenik. Ze tresnarekin bereiz daiteke hagiotoponimian noiz den santuaren aipamen zuzena, eta noiz toki izena? Saio bat egin dut neure burua argitu nahian Urdiaingo *Donaloria* zer den ikasteko. Santuen harriko bi irudi ziren orain Eulateko elizan daudenak. Ermita bila ibili naiz eta ez da inguruan antzeko izenik agertzen. Iruñeko eliz barrutiko artxibo arduradunen bidez jakin dut azkenean, Urbasako jauregi ondoan zegoela eliza. Hormak bai, han daude, baina izenik ez. Santuak kendu eta izena galdu? Toponimoa al da beraz? Santu zerrenda laiko honen proposamena gauzak nahasteko asmatu den metafisika purifikatua besterik ez da, edo eguneroko bizian oinarritzen ez den ausardia hutsa.

c) *Euskaltzaindiaren erabakiak.*

Tramankulu guzti honen funtsa, azken finean, denok dakigu zein den: Hegoaldeko tradizio sendoa duen *done* izena arbuiaitu eta Iparraldeko ohitura inposatzea. Euskal Akademiaren orain arteko jokabidea apurtu eta aurreko erabakien aurka apustu egin du su-ta-gar Euskara Batuko batzordeak. Hona zenbait adibide:

— *Done* hitza onartua izan da gure *Hiztegi batuko* zerrendan.

— *Done Bikendi* izena ere erabil daiteke, tokian tokiko tradizioari so eginenez, esaten da behin eta berriro Euskaltzaindiak berea duen *Santutegiko izen ohikoenen* artean (Ikus. 403 eta 419. orriak).

— *Done Mikel Aralarkoa* deitzen da Altsasu Institutua. ‘Aralarko Mikel Donea’ zuen hasierako izen ofiziala, eta “euskarazko izendapena oso zuzena ez zelakoan”, bertako arduradunen hitzetan, aholkua eskatu zitzaion Euskaltzaindiari 1995eko irailaren 15ean. Hori dela eta Onomastika batzordearen gomendioz ipinitako izena da oraingo *Done Mikel Aralarkoa*.

— *Donejakue* bidea gomendatzea erabaki zen etxe honetan bertan ‘Santiago bidea’-ren ordeztu ezingo dena luze, garrantz eta beroen ondoren. *Donejakue*, hitz batean alegia. Aurtengo San Fermin festetako programa daukat eskuartearen eta *Done Jakue plaza* aipu du behin eta berriro, batez ere letra handiekin 49. orrian gaueko zezensuzkoa iragartzeko.

Ez nuke luzatu nahi, baina nire kezka larria seriozki agertu nahi dut etxe barnean oraingoz: nora doa gaur Euskaltzaindia bere itzal serioari gehiagoko begiramendurik gabe? Memoria historikoaren ikuspegia behar-beharrezkoa du elkargoak errespetua ez galtzeko, edo barregarri geldituko da herriaren aurrean.

C) *Deun* forma gaitzestea.

Gaurregun *deun* forma nagusitu da Hegoaldean. Berriagoa izateaz bestalde, Ipar-Hegoaldeko hiztegi batasunetik aldentzen gaituenez, ez erabiltzea proposatzen du Onomastika batzordeak.

Gomendio hau ere ez dateke norbaiten gustukoa eta baztertu egin du Euskara Batuko batzordeak. Onomastikakoen iritziz, hori gabe jai dute *San / santu* eta santutegiko zerrendan beste gomendio guztiek, modako euskara itxurosoaren ezaugarri zabalduena *deun* baita.

Iaz herri festetako programa batek azalean eta letra handiekin honela zioen:

Doneztebe: Pedro **deunaren** festak, -karrikako euskara landuaren izenean noski-.

Eta amaitzeko, azken galdera: asko eskatzea al da Onomastika batzordearen eskuarteko gomendio-proposamena -beingoan onartzeko ala arbuiaitzeko-besterik gabe batzarrean hitzez hitz ikustea? Etsipenaren oihartzun ahuldua.

MÁS SOBRE TOPONIMIA EUSKÉRICA EN LAS ENCARTACIONES DE BIZKAIA

(Una quinta aportación)

26-VII-1999

por *Jesús M.^a Sasía, osb.*

“Lo admirable no es que se hablara vasco en Valdegobía y en Karrantza en el siglo XII, sino que se siga hablando hoy en Eibar...”
(Odón de Apraiz).

Hace ya algunos años fueron apareciendo varias colaboraciones en forma de “Cartas al Director”, del diario *DEIA* (Bilbao) firmadas por los hermanos Etxebarria Mirones, de Balmaseda, cuyo foco de interés se ha venido centrando en la comarca de las Encartaciones y, al parecer, en la documentación existente y concerniente al doble aspecto de la historia y lengua de aquella área occidental de Bizkaia. Es posible que lo que haya podido llegar a conocer —máxime desde Sudamérica— no alcance a reflejar todo lo publicado por aquellos, pero no creo que esa limitación altere lo esencial de lo que parece ser el enfoque habitual de sus publicaciones en la prensa de Bilbao.

El motivo de la publicación de esta *Quinta Aportación* en la revista *Euskera* viene dado por todo lo que se expondrá aquí en adelante (1).

Tratando de hacer una síntesis en base a lo que sería el criterio de los hermanos Etxebarria Mirones, está en primer lugar su seria reserva en reconocer que el *euskera* haya sido, siglos antes, la lengua propia de esta parte del País (como lo fue, por ejemplo, de otras zonas en las que esa misma lengua retrocedió igualmente...) dándose una progresiva sustitución idiomática. Y todo esto pese a que dan la impresión de admitir —aunque tampoco sería eso tan claro en sus colaboraciones— la presencia de una toponimia euskérica en el área de marras, al menos en una parte notable de la misma.

(1) Sobre las anteriores aportaciones: *Boletín de Instituto Americano de Estudios Vascos* (BIAEV), 80 (1970) 17-21; 81 (1970) 72-77; 137 (1984) 86-92; 138 (1984) 138-144; 139 (1984) 188-191; 140 (1985) 43-46. *II Jornadas de Onomástica*. Urduña (Bizkaia), 1987 (de próxima aparición).

Esta su postura se ubica frente a autores, desde luego, del pasado, como Labayru, Trueba, Escárzaga, etc., y lo que es más serio, a la actual Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia suscitando respuestas lógicas de esta misma institución y también de varios hijos de las tierras encartadas en el citado diario *DEIA*. Una muestra y respuesta que expresa significativamente el criterio del académico correspondiente y secretario de la comisión de Onomástica de la R.A.L.V. / Euskaltzaindia Mikel Gorrotxategi es la que sigue:

“El pasado 12 de abril (1993) los hermanos Etxebarria publicaron en la prensa local una carta, en la que, como es habitual, vertieron una serie de ataques a Euskaltzaindia y afirmaciones sobre temas lingüísticos que creo conveniente aclarar (...). Por otra parte, y como es costumbre, sin ningún dato, aseguraban la no existencia del euskera en las Encartaciones siendo el romance el idioma hablado desde siempre (“siempre” muy corto para un idioma nacido en el siglo X). Los señores en cuestión deben ignorar que el valle de Salcedo (Zalla y Güefies), al igual que Galdames o el valle de Somorrostro, forman parte de las Encartaciones y en ellas el idioma de sus habitantes SI era el euskera, como queda patente en los nombres de sus barrios mayoritariamente euskéricos: Larrea, Garai, Arenaza, Ocharan, Bolumburu, Ibarra, Archube, Goicuria, Amezaga, etc. Igualmente hay que admitir que la densidad de nombres euskéricos decrece según nos acercamos a la cuenca del río Asón.

Finalmente, acusan injustificadamente a Euskaltzaindia de publicación de noticias fantasiosas (serán aquellas que no les gustan) y de agresión a la toponimia cambiando e inventando nombres. Del centenar de nombres de municipios de Bizkaia, el nomenclator de Euskaltzaindia sólo recoge tres neologismos, uno creado por S. Arana, y dos en las Encartaciones. En ambos aparece primero, incluso aceptándolo como forma vasca, la románica, y como dice el nomenclator, para «evitar neologismos incorrectos», que se han dado ahí mismo en las Encartaciones, y no por la Euskaltzaindia, y siempre dejando la decisión última en manos de las instituciones representativas.

Distinto es el caso de los exónimos, esto es la designación de un lugar por habitantes de otra zona, y así, de la misma manera que los encartados decimos Zornoza por Zornotza, los vascoparlantes dicen Karrantza y no Carranza, adaptando cada uno de los nombre a su pronunciación. Finalmente, si tan amantes de la tierra encartada son, no debieran olvidar que la cultura de dicha zona es más rica y plurilingüe de lo que ellos suelen decir” (2).

Uno de los argumentos, varias veces repetido por los hermanos Etxebarria Mirones, es: “... si se ha hablado alguna vez (euskera), dónde y cuándo... y por quiénes”, lo que ha parecido a más de uno una *boutade* puesto que dan a entender que quisieran, papel o documento en mano... nombres y apellidos y poblaciones de la gente encartada —¿de toda ella?— que siglos atrás —inclu-

(2) *DEIA*, Bilbao, 21-IV-93. Cartas al Director. Otras respuestas con anterioridad en el mismo diario: P. Abad Gorostiza (29-XI-89), J. Terreros (6-III y 12-II-91), A. Arenaza (26-II-92); más N. Vado, citando al Rector de la Universidad del País Vasco (UPV), G. Monreal (22-IV-91) y al Diputado General de Bizkaia, J.A. Pradera (12-II y 6-III-91), y alguno más.

so...— tenía como lengua corriente la vasca. O acaso tratan de que se exhiba algún documento de tiempos pasados en el que se diga palmariamente que en tal o cual siglo, o año, o en tal o cual población encartada y concreta el euskera era el habla usual.

Efectivamente, este tipo de testimonios sí que se dan con referencia a otras zonas geográficas y en tiempos pasados. El mismo García de Salazar, el cronista encargado del siglo XV, lo atestigua del valle de Ayala como poblado de vascos (sic) y “latinados” (3), y existe también el dato exhumado por Merino Urrutia sobre el “bascuence” (sic) en el valle de Ojacastró, Rioja Alta, en pleno siglo XIII (4); pero está también el dato que puede parecer más sorprendente por tratarse del Alto Aragón y del siglo XIX, dato debido al canónigo navarro J. Gárriz que reproduzco aquí por su evidente interés:

“En 1838, a propósito de una solicitud para asistencia de Abate interior, presentada por don Julián Arnárez para capellán de Salvatierra de Aragón, el Municipio resolvió el día 3 de enero de dicho año que: «el que ha de servir en esta villa ha de ser bascongado para poder predicar, preguntar y confesar en vascuence, de otro modo no puede servir en esta villa»” (5).

Esto por no citar sino sólo tres casos claramente atestiguados sobre Ayala, Rioja Alta y Alto Aragón.

Los hermanos Etxebarria Mirones se agarrarían al “relativo” vacío de un testimonio de las características anteriores que se refiriera a la Encartación de Bizkaia. Hay que recalcar lo de “relativo” dado que no pueden anularse *a priori* lo que nos advirtieron tanto Trueba como Labayru y Escárzaga, quienes, si por algo se distinguieron, fue por su honradez (6).

Lo que me implicó en esta especie de polémica se debió al caso, cuestionado por los referidos hermanos Etxebarria Mirones, del topónimo mayor *Trucíos / Turtzioz*, población hacia el oeste encartado y, por tanto, con toda la problemática que plantea esa zona extrema, junto con Karranza y Lanestosa.

Primeramente apareció en *DEIA* una gacetilla del periodista I. Bernardo con el título “Turtzioz, Iturriotz y Trucíos, tres nombres para un mismo pueblo” (4-XI-88). Al medio año se refieren los citados hermanos en el mismo medio a unas puntualizaciones sosteniendo que la forma de *Trucíos* es la única

(3) L. GARCÍA DE SALAZAR: *Las Bienandanzas e fortunas*, cap. 20.

(4) J.J. BTA. MERINO URRUTIA: *El Vascuence en la Rioja y Burgos*. S. Sebastián, 1962, pp. 21-22.

(5) Citado por J.A. MÚJICA: *Apellidos Vascos*. Bilbao, 1968, p. 102.

(6) Comunicaciones orales, no publicadas, son las siguientes: En 1958 el Rdo. Arechederra sobre el este del valle de Gordejuela donde él conoció de niño el euskera vivo a fines del s. XIX. En 1970 el Sr. Fco. de Abrisketa, sobre Trapagaran (por la parte pegante a Barakaldo) en la misma época del dato anterior; se trataba de parientes suyos. En cambio, la información de J. Dolara sobre Zierbena debe interpretarse como euskaldunes de la costa establecidos en dicha localidad encartada.

correcta *tout court*, mientras que las otras *Turzios* y *Turtzioz* no son sino “forma errónea” o pronunciaciones debidas a “personas ajenas al municipio de Trucíos”. Sobre ello me correspondió volver a puntualizar (*DEIA*, 8-6-89) “postulando” —que no es lo mismo que “sostener”— la forma *Tur-* sin negar la alternancia *Tru-*, ambas bien documentadas. Si se “postula” la forma *Tur-* es en base a que su explicación encierra las características habituales para poder ser aceptada.

I. EL CONTEXTO DE ESTA CUESTIÓN

Lo que subyace en el planteamiento general de la toponimia en al área periférica de toda Vasconia —norte y sur— es la extensión de la lengua vasca en épocas anteriores y, por consiguiente, algo más amplio, y complejo, que la interpretación de un topónimo sin más. Siendo conocido este tema no es preciso desarrollarlo aquí *in extenso*, pero sí que habría que resumir algunos puntos básicos que configurarían, al menos en buena parte, el contexto general y que serían los siguientes:

1. A falta de datos que documenten expresamente la existencia de la lengua vasca en épocas anteriores, hoy día se reconoce —como un “axioma”— en la toponimia un dato a tener en cuenta, y como “testigo insobornable”, lo mismo esté en la Rioja, en Burgos, en Bearn, o en los valles encartados. La toponimia tiene su metodología propia, en parte común con la lingüística histórica, en función de unos resultados y unas deducciones.

2. El aspecto toponímico encartado que ha llegado a nosotros no difiere mucho de las demás zonas periféricas del País. En todas ellas se percibe una especie de estratificación, viniendo a ser el material toponímico actual —suybrayo lo de actual— como una capa de la superficie de la tierra, es decir, que aunque todo se perciba objetivamente en un plano, lo que en realidad vemos correspondería en lo histórico a distintas etapas “geológicas”. Así, de modo similar, en los nombres geográficos hay estratos diferentes.

3. De acuerdo con lo expuesto por el maestro Menéndez Pidal, hay que distinguir tres romanizaciones: la propiamente *romana*, la del *romance* emergente, y la *posterior* más lenta y tardía. La aplicación al área encartada es, desde luego, válida (7).

(7) R. MENÉNDEZ PIDAL: *Toponimia Prerrománica Hispana*. Madrid, 1968, pp. 39 y ss. El autor desconoció la toponimia menor encartada con térmns. como *Abaro*, *Abariza*, *Alda*, *Andio*, *Anzo*, *Atxa*, *Baikote*, *Barinaga*, *Barrena*, *Bollain*, *Garai*, *Gorritz*, *Goia*, *Ibarra*, *Karrasketa*, *Larana*, *Lastor*, *Loiatxa*, *Mendieta*, *Mimeuri*, *Munsuri*, *Oribe*, *Ortexto*, *Orzo*, *Sorroiz*, *Sorrondegi*, *Uria*, *Zaiza*, *Zaldaza*, *Zalduria*, *Zalduraño*, etc. todos del extremo occidental encartado y, aquí, en rápida entresaca. En las páginas citadas argumenta sobre la base de toponimia mayor, sin embargo escribirá que “los nombres de predios, heredades y accidentes de terreno son acaso más importantes que los de los pueblos”. Nos dirá además que la toponimia mayor y menor tienen una historia aparte. (*En torno a la lengua vasca*. Buenos Aires, 1962, pp. 41-42).

4. En cuanto al testimonio existente de lo euskérico, puede advertirse que la toponimia de esa característica no hay que restringirla a los límites “oficiales” de lo que abarca la expresión hoy aceptada de País Vasco, proporcionándonos ella datos de primer orden en esta cuestión.

Komunitarismoak, aldiz, guztiz garrantzizkotzat dauzka gizarte jakin bateko tradizio, balore eta arau moral konpartituak. Gizataldeen berezitasunen aldekoak dira erabat, giza eskubideen unibertsaltasuna ukatzeraino inoiz. Liberalismoaren subjektu abstraktu eta sustraigabea kritikatzan dute komunitaristek.

Jarrera bakoitzak bere alde onak eta txarrak ditu. Liberalismoak bere egia eta mugak ditu, komunitarismoak bere egia eta mugak dituen bezalaxe. Kontestuen eta berezitasunen aldeko aldarrikapenean dago bataren egia. Unibertsaltasunaren, erreflexibotasunaren eta tolerantziaren defentsan bestearena.

Ikusmolde biok elkarrengana hurreratu eta uztartzea da saiakera honen asmoa. Liberalismo indibidualistaren eta errepublikanismo komunitaristaren artean erdibidea bilatu nahi du. Unibertsalismo liberala eta norberaren komunitatearekiko atxikimendua bateratzen saiatzen da. Liberalismoaren baloreak bere egin eta euskal komunitate ezberdinduari tinko eutsi zioten euskal liberal fueristen jokabidea jarraibidetzat hartuz, euskaltasun liberal eta komunitatezalearen aldeko aldarrikapena egiten du.

* * *

El libro trata del debate entre liberales y comunitaristas que surgió en los años ochenta en el ámbito anglosajón y que posteriormente se ha extendido también a Europa. Simplificando bastante, diríamos que los liberales priman el derecho a la igualdad y que los comunitaristas reclaman el derecho a la diferencia.

Los liberales como John Rawls abogan por un ordenamiento jurídico éticamente neutral. Afirman que los gobiernos no deben imponer a sus ciudadanos un tipo de vida

preferente o una lengua determinada, por ejemplo. Por contra, los comunitaristas como Charles Taylor o Michael Walzer apoyan que el Estado promueva determinadas concepciones de una vida buena, o fines colectivos en función de grupo. Dicen que el Estado debe comprometerse en proyectos colectivos, como la promoción de una cultura o de una nación.

El ensayo premiado trata de hacer compatibles ambos paradigmas. Propone la búsqueda de un liberalismo comunitarista, de un liberalismo "sensible a la diferencia", tal como plantea el filósofo alemán Jürgen Habermas. En este sentido, el autor reivindica el legado del fuerismo liberal vasco del siglo pasado, como síntesis original entre las posturas liberales y comunitaristas, que puede servirnos de modelo en el momento actual.

HIL BERRIAK

IMANOL LASPIUR (1929-1998)

Iazko Gabon egunean hil zitzaigun Imanol Laspiur Zabala, euskaltzale adoretua eta Euskaltzaindiko urgazlea. Bergaran jaio zen 1929ko otsailaren 21ean, behargin familia batean; aita bergarra eta ama eskoriatzarra. Ume-umetatik Eibarren bizi izan da eta eibartartzat zuen bere burua.

Garaian Eibarren ohikoa zen moduan, “Armeria Eskola”n egin zituen bere industriamaisu delako lanbide ikasketak. Bere lehenengo lan urteak, industrilantegi batean egin zituen mekaniko gisa. Gero, 1957. urte inguruan, eta bere esanez “*beste gauza batzuetarako asti pixka bat lortu ahal izateko*” salmenta munduan sartu zen, lehenik liburu saltzen, gero material elektrikoa, makina-erreminta, eta azken urteetan material elektrikoa biltegi bateko gerente, 64 urterekin jubilatu zen arte. Baina beste gauza *batzuetarako asti* hori ez zuen salmenta-tekniko bere lanbidetik aterako, loari kenduta baizik.

Imanol, euskaltzaleon ikuspuntutik laburbiltzekotan, bide-egile, bide-zabaltzaile izan dela esango nuke. Gure euskal-munduan, batez ere Deba-arroan, Eibarren, Juan San Martinekin batera aintzindari izan da. Juan San Martin adiskidea bestelako jardunbide batean, euskaltzain eginbeharrei, kultura alderdiari eta literarioari emanagoa. Imanol, euskara irakaskuntzan eten gaberik, urte batzutan militantzia politikoari lotua, ikas-tolaren finkatze prozesuan eragile, euskara batuaren defendatzaile, hizlari bikain, konzientzi suspertzaile; 60. hamarkadaren azkenetako eta 70eko euskara eta ikastolen inguruko debate ideologikoan, beti paratuko zen, sutsuki, euskaltasunaren alde.

1952-53. urteetan hasi zen Eibarren, gerra-osteko euskal mugimendua sortzen, Juan San Martin, Imanol Laspiur, Bittor Kapanaga otxandiarra eta beste batzuen eskutik. Sasoi hartan, emakumeen artean eta neska-mutilen artean euskararik erabiltzen ez bazen ere, Eibarren euskara bizi-bizi zegoen: lantegietan, tekniko eta tailerretako langileen artean euskaraz egiten zen nagusiki eta kalean eta lagun artean ere bai, gehienetan, gizonetako artean. Baina garai gogorra euskararentzat: bizitza publiko osoan debekatua, komunikabideetatik eta eskoletatik erauzia, euskara goitik behera zanpatua zegoen, elizan ere ez zuen-eta euskarak lekurik. Zanaketa horrek eta gerraostean kanpotik heldu zitzaigun jende oldeak kontrako eragin nabarmena izan badu ere, txarrena, gerraosteko guraso belaunaldiak euskararen transmisioan izan duen porrota izan da; belaunaldi horrek, etsi-etsirik, ez baitu jakin izan bereari eusten. Zein adierazgarria, egoera horren aurrean, erbestetik itzultzean, Toribio Etxebarriaren (1) hitz hauei darien samina: *Nun*

(1) Toribio Etxebarria 1959an Hendaia-raino hurbildu zen erbestetik, baina ez zuen mugarik igaro. Urte horretako udan bisitatu zuen Juan San Martinek Hendaian eta argazki bat egin bere *Escritores euskericos* liburuan argitaratu zuena, non agertzen den Luis Ormaetxea eta Edorta Alberdirekin. 1964ko ekainean itzuli zen erbestetik Eibarrera (berrir Caracasera joateko) eta herrian ikusi dituen aldaketa izugarriak eraginda idatziko du *Aldenduan itxulitzia*, nondik hartuak diren samintasunezko hitzok. Ikus: *Ibiltarixanak* 162. orrialdea. (Juan San Martin adiskideari zor dizkiot ohar honetako argibideak).

(da) a danen euskeria? / Euskeraz Katekismua / euskera maittien izketia / ta euskeraz Sozialismua! Ba horrek guztiorrek eragiten du euskaltzale talde horrengan: elkartu egingo dira, antolatu egingo dira eta euskararen aldeko lanari ekingo diote.

Euskaltzale mugimendu horren hasieratik beretik ekiten dio Imanolek euskara irakasteari: Zabala Aranaren gramatikaren bidez lehenik, hurrengo Xabier Peñaren ikasbidearekin. Euskaltzale talde horrek bultzaturik eta Urkixo Mintegiaren babespean, Andoni Urrestarazu “UMANDI”ren gramatika argitaratzen da 1955. urtean. Irakasbide hori erabiliko du bere irakaskuntza jardunean, 1968az geroztik euskara batura makurtuaz zeharo. Rikardo Arregi (probidentziala Imanolen hitzetan) datorkigu gero euskalduntze-alfabetatzearen aldi berri bati ekinez eta prozesu horretan ere hartuko du parte. Urte askotako esperientzia oinarriturik bere *EUSKARA IKASBIDEA* deritzon euskara hobekuntzarako metodoa osatuko du, makinaz idatzitako 546 orrialde-multzoa, eta ikasbide honekin segituko hainbat eta hainbat talderekin, bere euskara irakaskintza lan emankorrean; irakasleak sortuko dira hortik gau-eskoletarako. Deba-arro osoan, pare bat urtetan bai, ikastoletako andereño eta irakasleei euskal ikastaro laburrak ematen jardungo du. AEK modu profesionalago batean eratu ostean utzi zituen bere euskara irakasaioak 20 urtetik gora horretan jardun ondoren. Doan jardun ere.



Imanolen beste alderdi bat aipatu gabe ezin bada utzi: 50. hamarkadako egoera itogarriak bultzatuko du erakunde abertzale klandestinoetan borrokatzera. Lehenik EKI-Nen eskutik, gero EGI eta azkenik ETA mugimenduan, 1961ean preso hartzen duten arte. Izugarrizko torturak jasanarazi zizkioten komisarian, seinaleak agirian uzteko inongo ardura gabe; zer zirrargarria haren gorputz guztiz ubeldua!. Lau urte egin zituen gartzelan. Harrezkero ez du politikan parte zuzenik hartuko, ez eta 1977.aren ondorengo

garai berri honetan ere. 1968an Granadako Zafarraya herritxoan egon zen desterraturik. Intenbide baketsu, demokratiko, justu eta adostuaren aldeko zen.

Ikastolen Gipuzkoako Federazioko talde bateragileko partaide izan zen 1971n Guraso Heziketa sailean. Hainbat eta hainbat hitzaldi eman zituen sasoi horretan, gurasoen konzientziak suspertze aldera. Eibarko ikastolako presidente ere izan genuen aldi batez.

Euskaltzaindiko urgazle izendatzen da 1975eko ekainaren 27an eta 1976ko martxoaren 27an irakurriko du “*Azentu diakritikoa Eibarko euskarari*” bere sarrera-hitzaldia. Euskara kontuan, beti Euskaltzaindiaren arauen konpliztaile zintzo, berehala onartuko ditu Arantzazuko bileraren erabakiak eta ondorengoak. Euskara batuaren zale zen baina Eibarko euskara izugarri maite zuen. Makina bat lan egin izan du Eibarko euskararen berezitasunak argitzen, bai hitzaldien bidez, bai idatziz, azken aldiari ...*eta Kitto!* herri aldizkarian: Gaur egun, gazteen artean euskararen erabilera asko gehitu baldin bada ere, ez zuen Eibarko euskararen etorkizunarekin esperantza handirik; kezkatuta gazteen artean entzuten den nolabaiteko pidgin horrekin. Komunikabideetan entzuten den euskararen kalitatearekin ere oso arduratuta, akats ohikoenen zerrendak eginak zituen. Heriotzera eramane duen gaitz zital hori dela-eta operatu aurretixoan, eskuartearen zeuzkan lanaren azken apunteak ordenadorean, uztailaren 23 eta 24koak: *Eibarko euskeriaren deklinabidia* eta *Eibarko euskeriaren entonaziñua*. Udaleko Euskara Batzordean, Eibarko euskara mintegian partaide, *Eibarreraz idazteko oiñarrizko erizpidiak* jarzteko ere eman zuen bere partaidetza.

Idatzita utzi digunaz, ikus aparte aurkezten ditugun haren lanen bibliografia zerrendak. Dena den aipa ditzadan, ginkiroki bada ere, argitaratutako haren lan idatziak: Mila *Euskal Olerki Eder*, *Euzko Gogoa* eta *Oleriti* ditu zenbait bertso *Maitale* eta *Lastarri* izenordez. Jakinen badiu saiakera batzuk, hala nola, *Euskal-joskera*, *Ikastola* eta *gurasoak*, *Eibarko “Máquinas de coser Alfa, S.A.” “Kooparatibak”* ale berezian. *Euskerak* Euskaltzaindiko boletinean lehen aipatutako sarrera-hitzaldia, eta *Eibarko ikastolaren historia txikia*. Itzulpenetan, *Munduan zehar*-eko 8. liburukia. Aldizkari eta egunkarietan artikulu egile: *Zeruko Argia*, *Eibar aldizkaria*, *Kezka*, *Anaitasuna*, ...*eta Kitto!*, *Egin*, eta *Euskaldunon Egunkarian*. Haren *Zeruko Argia* eta *Egineko* artikuluetan zenbait nabarmentzekotan: euskaltasunarekiko leialtasuna, zapalkuntza ororen kontrako jarri eta gertakizunen aurrean bihozkadak eta sentimenduak eraginda idazten zuela sarri; zenbait pertsona maite eta miretsiren hilberriak, hala nola *Edurne* bere arrebarena, *Indaleki Ojangurenena*, *Monzonena*, *Iñazio Gaztelurrutiarena*, *Santi Brouard* hil zuteneko *Independetzia!* deritzon artikulua, horregatik ia auziperatu zutena, *Txopirena*, *Juan Jose Etxabe* Eibarren euskara ikasle izan zuenarena, *Egunkarian Eusebio Osa* eta *Estitxurena*, *Erronkariko uskararena*; gartzelaz eta torturaz...; bai eta toponimiaz; industriaz; kirolaz; euskara eta ikastolaz.... Euskara ederrean beti.

Hitzaldiak, asko eman zituen, bai euskararen eta bai ikastolaren inguruan. Batzuk makinaz idatziak utzi ditu eta gehien-gehienak eskuz eta txukun. Hor, haren lanen zerrenda-eranskinaren (2) “*Beste Paper Batzuk*” atalean dago hitzaldi zerrenda, bai eta zein herritan eman zituen ere.

Azken aldi honetan, Eibarko zenbait pertsona adinekori elkarriketa grabaketak egin ziharduen: badu bat, oso luzea, Candido Eguren 92 urteko bere lagun min eta so-

(2) *Imanol Laspiur Zabalaren Lanak* (zerrenda-eranskina): I. Argitaratu gabekoak; II. Argitaratutakoak; III. Beste paper batzuk.

zialista zahar bizkorrari egindakoa, bai eta beste bat *Zatixa* elkartean 80 urtetik gorako beste eibartar talde bati egindakoeekin ere. Besterik ere izango da seguruenik. Arakatu egin behar, utzi dituen zinta pilaren artean. Denak aztertzeke.

Argitaratu gabeko “*Euskara Ikasbidea*” “*Morfo-sintaxia*” eta “*Beste paper batzuk*” izenburuean bildutako dokumentazioarekin eta grabaketekin, informazio-fondoa eratzeke asmoa du Eibarko Udalaren “Ego-ibarra” batzordeak.

Euskaltzaindia, ikastolak, herri-mugimendu eta Gobernu erakunde, horien guztien lanari esker, aurrera-pauso nabarmenak eman ditu euskarak azken 30 urteetan. Eta hori ezina zatekeen baldin eta oinarrian, herrietan, Imanol bezalako bide-egile, suspertzailerik eta bultzatzailerik izan ez balitz.

Imanol euskaltzale, langile nekaezin, kirolari, natura-zale, Club Deportiboko tertulia haietako solaskidea, oso maitea genuen Eibarren. Azken agur hunkigarria egin zitzaion Natibitate egunean Orbeaneko frontoian bai eta biharamonean ere, “*Euskarari bai*” ekitaldian bildurik ziren milaka eta milaka euskaldunekin batasunean eta memento berean izan genuen eliz-hiletan.

Onenak emateko zenean joan zaigu Imanol. Ez da ez erraza izango laga duen hutsunea betetzea. Agur, adiskide maitea.

Serafin Basauri

ANBROSIO ZATARAIN ETXEBESTE (1912-1999)

Donostia, 1999-XI-26

Bi Anbrosio Zatarain dira berezi ezinak: aita eta semea, Anbrosio Zatarain Goia eta Anbrosio Zatarain Etxebeste. Don Anbrosio deitzen zioten bati; Anbrosito, besteari. Neuk ere honelaxe bereziko ditut, bati Don Anbrosio eta besteari Anbrosio deituz, nahasketarik sortu ez dezadan.

Egia esan, ez nuen Anbrosio Zatarain Etxebesterekin harreman haundirik izan, nahiz eta Usurbilen lau urte egin. Batetik, ez zen Usurbilen erabat bizitzen, asteburu eta uda aldian baizik, eta San Esteban bailarako Iparragirre baserrian, gainera. Lehendik ere, jakina, garai hartako haundizki gehienek bezala, ez zuten jendearekin harreman haundirik. Ezta elizara etorri behar haundirik ere, etxean kapera eta apaiza bazituztenez Txokoaldeko sortetxean. Gainera, hurbilago zituzten San Estebango eta Aginagako elizak. Usurbilgo parrokiarekin, bestalde, asko lagundu zion familiakoa izan arren (parrokiako zenbait obra, organistaren soldatarako fundazioa, hilerriko kapera eta abar), gerra ondoan hoztu samarrak geratu ziren harremanak. Ez nuen, beraz, Anbrosio Zatarainekin topo egiteko aukera haundirik izan. “Eliza pobrea”ren aldarrikapenek ere ez zidaten, seguraski, harremanetarako gogorik berotu.


Hala ere, Zataraindarren entzutea oso gazterik nuen. Saturraran bidean urtero lau aldiz igarotzen ginen falangistek neskatilez beterik edukitzen zuten Txokioaldeko *Torrera* izeneko jauregiaren aurretik. “Hau Zataraini kendutako etxea duk”, jartzen ninduen jakinaren gainean bere ama etxe hartan neskame izan zuen usurbildarrak. Eta Gasteizko apaizgaitegiko irakasletzatik bota zuten D. Felix Zatarain apaiz on eta jakintsuaren berriak eman ohi zizkidan ondoren.

Anbrosiorekin, Euskaltzaindian izandako harremanez aparte, bi ditut oso gogoan. Usurbilgo ikastola “Paris”en jaio zen, “Paris” izeneko etxearen teilatupean. Baina leku hobearen eta haundiagoaren beharrean zenez, maizterrak hutsik utzi berria zuen Zataraindarren kaleko etxea, jardin eta guztiko etxea, eskatu genion Anbrosiori. Ezeren eragozpenik gabe utzi zigun, dohainik. Azkeneko aldiz, Donostiako Zubieta kalean duen etxean bisitatu nuen, gerra aurreko *Argia* astekariaren argibide eta argazki batzuk eskatzeko. Erori txar batetik ibilpidea galdua, baina burua argi, hantxe aurkitu nuen alemanetik santuen bizitzak euskaratzen.

Anbrosio, hasieran esan bezala, etxekoentzat eta usurbildarrentzat “Anbrosito”, Don Anbrosioren semea da. Aitaren berdina izenez, aurpegiz eta euskaltzaletasunez. Don Anbrosio, lurjabe haundi eta aberatsen artean ohikoa ez bazen ere, abertzalea eta euskaltzalea zen. Besteak beste, euskal kazetaritzan aintzindari izan zen Donostiako *Argia* astekariaren sortzailea; dirua jarri zuena alegia. “Nekazaritza” sailaren arduradun zen gainera bertan. “Lugin-zale” izenez argitaratzen zituen lanak. Baina *Argia*, kazeta

ezezik, liburuen argitaratzaile ere bazen. Bittor Garitaonandia, Lizardi, Ander Arzelus "Luzear", Joseba Zubimendi eta lagun zituen Don Anbrosioren ondoan hazi zen, beraz, Anbrosito.

Zataraindarrak ez ziren, jakina, lehendik ere ezer gabeak. Jose Luis Zatarainek eta Dolores Goiak, Don Anbrosioren aitak eta amak, sei seme-alaba izan zituzten. Alabak ez dakit karrerarik egin zuen, baina beste bost semeak karreradunak ziren: bi mediku, bat apaiza, bat haginlaria eta bestea botikarioa. Horrek berak adierazten du etxe onekoak zirela. Eta Don Anbrosio Zatarain Goia, medikua, "niña de oro" deitzen zioten Puerto Ricoko San Juan hirian jaio zen Rosa Etxebeste gaztearekin ezkondu zen. Baina ez luzarorako, Anbrosito, lehen semea, jaio orduko hil baitzen.



UMEZURTZ

Usurbildarrek besterik uste badute ere, jaiotzako agiriak dienez, Anbrosito Donostian jaio zen, 1912ko irailaren 27an, goizeko bostetan. Eta, haundizkiek santuen laguntza haundia behar izaten dutenez, Ambrosio, Miguel, Luis eta Cosme izenak jarri zizkioten.

Guk ezagutu genuen eta aipagai dugun Anbrosio Zatarain aitaren itzalak, umezurtz izateak eta ugazamaren hoztasunak markatua geratuko da betiko. Don Anbrosio bizi den bitartean "Anbrosito" izango da. 54 urte bete zituenean hasi zen "don" izaten. 1966an hil baitzitzaion aita, 85 urterekin. Neskamez eta haunditasunez inguratutako aita serio, zintzo, estu eta errespetagarriaren itzalean hazi zen Anbrosito, amaren maitasunik eta berorik gabe.

Azkeneko aldiz bisitatu nuen egunean kontatu zidan honek adierazten du zein gitorotan hazia izan zen Anbrosito. "Sei-zazpi urte izango nituen", esan zidan, "etxeko ka-

pera lorez eta argiz apaindua zegoen. Kanpoko jendea zetorren. Neskameari galdetu nion, harriturik: ‘zer gertatzen da gaur hemen?’. ‘Ez al dakizu? Zure aita ezkontzen da’ erantzun zidan”.

Era horretan jakin zuen aita ezkontzen zela. Eta egun hartatik aurrera ordurarte ezezaguna zuen Carmen Ibañez izango zuen amatzat. Eta ama berriarekin ohitzen hasi orduko Jose Jabier jaio zitzaion, ugazamaren bihotz osoa bereganatu zuen anaia txikia. Anbrosito gaixoa!

ATZERRIAN

Ezagutu zutenek diotenez, Don Anbrosio aranista zintzoa zen, industriaren kontra-koa, bazterrak zikintzen eta Euskadi erdalduntzen zituelako. Pentsamolde horrekin harritzekoa da nola utzi zion bere seme Anbrositori industri ingenieritza teknikoa ikasten. Aitak ere ez zuen medikutzan lanik egin beharrik izan. Semeak ere ez zuen lanik egin beharrik izango. Hala usteko zuen aitak, noski. Berdintsu zitzaion, beraz, karrera bat edo bestea egitea. Jakinduria eta kultura izatea zen garrantzizkoa.

Eta Anbrositok Bilbon karrera amaitu bezain azkar, gerrateari ihesi, Paben babestu zen familia guztia. Bordeleko Unibertsitatean Zientzietako lizentziatura egiteko balio izan zion Anbrositori hango egonaldi luzeak. Baina hantxe gelditu zen betiko Jose Jabier, bere amaren babesean.

Don Anbrosio zaharrak, Usurbila itzultzeko aukera iritsi zitzaionean, erabat hondatua aurkitu zuen *Torrea* jauregia. Hango altzari eder haiek ere norbaitek lapurtu zizkion, jakina. Baina Don Anbrosio, gizon kementsua, Gobernazioko Ministroarengana joan zen, altzari haien galdezka. “Non dauden baneki, berehalaxe itzuliko nizkizuke” erantzun zion ministroak. Eta Don Anbrosiok: “Ez daukazu urrutira joan beharrik. Hementxe bertan daukazu. Eserita zauden besaulki horren azpikaldean aurkituko dituzu nire izen-abizenen inzialak”. Esan eta izan. Horrelaxe bereganatu zituen *Torreko* bere altzariak Don Anbrosiok.

Aita aberatsaren eta ama aberatsagoaren semea izan arren, haurtzaro eta gaztaro gogorak izan zituen Anbrositok. Harritzekoa al da, bere barnera bildua, isila, bakartia izatea, nahiz eta harremanetarako, gehienetan, adeitsua eta atsegina gertatu? Harritzekoa al da hain iritzi eta ildo finkoetan hazitakoak hainbeste aldaketaren aurrean inoiz purrustadaren bat egitea? Harritzekoa al da heziera hain estu eta txintxoa izan zuenak *Zeruko Argiari* “Inpernuko sua” deitzea?

EUSKARAZKO LANA

Baina, bestalde, bere haziera eta izaera hori izan dira Anbrosioren baliabiderik one-nak. Zazpi izan baitzituen Maria Isabel Gordoia emaztearekin, seme-alabei ikasbide txarrik ez ematearren, Industri Ingenieritza Teknikoan eta Santo Tomas Lizeoan irakasle-tan egin zituen lanez aparte, liburu eta musika artean eta euskara ikertzen eta euskaraz idazten igaro du bere bizitza luzea. Josu Oregi, Karlos Goena, Felipe Jurramendi eta abarrekin euskaratzen ari zen “Duden” entziklopedia bukatuxea, hizkuntzaren inguruko

eztabaidengatik alde batera utzirik, Santuen Bizitzak ari zen alemanetik euskaratzen, azken aldi honetan.

Gerra aurreko idazkeran ohitua, atzerrian ere Orixe, Sebero Altube, Abelino Barriola eta orduko euskaltzaleen laguna, Anbrosiori higuigarri gertatu zitzaizkion zenbait aldaketa. Bere-bereak zituen iritziak izateko adina euskara eta hizkuntza ere bazekizkien, bestalde. Iritzi horien lekuko dira *Euskera* aldizkarian argitaratu zituen lan hauek: *Euskerazko itz berriak* (1968); *I-letraz bukatzen diran itzak beste itz edo atzizkiekin lotzerakoan nola jokatzten duden* (1974); *-Arr bukerak duden itz batzutaz* (1974); *Edur, erur, elur = zein da zaarrena?* (1974); *Ñ eta Ll idaztearen alde* (1974); *-Tasun eta -keri(a) atzizkieri buruz* (1976); *Garitaonaindia'tar Bittor neure gogoan* (1977); *Corominas'en iritzi bati buruz* (1977); *Asko etorri dira ala asko etorri da?* (1977); *"H" ikako aditz-jokoetan* (1977); *Euskeraz, euskerazaz, euskeratzaz, euskereaz* (1977); *Ni naiz eta i aiz* (1977); *"Andre" eta "Andra"* (1977); *H'ri buruzko txostenaren aurre-idazpena* (1978-2); *Zubittoa noiz?* (1978-2); *Itz bukaeretako "rr" gogorrak* (1978-2); *Aipatze-atzizkiari buruzko txostenaren aurreidazpena* (1978-2).

Euskaltzaindian ez ezik, *Euskerazaintza* aldizkarian ere argitaratu ohi zituen bere iritziak. *Izan du ala Edun du* (1987), *Orixe'ren bertsokerak* (1988), *Euskera lantzen* (1989), *Soiñ itzaren adierazpenaz* (1989), *Idazte arauak* (1991), *Orduen Liturjia. Argi naiko batzuk* (1991), *Duan eta duen* (1993), *Itz elkartuen osaera eta idazkera* (1994), *Euskeraren Batasuna lortzeko bidea* (1995), *Euskera irakasten* (1995), *Mila pezetatuko papera* (1995), *Gure aita* (1995), *Gu bagoaz-ni baita* (1996), *Euskaltzaindia'ri biotz biotzez* (1996), *Euskaltzaindia'ri "batua"ri buruz* (1996), *Lhande eta Laffitte'ren iztegiko LL eta Ñ dun itzak* (1996), *Koine baten bearra?* (1997), *Euskaltzaindiaren erabaki batzuk* (1997).

Ikerlancez gainera, *Argia*, *Euzkadi*, *Euzko-Deya*, *Euzko-Gogoa*, *Zeruko Argia*, *Oleriti*, *Diario Vasco*, *Deia* eta abarretan argitaratu zituen Anbrosiok zenbait gertaera, ipuin, olerki eta abar. *Alos-Torrea* izeneko antzerkia eta beste lan batzuk ere baditu onduak: matematikako testuak eta haize-erroten teknikei buruzko lanak, esate baterako. Merezimendu osoz izendatu zuen, beraz, ohorezko kide Euskal Idazleen Elkarteak, 1996an.

Baina euskera bakarrik ez zuen Anbrosiok landu, baita musika ere. Jose Olaizola izan zuen maisu. Azkueren Kantutegiaren hirugarren argitalpenari egindako oharrak, aita Zabalarri bertso doinueta eskainitako laguntza eta *Eusko Jakintza* aldizkarian argitaratutako *Gure kanta doinuben ttunttunak* dira, besteak, beste, Zatarain musikariaren fruituak.

Gizon jakintsua zen Anbrosio: zientzia arloan, hizkuntzetan, musikan, euskal gaian. Eta jakintsuekin zituen harremanak: Azkue, Aita Donostia, Orixe, Barandiaran, Lekuona, Mitxelena eta abarrekin. Dozenerdi bat hizkuntzaren jabe zen. Politikaz, historiaz, geografiaz, edozertaz zekien asko. Dirudun gutxi bezala abertzale eta euskaltzale zintzoa, 1999ko maiatzaren 3an hil zen Donostian euskararengatik eta euskarako aldaketengatik asko sufritu ondoren. Euskaltzaindiak ohore egiten dio gaur euskaltzain urgazle saiatuari, berantiarra bezain zinezkoa den esker ona agertuz. Euskaldun fededun zenez, berriz, zeruko argiak argi dezala betikotasun guztian gure Anbrosio Zatarain.

Mikel Atxaga

JOSE ANTONIO LOIDI-ren OROITZAZ (1916-1999)

Donostia, 99-XI-26

Ustegabean joan zaigu Jose Antonio Loidi Bizkarrondo jauna, hain idazle eta gizon on bezain langilea, aurtengo (1999) uztailearen 9an. Izatez Errenteriarra zen, 1916ko abuztuaren 22an jaioa.

Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1957. urtean eta euskaltzain ohorezko 1998.ean.

Farmazia ikasketak Madrilén eta Santiagon egin zen 1942an lizentziatu arte. 1943an lortu zuen Irunen Farmazia plaza eta bertan bizi izan da hilarteraino. Baina geroago, 1957an, Optika-Akustika ikasketak egin zituen Madrileko Unibertsitatean. Eta ondotik, Madrilén bertan, 1960an oposizioak eginaz sartu zen Cuerpo de Inspectores Farmacéuticos delako erakundean.

Añamendi argitaletxeak *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*-ren XXV. tomoko (1998) 284-286. orrialdeetan aski zabal eman zituen bere zizitza eta lanei buruzko berriak.

Fabián (Paben) Loidi Peña (1909-1985), Zarautzen 1934. urtean ospatu zen V. Eusko-Olerti egunean, bere “Orio’ko Umezurtza” poemarekin lehen saria irabazi zuen idazle hura aitaren lehengusua zen. Florentino Loidi Iturzaeta orioarra, Jose Antonioren aita, Miguel Primo de Rivera-ren diktadura garaitik Errenterian bizi zen. Han bertan Sociedad Orereta alogeraz hartu zuen Eusko Alderdi Jeltzaleak Batzokitza etabiliko zuen etxea eta gerrate aurrean zenbait urtez Florentino Loidi bertako buru izan zen. Beraz, galdu berri dugun gure idazle honek bere euskaltzaleasuna etxetik zekarren. Hogeita-marren bat urte zituen euskara lantzen hasi zenean, bereziki Azkueren *Morfología*, Al-tuberen *Erderismos* eta Zabala eta Lopez-Mendizabalen gramatikak aztertuz.

Oarso, Orereta, Zeruko Argia, Jakin, Olerti, Antzerti, Uranzu, El Bidasoa, Bidasoan, Egan, Quart creixent, Acofar, Pliegos de Rebotica, Cuadernos de Hidrología, Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria - Boletín de Estudios del Bidasoa eta beste zenbait aldizkaritzan argitaratu zituen bere lanak.

Gipuzkoako Colegio Oficial de Farmacéuticos-en sartu zenetik, etenik gabe jarraitu ditu Bidasoako uren ikerketak. Oroigarria zaigu Consejo General de Colegios Farmacéuticos de España delakoak 1971an eman zion saria bere: *Posible aprovechamiento del agua del río Bidasoa para el abastecimiento de las ciudades de Irún y Fuenterrabía y Caminos de Santiago de Guipúzcoa* zeritzan ikerlanagatik (1975ean erakunde berak argitaratua). Handik zazpi urtera, Espainiako erakunde berak saritu zion: *Farmakofitonimia* (1982) zeritzan euskarazko lana.

Bere ogibidezko lan horiez gainera, bizitzan zehar etenik gabe jarraitu zuen euskaraz eta euskarari buruzko lanetan ere. Euskal literaturan ezaguna ez ezik oso nabar-

mena genuen, bai gaiaren aldetik zein hizkuntzaren aldetik. 1954. urtean Euskaltzaindiak antolatu zuen literatura sariketa Yon Etxaidek irabazi zuen *Joanak joan* Etxahunen bizitzaz osaturiko eleberriarekin; bigarren saria *Bide izkutua*, Hugo Wast-en *El camino de las llamas*-en itzulpenak eta hirugarrena Loidiren *Amabost egun Urgain'en* eleberriak eramanez.

1955. urtean argitaratu zuen *Amabost egun Urgain'en* deritzan eleberri hori. Urte berean Mitxelena egin zion *Egan* aldizkariako "Liburuak" sailean gorapenez beteriko erreseña (ikus *Egan*, 1955, 5-6, zenb., 72-74. orr.). Ondorean, eleberri hori bi aldizkaritan zatika emana izan zen, eta berriz liburua osatuz, argitalpen berria izan zuen 1968an. Honi Nikolas Alzola (Anai Berriotxoa) zenak egin zion erreseña, zenbait xehetasun gehituz (ikus *Egan*, 1968, 1-6 zenb., 149-150. orr.). Eleberri hori, Euskal irratian irakurri ere aurkeztua izan zen.

Lehen argitalpen hari Aingeru Irigaray euskaltzainak egin zion Aintzin Solasa. Non zioen, besteak beste: "Erakuspen eta irakaspen ederra ematen digu J.A. Loidi jaunak *Amabost egun Urgain'en* bere liburuño polita argitaratuz. Ezta itzulikatua, bere burutik ateraita baizik, eta Euskaltzaindiak eraginikako konkursoan aipamen berezi bat irabazi duena". Eta hitzaurre horren bukaeran, Irigaray-k, irakurleari honako ohar bat luzatzen zioen: "Eskuetan duzun liburu unek orrialdeetan barrena abiatu bezain laister sumatuko duzu irakurlea, gorapilloa nola desegiten den ikusteko gutizia, eta lenbiziko liburua egin duen norbaitendako ezta gauza apurra. Zorionak, Loidi jauna, eta segi aurrera".


Gotzon Garatek *Jakin*-en idatzi zuen "Euskal polizia eleberrien hasiera" zeritzan saio hartan zioen: "Besteak beste polizia eleberriak izan behar dituen bi alderdi gogor zituen Loidirenak: a) jakinmina piztea eta b) hizkuntza jatorra erabiltzea". Bukaera aldera beste honako hau esango digu: "Loidiren eleberriak goiena jo zuen, euskaraz denez bezainbatean" (ikus *Jakin*, 105. zenb., 1998ko martxoa-apirila, 59-60 eta 64-67. orrialdeak).

Esan beharrik ere ez zein harrera ona izan zuen euskaldun irakurleen artean. Garai haretan euskarazko liburuak hain urri zirenez, nik neuk, eskuetan hartu nuen une berean geldiunerik gabe irakurri nuen, eta gerora ere atsegin handiz behin eta berriz euskara jatorra, bizia, aberatsa, ulertzerreza eta argia bezain bikaina edukitzeaz gainera, gaia ere aski berria genuen euskal literaturan. Bere muinean, polizi giroko gaia noski, mugako kontrabandogintzan oinarriturik. Askorentzat, gai hori, lehen aldikoa zen gure euskarazko literaturan. Eta uste hori zabalduz indartu zen gure egunotara arte. Horren lekuko ditugu, hilberria emanez, Donostiako *El Diario Vasco* egunkariak 1999ko uztailaren 10ean eta *Euskaldunon Egunkariak*, handik hiru egunetara, hilaren 13an, eskainitako artikulua.

Baina, hala ere, inoiz ez dugu ahaztu behar, kontrabandogintzan oinarrituriko eleberria, bere garaian ustez itzulpen gisa hainbeste zer esan eman zuen J.-B. Daskonagerreren *Athea gaizteko oihartzunak*, hor dagoela (Baionan 1870.ean euskaraz argitaratua). Aipatzen dudana, zer esanari buruz, irakur Fr. Luis Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca*, bere bigarren argitalpenean (Arantzazu, 1979) 168-169. orrialdeak. Dena dela, horretaz inork zehatzago aztertu nahiko balu, Daskonagerreren honek Donostian izan zuen elebidun argitalpen bat, 1970. urtean, Rodolfo Bozas Urrutiaren hitzaurrez eta gaztelerazko itzulpenez.

Hala ere, ukatu ezinezkoa zaigu Loidiren polizi nobelak gai hortaz gure literaturan izan zuen eragina. Gotzon Garatek bere saiolanean ongi zioen bezala, horri esker, ondotik etorriko zitzaizkigun Mariano Izeta, Txomin Peillen, Xabier Gereño eta beste zenbaiten eleberriak.

Amabost egun Urgain'en, Jose Antonio Loidik bere kontura argitaratu zuen lehen aldikotz, Jose Luis Nabaskuesen irudiak edergarri zituela. Oraindik ez ginen pertsonalki elkar ezagutzen, baina zenbait aleren eskariak egin nizkion cibartar euskaltzaleen artean gomendatuz zabaltzeko eta, hara hor, uste gabea ale bat igorri zidan bere eskuizkribuzko eskaintzarekin, aldi berean gutun bat ere bai, non zioen: “Jaso nituen jiro postales biali zenizkidazun 256,50 pezeta ta zure azkeneko eskutitza. Milla esker guziokatik; ez didazu mesede txikia egin. Zu bezelako adiskide ta euskaltzale batzueri eskerrak, oso ederki saldu da nere eleberria. Ontaz ez zaizkit ale batzuek besterik gelditzen. Ez dakit entzun dezun, baiña orain, katalanera itzultzen ari dira Barcelona'n, euskeraz dakien katalandar bat eta katalaneraz dakien euskaldun baten artean, ango argitaltzalle (Alberti) baten aginduz, bere “Nova col·leció lletres” delako, novela katalan sorta batean argitaratzeko asmotan”.



Hor aipatzen zuen katalancrako itzulpena, 1961ean argitaratu zen, *Quinze dies a Urgain* izenburupean. Eta han ere harrera bikaina izan zuen.

Eleberrri horren ondotik, Loidiren sorketazkorik, nik dakidanez, “Lana!!” zeritzan ipui gogoangarri bat bada, *Egan* aldizkarian argitaratu zuena (*Egan*, 1980-1981, 1-6 zenbakia, 98-116. orrialdeetan). Baina ordurako eginak zituen beste itzulpen lan batzuk ere. Hara nola: J. Antonio Zunzunegi-ren “Itxasoa...!” (*Egan*, 1957, 3-4 zeb., 162-169. orr.); eta Salvador Espriu-ren “Assaig de Cantic en el temple”, “Abes-ekinañdia Txa-

donean", *Obra poética* (Barcelona, 1963), XXXV. or. (ikus itzulpen hontaz N. Alzolak BSVAP, 1964, XX, 179. orrialdean zioena). Horiez gainera, Rabindranath Tagore-gandik itzuli zuen "Txori galduak", 1966an *El Bidasoa* aldizkarian argitaratuko zuena. Bestelako zenbait itzulpen labor ere maiz egin zituen, adibidez, J.M. Castillo Balbas-en *Argazkiak Irún atzo. Fotografías Irún ayer* (1988) zeritzan liburuari J. Caro Barojak gatzeleraz egin zion hitzaurrea euskaratuz.

Beste zenbait lan ere argitaratu zituen *El Bidasoa* zeritzan aldizkari hartan. Esate baterako, "La sol del Bidasoa" 1955ean, "Euskerismos en el castellano popular irunés" (1956an eta "Evolución histórica de la ciudad de Irún". Azken hau eta "Irún bere aurrerabidean" (1970) Irungo Udalak sarituak izan ziren.

Irungo Udalak 1969an Farmazia inspektore izendatzeaz, *El Bidasoa* aldizkari hartan azaldu zuen: "Estudio de la potabilidad del agua del río Bidasoa" ikerlana. Ondoko urteetan, haren jarraipenaz, Bidasoako hidrologia analisiez beste zenbait ikerketaren gehigarriak eman zituen. Emilio Navas zenak zehazki jaso eta aipatu zituen lan haiek, beraz ikus: *Irún en el siglo XX (1960-1975)* liburuaren 482. orrialdean.

Jose Antonioren beste liburu aipagarri bat dugu *Euskal Jaiak / Fiestas Euskaras* (1985), Manuel Lekuona zenaren hitzaurreaz, Antoine D'Abbadie 1881ean sortu zituena jai haien berriak laburki emanaz eta ondotik luze eta zehatz Irungoetan mugaturik, agiriak lekuko dituela agertuz.

J.A. Loidi, zenbait ekintzaren artean, Irungo ikastolen sortzaileetarikoa bat genuen eta baita "Luis de Urantz" Kultur Taldearena ere. Elkarte hau sortu zenetik buru egin izan du eta kultur talde horren ardurapean 1984tik ateratzen den *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria - Boletín de Estudios del Bidasoa - Revue d'Études de la Bidassoa* deritzan eman izan ditu bere azken lanak. Merezi du hemen horien berri ematea. Besteak beste, lehen alearen aurkezpenetik hasi eta etenik gabe jarraituz argitaratu eman baitzuten, bai euskaraz eta bai erdaraz, honako iker lan hauek:

Gure asmoak. Nuestros propósitos. Nos propos (I. alea, 7-17).

Urantzu - Arantz - Iranzu (I., 23-37. orr.).

El cólera morbo en Irún. Análisis médico-farmacológico (II., 93-132).

Euskararen egoera Irunen 1936a ondoren (III. 221-244).

Formas castellanas en el euskara labortano al norte del Bidasoa (IV., 141-168).

El agua del río Bidasoa (VII., 67-92).

El botánico Lacoisqueta. Las etimologías y otras curiosidades en su obra (IX., 165-188).

El nombre de Irún: su origen, su significado (X., 187-206).

Divagaciones sobre la grafía en la documentación irunesa (XI., 77-104).

Euskara "El Bidasoa" aldizkarian (XII., 115-162).

Hondarribia - Fuenterrabía - Fontarabie. Origen y significado de estos nombres. Fontem Rapidum, Ondarrabia, Fonte arrabia, Onyarbi, Futaravia, Ondarriui, Fonteranda, X, X, X, X, (XIII., 185-232).

Presentación pública del grabado practicado en el dintel de la puerta principal de la casa “Beraun” en memoria de Luis Rodríguez Gal, “Luis de Uranzu” (XV., 7-16).

Alarde de San Marcial. Participación de las mujeres (XV., 17-34).

Bukatzeko, bizitza guzian zehar bere katolikotasuna hain zintzo bete zuen gizonak, mundu honi agur egiteko muga unean, hilzorian agertu zelarik idatzi zituen ondoko gogoeta oroigarri hauek:

*Zu, zera, Jauna, Jaun Ona.
Zu nere egile ta euspena,
Zu zera, Jauna, lehen, orain, gero,
Zu beti-beti Zarena.*

*Zuk neri, Jauna, zergatik,
Eman didazu zorionik?
Horgatik, Jauna, ludi hontan nauzu,
Itxoiten hiltzen bizirik.*

*Ez eman, Jauna, zorionik,
Zu maitearren ordainik,
Opa det, Jauna. Zuk ni bezala,
Maite izan, bai Zu, ere nik.*

Juan San Martin

BERNARDO ESTORNES LASA (1907-1999)

Donostia, 1999-XI-26

Estornes Lasa abizen bikoitza historia da XX. mendeko euskal kulturaren, eragin nabarmena izan baitu letren eta argitalpenen arloan. Nortasun handiko gizonen eskutik altxor erraldoia sortu du *Auñamendi* ikurrak eta herrimina izan da eragileen ezaugarria.

Bernardo, Mariano eta Jose hirukote ospetsua, bakarka nahiz hiruak batuta, erronkaria heriotzeratuaren bozeramaile gartsuak izan dira, bakoitza bere modura, mende osoan zehar. Nafarroako euren haran zokoratua hil zorian zetzan gizon hauek bertako herri-jakintza eta *uskara* berezia plazaratzeari omodio hutsez ekin ziotenean. Erronkaria erdi-ihartuaren azken orduko gudari bulartsu izan dira Estornes Lasa anaiak erdi aroko zaldun ameslarien antzera.

Euren ekimena ez da, noski, indar galduen ereintza antzua gertatu, eta Irati mendiko enbor tantaian oihan estuaren moduko ondare aberatsa da gaur euskal kulturaren alo-rean *Auñamendi* izenburuarekin egokitutako bilduma emankorra.

Hirukotearen azken zutabe eta sustatzaile aspergaitza izan da azken uneraino itzali berria den Bernardo, gizon xalo, langile izkutu eta euskaltzain ohorezkoa. Izaban sortu zen 1907ko maiatzaren 11n. Sei anai-arrebatan zaharrena izanki, aitaren izena eman zitzaion bataioan.

Hain euskaltzale sutsuaren ibilbide errotuan bitxia badirudi ere, Bernardok Zaragozan ikasi zuen liburuaren bidez euskara. Hamabost urte beteta gero ekin ziola aita-amen mintzairaz jabetzeari, aitortzen zuen berak. Txepelkeriarik gabe hartu zuen, noski, bi-hotzari zegokion eginkizun hau eta, hadik laster, hogeitertutan idatzi zuen han bertan *Erronkari* (1927), bere lehenbiziko liburu euskalduna. Ikaslearen adore eredugarriarekin batera, mende hasierako erronkariaren ahulezia adierazten du gertakizun honek. Gal-zorian aurkitzen zen Erronkariko *uskararen* amaizun bihurtu zenak, ez zuen euskara bere ama-hizkuntza izan.

Izabako eskolatik merkataritza irakasletako ikastaroak egitera joana zen Aragoiko hiriburura, eta Donostiara aldatu zen 1929an titulua lortu bezain laster. Profesional lanari zegokion ildotik abiatuta 'Estornes ikastetxea' izeneko merkatalgoko ikastaroak emateko akademia sortu zuen Gipuzkoako hiriburuan. Zirriborro batzuetan azaltzen duenez, 45 bat neska-mutilen ikaslegoa lortu zuen. Bere biziko ezaugarri nagusia izango zen argitalpenen ildotik saiaturaz, *Euskal idazlasterra*, Taquigraffa vasca (1929) bigarren liburu plazaratu zuen. Gazte denborako lehen ogibideari zegozkion beste bi liburu argitaratu gabeen prestakuntza aipatzen da bere eskuizkribuetan: *Cálculos Mercantiles* y *Financieros* deritzana, alde batetik, eta *Contabilidad Elemental* y *Superior* delakoa, bestetik.

Diru kontularitza eta finantzen mundua baino erakargarriago zitzaizkion, ordurako, murriztasuna eta gutxi gehiago eskaintzen zioten euskara eta euskal kultura, bere biziko erronka bihurtuko zirenak gero. Ogibidearekin tartekatuz berehala agertzen hasi zen euskaltzaletasuna, eta Eusko Ikaskuntzako bulegoburu eta liburuzain izendatua izan zen.

Espainiako gerrate zorigaiztokoak eten zituen abiada itxaropentsuan hasitako Bernardo euskaltzalearen lehen urratsak. Atzerrira ihes egin behar izan zuen Euskal Herriko beste seme jator askoren antzera. Frantzia ezkondu zen Ignazia Zubizarreta bizilagun izan duenarekin. Lau seme-alaba izan zituzten gero Txilen, eta Santiago hiriburuan hogeitaka urte igaro ondoren 1958an berriro Donostiara itzultzen da. Aldapetako malda aipatzen da garai honetako izkribuetan, eta hor zatekeen Sekundino Esnaola kaleko egoitzara aldatu aurretik familia bizi zen etxea.

Gizonaren lana eta emaitzak gertakizun hauek baldintzatzen dituzte. Horrela, bada, hiru atal nagusitan bana daiteke napar ospetsuak euskal kulturaren alde egindako guztia:

Gerra aurea

Gaztea izan arren, garai hartan Euskal Herriko aldzkari gehienetan azaltzen hasten da bere izena, hala nola, *RIEV*, *Euskalerriaren Alde*, *Yakintza*, *Euzkadi*, *Vida Vasca*, *BRSVAP*, e. a. Erbesteratu aurretik Legazpi kalean 5-1. solairuan egiten zuen bizia.

1936. urte aurreko epe laburrean idatzitako liburu hauen zerrenda azpimarra daiteke, aipaturiko bi lehen liburuez bestalde:

Artistas Anónimos. La talla de madera y especialmente la de boj (1930)

Sabin Euskalduna. Eusko umeei euskaraz irakurtzen erakusteko bigarren liburua (1931)

Mapa Vasconia (1932)

Resumen Bibliográfico Vasco (1933)

Euskal edestia (1935)

Indumentaria Vasca (1935)

Eskuartearen eginkizun zeraman liburugaien zerrenda luzea da ordurako, hala nola, *Narraciones Vascas*, *El Verbo Roncalés*, *Diccionario Roncalés*, *Manual de Conversación Roncalesa*, *El Evangelio de San Mateo*, *Historia de Euskal Erria*, *El Valle de Erronkari* eta Enziklopediaren lehen urratsak.

Bigarren jarduera

Ia 15 urteko isilunea nozitu zuen atzerrian izabarraren produkzioak. Bigarren abiada gai askotariko liburu batekin eman zuen, *Estética Vasca*, *Paisaje*, *Arte*, *Belleza* (Bs. As. 1952), delakoarekin alegia. Historia gaiak ditu, hala ere, gogokoenak bigarren aldi honetako bere izkribuetan. Oso emankorra izan zenez gerra osteko jarraipen hura, lan nagusiak aipatuko ditut bakarrik.

Eneko Arista, Fundador del Reino de Navarra (Bs. As. 1959)

El Ducado de Vasconia (1959)

Orígenes de los Vascos (4 t.)

Geografía Histórica de la Lengua Vasca (2 t.)

Diccionario Auñamendi Español-Vasco (5 t.)

Mundua Euskal Erriaren gogoan (1975)

Sobre Historia y Orígenes de la Lengua Vasca (1967)

Cancionero Popular del País Vasco (4 t.)



Liburugintzan oso estimatua eta arrakastatsua gertatu zen bere garaian Estornes Lasatarren bilduma, eta gogokoa zuten era guztietako idazleek euren izenak bertan agertzea

Auñamendi argitaldaria

Garrantzitsua izan arren Bernardoren aipaturiko idazle lana, ezagunagoa gertatu zen berak sortu eta bultzatutako argitaletxearen emaitza. Berez zetorkion Izabako seme presuari argitaldaritzako zaletasuna eta sena. Gazte-gaztetatik saiatu zen bidea urratzen eta *Beñat Idazkiak* izeneko argitaletxea sortu zuen 1934an. Preziatua da euskaltzaleen liburu arasetan orduan plazaratutako Zabalkundea Sorta. Gerrak apurtu zuen bi urteko bizi labur baina oparoarekin argitaletxearen jarraipena.

Familiak eta berak jakinen dute gero erbesteko gabezia gorrian izkribuen isilune luzearekin batera gaingitutako zailtasunen berri. Argitalpen kontua da berriro, maila apalean bada ere, urte horietako aipamen bakarra: *Batasuna* izeneko aldizkaria plazaratu zuen Bernardok 1941.ean. Bere izaera aztertzeko benetan esanguratsua da Txileko saio hau.

Ez da harritzekoa, beraz, Euskal Herrira itzuli bezain laster, 1958an bertan alegia, Auñamendi Argitaldaria sortu izana. Francoren agintepean euskal gaici buruz zuzendutako *Azkue* eta *Aralar* sorta bi kaleratu ziren askoren harridurarekin. Ausardia behar zen horrelako ekimenak burutzeko gerra ostean euskarak nozitzen zuen erasoak ikusita. Estornes Lasatarrak argitaratzaile ez ezik, oinarriko idazle ziren bilduma horietan.

Esku liburuen zerrenda gotortu eta heldutasunera iritsi orduko, erantzunkizun larrigoko alorra lantzeraz jo zuen Auñamendi Argitaldaria. Erbesteko itzuleraren hamargarren urtean, 1968an alegia, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* izeneko erronkari aurre egin zioten Bernardo eta Mariano bi anaiek. Inork ez zekien gaualdi liluragarri bateko amets zoroa, ala zaldun kementsu eta hezikaitzen gataska harroa izan zitekeen.

Arduradun nagusia izan den Bernardoren hogeita hamar urteko jarraipen etengabeak eman du bere emaitza: 72 liburuki mardulen bilduma erraldoia burutu du gizonak, eta moldiztegira igortzeko prest zegoen azken zenbakia ikusteko arnasa luzatu dio berari biziak. Finis coronat opus.

1999. urteko abuztuaren 11an hustu zen Donostian Bernardo Estornes Lasa Auñamendi Argitaldariaaren sukaldeko auspo bulartsua.

Baina ez da isilik joan eta ohi zuen eran entzunarazi du bere oihua. Azken orduko hiru liburu utzi ditu testamentu edo azken nahiaren zigiluarekin. Hauek dira:

Diccionario Español - Uskara Roncalés. Bere lehen ametsetako lana zen. 1929an hasi eta hein batean egina zuen itsas beste aldera joan aurretik. Orain azken oroitza-penen lekukotasuna eman nahi izan dio egileak lurreko denon atzerria uztean. Honako hau zioen niri idatzitako gutun batean: "Quiero dejar un recuerdo de la euskaldunidad de Erronkari que yo conocí cuando toda la gente hablaba en 'Uskara', excepto los muy jóvenes" (15-XI-1990).

Memorias. Nortasun aberats eta langile porrokatuaren azken azalpen bihozkor honetan, bide guztietako ibiltari trebeak egoera larri eta bide neketuan garaile ateratako konzientziaren oihartzuna utzi du: *Recuerdos y andanzas de casi un siglo* (3-IV-1994), neuk jasotako beste izkribu batean bere hitz xumez esana.

El Cantar de Euskalerría. Etxean eta kanpoan beti bizirik edukitako aberriari mai-tasunezko azken abestia. Hitzaurrea eskatu zidanean, besteak beste, argitaletxeak ze-

karzkion buruhausteak ez zirela dirurik gabe aurrera ateratzen esaten nuen, horren merezimendua ere nolabait azaldu nahian. Merkatalgo eta finantzetako maisuak bere lan eta merezimenduen kutsadura arrunta bezala hartu zuen diruaren aipamen laburra, eta honela erantzun zidan: He recibido la presentación de *El Cantar de Euskalerrria* que me parece muy bien hecha. Solamente desearía suprimir la frase ‘y el mundo de las finanzas’, ‘ya que soy ajeno totalmente al mismo y me desenvuelvo dentro de los límites de una empresa editorial con apenas nueve empleados y en parte, familiares’ (15-XI-1990).

Nire aldetik ez zegoen hitz horiek baztertzeko inolako eragozpenik, baina edukia azaldu nionean, ez kentzeko erantzun zidan. Herriminaren zaurietan min ematen du dirukeriak. Funtsean, erromantikoen kastakoa zen merkataritzako maisua; ez euskal kulturarekiko merkataria. La ilustración de Canto y Cantares de Euskalerrria es un corte de tronco de un árbol con el mosaico donde se ha programado la vida (5-IV-1994), —idatzi zidan beste behin. Zuhaitzaren enborreko eraztun marrak alegia, bizitza osoko gertakizunen ardatzean.

Sariei dagokienez, Euskaltzain urgazle izendatua izan zen 1966an, eta euskaltzain ohorezko, geroago.

Eusko Ikaskuntzak eratutako “Manuel Lekuona Saria” jaso zuen 1992an

Uztarrotzeko herriak omenaldia eskaini zion urte berean.

Nafarroako Gobernuan Kultura Kontseiluko partaide nintzela 1997an, ‘Príncipe de Viana’ sarirako aurkeztua izan zen.

Hau da Bernardo Estornes Lasa zenaren bizi luze eta emankorrari buruz eskatu zaidan goratzarre apal laburbildua.

Jose Mari Satrustegi

